

Inkomunikazioa eta tortura



Azterketa egituratua Istanbulgo
Protokoloaren arabera

Inkomunikazioa eta tortura

Azterketa egituratua Istanbulgo
Protokoloaren arabera



ARGITUZ, Giza eskubideen aldeko elkarteak

AEN, Asociación Española de Neuropsiquiatría/ Osasun Mentaleko Profesionalak

Ekimen Elkarteak, Arazo Sozialen Azterketarako Elkarteak

Grupo de Acción Comunitaria (GAC), Giza Eskubideen eta
Osasun Mentalaren baliabideetarako gunea

Jaiki-Hadi, Prebentzio eta Asistentziarako Elkarteak

OME, Osasun Mentalaren Elkarteak

Osalde, Osasun Eskubidearen aldeko Elkarteak

Gizarte-Psikologia Saila,
Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Inkomunikazioa eta tortura: Azterketa egituratua Istanbulgo Protokoloaren arabera

Copyright Testugileak

Copyright ARGITUZ, AEN, Ekimen Elkartea, GAC, Jaiki-Hadi, OME, OSALDE, Gizarte-Psikologia Saila (UPV/EHU)

Liburuaren azalaren egilea: Cveto Marsic

ISBN: 978-84-942938-0-1

D.L.: BI-1142-2014

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimategia: Lankopi, S.A.

Lan taldea eta Alorrak

■ Instituzioen arteko koordinazioa

Olatz Barrenetxea Larrondo Zubiok eta OME-AEN **Iñaki Markez Alonso** OME-AEN eta Osalde **Benito Morentin Campillo** IML-PV. ARGITUZ **Gabriela Lopez Neyra** GAC **Oihana Barrios Salinas** Jaiki Hadi **Andrés Krakenberger Larsson** ARGITUZ.

■ Koordinazio tekniko eta azterketen gainbegiratzea

Pau Pérez Sales Psikiatra. La Paz ospitalea / GAC / AEN. Madril.

■ Kasuen azterketa psikologiko eta psikiatrikoa

Alor Klinikoaren Kudeaketa: **Olatz Barrenetxea Larrondo.**

Alor Teknikoaren Kudeaketa: **Gabriela López Neyra.**

Ikertzaileak eta adituak:

Albi Gascó, Inmaculada Psikiatra. Servei Valencià de Salut. Gandia **Andueza García, Oihana** Psikologoa. Donostia **Barrenetxea Larrondo, Olatz** Psikologo Klinikoa. Zubiok, Euskal Psikoterapia Institutua. OME/Osalde, Bilbo **Barrios Salinas, Oihana** Psikologoa. Jaiki Hadi Elkartea. Iruña **Dabalillo Amezaga Izaskun** Psikologoa. Bilbo **Gandarias Goikoetxea, Itziar** Gizarte Psikologoa. Ekimen Elkartea. OME, Bilbo **García de Eulate Ercille, Josefina** Psikologo Klinikoa. Donostia. OME **Gato Gómez, Elena** SERGAS Psikiatra, Lugo. AGSM-AENko kidea **Ibernia Belamendia, Maitane** Psikologoa. Bizkaiko Foru Aldundia **Jordá Moscardó, Enric** Psikiatra. SVS Valentzia **Legorburu Madinabeitia, Ixone** Psikologoa. Jaiki Hadi Elkartea. Vitoria-Gasteiz **López de Luzuriaga Comuni3n, Nagore** Psikologoa. Etxerat Elkartea. Vitoria-Gasteiz **López Neyra, Gabriela.** Psikologo Klinikoa GAC. Madril **Markez Alonso, Iñaki.** Psikiatra Zubiok, Euskal Psikoterapia Institutua / OME-AEN/ Osalde, Bilbo **Medina Tellez, Elena** Psikiatra. Etxerik ez duten eta buruko gaitzak dituztenentzako programa. Madril **Moreno Pérez, Ana** Psikiatra. Príncipe de Asturias ospitalea. Alcalá de Henares. AEN, Madril **Navarro Lashayas, Miguel Ángel** Gizarte Psikologian doktore, Ekimen Elkartea. OME, Bilbo **Pérez Sales, Pau** Psikiatra. La Paz ospitalea / GAC / AEN. Madril **Plaza Crespo, Mari Ángeles** Psikologo Klinikoa. CEAR. Madril **Ruiz de Alegría Gauna, Anabel** Psikologo Klinikoa. Donostia **Velasco Plaza, Teresa** Psikologo Klinikoa. Donostia **Vidal Vidal, Luisa** Psikologia sozialean eta indarkerian espezializatutako Psikologoa. Valentzia **Walther, Marc** Psikiatra. Exil Gunea. Bartzelona **Zalbidea Carbajal, Urko** Psikologoa. Bilbo **Zuazua Álvarez, Julene** Psikologoa. Zubiok, Euskal Psikoterapia Institutua / OME, Bilbo

■ Kasuen Azterketa Medikoa

Kudeaketa, Koordinazioa eta dokumentuen Analisia: **Benito Morentin Campillo.**

Ikertzaileak eta Adituak:

Iñaki Uruburu, Matilde Iturralde, Inmaculada Agirre, Miren Arana Lekuona, Amaia Txurruka Maiztegi.

Aholkularitza metodologikoa

Luis F. Callado Medikuntza eta Kirurgian Doktorea. Neuropsikofarmakologiako Irakaslea EHU **Hans Draminsky Petersen** Medikua. Torturaren (eta beste Tratu edo Zigor Krudel , Anker edo Apelasgarrien) Prebentziorako Azpibatzordea. Kopenhage **Guillermo Portero Lazcano**, Auzitegiko Medikua. Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko Zerbitzu Klinikoaren Zuzendaria, Bizkaiko Zuzendariorde eta.

■ **Analisi Psikometrikoak**

Kudeaketa eta Koordinazioa

Miguel Ángel Navarro Lashayas.

Ikertzaileak eta Teknikoak

Miguel Ángel Navarro Lashayas, Pau Pérez Sales, Maitane Arnoso Martínez, Ainara Arnoso Martínez.

■ **Kanpoko Ebaluazioa**

Felicitas Treue Psikologo Klinikoa eta terapeuta. Mexikoko Tortura eta Inpunitatearen aurkako Kolektiboaren sortzaile-kidea eta International Rehabilitation Council for Torture Victims (IRCT) erakundearen Zuzendaritza Baztordeko kidea, Danimarka.

■ **Giza Eskubideei buruzko Aholkularitza**

Jon Mirena Landa Gorostiza Zuzenbide Penaleko Irakaslea EHU eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendariordea **Xabier Urmeneta Sanromá** Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua, psikologia saila, UABn Bartzelona. Giza Eskubideetan Unibertsitateko Aditua EHU.

■ **Itzulpena eta zuzenketak**

Galder Ruiz Alvarado, Olatz Etxeberria Olabarria

Ikertzaileen eta Adituen kalifikazioak

Agirre, Inmaculada. Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua EHU 1985ean. Egun lehen mailako arretan egiten du lan, mediku gisa. Ordezko mediku forentsea izan zen 1989-1991 artean. Medikuntza homeopatikoa eta Osasunean aditua, EHU 2005, eta Homeopatia Terapeutikan espezializatua Mexikoko Institutu Politekniko Nazionalean 1991-1995. Auzitegi Nazionaleko atxilotu inkomunikatuei txosten forentseak egin dizkie 2007tik 2012ra.

Albi Gascó, Inmaculada. Psikiatra. Servei Valencià de Salut. Gandía (País Valencià). Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua Balentziako Unibertsitatean 1986an. Psikiatrian aditua. Masterra Medikuntza Humanitarioan Alacanteko Miguel Hernández Unibertsitatean 1999an. Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretako Buru Osasunean diplomatua (2000). Balentziako Generalitateko Buru Osasun Zerbitzuetako psikiatra izan da 1991tik. Giza Eskubideekin zerikusia duten gaietako irakaslea izan da 2002tik (Munduko Medikuek, EVES, GAC), Espainiako Neuropsikiatria Elkarte (AEN) Giza Eskubideen saileko Batzordeko kidea da, eta egun bertako lehendakari ordea da.

Andueza García, Oihana. Psikologoa. Psikologian lizentziatua EHU 2008an. Donostian dagoen Bidean Psikoterapia Humanista Zentroko Gestalt Terapiako aditua da. Arazo anitz dituzten familiekin eta babesik gabeko egoeran dauden adin-txikikoekin familia interbentzioak egiten ditu. Psikoterapeuta lanak egiten ditu espetxean egon diren pertsonekin.

Arana Lekuona, Miren. Familiako eta Komunitateko Medikuntzan aditua, Osakidetza. Jaiki Hadi Elkarteko medikua. Audientzia Nazionaleko atxilotu inkomunikatuei egin zaizkien txosten forentsetako medikua izan da 2007tik 2012ra.

Arnosó Martínez, Ainara. Gizarteko Psikologiako doktorea da, masterra egin du taldeko psikologian eta Komunitateko eta Gizarteko Interbentzioan aditua da. Ezagutza Alorreko irakasle agregatua da Psikologia Fakultateko «Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia» sailean, EHU, Donostia. Bazterketa egoera dauden giza-taldeen ikerlaria da: immigranteak, atxilotuak, drogazaleak, genero indarkeria, etab. Hainbat gizarte elkarterekin kolaboratzen du (SOS Arrazakeria, Gurutze Gorria, Ikusbide).

Arnosó Martínez, Maitane. Politologoa. Gizarte eta Komunikazio Zientzietan doktorea da EHU. Psikologia Fakultateko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia saileko ikerlaria da, EHU, Donostia. Jarduera Psikosozaletan, Indarkeria Politiko eta Hondamendietan aditua da Madrilgo Complutense Unibertsitatean eta GAC (Grupo de Acción Comunitaria) taldean. Gipuzkoako SOS Arrazakeria taldeko Immigrazioa, Arrazakeria eta Xenofobiari buruzko Dokumentazio Zentroko (Mugak) arduraduna eta GAC zein OME-AEN elkarteetako kidea da. Ikerketa alorrak: taldeko indarkeriak duen arrasto psikosoziala, erreparazio prozesuak eta gatazka osteko testuinguruetan ematen den komunitatearen berreraikitzea, giza eskubideak eta migrazioak.

Barrenetxea Larrondo, Olatz. Psikologo Klinikoa. Zubiok, Euskal Psikoterapia Institutua, Bilbo. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua EHU. Psikologia Klinikoa eta Psikoterapian Masterra, Alcalako Unibertsitateko eta Espainiako Psikologia Medikoko eta Medikuntza Psikosomatikoko erakundeko berezko Titulua (2002-2008). Espainiako Psikoterapeuta Elkarten Federazioko (FEAP) kide psikoterapeuta da. AENko Giza Eskubideen saileko lehendakari da. Tratu txarrak eta torturak jaso dituzten edo taldeko indarkeriaren biktima diren pertsonengan aditua den terapeuta da 1990tik. Osaldekoko kidea da.

Barrios Salinas, Oihana. Psikologoa. Psikologian lizentziatua EHU 2004an. Psikologia Forentsean egin zuen espezializazioa. Kriminologiako formazio jarraitua egiten du UNEDen. Espainiako Neuropsikiatriako Elkarteko (AEN) Giza Eskubideen saileko zuzendaritza batzordeko kidea da. SOS Arrazakeria eta CEAR elkarteekin kolaboratzen du azterketa psikologikoak eginez. Jaiki Hadi Elkarteko psikologoa da. Profesionalei zuzendutako (medikoak eta abokatuak) Istanbulgo Protokoloko formazioko irakaslea da.

Callado, Luis F. Medikuntza eta Kirurgian doktorea. Farmakologia irakaslea EHU. Neuropsikofarmakologia alorreko ikerlaria da. Ikerlari moduan egin zuen lan Oxfordeko Unibertsitatean eta Royal London Ospitalean. Buru Osasuneko CIBEReko eta EHUKo Graduondoko Batzordeko kidea da.

Gandarias Goikoetxea, Itziar. Gizarte Psikologoa. Bilbo. Psikologian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean 2005ean. Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretak Buru Osasunean graduondoa egin zuen Madrilgo Complutense Unibertsitatean 2008an, eta Gizarte Psikologiari dagokion ikerketan masterra egin zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan 2011n. Egun, feminismo eta migrazioei buruzko doktoretza egiten ari da unibertsitate horretan. "Los niños y las niñas cosen la Paz" heziketa proiektuko koordinatzailea da. GAC eta Ekimen Elkarteko kidea da.

García de Eulate Ercille, Josefina. Psikologian lizentziatua EHU 1983an. Donostiako Gaurdanik kolektiboko zein beste batzuetako psikologo klinikoa da. OMEko kidea da.

Gato Gómez, Elena. Psikiatra, Xeral Calde Ospitale Psikiatrikoa. Lugo. Lugoko Lucus Augusti Unibertsitateko Ospitale Eremua. Servizo Galego de Saúde. Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatua Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Alcala de Henareseko Unibertsitatean Psikoterapia Perspektibo Integratzaileari buruzko masterra egin zuen (2007-2010). Osasunean eta Nazioarteko Elkarlanean diplomatua. Laguntza Humanitarioan eta Larrialdietan aditua da, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko berezko titulua. Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretako Buru Osasunean diplomatua, Madrilgo Complutense Unibertsitatean. AGSM-AEN elkarteko kidea da.

Ibernia Belamendia, Maitane. Psikologian lizentziatua (2000) eta graduondokoa Familia eta Osasunean Deustuko Unibertsitatean (2001). Bizkaiko Foru Aldundiko Psikologoa da 2001. urtetik. Desgaitasuna duten Pertsonen Ebaluaziorako eta Orientaziorako atalean eta haurren babesik eza eta tratu txarren egoeretako ebaluazio psikologikoan esperientzia. Emakume eta Familia zerbitzuko Tratu Txarrak eta Eraso Sexualak gertatzen direnean, Familiar esku hartuz Laguntza Psikologikoa emateko Programako arduraduna da 2007tik.

Iturralde Martinez de Lizardui, Matilde. Osakidetzako Lehen mailako Arretako medikua da. Osalde eta Jaiki Hadi elkarteetako kidea. Familiako eta Komunitateko Medikuntzan aditua. Audientzia Nazionaleko atxilotu inkomunikatuei egin zaizkien txosten forentseetako konfiantzazko medikua izan da 2007tik 2012ra. Asilo politiko eskaeretan gertatzen diren tratu txarrak dokumentatzeko CEAREkin (Errefuxiatuarentzako Laguntza Batzordea) kolaboratu du.

Jordá Moscardó, Enric. Psiquiatra. Valencia. Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua Valentziako Unibertsitatean (1969), Psikiatrian aditua (1972) eta Neurologian aditua (1973), Medikuntzan doktorea (1984). Castelloneko Probintzia Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuko medikua (1969-1971) eta Valentziako "Padre Jofre" Eriete Psikiatrikoko psikiatra. Beterako Probintzia Ospitaleko (Valentzia) Klinika burua (1974-1981) eta Zerbitziburua (1981-1987). Kasu Psikiatrikoen Planifikazio, Ikerketa eta Erregistro Saileko burua (1987-1995). Conselleria de Sanitat-en Buru Osasunerako Informazio Sistemen Aholkulari Teknikoen Taldeko kidea (1992-1994). Valentziako 10. Saileko Osasun Mentalerako Taldean egon zen ere (1995-2010). AENko kidea. Osasun mentalaren eta gaixoen eskubideen inguruan argitalpenak egiten ditu bertako zein nazioarteko liburu eta aldizkari psikiatrikoetan.

Krakenberger Larsson, Andrés. Hizkuntza irakaslea, itzultzailea eta interpretea. Amnesty International erakundeak Espainian duen saileko kidea izan zen 1981etik 2006ra. Espainiako zigor kode militarrean heriotza-zigorra indargabetzea lortu zuen taldearen koordinatzailea izan zen 1993 eta 1995 bitartean. Amnesty Internationalek Espainian duen saileko Lehendakari izendatu zuten 1996tik 2001era. 2006an Amnesty International laga ostean, instituzioen arteko harremanen arduraduna eta heriotza-zigorraren aurkako "Pablo Ibar" elkartearen bozeramailea da. Horretaz gain, ARGITUZ giza eskubideen aldeko elkartearen Lehendakaria da.

Landa Gorostiza, Jon Mirena. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Zuzenbide Fakultatean (Bizkaia) Zuzenbide Penaleko Irakasle Titularra da gaur egun. Honako hauek dira bere ikerketa arlo nagusiak: arrazakeria, xenofobia, diskriminazioa eta gorroto, terrorismo edo gizateriaren aurkako delituak. Irakasle edo ikerlari gonbidatua izan da, besteak beste, Hamburgo (2000 DAAD) eta Heidelbergeko Unibertsitateetan (2004 DAAD) eta Cambridgeko Unibertsitateko Lauterpatch Centre for International Law gunean (UK, 2010, 2011, 2012). Eusko Jaurlaritzako (Justizia Saila) Giza Eskubideen aldeko Zuzendaria izan da 2005eko azarotik 2009ko maiatzera arte. Egun zigor penalak ikuspuntu konparatu batetik aztertzen dituen ikerketa talde bat zuzentzen du (I+D+I DER2012-33215).

Legorburu Madinabeitia, Ixone. Psikologian Lizentziatua EHU (2001). Tratu txarrak eta torturak sufritu dituzten biktimekin esperientzia psikoterapeutikoa du Torturaren aurkako Taldea (TAT) elkartean eta Jaiki Hadi elkarteko Psikologoa izan da Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretako Buru Osasunean graduondoa egin zuen (GAC eta Madrilgo Complutense Unibertsitatea).

López de Luzuriaga Comución, Nagore. Psikologian lizentziatua EHU. Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretako Buru Osasunean diploma eskuratu zuen (GAC eta Madrilgo Complutense Unibertsitatea). Hegoa KLS Psikologia eta Logopedia taldeko psikologoa da. Jaiki Hadi elkarteko psikologoa izan da. Etxerat elkarteko psikologoa.

López Neyra, Gabriela. Psikologoa (GAC) Madril. Psikologian lizentziatu zen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretako Buru Osasunean graduondoa egin zuen (Madrilgo Complutense Unibertsitatea). Giza eskubideen akonpainamendu terapeutikoan aditua 2009tik. Estelí Departamentuko (Nikaragua) Buru Osasunaren Sarea Indartzeko Proiektuaren koordinatzailea da 2012tik. GAC (Grupo de Acción Comunitaria) elkarteko antolakuntza arduraduna da. Espainiako Herriaren Defendatzailearen Laguntza Teknikaria da. Nikaraguako Torturaren Mekanismo Nazionalako aholkularia da.

Markez Alonso, Iñaki. Psikiatra. Zubiok, Euskal Psikoterapia Institutua, Bilbo. Neurozientzietan doktorea. Psikiatria Legal eta Forentsean unibertsitateko aditua da. Eusko Jauritzaren Osasun Mentalari buruzko Aholku Batzordeko kidea da. ENVISeko kidea da (indarkeriaren aurkako Europako sarea, Milanen du egoitza). OMEko Lehendakaria (Buru osasunaren eta komunitate psikiatriaren euskal erakundea, AENko autonomia saila). Osalderen (osasunaren eskubidearen aldeko erakundea) Zuzendaritza Batzordeko kidea, eta honen bidez El Salvadorreko Osasun Ministerioaren kolaboratzaile estrategikoa da buru osasun eta indarkeria kontuetan. Osasun Mentalaren IPARRA aldizkariko zuzendaria eta hainbat argitalpen batzordeko kidea da. Deustuko Unibertsitateak eskaintzen Drogamenpekotasuna et beste Adikzioak masterreko irakaslea da, eta ikastaroak irakasten ditu ere beste unibertsitate publiko batzuetan.

Medina Téllez de Meneses, Elena. Etxerik ez duten eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako arreta Programako psikiatra da. Príncipe de Asturias Unibertsitateko Ospitaleko Psikiatrian aditua, Madrilen 2008ko maiatzean. Medikuntza eta Kirurgia lizentziatua Cádizeko Unibertsitatean (1997-2003). Psikiatria legalari buruzko masterra egin zuen UNEDen.

Moreno Pérez, Ana. Psikiatra. Príncipe de Asturias Ospitalea. Alcalá de Henares. Ospitalizazio laburreko Unitateko arduraduna da Príncipe de Asturias Unibertsitateko Ospitalean. Alcalá de Henares, Madril. Espainiako Neuropsikiatriako Elkartearen Giza Eskubideen saileko kidea da.

Morentin Campillo, Benito. Medikuntza Forentse titularrak. Medikuntza eta Kirurgiaan doktorea. Kriminologian diplomatu. EHUko Medikuntza Legaleko irakasle elkartua. Auzitegi Medikuntzan aditua. Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko Patologia Forentsearen burua, Bizkaiko Zuzendariorde. Torturaren dokumentazio mediko forentsearen arloan ikertzen du. Eusko Jauritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailak eskatutako "Tortura: hurbilpen zientifikoa (2000-2008)" ikerketaren egilekidea.

Navarro Lashayas, Miguel Ángel. Psikologoa. Bilbo. Psikologian lizentziatua EHU 2003an. Gizarte Psikologian Doktorea. Buru Osasuna eta Interbentzio Psikologikoak Inmigrante, Errefuxiatu eta Gutxiengoekin graduondoa egin zuen Bartzelonako Unibertsitatean 2007ko maiatzean. Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretako Buru Osasunean graduondoa egin zuen 2010ean (Madrilgo Complutense Unibertsitatea). Espainiako Neuropsikiatria Elkarteko (AEN) giza eskubideen saileko zuzendaritza batzordeko kidea da. Bizkaiko SOS Arrazakeria eta Ekimen Elkarteko kidea da.

Pérez-Sales, Pau. Medikuntzan lizentziatua Bartzelonako Unibertsitatean 1987an. Psikiatrian aditua da (La Paz Ospitalea, Madril, 1994). Psikiatrian doktorea (Madrileko Unibertsitate Autonomoa). Guatemalako Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen bulegoak egindako Guatemala Nunca Más txosteneko eta Peruko Egia eta Adiskidetzeko Batzordearen eremu psikosozialeko aholkularia. Hainbat unibertsitateko irakasle gonbidatua izan da indarkeria politikoaren lan psikosoziala, hondamenen erabilera eta biktimentzako arreta eta psikoterapiaren

alorretan (El Salvador, Guatemala, Estatu Batuak, Kolonbia, Peru eta Uruguai). Kolonbiako Estatuko Krimenetako Biktimen Mugimenduko Etika Batzordeko aholkularia da. Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretako Buru Osasuneko graduondokoaren zuzendaria da (GAC – Madrilgo Complutense Unibertsitatea). World Psychiatric Association elkarteko tortura saileko kide hautatua da. Tortura Prebenitzeko Mekanismo Nazionaleko (MNP) aholkulari teknikoa da (Giza eskubideen saila – Nikaragua). 1997tik tortura kasuetako aditua izan da bertako zein nazioarteko auzitegietan.

Petersen, Hans Draminsky. Mediku aditua da. Danimarkako Amnesty Internationaleko kidea izan zen 20 urtez. Torturaren efektu eta dokumentazioari buruzko 25 artikulua baino gehiagoren idazle/egilekidea. Nazio Batuen Erakundeko Torturaren Prebentziorako Azpibatzerdeko kidea da 2007tik.

Plaza Crespo, Mari Ángeles. Psikologian lizentziatua Madrileko Unibertsitate Autonomoan. Psikologia Kliniko Kognitibo-Jokabide-Sozialean masterra. Bertrand Russel Zentroa. Madril. Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretako Buru Osasunean diplomatua. CEAR (Errefuxiatuarentzako Laguntza Batzordea) elkartearen Arreta Psikologiko Zerbitzuko psikologoa da 2002 urtetik. Torturatik bizirik atera diren pertsonen kasuan praktika onak egiteko metodologia gida osatzeko Europako Batzordeak sustatzen duen proiektuko Batzorde Zientifikoko kidea da. Hondamendi eta Indarkeria Politikoko Egoeretako Buru Osasunaren diplomako irakasleen koordinatzailea da. Tortura eta / edo genero indarkeriatik bizirik atera diren eta errefuxiatuen buru-osasunaren inguruko gaietako irakaslea da. GAC (Grupo de Acción Comunitaria) elkarteko kidea da.

Portero Lazcano, Guillermo. Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua EHU. Psikologia Klinikoan lizentziatua. EHUko Auzitegi Medikuntzako irakasle elkartua da. Mediku forentse titularra. Auzitegi Medikuntzan aditua. Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko Zerbitzu Klinikoaren burua da (Bizkaiko Zuzendariorde). Bizkaiko Balorazio Forentse Integralerako Unitateko arduraduna da. Mobbingaren aurkako Euskal Behatokiko kidea da. Euskal Autonomia Erkidegoa etxeko indarkeriaren aurka egindako erakundearen arteko Akordioaren Batzorde Teknikoko kide ohia.

Ruiz de Alegría Gauna, Anabel. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua EHU 1983an. Psikologoa, Psikoterapeuta, Psikoanalista. Donostiako Gaurdanik psikologoaren kolektiboko kidea 2000tik. Aurretik Izargain Kolektiboko kidea izan zen 1984tik 2000ra. Euskal Herriko Lakaniar alorreko Foroetako kidea da.

Txurruka Maiztegi, Amaia. Familiako eta Komunitateko Medikuntzan aditua den medikua da Gasteizko osasun zentro batean, Osakidetza. Jaiki Hadi elkarteko kidea. Auzitegi Nazionaleko atxilotu inkomunikatuei egin zaizkien txosten forentseetako konfiantzazko medikua izan da 2007tik 2012ra eta tratu txarren azterketak egin ditu.

Urmeneta Sanromá, Xabier. Psikologoa. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua UABn 1978an. Giza Eskubideetan Unibertsitateko Aditua EHU 2010ean. ARGITUZeko eta OME-AENren giza eskubideetako saileko kidea da.

Uruburu Irazabal, Iñaki. Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua EHU. Lan Medikuntzan aditua. EHUko Prebentziorako Zerbitzuaren Lanerako medikua da. Gorputzeko Mina Baloratzeko masterra EHU. Osteopata. TAT sortu zenetik arreta egin die atxilotu inkomunikatuei.

Velasco Plaza, Teresa. Psikologian lizentziatua Madrilgo Complutense Unibertsitatean 1982an. Psikoterapeuta, psikoanalista. Lana modu pribatuan egiten du.

Vidal Vidal, Luisa. Psikologoa. Gestalt Psikoterapian eta Berriz elkartzeko Terapian formazioa. Gizarte Psikologian eta Indarkeria Politikokoan egin zuen espezializazioa Landívar Unibertsitatean eta Guatemalako San Carlos Unibertsitatean. Egoera traumatikoetako Trebetasun Terapeutikoetan diplomatua. Kolonbiako Unibertsitate Nazionala eta GAC. Esperientzia du erakunde sozialekin (Bakerako Nazioarteko Brigadak, Movimondo, MPDL,

SISMA, CEAR,...) eta bertan giza eskubideen defentsa burutzen duten gizarte eragileen akonpainamendu psikosoziala burutu du. Txosten psikologikoak egin ditu Guatemala, Kolonbian eta Espainiako Estatuan. "Giza Eskubideen Defendatzaileen eta Gizarte Ekintzaileen Babes Integrala" unibertsitateko espezializazioan irakaslea da, Sevillako Pablo Olavide Unibertsitatean.

Walther, Marc. Psikiatra. Exil Gunea. Bartzelona. Medikuntzan lizentziatua (1981) eta doktorea (1985) Bernako Unibertsitatean (Suitza). Psikiatria eta psikoterapian aditua (1994). Tortura eta tratu txarren biktimekin lan psikiatrikoa eta psikoterapeutikoa egin du Appartenances taldean eta Bartzelonako EXIL gunean.

Zuazua Álvarez, Julene. Psikologoa, Zubiok, Euskal Psikoterapia Institutua, Bilbo. Psikologian lizentziatua EHU 2007an. Espainiako Neuropsikiatria Elkarteko eta Osasun Mentalaren Elkarteko kidea da. Ekimen elkarteko kidea da ere.

Erakunde profesionalak

ARGITUZ, Giza Eskubideen Aldeko Elkartea

ARGITUZ irabaz asmorik gabeko giza eskubideen aldeko elkartea bat da, bere xedea, pertsona orok, euskal esparruan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta giza eskubideei buruzko beste nazioarteko arauetan aldarrikatutako giza eskubide guztiak gozatuko dituzten egoera lortzea da. Ikuspegi honek bultzaturik, giza eskubideen aldeko sustapen lanen baitan, ARGITUZen xedea osotasun fisiko eta mental eskubidearen, kontzientzia eta adierazpen askatasunaren eta bereizkeriarik ez nozitzea eskubidearen aurkako zapalketa larrienak galarazi eta bukatu asmoz, ikerketa eta ekintza lanak egitea da.

AEN, Asociación Española de Neuropsiquiatría /Buru osasunaren profesionalak

AEN, Espainiako Neuropsikiatria Elkartea eta Espainian buru osasunaren alorrean aritzen den erakunde profesionalik zaharrena. World Psychiatric Association, World Federation for Mental Health eta Errehabilitazio Psikosozialerako Munduko Elkartearen kidea da. AEN elkarteak Portaera eta Buru Osasunaren Zientzien garapen eta hedapenean laguntzeko helburu nagusia du. Hauek dira ezaugarri nagusiak: edozein erakunde instituzionaletik (publiko edo pribatu) independentea da; jakintza-alor ezberdinak jorratzen ditu, eta beraz buru osasunaren eragina lantzen duten profesional ezberdinak batzen ditu; mundu mailako eredu publikoa defendatzen du, kalitatezkoa eta bidezkoa; praktikarekin harremana duten heziketa eta ikerketan fokatzen da; pertsona guztien osasunaren defentsarako konpromiso soziala du.

Ekimen Elkartea. Arazo Sozialen Ikerketarako, Osasuna sustatzeko eta pertsona guztien eskubideak defendatzeko

Elkartea da. Irabazi asmorik gabeko profesionalak osatzen dute, eta jakintza-alor ezberdinetako zerbitzu kualifikatuak eskaintzen ditu, artean, arreta, formazioa, aholkularitza eta ikerketa. Ikertzaileek, batez ere ikertzaile gazteek, burutzen dituzten ekintza zientifiko bidez osasuna garatzea eta informazio sarean erabilera parte-hartzailea eskuratzeko bidean lan egiten du. Gizartearen ikuspuntu integratzaileak ahalbidetzen dituzten gai buruzko azterketa eta ikerketa zientifikoak edota informazioa jasotzeko erreminta egokien sorkuntza sustatzen ditu. Elkarbizitza harmonikoa eraikitzearen garrantziaz sentsibilizatzea bilatzen du, kultura eta ideologia ezberdinen artean etorkizunean gizartearen eta komunitatea garatu ahal izateko.

GAC, Grupo de Acción Comunitaria. Buru Osasunaren eta Giza Eskubideen Bitartekoen Zentroa

Erakunde hau 1997an sortu zen komunitatearen eremuko lan psikosozialaren inguruan ideiak zituen jende talde boluntario batekin. Talde honek herrien eskubide sozial, ekonomiko, kultural eta politikoen alde lan egiteko helburuak ezarri zituen. Eredu honetan jarduten diren herritar, kolektibo, instituzio eta erakundeentzako babes sarea eta gunea izan nahi du talde honek, eta batez ere Hego Amerikako komunitatean jarri du enfasia. Erabakiak hartu eta erakundearen antolakuntza egiteko honako hauek dira oinarrian dituen baloreak: ezagutzaren unibertsaltasuna, jakintzaren kultur-aniztasuna, "sarea" harremanetarako oinarritzko modu gisa, lana eta babesa, zehaztasun akademiko eta zientifikoa, ikerketa eta ekintza parte-hartzaileak, ekintzaren independentzia politiko eta instituzionala, gardentasuna, kideen konpromisoa, ekintzen alde egitea eta ekintzen malgutasuna.

Jaiki-Hadi, Prebentzio eta Asistentziarako Elkarte

Jaiki Hadi irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, indarkeria politikoa jasan edo jasaten ari den edozeini zuzendua. Elkarte osasungintza arloko (sendagileak, psikologoak, psikiatruk...) zein beste arloetako profesionalen osatua dago, eta baita espetxealdi luzeak dakartzen ondorioak zein kaleratu ondorengo arazoak bere esperientziaz ongi ezagutzen dituzten pertsonen ere. Estatuaren segurtasun indarren tortura eta errepresioaren biktime izan ziren pertsonen zein horien senideei laguntza mediko eta psikoterapeutikoa eskaintzen zuten profesionalen esfortzua koordinatzeko sortu zen Jaiki Hadi 2008. urtean.

OME, Osasun Mentalaren Elkarte. Osasun Mentalaren Elkarte eta Psikiatria Komunitarioa

Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten AENko bazkideak biltzen ditu. Berezko Gobernu-batzordea eta funtzionamendu autonomoa ditu. Elkarte nazional deszentralizatuaren isla da, bere erakundetze formaletik (1986. urtean) aurrera, bere eginkizuna, berezko baliabidez eta bazkideen lanaren emaitzaz osatuta. Azken urteetan elkarte bizitzaren susperketara eta profesional belaunaldi berriak egin behar honetara erakartzera bideratu da lana. Honen emaitza da zenbait Bilkura Zientifiko antolatu izana, Osasun Mentalaren IPARRA aldizkariaren argitalpena eta hiru hilabete behin ateratzen den Informazio Aldizkaria elkarteko kideei zuzenduta.

Osalde, Osasun eskubidearen alde elkarte

OSALDEk aurten 30 urte bete ditu, eta Osasun Publikoaren aldeko lan handia egin du, eta elkarte ustez, osasuna eta gaixotasuna kontzeptu dinamikoak dira eta giza harremanetan eta herrien kulturaren guztiz errotuta daude. Osasunaren baldintza sozialak dira ongizate maila handiagoa edo txikiagoa izatearen erantzuleak, Lehen Mailako Arreta sendoa, eskuragarri eta erabakitzaile baten aldeko apustua egin dute, kalitatezko Arreta Berezitu batekin batera. Egungo medikalizazioaren arriskuen aurrean, medikamentu eta neurri terapeutikoen erabilera arrazionala defendatzen du; Osasun zerbitzu publikoak defendatzen ditu, ez ditu politika pribatizatzaileak partekatzen; izan ere, zerbitzu publikoak zatitu, suntsitu edo deskapitalizatu egiten dituzte. Erakunde honen ustez, osasunak, elkartasunak, giza garapenak eta kohesio sozialak, kalitatezko osasun zerbitzu publiko zientifiko eta bidezkoak, kulturalki kompetenteak eta gizarte osoarentzako eskuragarriekin batera gizartearen eta norbanakoaren ongizate maila altuena bermatu dezakete.

Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Saila/Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Ezagutza Alorra, Psikologia Fakultateko «Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia» saila EHU, Donostia.

Eskerrak

Lan hau bereziki atxilotze garaian inkomunikaturik tratatu txarrak eta torturak jasan zituzten pertsonena da, biktimena alegia, euren mina ikerketa lan hau dinamizatu dugunokin batera oroitzera eta konpartitzeko prestutasuna izan baitzuten. Gure eskerrik beroena eurei guztiei zuzendu nahi diegu, euren denbora eta bizipen pertsonalak gurekin partekatzeagatik.

ARGITUZen konfiantza, ikuspegi eta zintotasunari esker dugu zehaztasunez beteriko Ikerlan hau. Hasieratik lanaren babesle nagusienetako bat izan da eta elkarte berak elkarbanatu zuen bere kezka beste hainbat elkarte profesionalekin –OME, Osalde, Jaiki Hadi, Espainiako Neuropsikiatria Elkarteko (A.E.N.) giza eskubideen saila, GAC eta Ekimen. Inolako zalantzarik gabe, beharrezkoa izan da lantalde ezberdinetan esfortzua eta ilusioa ipini duten ia berrogei pertsonen lana ere, buruko osasunaren arloko profesionalak, auzitegi medikuntzakoak edota lehen mailako arretakoak. Euskarri zientifikoa eman zioten ikerlanari, bai eta euren bizitza pribatuetako denbora asko ere. Lerro hauetatik gure eskerrik beroena eskaini nahi diegu guzti-guztiei, ikerlan hau ez litzatekeelako ezer euren laguntzarik gabe.

Ezingo genuke eskerren atal hau amaitu honako erakunde hauen sostengua nabarmendu gabe: Donostiako Psikologiako Fakultatean dagoen Psikologia Sozialeko sailak eman digun laguntza metodologikoa, EHUko Etika eta Ikerkuntza Sailak helarazi dizkigun balorazio kritikoak, torturari buruz TATEk eman digun dokumentazioa eta Kopenhagenen egoitza duen Council for the Rehabilitation of Torture Victims (IRCT) erakundearen ekarpen metodologikoak.

Gure lana ezinezkoa litzateke pertsona, kolektibo profesional edota instituzio guzti horien ekarpenak jaso gabe, hortaz, gure esker ona.

Koordinazio Taldea.

2013-ko uda

Aurkibidea

IRCT Torturaren Biktimen Errehabilitaziorako Nazioarteko Kontseiluaren sarrera	19
0. ATALA. SARRERA	21
1. ATALA. ATXILOKETA INKOMUNIKATUA EUSKAL HERRIAN.	
ALOR JURIDIKOA ETA AZTERLAN HONEN AURREKARIAK	23
<i>BENITO MORENTÍN, JON M. LANDA, XABIER URMENETA</i>	
1.1. Atxiloketa inkomunikatuaren eremu legala	23
1.2. Nazioarteko Erakundeen Txostenak	24
1.3. Azterlan Enpirikoak	26
1.4. Tokiko zein Estatuko GKEen Txostenak. Datu ofizialak	29
1.5. Epai Judizialak	31
1.6. Ondorioak	32
1.Eranskina. Torturarekin zerikusia duten gaiengatik Espainiar Estatua zigortzen duten agiri garrantzitsuenak	33
2. Eranskina. Torturarekin zerikusia duten gaiengatik emandako epai garrantzitsuenak	35
2. ATALA. METODOLOGIA – IKERKETA ETA DOKUMENTAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA	37
<i>OLATZ BARRENETXEA, IÑAKI MARKEZ, PAU PÉREZ, OIHANA BARRIOS, BENITO MORENTÍN, GABRIELA LÓPEZ, MIGUEL ÁNGEL NAVARRO, MAITANE ARNOSO</i>	
2.1. Zein da ikerketa honen ekarpena: helburuak	37
2.2. Istanbulgo Protokoloa: tortura edo tratatu txarren adierazpenen nazioarteko dokumentaziorako baliabide nagusia	38
Tortura gertaeren tipifikazioa azterlan honetan	41
2.3. Lagina	41
Irizpideak eta hautapen metodoak	41
Kanpoko balioztatze iturriak eta kasu-triangulazioa	42
Nortzuk dira pertsona aztertuak: Ezaugarri sozio-demografiko eta politikoak	43
Datuak ulertzeko zenbait elementu	46

2.4. Bitartekoak	47
Datuen analisia	48
2.5. Lan metodologia	48
Dupla profesionalak eta barneko zein kanpoko ikuskaritzak	48
Pertsona aztertuen jarraipena	50
2.6. Ikerketaren alderdi etikoak	50
Datuen babesa	50
Etika batzordearen onarpena	50
I. Eranskina. Informazio baimena	51
II. Eranskina. Aipatzen diren erakundeak	53
3 ATALA. TORTURA ADIERAZPENEN SINESGARRITASUNA. ISTANBULGO PROTOKOLOAREN ARABERA EGINIKO AZTERKETETAN ETA KANPOKO BALIOZTATZE BALIABIDEETAN OINARRITUTA	
PAU PÉREZ SALES	55
Eranskina. Azterketa bakoitzaren datuak.	
Egiaztapenerako barneko zein kanpoko irizpideak	59
4. ATALA. TORTURA FISIKO ETA PSIKOLOGIKOAREN MEKANISMOAK	63
PAU PÉREZ SALES	
Gogoeta metodologikoak	63
Eraso motak eta mekanismoak	64
1. Gizakiaren oinarrizko beharrak	64
1. Leku fisikoa: zelda eta atxiloketa baldintzak	64
2. Loaldi eta esna-aldien erritmoa	65
3. Likidoen eta elikagaien ingestioa	66
4. Neke fisikoa – derrigortutako jarrera eta posizioak – ariketa fisiko nekagarriak	68
2. Ingurunearekin eta orientazio senarekin lotuta	72
1. Manipulazio bisuala – Argiztapen baldintzak	72
2. Entzumenezko manipulazioa – Zaratak	72
3. Tenperatura	73
4. Denboraren erabilera	73
3. Segurtasun beharra	76
1. Beldurra – Izua – Ziurgabetasuna	76
1.1. Beldurraren prozesua – Onartze ingurunearen sorkuntza eta garapena	77

Atxilotua izan aurreko beldurra eta ezinegona	77
Atxiloketa	77
Lekualdaketa	77
Atxiloketa eta galdeketaren lekua	77
1.2. Beldurraren eta imajinazioaren prozesua: Tortura mehatxuak versus minaren zehaztapena	80
2. Heriotzaren pertzepzio psikologikoa – Asfixia	81
2.1. Asfixia Lehorra: Poltsa, kaputxa eta asfixiarako beste metodo batzuen erabilera	81
2.2. Asfixia Hezea: Bainuontzia	83
3. Exekuzio simulazioak	85
4. Min Fisikoa	86
1. Kolpeak, jipoiak	86
1.1. Erdi-mailako etengabeko kolpe erritmikoak	86
1.2. Jipoiak	90
1.3. Zapalketa: "Manta", "Koltxoia"	90
2. Elektrizitatearen erabilera	92
5. Osotasun psikologikoa. Niaren zentzua	94
1. Identitate sexual eta generoaren aurkako erasoak: ukitzeak, abusua eta bortxaketa	94
1.1. Genitalei dagokien sexu indarkeria, sexu umiliazioak	94
1.2. Bortxaketa simulazioak	98
1.3. Bortxaketa	100
2. Erasoak norberaren ikuspegiari: nortasun politikoa, soziala eta pertsonala	101
2.1. Duintasuna eta errespetua: umiliazioa, lotsa eta balio pertsonala	101
2.2. Nortasun soziala eta militantzia	102
6. Afiliazio beharra eta Kide izatearen zentzua	103
1. Bakardadea – Isolamendua	103
2. Mehatxuak familiari eta inguruneari	104
3. Familia: Emozioen manipulazioa eta erruduntasuna	105
7. Ingurunean kontrolatu eta ulertzeko beharra – Indarkeria eta galdeketa teknikak.....	106
1. Nork bere burua errudun adierazteko teknika zehaztugabeak: Neke fisiko eta emozionala eta nahastea	106
2. Teknika Espezifikoak: Indarkeriaz eginiko galdeketa	108
a) Nahasmendua galdeketa bitartean	109
b) Isiltasunarekin amaitu eta ezezkorik ez onartu	109
d) Sedimentatzeko denbora	110

e) Guztiahaltasuna eta orojakintza	111
f) Iruzurra ("Deception")	113
g) Galdeketaren edo galdetzailearen bat-bateko estilo aldaketak	118
h) Emozioen erabilera – Enpatia – Argudiaketa etikoa – Errua	122
i) Traizio behartua eta atxilotuaren dilema	125
j) Zentzurik gabeko aginduak – Sumisioa	127
8. Taldeko ikuspuntua: Atxiloketa inkomunikatu bateko galdeketa aldiak eta denbora-segida	129
A. Hasiera	129
B. Bitarteko saioak	131
D. Aitortzak – Akusazioak – Norberak bere burua errudun adieraztea	132
E. Amaiera deklarazioaren ostean	133
1. Eranskina. 45 azterketetan agertzen diren tortura teknika ezberdinen maiztasuna Istanbulgo Protokoloko sailkapenaren arabera, atxiloketa inkomunikatuaren urteekin batera	136
2. Eranskina. Metodologia. Testigantzen hautapenerako bilaketa terminoen Thesaurus	137
5. ATALA. ONDORIO MEDIKOAK	139
<i>BENITO MORENTIN CAMPILLO</i>	
1. Azterketa mediko forentseen prozeduretako salbagueariak	139
Gogoeta metodologikoak	139
Istanbulgo Protokoloren araberrako aurkikuntzak	139
Aurkikuntzei buruzko kontsiderazioak	147
2. Ondorio Medikoak. Osasun fisikoaren gaineko inpaktua azterketen txostenetan, Istanbulgo Protokoloa erabiliz	149
Gogoeta metodologikoak	149
Asalduren deskribapen kualitatiboa aparatuka	150
3. Txosten medikoak dauden kasuetan egindako aurkikuntzen analisisa	153
Sarrera	153
Materiala eta metodoak	154
Ondorioak	154
1. Tortura adierazpenak txosten medikoetan	154
2. Adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezakeen sintomatologia	157
3. Adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezaketen indarkeria arrastoak	159

4. Txosten mediko forentseek emandako informazioa ikusirik, tratu txarren gertagarritasunari buruzko ondorioak	159
Eztabaida	161
1. Ebaluazioaren mugak	161
2. Azterlan honetako aurkikuntzen balorazioa	162
6. ATALA. ISTANBULGO PROTOKOLOETAN ADIERAZITAKO ONDORIO	
PSIKOLOGIKO ETA PSIKIATRIKOAK	163
<i>MIGUEL ÁNGEL NAVARRO, PAU PÉREZ SALES, MAITANE ARNOSO, GABRIELA LÓPEZ</i>	
Sarrera	163
1. Diagnosi psikiatrikoak – Istanbulgo Protokoloa	167
2. Azterketa psikometrikoa	168
2.1. Trauma-osteko estresaren sintomatologia	168
1. Berriro bizitzearen sintomak	171
2. Ekiditearen sintomak	173
3. Anestesia edo emozioen blokeoaren sintomak	174
4. Aktibazioa areagotzearen sintomak	176
3. Nortasunaren eta Munduko ikuskeraren gaineko inpaktua	179
1. Ikuspuntu orokorra: VIVO galdeketa	179
2. Munduaren ikuskera	187
3. Munduarekiko jarrera	187
4. Besteekiko harremanak	188
5. Gizartearekiko jarrera	190
6. Gertaerei aurre egitea	191
7. Gizakiei buruzko ikuskera	192
8. Babes soziala	193
9. Etorkizuna	194
10. Aldaketak nortasunean	194
11. Aldaketak militantzian	195
12. Trauma-osteko adorea	196
13. Ikuskera orokorra	196
4. Inpaktu afektibo eta emozionala	197
1. Atxilotuen erruduntasun bizipenak	198
2. Amorrutik eta Gorroto bizipenak	204

3. Elkar-ulermen eta barkamen bizipenak	205
4. Depresioa	207
5. Ondorioak	209
7. ATALA. ERREPARAZIO NEURRIAK	211
PAU PÉREZ SALES	
Sarrera	211
Erreparazio neurriak: aztertuen ikuspuntua	213
A. Kalte-ordain eta leheneratze neurriak	214
B. Errehabilitazio neurriak	215
D. Ordain neurriak	217
Gertaeren egiazkotasuna onartzea	217
Izuaeren mekanismoak ezagutaraztea	219
Gertatutakoa gizartean hedatu	220
Onarpena biktima gisa	221
Kondenak baliogabetzea	222
E. Ez errepikatzeko bermeak	222
Tortura kasu gehiagorik ez egotea	222
Inpunitaterik ez onartu	225
Aldaketak gizartean-Torturaren gaitzespen soziala	225
Indarkeria sortu zuen gatazkarentzako konponbide alternatibak	227
8. ATALA. AZTERLANAREN ONDORIO OROKORRAK.	
EBIDENTZIAK, HAUSNARKETAK ETA GOMENDIOAK	229
OLATZ BARRENTXEA, MIGUEL ANGEL NAVARRO, IÑAKI MARKEZ,	
BENITO MORETIN, PAU PEREZ, OIHANA BARRIOS, NAGORE LOPEZ DE LUZURIAGA	

IRCT Torturaren Biktimen Errehabilitaziorako Nazioarteko Kontseiluaren sarrera

Torturaren prebalentzia globalari eta erantzuleek tortura gertatzen dela ohikotasunez ukatzeari aurre egiteko, hainbat erakundek bat egin zuten 1996an, eta hiru urteko prozesu bihurtuko zenari eman zioten hasiera, *Tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarri batzuk eraginkortasunez ikertu eta dokumentatzeko esku-liburua* (Istanbuleko Protokoloa) prestatzeko. Osasun, lege eta giza eskubideen arloetako hirurogeita hamabost aditu baino gehiago inplikatu ziren prozesu horretan, berrogei bat erakunde ordezkatzeko, Torturaren Biktimen Errehabilitaziorako Nazioarteko Kontseilua (IRCT) barne.

Prozesuaren ondorioz, tortura eta tratu txarrak ikertu eta dokumentatzeko nazioarteko gidalerroen lehen sorta sortu zen. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Batzar Nagusiak 2000. urtean bereganatu zituen *Tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarri batzuk eraginkortasunez ikertu eta dokumentatzeko printzipioak* (Istanbuleko Printzipioak), garrantzi handia dutenak. Orduz geroztik, Istanbuleko Protokoloa eta Printzipioak aplikatu egin dira NBEk eta giza eskubideen arloko beste erakunde giltzarrak batzuek sostengatutako nazioarteko eta nazioko epaitegietan.

Gainerako erakundeekin batera, IRCTk lan du egin du osasun – eta lege-profesionalen Istanbuleko Protokoloa ulertu eta abian jartzeko behar duten gaitasuna. Guztiok ba-

tera, estatuei eskaera egin diegu torturaren eta tratu txarren alegazioak ikertu eta dokumentatzeko nazioarteko betebeharrak bete ditzaten, Protokoloarekin bat etorriz. Berriki, 2014ko martxoaren 31n eginiko urteko topaketan, IRCTk torturaren eta atxiloketaren inguruko Kopenhageko Adierazpena kaleratu du, tortura-errehabilitazioaren arloan kideez osatutako munduko erakunde handienaren ahotsaren ordezkari den heinean. Adierazpenak estatuei eskatzen die ziurta dezatela, baitetik, torturaren biktimak ahal bezain laster identifikatzen dituztela atxiloketa-gunean, eta bestetik, torturaren eta tratu txarren alegazioak berehala eta gardentasunez ikertu, dokumentatu eta erreparatzen direla. Hala ere, helburu horiek erdiesteko gomendioen sorta jaso da Adierazpenean.

Istanbuleko Protokoloa baliagarria izan da estatuak hezteko eta torturaren zein tratu txarren salaketak behar bezala ikertu eta dokumentatzen dituztela sustatzeko; orobat, gizarte zibilari eta beste erakunde independente batzuei estatuaren jarduna kontrolatzen lagundu die. Gizarte zibileko erakundeak, txosten hau prestatu dutenak barne, funtsezko mekanismoak dira bermatzeko estatuak tortura eta tratu txarrak testuinguru guztietan debekatu, prebenitu eta erreparatzeko nazioarteko betebeharrak betetzen dituztela. Prozesu horretako lehen urratsak, nahitaez, tortura eta tratu txarrak ikertzea eta dokumentatzea izan behar du, eta horren bidez, gertatu direla aitortu behar dute, izan

erantzukizuna duten estatu-agintariek, izan gizarte zibilak eta erakunde independenteek, kontzientzia gisa dihardute eta.

Horregatik guztiagatik, IRCTk uste du txosten hau, EAEn inkomunikazio erregimenean atxilotutako pertsonen berrogeita bost kasu aztertzen dituen, ekarpen garrantzitsua dela tortura ukatzeari eta zigorgabetasunari aurre egiteko. Txostena oso adibide ona da, horren bidez ikus baitaiteke nola erabil daitezkeen Istanbuleko Protokoloa tortura eta tratu txarrak erakusteko; halaber, txostena aitzindari da Protokoloeko estandarrak eta printzipioak aplikatzeko modu zientifikoan. IRCTk laudatu egiten du erakunde horiek eta tartean diren osasun-profesionalen talde handiak eginiko lana. Harro gaude tortura eta tratu txarrak argitzen laguntzeko urrats nabarmen horren parte izateaz, helburua biktimek justizia eta erreparazioa eskuratzea izanik, baita errehabilitatzea ere.

Victor Madrigal-Borloz

IRCTko idazkari nagusia

2014 Martxo

0. Atala.

Sarrera

Orain dela hiru urte baino gehiago buruko osasuneko eta auzitegi-medikuntzako hainbat profesionalen artean kezka sortu zen atxiloketa batzuen ostean gertatzen ari ohi ziren praktika desegokiengatik. Kasu batzuetan egoera hauek ezagun egin ziren pertsonen gizartean garrantzia zutelako, eta beste batzuetan, ordea, guk geuk geure kontsultetan ikusi ahal izan genuelako, Lehen Mailako Arreta gune edota Buruko Osasun zentrotan. Egia da errealitate hori aski ezaguna zela nazioarteko zein estatuko erakundeen txostenei esker, eta bazirela poliziak atxilotu bitartean tratu txarrak jasandako pertsonen arreta eskaintzeko profesionalki trebatutako profesionalak.

Banaka edo taldeka garatutako esperientzia ezberdinen ostean, eta prozesu terapeutikoen inguruan alor akademikoan hedatu ziren hainbat ikerketa xume garatu eta gero (formakuntza, jardunaldiak, ikastaroak, liburuak...), ikerlan honen sustatzaile profesionalak beharrezkoa ikusi zuten hedadura zabalagoa izango zuen ikerketa bat egitea.

Gaian interesa dugunez, bagenekien indarkeriari buruzko ikerketak kontu berria direla, eta ondorioz, gutxi batzuk baino ez direla existitzen (batez ere ikuspuntu epidemiologikotik, zentzu honetan ez dago modu orokorrean aintzat har daitekeen eredu adosturik). Halaber, bagenekien egun ez dagoela kontrasta daitekeen datu nahikorik torturaren inguruan. Kontrol eta jarraipen lanak egiten dituzten nazioarteko erakundeek kezka azaldu dute agerian gelditzen den dikotomiaren-

gatik: alde batetik zenbait gobernuak baieztatzen dute Espainian ez dela torturarik egiten, kasu bakan batzuk salbu, eta bestetik, gobernuak kanpoko hainbat eragileren informazioaren arabera, tortura oraindik erabiltzen den praktika bat da. Eusko Jaurlaritzak egin duen azken txostena erreferentzia gisa hartuz gero, ikusiko dugu 5.500 tortura salaketa judizial eta/edo estrajudizial existitzen direla. Zifren zenbatekoaren menpe gelditu gabe, tortura, arreta instituzionalik jaso ez duen arazo larria da, eta geroz eta froga sendoagoak daude tortura salaketak ipuintzat jo ezin daitezkeela egiaztatu eta ikerketa judiziala urria izan dela esateko. Ebidentzia hauen jatorria anitza da, giza eskubideen kontrola burutzen duten nazioarteko erakundeak, Espainiako edo nazioarteko Epaitegien sententziak, eta erakunde edo ikerketa talde ezberdinek eginitako ikerlan enpirikoak.

Baina aldeaz aurretik eginitako ikerketa enpirikoek muga bat dute, tortura testigantza bakoitzaren fidagarritasunaren baloraziorik ez dutela egin, alegia. Balorazio horren bitartez osasunaren profesionalak (ebaluazio mediko eta psikologiko sakon eta zehatz baten bidez) torturaren eraginari buruzko dokumentazio fidagarria sor dezakete, beti ere nazioarteko estandar zientifikoekin bat datorrena.

Helburu hori buruan genuela eman genion hasiera proiektu honi. ARGITUZ erakundeak psikologo, mediko eta elkarte profesional ezberdinekin harremanetan jarri zen (OME, Osalde eta Jaiki-Hadi) ikuspegi hori oinarri hartuz egin zitekeen ikerketa enpiriko berri baten bideragarritasuna baloratzeko.

Ikerketa garrantzitsua izan zedin, hasierako bilkuretatik beharrezkotzat jo genituen jarraian ageri diren puntu hauek:

- Giza eskubideak zein osasunaren esparru zientifikoak lantzen dituzten maila lokaleko zein nazioarteko erakundeak tartean sartzea.
- Torturaren ebaluazio fisiko eta psikologikorako nazioartean baliozkotzat jotzen

diren gida edo bitarteko forentseak erabiltzea, beti ere praxi onaren estandar profesionalak oinarri hartuz.

- Diseinu metodologiko sendo eta zehatz bat egitea (ikerketa lan mota hauetan egin direnak baino hobea), barne mailako baliozkotzeak eta kanpoko erakunde, nazioarteko aditu eta Ikerketarako Etika Batzorde baten ikuskapena izango dituen.
- Proiektua estatu-mailan zein maila lokalean buru-osasunaren zein giza eskubideen alorrean lan egiten duten beste erakunde batzuei zabaltea.

Lehendabiziko fase honen ostean proiektuan parte-hartu zuten erakundeetako profesionalak gehitu ziren lantaldera. Hasierako bilkura batzuen ostean diseinu metodologikoa finkatu zen, eta horren ostean, osasunaren alorreko 30 profesional baino gehiago bildu zituen lantaldea osatu zen, gehienak, buru-osasunaren eremukoak, espezializazio ezberdinekoak eta entzute handikoak. Jakintza-alor anitzetako ikuspegi ezberdinak eduki izana aberasgarria izan da ikerketaren eremu metodologiko zein analitikorako.

Lana maila independenteetan banatu zen, profesionalen arteko sistema bikoitz batean oinarrituz. Hasierako elkarrizketa eta miaketa psikometrikoa tokian tokiko psikologo kliniko edo psikiatra lokal batek egin zuen, eta esta-

tuko beste erkidego bateko psikologo edo psikiatra batekin batera lan egin behar izan zuen peritatu bakoitzari zegokion protokoloa osatzeko. Gerora beste psikiatra aditu batek azterketa guztiak gainbegiratu zituen. Aldi berean, medikuz osaturiko beste talde batek atxilotetaren inguruko kanpoko ebidentzia dokumentalak (txosten medikuak) aztertu zituen. Bestalde, azterlan honetan erabilitako metodologia Kopenhagen egoitza duen International Council for the Rehabilitation of Torture Victims erakundeak aztertuko zuela adostu zen. Erakunde hau mundu mailan torturaren prebentzioa eta tortura biktimen errehabilitazioa lantzen duten 140 erakunde baino gehiagok osatzen dute. Halaber, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV-EHU) Ikerketako Etika Batzordeari aurkeztu genion proiektua.

Azken batez, ikerketa berezia da honako hau, eta orain arte egin direnak kontuan hartuz gero ezberdintasunak agerian gelditzen dira. Ikerketa honek tratu txar edo torturen salaketan sinesgarritasuna nazioarteko adituen estandarren arabera aztertzen du, horretarako metodologia zatikatua eta erabat itsua erabiltzen du, eta era berean prestakuntza profesional eta zientifiko handia duten kanpo-erakundeen gainbegiraketa zientifikoaren pean burutu da.

1. Atala.

Atxiloketa inkomunikatua Euskal Herrian. Alor juridikoa eta azterlan honen aurrekariak

Benito Morentin, Jon M. Landa,
Xabier Urmeneta.

2002. urtean NBEren Torturaren aurkako Batzordeak kezka azaldu zuen: *"dikotomia agerian da, Estatuak baieztatzen du Espainian ez dagoela inolako tortura edo tratu txarrik kasu bakan batzuetan salbu [...] eta gobernuz kanpoko iturrietatik jasotako informazioek Estatuako segurtasun indarren partetik datozen tortura eta tratu txarren iraunkortasuna azpimarratzen dute"*¹. Data honen ostean ere atxiloketa inkomunikatuarekin lotuta dagoen torturari buruzko ekarpen handiak argitaratu dira, Espainiako agintarien jarrera ofiziala zalantzan jartzen dutenak. Hauen arabera salaketa guztiak faltsuak dira eta ETak diseinaturiko estrategiaren barnean kokatzen dira sistematikoki².

¹ NBEren Torturaren Aurkako Batzordea: Spain. 23/12/02, CAT/c/CR/29/3.

² Torturari buruzko errelatore berezia 2004. urtean, 2004 E/CN.4/2004/56/Add.2 txostena 2004ko otsailaren 6ko bisitaren ostean. Terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak eta funtsezko askatasunak sustatu eta babesteari buruzko Errelatore Berezia 2008. urtean, A/HRC/10/3/Add.2 txostena 2008ko abenduaren 16an. 2004an eta 2006an bi Errelatore hauen egindako bisitetan Espainiako agintariak iritzi berdina azaleratu zuten: terrorismoaren aurkako neurrien baitan atxilotutako pertsonak egiten zituzten salaketak faltsuak ziren, eta ETak Espainiako justizia penalaren ospea zikintzeko eta terrorismo delituetan eskuratutako probak baliogabetzeko estrategia baten baitan kokatzen ziren. Iritzi hau babesteko, 1998ko martxoaren 19an ustez "Araba/98" komando terroristaren kideen etxe batean aurkitutako dokumentu bat eman zion Gobernuak Errelatore Bereziari.

Ekarpen hauekin batera, giza eskubideen kontrola burutzen duten nazioarteko erakundeekin zein Euskal Herriko ikerkuntza talde edo erakunde ezberdinek eginiko txostenak daude. Tartean ere, garrantzia handiko sententziak heldu dira Espainiako Auzitegietatik, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegitik edo Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordetik³.

Baina urteetan zehar behin eta berriro aipamenak eta ebidentziak agerian gelditu badira ere, Gobernuaren jarrera ez da aldatu, eta modu honetan erantzun zuen 2011. urtean Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordeak (CPT) eginiko galderari: *"Nolanahi ere, berriz ere gogoraz behar dugu talde terroristaren estrategia ezagun eta publikoa, delitu hauen biktima izan direla sistematikoki salatzea alegia, komunikabideetan gai hauek izaten duten oihartzunagatik eta nazioarteko giza eskubideen aldeko erakundeek noizean behin eskaintzen dieten sinesgarritasunagatik"*⁴.

1.1. Atxiloketa inkomunikatuaren eremu legala

Terrorismo kasuetan erabiltzen den atxiloketa sistema inkomunikazio erregimena da, Prozedura Kriminalaren Legeko 509, 520 bis eta 527 artikuluen arabera. Atxiloketa sistema honen baitan susmopean dagoen pertsona epaitegiaren esku uzteko epeak

Dokumentu horrek atxiloketa bitartean torturak nola salatu behar diren irakasten du.

³ 1. eta 2. eranskinak. Ikusi, hemendik aurrera ere, giza eskubideen estandarren kontrolerako erakunde ofizial zein gobernuz kanpokoaren txosten garrantzitsuen ikuspegi orokorra, baita Espainiako jurisprudentziarena eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiarena ere Landa Gorostiza, J.M.-ren "La tortura en relación con la banda terrorista ETA: estado de la jurisprudencia penal". Eta JUECES PARA LA DEMOCRACIA 73 (2012), orr. 81-104 artean agertzen den 2011ko azaroaren 2ko (Portu eta Sarasola kasua) Auzitegi Gorenaren Sententziari buruzko iruzkina.

⁴ 2007ko Irailaren 19tik Urriaren 1era Espainian egindako bisitaren inguruan Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak (CPT) eginiko txostenari Espainiako Gobernuak eman zion erantzuna. CPT/Inf (2011) 12.

luzatzen dira, gainera atxilotuaren osotasun fisikoa bermatzen duten eta oinarrizkoak diren beste eskubide batzuk ere ukatzen zaizkio atxilotuari: familiarekin eta konfiantzazko abokatu edo mediku batekin harremanetan jartzeko eskubidea. Nazioarteko jarraipen erakundeek aho batez eskatzen dute atxiloteta inkomunikatuaren epea bost egunera murriztea, baina hori egin beharrean, Azaroaren 25eko 15/03 Lege Organikoaren erreformaren bidez epe hau luzatu egiten da, behin epaitegiaren esku egonda beste 8 egunez luza daiteke, beraz guztira 13 egun eman ditzake atxilotuak inkomunikazio egoeran⁵.

Nazioarteko hainbat aditu zein erakundeek behin eta berriz errepikatu dute atxiloteta inkomunikatua ez litzatekeela onarturik egon behar legeriaren baitan⁶. Esate baterako, torturari buruzko Errelatore Bereziak azpimarratu izan du atxiloteta inkomunikatuak tratatu krudel, anker eta iraingarriak edo tortura bera sufritzea errazten duela, eta horregatik inkomunikazio erregimena indargabetu behar dela dio⁷. Nazio Batuen Eskubideen Batzordeak berriki gogorarazi dio Gobernuari inkomunikazio erregimenerekin behin betiko amaitzeko neurriak har ditzan, izaera legegilea duten neurriak barne⁸. Azkenik, tokiko ikuspuntu batetik ere,

⁵ Human Rights Watch, "¿Sentando ejemplo? Medidas anti-terroristas en España", 17. Bol. 1. zenb. (D), Urtarrila 2005 (<http://www.hrw.org/sites/default/files/reports/spain0105sp.pdf> orrialdean eskuragai).

⁶ Nigel S. Rodley (2009). *The treatment of Prisoners under International Law*. Oxford University Press. Oxford 3rd edition. 460 orrialdea. Amnesty International. *La tortura como receta txostenean. De las leyes anti-terroristas a la represión de la primavera árabe, 2011ko Ekainean* hau esaten da: "Espainia da Europar Batasunean atxilotuta dauden pertsonen eskubideen murrizketa horren latzak indarrean dituen herrialde bakarra. Gainera ustezko torturen salaketek gutxitan egiten dute aurrera gehienetan ez baitira ikertzen."

⁷ Torturari buruzko Errelatore Berezia 2004. urtean. 2004ko Otsailaren 4ean Theo van Boven torturari buruzko Errelatore Bereziak Espainian bisita egin ondoren, E/CN.4/2004/56/Add.2

⁸ Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea. CCPR/C/107/D/1945/2010. 2013. urtean onartutako Irizpenak (Achabal Puertasen kasua) Espainia kondenatu zuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna urratzeagatik.

Euskal Herriko Herriaren Defendatzaileak (Ararteko) txosten bat idatzi du orain dela gutxi, eta bertan atxiloteta inkomunikatuaren berme-sistema indartu eta hobetzeko gomendioak argitaratu ditu⁹.

1.2. Nazioarteko Erakundeen Txostenak

Giza eskubideen kontrolean bereziki lan egiten duten erakunde ofizialek erregulartasunez burutu dituzte torturaren inguruko behaketa eta azterlanak, artean, Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Kontseiluak (CPT), Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisarioak, Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak (CAT), Giza Eskubideen Batzordeak, eta azkenik, tortura zein terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubide zein oinarrizko eskubideen defentsan eta sustapenean aritzen diren errelatore bereziek¹⁰. Erakunde hauek urte asko darmatzate Estatu Espainolean legea betetzeko ardura duten funtzionarioek eginiko tortura kasu edota tratatu krudel, anker edo iraingarriengatik kezka adierazten, bai eta kasu askotan arduradunek izan duten inpunitate eraginkorragatik. Bestalde, erakunde hauek kezka azaldu dute atxilotuek dituzten berme urrien iraunkortasunagatik, gerta litezkeen torturen azterketa azkar, sakon eta zorrotzen gabeziagatik, eta tortura delituen ikerkuntza eta errepresioa burutzeko auzitegiek duten jardura ezagatik.

Kasu batzuetan salaketa ezberdinen sinesgarritasuna ere aztertu dute, eta ondorio gisa, inkomunikatuta dauden atxilotuen salaketak gezur huts gisa uler ezin daitezkeela azpimarratu dute, egoera pertsonalak azterturik sinesgarriak direla alegia. Hainbat egoera-

⁹ Ararteko, Euskal Herriko Herriaren Defendatzailea (2008): Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak. http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/5_2093_3.pdf

¹⁰ 1 Eranskina. Gaiari buruz argitaratu diren dokumentu garantzitsuenak aztertzen ditu.

tan, tratu txarren salaketekin bat datorren ebidentzia zabala lortu dutela nabarmendu dute, izaera medikoa duten ebidentziak barne¹¹. Torturari buruzko Errelatore Bereziak ondorioztatu zuen tortura noizbehinka gertatzen den praktika baino are gehiago dela, eta atxiloketa sistemak tortura edo tratu txarren jasatea ahalbidetzen duela, batez ere ekintza terroristengatik inkomunikazio egoeran atxilotutako pertsonengan.

2008. urtean CCPR/C/ESP/CO/5/ txostenean ondorengo baieztatu zuen Giza Eskubideen Batzordeak: *"kezkatuak ikusten dugu oraindik ere tortura kasuen salaketak egiten direla eta ematen du Estatuak ez duela inolako estrategia globalik osatu, ez eta torturaren behin betiko indargabetzea ahalbidetzeko neurri nahikorik hartu."* Batzorde honek ulertzen du inkomunikazio erregimenak tratu txarrak erraz ditzakeela eta tamalez, nazioarteko aditu eta erakundeek deuseztatzea gomendatu badute ere, egun mantentzen dela salatzen du¹².

2008ko maiatzean Martin Scheininek (terrorismoaren kontra borrokan giza eskubideak eta funtsezko askatasunak sustatu eta babesteari buruzko Errelatoreak) bisita egin zuen Espainian, eta horren ostean A/HRC/10/3/Add.2 txostena aurkeztu zuen. Bertan, *"kezka azaltzen du inkomunikazio egoeran eta terrorismoagatik susmopean dauden atxilotuek eginiko tortura eta beste*

Torturari buruzko Errelatore Bereziak ondorioztatu zuen tortura noizbehinka gertatzen den praktika baino are gehiago dela, eta atxiloketa sistemak tortura edo tratu txarren jasatea ahalbidetzen duela.

tratu txarren adierazpenengatik". Adituak gobernuari gogorarazi zion *"ikerketa azkarra, independentea, inpartziala eta osoa egin behar duela, baldin eta tratu debekatuak gertatu direla pentsatzeko zentzuzko arrazoiak baditu, eta, hori ez ezik, honako hau ere zaindu behar duela: tortura eta tratu txarren biktimek errekurtso eraginkorra aurkezteko aukera izatea, eta kalte-ordainketa egokia jasotzea, baita kalte-ordaina jasotzea ere, hala badagokio"*¹³.

1989. urteko maiatzaren 2an Estatu Espainolak Torturaren Aurkako Itun Europearra sinatu zuenetik, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak (CPT) hamahiru txosten argitaratu ditu. 2011ko martxoaren 25ean argitaratu zuen CPTk Espainiara 2007an egindako bisitaren txostena, eta 2013ko apirilaren 30ean 2011ko ekainean egindako bisitarena. Bi txosten hauetan kezka azaldu zuen berriro ere, eta modu oso kritikoa, inkomunikazio egoeran zeuden atxilotuek jasotako tratu latzen salaketengatik eta salaketa hauen ebidentzia medikoengatik. Azken txostenak honela dio: *"Delegazioak 11 pertsonekin izan zituen elkarrizketak, eta horietatik 10ek tratu txarren adierazpen sinesgarri eta sendoak helarazi zizkiguten. Pertsona hauek guztiak 2011. urteko lehenengo hilabetetean Guardia Zibilak gidatutako operazioetan erregimen inkomunikatuan atxilotuak izan*

¹¹ Torturari buruzko Errelatore Berezia 2004. urtean. 2004ko otsailaren 6an Theo van Boven torturari buruzko Errelatore Bereziak Espainian bisita egin ondoren E/CN.4/2004/56/Add.2. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 1 to 12 April 1991. CPT/Inf (96) 9 [EN] (Part 1) – Publication Date: 5 March 1996. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/1996-09-inf-eng-1.htm>. Accessed January 30, 2007. Amnesty International. 2005 Txostena: Una nueva y peligrosa agenda. Índice AI: POL 10/006/2005. http://www.es.amnesty.org/uploads/tx_use-raitypdb/Mas_20alla_20del_20papel.pdf.

¹² 2008ko urrian Giza Eskubideen Batzordeak eginiko bostgarren aldizkako azterketa, Nazio Batuak. CCPR/C/ESP/CO/5/ Txostena.

¹³ Terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak eta funtsezko askatasunak sustatu eta babesteari buruzko Errelatore Berezia 2008. urtean. 2008ko abenduaren 16ko A/HRC/10/3/Add.2 txostena.

ziren.” Tortura adierazpen hauen artean ostikadak, buruan eta gorputzean kolpeak borrarekin, asfixia (“boltsa”), iraupen luzeko ariketa fisikoak eta kasu batzuetan sexu-abusua aurki daitezke. 2013ko txostenean berriz ere azpimarratzen zen tortura prebenitzeko eta orain arte Espainiako Gobernuak entzungor jasotako gomendioak¹⁴.

Amnesty International da zalantzarik gabe Espainian torturaren existentzia behin eta berriz nabarmendu duen erakundea, eta era berean, prebentziorako eta torturaren deuseztapenerako mekanismoen ezarpenean

¹⁴ European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Txosten guztiak daude eskura helbide honetan: <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/.htm>.

2011ko maiatzaren 30etik ekainaren 13ra bitartean Espainian egindako bisitaren ostean CPTk argitaratutako txostenean (<http://www.cpt.coe.int/documents/esp/2013-06-inf-esp.pdf>) honako gomendio eta iruzkin hauek agertzen dira:

Gomendioak:

- Guardia Zibilak erabiltzen dituen metodoen azterketa zorroztu eta independentea;
- fiskalak/epaileak salaketak idazki baten bidez jaso beharko ditu eta salaketak modu egokian aztertzen direla ziurtatzeko baliabideak bermatu beharko ditu;
- hiru babes mota espezifikoki bermatzen direla ziurtatzeko neurriak: familiari jakinaraztea; epaitegiko medikoarekin batera atxilotuak hautaturiko mediko batek ikustea ahalbidetzea; 24 orduko bideo-zaintza eta atxiloketa eremuetako grabaketa;
- atxilotuak fisikoki epailearen aurrera eramatea custodia 72 ordu baino gehiago luzatzea erabaki aurretik. Beharrezkoa balitz legeria zuzendu beharko litzateke (20. paragrafoa);
- modu pribatuan abokatu batekin biltzea baimentzea;
- mediko batek txosten mediko forentseak idatzi eta sina ditzan gero epailearen aurrean aurkezteko; gainera medikoak ondorioak atera beharko lituzke egiten den edozein adierazpidetik abiatuz, horren sendotasuna zehazteko;
- elkarrizketetarako portaera araudia. Begiak estali edo txano bat jartzeko eta ariketa fisikoak egiteko edota denbora luzez zutik egoteko debekua;
- artxiboen erregistroaren hobekuntza. Bideo eta audio grabaketak areagotu beharko liratezke 26. paragrafoaren iruzkinak kontuan hartuz;
- Gainbegiraketa botereei dagokienez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak gainerako epaileak ikuspuntu ekintzaleago bat izan dezaten bultzaraztea;

Iruzkina:

- Tratu txarren adierazpenak egiten direnean, Espainiako legeriaren arabera epaileak behartuta daude atariko ikerketa bat egitera, eta bestela, salaketa konpetentzia duen beste auzitegi batera helaraztera.

tematu dena¹⁵. Hala ere, 2005. urtean argitaratu zuen bere lehen txostena.

1.3. Azterlan Empirikoak

Euskal Herrian-Espainian torturaren fenomeno hainbat argitalpen zientifikoetan landu izan da, modu partzialean bada ere. Euskal Herriko torturen biktimak aintzat hartzen zituen lehendabiziko azterlan kontrolatua argitaratu zuten 1985. urtean Petersen eta Jacobsenek¹⁶. Bertan atxilotu ohiez osaturiko talde bat aztertu zuten. Euren testigantzak sinesgarri gisa balioetsi zituzten eta atxilotu ohien osasun egoera eskasa zela azpimarratu zuten. Behin eta berriz agertu ziren sintomak psikologikoak ziren: depresioa, antsietatea, labilitate emozionala, lo egiteko zailtasunak, amesgaiztoak, kontzentrazioaren eta memoriaren narriadura. Gainera, biktimen bizitza arriskuan jartzen zuen eta ageriko lesiorik uzten ez zuen tortura kasu latz batzuen inguruko artikulua bat ere idatzi zuten¹⁷.

J.M. Biurrun psikologoak azterlan bat argitaratu zuen 1994. urtean, eta bertan 1992an atxilotutako 61 pertsonen tortura esperientzien kontaketa batu zituen. Azterketa kualitatibo bat egin zuen, eta bertan beste gauza batzuen artean, torturak eragindako arrasto, kalte eta asaldura psiko-fisikoaren azalpena (ez oso sakona) egin zuen. Deskribatzen duen sintomatologia fisikoaren baitan honako hauek agertzen dira: algiak gune trau-

¹⁵ Amnesty International 2005 Txostena: Una nueva y peligrosa agenda. Índice AI: POL 10/006/2005. http://www.es.amnesty.org/uploads/tx_useraitypdb/Mas_20alla_20del_20papel.pdf. Amnesty International la Sal en la herida: La impunidad efectiva de agentes de policía en casos de tortura y otros malos tratos” (EUR 41/006/2007). Amnesty Internationalen 2007 Txostena Amnesty International. El estado de los derechos humanos en el mundo. Índice AI: POL 10/001/2007. <http://report2007.amnesty.org/document/172>. Amnesty International. La tortura como receta. De las leyes anti-terroristas a la represión de la primavera árabe, 2011ko ekaina.

¹⁶ Petersen, H.D., Jacobsen, P. Psychological and physical symptoms after torture. A prospective controlled study. *Forensic Sci Int.* 1985;29:179-89.

¹⁷ Petersen, H.D., Jacobsen, P. Life-threatening torture without visible marks. *Scand J Soc Med* 1985;13:87-88.

matizatueta, gorputz-dardarak, gorakoak, zorabioak, esfinterren kontrolik eza; eta sin-tomatologia psikologikoaren baitan, psikomotorraren kontrol eza, loaren desorekak, agorafobia, etab. Era berean, torturaren efektu psikologikoei biktimgan dituzten eraginak baloratzen dira¹⁸.

Meanak eta bere lankideek 1992 eta 1993 bitartean atxilotutako 64 pertsonen jasan zituzten tortura sexualak aztertu zituzten 1995ean. Bertan deskribatu zutenaren arabera, tortura sexualen praktikak emakumei eragiten zien bereziki¹⁹. Geroago, 2002an eta 2008an argitaratutako bi azterlanetan atxilo zeuden euskaldun inkomunikatuei buruz Audientzia Nazionalak igorritako dokumentu mediko-forentseen kalitatea deskribatu zen datuen bidez. Txosten mediko-forentseen arabera, tratu txar edo tortura salaketan zenbatekoa %50ekoa zen gutxi gorabehera. Tratu txarren salaketak zituzten dokumentu gehienek sortutako ondorioei buruzko edo indarkeriaren zeinu klinikoari buruzko informazioa zuten, tratu txarren historiaren arabera²⁰.

Gai honen inguruan ez zen inolako azterlanik egin indar instituzionalekin 2008ko ekainean Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak *Indarkeria Politikoaren ondorioz izandako Giza Eskubideen Urraketen Biktimgak Txostena*²¹ argitaratu zuen arte.

Geroago, dokumentu honen eguneraketa egin zen, *"Tortura: hurbilpen zientifikoa"*²² txostena alegia, eta Kriminologiaren Euskal Institutuaren *"Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Txostena"*²³ argitaratu zen.

"Tortura: hurbilketa zientifikoa" txostenean 2000-2008 bitartean inkomunikazio erregimenean atxilotutako 957 pertsonen datuak aztertu ziren, baita tratu txarrak edo torturak jaso zituztela adierazi zuten pertsonen 289 salaketa judicial eta 507 txosten mediko-forentse ere. Inkomunikatutako pertsonak kontuan hartuz, "tratu txarren / torturaren adierazpenen maiztasuna % 51 zela kalkulatu zen (Barne Ministerioaren arabera, denbora tarte horretan, ETArekin zerikusia zuten 1231 atxilotu egon ziren). Tratu txarrak/torturak pairatu zituzten 634 atxilotu inkomunikatuetatik, 446k (% 70) salaketa judiciala burutu zuten (1. Taula). Txosten mediko-forentseetatik atara ziren datuak ere adierazgarriak izan ziren: inkomunikazioak iraun zuen bitartean atxilotuen % 61ek tratu txarrak / torturak salatu zituen auzitegiko medikoaren aurrean. Orain dela gutxi argitaratutako *"Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Txosten"* enpirikoaren arabera, Instrukzioko Epaitegi Zentralean euren eskubideen urraketengatik salaketa judicialak jarri zituzten atxilotu inkomunikatuen ehunekoa antzekoa da. Euskal Herrian torturak adierazi zituzten atxilotu inkomunikatuen intzidentzia honakoa izan zen: 100.000

¹⁸ J.M. Biurrun. Las relaciones de tortura. Irlaka argialetxea. Donostia. 1994.

¹⁹ Meana, J.J., Morentin, B., Callado, L.F., Idoyaga, M.I. Prevalence of sexual torture in political dissidents. *The Lancet* 1995; 345: 1307.

²⁰ Petersen, H.D., Morentin, B., Callado, L.F., Meana, J.J., Hougen, H.P., Idoyaga, M.I. Assessment of the Quality of medical documents issued in central police stations in Madrid, Spain: the doctor's role in the prevention of ill-treatment. *J Forensic Sci* 2002; 47: 293-298.

Morentin, B., Petersen, H.D., Callado, L.F., Idoyaga, M.I., Meana, J.J. A follow-up investigation on the quality of medical documents from examinations of Basque incommunicado detainees. The role of the medical doctors and national and international authorities in the prevention of ill-treatment and torture. *Forensic Science International* 2008; 182:57-65.

²¹ Landa, J.M. Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimgak. Víctimas de vulneraciones de derechos humanos derivadas de la violencia de motivación política. Victims of human Rights violations derived

from politically motivated violence, Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2009, 812 orrialde.

²² Ikus. Norabide berean *Tortura: una aproximación científica* (2000-2008) txostena, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzak eskatua. Giza Eskubideen Zuzendaritza/Dirección de Derechos Humanos/Human Rights Board, Giza Eskubideen politika Euskadin. La política de Derechos Humanos en Euskadi. The Human Rights policy in the Basque Country, Vitoria-Gasteiz, 2009, 142 orrialdea. Eskura ondorengo helbidean: http://www2.ohchr.org/english/bodies/cat/docs/ngos/AEDIDH2_Spain43.doc.

²³ De La Cuesta, J.L., Muñagorri, I. (Codir.). Aplicación de la Normativa Antiterrorista, Instituto Vasco de Criminología, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU), Donostia-San Sebastián, 2009ko uztaila, 402. orrialdetik aurrera. (Eskuragarri ondorengo helbidean: http://www.ivac.ehu.es/p278-content/es/contenidos/informacion/ivcke_i_libro_online/es_libro/normativa.html).

biztanletik 2,6 kasu urte bakoitzeko, altuena Gipuzkoan eman zen, 3,9 kasu alegia. Esaldi batean, aztertutako herritarren artean torturak zuen intzidentzia eta hedapena islatzen zuten datuak kezka handiarekin interpretatu ziren²⁴.

Bi azterlan hauetan aldagai demografiko, kriminologiko eta prozesalak antzeman ziren, eta tortura adierazpenen tipologia eta maiztasunarekin uztartu ziren. Torturak faltsuak direla eta instrukzio generiko bati jarraiki egiten direla dioen hipotesiaren aurkako aurkikuntzak dira hauek. Daturik garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:

- Adierazpenen maiztasuna zuzenki proportzionala da inkomunikazioaren iraupenarekin.
- Atxilotuta gauzatu zuen indar polizialaren araberrako tortura / tratu txarren izaera ezberdina. Guardia Zibila izan zen tortura eredu latzago batekin erlasionaturiko polizia. Alde batetik, tortura / tratu txarren

²⁴ Ikus. Morentin, Benito/Landa, Jon-Mirena, "La tortura en relación a la aplicación de la normativa antiterrorista: una aproximación estadística multifactorial" EGUZKILORE 25 (2011), 49-73 orrialdeak.

Tortura faltsuak direla eta instrukzio generiko bati jarraiki egiten direla dioen hipotesiaren aurkako aurkikuntzak dira hauek.

adierazpen handiena izan zuen indar poliziala izan zen (1. Taula); eta bestetik, ustez, tortura metodorik larrienak erabili izan zituena. Beste muturrean, Ertzaintzak atxilotutako pertsonak izan ziren larritasun txikieneko tratu txar fisikoak adierazi zituztenak.

- Sexu tortura metodoak atxilotuaren sexuaren araberrakoak izan ziren. 2003. urtetik aurrera euskal instituzioek torturaren aurkako konpromiso sendoa hartu zuten, eta hortik aurrera ez dago Ertzaintzarekin lotutako tortura salaketarik. Antza denez, datu honek erakutsi egiten du giza eskubideen urraketa mota hauen kasuan konpromiso instituzional eta politikoez izan dezaketen garrantzia.

1. Taula. Tortura / tratu txarrak adierazi zituzten atxilotu inkomunikatuak

Atxilotuta burutu zuen indar poliziala	Atxilotuen zenbatekoa	Tratu txarrak / torturak adierazi zituzten atxilotu inkomunikatuen ehunekoa	Tratu txarrak / torturak pairatu ostean salaketa judiziala jarri zuten atxilotuen ehunekoa
Guardia Zibila	260	85	80
Polizia Nazionala	512	58	65
Ertzaintza	181	62	66
Polizia Frantsesa	4	0	

Kriminologiako Euskal Institutuak egin zuen ikerketa enpirikoak ondorioztatu zuen moduan, terrorismoaren aurkako legeriaren

aplikazioaren ondorioz atxilotutako pertsonen eginiko tortura salaketak ez ziren modu sakonean aztertu.

1.4. Tokiko zein Estatuko Gobernuz Kanpoko Erakundeen Txostenak. Datu ofizialak


Euskal Herriko zein Espainiako hainbat erakundeek lekuan bertako informazioa jasozten lan egiten dute. Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundeak tortura kasu indibidual ugari jaso ditu urtero argitaratzen dituen txostenetan, artean inkomunikazio erregimenean atxilotutako pertsonak. Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundeak (CPDT) Espainian 2004 eta 2012 urteen artean jaso dituen tortura kasuen kopurua 540 eta 850 artekoa izan da, urteko 700 kasu inguru izan dira batez beste²⁵ (1. Irudia).

Urtero egiten diren txosten horiek erakusten dute tortura Estatuko hainbat eremuetan gertatzen dela, eta Euskal Herrira soilik mugatzen ez den arazo zabala dela Espainian (CDPTren datuen arabera euskal gatazkarekin zerikusia duen tortura kasu guztien % 8 baino ez da). Erregistroan agertzen diren kasu gehienak migrazioekin, herri mugimenduen errepresioarekin, udaltzaingoaren larderiarekin edo manifestazioetan gertatutako tratu txarrekin dute zerikusia (2. Irudia). Atxiloketa inkomunikatuarekin lotuta dagoen tortura askoz zabalagoa den fenomeno baten parte da. CDPTren txostenetan agertzen den kasuistikak iradokitzen duen moduan, salaketa kasuak ezin dira ulertu horrenbeste pertsonen testuinguru ezberdinetan elkarren artean adostutako estrategia bat balira bezala.

²⁵ Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundeak. Torturaren Prebentziorako Koordinakundearen urteroko txostenak: La Tortura en el Estado Español, ondorengo helbidean eskuragai <http://www.prevenciontortura.org/>


documentos/. Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundeak (CPDT) (2011): Informe sobre la tortura en el Estado español en el año 2012, <http://www.prevencion-tortura.org/wp-content/uploads/2013/05/INFORME-CPT-2012-final.pdf>

1. Irudia 2004-2012 bitartean egon ziren pertsona afektatu eta kasu guztiak*



* "Kasuak" terminoa: Estatuko Segurtasun Indarren interbentzioak "tortura", "tratu txar" edo "tratu anker edo iraingarritzat" har daitezkeen egoerak sortu dituenen. "Salatzaileak" terminoa: aurrez aipaturiko egoera horiek jasan ostean judizialki edo sozialki salatu dituzten pertsonak.

2. Irudia. Salatzailaren arabera tortura eta/edo tratu txarren salaketen eboluzioa: 2004-2012



Torturaren Aurkako Taldea (TAT) Euskal Herriko GKE bat da, eta Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundearen (CPDT) parte izateaz gain, urtero argitaratu ditu torturaren fenomenoaren inguruko txostenak, batez ere atxilotu inkomunikatuekin zerikusia dutenak²⁶. Erakunde honek dituen datuak kontuan hartuz, 1992 eta 2007 urteen artean Euskal Herrian gertatu diren tortura kasuen kopurua 40 eta 130 bitartekoa izan da, beti ere momentu politikoaren arabera, eta beraz, urtero 90 bat kasu gertatu dira batzaz beste²⁷.

Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundearen (CPDT) txosten berriago batean torturak Espainian 2012. urtean zuen egoera aztertzen da. Bertan ematen ziren datuen arabera, Estatuko Segurtasun Indarrekin zein Espetxeetako funtzionariekin lotura duten tortura kasuen kopuru handi bat ez da justizia auzitegi edo izaera pribatu zein publikoko beste edozein erakunderen aurrean salatzen. Egoera hori batez ere pertsona migranteen edo presoek kasuan gertatzen da.

Kasu hauengandik salatuak izan diren funtzionarien kasuan, Polizia Nazionalak 117 kasu²⁸ eta eraginak pairatu zituen 514 pertsona jaso zituen; Erkidegoetako Poliziek 49 kasu eta 155 pertsona; Espetxeetako Funtzionariak 74 kasu eta 81 pertsona; eta Guardia Zibilak 19 kasu eta 61 pertsona.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak argitaratzen dituen estatistika ofizialak dira Espainian erregistratzen diren tortura kasuei heltzeko beste modu bat. Bertan, tortura edo tratu iraingarriengatik irekitako eginbideen kopurua agertzen da. 2001-2005 urteen artean urteroko eginbideen kopurua 600 eta 850 bitartekoa izan zen. 2011. urtean funtzionari publikoren batek tortura edo osotasun moralaren aurka eginiko beste edozein delituegatik Fiskaltzak ireki zituen prozesu penalak honako hauek izan ziren: 46 tortura kasu, 236 kasu tratu iraingarriengatik eta osotasun moralaren aurkako 66 kasu²⁹.

Estatu Espainoleko Torturaren Prebentziarako Mekanismo Nazionala (MNP)³⁰ nazioar-

²⁶ Ikuspegi panoramikoa eta erreferentziak: ARZUAGA, Julen, *Oso Latza izan da. Tortura Euskal Herrian*, Euskal Memoria, Donostia-San Sebastián, 2012.

²⁷ Torturaren Aurkako Taldea. Urtero eginiko txostenak helbide hauetan eskuragai: www.stoptortura.org eta <http://www.behatokia.info/modules.php?op=modload&name=Downloads&file=index&req=viewsdownload&sid=45>

²⁸ CPDT elkarteak modu honetan definitzen du egoera: Estatuko Segurtasun Indarren interbentzioak "tortura", "tratu txar" edo "tratu anker edo iraingarritzat" har daitzekeen egoerak sortu dituenen.

²⁹ http://www.defensordelpueblo.es/es/Mnp/InformesAnuales/InformeAnual_MNP_2012.pdf. 343: Iturria: FGEk (2012ko Memoria) emandako datuen arabera guk egindakoa.

³⁰ <http://www.defensordelpueblo.es/es/Mnp/Defensor/anuales.html>

teko funtzionamendua duen beste informazio iturri bat da. Erakundeak lan prebentiboa egiteaz gain, kasu ezberdinei buruzko informazioa jaso eta zabaltzen du. Torturaren eta bestelako tratu krudel, anker edo umiliagarrien aurkako Konbentzioaren Hautazko Protokoloa (OPCAT) sinatu baino 6 urte beranduago eta MNP Espainian ezarri baino bi urte beranduago, Herriaren Defendatzaileari eman zitzaion MNParen ardura. Erakunde honen lehen txostenean aipagarria da detekta zitezkeen tortura edo / eta tratu txar zehatzen gabezia dokumentuak aintzat hartzen zuen denbora tartean (2010. urtean 250 'bisita' baino gehiago egin zituzten Atxiloketa-Zentroetara). 2012an zehar Herriaren Defendatzaileak 35 espediente ireki ditu tratu txarregatik (ofizioko 5 eta 30 alderdiak eskatuta); eta 66 Segurtasun Indarren jardueretan jasotako tratu desegokiengatik³¹, atxiloketa inkomunikatuak kontuan hartu gabe. Atxiloketa hauek Herriaren Defendatzailearen estatistiketan ere ez dira agertzen. Hala eta guztiz ere, MNParen lana zalantzan jarri izan da erakundeak duen gardentasun faltagatik, bere funtzionamenduan gizarte zibilaren parte-hartze ezagatik eta Herriaren Defendatzailearen Bulegoan (eta ondorioz, MNPearen) dagoen independentzia gabeziagatik. Espainian Herriaren Defendatzailea ez da pertsona independente bat, Parlamentuan gehiengoa duten bi partiduek txandaka aukeratzen dute³².

Azkenik Eusko Jaurlaritzak berak eginiko "Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzko txostena (1960-2013)" aipatu behar da. Torturari dagokionez, dokumentuan 5.500 salaketa publiko egin direla jasotzen da (judizialak eta estrajudizialak gehituta), eta kalkulatu da 124 pertsona izan direla komisariatik pasa ondoren ospitalean amaitu dutenak³³.

³¹ http://www.defensordelpueblo.es/es/Mnp/InformesAnuales/InformeAnual_MNP_2012.pdf

³² Torturaen Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundea (CPDT). www.prevenciontortura.org

³³ Eusko Jaurlaritza, Lehendakaritza. "Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzko txostena

Hala eta guztiz ere, azterlan honen helburua ez da polizia indar ezberdinen egoerak edo interbentzioak zenbakitan adieraztea. Gai honek azterketa zehatzagoa behar du, eta beraz, zehaztasun handiz eginiko beste azterlan eta ikerketa batzuen aipamena baino ez dugu egin.

1.5. Epai Judizialak

Giza eskubideen zuzenbide internazionalaren estandarren kontrolaz arduratzen diren erakunde ofizial zein ez-ofizialek azpimarratutako alderdi kritikoek berrespena aurkitu dezakete Auzitegiek berriki harturiko erabakietan. 2010-2013 urteen artean metatzen joan dira auzitegi gorenak eginiko ohartarazpenak, artean, Auzitegia Nazionalak³⁴, Auzitegi Gorenak³⁵, Konstituzio Auzitegiak³⁶, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak³⁷, Nazio Batuen Torturaren

(1960-2013)". Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekaina.

³⁴ 2010eko apirilaren 12an Auzitegia Nazionalak emandako Epaiak "Egunkaria Kasuari" dagokionez atxiloketa inkomunikatuaren kontrol "nahiko eta eraginkorraren" gabezia baieztatzen du. Horrela gerta zitezkeen tortura eta tratu txarrei buruzko zalantza jasota geratu zen.

³⁵ Auzitegi Gorenaren 483/2011 Epaiak, maiatzaren 30ekoa. Epai honek 2009an ustez talde terroristarekin kolaboratzeagatik jasotako kasu bat berraztertzen du kasazioan (2010eko uztailaren 26ko Auzitegia Nazionalaren Epaiak). Zuzenbide Oinarrien arabera, lehendabizi instrukzioko epailearen ekintzak aztertzen ditu. Gero, inkomunikazio egoeran atxilotuaren eskubideak bermarazteko figura epailea bera dela azpimarratu ostean, bere funtzioan modu egokian jardun ez izana aurpegiratzen dio.

³⁶ Konstituzio Auzitegiak (urriaren 18ko STC 63/2010) norabide beran jarraitzen du, eta Estrasburgoko erakunde judizialaren doktrina jasotzen du 2005eko otsailean terrorismoagatik gertatutako beste atxiloketa kasu batean (Majarenas kasua). Auzitegi honek torturaren debekuari dagokionez agindu behar duen "kanon indartuaren" iraunaldia azpimarratzen du, eta jaso ziren gertakariak argitzeko ikerketa prozesuak bertan behera utzi zituzten erakunde judizialen erabakia gaitzesten du. 2010eko urriko gertakariaren inguruko beste epai batean (STC 131/2012) babesa ematen dio salatzaileari, ikerketa judizial eraginkorrik ez zenez burutu, tortura edo tratu txar, anker edo iraingarrik ez jasotzeko babes judizial eraginkorraren urraketagatik.

³⁷ 2010eko irailaren 28an Europako Giza Eskubideen Epaitegiak (3. atala) emandako epaiak. Argimiro Isasa Espainiaren aurka kasua. Auzitegiak ustez ETAKo kide izanagatik eginiko atxiloketa bat berraztertzen du. Epaitegiak adierazten du "(...) barne jurisdikzioak gertakizunen argitze aldera lagungarri izan zitezkeen probak ukatu zituela. Ondorioz, salatzaileak

Egoera honen aurrean, ematen du beharrezkoa dela nazioartean zein maila lokalean giza eskubideen edota osasunaren alorrean lan egiten duten erakunde zientifikoak tartean sartzea.

Aurkako Komiteak³⁸ edo Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak³⁹ eginikoak kasu. Adierazpen hauen bidez us-tezko egoera konkretu batzuk ondorioztatu dira: ETaren kontrako polizia jardueretan atxiloketa inkomunikatuaren kontrol "nahiko eta eraginkorraren" gabezia edo salaketen ikerketa judizial eraginkorren gabezia. Aldi berean, gerta izan zitezkeen tortura eta tratutu txarren presentzia jaso dute epai hauek. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordearen adierazpena da ezagutzen den azkena. 2013ko martxoan onarturiko irizpenean, Espainia zigortu zuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 7. artikulua urratzeagatik. Irizpen honen arabera, Espainia behartuta dago gertakizunen erabateko ikerketa inpartzial eta eraginkorra

eginiko tratutu txarren adierazpen defendagarrien aurrean ikerketa sakon eta eraginkorrik ez denez egon, Auzitegiak adierazten du prozesuko alderdian 3. artikulua urraketa eman dela". Zentzu berean, ikus. 2011ko martxoaren 8ko Europako Giza Eskubideen Epaitegiaren (3. atala) epaia. Beristain Ukar Espainiaren aurka kasuak prozesuko alderdian jaso den Hitzarmenaren 3. artikulua beste urraketa bat jasotzen du. Ikus. lehenago Martínez Sala eta beste batzuk Espainiaren aurka kasua. 2004ko azaroaren 2ko Europako Giza Eskubideen Epaitegiaren (4. atala) epaia. Epairik berriena egunkari baten zuzendariarekin lotuta dago, Otamendi Espainiaren aurka kasua, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 2012ko urriaren 16an emandako epaia. Funtsezko eta prozesuko urraketen inguruan ikus.: SANTAMARIA ARINAS, René, LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki (Dir.). *Convenio Europeo de Derechos Humanos. Comentario sistemático*, Iruñea, 2009, 57-59 orrialdeak.

³⁸ Nazio Batuen Torturaren aurkako Komitea. CAT/C/48/D/453/2011. 2012ko maiatzaren 7 eta ekainaren 1 bitartean Komitearen 48. batzarraldian hartutako erabakia.

³⁹ Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen batzordea. CCPR/C/107/D/1945/2010. 2013ko martxoan onartutako irizpenak Espainia zigortu zuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 7. artikulua urratzeagatik.

egitera, erantzuleen prozesamendua eta zigorra ahalbidetuko duen baliabide bat osatzera, erabateko erreparazioa bermatzera eta laguntza medikoa eskaintzera.

1.6. Ondorioak

Tortura ezkutuan mantentzen den baina era berean aktiboa den fenomeno dela probatzen duten seinaleak biderkatu egin dira azken urte hauetan. Orain arte erakundeen edota akademiaren jarraipenik ez zuen errealitate honetara hurbildu gara seinale horiei esker. Egoera honen aurrean, ematen du beharrezkoa dela nazioartean zein maila lokalean giza eskubideen edota osasunaren alorrean lan egiten duten erakunde zientifikoak tartean sartzea. Batez ere, torturaren ikerlanean aurrera egin eta praktika honen eragin emozional zein soziala baloratzeko. Ikerlan hau torturaren ebaluazio fisiko eta psikologikorako nazioartean onartuta dauden baliabide forentseen bidez egin behar da, beti ere praxi onaren estandar profesionaletara egokituz. Ikerlan honek gerta izan zitezkeen oinarrizko eskubideen urraketa dokumentatzeko balio behar du, bai eta egia erakitzeko. Zentzu horretan eta lagin zabal eta askotarikoa osatzeko, orain arte eginiko ikerlanek erabili dituztenak baino askoz ere metodologia sakonagoak erabili behar dira dokumentazio forentsea edo datuen analisisa egiteko orduan.

Gauzak horrela, ikerlan honetan parte hartu duten profesionalak eskuratu duten esperientzia lagungarria izan daiteke Eusko Jaurlaritzaren azken txostenean proposatu den tortura salaketen sinesgarritasunari buruzko azterlan egiteko⁴⁰. Lan honetan erabili den metodologia (egokiak litezkeen aldaketa eta doikuntzekin) aipaturiko azterlan horretarako hasiera puntua izan zitekeen.

⁴⁰ Eusko Jaurlaritzaren, Lehendakariaren. "Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena (1960-2013)". Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekaina.

1. Eranskina. Torturarekin zerikusia duten gaiengatik Espainiar Estatua zigortzen duten agiri garrantzitsuenak

Human Rights Watch

1. Human Rights Watch. 2006ko otsaila. España: la otra cara de las islas Canarias. *Violación de los derechos de los inmigrantes y los solicitantes de asilo*: www.hrw.org/legacy/reports/2002/spain/Spain0202.pdf
2. Human Rights Watch. 2002ko maiatza. España y Marruecos. Callejón sin salida. *Abusos cometidos por las autoridades españolas y marroquíes contra niños migrantes*: www.hrw.org/legacy/reports/2002/spain/Spain0202.pdf
3. Human Rights Watch. 2005ko maiatza. ¿Sentando ejemplo? Medidas antiterroristas en España: www.hrw.org/en/reports/2005/01/26/sentando-ejemplo

Amnesty International

1. Amnesty International. 2004ko maiatza. España: *Acabar Con La Doble Injusticia. Víctimas de tortura y malos tratos sin reparación*. Amnesty International argitalpenak. Lege-gordailua: GU-614/2004
2. Amnesty International. 2002ko ekaina. España. *Crisis de Identidad: Tortura y malos tratos de índole racista a manos de agentes del Estado*. www.amnesty.org/es/library/info/eur41/001/2002/es
3. Amnesty International. 2006ko urria. España y Marruecos. *Falla la Protección de los Derechos de las Personas Migrantes. Ceuta y Melilla un año después*. Al indizea: EUR 41/009/2006: www.amnesty.org/library/Index/ESLEUR410092006
4. Amnesty International. 2007ko azaroa. España: *Sal en la herida. La impunidad efectiva de agentes de policía en casos de tortura y otros malos tratos*: www.amnesty.org/es/library/info/eur41/006/2007/es

5. Amnesty International. 2009ko urria. España: *Sal en la herida. Impunidad policial dos años después*: www.amnesty.org/es/library/info/EUR41/010/2009
6. Amnesty International. 2011ko ekaina. La tortura como receta. De las leyes anti-terroristas a la represión de la primavera árabe. <https://doc.es.amnesty.org/cgi-bin/ai/BRSCGI?CMD=VERDOC&BASE=SIAI&SORT=&DOCR=1&RNG=10&FMT=SIAIWEB3.fmt&SEPARADOR=&&INAI=ACT4010011>

Torturaren Prebentziorako Europako Batzordearen txostenak

1. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 1 to 12 April 1991. CPT/Inf (96) 9 [EN] (Part 1) – Publication Date: 5 March 1996. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/1996-09-inf-eng-1.htm>. Accessed January 30, 2007.
2. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 10 to 22 April 1994 CPT/Inf (96) 9 [EN] (Part 2) – Publication Date: 5 March 1996. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/1996-09-inf-eng-2.htm>. Accessed January 30, 2007.
3. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment

- (CPT) from 10 to 14 June 1994 Ref.: CPT/Inf (96) 9 [EN] (Part 3) – Publication Date: 5 March 1996. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/1996-09-inf-eng-3.htm>. Accessed January 30, 2007.
4. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 17 to 18 January 1997. Ref.: CPT/Inf (2000) 3 [EN] – Publication Date: 13 April 2000. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/2000-03-inf-eng.htm>. Accessed January 30, 2007.
 5. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 21 to 28 April 1997. Ref.: CPT/Inf (98) 9 [EN] – Publication Date: 19 May 1998. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/1998-09-inf-eng.htm>. Accessed January 30, 2007.
 6. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 22 November to 4 December 1998. Ref.: CPT/Inf (2000) 5 [EN] – Publication Date: 13 April 2000. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/2000-05-inf-eng.htm>. Accessed January 30, 2007.
 7. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 22 to 26 July 2001. CPT/Inf (2003) 22. Publication [13/03/2003]. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/2003-22-inf-eng.htm>. Accessed January 30, 2007.
 8. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 19 September to 1 October 2007. Publication 25 March 2011. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/2011-11-inf-eng.htm>.
 9. European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 30 May to 13 June 2011, CPT/Inf(2003)22. Ref.: CPT/Inf (2013) 6 – Publication Date: 30 de abril de 2013. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/2013-06-inf-esp.pdf> 2005eko martxoaren 10 eta 19 bitartean Espainiar Estatuan eginitako bisitaren ostean Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisarioak, Álvaro Gil-Roblesek, aurkeztu zuen txostena, CommDH (2005)8.
- Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordea**
- 2008ko urrian Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak eginitako bostgarren aldizkako azterketa. CCPR/C/ESP/CO/5/txostena.
- Torturaren Aurkako Komiteak (NBE)**
1. Committee Against torture of the United Nations (2002), Conclusions and recommendations of the Committee against Torture: Spain, CAT/C/CR/29/3.

2. Committee Against Torture of the United Nations (2011), Conclusions and recommendations of the Committee against torture: Spain, CAT/C/ESP/CO/5.

Nazio Batuen Erakundeko Torturari buruzko Errelatore Bereziaren txostenak

1. Los derechos civiles y políticos, en particular las cuestiones relacionadas con la tortura y la detención. Theo van Boven Nazio Batuen Erakundeko Torturari buruzko Errelatore Bereziaren txostena. Urriaren 5 eta 10 bitartean Espainian egindako bisita. Erreferentzia: E/CN.4/2004/56/Add.2 2004-II-6an argitaratua.
2. Civil and Political Rights, Including The Questions of torture and Detention torture and other cruel, inhuman or degrading treatment or punishment. Report of the Special Rapporteur, Manfred Nowak. Erreferentzia E/CN.4 /2006/6/Add. 244. orrialdea eta ondorengoak. 2006-III-21ean argitaratua.
3. Torture and other cruel, inhuman or degrading treatment or punishment. Report of the Special Rapporteur, Manfred Nowak, Addendum, Follow-up to the recommendations made by the Special Rapporteur Visits to Azerbaijan, Brazil, Cameroon, Chile, Mexico, Romania, the Russian Federation, Spain, Turkey, Uzbekistan and Venezuela. Erreferentzia: E/CN.4/2006/6/Add.2. 61. orrialdea eta ondorengoak. 2006-III-21ean argitaratua.
4. Report of the Special Rapporteur on torture and other cruel, inhuman or degrading treatment or punishment, Manfred Nowak. Follow-up to the recommendations made by the Special Rapporteur. Visits to Azerbaijan, Cameroon, Chile, China, Colombia, Georgia, Kenya, Mexico, Nepal, Romania, Spain, Turkey, Uzbekistan and Venezuela (Bolivarian Republic of). Erreferentzia: A/HRC/4/33/Add.2. 2007-III-15ean argitaratua.

Txosten guztiak ikusteko: ap.ohchr.org/documents/dpage_e.aspx?m=103

Terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak eta funtsezko askatasunak sustatu eta babesteari buruzko Errelatore Bereziaren txostenak

Report of the Special Rapporteur on the promotion and protection of human rights and fundamental freedoms while countering terrorism. Mission to Spain (May 2008). Erreferentzia: A/HRC/10/3/Add.2. 2008-XII-16an argitaratua: www2.ohchr.org/english/issues/terrorism/rapporteur/docs/A.HRC.10.3.Add.2AEV.pdf

2. Eranskina. Torturarekin zerikusia duten gaiengatik emandako epai garrantzitsuenak

1. 2010eko apirilaren 12ko Audientzia Nazionalaren epaia, "Egunkaria kasua".
2. Auzitegi Gorenaren 483/2011 epaia, maiatzaren 30ekoa. Epai honek 2009an ustez talde terroristarekin kolaboratzeagatik jasotako kasu bat berraztertzen du kasazioan.
3. Konstituzio Auzitegia (urriaren 18ko STC 63/2010)
4. Konstituzio Auzitegia (STC 131/2012)
5. Europako Giza Eskubideen Epaitegiaren (3. atala) epaia, 2010eko irailaren 28an. Argimiro Isasa Espainiaren aurka kasua.
6. Europako Giza Eskubideen Epaitegiaren (3. atala) epaia, 2011ko martxoaren 8koa. Beristain Ukar Espainiaren aurka kasua.
7. Europako Giza Eskubideen Epaitegiaren (3. atala) epaia, 2012ko urriaren 16koa. Otamendi Espainiaren aurka kasua.
8. Nazio Batuen Torturaren aurkako Komitea. CAT/C/48/D/453/2011. 2012ko maiatzaren 7 eta ekainaren 1 bitartean Komitearen 48. batzarraldian hartutako erabakia.
9. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordea. CCPR/C/107/D/1945/2010. 2013ko martxoan onartutako irizpenak Espainia zigortu zuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 7. artikulua urratzeagatik. Achabal Puertas Espainiaren aurka kasua.

2. Atala.

Metodologia – Ikerketa eta dokumentazio prozesuaren deskribapena

Olatz Barrenetxea, Iñaki Markez,
Pau Pérez, Oihana Barrios,
Benito Morentin, Gabriela López,
Miguel Ángel Navarro, Maitane Arnoso.

Aurreko kapituluan ikusi denez, estatuko zein nazioarteko hainbat erakundek kezka azaldu dute bereziki inkomunikazio erregimenean atxiloturiko pertsonen adierazitako tortura / tratu txarren salaketengatik.

Hiru oinarrizko erreferentzia dira txosten honen abiapuntua: Nazio Batuen sistemaren baitako nazioarteko erakundeek Espainiari eginiko oharrak, atxiloteta inkomunikatuan egon diren pertsonen lagin adierazgarriak aztertu dituzten azterlan enpirikoen ondorioak, eta Konstituzio Auzitegiak zein Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak emandako epaiak.

Ikuspuntu ezberdinetatik abiatuta ondorio berdinetara heldu dira erakunde hauek, atxilotu inkomunikatuen salaketak ezin dira asmakizun edo estrategia terrorista gisa kontuan hartu. Gertakari sinesgarrien egiaztapenak dira, eta erakunde ezberdinen ebaluazio eta gomendioen arabera, tratu txarren salaketa hauen ebidentzia mediko eta psikiatriko zabala lortu da. Zentzu berean, tortura delituen ikerketarako, auzitegiek izan duten pasibotasunagatik euren kezka sakona adierazi dute.

2.1. Zein da ikerketa honen ekarpena: helburuak

Ikerlan honen helburua hirukoitza da.

1. Inkomunikazio erregimenean egon diren eta horren ostean tortura edo tratu txarrak adierazi dituzten (nahiz eta salatu ez) hiritarren lagin zabal eta adierazgarri bat ikertzea adierazpen horien sinesgarritasuna ebaluatzea ahalbidetzen duten baliabideekin, momentu oro adierazpenen sinesgarritasuna praxi onaren estandarren arabera egiaztatzen.
2. Adituek tortura edo tratu txarren existentzia egiaztatzen duten kasuetan, kasu horren ondorio mediko eta psikosozialen azterketan aurrera egitea.
3. Adierazten diren tortura metodoen analisi bat egitea. Horretarako, aztertutako pertsonen adierazpenetan tortura ereduak ote dauden bilatu behar da, elementu klinikoekin eta inpaktuarekin bat ote datozen ikertu eta kontakizun, metodo, zauri eta epe motzeko, ertaineko zein luzeko ondorioen arteko trinkotasuna aztertu.

Horretarako, zehaztasun zientifikoarekin egin beharreko jardunaren eta aztertzailearen iriztziaren arteko independentzia ikuspuntu akademiko batetik bermatzeko, metodologia zeharo sendoa ezarri zen. Mota honetako azterlanetan usu erabiltzen dena baino metodologia-salvaguardia sistema hobea erabili zen. Erabilitako metodologiari dagokionez honako alderdi hauek dira azpimarragarriak: aztertzaileen arteko independentzia, elkarri-zketa klinikoan analisi itsu eta independentea, elementu kualitatiboak, miaketa psikometrikoak eta testu-analisirako estatistika teknika aurreratuen erabilpena. Osasunaren 25 profesionalek osatzen dute taldea, gehienak buru-osasunaren alorreko espezializazio ezberdinekoak eta entzute handikoak. Ebaluazioetan euskaldunak ez diren eta Euskal Herriko gatazka politiko edo sozialekin inolako erlaziorik ez duten psikiatra eta

psikologo profesionalek parte hartu dute. Honekin batera, azterlanak International Council for the Rehabilitation of Torture Victims erakundearen babesa eta ikuskapena jaso ditu, torturarekin zerikusia duten gaiei dagokionez mundu mailan dagoen erakunde sarrerik handienarena. Eta azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Etika eta Ikerkuntza Sailak ere babesa eskaini dio azterlanari.

Laburbilduz, ikerketa lan hau orain arte eginko bakarra da, aurretik egin direnek ez bezala, azterlan honek, nazioarteko adituen estandarrek kontuan hartuz, tortura edo tratu txarren adierazpenen sinesgarritasunaren analisia egiten du, eta helburu horrekin, metodologiatatik eta erabat itsua erabiltzen du. Gainera, azterlanak prestakuntza profesional zein zientifikoan ospe handia duten kanpoko erakundeen gainbegiratzea izan du.

2.2. Istanbulgo Protokoloa: tortura edo tratu txarren adierazpenen nazioarteko dokumentaziorako baliabide nagusia

Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarrien ikerkuntza eta dokumentazio eraginkorrerako esku-liburua, edo hizkera herrikoian Istanbulgo Protokoloa izenez ezagunagoa den txostena da aztertutako pertsonekin erabili dena. Txosten horretan tortura edo tratu txarren adierazpenen txostenak aztertu, ikertu eta idazteko nazioartean aitortzen diren estandarren lehendabiziko bilduma agertzen da. Herrialde ezberdinetan hiru urtez eginko bilera eta lanen ondorioa da Istanbulgo Protokoloa, bertan zuzenbidean, osasunean eta giza eskubideetan entzute handia zuten 75 adituk hartu zuten parte, torturaren aurka borroka egiten duten 40 erakunderen izenean (proiektu honen gainbegiraketa lanak egin dituen IRCT erakundea barne).

Azterlan honek, nazioarteko adituen estandarrek kontuan hartuz, tortura edo tratu txarren adierazpenen sinesgarritasunaren analisia egiten du.

1999ean hasi zenetik Istanbulgo Protokoloak Nazio Batuen babesa eta sustapena jaso du, eta erakunde honek erreferentziarako nazioarteko estandar gisa onartu du⁴¹. 2000ko abenduko torturaren aurkako Ebazpenaren bidez Nazio Batuen Batzar Nagusiak aho batez onartu zituen Istanbulgo Printzipioak⁴². Beranduago, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoak gonbitea egin zien gobernuei printzipio hauek tentuz irakurri eta tortura errotik kentzeko erabil zitzaten⁴³. Giza eskubideen erakundeek gida hauek (Istanbulgo Printzipioak) tortura adierazpenen ikerketen kalitatea eta eraginkortasuna neurtzeko erreferentzia gisa aintzatetsi dituzte. Esate baterako, Istanbulgo Printzipioak tortura adierazpenen kasuak aztertzeko garaian osasunaren profesionalen txostenak osatzeko gutxieneko eskakizun gisa aipatu zituen Istanbulgo Printzipioak Giza Eskubideen Amerikarteko batzordeak⁴⁴. Zentzu berean, Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordeak azaldu zuen tortura adierazpenen ikerketak modu azkar, inpartzial eta eraginkorrean egin behar direla, beti ere Istanbulgo Protokoloaren gidaritzapean⁴⁵.

⁴¹ Ikus. www.ohchr.org/Documents/Publications/training8Rev1sp.pdf

⁴² 55/89 Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpena, 2000ko abenduaren 4ean.

⁴³ 2003/33 Giza Eskubideen Batzordearen ebazpena, 57. Bilkura, 2003ko apirilaren 23an [E/CN.4/2003/L.11/Add.4].

⁴⁴ Ana, Beatriz eta Celia González Pérez Mexikoren kontra (53/01 txostena), Giza Eskubideen Amerikarteko batzordeak, 2001eko apirilaren 4ean.

⁴⁵ Preventing Torture at Home: A Guideline to the

Istanbulgo Protokoloa fokatutako elkarrizketak egiteko gida zehatza da, eta bertan, galdetu behar diren alderdi eta gai ezberdinen inguruko laguntza ageri da aztertzailearentzako. Zehaztasunez beteriko lanabes konplexu eta zehatza da, eta ondorioz hainbat lan sesio behar dira aztertu beharreko pertsonarekin. Praktika onen estandarren araberrako protokolo bat osatzeak zenbait eguneko iraupena izaten du, eta horietan,

aztertzailea aztertuaren ezagupen sakonak izatera iristen da, alderdi pertsonal, kliniko edota sozialetan (2. taula). Ezagupen hau ezinbestekoa da azkeneko irizpena eta ebaluazioa egiteko. Horrekin batera, sinesgarritasuna probatzeko beste elementu batzuk daude (3. taula). Aztertzaileak beraz, kontakizunarekin horrenbesteko zerikusirik ez duten beste datu objektibo batzuk hartzen ditu kontuan, testuan bertan edo testutik at dauden elementuak kasu (4. taula).. Horrekin guztiarekin, Protokoloak berak aurrez ezarritako estandar eta kanonen araberrako formulazio bat egiten du aztertzaileak (5. taula).

Establishment of National Preventive Mechanisms, 2004ko maiatzaren 1ean.

2. Taula. Istanbulgo Protokoloa erabiliz sinesgarritasunaren analisisa areagotzen duten elkarrizketa perizialaren oinarriak

- Historia biografiko pertsonalera bideratutako elkarrizketa, hirugarren iturrietatik jasotako datuen alderaketarekin.
- Izaera enpatikoa, horizontala, irekia eta entzuteko gaitasunarekin.
- Elkarrizketatuari inolako denbora-presiorik ezarri gabe.
- Izaeraren egituraren analisisa.
- Egoera gogorre aurre egiteko moduaren ereduak.
- Hitzeko eta ez-hitzeko komunikazioaren arteko kongruentzia.
- Kontatzen diren gertakizunen koherentzia, kontatzen diren gertakizunen eta hauek adierazteko erabiltzen den emozio eta oihartzunaren arteko sendotasuna.
- Deskribatutako gertakizunen eta hauei aurre egiteko ekintzen arteko sendotasuna.

3. Taula. Istanbulgo Protokoloaren formulazio perizialaren oinarriak

- Elkarriketari esker posiblea da datuak ezarri eta ondorengo galderak erantzutea
- Ba al datoz bat **aztarna psikologikoak eta ustezko torturaren txostena?** (*kongruentzia klinikoa*)
- Esan al daiteke aurkitutako aztarna psikologikoak aztertuaren testuinguru kultural eta sozialaren baitan sortutako muturreko estresaren ondorioz **espero daitezkeen erreakzio tipikoak** direla? (*adierazpen sindromikoaren sendotasuna*)
- Denboran zehar traumarekin erlazioa duten buru-nahasmenduen eboluzio aldakorra kontuan hartuta, zein litzateke tortura gertakizunekin erlazioa duen **denbora-eremua?** Aztertua **sendatze-prozesuaren** zein puntutan dago orain? (*gertakizunaren aurretik eta ostean gertatutako aldaketa kliniko objektibo eta funtzionalak, eboluzioa eta geroko pronostikoa*)
- Agertzen diren estresaren elementu ezberdinen artean, zeintzuk dira oraindik ere subjektuarengan eragina dutenak (esate baterako, oraindik jarraitzen duen jazarpena, derri-gorrez eginiko migrazioa, familiarren edota funtzio sozialaren galera)? Zer nolako eragina dute faktore hauek subjektuarengan? (*muga etiologikoa eta onargarritasun kausalaren lotura*)
- Zein ezaugarri fisiko dator bat ezaugarri klinikoekin? (*faktore lagungarri eta eginarazleak*)
- Erakusten al dute ezaugarri klinikoek tortura adierazpena faltsua dela? (*sinesgarritasuna*)

4. Taula peritoaren sinesgarritasun azterketaren oinarri epistemologikoak Istanbulgo Protokoloan

- Gertakizunak
 - Datu objektiboak
 - Kontatzeko trebetasuna
 - Kontakizunaren sinesgarritasuna
- Aldaketen eragilea tortura izan daitekeenaren onargarritasuna (Kausa-efektu erlazioa).
- Aldaketek pertsonarengan izan duten eragina: aurreko eta osteko egoera.
- Aldaketa hauek eta kontatutako gertakizunek izan ditzaketen loturak. Beste kausa batzuk baztertu.
- Kontatzen diren gertakizunen arteko kongruentzia maila, tortura motaren arabera gertakizunak adierazteko erabiltzen den emozioa, geroko erantzun emozionala, deskribatutako sintomak eta eboluzioa.
- Pertsonaren aurretiko ezaugarriak.
- Antzeko ebaluazioetan klinikoak duen esperimentzia.
- Kultur eremua.
- Gainera laguntza gisa egokiak diren proba guztiak onartuko dira (testak, azterketa fisikoak, beste aditu batzuk, etab.)

5. Taula sinesgarritasun mailak

- "Sendotasunik gabe" ("Not Consistent") = Aipatutako gertakizunek ez dute eragin.
- "Sendoa" ("Consistent with") = Deskribatutako gertakizunek eragin zezaketen sintoma espezi-fika-ezinak.
- "Oso Sendoa" ("Highly Consistent") = Deskribatutako gertakizunek eragin zezaketen eta gutxi dira aztertutakoarekin bat etor daitezkeen beste gauza batzuk.
- "Sendotasun Handiena" ("Diagnostic for") = Deskribatutako gertakizunek baino ezin zuten eragin.

Istanbulgo Protokoloan tortura hitza Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Umiliagarrien aurkako Konbentzioaren terminoen arabera definitzen da:

“Konbentzio honen ondoretarako, «tortura» terminotzat ulertuko da pertsona bati begira gauzatzen den egintza oro, hala nahita min edo sufrimendu larriak, fisikoak nahiz mentalak eragiten dizkiona, horren helburua dela berarengandik edo hirugarren batengandik informazioa edo aitorpenen bat lortzea, gauzatu duen edo ustez gauzatu duen egintza batengandik zigortzea, edo pertsona hori edota beste batzuk ikaratzea edo derrigortzea, edota edozein bereizkeria-motatan oinarritutako arrazoi batengatik, betiere, min edo sufrimendu horiek eragiten baditu funtzionari publiko batek nahiz funtzio publikoak gauzatzen dituen pertsona batek, edo halakoek bultzatuta edo halakoen baimenarekin edo oniritziarekin jarduten dutenek. Ez dira tortura gisa hartuko zehapen legitimoen ondoriozko min edo sufrimenduak, edo zehapen horiei datxekizkienak nahiz zehapen horiei begira intzidentalak direnak.”⁴⁶

Honen arabera, tortura, nahita min edo sufrimendu larriak, fisikoak nahiz mentalak, eragitea da, funtzionari publiko batek (polizia edo segurtasun indarrak kasu) edo halakoen baimenarekin egiten denean.

Tortura gertaeren tipifikazioa azterlan honetan

Gertaeren kalifikazio legal edo juridikoa ez da azterlan honen helburua. Edonola ere, hori erakunde judizialei dagokien lana da. Adituari adierazpenen sinesgarritasuna frogatzea eta ondorioak dokumentatzea dago-kio. Merezki du azpimarratzea azterlan honetan tortura eta tratu txar edo ankerren arteko

Lan honen helburua torturen sinesgarritasuna peritatzea eta ondorioen analisisa egitea denez, hasierako pertsona multzotik tratu txarrak edo torturak sufritu izana salatu dutenak aukeratu dira soil-soilik.

muga non dagoen zehazten duen eztabaidari ez zaiola garrantzirik eman. Nahikoa da esatea Torturaren aurkako Konbentzioak nahiz nazioarteko zuzenbidearen beste bitarteko batzuek bata eta bestea, Tortura eta Tratu txar, anker edo iraingarriak, debekatzen dituztela, eta biak modu berean kontsideratzen direla Estatu espainolak sinaturiko Nazio Batuen jurisprudentzia sisteman.

2.3. Lagina

Irizpideak eta hautapen metodoak

TATek (Torturaren Aurkako Taldea) 1992tik atxilotuak izan diren pertsonen erregistroa egin badu ere, ez dago Euskal Herrian atxilotoketa inkomunikatuan egon diren pertsonen kopuru ofizialik. Gainera orain dela gutxi Eusko Jaurlaritzak argitaratutako “Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzko txostenean (1960-2013)” honakoa esaten da: *“40.000 atxilotu (Barne Ministerioaren arabera, atxilotutako horietatik 10.000 baino gutxiagori leporatu diete ETArekin harremana izatea)”⁴⁷*

Inkomunikatuta egon diren atxilotuen zifrarik ez badago, are gutxiago dago torturaren biktima izan diren pertsonena; isilean mantendu den fenomeno da. Jarrerak oso ezberdinak dira, alde batetik badira torturaren existentzia ukatzen dutenak eta bestalde 10.000 kasu

⁴⁶ Nazio Batuen Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Umiliagarrien aurkako Konbentzioaren 1. Artikulua; 1984ko abenduaren 10eko UNGA 39/46 ebzape-na. 1987ko ekainaren 26tik indarrean.

⁴⁷ Eusko Jaurlaritzak, Lehendakaritzak. “Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzko txostena (1960-2013)”. Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekaina.

zenbatzen dituztenak. Euskal Memoriaren argitalpenean kalkulatu da azken 50 urteetan 9.633 eta 11.633 kasu artean gertatu direla: 2000-2012 artean 733 kasu; 90. hamarkadan 900; 80. hamarkadan 3.000; eta 5.000 eta 7.000 kasu bitartean aurreko bi hamarkadetan⁴⁸. Eusko Jaurlaritzaren "Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarriko txostenean (1960-2013)" baieztatzen da 5.500 tortura-salaketa publiko existitzen direla (salaketa judizial eta ez judizialak kontuan hartuz). 2000-2008 urteei dagokien Eusko Jaurlaritzaren beste txosten batean aipatzen da 634 tortura-salaketa izan direla, horietatik 446 judizialak dira. Urte horien artean ETA edo talde abertzaleekin zerikusia zuten 1.231 pertsona izan ziren atxilotuak⁴⁹.

Informazio hori datu ofizialekin eskuratzea ezinezkoa denez, azterlan honetan parte-hartzen duten eta euskal gizarte zibilaren parte diren erakundeen artxiboetatik hasi eta pertsonak elur-pilotazko laginketa sistema baten bidez batu dira (hau da, pertsona edo erakunde batzuetatik beste batzuetara jauzi eginez).

Lan honen helburua torturen sinesgarritasuna peritatzea eta ondorioen analisia egitea denez, hasierako pertsona multzotik tratu txarrak edo torturak sufritu izana salatu dutenak aukeratu dira soil-soilik. Ez da, beraz, atxilotu inkomunikatu guztiak ordezkatzen dituen lagina.

ETAren jardun armatuaren amaiera bizi den momentu honetan, beste herrialde batzuetan ez bezala, Estatu espainolean ez da existitzen jatorri politikoa duen indarkeriaren errolda ofizialik. Horrelakorik egon izan baltz, ausazko laginketa egin ahalko litzateke, beste herrialde batzuetan gertatu den modu

berean. Laburbilduz, nahita eginiko lagina da, eta honi esker (jasotako testigantzen sinesgarritasuna baieztatuz gero) problema-ren existentzia eta haren ondorio mediko eta psikologikoak probatu ahalko ditugu. Hala eta guztiz ere, ezingo dira datuak estrapolatu, eta ondorioz ezingo da jakin zein puntura arte diren arazoaren osotasunaren adierazgarri testigantzen sinesgarritasun eta ondorioak.

Lagina Euskal Herriko 45 pertsonak osatzen dute:

- (a) "terrorismoaren aurkako legeriaren" baitan 1982ko urtarrila eta 2010eko abendua bitartean inkomunikazio erregimenean Estatu espainolean atxilotutako pertsonak
- (b) tratu txarrak edo torturak adierazi dituztenak (bide judizialek salaketa ipini duten edo ez alde batera utzita).

Azken hamarkadetan ustez torturak sufritu dituen populazioaren unibertsoa kontuan hartuz, pertsona torturatu guztien % 0.4-0.8arekin lan egiten arituko ginateke. Pertsona bakoitzarekin egindako lana oso sakona izan da, eta ondorioz, informazio bolumenari eta konplexutasunari dagokionez aurrekaririk gabeko azterlan baten aurrean gaude zalan-tzarik gabe.

Kanpoko balioztatze iturriak eta kasu-triangulazioa

Kasuen hasierako hautaketaren ostean kanpoko kasu-balioztatzea egin zen (6. taula).

⁴⁸ Julen Arzuaga. Oso latza izan da. La tortura en Euskal Herria. Euskal Memoria Fundazioa. Andoain, 2012.

⁴⁹ Giza Eskubideen Zuzendaritza. Tortura: una aproximación científica (2000-2008), Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2009.

6. Taula. Laginketa metodologia: kasu-balioztatzea

- Azterlanean parte-hartzen duten erakundeen artxiboetatik abiatuz, euskal gatazkarekin zerkusia zuten eta inkomunikazio egoeran tratu txarrak sufritu izana adierazi zuten pertsonen talde bat osatu zen.
- Atxiloketaren, akusazioaren eta / edo osteko kondenaren arrazoia ez zen aintzat hartu hautaketa prozesurako, bai ordea geroagoko analisirako aldagai gisa.
- Kanpoko iturri baten bidez, atxiloketa eta inkomunikazioa egiaztatu ziren (prentsa, dokumentazio juridikoa, epaiketa)
- Azterlanaren helburuei buruz informatu ostean Informazio Baimena (ikus. eranskinak) eskatu zitzaizen parte-hartzaile guztiei.
- Pertsona bakoitzarekin gutxienez bi lan-sesio egin ziren (sesio bakoitzak 2 ordu iraun zituen gutxienez) elkarrizketa eta azterketa psikometrikoa burutu ahal izateko.
- Erabakiak hartzeko beharrezkoak ziren elementuak bilatu ziren, egiaztapen iturri ezberdinetakoak, hirugarren pertsonenak edo gertakizunekin lotura ahalik eta gertukoena zuten erakundeenak. Horrela, testigantza sinesgarritasunari eta gertaerei buruzko balorazio bat egin ahal izateko.
- Informazio Baimenean elkarrizketatuak hala onartu zuen kasuetan elkarrizketak audioz / bidez grabatu ziren. Modu honetan, iker-tzaile independenteen, kalitate kontrola burutzen zuten adituen edo International Rehabilitation Council for Torture Victims erakundearen gainbegiraketa teknikoak erraztuko zuen artxibo bat osatu zen. Adituen elkarrizketen % 62a bidez grabatuta dago. Gainerakoa audioan bakarrik, eta kasu guztietan adituak aldi berean hartzen zituen ohar-rrak daude.

Nortzuk dira pertsona aztertuak: Ezaugarri sozio-demografiko eta politikoak

Nahita hautatutako lagina bada ere, profil guztien lagin adierazgarria egiten ahalegindu gara eta horretarako, karratu-latindar metodologia erabili da. Beste hitz batzuekin esanda, jende berria proiektura gehitzen joan den heinean adierazgarriak ziren aldagai nagusiak kontrolatu dira, eta horrela karratuko aldagai gakoan lagin orekatua lortu da. 7. taulak pertsona aztertuen profil sozio-demografikoa jasotzen du eta 8. taulak profil politikoak.

Laginean antzekoak dira gizon (% 57) eta emakumeen (% 42) ehunekoak. Atxiloketa garaian oso gazteak ziren pertsona gehienak. Batz-bestekoa 25 urtekoa da, % 90 inguruk 30 urte baino gutxiago zituen atxilotu zituztenean eta 5etik batek 20 urte baino gutxiago. Adingabeak laginetik kanpo gelditu dira, eta datu hauek ikusita esan daiteke oro har atxiloketak oso garai goiztiarrean gertatzen direla.

7. Taula. Ezaugarri sozio-demografikoak (zenbatekoa = 45)

Ezaugarri sozio-demografikoak		Z	%
Sexua	Gizona	26	57,77
	Emakumea	19	42,23
Adina Atxiloketa momentuan (Bataz-beste, 25 urte)	20 baino gutxiago	8	17,70
	21-30	31	68,90
	31-40	5	11,10
	41-50	0	0,00
	51 baino gehiago	1	2,30
Atxiloketa Urtea	1990 aurretik	4	8,90
	1991-1996	3	6,60
	1997-2001	8	17,80
	2002-2007	13	28,90
	2008 edo beranduago	17	37,80
Adina Azterketaren momentuan (Bataz-beste, 35 urte)	21-30	18	40,00
	31-40	14	31,10
	41-50	8	17,80
	51 baino gehiago	5	11,10
Atxiloketa eta Azterketaren artean pasatako denbora	Urte 1 baino gutxiago	4	9,0
	Urte 1 eta 2 bitartean	9	20,0
	2 eta 5 urte bitartean	6	13,3
	6 eta 10 urte bitartean	15	33,3
	11 urte edo gehiago	11	24,4
Hezkuntza Maila	Oinarrizko Hezkuntza	2	4,40
	Erdi-mailako Ikasketak – LH	19	42,30
	Unibertsitatea	24	53,30
Lanbidea	Gaitu Gabeko Eskulangilea	8	17,80
	Eskulangile Gaitua	7	15,60
	Administrazioa-Merkataritza-Ostalaritza	7	15,60
	Bigarren Hezkuntzako-LHko-Unibertsitateko Irakaslea	7	15,60
	Lanbide Liberala-Profesionala	4	8,80
	Ikaslea	8	17,80
	Langabetua	4	8,80
Egoera Zibila	Ezkongabea	13	28,80
	Elkarbizitzan	22	48,90
	Ezkondua	6	13,40
	Banandua	4	8,90
Seme-alabak	Bai	7	15,60
	Ez	38	84,40

8. Taula. Ezaugarri sozio-politikoak (zenbatekoa = 45)

Ezaugarri sozio-politikoak		Z	%
Atxiloketaren eta galdeketaren ardura zuen Segurtasun Indarra ⁵⁰	Guardia Zibila	24	53,40
	Polizia Nazionala	14	31,10
	Ertzaintza	7	15,50
Inkomunikazio egoeran egondako egun kopurua	1	2	4,4
	3	14	31,10
	4	2	4,40
	5	24	53,3
	10	3	6,80
Ondoren hartutako neurriak	Kargurik gabeko Askatasuna	4	8,9
	Askatasuna Karguekin	4	8,90
	Epaiketa bitarteko Espetxeratze Prebentiboa	37	82,20
Militantzia Atxiloketaren momentuan	Talde armatu baten kide edo laguntzailea ⁵¹	2	4,40
	Gazte talde abertzale baten kidea ⁵²	17	37,80
	Talde politiko abertzale baten kidea ⁵³	19	42,00
	Abertzalea ez de herri-talde bateko kidea. Militantzia espezifikorik gabekoa	6	13,30
	Inolako militantzia edo aktibismorekin loturarik gabekoa	1	2,20

⁵⁰ Espainiako Estatu Segurtasun Indarrak anitzak eta askotarikoak dira. Ereku geografikoak banatzen dituen konpetentzietatik harago (udaleko, lurraldeko eta estatuko poliziak), funtzioen arabeko konpetentziak daude (polizia judiciala, atzeritarrena, aduanen kontrola, etab.). Honek esan nahi du polizia guztiek ez dutela inkomunikazio erregimena aplikatzeko eskumenik, lau Segurtasun Indarrek baino ezin dute erregimen hau aplikatu, baina aztertutako pertsonen kasuetan ageri diren hiruretara mugatuko da azterlan hau (ez dugu, beraz, Kataluniako polizia aipatuko, els Mossos d'Esquadra alegia). Hauek dira aipatuko ditugun poliziak:

1. Espainiako Polizia Nazionala (CNP): Polizia Nazionalak eskumen eksklusiboak ditu, atzeritarren kontuak, identifikazioa eta hiritarren agiriak. Polizia Integrala da Estatu hiri eremu guztietan Katalunian eta EAEn salbu, eta konpetentziak ditu "Terrorismoaren aurkako borrokan".
2. Guardia Zibila (GC): Barne estruktura eta erregimen militarizatua duen polizia da. Konpetentzia eksklusiboak ditu aduanen kontrolean eta landa-eremuan. Ondorioz, polizia integral gisa jarduten du arma eta lehegaien kontrolean zein trafikoaren kontrolean Estatu landa-eremu osoan Katalunian eta EAEn salbu. Konpetentziak ditu "Terrorismoaren aurkako borrokan".

Bataz-beste 10 urte pasa dira atxiloketa eta azterketaren artean, 6 hilabete kasurik azkarrenean eta 23 urte luzeenean. Aukera guztiak islatu badira ere, kasu gehienetan (% 60) 6 urte edo gehiago pasa ziren. Baina badira ere orain dela gutxi atxilotuak izan ziren pertsona batzuk (% 10 ia-ia orain dela urtebete baino gutxiago eta % 20 1-2 urte bi-

3. Ertzaintza (Ertz): Ertzaintza edo Euskadiko Polizia Autonomoa polizia integrala da EAeko hiru probintzietan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa). CNPk (atzeritarrak, identifikazioa eta agiriak) eta GCK (aduanak) dituzten eremu eksklusiboak kenduta. Ertzaintzak ere konpetentziak ditu "Terrorismoaren aurkako borrokan".

⁵¹ E.T.A.ko kidea

⁵² Ezker abertzalearen inguruan sortutako gazte taldeak, hala nola, Segi, Haika edo Jarrai.

⁵³ Herri Batasuna, Euskal Herriarrok edo Batasuna bezalako taldeen kide edo jarraitzailea.

Aztertutako pertsona gehienak mugimendu politiko abertzaleen (elkartek, partiduak edo sindikatuak) kide edo jarduera publikoa burutzen zuten gazte erakundeen kideak ziren.

tartean). Beste hitz batzuekin esanda, azterketan agertu ziren inpaktu gehienak erdiko zein epe luzekoak dira.

Pertsona gehienak (% 53,30) goi-mailako ikasketak burutzen ari ziren edo jada amaituta zituzten, eta lanbideari dagokionez eremu anitz ageri dira, langileetatik profesionalera. Gehienak ezkondu gabe (% 28,8) edo elkarbizitza askean (ia % 50,0) ari ziren, eta ez zuten seme-alabarik (% 84,40).

Atxiloketa eta galdeketa guztien %53,4a Guardia Zibilak egin zituen, gainontzekoak Polizia Nazionalaren (% 31,1) eta Ertzaintzaren (% 15,5) artean. Inkomunikazioa hasi zenetik 24 ordu pasa ostean epailearen esku gelditu ziren 2 pertsonak salbu, inkomunikazio erregimenak 3 (% 31,1) edo 5 (% 53,30) egun iraun zuen. 80. hamarkadan inkomunikazio egoeran 10 egun eman zituzten pertsonen 3 kasu daude.

Atxiloketaren ostean, pertsonak gehienak (% 82,20) epaiketa bitarteko espetxeratze prebentibora pasa ziren.

Militantziari dagokionez, ahalegindu gara laginean mota guztietako atxiloketak islatzen. Aztertutako pertsona gehienak mugimendu politiko abertzaleen (elkartek, partiduak edo sindikatuak) kide (% 42,3) edo jarduera publikoa burutzen zuten gazte erakundeen kide (% 37,8) ziren. Mugimendu abertzalearekin zerikusirik ez zuten herri-mugimendu sozial, ekologista edo kulturalen kide (% 13,3) ziren beste 6 pertsona daude.

Azkenik, atxiloketaren garaian ETA erakundearen kide liberatutzat har daitezkeen bi

pertsona daude, eta inolako loturarik ez zuen eta beste pertsona baten senidea zelako atxilotua eta inkomunikatua izan zen beste pertsona bat (% 2,2).

Laburbilduz, aztertutako pertsona-eredua honakoa da: erdi edo goi mailako ikasketak dituen 20-25 urte bitarteko gaztea, bere bikotekidearekin bizi baina seme-alabarik ez duena, independentziaren aldeko erakunde sozial edo politiko batean aritzen dena, Guardia Zibilak hain zuzen erakunde horretan lan egiteagatik edo "zerrendaren" batean agertzeagatik atxilotua, 3-5 egun inkomunikatua, egun horien bitartean galdeketa egin ostean epaiketa bitarteko espetxeratze prebentibora pasa zena. Batz-beste, atxiloketa inkomunikatua gertatu eta 5 eta 10 urtera bitartean egin da azterketa.

Pertsona guztien % 80ak independentziaren aldeko proiektu politikoarekin harreman estua izan du militantzia eremu ezberdinen bitartez (aldarrikapena, ekitaldi politikoak, herri-mobilizazioaren aldeko ekintzak, presoekin eta euren senideekin elkartasunez eginko ekitaldiak, etab.), edo kale borroka ekintza indibidual zein kolektiboen bitartez, baina indarkeria armatuarekin inolako parte-hartze zuzenik izan gabe.

Datuak ulertzeko zenbait elementu

Ondorio estatistikoak ateratzeko ahaleginik egin gabe, jarraian ageri diren taulek pertsona hauen atxiloketa eta galdeketen testuinguru batzuk ulertzen laguntzen dute.

Generoaren arabera ezberdintasunak. Esanguratsua da batz-beste emakumeak gizonak baino nagusiagoak direla atxiloketa gertatzen den unean (28 versus 24 urte, $p < 0.05$). Izan ere, 20 urte baino gutxiago zituztela atxilotu zituzten 8 pertsonak gizonetzkoak dira. Hezkuntza mailan ez dago ezberdintasunik. Gaitu gabeko eskulangileak diren emakume gehiago dago (merkataritzan, ostalaritzan), emakume baino gizon gehiago daude bananduta (% 15 versus % 0, $p < 0.05$),

eta emakume gehiago ezkondu gizon baino (% 22 versus % 0). Adinaren efektua izan daiteke, baina ziurrenik atxilotetaren ostean banantzea gehiago gertatzen da gizonetan emakumeetan baino.

Atxilotetaren urtean, inkomunikazioan emandako egunetan, atxilotetaren osteko neurri judizialetan edo pertsonak burutzen zuen militantzian ez dago inolako genero ezberdintasunik. Izan ere, 3 pertsona "liberatu" daude (gazte erakundeek ere kontuan hartuz), gizon 1 eta 2 emakume. Mugimendu politikoetan jarduten diren emakumeen kopurua apur bat handiagoa da, eta aldiz, gizonena gazte mugimenduetan (estatistikoki adierazgarriak ez diren ezberdintasunak), eta kopuru antzekoa herri mugimenduetan edo militantziaz ez dutenen artean.

Estatuko Segurtasun Indarren arabeko ezberdintasunak. Profil sozio-demografikoari dagokionez ez dago garrantzia estatistikoa duen ezberdintasunik (atxiloteta garaiko adina, sexua, hezkuntza maila, lanbidea, egoera zibila edo seme-alaba kopurua).

Profil sozio-politikoari dagokionez:

- Atxiloteta zaharrenak Guardia Zibilak egin zituen beti. Polizia Nazionalaren eta Ertzaintzaren atxilotetak batez ere azken 5 urteetakoak dira.
- Lagin honetan, Guardia Zibilak neurri handiagoan kide liberatuak eta erakunde politiko, sozial edo sindikatuen kideak atxilotzen ditu; Polizia Nazionalak eta Ertzaintzak, ordea, gazte erakundeetako kideak.
- Inkomunikazioaren egun kopuruari dagokionez, estatistikoki antzekoa da 3 kasuetan.
- Ertzaintzak eginiko atxilotetetan pertsona gehienak aske gelditzen dira (ia beti karguekin), beste bi polizien atxilotetetan, ordea, espetxeratze probisionalera pasatzen dira.

Guztira, nahita aukeratutako lagina bada ere, adierazgarria da eta tortura-salaketekin lotura duten segurtasun indar guztiak hartzen ditu barne, inkomunikazio epe ezberdinak (egun bakar batetik 10 egunera lehenagoko garaietan) eta militantzia ezberdinak (ETAko kide edo kide liberatuetatik hasita, ezker abertzalearen inguruko militantzia politikoetatik igaro eta inolako lotura politiko edo armaturik ez duen jendera arte). Gainera, generoa, adina, maila sozio-kulturala eta atxiloteta garaia (80. hamarkadatik gaur egun arte) kontuan hartzen duten aldagaiak daude.

45 testigantzen sinesgarritasun indizea % 100ekoa⁵⁴ izan da, eta ondorioz, adierazgarriagoak diren ausazko laginen ikerkuntzan sakondu beharko litzateke. Modu horretan eta sendotasun handiko datuak lortuz gero, testigantza faltsuengatik Audiencia Nazionalaren epaileek aurkeztutako salaketak baliogabetuko liriateke. Testigantza faltsuengatik eginiko salaketak kontu kezkarria izan daitezke, batez ere, adituen txostenak ez direnean nazioartean onarturik dauden baliabideekin egiten.

2.4. Bitartekoak

Aipatu diren elementuez gain (Informazio Baimena, Istanbulgo Protokoloa eta erdi-egituratutako elkarrizketa), bost eskala kliniko erabili ziren:

- Bizi Inpaktuaren Baloraziorako Galdeketa, VIVO.⁵⁵ Esperientzia traumatikoek identitatean, emozio sisteman, sinesmenean eta norberari zein munduari buruzko ikuskeran duten eragina baloratzen du. 10 bloke kontzeptualetan eta 35 azpi-eskaletan multzokatuta dauden 116 itemek osatzen dute. 13 herrialde ezber-

⁵⁴ Ikus. 12. taula 3. atalean.

⁵⁵ Pérez Sales y cols. (2012). VIVO Questionnaire. A measure of human worldviews and identity in trauma, crisis and loss. Validation and preliminary findings. *Journal of Loss and Trauma*. DOI: 10.1080/15325024.2011.616828.

dinetako nazioarteko lagin baten bidez balioetsi ostean, torturak jasan dituzten Estatu Espainoleko, Argentinako eta Uruguaiako pertsonekin erabili izan da.⁵⁶

- Becken Depresio Inbentarioa (BDI)⁵⁷ (21 item). BDI depresio sintomen zenbaketa-rako erabiltzen den eskalarik erabiliena da. Depresioan agertzen diren pentsamendu intrusiboak eta melankoliaren sintoma klinikoak aztertzen ditu. Zentzu honetan, karga kognitibo handiko eskala da eta antsietate edo sintoma motor gutxi ditu. 21 item dituen bertsioak ez du alde zuzenik ezarritako eten punturik. Depresioaren larritasun ezberdinei dagokien puntuazio ezberdinak daude: 10.9 (gutxieneko depresioa edo depresio eza), 18.7 (depresio arina), 25.4 (erdi-mailako depresioa) eta 30 (depresio larria).
- Trauma-osteko Estresa Baloratzeko Eskala (PCL-C)⁵⁹ (19 item). DSM-IVren Trauma-osteko Estresaren Nahasmenduaren irizpide diagnostikoetara egokitzen den eskala da. Item bakoitza sintoma bat da, eta 1etik 4ra doan eskala baten bidez bere maiztasuna eta intentsitatea neurtzen dira. Literaturan gomendagarriak diren eten-puntu ezberdinak agertzen dira, artean, 44 trauma-osteko estresaren adierazle partziala litzateke, 51 adierazle arina, eta 55 larritasun adierazlea.
- Errua elkarrizketa eredu batzuen analisiaren ostean ad-hoc sortutako eskala baten bidez neurtu zen (Erruaren Determinanteen Eskala – EDE). Eskalak

erru azpi-mota ezberdinen neurriak hartzen zituen bere baitan (bizirik ateratzeagatik, atzera-begiratzeagatik, babes-tu ezin izanagatik, eutsi ezin izanagatik, pentsatu ezin izanagatik, ez huts egiteagatik), eta 1etik (inoiz ez) 5era (momentu oro) neurtu ziren. Erruaren determinatzaileei buruzko elkarrizketa batekin eta McLernon⁶⁰ barkamen eskalarekin osatu zen. Azken eskala honek egileekiko emozio positibo zein negatiboak aztertzen ditu.

Datuen analisia

Datuen tratamendu informatikoa honako estatistika programekin egin da, SPSS. 19 aldagai kuantitatiboetarako eta Atlas ti 6.0 aldagai kualitatiboentzako. Atal bakoitzean analisi-thesaurusak osatzeko erabilitako metodologia azaltzen da.

2.5. Lan metodologia

Dupla profesionalak eta barneko zein kanpoko ikuskaritzak

Lana arindu eta aldi berean fidagarritasuna eta kalitate zientifikoa bermatzeko, lana maila independenteetan banatu zen. Lanean ari ziren pertsona guztiek irizpide perizial homogeneoekin lan egin zezaten, taldeko koordinazio eta formazio lan handia suposatzen zuten horrek.

⁵⁶ Pérez Sales et al. (2013). Manual del cuestionario VIVO. Instrucciones de uso y baremos de corrección. Irredentos Libros. Madrid.

⁵⁷ Beck, A.T., Ward C.H., Mendelson M., Mock, J., Erbaugh J. (1961). An inventory for measuring depression. Arch gen Psychiatry 4: 561-71

⁵⁸ Beck, A.T., Steer, R.A. y Garbin, M.C. (1988). Psychometric properties of the Beck Depression Inventory: Twenty-five years of evaluation. Clinical Psychology Review, 8, 77-100.

⁵⁹ Weathers, F. W., J. A. Huska, et al. (1991). The PTSD Checklist-Civilian Version (PCL-C). Boston: National Center for PTSD.

⁶⁰ Intergroup Forgiveness and Guilt in Northern Ireland: Social Psychological Dimensions of *The Troubles*. Hewstone, M.; Cairns, E.; Voci, A.; McLernon, F.; Niens, Ulrike; Noor, M. Collective Guilt: International Perspectives. ed. / N.R. Branscombe; B. Doosje. Cambridge University Press, 2004. 193-215 orrialdeak.

9. Taula. Ebaluazio metodologia: analisi independentea eta ikuskaritza sistemak**Lehen Maila**

- Azterketa psikometrikoa.

Elkarrizketa kliniko luzea. Horretarako erdi-egituratutako elkarrizketa egiteko gidoi bat jarraitu zen: (a) Informazio Baimena Berriztatzea (b) Istanbulgo Protokolo osoa (c) Erru eta/edo Barkamen bizipenekin zerikusia zuten alderdien zabalpena (d) Egia, justizia edo erreparazioaren itxaropenarekin erlazioa zuten alderdi legalen zabalpena. Elkarrizketa indarkeriaren biktimen elkarrizketetan esperientzia zuen psikologo kliniko batek edo psikiatra batek egin zuen. Aldi berean aztertutako pertsonaren erantzunak zabaldu eta egiaztatzeko euskal testuinguru politikoaren jakitun ziren aztertzaile guztiak.

Bigarren Maila

- Aztertzaile bakoitzarekin *dupla* edo kanpoko pertsona bat zegoen elkarlanean. Lan honetan, egiaztapen eta kontraste lanetan alegia, Madril, Bartzelona, Valentzia eta Lugoko psikiatra edo psikologo klinikoak aritu ziren. Kasu batzuetan Euskal Herrira gerturatu eta elkarrizketan bertan parte-hartu zuten, beste batzuetan grabatutako audioekin lan egin zuten, eta bestela aztertzailearen oharrekin eta elkarrizketaren transkripzioarekin lan egin zuten. Hainbat hilabetetan zehar protokoloaren eraketan elkarlanean aritu ziren bi profesionalak, modu honetan, emaitzaren ardura biek konpartitu zuten. Bigarren profesional honen zeregina informazioa jasotzeko garaian erabiltzen zen baliotasun zientifikoa (protokoloak, proben administrazioa, etab.), fidagarritasuna, emaitzen balioztatzea eta aztertutako pertsonak adierazitakoa zintzoki berradierazten zela bermatzea zen. Azkenik, gertakizunen kalifikazioa egiteko momentuan zalantza sortzen zen kasuei aurre egiteko bikoteen arteko adostasun sistema bat ezarri zen.

- Modu paraleloan bigarren talde bat sortu zen, batez ere auzitegiko medikoez osaturik. Talde honek atxiloketa garaiko informe mediko edo forentseez gain gehitu zitezkeen edozein motatako kanpoko ebidentzia dokumentalak bilatu zituen, atxiloketan jasotako tratuari buruzko informazioa gehitu zezaketen txosten judizial edota polizialak alegia. Ebidentzia hauek kasua aukeratzeko ebidentzien osagarri baino ez ziren izan, eta azterketa burutzen zuen taldearekin harremanik ezarri gabe jaso ziren.
- Hirugarren talde batek (batez ere biktimekin harremanik izan ez zuten akademikoz osaturik) emaitza psikometrikoak aztertu zituen, beti ere azterketa burutzen zuen taldearekin harremanik ezarri gabe.

Hirugarren Maila

- Psikiatra aditu batek peritazio guztiak banan-banan gainbegiratu zituen. Protokolo guztiak ebaluatu ostean emaitzak balioztatu zituen eta protokoloak kontrastatu eta hobetzeko irizpide teknikoak proposatu zituen. *Dupla* bakoitzarekin lan indibiduala burutu zuen eta sortzen ziren arazo teknikoei aurre egiteko batzarrak egin zituen.

Laugarren Maila

- International Council for the Rehabilitation of Torture Victims elkarteko aditu forentse bat etorri zen Alemaniatik Bilbon eta Madrilen bilerak egiteko. Bertan aztertutako pertsona batzuk elkarrizketatu zituen eta taldearekin elkarlanean, grabaketak alderatu eta duplekin bildu zen ezarritako protokoloen ausazko lagin bat sakon aztertzeko. Azkenik, adituak Istanbulgo Protokoloa eta metodologia modu egokian aplikatu zela ondorioztatu zuen.

Bigarren mailan baliozkotze-datuak jasotzeko, kanpoko iturri posible guztietatik aurrekariak lortzen ahalegindu zen azterlan honetako taldea. (10. taula).

10. Taula. Ebaluazio metodologia: datuen kontrasterako kanpoko iturriak

- Salaketa judiziala egon zen kasuetan, tortura-salaketen diligentzien txosten judizialean zegoen dokumentazioa.
- Giza eskubideen erakundeen aurrean egingako salaketetan edota salaketa publiko edo judizialean agertzen diren tortura / tratu txarren adierazpenen testigantzak.
- Instrukzioko epaile nagusiaren aurrean eginiko oinarritzko eskubideen urraketen adierazpenak.
- Kasuarekin zerikusia duten eta inkomunikazio bitartean edo beste edozein garaian idatziriko txosten mediko-forentseak.
- Osasun zerbitzuetako, ospitaleetako, espetxeetako... atxiloketa bitarteko nahiz osteko agiri mediko edo psikologikoak, eta lesio edo arrastoei buruzko informazioa gehitu zezakeen edozein proba edo dokumentazio medikoa.
- Giza eskubideen nahiz biktimen erakundeen zein instituzio publikoen ikerkuntza dokumentala.
- Gertakizunen lekuko izan zitezkeen pertsonen elkarrizketen balorazioa.
- Giza eskubideen nahiz biktimen erakundeekin zein instituzio publikoekin eginiko elkarrizketen balorazioa.

Pertsona aztertuen jarraipena

Aztertu beharreko pertsonen gure azterlanaren nondik norakoak azaldu genizkienean beldurrak eta zenbait erresistentzia sortu ziren, batez ere gertaera traumatikoak berriro gogora ekarri behar zirelako. Sufrimenduari beldurra zegoen, gertakariak berriro gogoratzeko eta modu psikologikoan apurtzearen beldur ziren. Hasieratik azterketa prozesu guztian zehar laguntza izango zutela bermatu genuen, eta testuinguru psikoterapeutikoan berragertu zitezkeen emozio eta sentimendu traumatiko guztiak landu egingo genituela. Pertsonen laguntza eta zaintzea bermatzen zuen neurri honi esker lortu zen, kasu gehienetan lehendabiziko aldiz, pertsona hauek ikuspegi emozional batetik hitz egin zuten. Horrela, pairatzen zuten sintomatologia guztia ikertu eta sintomak gertaerekin batote zetozen aztertzea lortu genuen.

Elkarrizketak eta proba psikometrikoak amaitu ostean aztertuen multzo handi batek talde-lanari ekin zion. Bertan, elkarrizketetan agertu ziren emozioak, sentimenduak, oroitzapenak eta irudi traumatikoak, eta izaera sakon edo existentzialagoa zuten sintoma eta hondar-pentsamenduak landu ziren. Talde-

saioak egin ziren eta pertsona hauetako askok hamabostean behin talde-saioetara joaten jarraitu izan dute azken bi urteetan.

2.6. Ikerketaren alderdi etikoak**Datuen babesa**

Gaur egun, ikerketa honek sortu duen dokumentazio guztia paperezko formatuan zein euskarri informatikoan dago, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB) erregistratuta. Dokumentazio guztia fisikoki zainduta dago Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) menpeko aretoetan. Paperean dauden datuak Gizarte Psikologia Sailean, eta datu informatikoak, aurrez aipaturiko DBEBren fitxategi batean.

Etika batzordearen onarpena

EHUko Ikerketa Biomedikoko Etika Batzordeak ikerketa gainbegiratu eta onartu du. Parte-hartzaileen babeserako, Informazio Baimenaz gain (ikus. eranskina) honako hau eskatu zen:

- Pertsona bakoitzarekin ikerketan parte-hartzeak inplikatzeko zutenari buruzko

azalpen sakon eta zehatza egin, eta pertsonaren eta ikerketa taldearen konpromisoak zeintzuk ziren argi utzi.

- Gertaerak eta batez ere ondorio kliniko eta emozionalak dokumentu publiko baten bidez zabalduko zirenez, horren eta ingurune pertsonal, familiar edo sozialaren arabera, pertsona bakoitzari bere ize-na, siglak edo ezizena agertzeko aukera eman.
- Elkarrizketa bitartean esperientzia traumatikoengatik sor zitezkeen balizko egoerei aurre egiteko kapazak ziren eta egoera kritikoekin esperientzia zuten klinikoekin elkarrizketa.
- Azterketaren ondorioen eta testu osoaren kopia bat entregatu aztertutako pertsona guztiei euren erabilera pribaturako, lekukotasunari buruzko xedea, xede juridikoa edo erabili nahi duen beste mota bateko edozein xederako.
- Testigantzari buruz, jasotako informazioaren sinesgarritasunaren balioztatzea eta kontrastea.
- Datuak ingurune kliniko eta terapeutiko batean bueltatu. Eskatu zutenentzako eskaintza terapeutikoa (norbanako zein talde-terapia formatuetan).

Azterketa prozesu guztian zehar laguntza izango zutela bermatu genuen, eta testuinguru psikoterapeutikoan berragertu zitezkeen emozio eta sentimendu traumatiko guztiak landu egingo genituela.

I. Eranskina. Informazio baimena

Egun on / Arratsalde on

Nire izena da eta **EUSKAL HERRIAN ATXILOTU INKOMUNIKATUEK JASOTAKO TORTURAREN EBIDENTZIA MEDIKO ETA PSIKOLOGIKO**ari buruzko proiektu batekin kolaboratzen ari naiz.

Informazio baimena

Helburua. Atxiloketa inkomunikatuaren ondorioen zein tarte horren bitartean jasotako tratua ezaugarrien ebaluazio bat egitea da aurkezten dizugun talde-lan honen helburua.

Horretarako bi elementu eskatuko dira:

- Arlo fisikoan adituak diren medikoek egingo duten eta **izaera forentsea izango duen ebaluazio bat**, eta psikiatra eta psikologoek egingo duten ebaluazio psikologikoa.

Azterketa bera egiteko oinarri hartu diren gertaerak egiaztatzea eta horien balizko ondorio fisiko, emozional zein psikosozialen analisisa da ebaluazio horren helburua. Analisi hori Istanbulgo Protokoloaren arabera egingo da, gaiaren

inguruan dagoen nazioarteko estandarren arabera alegia.

- Aztertutako gertaeren epe motzeko zein luzeko eraginarekin zerikusia duten alderdien ebaluazioa. Horretarako gaiarekin lotura duten **bitarteko** espezifikoak (**galdera-sortak**) bete beharko dira.

Elkarrizketa irekia izango da, eta dokumentuaren izaera periziala eta haren babesa izatearen beharra dela eta, elkarrizketa audioan grabatuko da (ahots grabagailu batekin). Elkarrizketa hauek bidez grabatu nahiko genituzke baina ez da beharrezkoa. Bideoa testigantza fideltasuna eta zehaztasunarentzako lagungarria litzateke, bai eta transkripzio edo analisirako ere, eta horretaz gain, etorkizunean azterlanean agertzen den adierazpen bakoitzaren egiazkotasuna frogatzeko baliagarria izan zitekeen.

Galdeketa-elkarrizketa honi hasiera eman aurretik zure Informazio Baimena sinatzea eskertuko nizuke.

Informazio baimena

Izena

Honako hau adierazten dut:

- Ikerketa lan batean parte-hartzeko eskaera egin didate eta haren inguruko informazio egokia jaso dut.
- Dokumentu hau sinatzerakoan nire baimena eman aurretik,k eman dit proiektu honen berri.
- *Inkomunikazio erregimenean atxilotuta egon diren pertsonen jasa duten torturaren ebidentzia mediko eta psikologikoari buruz aztertzea da azterlan honen helburua.*
- Ebaluazio forentseak dituen ezaugarrien inguruan informazio egokia jaso dut eta beharrezkoak iruditu zaizkidan galdera guztiak egin ahal izan ditut.

- Konfidentzialtasunaren alderdien berri izan dut eta (adierazi hurrengo esaldietan ados zauden edo ez X baten bidez).

- Ez dut egingo den txostenean nire iritzia agertzeko eragozpenik.
- Ez dut nire elkarrizketa bideoan grabatzeko eragozpenik.
- Nire txostena ikerketarako edo Giza Eskubideen alde lan egiten duten erakundeen aurrean aurkeztu beharko balitz, baimena ematen dut helburu horrekin aurkezteko eta horretarako:
 - Txostena nire izen-abizenekin aurkeztuko da.
 - Txostena ez da nire izen-abizenekin aurkeztuko.

Badakit edozein momentutan azterlana utzi dezakedala eta horrek ez du inolaz ere desabantailarik suposatuko.

Eskaintzen dudana informazioa dokumentu honetan deskribatzen diren helburuetarako baino ez da erabiliko, eta horren bermea jaso dut.

Data

Txostenaren arduradunaren sinadura

.....

Parte-hartzailearen sinadura

.....

II. Eranskina. Aipatzen diren erakundeak

Ezker abertzalea. Euskal Herriaren independentziaren aldeko ezkerreko erakunde eta partidu politikoei aipamena egiteko erabiltzen da.

Jarrai. 1979an sortu eta euskal gazte mugimenduaren erreferentzia nagusietako bat izan zen. Erakunde honen ibilbidea Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren barnean kokatzen da, eta independentzia eta sozialismoa dira bere helburu nagusiak. Autodeterminazioa, lurralde-osotasuna edo euskara bezalako oinarritzko eskubide kolektiboak aldarrikatu zituen.

Haika. Jarrai eta Gazteriak (ipar Euskal Herrian aktiboa) erakundeak elkartu zituen 2000. urtean. 2007ko urtarrilaren 19an Auzitegi Nagusiak Euskadi Ta Askatasunarekin (ETA) erlazionatutako "erakunde terrorista" gisa izendatu zuen.

Segi. Ezker abertzalearen baitan kokatzen den gazte erakundea. EAEn, Nafarroan eta ipar Euskal Herrian eratu zen. Espainian, Jarrai eta Haikaren jarraitzaile zelakoan eta ETA erakunde terroristarekin harremanak leporatu ostean legez kanpo utzi zuten 2002. urtean, Frantzian, ordea, legala izan da 2012. urtean erakundea bera desegin den arte.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak (gaztelaniaz Gestoras Pro Amnistía). ETAko presoak eta beste euskal presoak espetxetik ateratzea helburu zuen erakundea izan zen. Senideei babesa ematen eta presoek eskubideen alde borrokatzen lan egin zuen. 2001ean legez-kanpo utzi zuten.

LAB, Langile Abertzaleen Batzordeak. Euskal sindikatu abertzalea da, ezker abertzalearen baitan kokatzen dena. 1974ko udazkenean sortu zen eta Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren baitan kokatzen da.

Kale borroka. EAEn, Nafarroan eta ipar Euskal Herrian gertatzen diren kaleko in-

darkeri-ekintzak izendatzeko erabiltzen da. Ekintza mota hauetan parte-hartu duten gazteak "elementu terroristatzat" hartu dira, eta terrorismo delitu gisa epaitu izan ditu Auzientzia Nazionalak.

Batasuna. Talde politiko abertzale, independentista eta sozialista izan zen. Estatu Espainolean legez-kanpo utzi aurretik, EAE eta Nafarroa izan bere lan-eremu politikoa. Frantzian legala zen, eta herrialde horretan 2013ko urtarrilaren 3an desegin zen.

3. Atala.

Tortura adierazpenen sinesgarritasuna. Istanbulgo Protokoloaren arabera eginiko azterketetan eta kanpoko balioztatze baliabideetan oinarrituta

Pau Pérez Sales.

Testigantza baten sinesgarritasuna kalkulatzeko, lekukoak edota haren adierazpenen zati batek gertatutakoa kontatzen den moduan jazo zela sinestarazi behar dio ebaluatzaileari, eta honek kontatzen denaren zehaztasuna hartuko du kontuan. Aurreko atalean ikusi den moduan, horixe bera da Istanbulgo Protokoloaren oinarria, eta dokumentu horretan sinesgarritasun epaia egiteko baliabide teknikoak zehazten dira. Atal honetan zati horri dagozkion emaitzak ageri dira.

Aurreko atalean azaldu zen moduan (11. taula), sinesgarritasunaren analisi finala egiteko adituak barneko zein kanpoko adierazleetan oinarritzen dira. Horietatik abiatuz 14 aldagai dituen matrize bat osatu da.

45 pertsona hauek benetako kontaketa egin dute eta funtsean inkomunikaturik izandako atxiloketen esperientzia egiaztatuz.

11. Taula. Sinesgarritasunaren analisirako barneko eta kanpoko adierazleak

	Irizpideak	Modu honetan jasota
Istanbulgo Protokoloa	1. Ustezko torturaren kontaketa (egoera, modua, metodologia, iraupena etab.). Torturaren kontra edo haren prebentziorako lan egiten duten eta Nazio Batuen onespina edo lotura duten giza eskubideen edo nazioarteko erakundeek aurkeztu dituzten aurreko txostenetan deskribatuta dagoen moduan.	1. Sendotasun handiena 2. Oso Sendoa 3. Sendoa 4. Sendotasunik gabe
	2. Aztertuaren testuinguru sozial eta kulturala kontuan hartuz, muturreko estresa pairatzen denean ohikoak diren erreakzio psikologikoak.	1. Sendotasun handiena 2. Oso sendoa 3. Sendoa 4. Sendotasunik gabe
	3. Gertaeren kontaketa eta horiek adierazteko erabiltzen diren emozioen arteko kongruentzia.	1. Sendotasun handiena 2. Oso Sendoa 3. Sendoa 4. Sendotasunik gabe
	4. Gertaeren kontaketa hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioaren arteko kongruentzia.	1. Sendotasun handiena 2. Oso Sendoa 3. Sendoa 4. Sendotasunik gabe
	5. Kontatzen diren gertaerekin kongruentzia duten epe ertain eta luzeko arrastoak.	1. Bai 2. Ez 3. Ez da egokia
	6. Gertaeren kontaketa zerikusia duen azterketaren momentuko diagnostiko kliniko nagusia.	CIE-10 kodea idatzi
Sinesgarritasun eta egiaztatze adierazleak	7. Sinesgarritasun epaiketari 2 adituen eta kanpoko ebaluatzailearen artean kointzidentzia (narrazioa-bideoa-audioa)	1. Bai 2. Ez
	8. Gertaerak eta erreakzioak modu independentean beste informatzaile batzuekin kontrastatu dira (familia, lagunak, besteak). Gertaeren aurreko eta osteko nahiz ustezko arrastoen azterna eta sintomei dagokienez, iturri ezberdinetako bertsioak bat datoz.	1. Bai 2. Ez 3. Ez da egokia
	9. Deskribatutako gertaeren aurretik eta ostean hauen erruz gertaitezkeen funtzio aldaketak (lana, ikasketak, erlazioak...)	1. Sendotasun handiena 2. Oso Sendoa 3. Sendoa 4. Sendotasunik gabe
	10. Denbora batez, deskribatutako gertaerekin lotura duten etengabeko nortasun aldaketak.	1. Sendotasun handiena 2. Oso Sendoa 3. Sendoa 4. Sendotasunik gabe

Sinesgarritasun eta egiaztatze adierazleak	11. Adierazitako gertaerekin kongruentzia duten proba edo azterketa medikoak (erradiografiak, analitikak edo beste proba batzuk)	1. Bai 2. Ez 3. Ez da egokia
	12. Deskribatutako gertaerekin kongruenteak diren eta lesioak edo arrastoak frogatzen dituzten aldeko osasun-txosten edo txosten forentseak.	1. Bai 2. Ez 3. Ez da egokia
	13. Atxiloketa bitartean aztertuaren kontrako tortura edo tratu txarrak egon zirela adierazten duen epaia.	1. Bai 2. Ez
	14. Giza eskubideen erakunde txostenen batean kasu honi buruzko informazioa ageri da.	1. Bai, kongruentea 2. Bai, inkongruentziarik 3. Ez
	15. Sinesgarritasun epaia (Istanbulgo Protokoloaren eta kanpoko balioztatze Iturrietan oinarrituta)	1. Sendotasun handiena 2. Oso Sendoa 3. Sendoa 4. Sendotasunik gabe

Erreakzio psikologikoa, emozioen kongruentzia, gorputz-adierazpenaren eta hitzik ez duen komunikazioaren sendotasuna kontuan hartu ditugu azterlan honetan, eta bertatik atera da sendotasun gradurik handiena. Gertakizun baten kontaketa modu askotan egin daiteke, baina kontakizunak sendotasun maila handia izan dezan, koherentea izan behar da formarekin, kontatzeko erabiltzen den adierazpen emozionalarekin eta hitzik ez duen komunikazioarekin. Kontakizuna nekez izango da manipulagarria, horrelako gertakizun baten ostean espero daitezkeen erreakzio psikologikoak agertuko dira, eta testuinguru jakin batean erabilitako metodoekin kongruentzia handia izango du.

Eranskinetan (14. Taula) honako informazioa ageri da: aztertutako 45 pertsonen datuak, sinesgarritasunarekin edo kanpoko iturriekin erlazioa duten epai-elementuak eta azkenik, aztertzaileen onargarritasun epaia. Hurrengo taulak (12. taula) datu horiek guztiak modu errazagoan jasotzen ditu.

Kontaketa eta erreakzio psikologikoa, emozioekiko kongruentzia, gorputz-adierazpena

eta hitzik ez duen komunikazioa sendo edo oso sendo gisa antzeman dituzte aztertzaileek. Hori da irizpide nagusia. Soilik kasuen % 22a alderatu da familia edo ezagunekin, eta oso kasu gutxitan lortu dira proba medikoak (% 13,3) edo osasun-txostenak (% 13,3). Duplak azterketa amaitutzat jo ostean beste osasun-txosten batzuk aurkitu ziren (ikus. 5. atala), eta hauek hemen ez direnez ageri, osasun-txostenetatik ateratako datuak hemen agertzen direnak baino gehiago dira.

Epai-judizial baten bidez torturak onartzen diren kasu bat baino ez dago. Beste zortzi kasu (% 17,8) nazioarteko giza eskubideen erakunde txostenetan jasota daude.

Laburbilduz, azterketa psikologikoa eta psikiatrikoa izan dira sinesgarritasunaren ebaluazioaren oinarria azterlan honetan. Eta ez gara arrastoen bilaketaz ari (miaketa klinikoa, test psikometrikokoak), azterketa-eremu ezberdinen sendotasunaren azterketaz baizik (Protokoloak dioen moduan), eta horri, aurrez ezagutzen ez ziren bi aztertzaileen adostasun irizpidea gehitu behar zaio, 2. atalean agertzen den moduan.

12. Taula. Aztertutako eremu ezberdinen sendotasuna

	Sendotasun handiena		Oso sendoa		Sendoa		Sendotasunik gabe	
Ustezko Torturaren kontaketa	16	% 35,6	18	% 40,0	11	% 24,4	0	% ,0
Espero daitekeen erreakzio Psikologikoa	11	% 24,4	23	% 51,1	11	% 24,4	0	% ,0
Gertaeren eta emozioen arteko kongruentzia	11	% 24,4	24	% 53,3	8	% 17,8	2	% 4,4
Hitzezko eta hitzik ez duen komunikazioaren arteko kongruentzia	12	% 26,7	21	% 46,7	12	% 26,7	0	% ,0
Funtzio-aldaketak (Iana. familia...)	12	% 26,7	19	% 42,2	14	% 31,1	0	% ,0
Etengabeko Nortasun aldaketak	10	% 22,2	20	% 44,4	15	% 33,3	0	% ,0
	Bai		Ez		Ez da egokia			
Arrasto kongruenteak	41	% 91,1	0	% ,0	4	% 8,9		
Azertzaileen arteko adostasuna	45	% 100,0	0	% ,0				
Gertaerak beste informatzaile batzuekin kontrastatuta (familia etab.)	10	% 22,2	35	% 78,8				
Azterketa edo proba medikoak	6	% 13,3	39	% 86,7				
Osasun-txostenak	6	% 13,3	No	% 39				
Azertuaren aldeko epaia	1	% 2,2	44	% 97,8				
Giza eskubideen erakunderen baten txostena	8	% 17,8	0	% 0	38	% 82,2		

Emaitza jarraian dagoen 13. taulan agertzen da. Gutxi gorabehera, aztertutako pertsonen erdiari Sendotasun-mailarik handiena dago, herenak "Oso Sendoa" maila jaso du eta % 15ak "Sendoa" maila.

13. Taula. Sinesgarritasun epaia

Sendotasun Handiena	24	% 53,3
Oso Sendoa	14	% 31,1
Sendoa	7	% 15,6
Sendotasunik gabe	0	% ,0

Laburbilduz, aditu forentseen iritziz eta beharrezkoak diren neurri guztiak gehi azterlan honetarako erabili diren iturri independente

gehigarriak kontuan hartuz (Euskal Herrikoak ez diren profesionalak eta nazioarteko erakundeak barne), ondorioztatzen da 45 pertsona hauek euren atxiloketa inkomunikatuak suposatu zuenaren benetako kontaketa egin dutela, egian oinarrituta.

Ondorio horretatik abiatuta (hori da azterlanaren ekarpen nagusia) hurrengo ataletan honako alderdi hauek aztertzen dira: galdeketen bitartean erabilitako mekanismoak, aztertuekin eginiko lanaren inpaktu mediko, psikologiko eta psikiatrikoak eta batez ere erreparazioari dagozkion gainontzeko alderdiak.

Eranskina. 14. Taula. Azterketa bakoitzaren datuak. Egiaztapenerako barneko zein kanpoko irizpideak															
Aztertua	Kontakizuna	Espero d. Erreakzio Psikolog.	Gert. Emoz. Kongr.	Hitz Ez-hitza Kongr.	Arrasto kongr.	IE-10 Diagnostikoa	Aztertz. ados	Beste inform atzaile	Funtz. aldak.	Nortas. eteng. aldak.	Azter. med.	Osasun txosten	Aldeko Epaia	Giza Eskubid. Erak. txostena	Epaiketa
ILMW01	2	2	1	2	1	33.1 43.1 62.0	1	2	2	2	2	2	2	3	2
ILMW02	1	1	2	2	1	Z65.4	1	1	2	1	1	1	2	1	1
ILMW03	1	1	1	1	1	Z65.4	1	2	1	1	2	2	2	3	1
NLMAPO1	1	2	1	1	1	F43.1 F41.9	1	1	1	1	2	2	2	1	1
NLMAPO2	1	2	2	2	1	F43.1	1	2	1	1	2	2	2	1	1
NLMAPO3	1	1	1	1	1	F43	1	2	2	1	2	2	2	1	1
NLMAPO4	1	2	3	2	1	Z65.4	1	2	2	2	2	2	2	1	2
IGEJ01	1	2	2	2	1	F43.1 F.40.2	1	2	3	3	2	2	2	1	1
IGEJ02	1	2	2	2	1	F62.0	1	2	2	1	2	2	2	3	1
OBIM01	2	2	2	2	1	F43.1 F41.2	1	2	3	3	3	1	1	1	2
OBIM02	3	2	2	2	1	F43.2 F41.1	1	2	3	3	2	2	3	3	3
JZLV03	1	1	1	1	1	F43.1	1	3	2	2	3	3	2	3	1
JZLV04	1	2	2	3	1	F43.1	1	3	3	2	3	2	2	3	1
JZLV05	1	1	2	2	1	F43.1 F42.0	1	2	3	2	2	3	2	3	1

Azertua	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	Epaiketa
	Kontakizuna	Espero d. Erreakzio Psikolog.	Gert. Emoz. Kongr.	Hitz Ez-hitza Kongr.	Arrasto kongr.	IE-10 Diagnostikoa	Aztertz. ados	Beste inform atzaile	Funtz. aldak.	Nortas. eteng. aldak.	Azter. med.	Osasun txosten	Aldeko Epaia	Giza Eskubid. Erak. txostena	
JZLV06	1	1	1	1	1	F43.1 F32.0	1	2	3	1	2	2	2	3	1
JZLV02	1	1	2	2	1	F43.1	1	2	2	3	2	2	2	3	1
MIIA01	2	3	3	3	1	Z65.4	1	1	3	3	2	2	3	2	1
MIIA02	2	2	2	1	1	F43.1	1	2	1	1	1	2	3	2	1
MIIA03	2	2	2	2	1	F43.1	1	2	1	2	1	2	3	2	1
MNEG01	2	2	2	2	1	F43.1	1	2	1	1	2	2	2	2	2
MNEG02	2	3	3	3	1	F43.0	1	2	3	3	2	2	2	2	3
MNEG03	2	3	3	3	1	F43.0	1	1	3	3	1	1	2	2	3
MNEG04	2	3	3	2	1	F43.1	1	1	1	2	2	2	2	2	2
OBAM01	2	1	1	1	1	F43.1	1	1	1	1	2	2	2	3	2
OBAM02	2	3	2	3	1	F43.1 F41.1 F45	1	1	3	3	2	2	2	1	2
JGGL03	3	3	2	2	1	F62	1	3	1	2	3	3	2	3	3
OBAM04	3	2	3	2	1	F33.3 F43.2 F62.0	1	1	2	2	2	1	2	3	3
OBIM06	3	3	4	3	1	F43.1 F32.0	1	1	2	3	2	2	2	3	3
OBIM07	2	3	4	2	1	F32.0	1	2	3	3	2	2	2	3	2

4. Atala.

Tortura fisiko eta psikologikoaren mekanismoak

Pau Pérez-Sales.

Gogoeta metodologikoak

Atal honetan azterlanerako egin diren Istanbulgo 45 Protokoloetan agertzen diren tortura mekanismoak modu kualitatiboan aztertzen dira. Bertan, jarraibideak osatzeko lagungarri izan zitezkeen elementu komunak eta ezberdintasunak bilatu ditugu.

Sinesgarritasun maila handienarekin adituek eta gainbegiraketa arduradunek eginiko azterketak izan dira analisi hau egiteko oinarria. Metodoekin bat zetozen azterketa eta testigantzen zatiak analisi kualitatiboa egiteko software batean (Atlas-ti 6.0) sartu dira. Bi bide ezberdinetik landu dira:

- a. Softwarearen bidez, testigantzetan gehien agertzen diren terminoekin Thesaurus⁶¹ bat osatu da. Thesaurus familia kontzeptualetan zatitu da eta ondoren, testigantza bakoitzaren baitako paragrafoak atera, alderatu eta bloke kontzeptualen arabera ordenatu dira (metodologia inferentziala).
- b. Tortura moduen kontzeptualizazio eredu teorikoetatik abiatuz bigarren Thesaurus bat osatu da. Bertan testigantza bakoitza paragrafoz paragrafo irakurri eta kategoria teorikoetan koka zitezkeenak atera dira (dedukzio-metodologia).

Bi lan eredu ezberdin hauen erabilerari esker, alde batetik, aztertutako peritazioetatik atera ahal den informaziorik handiena eskuratu dugula uste dugu, eta bestetik, lortu dugu informazio eta analisi guztiak aztertutako pertsonen hitzez-hitzeko aipuekin zorrozki orraztea.

Saiatu gara aipuak ez errepikatzen (batez ere irakurketa arintzeko), baina kasu batzuetan ezinezkoa izan da. Esate baterako, egoera batzuk indarraren erabileraren adierazgarri izan zitezkeen, baina aldi berean, rolen alderantzikatzea darabilen galdeketa motarena edo zentzumenen nahastea bilatzen duen metodologiarena ere bai. Beraz, aipu bera aldi berean kategoria ezberdinetan ager daiteke.

Laburbilduz, atal honek aztertutako atxiloeketa inkomunikatuetan erabiltzen diren tekniken erradiografia zorrotz eta zehatza egitea du helburu, eta jarraibide komunak ote dauden zehaztea. Teknika batzuk tortura dira zalantzarik gabe, beste batzuetan zalantza sor liteke, eta badira ere, nahiz eta inguruko beste herrialde batzuetan debekatuta egon, egun, Espainiako legeria betetzen duten teknika eta egoerak. Horren adibide garbia dira 4. atal honetan deskribatzen diren "indarkeriaz eginiko galdeketak", Alemanian edo Erresuma Batuan ilegalak izateaz gain epaiketa bat bertan behera uzteko arrazoi nahikoa dira. AEBetan, Espainian eta Errusian, ordea, legalak dira eta ikerketarako praktika on gisa kontsideratzen dira. Hala ere, eztabaidak ez du lekurik azterlan honetan.

Labur esanda, honakoa egiten ahalegindu gara:

1. Aipatutako Thesaurus eta guk sortutako Thesaurus erabiliz tortura fisikorako eta psikologikorako erabiltzen diren metodoen eskema bat egiten (bereizketa honen ulermenerako helburua baino ez du, tortura mota hauek modu bereizezinean aplikatzen baitira).
2. Azterketetan jasotako testigantzen ikerketa zorrotz baten bidez metodo guztiak bana-banan aztertzen.

⁶¹ Ikus. 1 eranskina.

3. Ebidentzia mediko eta psikologikoetara mugatuz, iritzi zein gogoeta teoriko minimoak egiten.

Peritazio hauen helburua, inkomunikatuta izan diren atxilotetetan erabilitako metodo guztiak bana-banan aztertzea izan da.

Eraso Mota eta Mekanismoak

1. Gizakiaren oinarrizko beharrak

1. Leku fisikoa: zelda eta atxiloteta-baldintzak

Garai ezberdinetan zehar Guardia Zibilaren, Polizia Nazionalaren edota Ertzaintzaren hainbat zentrotan gertatutako atxiloteta-esperientziak jasotzen dituzte testigantzek. Ez dago atxiloteta lekuari edo atxilotutako pertsonen tratuari dagokion eredu bakarrik.

Azterketetan jasotzen diren leku fisikoen deskribapenek zelda estandarrei dagozkie, edozein polizia-etxetan denbora laburrez atxilotuak izateko erabiltzen diren zeldak alegia.

15. Taula. Atxiloteta-baldintzak

"Leihorik ez ezer ez zuen zelda batera sartu ninduten, horrelako gauzak zituen (oholtza), lauzazko ohe bat eta koltxoitxo bat gainean, zerria edo horrelako zerbait, manta bat, konketa eta komun-ontzia." (JZLV04)

"Madrilera heldu eta bi bider hiru metroko ziega batean sartzen naute, izkinan koltxoi bat zegoen (...) argi bat nuen gelan eta beti zegoen piztuta." (MNEG01)

"Zelda luzexka zen, bi metro eta erdi bider lau izango zituen eta zerri bat eman zidaten, hala ere, ez dut gogoratzen hasieratik eman ote zidaten. Ez nuen tapatzeko ezer izan eta argia uneoro zegoen piztuta. Zelda garbi zegoen." (MTRGL10)

"Zelda grisa zen, argi gutxirekin, argi bakarra sareta baten barruan zegoen fluoreszente batetik zetorren. Lurretik altuera batera koltxoneta marroi oso fin bat zegoen, eta bertan bi manta mehe. Komun-ontzi eta konketa bat zeuden ere. Paretan larrialdietarako txirrin bat zegoen. Ziegetan sartu nindutenean, lur azpian nengoela sentitzen nuen. Argi gutxi zegoen, hotz asko egiten zuen, eta inguruan ezer ez zegoela nabaritzen nuen, zulo batean nengoan, ez dakit nola azaldu. Askok akordatzen naiz ziegak sorrarazten zidan sentsazio hartaz." (ILMW01)

"Zeldaz oroitzen naiz, oso iluna, zementuz eginiko ohe moduko bat zegoen eta bertan manta bat, uste dut odola zuela [arrastoak], zikin zegoen, zurruna." (MIIA03)

"Hezetasun pila bat... korridorean gindoazen eta momentu batean eramaten ninduen Guardia Zibilak abiadura gutxitu zuen, orduan burua altxatu eta ezkerrean zegoen gela ikusi nuen, asko harritu ninduen, garaje baten itxura zuen, lurzorua urez beterik zegoen, paretak zikin, beldurgarria zen, argi gutxi, uste dut Guardia Zibilak nahita egin zuela nik gela hori ikus nezana, ikara nabaritu nuen nire gorputzean. Ziegan sartu ninduten. (...) Zelda iluna zen, argi gutxi eta lurra zementuzkoa zuen. (...) Hezetasunarekin, koltxoi batekin eta zikin zeuden pare bat mantarekin. Gaizki usaintzen zuen. (...) Azkenean etzan egin nintzen eta tapatu, hotz nintzen, bidaiari haizea topera zuten eta... hasieran nazka eman zidan baina... azkura nuen gorputzean, granoak atera zitzaizkidan." (OBIM08)

“Zelda mahai hau baino apur bat zabalagoa zen. [Elkarrizketa egiten ari ginen mahaiari buruz ari da. Negarrari eusteko segundo batzuez gelditu eta jarraitzen du...] Motza zen, koltxoi moduko bat zegoen, argi bat sabaian, bonbilla bat, zabalera honetako pareta, eta beste aldetik horrenbeste. Norbaitek ez esertzeko agintzen zidan, nola eseriko nintzen bertan? Usainekin arazoak izan ditut beti, hori da nire ahulezia.” (OBAM01)

“Ez dakit zehazki nolakoa zen, baina korridore moduko bat egongo zen (...) nagusia eta gero korridoreak zeldetara, beharbada sarrera honetan sei zelda, hurrengoan beste sei. (...). Urratsak urrunetik entzuten ziren, eta urratsak entzuten zenituenean bazenekien zeldaren bat irekiko zutela, eta zu hor zaude.” (JZLV04)

“Lau pareta, bat atearekin eta beste hiru pareta. Barruan itxura borobila zuen harrizko petril moduko bat zegoen, inolako irtengunerik gabe, eta bi manta. Besterik ez.” (OBAM04)

“Zelda gelaxka zikin baten modukoa zen, koltxoi eta manta batekin. Hura kraka hutsa zen, ez zenuen hotel bat espero baina tira... ez horrelako baldintzetan egongo zinenik ere.” (OBAM05)

“Gogoratzen dut zelda zikin zegoela, eta oso gaizki usaintzen zuela.” (ILMW01)

Itxuraz, epe laburreko atxiloketentzako tokien baldintzak betetzen dituzte (gutxi gorabehera 5 m² pertsona bakoitzeko). Baina testigantza guztiek higiene baldintza eskasak deskribatzen dituzte: zikinkeria, usain txarra, tapaki eta zerri zikinak edo norbaitek aurretik erabilitakoak... Horrek Gurutze Gorriaren Nazioarteko Federazioaren araudia eta Europar Batasunaren gomendioak urratzen ditu.

2. Loaldi eta esna-aldien erritmoa

Testigantza gehienek diote ez zutela ia lorik egin atxiloketa inkomunikatuak iraun zuen bitartean. Esaten dutenaren arabera, kasu batzuetan funtzionaria zeldan sartu eta oi-hukatzen hasten zen jarrera jakin batean mantentzeko agindu edo lo saiakerak zigortuz. Beste kasu batzuetan, oztopatutako loaldia baimentzen zioten atxilotuari, lehen-dabiziko loalditik denbora gutxira esnatu eta beste galdeketa bat egin ahal izateko.

16. Taula. Loaldi eta esna-aldien erritmoaren oztopatzea

• Atxilotuaren loaldia aktiboki eragozte

"Ez nuen apenas lorik egiten, gehienetan [lehendabiziko hiru egunetan] argia piztuta uzten zuten, eta leihatila ireki edo atea kolpatzen zuten zutik jar nedin." (ILMW03)

"Gau osoa lorik egin gabe eman zuela dio, paretaren kontra zutik egon zela." (JZLV03)

"Hona etortzen ziren, [zeldako] atea jo eta zera esaten zuten – putakumea, ezin duzula lorik egin-." (MIIA03)

"Galdeketak oso luzeak ziren, uste dut sinatu arte ez nuela lorik egin, horren ostean itzali baitzuten denbora batez gelako argia. Ez zidaten esertzen ere uzten atsedean hartzeko, eserita nengoela ikusten bazuten berriro altxatu behar izaten nuen." (MTRGL10)

"Ez nuen lorik egin atxilotu nindutenetik, gau bat pasatu nuen jada eta hura bigarrena zen lorik egin gabe; nekea eta guzti." (MNEG03)

"Ziega batean sartu ninduten eta ez zidaten lorik egiten utzi. Gaua zen. Bidaiagatik eta tentsioagatik lur jota nengoan. Zementuzko ohe batean lo egiten ahalegintzen nintzen, inolako koltxoi edo goma-aparrrik gabe, eta orduan kolpatzen hasi eta argia pizten zuten. Atean kolpe bat ematen dutenean zutitu eta behatxuloaren aurrean jarri behar naizela esaten didate, eurek ni ikusteko, eta horrela bi edo bost minuturo." (NLMAP03)

• Atxilotuaren Antsietate eta Hiperalerta egoera

"Etzaten uzten zidaten beti. Baina ez nekien benetan gertatzen ari zen edo nire paranoia ote zen, baina ezin nuen lorik egin. Argia ez bazen, zarata txiki bat zen. Ez nekien zarata hori txorakeria bat besterik ez zen edo lorik egin ez nezan benetan zelatatzen ari nindutela. Nik ezin izan nuen lorik egin atxiloketak iraun zuen bost egunetan." (MNEG03)

"Momentu horietan ez nuen pentsatzen; lo egiten ahalegintzen nintzen soilik. Tentsio hartatik atsedean hartzeko obsesioa nuen. Uzkurtu egiten nintzen, fetu-jarreran jartzen nintzen, baina esan nuen eta esan ez nuen guztiarekin gora eta behera aritzen nintzen." (NLMAP03)

"Ezin duzu lorik egin, denbora guztia pentsatzen ematen zenuen eta hori da okerrena. Ni beti saiatzen nintzen lo egiten, baina gehienez bost minutuz egiten nuen lo, atea irekitzen zuten arte; hurrengo goizean forentsearekin egon arte eta gero galdeketak." (NLMAP04)

Atxilotuta zeuden pertsonen atsedean hartzea galarazten zien egoera horrek sortzen zuen hiper-aktibazioa gehitu behar zaio aipatutakoari.

3. Likidoen eta elikagaien ingestioa

Oro har, atxilotuta egon diren pertsonen diote gutxi edo ezer ez zutela jan inkomunikazioak iraun zuen bitartean. Azterketetan lau faktore agertu dira honen harira:

- Atxiloketa bitartean presio modu gisa janaririk ez zutelara eman diote aztertutako pertsona batzuek.
- Gehiago dira ingestioaren gaia nahaste-estrategiarekin lotzen duten testigan-

tzak, hauen arabera jatorduak ordu arra-roetan agertzen ziren, ez zuten erlaziorik erritmo fisiologikoekin (batzuetan denbora asko jan gabe, gero, bat-batean bi ordu denbora gutxian).

- Beste kasu batzuetan, antsietate eta estres psiko-fisiologiko egoeraren eraginez jateko gogo galtzen du atxilotuak.
- Drogen balizko erabileraren inguruan beranduago aipatuko den moduan, pertsona batzuek janaria pozoituta egon zitekeela uste zuten (erabilerara hau ez dago ikuspuntu forentsetik dokumentatuta), edo gai-toxikoak egon zitezkeela, eta ondorioz, euren burua babesteko, nahiago zuten ezer ez jatea.

17. Taula. Elikagaien ingestioa• **Ez da janaririk ematen**

"Aipatu nion [medikoari] ez nuela ezer jan, ezta edan ere [bi egunetan]. Ura eskaini zidan eta ur pila bat edan nuen [txorrotatik], egarri handia nuen." (ILMW02)

"Ez zidaten janaririk eman. Azken egunetan bai, eskaini zidaten, epailearen aurrean deklaratzera joango zarela esaten dizutenean, orduan bai, dutxatzeko, jateko eta ura edateko esaten dizute, baina nik ezetz esan nien. Epailearen aurrean nengoan modu berean aurkeztu nahi nuen." (MIIA01)

• **Janaria ordu arraroetan**

"Orientatzen ahalegintzen zara forentsea egunean hiru aldiz etortzen delako, edo janariengatik... baina ez dizkizute ordenatuta ematen... gosaria, bazkaria eta afaria ematen dizute, baina bata eta bestearen artean... uste dut batzuetan bata bestearen ondoren zerbitzatu didatela edo... beharbada bat saltatzen dute... orduan ez duzu orientazioa guztiz lortzen. Gainera forentsea ez zetorren beti ordu berean, edo beharbada bai... ulertzen duzu? Hori ere ez dakit." (JZLV04)

• **Atxilotuaren antsietatea**

"Janaririk eta edaririk gabe nengoan. Botaka egin eta dena kanporatzen nuen." (ILMW01)

"Leku honetan aulki batean eseri eta jan egin behar nuela esan zidaten. Goserik ez nuela esan nien, baina jan behar nuela esan zuten. Bokata bat eta ur botila bat ekarri zuten, lau hozkada eman nizkion eta ura edan nuen. Denbora gutxi egon nintzen bertan. Jateko zer nahi nuen galdegin zidaten. Ezin nuen irentsi eta ez nuen ia ezer jan, sagar bat eta udare bat. Esan zidaten salda eta jogurt batzuk ekarriko zizkidatela. Noizean behin produktu likidoak ematen zizkidaten jateko. Oso ahul nengoan." (ILMW03)

"Ura edaten nuen, bai, baina jatea ezinezkoa zen, nazka ematen zidan." (GTV01)

• **Janarian droga zegoela uste zuten**

"Ez nintzen kontziente gose edo egarri izateaz, ezta nekeaz ere, edo hori uste dut, hala ere, ekarri zidaten sandwicha jan nuen kafetegitik zuzenean ekartzen zutela ikusi nuelako. (...) Janaria eramaten zidaten baina ez nuen ezer jaten janarian zerbait sartuko ote zidaten beldur nintzelako. Beti entzuten da drogak eta holakoak sartzan dizkizutela, ezta? Harregatik, janariari uko egin nion. Ura behin baino gehiagotan edan nuen, baina komunera joaten nintzenean aprobeztatzen nuen. Baina momenturen batean botilatik ere edan nuen. (...) Janariaz akordatzen naiz eta hori, baina nik ez nuen ezer jan hiru egunetan." (JGGL03)

"Ziegan argia zegoen eta edatekoa zein jatekoa ematen zidaten, baina nik ez nuen hartzen, ez nintzen haietaz fio, eta ez nuen goserik. Gainera beharbada horrela ezingo zuten muturrera heldu, ez behintzat indartsu zaudenean bezainbeste." (NLMAP4)

"Dio egun horietan guztietan ez zuela ezer jan edo edan, substantzia kaltegarriak sartuko ote zizkieten beldur zelako –Soilik albertxikoak-." (OAEM01)

Ura eta likidoak

Hainbat testigantzek ura eskuratzeko zailtasunak deskribatzen dituzte, eta horrek atxilotutako pertsonengan eragiten duen antsietatea. Orokorrean gosea egarria baino erraza-

goa jasaten da. Gainera, likidoak eskuratzeko zailtasunari ariketa fisikoa eta tenperatura gehitu behar zaizkio. Bestalde, adierazpen batzuetan lehen janarian ikusi den zurrumurru berdina agertzen da, substantziak egoteko aukera alegia (ikus. 17. taula).

18. Taula. Likidoen ingestioa.

• Atxilotuari ez zaio likidorik ematen

“Egarriak asko kezkatzen ninduen, ahoa erabat oretsua nuen. Alde honetatik zarakar moduko bat sortu zitzaidan eta nik edan egin nahi nuen, eta baso bat ur eskatzen nienean eurek ur balde bat botatzen zidaten «ez al zenuen ura nahi, tori ura (...) ondo erantzuten badidazu, orduan ur apur bat emango dizut».” (OBAM05)

“Ez zidaten urik eman mediko forentsea ikusi nuen arte, ez dakit hori 2 egunen ostean izan ez ote zen. Forentsearen aurrean kexatu nintzen eta aski harritu zen, hark norbaiti esango zion ura eman behar zidatela.” (OBIM07)

“Ezpainak oso pitzatuta nituen, erraz lehortzen zaizkit eta Guardia Zibilaren forentsearekin egon ostean ura eman zidaten, baina aldeaz aurretik ez zidaten edaten utzi, edo badirudi informazio truk saltzen zidatela: «ura edan nahi baduzu beste zera hori kontatu behar diguzu».” (MIIA01)

• Edarian droga egon zitekeela uste zuten

“Egarri nintzen, eta antifaza handi gelditzen zitzaidanez ur botilak zituztela ikus nezakeen azpitik, ura eskatu nien, baina irekita zegoen botila bat eman zidaten eta ez nuen edan, ez nekien ura ote zen eta ez nintzen ausartu, esan nien soilik itxita zegoen botila batetik edango nuela eta edan gabe jarraitu nuen. Gainera tentsio baxua daukat, beroa baldin badut eta urik ez badut edaten erraz zorabiatzen naiz. Orduan ez nuen edaten. (...) Mediko forentsearengana joaten nintzenean edaten nuen soilik, ura edateko baimena eskatzen nion, horrek zorabiatuago eta indar gutxiagorekin egotea suposatzen zuen.” (OBAM02)

Baina edateak sumisio edo botere konnotazioak zituenean, orduan kontrakoa gerta zitekeen:

“Egarririk ez nuela erantzun nien, baina edatera behartu ninduten, edaten ez banuen hilko nindutela mehatxu egiten zidaten. (...) Orduan ezpainenara gerturatu eta hain zen gauza hotza hortzetan ere min egiten zuela; aurpegi arraroa edo jarri nuen, cola-cao edo kakao zapoaren antzekoa zuen, eta orduan barrez lehertzen hasi ziren, zalaparta bizian, batzuk, lau edo bost pertsona. «Andrea berandu etorri eta hoztu egin zaio, hotz edango duzu», esaten zidaten. «Sasikume halakoa, edan egingo duzu!» Edalontzia heldu eta bultza egiten zidan. Eurek nahikotzat kontsideratu zutena edan nuen eta kendu zidaten, berriro ere ahoa zabaltzeko agindu zidaten. Emakume bat zen. «ireki ahoa, putakumea» esan zidan.” (OBAM01)

4. Neke fisikoa – derrigortutako jarrera eta posizioak – ariketa fisiko nekagarriak⁶²

Azterketa guztietan agertu dira, bereziki gizonzkoen adierazpenetan. Helburua anitza omen da: neke mentala, horrek dakarren mina, menderatze-egoera eta denbora luzez ariketa anaerobikoa egiteak dakarren anoxia eta nahasmendua. Anoxia edo oxigeno falta kaputxaren aldi-bereko erabilerarekin areagotu daiteke.

Egoera hauek batez ere lau agertoki ezberdinetan deskribatzen dira:

- a. *Euskal Herritik Madrilerara lekualdaketak.* Atxilotutako pertsonak bidaia auto batean egiten dute, albo bakoitzean polizia edo guardia zibil batekin, kasu gehienetan atxi-

⁶² Istanbulgo Protokoloaren “Jarreraren araberako tortura, hala nola, zintzilik egotea, gorputz-adarren luzaketa, epe luzean hainbat mugimendu mugatzea, derrigortutako jarrerak. Derrigortutako ariketa-fisikoa”.

lotuei kaputxa edo antifaza jartzen diete, eta bidaiak irauten duen 4-5 orduz burua hanka artean izatera behartzen dituzte. Ibilbidean zehar, honekin batera, kolpeak, ukabilkadak, irainak etab. izaten dira.

Derrigortutako jarrera hauen ondorioz, aztertutako pertsonak zerbikalgiak⁶³ deskribatu izan dituzte.

Espetxe arteko lekualdaketetan ere, atxilotua momentu oro burua makurtuta eraman behar zuela deskribatzen dute lekukotasun gehienek, eta kasu batzuetan atzeraka ere ibili behar izaten zirela.

- b. *Galdeketetan zehar eta galderak egin bitartean.* Testuinguru honetan helburua pertsonaren neke fisiko eta mentala eragitea litzateke, oxigeno falta (anoxia), sorgortua eta nahasmendua orokorrean. Deskribapenen arabera, ariketa-fisikoa (eseri eta jaiki, kukubilko mantendu, flexioak eta bestelakoak) hainbat orduz luzatzen zen, pertsonak neke fisikoaren mugetaraino heltzen ziren arte.

Euskal Herritik Madrilera lekualdaketak atxilotutako pertsonak kaputxa edo antifaza jartzen diete, eta bidaiak irauten duen 4-5 orduz burua hanka artean izatera behartzen dituzte. Ibilbidean zehar, honekin batera, kolpeak, ukabilkadak, irainak etab. izaten dira.

- c. *Atxiloketa bitartean, baina galdeketarekin erlazio zuzena ezinbestean izan gabe, marka edo arrastorik uzten ez duen aldi bateko min zorrotza eragitea helburu.*

- d. *Zeldako egonaldi bitartean.* Pertsona batzuek diote uneoro zutik edo jarrera arraroren batean egotera behartzen zituztela, eta norbait zeldan sartzen zenean posizio jakin batean jarri behar izaten zirela. Jarrera hauen eraginez, denbora guztian adi egon behar ziren eta beraz, ez zuten atsedetik hartzen. Neke emozionalaren bidez, pertsonaren menderatzea eta desegituraketa biltzen zuten, momentu oro tentsiopean eta beste pertsonak nahi zuen erara egon zitezten.

⁶³ Lepaornoetako min iraunkorra.

19. Taula. Derrigortutako jarrerak

• Madrilerako lekualdaketaren bitartean

"Burua hanka artean jarri zidaten, eskuburdinak nituen bizkarrean eta antifaz bat ipini zidaten aurpegian."(ILMW02)

"Bidai osoan zehar eskuburdinak izan nituen bizkarrean, burua hankartean, txamarra buruan eta antifaz bat aurpegian."(ILMW03)

"Kotxean bi poliziaren erdian nengoen, eskuak eskuburdinekin lotuta nituen bizkarrean eta burua jaitsi egiten zidaten ez ikusteko, baina egia esan ez nuen ezer ikusten antifaza jarrita nuelako." (JZLV02)

"Atxiloketaren ostean lekuz-kanpo zegoela dio, Madrilera polizia-etxetik Audientzia Nazionalerako bidean burua kaputxarekin estali eta hanka artean mantentzen ziotela eta eskuak bizkarrean lotuta izan zituela." (JZLV02)

"Jarrera... gorputza hain zenuen kiribilduta saihets-hezurretan kristoren mina zenuela." (JZLV04)

• Galdeketa bitartean derrigorrez hartutako jarrerak

"Igogailua izan zen erabili zuten beste metodoetako bat, kukubilko jarri eta bertatik gora eta behera egin behar nuen. Horrela denbora luzez izaten zintuzten. Momentu batzuetan

behean nengoenean kolpe bat eman eta oreka galtzen nuen, baina ez zidaten erortzen uzten, berriro ere gora egin behar nuen. Gora-behera, kolpea, galdera. (...) Denbora luzez izan ninduten ariketa hau egiten eta izerditan blai amaitu nuen. (...) Hor nonbait, oker ez badut gogoratzen, auzitegirako paper bat sinarazi zidaten, baina burutik zein eskuetatik zetorren izerdiarekin papera blai utzi nuenez, errepikatu behar izan nuen. (...) Modu horretako flexioak eginarazi zizkidaten, zutik, kukubilko, zutik (...), baina kukubilko nengoenean buruan kolpeak ematen zizkidaten, kolpe horren indarrarekin lurrera erortzen nintzen, baina bati hartzen ninduten guztiz erori aurretik. (...) Fisikoki ezin nuen gehiago. Ariketa-fisiko egiten eta kolpeak jasaten, fisikoki jada ezin nuen gehiago." (ILMW02)

"Flexioak goitik behera egin behar izaten nituen, tente jarri eta kukubilko jarri arte makurtu behar nintzen, ez nintzen zutik mantentzen, paretaren kontra erortzen nintzen, zorabiatuta nengoen, erdi ergelduta bezala." (ILMW03)

"Arropak kendu, arropak jarri, eurek agintzen zizkidaten ariketak egiten nituen (...) maniki sentitzen zareneko egoera batera eramaten zaituzte, ni behintzat hala sentitzen nintzen." (ILMW02)

"Aurreko egunean ia ez nuen lorik egin; beti zutik, tinko kateaturik... zeharo luzea egin zitzaidan; goizeko 4etatik arratsaldeko 5ak arte." (MTRGL10)

"Erabat ahuldu arte esertzen eta altxatzen mantendu zutela dio, burua artilezko jantzi batekin zuen estalita eta horrek arnasketa zailtzen zion, gainera, prakak eta barruko arropa jaitzita zituen: eta galdera gehiago... erantzuten nuena ez bazitzaien gustatzen berriro eseri eta altxatzera behartzen ninduten, gora eta behera; eta nekatzen bazara jarri besoak horrela, gurutze jarreran, eta horrela gehiago ezin duzun arte; eta orduan... zartako bat. (...) eta poltsa berriro; behin eta berriz, itotzen zaren arte... eta arropak kendu... eta aulki batera lotuta... eta eseri-jaiki berriro ere... eta gero, ziegara berriz. (...) eta horrela sinatzen duzun arte." (NLMAP03)

"Behin eta berriz eseri eta jaikiarazi ninduten, kolpeak buruan, buruan beti nuen artilezko tapauka moduko bat, eta noizean behin prakak eta galtzontziloak jaisten zizkidaten umiliatzeko asmoarekin. (...) Poltsaren sentsazioa oroitzen dut, ezin nuen arnasarik hartu, eseri-jaiki denbora guztian, lurrera bi aldiz erori nintzen, baina ez nintzen konortea galtzera heldu... oso luzea egin zitzaidan, nahiz eta orain kontatu eta motza izan zela dirudien." (NLMAP04)

"Eseri eta jaiki, jaitzi eta igo, erortzen nintzen arte jaitzi eta igo, zaplaztekoka jaikiarazi eta berriro... erortzen nintzenez hartu, bultza egin eta paretaren kontra jotzen ninduten." (OBAM02)

- **Derrigortutako jarrerak polizia-etxeen arteko lekualdaketetan eta galdeketen artean**

"Ateratzen ninduten, okertuta atera behar izaten nintzen, aurrerantz makurtuta eta atzeraka zeldaren ateraino, eta bertan, ez dakit eskuburdinekin edo eurek helduta baina atzeraka eramaten ninduten." [Altxatu eta egin behar izaten zituen mugimenduak egiten ditu, baita mantendu behar zuen jarrera ere]. (OBAM02)

"Galdeketez gain, zeldan zeundenean beti zegoen atean kolpea ematen zuen tipikoa, eta beti paretaren kontra makurtu behar zinen, ez zenien inoiz begiratu behar." (MNEG03)

"Guardia Zibila ziegara sartzen zen bakoitzean paretara begira jarri behar nintzen, ateari bizkarra ematen, eta zeldatik ateratzen ninduten bakoitzean antifaz bat jartzen zidaten. (...) Zeldan uzten zintuzten momentuak zeuden, baina bitartean beste bat ateratzen zutela entzuten zenuen, oihuak entzuten zenituen, negarra... tentsioan zeunden zure inguruan zeudelako eta zuri zein momentutan egokituko zitzaizun ez zenekielako." (JZLV06)

"Hor botatzen nintzen eta ikusten nindutenean zutik jartzeko oihukatzen zidaten. Ezin nintzen eserita egon ere! Momentu oro zutik egon behar nintzen." (OBS03)

“Tipoa zeldatik atera zen, begiak ireki eta esertzera joan nintzen, ez esertzeko esan zidan eta horrela pasa nituen hurrengo egunak, zutik, inolako momenturen batean eseri gabe.” (MNEG02)

“Esfortzu fisiko handia. Esfortzu fisikoa baino, min egiten zuen esfortzua, baina kolpeak ematera heldu gabe (...) min handia ematen zuten derrigortutako jarrerak ez dira nekea sortzeko, mina ematen duten jarrerak dira. Mina duzu gorputz osoan. (...) Lau pertsonen artean egiten dizute, eta laurak oihukatzen zaituzte, eta galderak egiten dizkizute, horretaz ezin hobeto akordatzeko naiz (...) aldi berean izerdi egiteko jarrera batean egotera behartzen zaituzte, eta izerdi putzu bat dago lurtean... akordatzeko naiz toki guztietatik luzatzen zintuztela, bakoitzak leku batetik heltzen zuen.” (JZLV06)

“Gau hura amaigabea egin zitzaidan. «Noizbait amaitu behar da» esaten nuen nik. Kukubilko edo belauniko egon behar zinen, eta min hura. «Giharrak urratuko zaizkit» esaten nuen nik (...) kukubilko, oreka mantenduz, eta erortzen nintzenean ez zidaten esertzen uzten, belauniko jarri behar nintzen berriro. Hala eta guztiz ere, hankak belauniko ere lehertzen zitzaizkizun. Erortzen bazinen jotzen zintuzten, aguantatzen ez bazenuen jotzen zintuzten. Orduan, tira, ez zenekien zer egin. Aguantatzen jarraitzen badut jotzen arituko balira bezala izango da, eta eskua jartzen badut berriro ere joko naute. (...) Benetan gehiago ezin nuen arte aguantatzen nuen eta gehiago ezin nuenean lurrera erortzen nintzen. Ez nuen indar gehiagorik eta hor, eskua jartzen nuen.” (MNEG03)

“Ez zuten hitz egiten, oihukatzen zuten, aurrean bi zeuden, atzean beste bi eta beste bat erdian, horrek hanka puntetan eta ezer heldu gabe kukubilko mantentzeko agintzen zidan, eta erortzen bazara, PA! Ukabilkadak ematen zizkizuten. Jarrera horretan ezin duzu aguantatu, erori egiten zara! (...) horren nekatuta nengoen, horren jipoitua... eskuek ez zidaten gehiago heltzen eta behera erortzen nintzen, bat-batean ahots batek: «Ez adi jaitsi putakumea, tira gora!» Nik gora egiten nuen azkar eta pentsatzen nuen: «mesedez ez nadin jaitsi, ez nadin jaitsi!» Emakume bat zen, hainbat alditan emakumea izan zen oihukatzen zidana, bat-batean atea ireki eta «ez begiratu!» esaten zidaten.” (OBAM01)

• Derrigortutako jarrerak zeldaren barnean

“Ziegan batean sartu eta zera esan zidaten, atean bi kolpe ematen zituztenean altxa eta paretaren kontra jarri behar nuela, burua makurtuta eta begiak itxita. Jarrera horretan egon behar nintzen zeldan sartzen ninduten bakoitzean ere. (...) Eurak ateratzen ziren arte, eta gero kanpotik esertzeko edo etzateko baimena ematen zidaten. Ziegan bakarrik utzi ninduten lehendabiziko aldia ez dut gogoratzen eseri edo etzan egin ote nintzen. Handik gutxira bueltatu eta atean bi kolpe eman zituzten, altxatu eta paretaren kontra jarri nintzen. Sartu ziren, egin behar nuena sekula ez ahazteko oihukatu zidaten, eta alde egin zuten.” (ILMW02)

“«Nik atea irekitzen dudanean unean zu paretara begira egon behar zara dagoeneko» esaten zizuten [Jaiki egiten da posizioa azaltzeko]. Beraz, atea jotzen zuten bakoitzean aztoratuta bezala altxatzen zinen, atea irekitzen bazuten posizio horretan jartzen nintzen, baina batzuetan kosta egiten zitzaidan, oinetakoak eta galtzerdiak kendu behar izaten nituelako eta xehetasun horren kontura, errieta askotan egin zidaten.” (OBAM02)

“Denbora guztian zutik, eskuburdinekin eta paretara begira izan ninduten. (...) ziegan utzi nindutenean hau esan zidaten: «Zure bila gatozen momentuan posizioan jarri behar zara» (...) Beste hitz batzuekin, etortzen zirenean ezer ez ikusteko, makurtu egin behar nintzela. Jarrera berdinean egon behar zuenez eta ezustean harrapatu ez zezaten ez mugitzen ahalegindu zela dio, lorik egin gabe: Momentu oro posizioan nengoen... pausuak entzuten nituen eta noski, beti nire atera etorriko zirela uste nuen. Eta ez nintzen esertzera heltzen, denbora guztia ematen nuen horrela.” (MIIA02)

2. Ingurunearekin eta orientatzeko senarekin lotuta

1. Manipulazio bisuala – Argiztapen baldintzak

Azterketa gehienetan, batez ere Guardia Zibilak burutu zituen atxiloketa guztietan, 24 orduz etengabe piztuta mantentzen zuten argia zegoen zeldetan. Beste kasu batzuetan, ordea, eta batez ere Polizia Nazionalak eginitako atxiloketei dagokienez, zeldetan argi gutxi edo ia ilunpean zeudela aipatzen da.

Azterketa batzuetan loaldi eta esna-aldien erritmoa oztopatzen zitzaion atxilotuari.

Beste kasu batzuetan pertzepzio-alterazioak ageri dira (ikus. 20. taula).

2. Entzumenezko manipulazioa – Zaratak

Noizean behin bi zarata mota deskribatzen dira. Alde batetik zelda batean normalak diren soinuak (haizagailua adibidez), baina testuinguru honetan pertsonaren atsedena oztopatzen dutenak. Bestalde, alerta edo haserrea sortzeko edota loa oztopatzeko, nahita eragindako zaraten deskribapenak ageri dira, hala nola, musika bolumen handian erabiltzea.

20. Taula. Manipulazio bisuala. Entzumenezko manipulazioa

• Manipulazio bisuala

“Egun osoa eman nuen ilunpean, orduak eta orduak iluntasunean, eta gero, denbora guztia argitasunarekin. Eta ni buruarekin... mila buelta. Zer egiten dut hemen, zer egiten dut hemen? Soinuak entzuten nituen bakoitzean takikardia, urduritasuna.” (MNEG04)

“Zeldara jaisten nindutenean antifaza kendu eta bertan egoten nintzen, argi gutxi, eta gogoratzen dut lehendabiziko gauean zutik egotera behartzen zintuztela, azkenean puntu horretan bost axola zitzaizun. (...) Konfiantzako medikoak fotofobia nuela idatzi zuen, bost egunez ilunpean egoteagatik.” (OBIM07)

“Gaua zen jada. Ziegak (...) dena argizatzen zuen foku bat zuen (...) eta ondoan haizagailu bat, bi gauzak sabaian. Argia lau egunetan egon zen piztuta, momentu oro, baita haizagailua ere, eta ondorioz, zarata bat entzuten nuen etengabe.” (NLMAP01)

• Manipulazio bisualaren ondorioz gertatutako zentzumenen pertzepzioaren alterazioak

“Zelda garbi zegoen, baina azken egunetan momentu batean non paretatik kea ateratzen zela ikusten nuen, eta motor batek egiten duen zarataren antzeko bat ere entzuten nuen, ez dakit zer izango zen, baina kea ikusten nuen soilik, paretatik zeldara. Ostera abokatuak esan zigun beranduago atxilotu zituztenei ere gertatu zitzaiela, baten batek paretan figurak ere ikusi zituela.” (MTRGL10)

“Beti zutik. Hirugarren egunean jada zera ikusten nuen... ez zen gouttelettea, baina horren antzeko zerbait zen (bulegoko paretaren seinatzen du), gouttelettea baino leunagoa eta itzalen modukoak egiten zituen, argia uneoro zegoen piztuta eta itzalak zeuden. Horrenbeste begiratu ostean gauzak imajinatzen hasi nintzen.” (MNEG02)

• Entzumenezko manipulazioa

“Dena zegoen modu perfektuan antolatuta, zeldatik oso azkar ateratzen zintuzten, galdeketa oso luzeak ziren eta nekatuta zeundela edo kezkatu zintuen zerbait esan zutela ikusten zutenean zeldan sartzen zintuzten, buruari bueltak emateko, ez zizuten lorik egiten uzten, musika, argi indartsuak. (...) Horrek antsietatea eragiten zidan, (...) bertan ezin da ezer egin, argiarekin, topera dagoen musikarekin, ezin zen ezer egin, burua astindu baino ez.” (JZLV05)

“Musika topera jarri ziguten, imajinatzen dut besteen oihuak ez entzuteko egiten zutela, musika itzaltzen zen bakoitzean gainontzeko atxilotuen oihuak entzuten baintuen.” (MIIA01)

3. Temperatura

Hainbat elkarrizketetan hotza aipatzen da, zeldan bertan edo galdeketa-geletan zeuden manta edo arropen gabezia eta ur hotzez beteriko ontzien erabilerarekin batera. Aztertutako bi pertsonak hotza eta beroaren txandakatzearen erabilera aipatzen dute.

Emozioen higadura eta desegituraketa dira hainbat orduz mantendutako alertagatik aurreko faktoreen arteko batuketaren emaitza.

21. Taula. Temperatura

- **Hotza. Manta edo arropen gabezia**

"Manta bat eman zidaten abenduaren erdian geundelako, sekulako hotza egiten zuen! Bertan eman nituen hiru egunetan kristoren hotza pasa nuen. Jertsea kendu eta kamisetan utzi ninduten, zelako hotza. Jertseak kordioa zuenez ezin zidatela eman esaten zidaten." (AMRGL09)

"Udaberria zen eta egunean zehar beroa egiten zuen, eta beraz, tirantedun kamiseta batekin ibiltzen nintzen baina gauean hotza egiten zuen. Hotza sartzeko leihoa ireki eta besoak bustitzen zizkidaten; hotzez dardarka nengoan." (NLMAP3)

- **Ur hotzaren erabilera**

"Bertan nengoan, biluzik, bustita, luze egon ziren gainetik ura botatzen eta sekulako hotza nuen." (MNEG01)

"Hotz handia egiten zuen eta gainetik ur hotza botatzen zidaten." (ILMW02)

- **Hotza eta beroaren txandakatzearen erabilera**

"Gorputza zuzenean ez ziguten ikutu... beti zituzten trapuak gainean, [oso bero zeuden] trapuak erabiltzen zituzten, eta gero dutxa hotzak hartzera behartzen zintuzten, eta kalanbre modukoak nabaritzen nituen. Dutxa hauek Polizia Nazionalek ematen zizkidan, uniforme eta guzti. (...) Gorputza bero-bero nabaritzen nuen... eta bat-batean ur hotza botatzen zidaten. Horrek nahastuta uzten ninduen." (OAEM01)

"Galdekaketan kontraste handia zegoen, alde batetik izerdia, tentsioa, urduritasuna; eta bestetik, eurek ematen zizkizuten dutxa hotzak, uneoro hotza eta beroaren arteko kontrastea zen." (OBAM05)

4. Denboraren erabilera

Erlojua lehendabiziko momentutik kentzen zaie atxilotutako pertsonari eta kasu batzuetan, denbora bera eta jatordu ezberdinen, galdeketen edo mediko forentsearen bisiten arteko denborak desitxuratzen dira. Modu honetan atxilotuak ez du denbora markatzen duen erreferentziarik, eta horrek nahasmena eta desorientazioa sortzen laguntzen du.

Hainbat azterketetan denbora egituratzeko ahaleginak deskribatzen dira.

22. Taula. Denboraren erabilera – nahasmena eta desorientazioa

“Ez dakizu zer ordu den ere ez. Nik ez dut sekula erlojurik erabili, baina orduz geroztik beti erabiltzen dut, ezin dut ordua jakin gabe bizi. Lehen hori ez zitzaidan inporta «galdetuko dut» (...). Denborarena pasada bat da, azkenean orientazioa erabat galdu eta ez zenekien ordubete edo egun oso bat zeneraman ere. Egundak erdi neraman eta nik zera pentsatzen nuen «laugarren eguna edo izan behar da».” (JZLV04)

“Bai, zaila zen, gainera nekeagatik lo gelditu eta esnatzen zinenean ez zenekien zenbat denbora zeneraman lotan, ez zenekien ordubete, bi hiru... ez zenekien. Galdeketak zein atxiloketa denbora amaigabea zirela sentitzen nuen. Denbora asko... ez dakit, edo «hau noiz amaituko ote den» sentsazio amaigabea.” (OBIM07)

“Heldu berria nintzen baina nahi nuen bakarria azkar pasatzea zen; «bost axola zer egiten didaten, nahi dudana bakarria hau ahal bezain azkar pasa eta amaitzea da» pentsatzen nuen.” (ILMW01)

“Mediko forentsearen aurrera eramaten zaituztenean... harrিতා gelditzen zen kontatzen nizekin gauzekin, horrelako gauzak galdetzen zizkidan: «zenbat denbora uste duzu pasa dela? Goiza edo arratsaldea dela uste duzu? Zer ordu dela uste duzu?» eta niri begira geratzen zen... eta «seguru uste duzula...?» Noski, galdeketen ordu kopurua, nik ez dakit esaten zenbat ordu ziren, ze... buff! Zer dakit nik, lan nahikoa nuen ideiak elkarrekin jartzen... ahal nuenean noski. Uste dut bostak zirela esan niola. Eta begiratzen gelditu zitzaidan, «benetan uste duzu bostak direla?» eta nik «bai» bestea harrিতා... «eta zer egundak dela uste duzu?» Ez nekien, jokoz kanpo nengoen... ez dakit lorik egin ote nuen baina ez nekien zein ordu edo zein egundak zen ere.” (OBS04)

“Gauzek irauten zuten debora... ez nintzen batere kontziente (...) «Ba al dakizu zer egundak den gaur?» [Galdetzen zion forentseak bertatik pasatzen zenean] Nik uste nuen osteguna zela eta berak zera esan zidan: «Astelehena, goizeko 12ak dira», eta nik, «arraioa!» Horretaz akordatzen naiz.” (MNEG01)

“Pertsiana jaitsita dago, ez dago erlojurik, ez dakit arratsaldeko edo goizeko 6ak ote diren... argia ez da egiatzkoa.” (JZLV06)

Erresistentzia modura iragan den denbora kontrolatzeko ahaleginen testuinguru honetan, atxilotutako pertsonak bereziki inkomu-

nikazioaren luzapenak duen efektua azpimarratzen dute.

23. Taula. Denboraren manipulazioa – kontrol saiakerak

• Denbora egituratzeko ahaleginak

“Tira, korridorean leiho bat zegoen, nik ez nuen leihoa ikusten baina argia sartzen zen eta horren arabera apur bat gida zintezkeen, baina noski, azaroaren amaiera aldera egundak goiz iluntzen dira eta beraz, esnatu nintzenean ez nekien arratsaldeko zortziak edo goizeko hirurak ote ziren.” (JZLV02)

“Euretako batek kronometro bat zuen; ez zen ordua ikusten, baina kronometroa bai; erloju gorri handi bat. Denbora pasa ostean, pentsatzen dut benetan nahi zutela nik kronometro hura ikustea, bertan ordu bat ze astiro pasatzen zen konturatzeko. Inoiz ez zuten ekidin nik kronometro hura begiratzea.” (NLMAP01)

"Bertan gera nintekeen lasai-lasai, nire burua... nik neure burua blokeatu nahi nuen, ezer ez esan, eutsi eta eutsi eta denbora azkar pasa zedila." (JGGL03)

"Tipo hori zegoenean gaua zela badakit, poliziak entzuten nituenez ordutegi aldaketak ere antzematen nituen. Gainera, janariak ordutegi normalean ekartzen zizkiguten. Zera... gutxi gora-behera horrela kalkulatu nezakeen." (OBS03)

"Hilabete bat edo bi pasa nituela esaten badidazu... baietz sinatuko nizukeen, baina ez neukan ideiarik. Gero esan zidaten eta arrazionalizatu nuen, baina... segundo bakoitza bizi duzu, eta segundo bakoitza bizi oso bat da zuretzako. Beste kontzeptu bat da, ez dakit, ez nuke jakingo beste modu batean azaltzen, baina parametroak ezberdinak dira; baina denbora... ez dakit." (OAEM02)

- **Inkomunikazioaren luzapena**

"Uste nuen denbora pilo bat neramala atxiloturik eta oraindik beste bi egun falta zitzaizkidala jakin nuenean, lekuz-kanpo utzi ninduen, kolpe gogorra izan zen, neure minimoe-tan egoteaz gain ez nuelako indarrrik ezertarako." (ILMW01)

"Uste nuen hiru egun eramango nituela, edo laugarrenean nengoela; uste nuen egun eta erdi geratzen zitzaidala; egun gehiago pasa zirela uste nuen, baina ez zen horrela, afariaren kontuarekin jolasten egon ziren, eta bat-batean... beste 3 egun oso. Ez dakit zergatik baina luzapena zerbait ezohikoa zela uste nuen, berezia... ez dakit... denbora gehiago egon nintekeela pentsatu nuen, 5 edo 6 egun inkomunikaturik, nahiz eta maximoa 5 zela banekien. Paperak ofiziala zirudien: zigilu ofizialak zituen, eta horrela bazen... uffff... [arnasotsa] egun horretara arte ondo aguantatu nuela iruditzen zitzaidan, baina... ez dakit... beste hiru...uffff... [arnasotsa] hiru egun, galdeketekin, lekualdaketekin... bajoia sartzen hasi zitzaidan." (NLMAP01)

"Inkomunikazioa beste 72 orduz luzatu zidaten. (...) Berriz ere DNA proba bat egitera etorri ziren «badakizu aukerarik ez duzula, modu onean edo modu txarrean egin behar-ko duzu» (...) Gero jada ez nekien zenbat egun neramatzan, otorduen arabera kokatzen ahalegintzen nintzen (...) baina egunaren argia ikusten ez zenuenez, eta lorik egiten ez zenuenez... ez nuen oso argi zein egunetan geunden ez ezer." (MIIA02)

Faktoreen konbinazioa

Orain arte aipatutako faktoreak (elikadura, egarria, ordutegiak, loaldiak...) ez ziren modu bakanean aplikatzen, orokorrean konbinatu egiten ziren. Nekea, emozioen higadura eta desegituraketa dira hainbat orduz mantendutako alertagatik aurreko faktoreen arteko batuketaren emaitza.

"Gau horretan ez genuen lorik egin, ezta? Gero zeldan zutik egon behar zara eta argia piztuta dago, uneoro daude zu zelatatzen eta ezin duzu atsedetik hartu, ezin duzu lorik egin, ura edan, ezer ez... horrela bost egun errealitatea galtzen. Ez nekien eguna edo gaua zen, galdeketak

goizetan eta arratsaldetan egiten zituzten, eta tira..." (IGEJ02)

"Zeldara eraman nindutenean adibidez... uneoro ari ziren hor morroiloarekin klik, klak, klik, klak! eta «arraioa! Nigana datoz berriro ere» pentsatzen zenuen. Horrelakoak ziren eguneko 24 orduak, eta hori zen sentsazioa, zuregana zetoze-la, edo are okerrago, beharbada ondoan zenuenaren bila zetoze-la, eta ez zenekien nor zen. Horrelakoa zen denbora gutzia." (OAEM02)

3. Segurtasun beharra

1. Beldurra - Izua - Ziurgabetasuna⁶⁴

“Momentuan bertan galdeketaren zaparrada ahal nuen moduan aguantatzen ahalegintzen nintzen. Eta horrela egin nuen, galdeketak ahalik eta hobekien eraman nituen, txarto pasa nuen baina ez nekien eurek ni beldurtzeko nahita egiten zutela, momentuan ez nintzen kontziente horretaz. Nekiena zera zen ni jipoitzen ari zirela eta kontua okerre-ra zihoala, hori zen egoera. (...) Eraman, ekarri eta ariketa-fisikoak eginarazten zizkioten panpina baino ez nintzen (...) kuriosoena da nik kolaboratzea lortzen zutela, erabat ikaratuta nengoen, egiten dizuten eta egingo dizutela esaten dizuten kontu guztiekin oso beldurtuta nengoen eta ondorioz, kolaboratzen nuen: arropak kendu, jantzi, esaten zidaten ariketa-fisikoa egiten nuen... (...) benetakota maniki bihurtzen zaren egoera batera eramaten zaituzte, ni behintzat hala sentitzen nintzen. Automata bat nintzen. Galdeketak joan galdeketak etorri kritikotasuna galdu eta esaten zizkidaten gauza edo mezu asko sinistu nituen.” (ILMW02)

Beldurra atxilotua kontrolatzeko prozesu psikologikoaren ardatzetako bat da. Emozio larri gisa deskribatzen dute aztertuek, inguruneak berak sortzen duen tentsioagatik atxilotu aurretik hasten da, atxiloketaren lehendabiziko momentutik errotu egiten da eta inkomunikatutako egun guztietan zehar mantentzen da. Emozio hau ez da aske geratu edo espetxean sartu arte desagertzen (hainbat azterketetan paradoxikoa bada ere, espetxea lasaitu gisa deskribatzen dute).

Beldurrak ezinegon eta blokeo maila handia sortzen du, eta pertsona batzuentzako, jasan ezina izaten da.

...beldurrak berak neke psikologikoa sortzen duen tentsio egoera sortzen du, eta horren bidez atxilotuaren erresistentzia saiakerak eten egiten dira.

“Okerrena beldurra zen. (...) Horren da surrealista ez dakizula zer pentsatu ere... zer da hau? Hau ez du inork sinesten. Nire lagunak ezker abertzalekoak dira eta badakite torturatu egiten dela, baina egoera hori minuturo bost egunetan zehar ezin duzu imajinatu. Surrealista da.” (NLMAP02)

Ematen du askotariko helburuak izango lituzkeen torturaren elaboratze zaindu bat dagoela. Helburu nagusia ikaratzea da. Beldurrak, hasiera batean, pertsona defentsarik gabe uzten du eta ostera, pertsona entregatzera eramaten du, hau da, mehatxua eten dadin saiatzeko galdetzailearekin ahalik eta modu adeitsuenean jokatzera. Bestalde, beldurrak berak neke psikologikoa sortzen duen tentsio egoera sortzen du, eta horren bidez atxilotuaren erresistentzia saiakerak eten egiten dira.

“Ez dakit zenbat lo egin nuen, baina oihuak entzuten nituen eta negar egiten zuen norbait ere. Sekulako beldurra nuen eta blokeatuta nengoen, ez nekien zer egin ere. Ikaratuta nengoen eta eurek hasieratik dakite zer egin zu babesik gabe sentiarazteko. Orduan nahiz eta ez jo, soilik muntatu duten egoerarekin nahikoa da edozeri heltzeko. Kaka baten moduan sentitzen zara.” (AMRGL09)

“Momentu batean «arropak kendu!» esan zidaten eta ez zidaten ezer kendu izan behar, ni neu hasi nintzen arropa kentzen eta orduan... «tira, utzi» (...) Azkenean ez zidaten arropa sekula kendu, baina denbora guztian zenuen kenduko ote zizuten beldurra... ezinezkoa zen bertan egotea... oso intentsua zen.” (MNEG04)

⁶⁴ Modu partzialean Istanbulgo Protokoloaren “Mehatxu fisiko edo psikologikoak” atalari dagokio.

1.1. Beldurraren prozesua – Onartze inguruneen sorkuntza eta garapena

Azterketetan jasotakoaren arabera, beldurra atxiloketaren osotasunean agertzen da. Aurretik dituzten aukerak, atxiloketaren egoera, lekualdaketa, batez ere galdeketak gertatzen diren ingurunearen sorkuntza, eta uneoro areagotu egiten diren mehatxuak.

Atxilotua izan aurreko beldurra eta ezinegona

Espetxean amaitzeko aukera eta ondorioz adi egon behar izana atxiloketaren aurretik hasten da. Ezagunekin gertatutako aurrekariak, prentsan agertutako salaketa eta gizarte zibilaren erakundeen txostenak, atxiloketa batzuen "sarekada" izaerak edo izaera publikoak, atxilotuak izan diren ezagunekin izandako elkarrizketak, atxiloketa bitartean egondako zaurituen edo hildakoen kasu entzutetsuak... horiek denek "atxilotua izateko beldurra" sortzen dute eta kasu batzuetan, "ekidin ezina dena" sufritzeko beldurra ere. (ikus. 24. taula)

«Ah! Ez? Matxito bihurtu al zara orain? Eta hemen egin dizuguna kontatuko duzu?»

Nik baietz esan nion. Momentu horretan joko nindutela pentsatu nuen... baina egin zutena okerragoa izan zen. Zera esan zidan:

«Badakizu zer? Niri interesatzen zait zuk hori esatea, zure lagunei esaten badiezu sinetsiko dute, eta egunen batean zure lagun bat atxilotzen badut hauxe esango diot: zure lagun horri hau eta beste egin nion. Orduan, astindu aurretik ere, psikologikoki lur jota egongo da.» (JZLV03)

Atxiloketa

Kasu gehienetan, atxiloketa goizeko ordu txikietan gertatzen da, ezustean eta modu bortitzean. Normalean polizia asko erabiltzen dira eta oldarkortasun dosi handiak erabiltzen dituzte. Atxilotua babesik gabeko

egoeran uzten dute eta honela, lehendabiziko momentutik datorren oldarkortasun eta indarkeriari buruzko ideia bat egin dezake.

Lekualdaketa

Galdeketetarako Euskal Herritik Madrilera autoan egiten den lekualdaketa kolpez eta izutzeko ahaleginez beteta dago testigantzen arabera. Hainbat puntutan bidaiaren honen ezaugarriak deskribatu dira: burua makurtuta eraman behar zuten, maiz kaputxa edo antifaza jantzita, kolpeak, irainak edo exekuzio sumarioekin mehatxuak (ikus. Aurrerago). Edozein modutan, heldzerakoan tokatuko zaiona argi uzten zaio atxilotuari, antsietatea sortu eta beldurretik ikarara modu mailakatu igaroz.

Atxiloketa eta galdeketaren lekua

Behin atxiloketa gertatzen denean, muturreko indarkeriaren edota heriotza beraren antzezpen-egoera anitz agertzen dira aztertutako pertsonen testigantzetan. Adierazten dutenaren arabera, oihu egiten zuten pertsonen grabazioak erabiltzen zituzten, ustez atxilotuta eramandako gertuko pertsonen ahotsak edo beste pertsona bati egiten zizkieten torturen antzezpenak ere, ustez pertsona hura ez zen atxilotuetako bat. Pertsona ikara sortzen dion ingurune batean sartuta gelditzen da, eta bertan edozer gauza posible dela uste du (ikus. 23. taula).

Mehatxuak, edo beste modu batera esanda, galdetzaileak nahi zuen norabidean atxilotuak kolaboratzen ez bazuen eragingo zizkieten kalteen abisuak, aztertu guztien deskribapenetan agertzen dira. Aurrerago agertzen dira, kolpe, ostiko, elektrodo eta asfisia lehorraren erabilera deskribatzen diren atalean. Horrekin batera, irainek sortutako beldurra zehazten da, batez ere, arlo sexualari dagokien irainena (bortxaketa mehatxuak eta simulazioak).

24. Taula. Beldurra – Ikara – Izu-ikara

• Atxilotua izan aurreko beldurrak

“Ez nuen erantzuten. Gaua heldu arte ez nuen hitzik esan. Guztiz blokeatuta nengoen, hodei batean egongo banintz bezala nengoen eta gertatuko zitzaidan guztia nuen buruan bueltaka, hemen dena jakiten da eta gainera nire sarekadakoak atxilotu eta bi astetara atxilotu ninduten. Ez ziren nire lagunak, baina baten bat ezaguna zen. Euren testigantzak jadanik prentsan argitaratu ziren. Niri zer gertatuko ote zitzaidan pentsatzen eman nuen bidaia osoa.” (AMRGL09)

“Niretzako momentu horretan “La Salve” entzutea... beldur asko pasatzen ari nintzen seinale zen.” (IGEJ02)

“Nik Guardia Zibilak atxilotuko ote gintuen beldur nintzen, izan ere, egun horietan egon ziren atxilotuak ospitalean amaitu eta tortura salaketak jarri zituzten.” (ILMW03)

“Mugimendu arraro horiek ikusten hasi nintzenean hasieran benetan beldurtu nintzen, argi ikusi nuelako, bakarrik nengoen pisuan, nire pisu-kidea bidaiatzen zegoen. Horrenbesteko beldurra nuen egun batzuetan ez nuela etxean lorik egin, ez nuen bakarrik egon nahi, beldurra nuen, benetako beldurra.” (MNEG04)

“Beldurra sentitu nuen, beldur handia, ez nekielako zer gertatuko zen.” (NLMAP03)

“Eta beldur hori sartzen zidaten... beldurra nuen finean beste gauza batzuk gogoratzen nituelako... hau da, torturaren kontua ez da berria, eta beldur nintzen arropak kenduko ote zizkidaten, bortxatuko ote ninduten... ez dakit... mila egoeratan imajinatzen nuen nire burua.” (OAEM04)

• Atxiloketa bitartean

“Atea ireki, pistola bat buruan jarri eta lurrera botatzeko agindu zidaten. Kolpe bat hartu nuen kokotsean, odol apur bat nuen eta ez zidaten ezer ikusten uzten. (...) Nire bizkarra zapaltzen ari ziren eta pistola nuen buruan. Ematen zuen gerran sartzen ari zirela eta ni bertan pijamarekin nengoen. (...) Gero behera eramanez ninduten eta polizia batek «hitzik ez esan!» agindu zidan, eta portalera jaitsi nindutenean bertan zegoen jende guztia ikusi nuen eta oihiu egiten hasi ziren (...) nik «Aupa peña» oihukatu nuen. Orduan polizia belaunkadak ematen hasi zitzaidan. Orduan jada ezkutatu ninduten, autoan sartu eta bertan mehatxuak hasi ziren. «Ez egiteko agindu dizudan beste zerbait egiten baduzu, kolpeka akabatuko zaitut». Bertan argiago ikusi nuen hura ez zela atxiloketa lasai bat izango.” (MNEG03)

• Lekualdaketa bitartean

“Eskumara sartzeko keinua egin baina zuzen jarraitu zuten. Oso beldurtuta nengoen. Bidaian zehar ere mehatxuak egin zizkidaten, «denetarik probatuko duzu, atxilotuekin zer egiten dugun badakizu ezta? Bada, egia da. Ba al dakizu zer diren “snuff” filmak? Torturak edo pertsonen gorputz atalak nola moztzen diren grabatzen duten horietakoak? Ba zurekin horrelako bat grabatuko dugu» (...) Arekara botatzeko mehatxua ere egin zidaten, geroago ihes egiten ahalegindu nintzela esango zutela.” (ILMW03)

“Autoan gindoazen bitartean tortura metodo ezberdinekin mehatxatzen ninduten, bai nuontzia, elektrodoak... euren artean hitz egiten zutela entzuten nuen, antsietatea eta ezinegona sortzen dizuten gauzak entzuten hasten zara.” (JZLV06)

“Kotxea gelditu eta motorra itzaltzeko simulazioak egiten zituzten niri mehatxu egiteko. «Ikusiko duzu hemen... aterako zaitugu eta hemen nahi dugun guztia egin dezakegu» esaten zuten.” (OBAM02)

“Nik ez zaitut ukituko baina flipatuko duzu Madrilerako bidai osoa dugu eta nirekin hitz egiten hasten bazara beharbada bertako nire kideekin hitz egin dezaket zu ez jipoitzeko, edo gutxiago jipoitzeko, biluzik egongo zara lehen minututik, poltsa jarriko dizute, eta beste ez dakit zer, eta gaizki pasatuko duzu... nik ez zaitut ukituko baina hemen bertan hilko zintuzket..., beste bi minutu emango dizkizut pentsatzeko eta ez baduzu hitz egiten Madrilerako arte isilduko naiz, baina flipatuko duzu, egingo dizugun guztiarekin. (...) Madrilerako gerturatzen ari ginenerako jada sekulako beldurra nuen, asko, asko. (...) Madrilerako ez heltzeko istripu bat izatea desiratzen nuen.” (OBIM08)

• **Atxiloketa eta galdeketen lekuan**

“Galdeketetan beste jende baten min-oihuak entzuten ditut. Ez dakit zeintzuk diren, edo eurek sortzen dituzten baina ikaragarriak dira. Hainbat izen esaten zizkidaten. Honek zuri buruzko zerbait esango zuela, ziegan zegoen beste norbait zela eta torturatzen ari zirela etab. (gero jakin nuen aipatzen zuten pertsona ez zutela atxilotu, baina ni nahasten ahalegintzen ziren). Horrek beldurra sortzen zidan. (...) Gero txinpartaka ari zen zerbait gerturatzen zidaten belarria, txinparta moduko bat. Nik sekulako beldurra nion gerturatzen zidaten aparatua hari. (...) Zerbait urez betetzen zuen txorrotaren soinua entzuten zen. Horrek ikara handia sortzen zidan.” (ILMW02)

“Batuetan zeldan uzten zintuzten, baina hor zeuden bitartean beste bat hartzen zutela entzuten zenuen, oihuak, negarra... tentsioan zaude inguruan daudelako eta ez dakizulako zein momentutan izango zaren zu.” (JZLV06)

“Momentu batean neska baten negarra entzun nuen hainbat orduz, baina gurekin atxilotuta ez zegoen neskarik. Beraz, beldurra ere apur bat jolasten dute, grabazioekin, gurekin... gurekin ez zuten neskarik atxilotu.” (MIIA01)

“Poltsak jartzen zizkidaten bitartean ate bateraino eramaten naute, erdian nago, ez gela batean ez bestean. Pertsona bat zegoen kolpeak ematen eta dena lurrera botatzen, aulkiak pareten kontra botatzen, mahai bati kolpeak ematen, sekulako zarata egiten.” (MNEG02)

“Ukabil amerikarra atera zidatenean izan zen. Ez didaten harekin jo, baina sabelean joko nindutela simulatzen zuten.” (MNEG03)

“Noizean behin haietako bat niregana etortzen zen, eta beldurra sartu nahian kolpeak ematen zizkion lurrari bere botarekin.” (ILMW01)

“Momentu batean gela barrura bultzatu ninduten eta bertan lehen aipatu dudako tipoko hori zegoen, eta lokarriak askatzen zegoela ikusi nuen. (...) Lurrean botata zegoen, biluzik eta... jipoitzen ari ziren eta norbaitek zera esan zuen «konortea galdu du, ez da mugitzen, deitu medikoari» eta bere gainean bota ninduten. Eta ni... tira... negarrez hasi nintzen... arnasa hartzen uzten ez zidan antsietatea nuen, beldur handia sentitu nuen... hau da, beste galdeketa mota bat imajinatzen nuen eta arraioa! Momentu horretan behera etorri nintzen erabat puff! Arnasa hartu ezinik hasi nintzen. (...) Bestea arrastaka atera zuten gelatik, hanketatik tiraka... «orain zure txanda da» eta berokia eta jertsea kentzen hasi ziren eta... gainera aldi berean «konortea galdu duela» entzuten nuen eta eurak ere urduri moduan zeuden eta... ba hori, kaputxadun hiru pertsona sartu ziren, iletik heldu eta arrastaka gelako alde batetik bestera eramaten ninduten... beste bat prakak kentzen ahalegindu zen, eta ez zidaten kendu! Baina denbora guztian keinu hori, hor...” (OAEM04)

“Hauek etortzen zirenean... “beltzez jantzitako gizon” hauek etortzen zirenean, eurak baitziren mehatxu egiten zidatenak. (...) Momentu batean ere joan nintzen... tira, txizagura nuen baina ezin zenez ezer eskatu... tira korridorean polizia batekin nindoan eta beste bat etorri zen... ez nuen ikusi horrela zetorren (makurtuta), komunera gindoazen baina ni heldu eta... ni komunaren txokoa sarrarazten ahalegindu zen eta besteak zera esan zion «ez, ez, kolaboratzen ari dela». (OBIM06)

Beldurrak eredia sortzeko funtzioa izango zuen, jendea geldiarazi eta atxiloketa baten aurrean gerta zitekeenaren alerta modu sozialean zabaltzeko.

Atxilotuek, gainera, beldurra euren ingurukoei transmititzen zieten. Modu honetan beldurrak eredia sortzeko funtzioa izango zuen, jendea geldiarazi eta atxiloketa baten aurrean gerta zitekeenaren alerta modu sozialean zabaltzeko.

1.2. Beldurraren eta imajinazioaren prozesua: Tortura mehatxuak versus minaren zehaztapena

Batzuetan beldurrak zehatzak dira, espezifikoak eta egoerarekin edo mehatxuekin zerkusia dute. Beste batzuetan, ordea, beldurrak ez dira espezifikoak eta ziurgabetasunarekin eta gerta daitekeenarekin dute erlazioa.

Hainbat azterketetan agertzen den moduan, beldurra mina baino okerragoa da, eta mehatxuek min-fisikoak baino efektu psikologiko suntsizailleagoa dute. Beldurrak minak baino arrasto psikiatriko gehiago uzten ditu.

"Beldurra, ez dakit, kontu arraroa da, izan ere jipoitu izan banindute, eta jipoitu ninduten bai, buruan kolpeak eman zizkidaten eskuekin, eta umiliagarriagoa da plis-plas, indarrarekin... ez jakitea da okerrera. (...) Momentu batean pentsatzen nuen, lau kolpe eman eta horrela behintzat modu defentsiboagoan jokatuko nuke, baina horregatik diot uste dudala eurek badakitela pertsona bakoitzarekin nola jokatu." (GTV01)

"[Kableekin kontaktuan egoteak eta deskarga elektrikoaren zain egoteak psikologikoki suntsitu zuela dio, tentsio hori

jasan daitekeena baino handiagoa izan zela]. "Imajinatu nola nengoen, negarrez eman behingoz, eman behingoz esan niela. Egoera hau... ez dakit, min fisikoa aguanta dezakezu baina min hori sentitu aurretik duzun beldurra, emango dit, ez dit emango sentsazio horrekin egotea... (...) Haiek ere konturatzen ziren, ikusten zuten dardarka nengoela, negarrez, oihuka, ez dakit." (JZLV03)

"Nik deklaratu ostean ondoan zegoen beste atxilotuaren bila etortzen ziren oraindik ere; eta, bere bila zetozenean, oso gaizki pasatzen nuen. Eta gero itxaroten egotea... bueltatuko diren edo ez, ez jakitea... Urduritasun horrek hiltzen ninduen. Ez da... inkomunikazioak iraun zuen aldiko txarrena hori zen, egin ahal dizuten horri diozun beldurra, gero egiten dizute eta... tira, aguantatzen duzu. Ez dakit nola esan, jotzen nindutenean... min handia egiten zidaten eta oso gaizki sentitzen nintzen, baina gero galdera zetorren: eta honen ostean zer?" (OBS03)

Beldur mota hau eraginkorra izan dadin, batzuetan mehatxuak ez dira zehaztu behar, eta beste batzuetan bete egin behar dira. Hau da, mehatxuak sinesgarriak izateko, oldarkortasunaren igoera eman behar da galdeketa, modu honetan puntu batetik aurrera atxilotuak mehatxurik neurrigabeenak ere posible gisa kontsideratuko ditu.

25. Taula. Mehatxuak pertsonari

• Tortura mehatxuen igoera

“Kontatzen dudan heinean hunkitu egiten naiz, dena orain gertatzen arituko balitz bezala gogoratzen dut, irudiak grabatuta ditut. Beldurra nuen, nirekin zer gertatuko ote zen ez nekienez galduta egotearen sentsazioa nuen, dena zen ziurgabetasuna. (...) Bertigoa sentitu nuen, bakarrik gelditzen nintzen, literalki beldurratik egiten nuen dar-dar, hotza ote nuen galdetzen zidaten baina beldurratik egiten nuen dar-dar.” (ILMW01)

“Uneoro zegoen tortura fisikoaren mehatxua, eta galdeketetan hain zen iraunkorra mehatxuaren kontua... galdeketan kaputxarik gabeko hiru polizia zeudenean salto egin nuela, urduritasunagatik, mehatxuka ari dira, mehatxuka ari dira... amaitu behar zutela sentitzen nuen, aski zela, nahi zutena egin zezatela baina mehatxuak behingoz eten zitzatela.” (OBIM06)

“Lehenengo egunetik mehatxuak bota zizkidaten «zure neskalaguna bortxatuko dugu» eta horrelakoak... irain sexistak, komentarioak... baina zoritxarrez egoera horretatik pasa diren ezagunak ditut eta euren familia kideen aurka egin dituzten mehatxuak gezurrezkoak izan dira, beraz euren estrategiaren baitan sartzen zela uste nuen.” (JZLV06)

Kolpeekin zerikusia duen efektu hau hainbat testigantzetan agertzen da. Kolpeen eta muturreko indarkeriaren erabilerak markak edo lesioak sor ditzake, baina galdetzailearen ikuspuntutik, okerragoa da atxilotuak beldurra eta kolpeak zer diren jakin eta hortik aurrera bere baitan itxi edo mentalki isolatzen denean. Atxilotuak minari eusten dionean. Hauxe da galdetzailearentzako ager daitekeen egoerarik okerrera, minaren gaineko kontrol fisikoa, beldurra edo nahasmendua gaineko kontrol mentala baino errazagoa omen baita.

“Hemen erotu egingo naiz, ematen dizkizuten kolpeak, uneoro oihukatzen dizkizuten kontuak, bombardaketa bat da, eta nik «ez ditut entzun nahi» esaten nuen (...). [Galdetzen zidatenari] erantzuten nienean Bilbon jotzen ninduten, eta orduan ba ez dut erantzungo, hemen itxi eta kolpeka akabatu behar banaute, kolpez akaba nazatela. (...) [Handik aurrera] Niretzako neure buruan ixtea zen, esaten zutena ez entzutea, eurekin ez hitz egitea eta ezer ez esatea, jasotzen ari nintzen kolpeak aguantatzen saiatzea.” (MNEG03)

2. Heriotzaren pertzepzio psikologikoa – Asfixia**2.1 Asfixia Lehorra: Poltsa, kaputxa eta asfixiarako beste metodo batzuen erabilera**

Peritazio batzuetan, trakearen inguruan ematen ziren kolpe edo itotze beraren bidez deskribatzen da asfixia lehorra.

“Besterik gabe, antifazarekin joan behar zinez ez zenuen ikusten eta gustuko ez zuten erantzun bat ematen zenuen bakoitzean arnasarik gabe uzten zintuen kolpe bat ematen zizuten zinturrean.” (AMRGL09)

Baina deskribapenetan agertzen den asfixia lehorreko metodarik ohikoena “poltsaren” erabilera da zalantzarik gabe. Galdetzaileak eskuekin eusten dituen zakar poltsak edo ixteko kordioa duten oihalezko poltsak agertzen dira.

Testuinguru eta pertsonaren arabera, poltsa helburu ezberdinekin erabiltzen da:

“Poltsarena etengabekoa da. Lehendabizi, poltsa lotu gabe jartzen dizute eta

jipoitzen zaituzten bitartean galdetzen hasten dira, gero estutzen eta estutzen hasten dira asfixiara heltzen zarenera arte, behin, bi aldiz, hamar aldiz, hogeit berrogei, ehun. (...) Orduan sekulako asfixia sartzen zaizu eta gehiago ezin duzunean poltsa kentzen dizute, eta arnasa hartzen zaudenean ur botila edo ontzi osoa botatzen dizute aurpegira. Beraz, arnasa hartzen saiatzen ari zara, ura ezta rrian gelditzen zaizu, botaka egiteko go-go sartzen zaizu eta errekuperatzen hasten zarenean poltsa jartzen dizute berriro, eta horrela denbora guztian. Eta aldi berean oihuak bota eta galderak egiten dizkizute. (...) Poltsaz gain, asfixiaz gain, buruan hainbat orduz beste poltsa bat jartzen dizute, itxi edo estutu gabe, baina lepoan Guardia Zibilaren eskua daukazu. (...) batzuetan estutu egiten zaitu, askatu, laztandu... baina eskua lepoan duzu eten-gabe.” (MIIA01)

Identifika daitezkeen lau arrazoi daude gutxienez:

1. Lekualdaketa edo galdeketa bitartean, atxilotuari inguruan duen guztiaren ikusmena galarazteko. Galdetzailearen ikuspuntutik segurtasun neurria da, eta aldi berean babesik gabe uzten dute atxilotua, eta errealitate zentzua nahiz erreferentziak galtzea eragiten diote.
2. Pertsonaren ezinegona eta beldurra areagotzea, horrela kolpea noiz jasoko duen, inguruan arriskurik duen edo jendea gelan noiz sartu edo noiz ateratzen den jakitea galarazten zaio atxilotuari. Lekualdaketaren bitartean (zeldatik galdeketa-gelara esate baterako) atxilotuak beldurra izango dio ibiltzeari, bidean murrubat, habe bat edo eskailera bat topatu eta haren kontra bota edo jipoituko duten beldur izango da.
3. Burmuinean anoxia (oxigenoaren horniketaren gutxitzea) eragiteko. Modu honetan pertsonaren nahastea eta zorabioa areagotzen da, eta pentsatzeko argitasuna zein galdeketa ematen dituen erantzunen gaineko kontrola galarazten zaio. Horregatik kasu batzuetan poltsa irekita uzten da (helburua ikusmena galaraztea denean) eta beste batzuetan itxi egiten da (asfixia burutu nahi denean). Galdetzaileek tabakoaren kea poltsan sartzen dutela agertzen da gutxienez bi testigantzetan. Poltsa ariketa-fisiko nekagarriarekin (flexioak, eseri-jaiki ariketak) konbina zitezkeen nahaste, zorabio eta asfixia sentazioa areagotzeko.
4. Atxilotuarengan beldur eta larritasun erreakzioa piztea, berehalako heriotzaren pertzepzio psikologikoa eta horrek dakarren ikara sortzea. Badirudi hau zela efektu nagusia.

26. Taula. Asfixia lehorra: Poltsaren erabilera.

“Galdeketa antifazarekin, poltsarekin edo kaputxarekin izaten ziren. Poltsak larritu egiten ninduen... eurek tabakoa erre eta haren kea poltsan sartzen zidaten, gero ahoa eta sudurra eskuarekin estaltzen zizkidaten, erortzen nintzen arte.” (OBIM08)

“Poltsa hura kaputxaren gainean jarri zidaten, eta hori are okerragoa zen, ahoan poltsaren plastikoa eta artilea sartzen baitziztaizkidan, ito egiten nintzen. Ahoa estutzen zidaten, eskuekin heltzen zuten eta nik konortea galtzen nuen. «Botaka egiten baduzu, jan egingo duzu!» esaten zidan (...) [poltsarekin] ez nuen botakarik egin, baina goragaleak sentitzen nituen. Momentu batean txiza egin nuen gainean. Jantzita nengoen.” (OBAM01)

“Poltsa jartzen zidatenean, nik zera egiten nuen, kokospea jaisten nuen poltsa estuegi ez lotzeko, eta horrela gero apur bat lasaitzen zenean, beheko aldetik aire apur bat sar zitezkeen; baina burua atzera jartzen zidatenean, ezin nuen egin. Egoera horretan, gorputza ihes egiten ahalegintzen da, indarra duzulako, eta beraz lau pertsona zeuden

nire gorputza heltzen. Momentu batean konortea galdu nuen. Neure senera bueltatu nintzenean ganean txiza egin nuela ikusi nuen.” (NLMAP03)

“Askotan pentsatzen duzu poltsarena pelikuletako kontua baino ez dela, benetan horrelakorik ez dela gertatzen. Poltsa jarri eta tenkatu egiten zuten, orduan zuk poltsako airea hartzen duzu, baina amaitu ahala poltsa ahoan sartzen zaizu. (...) Momentu batean erretzen zuen batek kea barruan sartu zidan eta hau guztia [eztarria seinalatzen du] erre zidan.” (JZLV03)

“Hasierako galdeketetako batean, bigarrean edo hirugarrean, poltsa lau aldiz egin zidaten. Lehendabizi buruan jartzen zidaten eta nire erantzuna ez bazitzaie gustatzen arnasarik gabe utzi arte tenkatzen zuten. Nik eskuekin edo hortzekin apurtzen nuen, berriro apurtzen banuen hilko ninduela esan zidan. Dena zen oso gogorra baina asfixiak eragiten zuen sentsazioa, itotzen zarela, ezin duzula arnasarik hartu... oso, oso gogorra da. Poltsaren erabilera basatia da.”(ILMW03)

“Etengabe egiten zizkidaten poltsarekin mehatxuak, jarri egin zidaten ere. Buruan poltsa jarri zidaten eta lepoa aldean lotu zuten, gehiago ezin nuenean pareta ukitu nezan esaten zidaten eta orduan kenduko zidatela. Zutik nengoen. Ahal nuena aguantatzen nuen eta gehiago ezin nuenean besoa altxatu eta pareta ukitzen nuen, orduan kentzen zidaten. Poltsa kaputxaren ganean jartzen zidaten. (...) tontotuta nengoenean, nire bizitzari buruzko galderak egiten zizkidaten, nondik ibiltzen nintzen, norekin.” (ILMW02)

“Esan nien niri buruzko edozer esango niela baina eskatzen zuten hori ez zela posible... Orduan poltsa erabiltzen hasi ziren, behin eta berriz. Euren jarrera ere aldatu zen, erabat oldarkorra bihurtu zen, oihu egiten zidaten, bultzatu, kolpeak, poltsa, gero flexioak egitera behartzen ninduten, eta hasi nintzenean poltsa jarri zidaten aldi berean eta nik... sekulako larritasuna... ezin nuen arnasarik hartu, poltsarekin sekulako larritasuna, konortea galduko dut? Zer gertatuko zait?” (OBS01)

“Poltsa jartzen hasi ziren arte, hori da gogoratzen dudana gauzarik okerreana, momentu horretan... antsietatea, urduritasuna, inpotentzia... ezin duzu ezer egun. Gainera, lehendabiziko bi aldietan ez zidaten ondo jarri eta arnastu nezakeen, eta tira, besterik gabe, uneko tentsioa eta jakitea poltsa jartzen ari direla eta gelditzen zaizun guztia, hiru egun eta hiru ordu daramatzazu eta bi aldiz jarri dizute jada... nahiz eta ongi ez zidaten jarri, badakizu oraindik zer gelditzen zaizun. (...) Poltsa jartzen zidaten bakoitzean sabela eta bularraldea estutzen zidaten, eserita nengoen. Poltsa jarri zidatenean eseri eta jaikitzeo ariketak eginarazi zizkidaten eta lurrera erori nintzen, jipoi artean altxatu ninduten. Poltsaren sentsazioa gogoratzen dut, arnasarik hartu ezin hura.” (NLMAP04)

2.2. Asfixia Hezea: Bainuontzia

Atxilotua hainbat pertsonaren artean eutsi edo taula batera lotu eta bere burua urez beteriko ontzi batean (“bainuontzia”) sartzen dute. Honekin asfixiaz gain berehalako heriotzaren sentsazioa eragiten diote atxilotuari.

“Bainuontzia zer otez zen ba al nekien galdetu zidaten. Eta baietz erantzun nien, nire burua ur azpian sartzea zela. Eta be-

rak esaten zidan mahai batera lotu eta mahai osoa ur azpian sartzea zela orain, eta hori bai zela gogorra.” (ILMW02)

Bainuontzia kontaktetan errepikatzen den elementua da. Lehenago aipatu den moduan beldurrak efektu suntsitzailea du imajinazioan, eta beraz, elektrodoekin bezala, bainuontziaren kontuan mehatxuarekin jolastzen zuten; izu-ikarak zuen tortura honek sortzen zuen benetako minak baino garrantzia

handiagoa. Aztertuek diote kasu gehienetan tortura mota hau ez dela gauzatzen, nahiz eta beldurra eta ikara sortzeko eszenografia

(beste biktima batzuen oihuak, urrutian txorroten soinua, etab.) guztia sortzen duten:

27. Taula. Asfixia uraren erabilerarekin

"Ez zidaten utzi, azkenean nahiz eta ziegan egon ondoko atea entzuten zenituen, ura entzuten nuen... ontzi bat betetzen arituko balira bezala. Beharbada nire sentsazioa zen, ez dakit, ontzi bat, bainuontzi bat... ez dakit, zerbait. Gero gainean zegoen jendearen urratsen hotsak entzuten ziren, takoiekin, eta "ahotsak". Ez dakit hitz egiten zuten edo itotzen ari zen, norbait jipoitzen zutela ere entzun nuen... ez zen ulertzen, oihuka ari ziren bi pertsonen ahotsak entzuten ziren eta hirugarrena «ahhh» oihuka: «Ez zaude kolaboratzen, ba al dakizu bainuontzia zer den? Ez duzu ezagutzen? Ba beharbada bainu bat eman behar dizugu.» (...) Tarte batez bainuontziarekin mehatxatzen ninduten... eta joaten ziren, bost edo hamar minutu, eurak joan eta besteak etortzen ziren. (...) Mehatxuak berriro ere... ez ninduten momentu batean ere ukitu, baina mehatxuak egiten zituzten, bainuontzia, poltsa, familia «zuk ikusi zer egiten diezun»" (OBIM06)

"Bainuontziarekin mehatxatu ninduten ere. Bainuontzia zer zen ba ote nekien galdetu zidaten (...) zerbait urez betetzen ari zen txorrota lodi baten soinua entzuten zen. Horrek sekulako beldurra sortzen zidan. Beldurra sartzen zidaten gauzekin mehatxatzen ninduten, eta askotan, mehatxu horiek bete zituzten, baina nire kasuan bainuontzia eta prentsarena ez. Kolpeak eta galderek jarraitzen zuten bitartean egiten zituzten mehatxuak." (ILMW02)

"Kotxeko bidaiaren bitartean tortura metodo ezberdinen mehatxuak egiten zizkidaten, bainuontzia, elektrodoak, euren artean hitz egiten zutela entzuten nuen, antsietatea sortzen dizuten gauzak entzuten hasten zara." (JZLV06)

"«Aizu txo, bainuontzia betetzen ari gara, ikusiko duzu nola ez duzun poltsa puskatuko, bertan ez baitago poltsarik» «Kakazaharra! Txorrota ez dabil ondo eta ur gutxi ateratzen da, asko kostatzen ari zaio, betetzen den bitartean poltsa gehiago jarriko dizkizugu» (...) Ez nuen pentsatzen, ziur nengoen poltsaren ostean bainuontzia tokatuko zitzaidala, erabat ziur nengoen, ez nuen dudarik, guztiz sinetsi nuen. Eta neure burua bainuontzi baten barruan ikusten nuen. Bost axola zitzaidan espetxera joatea, kalera, edonora, aurpegian poltsa gehiagorik ez jartzea zen nahi nuen gauza bakarra." (MNEG02)

"Gogoratzen dut konortea bi aldiz galdu nuela, ontziarena egin zidaten, burua ontzi batean sarrarazi zidaten, poltsarekin ere, ito egingo banindute bezala. Konortea bi aldiz galdu nuen, Ertzaintzakoa zen hori etorri zen arte, «kontuz!» esan zuen, «honekin hori ez, bestela ez da onik aterako hemendik!», beharbada aurreko atxiloketan gertatu zena jakingo zuten." (JGGL03)

"Burua itotzeko sartu zidatenean baino ez nuen edan, bi zurrutada eman nizkion ur hari. (...) Burua ur ontzi batean sartu zidaten behin eta aukera hori aprobetxatu nuen. Sekulako egarria nuen eta momentu hura, ura edateko aprobetxatu nuen." (OBIM07)

Galdeketetarako erabili ziren geletako batean behintzat bainuontzi bat zegoela eta atxilotu batzuekin erabili izan zela deskribatzen da:

"Dena gutxi gora behera antzekoa izan zen bainuontzian sartu ninduten arte.

Hori gogorra izan zela gogoratzen dut, bortitza [adieratzen duenean ahotsa jais-ten du]. Buelta handia eginarazi zidaten. Ez zenuen ezer ikusten, burua hona eta hara, buelta asko, lekuz kanpo sentitze-ko. (...) Gelara sartu eta bertan bai, bertan bainuontzia ikusten utzi zidaten [konta-

Komisarian momentu bat egon zen, ia amaieran, ezin nuen gehiago eta esan nien: «zergatik ez didazue behingoz tiro bat botatzen?» (...) "

tzen duenean arnasa sakon hartzen du]. Bainuontzi normala zen eta koltxoi moduko bat zegoen. Hori ikusten duzunean, ikustea bakarrik, oso bortitza da. Tortura hori bortitza da. Oso... gehiegizkoa da, itogarria, eta... bertan bai pentsatzen duzu bertan benetan hilko zarela. Dena ikusten duzunean, parafernalia osoa... eta gainera entzun duzunarekin... bai, bai, egia da... uste dut eurak ere beldurtu egin zirela nire arnasketa oso... oso geldo bezala sumatzen zutelako. Hanketatik heldu eta barrura [keinuekin bainuontzian nola sartzen zuten adierazten du]. (...) iraultzen ninduten, hanketatik heldu eta zintzilik uzten ninduten, ez zenuen in-darririk egiten, baina haiek aski tiratzen zu-

ten. Denbora guztian ibiltzen ziren: «Tira, orain! Ez, orain ez, itxaron apur bat!» psikologikoki jolasten. Eta noski, ikara hori, heriotzari diozun ikara hori, zintzilik egon eta bertan zerbait izatea... eta hori, uraren kontu hori da... batzuetan burura datorkizu, ura ikusten duzunean edo ura ukitzen duzunean... ez da ura ikusten duzun guztietan agertzen den kontu bat... baina lotura hori bertan geratzen zaizu. Ura duten ontziak, bainuontziak... arnasarik hartu ezin duzun trauma hori... ba bai, egia da markatzen zaituela, asko markatzen zaitu. (...) Tira, bertan gera zaitzakeela pentsatzen duzu. (...) Bainuontzian nengoen momentu batean pentsatu nuen, «behingoz amaitu dadila hau dena» hiltzeko nahia-arkin." (OAEM05)

3. Exekuzio simulazioak⁶⁵

Azterketa batzuetan heriotza mehatxuak aipatzen dira. Beste batzuetan exekuzio simulazioak deskribatzen dira (28. taula).

⁶⁵ Istanbulgo Protokoloaren "Heriotza mehatxuak eta exekuzio simulazioak" atalari dagokio.

28. Taula. Exekuzio simulazioa

"Galdeketa, nire atzean zegoen Guardia Zibil bat pistola batekin soinuak egiten hasi zen, buruan tiro egingo zidala esaten zidan, hilko ninduela. Galdetu zidan ia zer pentsatzen nuen, balak ote zituen edo ez... pistola neure bururen parean jarri zuen eta bi aldiz egin zuen tiro. Bi aldietan klik hotsa entzun zen. Galdeketa hura oso gogorra izan zen." (ILMW03)

"Pistolarekin ere tiro egitearen keinua egin zidaten. Gaizki ez banaiz akordatzen ez zitzaidala inporta esan nien, hil nezatela eta horrekin akaba zezatela, presio gehiegi zen." (JGGL03)

"Erraz hil zintzaketen, nire ustez hori zen... hau da, horretaz bizi ziren! Jipoitzen zintzuztenean fanatismo moduko bat nabaritzen zitzaielako... eta hori euren parte da, euren buruarekin koherentea zen jendea nabaritzen zenuen, zigorrik izango ez zuen jendea, egiten zutenaz ziur zeuden, eta nik sinesten nituen... uste osoa nuen bertan hilko gintuztela." (OAEM02)

"«Hemen hilko ditugu edo eramango ditugu? Bakoitzari lau tiro bota eta enfrentamendu bat izan dela esango dugu, eta listo, gainera inor ez da enteratuko... Ondo, tiro egiozu!» (...) erlojua gelditu dela sentitzen duzu, hau da, ez dakit hitzik dagoen. Uste dut ez duzula ezer sentitzen, psikologiaz ez dakit gehiegi, baina SHOCK hori... TAK!, ez dakit." (OAEM5)

“Bai, momentu batean bidaiaren erdian berriro haserretu zen: «Baina, adarra jotzen ari zara? Hemen geldituko gara, tira! Gelditu hemen, hemendik ez dela inor pasatzen!, tira! Gelditu hemen. Hemen, hemen hilko zaitugu eta gero zulo bat egingo dugu... gainera inork ez zaitu faltan botako eta inork ez zaitu topatuko, hemendik ez da inor pasatzen!». Kotxea bat-batean gelditu eta jaitsi ziren. «pala atera!» Atzeko kapota ireki zuten, nire atea ere, gerrikoa nuen jarrita eta ateratzen ahalegindu ziren «Baina zer uste duzu» oihukatzen zuen. Nik ezin nuen ikusi baina imajinatzen nuen, momentu oso gogorra izan zen. «Pala atera! Hemen hilko zaitugu!» Ikara sentitzen nuen, hau da: hilko nautela, hilko nautela! Gerrikoa jarrita ez ninduten atera autotik baina mugitzen ninduten. «Hilko zaitugu!» Antifaza nuen aurpegian eta inpotentzia sentitzen duzu. (...) ikara sentitzen duzu.” (OBIM06)

“Komisarian momentu bat egon zen, ia amaieran, ezin nuen gehiago eta esan nien: «zergatik ez didazue behingoz tiro bat botatzen?» (...) Gogoratzen dut ahoan pistola bat jarri zidatela, ez dakit oroitzapen nahasia den, ez dakit zer den.” [kontaketa gelditu, zurrin jarri eta segundo batzuek alde batera begira gelditzen da]. (MIIA03)

“Kotxean, bide erdian geundela kotxea gelditu eta zera esan zuten... simulazio bat egin zuten «hemen hilko zaitugu», eta euren artean apur bat... «ez, hemen ez, jendeak ikusten zaituela» beldur gehiago sartzeko apur bat. (...) Kotxetik atera ninduten, asfaltoa sentitzen nuen, errepide bat zen. Asfaltoa eta harriak, eta gero beste batek pistola ukiazi eta «hau da ez dakit zer...» esan zidan, eta horrelakoak. Momenturen batean ere ez dakit ez ote zidaten pistolarekin burua ukitu.” (OBIM07)

4. Min fisikoa

1. Kolpeak, jipoiak⁶⁶

Torturari dagokionez bi modu daude kolpeak erabiltzeko. Alde batetik, ohikoena den eredu: oso bortitzak ez diren kolpeak erabiltzen dituena, kasu batzuetan esku-azpiarekin eta etenik gabeko modu erritmikoan ematen dira. Eta bestetik, gutxiagotan errepikatzen den eredu, jipoi bortitzak, basakeria eta muturreko mina erabiltzen dituena.

1.1. Erdi-mailako etengabeko kolpe erritmikoak

Gehienetan esku-azpiarekin edo bultzada bortitzekin gertatzen dira, ez da kolpatzera heltzen, baina pertsona objektu edo paretaren kontra botatzen da. Ez dute markarik uzten. Eta paradoxikoa bada ere, atxilotutako pertsona askorentzako ezin dira tortura gisa kontsideratu.

Etengabean errepikatzen kolpeak dira, hainbat orduz luza daitezke eta pertsona batek baino gehiagok parte-hartu dezake. Kolpe hauen helburua, atxilotua gutxika-gutxika higitzea, nahastea, pentsatzen ez uztea, umiliatzea eta harengan beldurra sorraraztea da.

“Komisarioa zela esan zuen bat etorri zen, antifaza kendu eta «aurpegira begiratuidazu!» esan zidan. Tonu lasaiarekin hitz egiten zidan, psikopata baten modura, egiten ari dena kontuan hartuta tonu lasaiegian ez? Eta zera esan zidan «hauek nire lagunak dira» eta kaputxa jantzita zuten lau gizon handi ekarri zituen, «orain dena kontatuko diguzu». Horiek ziren antifaza nuen bitartean jotzen nindutenak eta noski, abisatu gabe eta ezin duzunez ikusi kolpe bat ematen zizuten pum! Eta apur bat itxaroten zuten, ez ziren etengabeko kolpeak, kolpe bat ematen zizuten, gero minutu erdi, hamar segundo, bost segundo, eta erabat galduta zaude ez dakizulako hurrengo kolpea segituan edo hurrengo segundoan datorren.” (OBIM07)

⁶⁶ Istanbulgo Protokoloaren “Jipoiak, Kolpeak, Ostikoak” atalari dagokio.

Kolpeak gehienetan aurpegian edo buruaren atzeko aldean izaten ziren, garondoan eta zerbikaletan. Hainbat testigantzen arabera, liburuak, telefono-aurkibideak eta batzuetan bildutako egunkariak ere erabiltzen zituzten.

“Kolpeak gogorrak ziren, zerbait erabiliko bazuten bezala, liburu bat, zerbait gogorra, eta denak buruaren kontra ematen zizkidaten. Burua eta garondoa, zerbikalen inguruan. (...) Indar handiz jotzen ninduten, indar handiz. Hezurren kontuak hiltzen ninduen, zorabioak, bertigoak, eta hori belarrian eta zerbikaletan ematen zizkidaten kolpeengatik zen.” (JGGL03)

Gizonen kasuetan genitaletan ematen zizkiten kolpeak deskribatzen dituzte.

Mota honetako jipoiak emateko galdetzailak batzuetan taldean jartzen dira, zirkulu edo korridore bat osatuz, eta kolpeak edo ostikoak aldi berean alde guztietatik ematen dizkiote atxilotuari.

“Zirkulu batean nengoen eta lau edo bost pertsona ari ziren niri joka.” (JZLV06)

“Heldu bezain pronto korroa egin zidaten, jende oso gaztea zen, beti erabiltzen dituzten bota horietakoak zituzten eta horrela hasi ziren. Batez ere bota horiekin ostikoak ematen zizkidaten, ostikoak alde batetik, bestetik, gutxienez dozena erdi zeuden bertan, ostikoak eta ostikoak, alde guztietatik, eta hori sartu bezain laster, inolako hitzik esan gabe, gero ziegan uzten zaituzte, eta berriro etortzen dira [kontakten duen bitartean hasperen egin eta hitzak eteten zaizkio]. (...) Ostikoak ematen zizkidaten, pila bat, eta batez ere gerritik behera. Oso jende gaztea zen, ziurrenik akademiatik atera eta bertara eraman zituzten, edo hori pentsatu nuen nik. Sabelaldean ubeldurak utzi zizkidaten, txosten forentsean zerbait agertzen zen.” (OAEM05).

Taldekako ekintza hauek kaosaren efektua areagotzen dute:

“«Olagarroa zer den badakizu?» Hori esan eta aurrekoak zein atzekoek gogor ematen zidaten buruan, esku guztiak PA PA PA PA!!! eta aldi berean denek oihukatzen zidaten «putakumea, kabroia, hilko zaitugu», oso azkarra da, ez dakizu zenbat irauten duen baina amaitzen denean zorabiatuta gelditzen zara... begiak, burua... eta hori behin baino gehiagotan egin zidaten.” (OBAM01)

Kolpeak ez dira ekintza isolatuak, deskribatzen dutenaren arabera galdekete irauten duten egun gehienetan zehar mantentzen dira. Eta galderak egiten diren aldi berean lehen aipatutako beste faktore batzuekin tartekatzen dira: oihuak, zarata, ariketa-fisiko nekagarriak, poltsa, etab.

“Ez dut gauzen ordena gogoratzen (...) uste dut, lehendabizi flexioak eta buruko kolpeak izan zirela, eta hortik aurrera gainontzekoak etorri ziren, elektrodoak, ostikoak, zaplaztekoak, oihuak... ez zen ere ez poltsa hartu eta jarraian elektrodoak erabiltzea, tarte batzuetan oihukatu eta iraindu besterik ez zuten egiten, edo korroan jarri eta bultza egiten zizuten, eta horren ostean poltsa jartzen zizuten. (...) Gogoratzen dut hasieran hankak eta besoak zabalik egon behar nuela, eta lurra ukitu edo erortzen banintzen kolpe lehor eta gogorrak ematen zizkidaten buruan, (...) eta ura botatzen zidaten denbora guztian” (MIIA03)

Kasu batzuetan, kolpeek galdeketa bitartean atxilotuaren erantzunak gidatzeko asmoa izaten dute:

“Ordurako leher eginda nengoen eta gutxi gorabehera eurek nahi zutena erantzuten hasi nintzen. Gustatzen ez zitzaien erantzun bakoitzeko zaplazteko bat ematen zidaten zintzurrean. Besterik gabe, kolpe lehorra ematen zizuten, eta antifazarekin zeundenez ez zenuen ezer ikusten, eta beraz arnasarik gabe gelditzen zinen gustatzen ez zitzaien erantzun bakoitzeko.” (AMRGL09)

Kolpeak (...) egoera hori nahikoa da atxilotuarengan etsipena pizteko, eta horrela, egiten ari diotena geldiarazteko edozein ekintza aitortzeko jarrera har dezake.

“Ez banuen erantzuten, edo gezurra esaten ari nintzela uste bazuten buruan edo belarrian jotzen zidaten, edo bestela iletik tira egiten zidaten. Eskua zabalik erabiltzen zuten zaplaztekoak emateko.” (OBAM02)

“Orduan jo ninduen sartu zen beste birekin. Aulki batean eserita nengo eta hori nire aurrean jarri zen, eta atzean beste bat, oso gaztea eta beldur izugarria ematen zidana. Atzean jarri zen eta orduan galdera bakoitzeko kolpe bat ematen zidan. Aurrean zegoenak aurpegian jotzen zidan eta atzekoak buruan. (...) Uneoro ze galdera bat kolpe bat, galdera bat kolpe

bat. Galderak aurrean zegoenak egiten zizkidan, eta horrek aurpegian jotzen zidan, eta atzekoak buruan.” (IGEJ01)

Kaos egoera hau, errepikatzen diren etengabeko kolpe erritmikoak eta “zuzenak ez diren” erantzunekin lotzen direnak, beldurra, geroz eta indarkeria gehiago erabiliko duten ziurtasuna... kasu gehienetan egoera hori nahikoa da atxilotuarengan etsipena pizteko, eta horrela, egiten ari diotena geldiarazteko edozein ekintza aitortzeko jarrera har dezake:

“Eskua zabalik buruan zartako bat eman zidaten... shockean gelditu nintzen. Mutu gelditu nintzen, ezin nuen hitz egin, orduan arropa kentzen hasi ziren eta nik kontra egin nuen... bi edo hiruren artean heltzen ninduten arropa kentzeko, eta azkenean aurpegian zaplaztekoak eta buruan kolpeak ematen hasi zizkidaten, momentu batetik aurrera utzi egin nien. Hasieran ni neu biluzteko esan zidaten, nik ezetz erantzun nien, eta orduan eurak hasi ziren ni biluzten. Momentu batean ezin izan nuen gehiago utsi. Erabat biluztu ninduten.” (OBIM08)

29. Taula. Kolpe erritmikoak

• Nahasmendua, nekea

“Ez dakit zenbat denbora iraun zuen, baina lehenengo galdeketa batez ere oihiak izan ziren, eta buruan bi zaplazteko eman zizkidaten burua altxatzen saiatzeagatik.” (MTRGL10)

“Tortura nagusia psikologikoa zen, ez zidaten marka bat izan nezan, horrela, pum! ukabilkadarik eman.” (NLMAP01)

“Tortura pentsamendua jotzen zaituztenean edo bortxatzen saiatu direnean da ezta? Hori ez nion kontatu; mehatxatzen egon zirela ez nion kontatu; ez nindutela jo, eta eskuburdinena kontatu nion.” (OBIM06)

“Zerbait ukatzen zenuen bakoitzean atzekoek jotzen zintuzten, ez zenekien atzekoek noiz joko zintuzten.

“Buruan jotzen zizuten, zutik zeudenean belaunetan jotzen zizuten eta aurreraka erdi erori egiten zinen. (...) batez ere buruan ematen zizkidaten kolpeak, edo belaunetan, eta gero mehatxuak zeuden, neskalagunarekin, anaiarekin, gurasoekin, lagunekin, kalean zutaz zer pentsatuko ote zuten. (...) Galdeketa horretan negar aski egin nuen. Eta ez zen zerbait bereziarekin mehatxatu nindutelako... ez dakit zer egun izango zen, baina beharbada horrenbeste gauza elkartuta... ez dakit. [Egun horretan] ez ninduten jo baina egia esan, negar asko egin nuen.” (JZLV04)

- Telefono-aurkibideen, liburuen edo bildutako egunkarien erabilera

"Galdeketetan emakume bat zegoen ia beti. Bi ahots ezberdin identifikatu nituen. Galdera berdinak, oihu berdinak eta buruan kolpeak. Telefono-aurkibide lodi batekin izan zitezkeen kolpeak. Buruan kolpeak ematen zizkidaten bitartean gezurtia nintzela esaten zuten. Kolpe-segidak ematen zizkidaten, agian hamar edo hamabost aldiz jotzen ninduten, eta amaieran beti gogorragoa zen kolpe bat «opari» ematen zidaten. Kolpatzen ninduten bakoitzean, lepoak "krak" egiten zuen. Hasieran kolpeak zuzenean ematen zizkidaten, eta geroago buruan manta bat jartzen zidaten beti. Behin zeldatik bertatik atera ninduten mantarekin, eta beste batzuetan eurek ekartzen zuten." (ILMW03)

"Momentu horretan galderak egiten hasi ziren; eta nik, isilik jarraitzen nuen, blokeoagatik; eta orduan bilduta zegoen zerbaitekin buruan kolpeak ematen hasi ziren, aldizkari bat edo horrelako zerbait izango zen. (...) Kolpeak ematen zizkidaten; eta galderak berriro ere. (...) Ez daukat kolperik, ezta markarik ere, eta beraz ezin dut ezer frogatu; ez forentsearekin ez inorekin." (NLMAP03)

"Gobernu Zibilera heldu ginenean gela batean sartu ninduten, bertan eseri eta buruan trapu bat jarri zidaten. Gero, gogorra zen zerbaitekin buruan jo ninduten, ezin izan nuen bereizi zer erabiltzen zuten; ostera telefono-aurkibide bat erabiltzen zutela jakin dut autoak hori esaten duelako. Genitaletan ere jo ninduten." (OAEM01)

"Gero [eztarria garbitzen du], gero... [eztarria garbitzen du berriz ere] daukadan oroitzapena oso oso gogorra da, telefono-aurkibide baten ertzarekin izan zen [kolpeen keinua egiten du eskumako eskuarekin]. Galderekin batera, hitz egiteaz gain jotzen ninduten, uneoro erortzen ari den ur tanta baten modura, jipoitzen zintuzten, jipotzen zintuzten, jasanezina zen buruko mina jartzen zitzaizun arte. Ez ziren kolpe gogor-gogorak; ezta txikiak ere, baina eritimoarekin PUM, PUM, PUM! Denbora guztian." (OAEM05)

- Kolpeak genitaletan

"Kolpe zuzen gutxi eman zizkidaten, markak uzteko zuten beldurragatik imajinatzen dut, konturatzen zara, sekulako jipoiak jasotzen dituzula eta ez duzula inolako markarik. (...) zutik zaude, uneoro biluzik eta kolpeak, bat buruan bat barrabiletan, bat buruan bat barrabiletan... nabaritzen duzu kolpeak markarik uzten ez duten lekuetan ematen dizkizutela, nire kasuan barrabilak puztuta amaitu nuen eta sekulako buruko minarekin, baina buruan ez da ezer ikusten. (...) Galderak, kolpeak... etengabekoa da. Ordena, nolabait esateko, Ertzaintzak egin zuenaren antzekoa da." (MIIA01)

"Pilo bat jotzen zintuzten... eta... bazegoen gauza bat... [toteldu egiten du]. Barrabiletatik heltzen zintuzten, tipo indartsu bat zen ia beti, eta estutu egiten zizkizun eta horrek sortzen duen mina... hagineta min zorrotzaren antzekoa da, minaren sentsazioaz ari naiz, min handia da... gogor estutzen zizkizuten... oso mingarria da, min handia ematen du, eta denbora guztian errepikatzen zuten." (OAEM02)

- Kolpeen efektuak atxilotuarengan

"Gero gela handi batera eraman ninduten (...) eta bertan kolpeak hasi ziren. Pareta baten kontra jarri eta bat-batean atzetik kolpeak ematen zizkidaten buruan. Zaplaztekoak ematen zizkidaten aurpegian, bizkarrean, lurrera botatzen ninduten... hor bai... ni... jipoitzen hilko naute. (...) Hasieran pentsatzen nuen indartsuagoa izango nintzela, apur bat gehiago aguantatuko nuela alegia. Baina euren eskuetan egonda, ematen zizkidaten zaplaztekoekin, lurrera erori eta berriro altxatzen ninduten... horri kontra ezin niola egin ikusi nuen, euren eskuetan bainengoen. Ezin nien aurre egin, ez fisikoki ez psikologikoki. (...) Uste dut ordu bat izan zela, ez gehiago. Baina ordu horretan ez ziren gelditu. Eta ni, lur jota utzi ninduten." (MNEG03)

1.2. Jipoiak

Aipatutako etengabeko kolpeen eredia momentu batzuetan kolpe indartsu eta oso gogorrekin txandakatzen da.

"Hori baino gehiago zen, etengabeko mehatxuak eta egin ahal dizutenari diotzun beldurra, azkenean eskua zabalik aurpegian eta buruan kolpatzen ninduten. (...) Nire eskumako aldean zegoena oihukatzen hasi zen eta momentu batean oso gogorki kolpatu ninduen. Eta hitz egiten hasteko agindu zidan, atxilotu zituzten besteek jadanik hitz egin zutela, beste atxilotuek sinatu behar nuela esan zutela eta momentu horretan indar handiz jo ninduen." (IGEJ01)

Beste eredu bat, arraroagoa, jipoiak dira, bere esanahirik literalenean. Kasu batzuetan jipoiak hasierako unetik gertatzen ziren, baina gehienetan igoera nabarmena zegoen lehenengo egunetatik azken egunetara. Lehenengo egunetan kolpe ez horren gogorak izaten ziren, etengabea, eta gero, estrategia horrek funtzionatzen ez bazuen, indarkeria handiko kolpeetara igarotzen ziren, beti ere zonalde berdinetan (burua, garondoa, zerbikalak, bizkarra, belaunak).

"Ukabilkada bat eman zidan masailezurra eta belarriaren artean, lepoa eta aurpegia belztuta izan nituen, eskumako begia, erretina-askatzea zela uste nuen, isuri ikaragarria nuen." (OBAM01)

30. Taula. Jipoiak

"Galdeketak pasatu ahala, kolpeek buruan izaten jarraitzen zuten, baina jada ez ziren bakarrik eskuarekin. Aparrarekin edo zinta isolatzaileekin forratutako makil batzuekin jotzen ninduten. Hau ezagutzen ote nuen, bestea ezagutzen ote nuen, bonba-auto bat jarri ote nuen, norbaiti tiro egin ote nion. (...) Ezetz esaten nien bakoitzean hiru edo lau aldiz jotzen ninduten makila horiekin. (...) Galdeketak ere mota berdinekoak ziren [buru-estalkiak zituzten hainbat pertsona] baina beste intentsitate gradu batekin: gogorragoa, kolpe gehiago, tentsio handiagoa, mehatxu gehiago. (...) Jipoiak geroz eta handiagoak ziren. Behin bi polizia aukien gainera igo eta bertatik jo ninduten. Kolpeak izugarriak ziren. Erabat jipoitzen ari nindutela zen nekien gauza bakarra. (...) Fisikoki ezin nuen gehiago. (...) Bien bitartean polizia zintzoak hitz egitera animatzen ninduen. Eta dena etengabeko buruan kolpeak jasotzen nituen bitartean." (ILMW02)

"Tentsioa hain zen handia minik ez zuela nabaritzen, kolpeak aurpegian ziren, erori artean lurretik bera bakarrik altxatzen zen, tarte baten ostean ezin zen gehiago altxatu. Ematen ari zizkidaten jipoi ikaragarriekin, bost axola zitzaidan zer sinatu. (...) Saihetsetan eta aurpegian nuen minik handiena, eta hanketan... eta gero, gorputz osoan nuen mina. Hankei ez nien garrantzia handiegirik eman; nekearekin lotu nuen min hura. Baina... buruan eman zizkidaten ukabilkadek min nahikoa ematen zidaten. Eta saihetsak... gogoratzen dut espetxean nengoela ezinezkoa egiten zitzaidala ohetik altxatzea, ez dakit nola jiratzen nintzen... abdominaletan esfortzua egitea buff! Ezinezkoa zen, eta eztula egitea... ez, ez. Gogoratzen dut kristoren malabarismoak egin behar nituela altxatu ahal izateko." (OBS04)

1.3. Zapalketa: "Manta", "Koltxoia"⁶⁷

Hainbat testigantzaren arabera, atxilotu batzuk manta edo koltxoneta batean bil-

tzen zituzten immobilizatu ahal izateko. Kasu batzuetan hainbat pertsonak ostikoak ematen dizkiote atxilotuari, eta mantari esker ez da markarik edo zauririk geratzen azalean. Beste deskribapen batzuen arabera, pertsona immobilizatuta dagoenean galdetzaileak gainean eseri edota gainera botatzen dira

⁶⁷ Istanbulgo Protokoloaren "Zapalketarik sortutako Lesioak" atalari dagokio.

pertsona zapaltzeko. Ia kasu guztietan tortura mota hau aurrez aipatutako asfixia lehor (poltsa) edo hezearekin (ura aurpegian) kon-

binatzen da, atxilotuaren arnasketa arazoak eta itotze-sentsazioa areagotzeko.

31. Taula. Zapalketa. Manta edo koltxoien erabilera

"Beste momentu gogor batzuk ere bazeunden, aurpegia poltsarekin estali eta manta batean biltzen zintuzten ez mugitzeko, orduan hor zeunden, poltsa buruan, manta, 2 edo 3 pertsona handi zure inguruan, haietako bat zure sudurra eta ahoa estaltzen... larritasun sentsazioa zen... horiek izan ziren momentu gogorak." (OBIM07)

"Galdeketatarako zeldatik atera eta jipoitzen hasten ziren, koadernoekin, liburuekin, poltsarena egiten hasten ziren, mantarena egiten hasten ziren, manta batean biltzen zintuzten, alfonbra horren antzekoa eta gainera guardia zibilak igotzen ziren poltsa zure buruan jartzeko, horrela konortea galdu arte, eta erantzun behar zenituen kontuei buruzko galdera ugarirekin birrintzen zintuzten eta... tira, denboraren nozioa galtzen zoaz, kontraesanetan erortzen zara eta eurek nahi duten kontu guztietan errua egotzen dizute." (IGEJ02)

"Gogoratzen dut koltxoi batean bildu nindutela ere, lurlean etzan ninduten, nire gainean etzan ziren eta poltsa jarri zidaten berriro ere. Koltxoiarekin azkenean ezin zara mugitu, koltxoiaren barnetik ura sartzen zaizu eta izerditan zaude, orduan hotzikarak edo karranpak dituzu... beroa, hotza eta arnasarik ezin hartzearen arteko nahasketa da... praktikan hori da bost egunetan zehar egiten dizutena." (MIIA01)

"Lurlean botatzeko agindu zidaten, nik ezetz baina azkenean lurrera ninduen. Eskuak pratetako poltsikoetan sarrarazi zizkidaten eta goma-aparreko koltxoi batean bildu ninduten, (...) ez zuen ez oihalik ez ezer. Lurlean etzan, bildu eta han bertan hasi ziren ostikoak ematen. (...) Hurrengo galdeketa berriro agindu zidaten etzateko, eskuak poltsikoetan sartu eta koltxoian bildu ninduten berriz ere, nik ostikoak emango zizkidatela pentsatu nuen. Eta bat-batean Guardia Zibil bat belauniko jarri zen, atzean, nire burua hartu eta bere belaunen artean jarri zidan. Beste Guardia Zibil bat nire gainean jarri zen, zutik eta hankak zabalik, ni buruz gora nengoen eta zera esan zidaten:

– «Orain arte erantzun nahi izan ez duzun guztia erantzungo duzu orain»

Atzean belauniko zegoena gainetik poltsa bat jartzen hasi zitzaidan. Goian eserita nuenak ez zidan mugitzen uzten, bera eserita zegoen eta bi hankak zabalik zituen, eta ni koltxoiarekin bilduta nengoenez ezin nuen mugitu. Mugitzen ahalegintzen nintzen baina ez zegoen modurik, ez. (...) Poltsa ez zidaten buruan jartzen, aurpegian baizik. (...) Gogor eusten zuten gehiago ezin nuen arte, eta hortzekin poltsa puskatzen nuen eta egiten nuen zulotxotik mihia sartzen nuen. Zulo apur bat handiagoa egin nezakeen horrela (...) ezin nuen ia arnasarik hartu, oso gogorra zen... eta nire indar guztiekin mugitzen ahalegintzen nintzen." (MNEG02)

"Ez nekien ez non nengoen, ez zer egiten nuen bertan, gela batera eraman ninduten eta galderak egiten hasi ziren berriz. Ez dakit beste konturen batean inplikatu nahi ninduten edo zer. Manta batean bildu ninduten, barruko arroparekin soilik eta mahai batera lotu ninduten. Burua mahaitik kanpo utzi zidaten eta (...) poltsa jartzen zidaten. (...) Manta izan zen erabat suntsitu ninduena, ez nuen espero. Gainera txiza egin nuen konortea galdu nuenean; umiliaziorako beste arrazoi bat. (...) Egia esan, [momentu hartatik aurrera] ni erabat hautsita geratu nintzen." (NLMAP03)

Etengabeko kolpeen eredu momentu batzuetan kolpe indartsu eta oso gogorrekin txandakatzen da.

Immobilizazio efektu hau oso gogorra izan daiteke eta pertsona batzuek hala gogoratzten dute:

“Nire onetik ateratzen ninduten eta noski, gauzak datozkizu burura (...) inoiz ez nauzu ikusiko mantarekin honaino [erabat estalita], beti uzten dut tarte bat hemen [ahoa] arnasa hartu ahal izateko. Ahoa estaltzen didan guztiak erabat larritzen nau, beti egon behar da zuloren bat arnasa hartu ahal izateko.” (MIIA03)

2. Elektrizitatearen erabilera⁶⁸

Testigantzen arabera, elektrodoen erabilerearen antzezpen osoa maiz erabili zen atxilotuarengan izu-ikara eragiteko asmoarekin. Antzezpen honen baitan, deskarga txiki batzuk ematera heldu ziren kasu batzuetan.

Atxilotuari “kableekin” mehatxuak egiten zitzaizkion hasieratik, batzuetan kableak bistan zeuden edo haien soinua entzuten zen, eta beste batzuetan oihuak entzuten ziren, ondoko gela batean elektrodoak erabiltzen ari tuko balira bezala. Antzezpen honen baitan, atxilotua biluztu (batzuetan kaputxa jartzen zioten) eta busti egiten zuten elektrizitate deskargak egingo zizkiotela behin eta berriro errepikatuz. “Elektrodoak” besoetan, hankeetan, titiburuetan edo bizkarrean jartzen ziren, hala ere, gehienetan eskuetan jartzen ziren. Batzuetan elektrizitatearen soinua emulatu eta karranpa txiki bat ematen zitzaion atxilotuari. Kasu gehienetan ez zen elektrizitatea erabiltzera helden, tortura mota hau simulaziora mugatzen zen, pertsonari beldurra sartu eta oihu egin zezan alegia.

⁶⁸ Istanbulgo Protokoloaren “Elektrizitatearen Erabilera” atalari dagokio.

32. Taula. Elektrizitatearen erabilera erreal edo irudizkoa

“Hori zen momentu guztian, «hurrengo mailara pasako gara, poltsa, pikana, kableak...» eta aurpegian zein buruan jotzen zidaten etengabe. Nire ondoan zegoenak, aurpegian jotzen zidanak, uneoro errepikatzen zuen gauza bera «hitz egin behar duzu, bestela hurrengo mailara pasako gara eta kableak jarriko dizkizugu». (IGEJ01)

“Eta elektrodoekin mehatxatzen hasi ziren. «Elektrodoak jarriko dizkizugu». Orduan belarrira elektrizitatearen soinua egiten zuen zerbait gerturatzen zidaten, txinparta modukoak egiten zituen. Nik hor sekulako beldurra nion gerturatzen zidaten aparatuari. Ez dakit seguru txinparta horiek elektrodoak ziren edo ez, baina ez nuen batere sentsazio onik. Azkenean jarri zizkidaten. Belarrietan, zakilean eta barrabiletan. Ez ziren oso indartsuak, baina beldur handia ematen zidaten, sortzen zidaten ikara oso handia zen.” (ILMW02)

“Hasieran behin eta berriro mehatxatzen ninduten elektrodoekin, geroago ez jada aplikatu zizkidatelako, belarritik gertu jartzen zizkidaten soinua entzun nezan. (...) Biluzik nengoen eta ur pilo bat bota zidaten, eskuetan jarri zizkidaten, oraindik puntu gorri batzuk ditut eskuan ipini zizkidaten lekuetan. Eskuak atzean izatera behartu ninduten eta elektrodoak jarri zizkidaten ipurdian eta belarrietan. Oihu egiten nuen, negar... eta bitartean besteek intentsitatea igotzeko animatzen zuten, edo “gudaria” ez nintzela esaten zidaten, edo isiltzeko oihukatzen zidaten.” (ILMW03)

“Tira, gero beharbada... entzuten duzu jendeari elektrodoak jarri dizkiotela, niri simulazioa egin zidaten, baina ez zizkidaten jarri. (...) Bainabiluztu ninduten, urabotazidaten goitik behera, eta eskuetan kable batzuk ipini zizkidaten. Gogoratzen dut batek zera esaten zuela: «eman, eman elektrizitateari!». Eta ez zion ematen. Eta berriro: «eman, eman» [Elektrizitatearen zain egote horrek psikologikoki hautsi zuela dio, tentsio hori jasan daitekeena baino handiagoa izan zela]. Entzuten nuen guztia, eta zure gorputza bertan ikustea, biluzik, kableekin... bertan bai mina edo asfixia nabaritzen nituen, zorabiatzen nintzen, baina elektrodoen kontuarekin benetan nire bizitzarengatik beldurra sentitu nuela.” (JZLV03)

“Gero beste batean mahai bat zuten, eta mahaiaren kontra honela etzan ninduten: «atera kableak, damutuko da hau, jaitsizkiozu prakak barrabiletan jarriko dizkiogula» ez zizkidaten prakak jaitsi ez ezer.” (JZLV04)

“Elektrodoekin mehatxu egiten dizute, barrabiletan pintza batzuk jarri zizkidaten eta bitartean soinu bat entzuten nuen, tailerrean ditudan baterien kargagailuek egiten dutenaren antzekoa. Sorgailu elektriko txiki baten soinuaren antzekoa. Pintzak jarri zizkidaten, baina ezin dituzu ongi ikusi antifaza daukazulako eta ikusten duzunagatik ematen du moldatutako pintzak direla. Ilerako pintza baten antzekoa baino metalezkoa eta bi kablerekin. (...) Orduan pintza ipini eta kablea eskura ematen dizute, kablearekin zu zeu ukitu zaitez behartzen zaituzte. Ea kapaza zaren. Jipoitzen ari dira eta «ikutu zaitez» kapaza ote zaren ikusteko. Ukitu nintzen eta benetan korronterik ez zuela nabaritu nuen. Mehatxuka baino ez ziren ari. Gailuak ez zuen korronterik. Eta hori, gainontzekoa etengabekoa da.” (MIIA01)

“Momentu batean izerditan blai nengoen, eta izerdi horrekin arropa janzte egin zidaten, eta arropa bustiarekin elektrodoak jarri zizkidaten, besapeetan, hanketan, ipurdian, titietan... eta ahoan ere jarri izan zidaten. Deskargak ematen zizkidaten, hasieran leunak eta gero gogorragoak. Eta nik, arduragabe horrek, besteen oihuak entzuten nituenez, ez nuen nahi eurek nireak entzutea.” (MIIA03)

“Nik elektrodoena zela uste nuen... BZZZZZ entzun eta argia joan zen (...) eta gogorragoa izaten hasi zen (...) elektrodoak omen zituzten gelara eraman ninduten, titiburuak kableetara entxufatu zizkidaten eta bateriak entzuten ziren, ez zidaten deskargarik egin baina keinua bai, bateriak agortu zirela esaten zuten, kableak “hor” jarri zizkidaten (...) horretarako pilo bat busti ninduten. (...) Kableak “hor” jarri zizkidatenean beldur handia ematen zidan elektrodoen kontuak... dardarka ari nintzen... atzetik zutik mantentzen ninduten, eta nik ezin nuen.” (MNEG01)

“Lurrean egonda, elektrodoen soinuarekin mehatxu egin zidaten, edo behintzat hori zela esan zidaten. Benetan jartzea baino jarriko ote zizkidaten beldurra da gogoratzen dudana. Eta zeldan entzuten nuen zarataren beldur nintzen ere, beste bati jarriko balizkiote bezala entzuten bainuen. Besoan ipini zizkidaten eta ziztada moduko bat nabaritu nuen.” (NLMAP02)

“20 minutuen ostean elektrodoak jarriko zizkidatela esan zidaten, bainuontzian, eta poltsa jarriko zidatela. Ez dakit elektrodoak ziren edo ez, baina txinparta moduko batzuk entzun nituen. Ni eseri eta jaiki ari nintzen, prakarik gabe, eta izterrean zein barrabiletan txinparta moduko batzuk nabaritu nituen, baina ez dakit zer zen, beharbada kable bat zen.” (NLMAP04)

“Edozein modutan ematen zizkizuten zaplaztekoak oroitzen ditut... bainuontzia... baita elektrodoen kontua ere... aurrean jartzen zizkizuten, zakilean, telefono moduko bat jartzen zizuten, bueltak eman eta korronteak ematen zizkizun gauza beltz bat. Konstantea zen.” (OAEM02)

“Orduan balde bat bota zidaten gainetik, ur pilo bat zen, hotza, izoztua. Biluzik nengoen eta esateko nuen guztia esateko agindu zidaten. «Hau izotzez betea dago eta hemen sartuko zaitugu» esaten zuten. Eta izotzak zeuden, bai, mugitzen zutenean entzuten

nituen. Gero belarrian dentista baten antzeko soinua jartzen zidaten, TZZZZZZZZZZZZZZZZZZ!
«putakumea, hau elektrodo bat da, alutik sartuko dizugu eta ikusiko duzu zelako gustua ematen dizun. Hor bai korrituko zarela» esaten zuten.” (OBAM01)

“Elektrodoak, gertatzen dena da ni ez nintzela gehiegi enteratzen, deskarga sentitzen nuen, bustitzen zintuzten eta gainera izerdia zenuen. (...) Hatzetan jarri zizkidaten, eta bizkarrean ere. (...) Kalanbre gogor baten antzekoa zen.” (OBAM05)

“Momentu batean elektrodoen mehatxua egin ziguten, 3. edo 4. egunean. Busti, hotza pasarazi, gainera hainbat egun daramazu ahulduta, bertan zarata egiten zuen zerbait zegoen «hauek elektrodoak dira» esaten zuten, eta sinesgarria zen oso. Egia izan zitekeen baina niri ez zidaten elektrodorik jarrik.” (OBIM07)

“Galdetzen zidaten bitartean kolpeekin hasten ziren... gero elektrodoekin mehatxu egin zidaten. Gelara ekarri eta gorputz-adarretan jarri zizkidaten, baina ez zituzten konektatu, horri bai sekulako beldurra nion, larri sentitzen nintzen... entzun nituen oihuen ostean... nik ezetz erregutzen nien, dena kontatuko niela.” (OBS02)

“Lehendabiziko galdeketa beste atxilotu baten ondora eraman zuten. Bertan zegoena bere kidea zela esan zioten. Bere ondoan zegoen atxilotuari elektrodoekin deskargak ematen hasi zirela dio. Eta bera oihukatzen hasi zen, ni etsita nengoen, oihuak ez ziren gelditzen. Elektrizitate soinu hori, eta bere oihuak, ez zion oihukatzeari uzten, beldurgarria zen, lazgarria.” (OBS01)

5. Osotasun psikologikoa. Niaren zentzua

1. Identitate sexual eta generoaren aurkako erasoak: ukitzeak, abusua eta bortxaketa⁶⁹

1.1. Genitalei dagokien sexu indarkeria, sexu umiliazioak

Testigantzetan behin eta berriro gertatzen diren sexu motako umiliazioak aipatzen dira: irainak, isekak, mehatxuak. Batzuetan hitzekin baino ez da gertatzen, baina beste batzuetan ukitzeak deskribatzen dira edo pertsonari postura irrigarri eta umiliagarriak eginarazten zaizkio.

Sexu umiliazio hauek gizonengan zein emakumeengan gertatzen dira, baina azken hauetan ezaugarri eta berezitasun propioak ageri dira. Biluztasuna, ukitzeak, igurzteak,

irain sexistak edo emakumeen ezaugarri fisikoengatik isekak behin eta berriro ageri dira. Testigantzen arabera, emakumeen gorputzak bereziki degradaziorako eta euren identitatea zalantzan jartzeko erabiltzen dira.

“Kolpeak baino gehiago, neurritz gaineko oihuak ziren, ez ziren galderak, oihuak ziren, eta gero gorputza ukitzen zidaten, niretzako horregatik izan zen gogorra, nahi ez duzun norbaitek ukitzen badizu, eta batez ere horren leku txikian, ezin zara mugitu eta tipo bana duzu alde bakoitzean, ezin nintzen mugitu. Psikologiarekin jolasten zuten, hasieratik bularretakoa kendu zidaten, suposatzen dut guraizeekin moztuko zutela, eta kendu egin zidaten. Egin zuten lehendabiziko gauza izan zen, eta jada babesik gabe sentitzen zara. Eskua sartzen hasi ziren, bularrak ukitu zizkidaten, eta gero, bagina... hor pasatu nuen okerren. Ezin nituen eskuak mugitu, ezin nuen babestu.” (OBAM02)

“Arropa kentzen ahalegindu ziren baina ez zidaten ezer kendu, baina gauzak esaten zituzten. «Ikusi ze lodi dagoen,

⁶⁹ Istanbulgo Protokoloaren hiru atali dagokio: Derrigoritutako Biluztasuna, Genitalei dagokien Sexu Indarkeria eta Sexu Umiliazioa, eta Bortxaketa (genitalak edo objektuak erabiliz sarketa partziala edo osoa).

ikusi zelako ipurdia, ikusi...» Ez ninduten bortxatu baina mehatxua bai, «bortxatuko zaitugu» esaten zidaten.” (JGGL03)

Gizonak ere biluztera derrigortzen dituzte eta sexu bortxaketarekin mehatxatzen dituzte (ka-

suren batean gauzatu egiten dute mehatxu hau), baina testigantzetan jaso diren emakumeen kontrako sexu izaera duen umiliazioek generoaren esanahi sozio-kultural eta politikoaren berariazko erabilera erakusten dute.

33. Taula. Sexu umiliazioak

“Euretako batek sexu-obsesioak dituenaren rola hartzen zuen edo horrelako zerbait (rolaz gain egiazko zerbait egon behar zen, oso zaila zelako bost egunetan zehar rol hori horren ondo betetzea), asteburua izorratu niola esan zuen (osteguna zen), baina ez zela ezer gertatzen nirekin aprobetxatuko zuelako, hori dena bortxatuko ninduela esateko. Mehatxu hori hasieratik egin zuten eta ukitzen hasi zen. Nik ezin nuen ezer egin, eskuburdinak nituen bizkarrean, bi poliziaren artean nengoen eta burua makurtuta nuen. Sorbalda erdian jartzen ahalegintzen nintzen berak ez ukitzeko, baina babesik gabe nengoen. Ukitzen zidanean nazka handia sentitzen nuen. Ni bezalako neskei kuleroak jartzea gustatzen zitzaiola esan zidan, ukitu ninduen eta honelakoak esan zituen: «gogo handiak ditut zure ipurdia ukitzeko; orain dela hiru hilabete ez dudala ipurdirik ikusten oso itsusia naizelako; txiza egitean odola aterako zaizu; ipurditik emango dizugu; ziur nago besteren bat apuntatuko dela; seme-alabak izatea pentsatu baduzu, ahaztu, gure eskuetatik pasa ostean ezin izango duzulako!». Ukitze nindutenean zera esaten zidaten: «ui, oso argal zaude! Tira, ikusiko dugu, ze niri ez zaizkit neska argalak gustatzen... baina ematen du ipurdi ona duzula!». Lehenengo hiru egunetan zehar behin eta berriro errepikatu zen kontu hau. Tratu iraingarria zen, eta umiliagarria, batez ere emakumea naizelako. Eta nahiz eta oso argi neukan atxilotetean horrelakoak gertatzen direla eta ni beldurtzeko baino ez zutela egiten, oso mingarria egiten zitzaidan.” (ILMW03)

“Beti nengoen biluzik gerritik gora. (...) Galdeketa guztietan gerritik gora biluzik nengoen. (...) itxura onekoa zarela, edo itxura onekoa ez zarela, berotzen ari naizela... hementxe bertan larrua joko dizudala, baina hilekoarekin zaude eta oso zikin zaude, eta... ez, oso lodia zara eta beraz, ezin dizu edonork larrua jo. Bularrak etengabe ukitzen zizkidaten... zikina, txerria esaten zidaten.” (OBAM05)

“La Salven⁵ biluztu ninduten... denboraren nozioa galtzen hasten zara, orduak eta orduak eduki gintuzten biluzik han... ez dakit nola deskribatu, ukuilu txiki moduko batzuk ziren, han sartu eta arroparentzako banku bat dute, ba han eduki gintuzten, biluzik, paretara begira. Guardiiek “Aita Gurea” errezatza behartu gintuzten [belauniko eta paretara begira], bitartean kolpeak ematen zizkiguten, eta atera... gogoratzen dut ni biluzik atera nindutela. (...) La Salven horretaz gain kideei egiten zizkieten umiliazioak entzun eta ikusi egiten zenituen. (...) Handik zegoen edonork gu ikustera igotzen zen, ziurrenik operatiboan ez zegoen jendea ere igo zela.” (IGEJ02)

“Posturak egiten nituen bitartean atzetik genitalak ukitzen hasi ziren, eskuarekin, eta erratza ekarriko zutela mehatxu egin zidaten.” (OBS01)

“Hasieran eurek esan zidaten biluzteko, nik ezetz esan nien, eta orduan eurak hasi ziren ni biluzten. Momentu batetik aurrera kontra egiteari utzi nion. Guztiz biluztu ninduten... nagusia sartu zenean «nolatan daukazue horrela? Kuleroak jantzi ditzala» esan zuen (...) Kuleroak jantzen utzi zidaten, eta aurrerago, barneko kamiseta bat ere. Baina biluzik

⁷⁰ Bilboko Guardia Zibilaren kuartela.

nengoela, gorputz osoa ukitu zidaten, bagina ukitu zidaten ere. (...) bagina eskuarekin igurzten zidaten, presioa eginez, pare bat alditan presioa egin zuten, ez denbora guztian zehar... bularra, bularretan eta titiburuetan atximur egiten zidaten uneoro... ipurdia, nire gorputzarekin sartzen ziren... mina eman zidan, banekien egingo zutela baina... min ematen zidan. (...) Eta hori egiten zuten bitartean nire gorputzarekin sartzen ziren, kuleroak kendu aurretik hau esaten zidaten: «depilatuta egongo zara ezta? Niri bestela nazka ematen dit, ipurdi biguna duzu, izterrak sendoak, espero dut hilekoa ez etortzea, ze bestela ezingo dut hau egin.» Jantzita egon arren euren zakilak nire ipurdiaren kontra jartzen zituzten, jotzen ninduten, beldurra nuen uneoro... eta are gehiago nitaz abusu egin zezaketelako; bai, gaizki, umiliatuta... Ukitzen nindutenean bibragailuaren gaia erabiltzen zuten, gustatzen ote zitzaidan, lizun hutsa ote nintzen, nola egiten nuen txortan, nola gustatzen zitzaidan nirekin txortan egitea, eta bitartean ukitzen ninduten.” (OBIM08)

“Bidaia kaotikoa izan zen; batek berarekin zerbait edukiko ote nuen galdetzen zidan... “zuloa” non zegoen esaten banien 50 kilo emango zizkidatela... tira... lur jota utzi ninduten, batez ere maila sexualean. Tipo bat zegoen, eta ez dakit nirekin berotzen ote zen edo zer, baina denbora guztian zegoen berdin.” (OBS02)

“Goiko arropa... kendu zidaten. Behekoa ez zidaten kendu baina bortxatuko nindutela esan zidaten. Ipurditik makil batekin ez dakit zer egingo zutela ere esan zuten. (...) Sartu bezain laster adarra jotzen hasi ziren, gogoratzen dut batek makil bat hartu eta hau esan zuela «horrelakoa izango da nirea, jajaja!» eta gazteak dira!” (OBS04)

“Ez daukat gogoan ukitu nindutenik, baina bortxatu egingo nindutela esan zuten, hori bai.” (MIIA03)

Beste atxilotu batzuekin egin zituzten benetako bortxaketetatik abiatuz mehatxuak egin zizkieten hainbat gizon zein emakume atxiloturi, hala ere, bortxaketarekin batera zihoazen konnotazioen arabera ezberdintzen ziren:

“Psikologikoki oso gogorra izan zen, gu atxilotu aurretik Bilbon beste bi gazte atxilotu zituzten, eta bietako bat, A., bortxatu egin zutela atera zen. «A. ezagutzen duzu? Irakurri duzu zer dioen?» galdetu zidaten. «Ba hori guztia egia da eta ikusiko duzu Madrilan!» esan zidaten. Momentu guzti-etan horrelako aipamenak egiten zituzten, eta hori gutxi zela esan zidaten, ni mutila nintzela, gehiago aguantatuko nuela eta nirekin ongi pasatuko zutela.” (JZLV03)

“«A.ri egin geniona egingo dizugu!» esaten zidaten. Hasieratik markatzen zaituzten mehatxuekin egon ziren, oroitzapen hori horregatik dudala uste dut. Badakizu zer datorren. (...) Beldur handia sentitzen nuen, beldurra eta umiliazioa, objektu sexual gisa sentitzea... umiliagarria da.” (OBAM02)

Testigantzetan amatasunaren eta emakumeen ugalketa funtzioaren kontrako erasoak ere jasotzen dira.

“Seme-alabak izatea pentsatu baduzu, ahaztu, gure eskuetatik pasa ostean ezin izango duzulako. Gai hori etengabe agertu zen lehendabiziko hiru egunetan zehar.” (ILMW03)

Emakumeen testigantzen artean, irain umiliagarriak agertzen dira eta bertan, emakumea zigortu beharreko “puta” edo “emagaldu” gisa identifikatzen da.

“Emagaldua, putakumea... zein itsusia zaren eta gainera ez dakit norekin egin duzu txortan. Ikusiko duzu, orain larrua guk joko dizugu.” (OAEM04)

“Leku batera eramán ninduten eta bertan zera esan zidaten: «biluztu zait ez emagaldua, kendu arropa puta guztia!» Hasieran ez nuela nahi esan nuen, gero eurak hasi ziren, indarrez, eta azkenean nik neuk kendu nuen. Hasieran kuleroak

Azterketetan senideen aurkako bortxaketa mehatxuak ere ageri dira (bikotea, ama, alabak...).

ez nituen kendu, baina kentzeko agindu zidaten. Eta kendu nituen. Algarak entzun nituen. «Listo, ikusi zaitugu, ikusi dugu ikusi beharrekoa, jantzi zaituz!» (OBAM02)

“Oihu egiten zuten, oihu besterik ez zuten egiten eta dena zen «ustela, emagaldua,

putakumea» eta bestelakoak... alua... gogoratu nahi ez dituzun gauzak... eta sekula aurretik entzun ez nituenak.” (OBAM01)

“Emagaldua, esan Segikoa zarela, aluhandi bat baino ez zara!” (OAEM04)

Azterketetan senideen aurkako bortxaketa mehatxuak ere ageri dira (bikotea, ama, alabak...). Gizonen kasuetan, euren bikote, ama edo gertuko emakumeen kontrako bortxaketa mehatxuak botere maskulinoaren erakustaldia dira. Bertan emakumeen gorputzak gerrako harrapakina izatera pasa eta beste gizonen ahuleziak agerian uzteko erabiltzen dira.

34. Taula. Senideak bortxatzeko mehatxuak

“Nire alabarekin tematzen ziren, puta bat zela, herriko emagaldua, «bortxatuko dugu... beharbada bortxatu ez, ze hori da gustatzen zaiona...» esaten zuten (...) errepikatu ezin ditudan hitzak erabiltzen zituzten nire alabaz hitz egiteko, nik bakean uzteko esaten nien, nire alaba ez aipatzeko, eta orduan gehiago jotzen ninduten. Bakar batek jotzen ninduen, eta min izugarria egin zidan kolpe bat eman zidan.

- «Mikel, honen alaba madarikatua bilatzera joan beharko gara, bortxatuko dugu; tira, bortxatu ez: zakilak baino ez dizkiogu sartuko». Nazka ematen ziela uste nuen, baina ziur nago hauek nire alaba bortxa zezaketela... eta orduan, horretan pentsatzen zorutzen nintzen! (...) «Aizu! E.-ren bila joan eta bidetik egizue denek txortan berarekin amaren aurrean! Denok joko diogu larrua, hortxe bertan lurrean, txakur bat bezala, hankak ireki eta txortan egin!» [zioten].” (OBAM01)

“Espetxera eramango nindutela esaten zidaten, nire gurasoek ezingo zutela denda ireki, nire neskalaguna harrapatu eta bortxatuko zutela... horrek min handia ematen zidan, baina euren aurrean plantak egiten saiatzen nintzen.” (JZLV05)

“Nire ama ere atxilotu zutela esaten zidaten, eta bortxatuko zutela «ikusiko duzu, nire zakil osoa sartuko diot ahotik».(MNEG02)

Lehenago ikusi den moduan, gizonen kasuan genitalak dira kolpeak eta erasoak zuzentzeko lehentasunezko lekuak:

“Genitaletan ere kolpeak ematen zizkidaten. Zer gertatzen ote zen galdetzen nien eta eurek nik gertatzen zena banekiela erantzuten zidaten.” (JZLV03)

“Guardia Zibilaren kolpeengatik (...) mina nuen barrabilean (...) kolpeengatik mina

izan nuen barrabil batean urte eta erdiz.” (IGEJ02)

“Elektrodoekin mehatxu egiten dizute, eta barrabiletan pintza batzuk jarri zizkidaten.” (MIIA01)

“Barrabiletatik heltzen zintuzten, tipo indartsu bat zen ia beti, eta estutu egiten zizkizun (...) oso mingarria da, min handia ematen du, eta denbora guztian errepi-katzen zuten.” (OAEM02)

Atxiloketa bitartean hilekoa izan zuten emakumeen testigantzek aipamen berezia merezi dute. Estres eta antsietate egoeraren, kolpeen, eta bat-batean antisorgailuak ez hartzearen eraginez emakume askoren hilekoa

aurreratu egiten zen. Aitzakia horrekin aztertutako emakumeek irainak eta isekak jasan behar izaten zituzten, eta azterketetan horren adibideak agertu dira behin eta berriz.

35. Taula. Hilekoarekin zerikusia duten isekak eta irainak

"Hilekoa etorri zitzaidan, konpresa bat eskatzera ausartu nintzen, eta eman zidaten. Praxak odolez beterik nituen, nazka ematen zidan, eta bigarren konpresa eskatu nuenean gehiagorik ez zegoela esan zidaten."(ILMW01)

"Galdeketetara manta batekin igotzen uzten zidaten, gero hilekoa etorri zitzaidan, nahiz eta ez zitzaidan tokatzen, eta arropa guztiak odolez bete nituen. Ez ziguten garbitzen uzten, ezta komunera joaten edo arropaz aldatzen ere, ezer ez. Konpresak eman zizkidaten, baina egia esan ez zitzaizkidan gehiegi balio. Puta batzuk ginela esan zidaten, hara heldu eta danoi hilekoa heltzen zitzaigula. (...) [arrazoi horrengatik] komunera maiztasun handiagoarekin joan behar izaten nuen. Gizonekin joan behar izaten nuen uneoro eta bertan, komuneko atea irekita utzi behar izaten nuen." (JGGL03)

"Gogoan dut hilekoa nuela atxilotu nindutenean (...) arropak kenduarazi zizkidan, konpresa esku batekin heldu eta gelak bueltak emateko agindu zidan. Bitartean iraindu eta iletik tira egiten zidan, (...) oso umiliagarria iruditu zitzaidan." (MNEG01)

"Hilekoarekin nengoen, eta eurak denbora guztian: «ze nazka!» Baina tira... kuleroetan utzi ninduten, detaile handi bat euren partetik. (...) Umiliagarria da, uneoro umiliatzen zaituzte: lodi zaudela... gogoan dut batek zera esan zuela «zelako nazka! Ileak ditu titiburuetan!» eta horrelakoak; biluztu eta titiburuak ukitzea ere askotan gertatzen zen. Beldurra nuen kontu hori ez ote zen beste maila batera pasako eta ez ote ninduten benetan bortxatuko. Alde batetik «ze nazka! Nik honekin ez dut txortan egin nahi, hilekoarekin dago!» esaten zuten. Eta nik: «Tira... azkenean honek salbatuko nau!». Baina, bestalde, ez dakizu... «Heldua naiz 32 urte ditut», pentsatzen duzu. Zure bizitzan biluztasuna naturaltasunez eramaten ahalegintzen zara, baina inpotentzia handia da. Ezin duzu ezer egin; euren eskuetan zaude eta ezin duzu «Kendu itzazu eskuak nire gainetik, zerri halakoa!» edo horrelakorik esan, zuretzako okerragoa izango dela dakizulako; eta beraz aguantatu egiten duzu." (NLMAP03)

"Galdeketen intentsitatea igo egiten da. (...) Barruan, poltsa buruan, biluzik, besoak eta hankak irekirik, kukubilko, eseri eta jaiki momentu oro (...) eta gainera hilekoarekin, erori egiten zitzaidan eurek barre egiten zuten." (MNEG01)

1.2. Bortxaketa simulazioak

Azterketetan behin eta berriro agertzen den ohiko praktika da bortxaketaren simulazioa, uzki aldekoa zein baginakoa. Pertsona jarra ahul batean kokatzen dute (paretaren edo altzari baten kontra, eta lau hankatan egotera behartu). Bortxaketen mehatxuak egiteko, erratza baten makila, bildutako egunkari bat, lubrifikatzaileak edo kondoiak erabiltzen

ziren. Jardun hau ez zuen edonork egiten, ematen du galdeketak egiteko ardura zuen taldeko kide batzuek baino ez zutela "baime-na" horrelako mehatxuak egiteko, eta beste galdetzaile batzuk aldendu egiten ziren. Pertsona horiek "zoro" edo "psikopata" gisa deskribatu izan dira, eta agintarien baimena zuten bitartean beste kide batzuek, itxuraz behintzat, praktika hauek ukatzen zituzten.

36. Taula. Bortxaketa simulazioak.

"Negar egiten ari nintzen eta ezin nuen gelditu, oihuka ere ari nintzen... bortxaketaren aurkezpena egiten ari ziren. Bost egun eman zituzten bortxatuko nindutela mehatxatzen, eta orduan nik benetan egingo zutela sinetsi nuen (mehatxatzeko erabili zituzten gauza asko egin zizkidaten jadanik) (...) Gela hartan egin zidaten azken galdeketa biluzteko agindu zidaten, lehenengo gorputza atzeraka eta eskuak paretaren kontra jarri zizkidaten, eta ostean euretako batek esan zuen hobe zela nire eskuak aulki baten atzeko aldean lotzea. Denbora asko zeramaten bortxatuko nindutela esanez, eta momentua heldu zela esan zidaten. Hasiko zela esan zidan batek, niri ipurditik emateko hamabi pertsoez osaturiko zerrenda bat zegoela. Jarrera horretan denbora asko-asko eduki ninduten, eta ezin nion negar egiteari utzi erabat ikaratuta nengoen, dar-dar egiten nuen, erortzen nintzen, gorputza ezin nuen kontrolatu. Bihotzeko taupadak erabat asaldatuta nabaritzen nituen. Zer jakin nahi ote zuten oihukatzen nien, edozer esango niela. Bitartean, haietako batek egunkari bat edo horrelako zerbait pasatzen zidan gorputzetik. Gorputz osotik pasatzen zidan: hanka artetik, ipurditik, etab. Momentu batean eskuekin bularrak ukitu zizkidan, latexezko eskularruak zituen. Jarrera horretan denbora asko mantendu ostean onak izango zirela esan zidaten eta gogoekin konformatuko zirela. Horren ostean eserita mantendu ninduten, eta min izugarria hasi zitzaidan bularren artean. Ezin nuen arnasarik hartu." (ILMW03)

"«Gurekin komisarian egon den norbait ezagutzen duzu?» «bai», eta nor izan zen galdetzen dizute, ea zer egin zioten. Uste dut Navalcarneron espetxean egon nintzenean Guardia Zibilaren eskuetatik pasa zen mutil bat ezagutu nuela, eta berari ipurditik makila bat sartu ziotela. (...) Mutil hori ezagutzen nuela esan nien, eta berari zer egin ote zioten galdetu zidaten, makilarena esan nien. Azkenean kukubilko jarri ninduten, makilarekin... simulazioa egin zuten, ez zidaten makila sartu baina... belauniko jartzen zaituzte, baselina... eta ea zer nahiago nuen... uste dut makilarena eta beste zerbait kontatu niela eta bi horien artean aukeratzea egin zidaten, niretzako zein nahiago nuen." (MIIA01)

"Hauek, gainera, denbora guztian egoten ziren ni ukitzen, txerri hutsak ziren eta bortxaketa mehatxuak hasi ziren. Gogoan dut lehen aldia, egiten zuten lehen simulazioan ni zutik nengoen, biluzik eta bortxaketaren mehatxuen gaiarekin hasi ziren: «Jo, orain gerritik gora ikusten zaitugula, ez zaude horren gaizki» esaten zuten (...) Batzuek galdetzen zidaten bitartean, beste bat gertu-gertu zegoen, eta ukitzen ninduen, denbora guztian zegoen ni ukitzen, titiburuetan atximur egiten zidan, eta nigana gerturatzen zen zakila tentetzen ari zitzaiola-eta itxurak egiten (...) «tira, gu bagoaz, honekin bai ezetz» esaten zuten bi zeuden. (...) Hiru geratu ziren. Batek barre egiten zuen, bestea ni ukitzen zegoen eta hirugarrenak kondoi bila joango zela esan zuen. Gelatik irten eta beranduago berriro sartu zen. Pilo bat ukitzen ninduen, eta kondoi bila joan zena itzuli zenean, lurrera manta bat bota eta bertara bultzatu ninduten, lau hankatan jarri ninduten: «Aurretik libratuko zara hilekoarekin zaudelako, ipurditik emango dizugu». Biluzik nengoen, bertan, poltsa buruan, ipurdian baselina edo horrelako zerbait jarri zidaten eta bizkarrean erratz batekin kolpeak ematen hasi ziren. Bi aldeak pasa zizkidatelako dakit erratza zela, makila eta beste aldea pasatzen zidaten. Lau hankatan nengoela txortan egiten dudanean bezala mugitzeko esan zidaten, «puta, emagalduta...» ez dakit zer... makila ipurdira gerturatu zidaten... baselinarekin irrist egiten zuen, hor tarte batez egon ziren eta hor jada kontrola galdu nuen, oihuka hasi nintzen, oso gogorra! (...) Jokoz kanpo sentitzen nintzen (...) ezin nuen, horrekin ezin nuen. (...) Hori hainbat aldiz errepikatu zuten eta gero eskuarekin ere egi zuten, eskularru batekin, atzamarrekin." (MNEG01)

"Sexua gai gisa behin eta berriro erabiltzen zuten. «Nola egiten duzu txortan? Zeinekin egiten duzu? Felazioak ongi egiten dituzu? Egiozu bat horri, txortan egin gabe sei

hilabete daramatza eta. Hemen gauden hamabiek joko dizugu larrua», eta horrela denbora guztian. Horrenbeste egitera ez zirela helduko sinetsi nahi nuen baina sekula ez da jakiten. Ez didate ezer sartzen, baina hemen nago, erdi biluzik eta gauzak jartzen dizkirate hanken artean, makilak ditut hankartearen parean, eta «makurtu zaitez!», makilak genitalak ukitu ditzan. Tipo hauek obsesioa dute sexuarekin, eta ez dute soilik emakumeak umiliatzeko egiten, nirekin atxilotuta zegoen mutiletak bati sarketa egin zioten. Makil bati kondoia jarri eta ipurditik sartu zioten. Konstantea da.» (NLMAP03)

1.3. Bortxaketa

Sexu bortxaketa, gizon edo emakume baten kontra indarrez egiten den sexu-sarketa osoari deritza, hots, sarketa partziala edo osoa. Aztertutako berrogeita bost kasuen artean hiru pertsonen sexu bortxaketa sufritu

zutela adierazten dute. Hiru kasuetan bortxaketa simulazio batekin hasten da, eta horren ostean objektu batekin sarketa partziala burutzen da. Gizon bat (hatzak erabiliz, uzkitik) eta bi emakume (makil bat eta metalezko objektu bat erabiliz, baginatik) dira.

37. Taula. Bortxaketa

“Egoera oso bortitza izan zen, eraman ninduten, biluztu ninduten, nire erreakzioa nolakoa izango zen ikusteko tranpa bat jarri zidatela esan zidaten. Momentu batean biluztu ninduten eta uzkitik hatzak sartu zizkidaten, makil bat sartuko zidatela esaten zidaten. Begiak itxita nituen, eta negarrez ari nintzen. Amesgaizto bat bezalakoa zen, ez nuen ezer kontrolatzen. Galduta nengoela zen nuen sentsazioa, eta nirekin nahi zuten guztia egin zezaketela.” (JZLV03)

“«Hemen zaude berriro» esan zidan, biluzteko agindu zidan, antifazarekin, ezer ikusi gabe, eta nitaz barre egiten zuten ahots gazte asko entzuten nituen. Dena kenduarazi zidan, eta makil bat, edo hori zela uste dut, zerbait borobila, hanken artetik pasatzen zidan. «Berotzen ari zara!» esaten zuen, «putakume hau hemen korrituko da, gustua emango diogu gainera!». Bitartean «Amatxo maitea nolatan esan dezake hori!» pentsatzen nuen nik. Bagina aldera heldu eta bultza egin zuen arte... izan ere, ostean baginako infekzio handia izan nuen, eta aurretik nire bizitzan ez nuen sekula horrelakorik izan. Lurrera erori arte makurtu nintzen, min handia ematen zidalako. Erabat umiliatuta sentitzen nintzen eta eskuekin estaltzeko ahalegina egiten nuen. Eta orduan ontzi batekin ur hotza bota zidaten.” (OBAM01)

“Ez zen beti berdina, baina asko biluzten ninduten, ukitu ere, eta momentu batean (...) baginatik zerbait sartzen saiatu ziren. Gaur egun oraindik ere ez dakit zer zen, sekula ez dut baginan pistola bat, hodi bat edo horrelako zerbait eduki eta orduan ez dakizu nolakoa den ukitzean. Objektu bat zen, hori bai. (...) Zer zen ez ikusi ez nezan egiten zuten, izkina baten jartzen ninduten eta bertan (...) beharbada kotxean nire itxura hori hartu zutelako, hots, biluztea, ukitzea eta gauza horiek guztiek benetan min ematen zidatelako... sistema hori askotan erabiltzen zuten eta elektrodoak jarriko zituztela simulatzen zuten. (...) Komentario lizunak uneoro egiten zizkidaten. «Putakume hori!»” (OBAM02)

2. Erasoak norberaren ikuspegiari: nortasun politikoa, soziala eta pertsonala

2.1. Duintasuna eta errespetua: umiliazioa, lotsa eta balio pertsonala

Sexualitateari egiten zaizkion erasoak pertsonaren nortasunari eta nortasunaren zentzu eta errespetuari egiten zaizkion erasoak dira. Beste kasu batzuetan, nortasuna erasotzeko, behar fisiologikoen kontrolarekin lotuta dauden umiliazioak egiten dira, hala nola, usaina, izerdia, zikintasuna etab. Iseka hauek pertsonaren izaera "ez gizatiarra" nabarmentzen dute, eta pertsona piztia edo izaki mespretxagarria balitz bezala tratatzen denean, bes-

tearen azpian sentiarazi baino, pertsona gisa duen balioa zalantzan jartzea bilatzen da.

Epe motzera kontrol eza eta babesik gabeko zein menpeko pertsona izateko jarrera sus-tatzen du. Epe luzera, nortasun indartsuak dituzten pertsonen kasuan, lotsaren irudi eta oroimenak marka gisa gera daitezke, eta elkarrekin daramaten inpotentzia, justizia eza eta amorrugatik ezabatzeko zailak dira. "Gertaera hauetatik 10 urte pasa badira ere, irainak oroitzen ditu, «*alua, inozoa, ziki-na, emagaldua, alperra, martiria, harroa...*». Oihukatzen ziotenean harrapatuta sentitzen zela dio, ez zuela erreakzionatzen, ez zuela erantzuten." (OBAM04)

38. Taula. Erasoak nortasunari: umiliazioa eta lotsa

"Komunera joateko aguantatzen nuen, komunera joan nintzen lehenengo egunean nirekin agente bat etorri zen, eta nitaz barre egin zuen, nire fisionomiaz, eta horren ostean txantxak egiten zituzten. Egun hartan beherakoa izan nuen, nahiz eta normalean ez dudan izaten. Umiliagarria izan zen, zabor gisa sentitzen nintzen, pertsona ez nintzela alegia, eta txakur baten gisan tratatzen nindutela, nitaz barre egiten zuten, oihukatzen zidaten, (...) trapu baten gisan sentitzen nintzen, alde batera eramaten ninduten, bestera." (MTRGL10)

"Behin, jaitsi ginenean, neska bati komunera joan nahi nuela esan nion, atea ireki zidan eta bertako usaina are okerragoa zen, «eman 3 pausu aurrera, eta gero, buelta eman» esan zidan. Eskuburdinak kendu zizkidan, antifaza, ordea, ez. «Hor dago kaka-lekua, kaka egin nahi baduzu papera atzo amaitu zen, beraz hatzarekin garbitu beharko duzu». Oraindik ere usain hura datorkit burura honetaz hitz egiten dudanean. (...) Zarakarra nabaritzen nuen, zapore txarra, odola izango da, lehortasuna, mukiak erortzen zitzaizkizun, dena batera, orduan altxatu eta zera esan zidan: «zelako nazka! Nolatan dituzu ezpainak horrela! Zelako nazka, zelako usai txarra duzun gainera!» (...) Horren ahul sentitzen zarenean... horrelakoak esaten dizkizute, gaizki usaintzen duzula (...) Pertsona gisa duintasuna kentzenari zidaten, dena kentzen zidaten. (...) Galdeketetan poltsa jartzen zidaten beti, ez nuen botakarik egin baina goragaleak sentitzen nituen. Momentu batean txiza egin nuen. Jantzita nengoen." (OBAM01)

"Itsusia zinela esaten zuten, zerbait esateagatik, haiek baino gutxiago zinela ikustarazten ahalegintzen ziren, kaka hutsa zinela, umiliatzen, eta dena zalantzan jartzen zizuten, batez ere pertsona gisa zu zeu zinena. (...) Umiliazio horiek oso txarrak ziren, ez dago tentela izatea baino okerragorik. Ez nuela sinatu nahi esan nien, eta haiek horrek bost axola ziela. Sentsazioa nuen eurak zirela boterea zutenak, eta bost axola zer esan edo nola jartzen zaren agintea beti bere esku dagoela. (...) Denbora guztian zen kontu fisikoa, umiliagarria, eta belarrian «zaborra zara, zaborra baino ez zara!». Inkomunikazioa soilik basakeria bat da, bost egunetan zehar kanpoan gertatzen denari buruzko ideiarik izan gabe egotea basakeria da. Gaizki sentitzen zara, ahul, bertako azken kaka baino ez zarela. Beldurraren eta babesik ezaren artean zaude, beldurra batez ere, inurri bat pertsonen artean sentitu behar den moduan. Sekula amaituko ez dela sentitzen duzu, galdu duzula." (OBIM11)

“Gogoratzen dut egun batean erratza pasatzeko agindu zidatela. Gela batera eraman ninduten, bertan erratza eman eta garbitzeko esan zidaten. Ez nuela egingo esan nien, eta euren erantzuna: «Hara, ikusi! Feminista bat tokatu zaigu!». Gero polizia zintzoa etorri zen eta gelditzeko agindu zien, bakean utz nintzatela. Gauzak orain ikusi eta surrealistikak iruditzen zaizkit... hori, zertarako?”(NLMAP3)

2.2. Nortasun soziala eta militantzia

Atxilotutako pertsona batzuen artean militantzia eta ekintza soziala oso garrantzitsuak dira nortasunari dagokionez. Beste batzuen-

tzako, aldiz, militantzia ez da horren garrantzitsua bizitzaren kokapenerako. Testigantza batzuen arabera elementu hauek zalantzan jartzen dira, batez ere pertsona gazte edo dudatsuen kasuan.

39. Taula. Nortasun soziala eta militantzia zalantzan jarri

“«Azkarra zarela uste duzu berriro ere, jendea erabili izan duzu, zakarra zara» (...) eta autoestimua kontuarekin hasten zen apur bat (...) «Zer pentsatuko du jendeak zutaz? Denak erabili izan dituzu, ez dakizu erlazio bat mantentzen mundu guztiaz aprobetxatzen zarelako, denei gezurra esan diezu, pertsona ona zarela uste duzu eta bost axola zaizu jendea hil duen pertsona bati bisita egitea, ez al duzu ezer zalantzan jartzen? Zu... Zer gertatzen zaizu? Ez al zaizu inporta jendearen bizitza? Zu Cadizen zaude... jendearen informazioa eskuratzen... eta zer uste zenuen? Informazio hori jendea hiltzeko ez zutela erabiliko? Informazio hori ez dakit nor, ez dakit zenbat, hiltzeko balio, zu...» Horrela zen denbora guztian, behin eta berriro kontu psikologikoekin. (...) Momentu batetik aurrera ez zenekien zer zen egia, zer gezurra, eguna ote zen, gaua, nire ahizparen gaiarekin hasi zirenean behea jo nuen erabat, kaka zati bat banintz bezala sentitu nintzen, txiki-txikia.” (MIIA02)

“Eta gero jarrera mitikoa, ezer ez zarela sinestarazi, egin duzunak ez duela ezertarako balio, «ergel batzuk zarete! Hori egiteko agindua ematen dizuetenak, gero ez dakit nora joaten dira...» eta... horrela gehien bat.” (OAEM04)

“Maitasunagatik egin nuela esaten zidaten, ergela nintzela... beraren erruagatik nengoela ni bertan... eta okerrena da sinetsi egin nuela! Bai, bai. Gainera, karrera bat ikasten nengoenez beste bizitza modu bat izan nezakeela esaten zidaten, hura zergatik aukeratu ote nuen galdetzen zidaten... denei gezurra esan zigutela... gazte batzuek euren bizitza bizi egiten duten bitartean guk gurea suntsitzen dugula.” (OBS03)

“Oso gaizki sentitzen nintzen, zomorro baten antzera. Hasieran ondo nengoela iruditzen zitzaidan, baina orduan pasa ahala gauzak asko aldatzen dira eta horretaz oroitzen naiz. Denbora luzez kalean ikusi, zapaldu eta “krak” egiten duten zomorro horietako baten antzera sentitu nintzen, berdin, berdin. (...) Tratu txarren atalik gogorrena deskribatu beharko banu, kolpeak baino gehiago, pertsona gisa egiten dizuten mina da. Zomorro baten gisa sentiaraztea alegia. Pertsona normala zara baina bat-batean zure sentimenduak ez dira berdinak. Labezomorroa zarela iruditzen zaizu, ez duzula ezertarako balio, eta zurekin nahi duten guztia egin dezaketela, oso erreza delako eta ez zuk nahi duzulako, baina jada ez duzu borondaterik nahi duzuna edo nahi ez duzuna esateko. Norbaitek gidatzen duen panpina gisa sentitzen zara. (...) Kolpeek min eman eta marka uzten dute, baina hilko zaituztela esanez egiten dizuten jazarpena... beharbada ez zaituzte sekula hilko baina jazarpen hori, akabatuko zaitut, akabatuko zaitut, bortxatuko zaitut, azkenean sinesten duzu eta esaten duzu... «tira, hemen amaitzen da, hona arte heldu naiz baina ez dut minutu bat gehiago ere aguantatzen».” (BIM01)

6. Afiliazio beharra eta Kide izatearen zentzua

1. Bakardadea – Isolamendua⁷¹

Inkomunikazioaren bidez, definizioz, atxilotutako pertsona isolatu egiten da. Atxilotuak ezin du inorekin komunikatu edo hitz egin (konfiantzazko abokatu edo medikoarekin ere ez), atxilotuta mantentzen dutenekin salbu eta beti ere, galdeketa egiteko helburuarekin. Testigantzen arabera, atxilotuek denbora gutxi ematen duten bakarri, batez ere presio edo galdeketa momentuak kontuan hartzen baditugu. Hala ere, bakardade momentu hauek ere larritasuna sortzen diote atxilotuari.

⁷¹ Istanbulgo Protokoloak ez du jasotzen.

40. Taula. Bakardadea – isolamendua

“Horren ostean zeldan pasa behar genituen momentuak oso “heavyak” ziren, ezin zenuen atsedean hartu, argia ez zuten itzaltzen ez ezer, eta denbora guztian esan zizutenarekin bueltaka ibiltzen zinen, nik ez nuen jaten. (...) eta egoera horretan luzeagoa egiten zitzaidan zeldan ematen nuen denbora galdeketakoa baino. (...) Bertan sartu eta buruari eragiten hasten zinen, egin zezaketena, nire familia eta neskalagunagatik sentitzen nuen beldurra... eta ezin nuen atsedetik hartu. (...) Beldurrik handiena zeldara bueltatzea zen, bertan ez bainuen distraziorako aitzakiarik. Gauzei bueltak emateko joera dut baina... hangoa pasada bat zen, ezin nuen atsedetik hartu eta denbora guztia ematen nuen egiten zizkidaten mehatxuetan pentsatzen, batez ere familiarekin zerikusia zutenak. (...) Zeldara joaten nintzenean... esan zidaten guztiari ematen nizkion bueltak, eta zin nuen burutik kendu.” (JZLV05)

“Bestalde, banekien bertan bakarrik nengoela, euren eskuetan, eta nirekin nahi zutena egiteko askatasuna zutela, eta nahiz eta oihukatu, nahiz eta beldurtuta egon... banekin bertan ez zegoela lagunduko zidan inor.” (ILMW01)

“Bertan nahiko bakarrik utzi ninduten [ziegari buruz ari da]. Nire bila ez ziren askotan etorri. Momentu batzuetan nahiago nuen eurak nire bila etorri izan balira... bertan zaude, buruari bueltak ematen... baina bakarrik uzten ninduten. Ni jada harrapatuta ninduten eta suposatzen dut besteren bat harrapatzen ariko zirela eta arrazoi horregatik uzten nindutela bakarrik.” (JZLV02)

“Tipoa zeldatik atera zen, begiak ireki eta esertzera joan nintzen, ez esertzeko esan zidan eta horrela pasatu nituen hurrengo zazpi egunak, sekula eseri gabe. (...) Oso oso nekatuta nengoan, noski, eta denbora luzez argia piztuta utzi zuten. Bertan, zeldan, jendearengan pilo bat pentsatzen nuen.” (MNEG2)

Aztertutakoaren arabera, atxilotuaren senideei atxilotuari berari baino mehatxu gehiago zuzentzen zaizkie.

2. Mehatxuak familia eta inguruneari⁷²

Aztertutakoaren arabera, atxilotuaren senideei atxilotuari berari baino mehatxu gehiago zuzentzen zaizkie. Mehatxu horien artean honako hauek agertzen dira: atxilotu egingo dituztela, galdeketa gelara ekarri eta galderak egingo dizkietela, heriotza mehatxuak edo espetxe-zigorak dituzten karguak inputatuko dizkietela.

⁷² Istanbulgo Protokoloaren "Heriotza mehatxuak, kalteak familiari, tortura berriak, espetxea" atalari dagokio.

41. Taula. Mehatxuak familiari

"Nire gurasoei kalteak eragingo zizkietela, (...) gurasoak ikusten nituen, ni espetxean sartu eta horrelako kolpe baten ostean gainera inolako sostengu ekonomikorik gabe, ezin nuen horrelakorik onartu, batez ere barnean nuen erruduntasun sentimenduagatik. (...) Eurek oso argi zeukaten ze gai ukitu. Espetxean emango nituen urte kopuruarekin ere mehatxu egin zidaten. Ez dizut esango gai horrek ez zidala minik ematen, baina gurasoen kontuak min are handiagoa eragiten zidan. Baita anaiarena ere, egin ahal ziotena... polizia nazionalarekin zegoela esaten zidaten eta horiek ez zirela horren... eta horrek ez zidan uzten... ziurrenik anaia txikia zelako eta babes sentimenduagatik, ziurrenik. Eta neskalagunarena... ba zalantzarik gabe zure neskalaguna delako eta ez duzulako berari ezer gertatzea nahi." (JZLV05)

"Bazekiten nire bikotekideak administrazioarekin lotura handia zuen enpresa batean lan egiten zuela, eta nire jarreraren arabera bere lana zenbat alda zitekeen ba ote nekien esaten zidaten, nire familia atxilotuko zutela... mehatxuak uneoro egiten zituzten. Nire bikotekidea ondoko ziegan zegoela esan zidaten, bere argazki batzuk erakutsi zizkidaten, eta berak jasango zuen tratua nire arabera zela esaten zidaten... eta horretaz gain espetxean 40 emango zituela... bost egun izan ziren eta horrela denbora guztian." (MIIA01)

"Galdeketa ugari izaten dira, ez dakit eguneko zenbat egin zizkidaten, baina pila bat, beharbada zazpi edo horrelako zerbait. (...) Dinamika beti berdina zen, kolpeak eskuarekin, mota guztietako irainak, mehatxuak nire amarekin, batez ere amarekin. (...) Hori bai, mehatxu asko, eta ama ere atxilotu zutela esaten zidaten." (MNEG02)

"Familiarekin mehatxu egin zidaten; nire ama erotuta zegoela eta bere buruaz beste egin zuela esan zidaten, aita gaizki zegoela eta nire neskalaguna puta bat zela." (NLMAP01)

"Familiarekin mehatxuka hasi ziren, nire ama zatika ekarriko zutela leihotik salto egin zuelako; ohean beste batekin nengoela esango ziotela nire neskalagunari; bera ere atxilotuta zegoela; nire anai txikia atxilotuko zutela; eta horren bitartean kolpeak ematen zizkieten mahaiari, nire aulkiaren atzeko aldeari, gauzei ostikoak ematen zizkieten." (NLMAP01)

"Egiten zizkizuten mehatxuak egiazkoak izan zitezkeen. Okerren eraman nuena amaren gaia izan zen, amaren figura... ama gaixoa... eta azkenean egia zen, eurekin pasa zitekeenagatik nuen beldurra erraldoia zen, eta «zugatik pasatzen ari direna», «zugatik pasa beharko dutena». Eta azkenean nigatik da, erruduntasun sentimendua hor dago, egia delako nigatik gaizki pasako dutela." (OBAM05)

"Zure ama ekarriko dutela diote, barre egiten dute, zure anai-arrebak espetxean egon direla aipatzen dizute!... horrekin asko jolastu zuten... nire familiarekin, emakumea izatearekin, harremanak izateko nire moduarekin... nire bizitzari buruz nik adina zekiten, eta noski, bazekiten nondik jo." (OBS02)

"Pertsonak jarraitzearekin imajinatzen dut badakitela nondik jo, badakizu, zeintzuk diren bakoitzaren ahuleziak; momentu hartan nire ama oso gaixorik zegoen eta horrekin tematu ziren «amaren etxera joango gara, eta etxea hankaz gora ipiniko dugu»." (GTV01)

"Galdeketa gogorrak izan ziren, uste dut fisikoki ez nindutela jo, baina galdeketa guztietan mehatxuak agertzen ziren, mehatxuak familiari, anaiari eta garai hartan nuen neskalagunari." (JZLV05)

3. Familia: Emozioen manipulazioa eta erruduntasuna

Batzuetan atxilotuaren nortasuna zalantzan jartzeko familiarekin erlazioa duen informazioa erabiltzen da. Informazio hori bi norabide posibleetan erabiltzen da. Alde batetik, familiari buruzko informazio "sentikorra" ematen zaio atxilotuari. Zentzu horretan, se-

nideen eta gertuko lagunen zein atxilotuaren ikuspuntu afektibotik nortasun erreferenteak diren pertsonen lotura zalantza jartzen da. Edo, bestalde, familiari atxilotuaren kontu pertsonalak kontatzearekin mehatxuak egiten dira (maiz, atxilotuak gai sentikorrekiko senti dezakeen erruduntasuna areagotzeko burutzen da praktika hau).

42. Taula. Erruduntasuna familiari dagokionez

"Mehatxuak uneoro egiten zizkidaten eta noizean behin familiari buruzko galderak egiten zizkidaten, «eta zure ama, nola dago? Ikusi zure amari, zure gurasoei, egiten ari zarena...»" (IGEJ01)

"Egoera ere... nire bikotekidea haurdun zegoen bost hilabetez, eta hasieratik mehatxuak egin zizkidaten: «Zure emazteak abortatu egin du, semea galdu duzu, zure emaztea oso txarto dago»." (IGEJ02)

"Nire lagunak ere atxilotuko zituztela esaten zidaten galdeketetan. Bere bila joan zirela esaten zidaten, eta hori nire erruagatik zela zioten... Andrea jada bertan zegoela esan zidaten, eta emakume baten oihuak entzun nituen. Momentu batez egia zela sinetsi nuen." (ILMW03)

"Egun horietan momentu gogor asko egon ziren, baina niretzako okerrena Xabi entzutea izan zen, haren oihuak, negarra, sufrimendua eta azken galdeketa." (ILMW03)

"Noski, nik hor behea joa nuen. Momentu horretan familiari buruz galdetzen ari ziren eta bat-batean unibertsiteari buruzko zerbait galdetu zidaten. Nik unibertsiteari buruz hitz egitea nahiago nuen, eta beraz, horri ekin nion." (JZLV02)

"Baina tranpak egiten zituzten, ezin zen aurreikusi. (...) Poltsa jarri aurretik, momentu batean «argazki batzuk erakutsiko dizkizugu» esan zidaten. Antifaza kendu zidaten eta argazkiak nire lagunena ziren... Momentu batean arrebaren argazkia erakutsi zidaten. Argazkia ikusi eta berehala negarrez hasi nintzen. Eta akordatzan naiz momentu horretan batek zera esan zuela: «hankek dar-dar egiten diote eta erdi negarrez ari da». Orduan denak etorri eta poltsa jarri zidaten." (JZLV03)

“Nire ama zoratuta zegoela sinestarazi nahi zidaten, bere buruaz beste egin zuela, eta horregatik nire aita txarto zegoela eta ez zuela nitaz ezer jakin nahi. Eta nire errua zela, nire anaia manifestaziora joan zela, bertan pilotakada bat eman ziotela eta atxilotu egingo zutela. Gau hori Arantxa izeneko nire lagun baten etxean pasa nuen, eta nire neskalagunari Arantxarekin oheratu nintzela esatera joango zirela esaten zidaten.” (NLMAP01)

“Egiten zizkizuten mehatxuak egiazkoak izan zitezkeen. Okerren eraman nuena amaren gaia izan zen, amaren figura... ama gaixoa... eta azkenean egia zen, eurekin pasa zitekeenagatik nuen beldurra erraldoia zen, eta «zugatik pasatzen ari direna», «zugatik pasa beharko dutena». Eta azkenean nigatik da, erruduntasun sentimendua hor dago, egia delako nigatik gaizki pasako dutela.” (OBAM05)

“Posturekin lur jota zeundenean etorri eta zure neskalagunaren argazki bat erakusten zizuten, eta bera ere atxilotuta zegoela esaten zizuten. (...) Zalantza hor egoten da beti, barnean ezinezkoa zela pentsatzen nuen, etxetik hartu zuten argazki bat erakusten ari zirela, baina zalantza hor dago beti.” (OBIM11)

7. Ingurunea kontrolatu eta ulertzeko beharra – Indarkeria eta galdeketa teknikak

1. Nork bere burua errudun adierazteko teknika zehaztugabeak: Neke fisiko eta emozionala eta nahastea

Indarkeriaz eginiko galdeketa burutzeko teknikak ezin dira aurreko ataletan zehaztu diren estrategia multzotik banatu. Estrategia orokorrago baten parte dira, eta aurretik deskribatutako teknika fisikoekin batera, neke fisiko eta emozionalak, nahastea eta desorientazioa eta itxaropen eza sortzen dute. Egoera honetan, pertsonak gutxi edo gaizki kontrolatzen du esaten duena eta ez du inolako argitasunik azaltzen arrazoimenerako. Normalean poliziaren edo Guardia Zibilaren ikerketa taldeak horretaz baliatu eta galdeketa teknika bereziak erabiltzen dituzte (ikus aurrerago).

Azterketetan ikusitakoaren arabera, lehendabizi nork bere burua errudun adierazteko teknika zehaztugabeak agertzen dira, orain arte deskribatutako teknika eta mekanismoen konbinazioagatik sortzen direnak (espazio fisikoa, esna-aldi loaldi erritmoa, likidoen eta elikagaien murrizketa, ariketa nekagarriak, neke fisikoa, ikusmenaren, entzumenaren

edo sentazio termikoaren manipulazioa, denboraren zentzuaren manipulazioa, uno-oro erne egon behar izatea, beldurra, tentsioa, emozioen manipulazioa – errua, lotsa, haserrea –). Horrek desorientazioz, ahultasunez eta nahasmenez beteriko egoera sortzen laguntzen du, eta egoera horretan, aitortza, akusazioa edo informazioaren konfirmazioa lortzeko teknika espezifikoak erabiltzen dira.

43. Taula. Buruko nekea eta neke fisikoa

"Polizia-etxean bost egun egon nintzen, eta gertatu zenaren zati handi bat edo ia dena bestea baino ezabatuago daukat. Ez nuke jakingo denboran kokatzen, nire egoerak zenbat iraun zuen, egunak edo orduak pasatzen ote ziren, gauza bat bestea baino lehenago edo ostean gertatu ote zen. Dena nahastuta daukat egia esan. Oroitzapenak ezabatu egin zaizkit. Beharbada denborarekin gehiago ezabatu dira, baina egia esan atxilotu eta hilabete batera nik ere sinesten ez nituen gauzak oroitzen nituen. Urrutitik begiratzearen modukoa zen, dena ametsa izan balitz bezala. Baina hilabete pasa ostean gogoratzen ez nituen beste horrenbeste gauza zeuden. Nik uste ia dena nerbioengatik ezabatu zitzaidala." (NLMAP02)

"Zeldan ematen nuen denborak eta galdeketenak ez zuen ordena zehatzik. Galdeketa batek bost ordu iraun zezakeen, edo bestela ordu eta erdi, haserretu eta zera esaten zizuten «joan hemendik, pentsatu», edo bestela ziegara eramaten zintuzten, eta hamar minuturen ostean berriro zure bila etortzen ziren... etengabekoa zen. Txanda ezberdinak zeuden, batzuk lotara joaten ziren eta beste batzuk etortzen ziren, baina bost axola zitzaien zuk lo egin ote zenuen edo ez." (MIIA01)

"Arrazoiketa mota hori jotzen ninduten bitartean egiten nuen, uneoro arrazionalizatzen saiatzen nintzen, kontrolatzen, ez dakit ondo egiten nuen edo ez, baina helburua hori zen, burua ez galtzea alegia." (MNEG04)

"Baso moduko batean nengoen... ibaia, zuhaitzak... dena zen oso polita... animaliak eta guzti... eta nik: «ez da posible, ez da posible, Madrilen nagoela! Hostia, esna zaitetz! Baina esna nago!» eta horrela. Baina... zein polita zen. Azkenean zera esan nion neure buruari: tira, zer edo zer egin behar dut eta burutik ile luze bat kendu nuen, eta pentsatu nuen: ia zenbat korapilo egin ditzakedan ile honekin! Eta bertan aritzen nintzen... korapiloak egiten, bat, bi, hiru... hiru eta guzti! (...) Gero, lauzak zeuden ere, oso, oso, oso txikiak. Eta kontatzen hasi nintzen: ia zenbat kontatzen ditudan. Eta... egia esan asko nekatzen nintzen, baina kontatu behar nuen... etortzen baziren [polizia]... burua argi izateko." (OAEM1)

"Bizi nahi ez nituen momentuak ziren... handik atera nahi nuen, nire bizitzako bost egunik luzeenak izan dira. Ematen zuen ez zela inoiz amaituko. Momentu batzuk erotzeko modukoak ziren, momentu batetik aurrera horren nekatuta zaude ez duzula inolako erreflexurik, hitz egiten zidaten eta zonbi bat ematen nuen, ezin nuen koordinatu." (OBIM08)

"Deklaratuko nuena pentsatzen egon nintzen... esan behar nuena etengabe errepikatzen nuen... eta... pilula jan eta lo gelditu nintzen. Gainera afaria lurrean uzten nuen eta geroago bila etortzen ziren. Eta nire zeldako atea gaizki zegoen eta zarata handia egiten zuen. Eta jaiki nintzenean afaria ez zegoen lurrean eta ez nintzen konturatu etorri zirenik, eta ez dakit berriro atera ote ninduten, noski, ez dut gogoratzen! Baina... galdeketa batean nengoela amestu nuen, eta noski, beharbada ez zen ametsa izan eta benetan eraman ninduten baina momentu hori ez dut gogoratzen." (OBS03)

"Momentu bat heltzen zen jadanik ez nuela pentsatzen, ez nintzen ezerekin jabetzen, estutasun momentuak ziren, eromena, zorakeria." (OBIM11)

Legeak indarkeriaz eginiko galdeketa baimentzen du, galdeketa mota honen helburu nagusia akusatuaren aitortza eskuratzea da horretarako teknika ezberdinak erabiltzen dira, akusatuak aitortu dezan eta bere burua errudun adierazteko.

2. Teknika Espezifikoak:

Indarkeriaz eginiko galdeketa

Gaur egun, herrialde batzuetan (Erresuma Batuan esate baterako) *galdeketa kognitibo* izenez ezaguna den praktika ahalbidetzeko marko juridikoa⁷³ existitzen da. Honen bidez, atxilotuarekin elkarrizketa bat ezarri eta akusaziorik formulatu gabe proben inguruan ikertzen da. Gertakariei buruz atxilotuaren bertsioa eskuratu, kontraesanak aurkitu eta horiek proba edo bestelako testigantzekin parez-pare jartzea dira galdeketa mota honen helburu nagusia, eta horretarako atxilotuaren eta galdetzailearen arteko konfiantza eta kolaborazioa sustatu egiten dira⁷⁴. Polizietikaren ikuspuntutik egokiak ez diren galdeketa saihestu ahal izateko, atxilotuak bere burua erabat edo modu partzialean errudun adierazten badu, horrek pisu judizial erlatiboa du beste ebidentzia frogagarrien aurrean.

AEB⁷⁵, Errusia edo Espainia bezalako beste herrialde batzuetan, ordea, legeak *indar-*

keriaz eginiko galdeketa baimentzen du. Espainiako polizia akademietan irakasten den galdeketa mota honen helburu nagusia akusatuaren aitortza eskuratzea da horretarako teknika ezberdinak erabiltzen dira. Akusatuak aitortu dezan egoera ezberdinak sortzeko trebezia izan behar du galdetzai-leak, akusatuak bere burua errudun adierazteko alegia.

Galdeketa mota honek hiru oinarri ditu: (a) akusatuak bere burua errudun adieraztea erruduntasun proba gorentzat hartzen da (b) galdeketaaren hasieratik akusazio zuzen eta larriak formulatzen zaizkio atxilotuari, horretarako, nahiz eta existitu ez, proba ukaezinak daudela esaten zaio pertsonari, horrela, larritasun gutxiagoko gertakizunetan bere burua errudun adieraz dezan (d) atxilotuaren erreakzioa ikusteko informazio engainagarria aurkeztu (beste pertsona batek salatu duela esate baterako). Indarkeriaz eginiko galdeketa batean galdetzailearen abilezia goragariak dira hurrengo hauek: hitzezko erasoak, lehiak, umiliazioak, egiatzko edo gezurrezko akusazioak (honen bidez, akusatuak bere burua babesteko hitz egin beharko du), iruzurra edo proba faltsuen erabilera (lekukoaren ustezko testigantzak edo asmatutako dokumentuak), maximizazioa (akusatuak gertakizunetan duen ardura edota gertaera horiek duten larritasun legala puztea, trukean akusatuak erruduntasun "txikiagoa" onar dezan), minimizazioa (jarrera enpatiko baten bidez gertaerak justifikatu edo "ulertu", puntu batera arte logikoak direla adieraztea, eta zorte txarraren edo beste batzuen engainuaren ondorio direla adieraztea, eta horrek absoluzio-epaia edo epai txikiago bat suposatuko lukeela argi utzi akusatuari), abantailen promes faltsuak egin (atxiloteta bitartean baldintza hobekak agindu, edo epaile zein fiskalekin harremanak dituztela eta kondena txikiagoen edo epaiketa bitarteko abantailen truke tratuak egin daitezkeela esan), etab.

Beraz, eztabaida handia dago poliziaren galdeketa mugeri eta etikoki onargarria den galdeketa-presioaren mugeri dagokienez. Noizean behin prentsan indarkeriaz egini-

⁷³ *Police and Criminal Evidence Act*, 1984an Parlamentuan onartu zen 1984an eta ostean handitu eta zuzendu izan da. Egun, honen erabilera terrorismoagatik susmagarriak diren pertsonetara mugatzen duten hainbat zuzenketa existitzen dira.

⁷⁴ Gudjonsson, G. H. (2003). *The psychology of interrogations and confessions. A handbook*. Wiley.

⁷⁵ Poliziarentzako galdeketa tekniken formakuntzaren oinarria Inbau F.E., Reid J.E. (1986). *Criminal interrogations and Confessions*. Baltimore. MD. Williams and Wilkins testu klasikoa da. Lan hau itzuli, berrargitaratu eta parafraseatu izan da espainiako polizia akademietan. Esate baterako: J.E. Hess (2010). *Interviewing interrogation for law enforcement*. Lexisnexis.

ko galdeketa luzeen osteko aitortza faltsuei buruzko notiziak agertzen dira, eta psikologiako ikerketa akademikoen arabera, indarkeriaz eginiko galdeketen ondorioz, atxilotu errugabeen artean % 20 eta 30 arteko inkulpazio faltsuak sor daitezke⁷⁶.

Guk eginiko azterketetan indarkeriaz eginiko galdeketen elementu ugari agertzen dira. Teknika hauek onargarri edo ez-onargarri gisa kontsidera daitezke, baina edozein modutan, Europan ez dago honi dagokion politika komunik eta Espainiako kasuan legalak dira.

a) Nahasmendua galdeketa bitartean

Testigantzen erdiak baino gehiagok galdeztzaile bat edo gehiagok behin eta berriro egiten zizkieten oihu burrunbatsuak jasotzen dituzte, edo (aurretik ikusi den moduan) galderen artean tartekatzen ziren kolpeen erabilera. Pertsonari bere baitan babesten ez uzteko adibideak dira bi praktika hauek. Beste modu batean esanda, pertsona nahasmendu egoera batean mantentzen da, galdeketa zehar ematen dituen erantzunak kontrolatzea eragozten dion nahasmendu egoeran alegia.

“Gelaren izkinaren kontra postura berean jarri ninduten, besoak oraindik gorago eta belarri bakoitzean oihuka ari ziren bi pertsona nituen «Non dago zuloa? Armak...» Horrela denbora guztian, ez dakit zenbat denbora. (...) Ez dakit zenbat iraun zuen, baina lehen galdeketa gehienbat oihuak izan ziren, eta burua altxatzen saiatzeagatik bi zaplazteko eman zizkidaten buruan bertan. Belarrian zuzenean oihukatzen zidaten, eta nik ez nekiera ezer esaten nien, ez dakit ezer, errepi-katzen nuen.” (MTRGL10)

“Galdeketa beraren baitan momentu asko zeuden, tentsio handiko momentuak zeuden eta horietan pilo bat oihukatzen zidaten, belarrian oihukatzen zidaten, belarrira oihukatzen hitz egiten zidaten, eta beste momentu batzuetan, beharbada zugandik urrunago zeudelako, beste tonu batean hitz egiten zuten, tonu etenago batean. Horrek ere zu aldatzen zaitu, batzuetan larriago zaude, besteetan lasiago.” (MNEG02)

b) Isiltasunarekin amaitu eta ezezkorik ez onartu

Manipulazio modu honetan galdetzaileak galdera-segida bat egiten dio atxilotuari, inolako erantzunik ematen utzi gabe, batez ere atxilotua “ez” esaten ahalegintzen denean. Atxilotuak “ezetz” esan eta inolako galderarik entzun gabe erantzun mota horretan babesa bilatzea galaraztea da garrantzitsuena. Atxilotuak “bai” hitzarekin erantzun ditzakeen galderak bilatzea sustatzen da. Aitortza izaera duten erantzun positiboak sustatzea alegia.

Azterketa askotan ikusten den moduan, galdeketa inguruneari buruzko garrantzirik gabeko galderekin hasten da, eta pertsona erantzuten hasten denean, bere burua errudun adierazteko galderak tartekatzen dira, jarraitzeko inolako irtenbiderik gabe. Beste kasu batzuetan, atxilotutako pertsonak kolaboratzeko jarrerarik ez duenean edota gezurretan ari dela uste denean, ikertzen ari denari buruzko galderak erantzun jakina (*Nola deitzen da zure ama?*) edo ezaguna (*Non egiten duzu lan?*) duten galderekin tartekatzen dira.

Honek hainbat funtzio betetzen ditu galdeketa zehar: pertsonak erantzuna pentsatu behar izatea eta denbora guztian ezezko erantzunak ematearekin nahikoa ez izatea, entzuten ari ez bada, eta informazio faltsua ematen ari bada, joera hori detektatzea.

⁷⁶ Kassin, S. M., Drizin, S. A., Grisso, T., Gudjonsson, G. H., Leo, R. A., & Redlich, A. D. (2009). Police-Induced Confessions: Risk Factors and Recommendations. *Law and Human Behavior*, 34(1), 3–38. doi:10.1007/s10979-009-9188-6; Leo, R. a. (2009). False confessions: causes, consequences, and implications. *The Journal of the American Academy of Psychiatry and the Law*, 37(3), 332–43. Retrieved from <http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/19767498>

44. Taula. Ezezkorik ez onartu

“Batzen artean heltzen ninduten eta kolpeak ez ziren eteten, momentu batean nire ama atxilotzearekin mehatxu egin zidaten. Orduan polizia zintzoa etortzen zitzaidan eta zera esaten zidan «kontaidazu nahi duzun guztia, beste guztiakin emaitzak eskuratu ditugu, baina zurekin ez, beraz kontatu nahi duzun guztia, hartu behar duzun denbora, baina zerbait kontaidazu, nahi duzuna, asma ezazu nahi baduzu, baina zerbait kontaidazu, emaitzak nahi ditut». Eta orduan lasai utzi ninduten apur batez.” (ILMW02)

“Blokeatuta nengoen, ez nuen hitz egin nahi; (...) gainera, horrela hasten dira: garrantzirik gabeko galdera txepelekin. Gauza txikiak hasi eta zurekin jolasten hasten dira. (...) Eta gero estrategia aldatzen dute; modu onean joango gara, ia zerbait gehiago kontatzen duzun. Neurtu egiten zaituzte. Baina, tira; nik ez dakit niganik zer informazio mota nahi zuten, baina nik ez nuen informazio hura.” (NLMAP03)

“Lehenengo egunean begiak itxita izan nituen. Zehazki ez dakit noiz ireki nituen, ez dakit egun horretan bertan azken orduan lortu ote zuten edo hurrengo egunean izan ote zen. Ez dut ondo gogoratzen. Eta bertan zigorrak, lehendabiziko sesio hartan zutik jartzen ninduten, ordu asko pasa nituen zutik. Paretaren kontra zigortuta jartzen ninduten. «Begiak ez badituzu irekitzen, ez badiguzu hitz egiten edo zure izena ez baduzu esaten guk nahi dugun denbora pasatuko duzu zutik» (...) Bat-batean beste bat sartzen zen, orain arte nirekin egon ez zen beste bat, eta horrek bularretik heldu eta altxatu egiten ninduen, «kakazotz!... ireki begiak hilko zaitugula». Ematen zizkidaten zaplazteko asko ez ziren nigana heltzen, baina beste batzuk bai, eta benetako mina zen hori, iraulkatu egiten zara eta arnasarik gabe gelditzen zara. (...) Eta etengabekoa zen, zaharragoa zenak ez zidan horrenbeste jotzen, eta gazteak jo ostean niregana etortzen zen, «tira, Mikel, zure izena esatea baino ez dut nahi». Nire izenarekin tematuta zeuden, izenarekin.” (MNEG03)

“Galdeketa teknikoagoak ziren: izenak errepikatzeako agintzen zidaten; denbora guztian galdera berdinak; uneoro argazkiak erakusten zizkidaten, berrehun bat bistaz ezagutzen nuen pertsonenak: artean lagunak eta ezertaz ezagutzen ez nuen jendea; telebistan Frantzia atxilotu zituztela ikusi nuen jendea. (...) Urduri jartzen zara; izerdia; loaldiak behin eta berriro moztzen dizkizute. (...) Etengabe “sariak” lortzeko kolabora dezazun ahalegintzen dira; zure aitari deitu... psikologikoki nekatzea zen haien helburua; zuk ez pentsatzea da haiek nahi dutena, esaten dutena egin dezazun, haiek entzun nahi dutena errepika dezazun nahi dute; etengabe izen eta abizen berdinak errepikatzea; ikerketarako ez zuen inolako zentzurik.” (NLMAP01)

“Lehenengo eguneko gauza bat gogoratzen dut. Atxilotu ninduten abuztu hartan, bizkarreko mina izan nuen, probak egin nituen eta haiek arazoren bat edo gaixotasunen bat ote nuen galdetu zidatenean ezetz esan nuen, ez nuen minik eta ederki nengoen eta horregatik ezetz esan nien, ez nuela ezer berezirik eta... [ahotsa altxatu egiten du] Zaplazteko bat eman zidaten...! «Nola ezetz, abuztu guztia zu miazten eman dut eta!» errepikatzen zidaten. Ez dakit, baina beldurra sentitu nuen eta horiek denak umiliazioak iruditzen zitzaizkidan.” (OBS02)

d) Sedimentatzeko denbora

Galdeketa teknikak bi akusatu motaren artean bereizten dute. Alde batetik, akusatu emozionala, argudiaketa etiko edo moralikoko sentikorra dena; eta bestetik akusatu

arrazionala, honek galdeketatik kalterik gabe ateratzeko estrategia neurtua dauka, edukien eraginik sufritu gabe. Arrazoi honegatik, beste batzen artean, galdeketetan rol kontrajarriak dituzten bi figura egoten dira.

Elkarrizketa emozionaletan isiluneen denbora erabiltzen da (galdetzaileari onartzen zaizkio, baina akusatuari ez), eta beraz, jarraian egiten diren galdeketa laburrak (ordubete gutxi gorabehera) "sedimentazio" denborekin tartekatzen dira. Tarte hauetan pertsona isolamenduan uzten da esan zaionaren inguruan pentsatu eta informazioa prozesatu dezan.

"«Ikusi duzu hemen zer dagoen, orain ziegara joan eta pentsatu ezazu. Tarte batera, pentsatu duzunean berriro ekarriko zaitugu». Hori pila bat alditan esan zidaten." (MIIA02)

"Zeldara eramaten ninduten bakoitzean hausnartzeko esaten zidaten belarrira, pentsatzeko denbora emango zidatela, alua nintzela, Anderrek jada gauza asko kontatu zizkiela." (ILMW03)

"Dena zegoen modu perfektuan antolatuta, zeldatik oso azkar ateratzen zintuzten, galdeketa oso luzeak ziren eta nekatuta zeundela edo kezkatu zintuen zerbait esan zizutela ikusten zutenean, orduan zeldara eramaten zintuzten burua jateko, ez zizuten lorik egiten uzten, musika, argi biziak (...) Esan dizut jada, eurek interesa zutenean zeldara eramaten zintuzten eta bertan tarte bat uzten zizuten, buruari eragiteko eta kezkatzen hasteko denbora..." (JZLV05)

Galdeketa arrazionalan, ordea, nahasmen-dua sustatzen da pertsonak bere erantzunen gaineko kontrola galdu eta bere defentsak gutxitu daitezten:

"Ez dut gogoratzen inolako hausnarketarako momenturik, ezin duzu, ez dakizu non zauden ere, ze ordu den, gainontzeko atxilotuak nor diren, zergatik zauden atxilotuta, ez zara egoeraz kontziente ez ezer, oso zaila da momentu horretan pentsatzen hastea. Pasatu denean pentsatzen hasten zara, egoera aztertzen eta hitz-mutur guztiak lotzen, baina momentuan... ez. Erabat nahastuta nengoen eta gero zailtasun bat gainditu duzunean atsedean hartu eta hurrengoaren zain gelditzen zara." (JZLV06)

Indarkeriaz eginiko galdeketei buruz, Europan ez dago honi dagokion politika komunik eta Espainiako kasuan legalak dira.

"Momentu batzuetan ondoratu nindutela sentitzen nuen, behea jo eta «denak bost axola!» pentsatzen zenuen, eta beste batzuetan, ordea, harrotasuna ateratzen zitzaizun: «halabeharrez, kolpeka hilko naute eta bost axola zer esaten dudan eta zer ez». Eta azkenean kide guztiak egoera berdinean daude. Eta beraz, momentu batzuetan esaten nuen: «edozer deklaratuko dut, edozer sinatuko dut»; eta beste batzuetan arrazoia agertu eta zera esaten zenuen «bizitza suntsituko didate eta bizitza guztia espetxean eman beharko dut ez dakidan zerbait deklaratzeko». Momentu guztian buruko aingerua eta deabruaren antzeko zerbait zen, bi gauzak kontrajarrita. Bertan, egoera horretan, ez zara kontziente; momentua aguantatzen duzu, orainaldia, agertzen dena; eta bertatik alde egitea baino ez duzu nahi. Momentu batzuetan, «hau benetakoa al da edo ametsetan nago?» pentsatzen zenuen. Surrealista zen, benetan." (NLMAP02)

e) Guztiahaltasuna eta orojakintza

Atxilotuta dagoen pertsonari berari buruzko guztia dakien indar baten aurrean dagoela transmititzen zaio (orojakintza), eta indar horrek bere bizitzari, etorkizunari zein inguru-neari dagokionez edozer egin dezakeela (guztiahaltasuna).

Errepikatu egiten diren egoerak ageri dira:

- Bizi den lekuari, komunikazioari (telefonoa, posta...) edota erlazionatzen den jendeari buruzko xehetasunak ematen zaizkio pertsonari.

- Atxilotua segitu izan duen pertsona bat aurkeztu eta bere bizitzari buruz duen detaileen kontrola erakusten dio atxilotuari. Beti kontrolpean egon dela sinestarazten zaio atxilotuari eta doan lekura doala inoiz ez dela kontrolpean egotetik salbu egongo.
- Galdetzaileak bat-batean kaputxa kendu eta harritura dagoen atxilotuari desafio egiten dio.
- Galdetzaileak fiskal edo epaileekin negoziatu dezakeela adierazten du (egiazkoa edo gezurrezkoa).
- Galdetzaileak atxilotuaren bizitza zein gorputzaren gainean duen erabateko kontrola eta inpunitatea (egiazkoa edo gezurrezkoa) erakusten du.

45. Taula. Orojakintza

- **Pertsonaren bizitzaren inguruko detaileak**

“Nire bizitza eta ni neu horren ondo ezagutzeak beldurtzen ninduen. Eta ez zen horrenbeste informazio hori zutelako, baina informazio horrek ahul egiten ninduen. Gainera, ni atxilotuta nengoen bitartean nire amarengandik gertu zeudela esaten zidaten, kontrolpean zuten eta berarekin egin zezaketenagatik beldur nintzen. Eta gero, nire bikotekideari buruz galdetzen zidatenean, tira, nik ez nekien non zegoen baina esaten zizkidaten gauzengatik, bera non ote zegoen galdetzen nion neure buruari, berarekin zer egiten ari ote ziren. Nigatik, amagatik eta nire bikotekideagatik kezkatzen nintzen. Nire bikotekideari dagokionez, berriro ez ikusteko beldurra nuen.” (ILMW01)

“Bigarren galdeketa izan zen min handiena eman zidana, nire bizitza kontaktzen hasi ziren, hamabi urte nituenetik atxilotua izan nintzen egunera arte. Eurek kontaktzea gehiegi zen niretzako. Dena zekiten. (...) Dena zekiten sentsazioarekin gelditu nintzen, ez dakit niri atera zidaten edo lehenago ote zekiten, baina dena zekiten. Eta hortxe, behea joa nuen. (...) Ahul sentitu nintzen, harritura, dena zekiten niri buruz.” (MTRGL10)

“Bi aste lehenago zailtasunak izan nituen Zunbeltzekin telefonoz hitz egiteko, eta eurak izan ziren linea moztu zidatenak, geroago esan zidaten. «Zer, maitea, arazoak izan dituzu telefonoarekin?» (...) Anarekin hitz egin nueneko grabazio bat zuen, bere telefonoan jarri eta zera esan zidan: «Begira, ahots hau ezagutzen duzu?» eta ni nintzen. Nik «bai» eta... ezer, adarra jotzen. Eta noski, jada horrekin paranoia sartu zitzaidan. (...) Orain, kaletik gizon arraroren bat ikusten dudanean pentsatzen dut, «hori izango zen?» Eta, noski, Tafallari [bere jaioterria] buruz asko zekien horrek, afaria ekartzen zidanean Akelamendikoa [herriko jatetxea] bezain ona ez zela esaten zidan... denbora guztian hori zein izan zitekeen pentsatzen ematen nuen! Eta ez dakit egia ote zen edo niri paranoia sartzeko egiten ote zuten, baina... lortu egiten dute!” (OBS03)

- **Segimenduak egunerokotasunean**

“«Zer egiten duzu mutil horrekin?» [garai hartan bere mutil-laguna espetxean zegoen]. «Erizaina zara baina! Zer egiten duzu horrekin?» Uneoro horretara jolasten. (...) Horrenbeste txantxaren artean nagusiak zera esan zidan «Eva, egia esan, nik baino diru gehiago irabazten duzu, e!» (...) Gero ikusi nuen azken filma gogorarazi zidaten... eta akordatzen naiz egun horretan arratsaldeko 4etan nire pisukidearekin zinemara joan nintzenean bisera zuen gizon bat zegoela, eta arraroa egin zitzaidan, ezin da horren txepela izan, zinemara joan eta barruan biserarekin geratzea... Bada, bera zen, eta gauza horiek guztiak momentu horietan atera ziren.” (MNEG04)

- **Desafioak**

"Gogoan dut ere momentu batean ezkerrean zegoenak antifaza igo zidala ezker aldetik, eta bere antifaza ere altxatu zuen bere aurpegia ikus nezan. Harritu egin ninduen, bi pertsona ezezagunekin nindoan eta bat-batean bere aurpegia ikusi nuen... ez dakit, harritu ninduen! Bera ikustea... nire auzoan nire ondoan poteak hartzen egon zela esan zidan, eta ez nekiela bera nor zen. «Leku guztietara jarraitzen zintudan, puta». Bere aurpegia okerrago sentiarazteko erakutsi zidan, ez dakit... kontrola berak zuela sentitzen nuen." (OBAM02)

"Komisarioa zela esan zuen bat etorri zen, antifaza kendu eta «aurpegira begiratu idazu!» esan zidan. Tonu lasaiarekin hitz egiten zidan, psikopata baten modura, egiten ari dena kontuan hartuta tonu lasaiegian ez? Eta zera esan zidan «hauek nire lagunak dira» eta kaputxa jantzita zuten lau gizon handi ekarri zituen, «orain dena kontatuko diguzu." (OBIM07)

"Hurrengo egunean ergel horrengana eraman ninduten. Eta zera esan zidan: «Esan didate ez ninduzula berriro ikusi nahi, baina torturak egin dizkizunaren aurpegia ikus dezazun nahi dut» (...) buruan nire jertsea neraman beti; jertsea kendu eta bere aurpegia ikusi nuen. (...) Eta ez nuen gehiagotan ikusi." (OBS03)

- **Epaileen edo fiskalen gaineko influentzia**

"«Guk nahi ditugun eskubideak izango dituzu», esaten zidaten. Hori zen, haien eskuetan zeunden, hori zen, eurek nahi zutena, eurek nahi zutena. Azkenean sinatu nuen, eurek nahi zutena sinatu nuen." (OBAM01)

"Espetxera joango nintzela uste nuen, atera aurretik «epailearen aurrera zoaz eta beraz, esaiozu nahi diozuna, suposatzen dut libratu nahiko duzula, zuk ikusiko duzu». Horren ostean beste bat etorri zen eta hori dena gezurra zela esan zidan, epaileak eurek nahi zutena egingo zuela. Erabat blokeatuta utzi ninduten eta nire abokatua pasatzeko paper bat sinatu nezan etorri zirenean, ez nuen sinetsi eta beraz, papera ez nuen sinatu, orduan beste gela batera eraman ninduten eta bertan idazkari bat etorri zen egia zela esatera, ia zer gertatzen zen jakin eta abokatua nire zain zegoela esatera." (OBS01)

- **Inpunitatea**

"Batez ere Ondarroako atxilotuei erreferentzia egin zitetenean, nik banekien eurek beldurra edo tortura latzak salatu zituztela. Nire gorputzeko atal guztiak neurtzen hasi ziren torturak nola aguantatuko nituen jakiteko. Nitaz barre egiten zuten; aurpegiz eta gorputzez Ondarroako baten antza nuela esaten zuten, beldur aurpegiagatik. Gorputz harekin apurtu egingo nintzela esaten zuten, bi egun ere ez nituela iraungo." (NLMAP01)

f) Iruzurra ("Deception")

Galdeketa kognitiboan ez bezala, informazioa eskuratzeko indarkeriaz eginiko galdeketak duen oinarri nagusietako bat iruzurraren erabilera estrategikoa da.

Eginiko elkarrizketetan honako hauek antze-man dira:

46.Taula. Iruzur teknikak ("deception"). Motak eta maiztasuna		
Atxilotuari, egozten zaionari edo ustezko kondenari buruzko informazio faltsua edo nahasgarria ematea	<ul style="list-style-type: none"> • Ebidentziarik ez duen akusazio faltsua. • Ebidentzia faltsuak iradoki. • Lekuko faltsuak erabili. • Beste batzuek eginiko ustezko akusazioak. • Mehatxuak hogeitun urte edo gehiagoko kondenak suposatzen duten akusazioekin. 	Maiztasun handia
Maximizazioa <ul style="list-style-type: none"> • Gertaerak • Gertaeren ardura • Ondorioak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikertzen ari diren gertaeren edo bere ondorioen garrantzia puztu eta pertsonaren kontra larritasun handiko akusazioak formulatzen dira, eta horren eraginez, pertsonak konparazioan "txikiagoa" den delitu baten errudun dela adieraziko du. 	Maiz
Familiaren egoerari buruzko informazio faltsua eman	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen mailako senideak atxilotuta daude eta/edo galdeketetan ari dira. • Gertuko senideak (bikotekideak batez ere) ondoko zeldetan torturatzen ari dira (oihuak etab.). • Senideren batek bere buruaz beste egin du. • Gertuko jendea edo ezagunak atxilotuta daude eta galdeketetan ari dira. • Atxilotetak familiarengan dituen ondorioak. 	Maiz
Promesa faltsuak egin	<ul style="list-style-type: none"> • Senideei deituko dietela agindu. • Kargurik gabeko askatasuna edo kargu txikiagoak izango dituztela agindu. 	Maiz
Simulazioak / Antzezpenak	<ul style="list-style-type: none"> • Ustez atxilotuta dauden beste pertsona batzuen oihuen grabazioak. • Ondoko geletan dauden beste pertsona batzuei egiten dizkieten torturen soinuk / zaratak. • Aliatu faltsu gisa kamuflatutako polizia. • Torturak jasan dituen biktima gisa kamuflatutako polizia. 	Garaiaren arabera, oro har, maiztasun txikia

47. Taula. Iruzur teknikak
<ul style="list-style-type: none"> • Informazio faltsua edo engainagarria <p><i>"Hasieran esan zidatenagatik, espetxean denbora luzez egon beharko nintzen; urte asko asko tokatuko zitzaizkidan... eta, bat-batean, fidantzapeko askatasunean aterako nintzen."</i> (NLMAP01)</p> <p><i>"Baina berdin du ezta?, daukaguna... nahikoa da, arrazoi nahikoak ditugu. Gainera ondokoak ezagutu zaitu... dena kontaktzen ari da, beste guztiek kontatu ez digutena kontaktzen ari da."</i> (OBIM06)</p> <p><i>"«Zuk zer informazio eman ahal diguzu, guk fiskalarekin hitz egin dezakegu bihar zorte apur bat izan dezazun». (...) Bigarren deklarazioaren ostean eurekin kolaboratzeko proposamena egin zidaten. «Badakizu harrapatu zaitugula» esaten zidaten."</i> (JZLV02)</p>

“Mehatxuak ziren, sinatzen ez banuen nire neskalagunari ez dakit zer egingo ziotela... ni espetxean sartuko nindutela, hori fiskalarekin adostuta zeukatela. Euren ustetan gehiago egin banuen ere “kolaborazioagatik” epaitua izatea baino ez zutela nahi. Nik ezetz esaten nien. (...) Espetxera joango nintzela esaten zidaten, eta gehiago egin nuela zioten arren “kolaborazioa” sinatzeko agintzen zidaten.” (BIM02)

“Inkomunikazioa luzatzearekin jolasten dute, hasiera batean inkomunikazioa hiru egun dira eta gero bost egun egoteko orrialdea sinatzeko agintzen dizute. Beste bi egun bertan pasatzea basakeria hutsa da eta ondorioz, horrekin jolasten dute. (...) Gezurrak erabiltzen dituzte, abokatuekin hitz egiten duzunean esaten dizkizuten gauzak gezurrak direla ikusten duzu. (...) «kale borrokagatik ez dakit zenbat akusazio onartzen badituzu, ez dizut ETArekin kolaboratu izana leporatuko» esaten dizute, nahiz eta ETArekin kolaboratu ez duzula esan eurek akusazioak egiten dituzte, probak dituztela esaten dizute, ETAKoa zarela... eta orduan dibisioez hitz egiten dizute. (...) Egiten ari diren guztia nahita egiten ari ez direla esaten dizute, epaileak hori egiteko agindu diela, zerbait egingo nuela epaileak ni atxilotzeko agindua emateko, eta gero konturatzen zara guztiz kontrakoa dela, azkenean eurek zu atxilotzeko agindua epaileari eskatzen diote. Baina denbora guztian eurak alde batera geratzen ahalegintzen dira. Arazoa zurea da, Audientzia Nazionalarena, eurak euren lana besterik ez dute egiten eta laguntzeko daudela ematen du, gertatzen ari denarekin zerikusirik ez dutela, alegia.” (MIIA01)

- **Maximizazioa**

“Txandarik lasaienekoak gauean goiz etorri ziren nire bila, eta akusatzen zidatenaren inguruan hitz egiten hasi ziren. Momentu horretara arte ETako komandoaz hitz egiten zidaten soilik. Galdeketa horretan pertsona bat gehiago agertu zen. “Kale borrokarekin” zerikusia zuten gauza konkretuak galdetu zizkidaten, baina ez zuten gehiagorik esaten. Lehenago lehegailu ikastaroez, Iparraldera materiala entregatzeko egiten nituen bidaiez, zuloen kokapenez, nire errekrutadoreez... hitz egiten zidaten, praktikan horren inguruan izan zen inkomunikazioaren erdia baino gehiago. Baina eurek bazekiten hori ez zela bilatzen zuten informazioa, imajinatzen dut eurek pentsatuko zutela errazagoa izango zela niretzako maila baxuagoko akusazioak onartzea ETako kide nintzela esatea baino, erakunde armatu bateko kidea nintzela baino, alegia. Delitu eskala horren baitan, ahalik eta goien zeuden gauzei buruz galdetzen zidaten, eta gero, akusazioak maila baxuagokoak ziren, sabotaje txikiak, gasolina... Segiko kide izatea eta kale borrokako ekintza bat. Baina momentu horretara arte ez zuten ezer aipatu, horrekin jolasen zuten. Honetaz galdetu zidaten [eskua jaso egiten du goian jarriz] gero beste hau onartzeko [eskua jaitsi egiten du]. Bi urtetan zehar gertatutako sabotaje ekintzen inguruan galdetzen zidaten. Oso argi utzi zidaten hasieratik, hobe nuen baten bat onartu bestela pakete osoa sartuko zidatelako; kalkuluak egiten zizkidaten, espetxetik 42 urterekin aterako nintzela, eta bat onartzearekin nahikoa zela. Pakete osoa lehen aipatu ditudan kontu guztiak ziren. Epaitegiaren aurrean pakete osoa aurkeztuko zuten: ETako kidea, sabotaje ekintzak, lehegailuak erabiltzeko ikastaroak, lehegailuak eduki izana. Nik ezetz esan nien, ez nintzela Segiko kidea eta ez nuela inolako sabotaje ekintzarik egin.” (NLMAP01)

- **Familiaren egoerari buruzko informazio faltsua eman**

“Konpondu beharreko zalantza asko nituen. (...) Nire ama oso gaizki zegoela uste nuen; ospitaleratu, hilik ez bazegoen behintzat [bere kausagatik]; nire aita gaizki egongo zela horrekin; nire anaiak ez zuela etortzeko modurik izango; nire neskalaguna... ez zela etorriko... eta Madrilan ez zela inor egongo pentsatzen nuen.”(NLMAP01)

“Eta beste presio modu batekin hasi ziren, familiarekin mehatxuak egin zizkidaten, neskalaguna eta anaia bidean zeudela eta niri egin zidatenaren bikoitza egingo ziotela. Kolpeek jarraitzen zuten batzuen artean heltzen ninduten bitartean, eta ama atxilotzearekin

mehatxu egin zidaten. (...) Tipoa berriro bueltatu zen eta ez nuela kontatzeko ezer esan nion, ez nuela ezer egin, baina kolpeak ez ziren eten eta amaren kontuarekin jarraitzen zuten. Orduan, ama atxilotu zutela esan zidaten, eta Gasteiz ondoan dagoen urtegira bidean zegoela. Ez nuen sinetsi nahi izan, gezurra zela pentsatu nuen, baina kolpe gehiago eman zizkidaten, nekatuta nengoen, lur jota, eta azkenean zalantza sartu zitzaidan. Nire ama bakean uzteko erregutzen nien, berak ez zuela sekula ezer egin. Presan «igogailuarena» egiten ari ziotela esan zidaten, hankak loturik uretan sartzen ari zirela. Bitartean, polizia zintzoak hitz egiteko animatzen ninduen. Eta aldi berean, buruan kolpeak ematen zizkidaten. Beste polizia talde baten deiak entzun ziren, urtegiaren zeudenekin hitz egiten ariko balira bezala. Euretako batek oihukatu eta denak isildu ziren. «Gehiegizkoa, zer bortitza» eta horrelakoak esaten hasi ziren guztiak. Aulki baten eseri eta nire ama hil zela esan zidan batek.” (ILMW02)

“Nire bikotekidearen argazkiak ateratzen zizkidaten (...) dena nire errua zela, espetxean egoteko modu ezberdinak zeudela, Langraitzen⁷⁷ edo Santa Marian⁷⁸ egon nintekeela, dena nire araberrakoa zela. Nire bikotekidea ondoko ziegan zegoela esan zidaten, bere argazkiak erakutsi zizkidaten... berak jasango zuen tratua nire araberrakoa zela esan zidaten... espetxean berrogei urte pasako nituela alde batera utzita... bost egun horrela, denbora guztian.” (MIIA01)

“Nire arreba ondoko gela batean zeukatela nik sinestea nola lortu zuten ez dakit, egia iruditzen zitzaidan entzuten nituen ahotsek ere berearen antza zutelako. Eta nire gertuko jendearena... oso gertukoa, oso sinesgarria zen... aurrean duzun zeldan torturatzen zituztela iruditzen zitzaizun. Beste gela batean familiako jendea dutela atxilotuta, eta hori egia dela sinesten duzu.” (OBAM05)

“«Ez dakizu zenbat gehiago hartu ditugun... ez dakizu horrenbeste gutun idazten dizkizun neskalgun hori ere atxilotu ote dugun». Momentu horretan ez nekien zenbat pertsona gehiago atxilotu zituzten, erabat galduta nengoen. Eta «zure arreba negar bizian zegoen. Zure ama, zure amak pertsona ona zirudien. Zuri zer gertatu zaizu... eta tira, zure anaia ere izututa zegoen. Zure aitaren bizitza suntsituko dugu, zigorren bat sartuko diogu zerbaitegatik... eta bere bizitza izorratuko dugu».” (JZLV02)

“Hurrengo goizean nire lagunak atxilotu zituztela ulertarazi zidaten, euren datu pertsonalak ematen zizkidaten eta bat negarrez ari zela, bestea ez dakit zer... horrelakoak esaten zizkidaten. Nik ez nekien atxilotu bakarrik izan ote nintzen. (...) Geroago, espetxean sartu nintzenean, ni neu bakarrik sartu nintzela jakin nuen. Nire aita polizia-etxean zegoela esaten zidaten, bertara joan eta antsietate krisi batekin zegoela, eta guztia nire erruagatik gertatzen ari zela.” (AMRGL09)

“Hasiera batean, galdeketa oso basatia izan zen. Nire laguna ere atxilotu zutela esan zidaten, nire lagun batzuk bertan zeudela eta nik sinetsi nuen, baina gero jakin nuen guztiak ez zirela bertatik pasatu.” (MTRGL10)

- Promesa faltsuak

“«Sariak», «aitari deitu» eta horrelakoak lortzeko kolabora dezazun ahalegintzen dira.” (NLMAP01)

⁷⁷ Gasteiztik gertu dagoen espetxea.

⁷⁸ Andaluzian dagoen espetxea, Euskal Herritik urrunen dagoenatariko bat, 900 kilometro.

"Eurek nahi zutena deklaritzen banuen amarekin hitz egiten utziko zidatela agindu zidaten." (ILMW01)

"Uneoro galdera berdinak errepikatzen zizkidaten: «Galdera batzuk erantzuten badituzu aitari deitzen utziko dizugu. Bestela, gero besteak etorriko dira eta eurek ikusiko dute zer egin»." (NLMAP01)

"Tortura fisikoez gain kontu psikologiko asko zeuden, nire izeko atxilotu zutenean, eurekin diru truke kolaboratzeko proposamena egin eta berak onartu egin zuela, eta zergatik nik ez ote nuen berdina egiten, etxe bat erosi eta 5 milioi ordainduko zizkidatela. Salatari edo infiltratu lana egiten banuen kalean utziko nindutela esan zidaten, eta inor ez zela ezertaz enteratuko." (MIIA03)

"Orain artekoak txotxongilo hutsak baino ez zirela esaten zidaten, nagusiak eurak zirela eta fiskalarekin harremana zutela, eta nire laguntza nahi zuten, tira, kolabora nezan." (OBS05)

Elkarrizketa batzuetan iruzur egiteko moduei dagokienez, antzezpenak edo simulazioak agertzen dira (torturen antzezpenak, forentse faltsuak, atxilotu-kide faltsuak) (48. Taula).

48. Taula. Antzezpenak edo simulazioak

- **Tortura soinuak edo zaratak ondoko geletan**

"Galdeketen bitartean beste batzuen min oihuak entzuten ditut. Ez dakit nortzuk diren edota soinu horiek eurek egiten dituzten, baina beldurgarriak dira. Hainbat izen esaten zizkidaten. Ez dakit nor zela eta niri buruzko zerbait esaten ari zela, pertsona jakin bat ziegan zutela eta torturak egingo zizkiotela etab. (pertsona hori ez zutela atxilotu jakin nuen geroago, baina ni zorutzen ahalegintzen ziren). Horrek beldurra sortzen zidan." (ILMW02)

- **Forentse faltsua**

"Momentu jakin batean lasai egoteko esan zidaten, forentse baten aurrera joango nintzela. Gela batera eraman eta bertan kaputxa zuen tipo bat zegoen. Ze arraroa, forentsea kaputxarekin, pentsatu nuen nik, baina forentsearen aurrera eramango nindutela esan zidatenez, beharbada bere identitatea ezkutatzeko edo protokolo kontua zela pentsatu nuen. Probak egiten hasi zen eta nik konfiantza osoz jo nindutela esan nion eta hemen begiratzeko [garondoa seinalatzen du], bertan kolpe asko eman zizkidatelako. Bat-batean zera esan zidan: «motel, hanka sartzen ari zara». «Nolatan hanka sartzen ari naizela? Zu ez zara forentsea» eta ezetz esan zidan, Guardia Zibila zela. Dirudienez polizia-fitxa betetzen ari zen." (JZLV03)

- **Emakumezko polizia bat atxilotutako emakumeen eskubideen zein osotasunaren defendatzaile eta lagun gisa aurkezten da**

"Ez dakit momentu horretan arropa kentzen hasi edo jada biluztu ninduten. Andaluziako emakume baten ahotsa entzuten nuen eta zera esaten zidan: «Neska, esaezu nahi dutena, 12 edo ez dakit zenbat gizon dituzu zuri begira». Ez dakit guztiz biluzik ote nengoen baina arroparen bat kendu zidaten. (...) Jakin nahi zutena kontatzeko konbentzitzen saiatzen jarraitzen zuen berak. Momentu horretan konturatu nintzen, bera ez zegoen emakumeak defendatzeko, bertan parte-hartzen zuen." (NLMAP03)

• **Kontaktua lurrean konorterik gabe eta biluzik ikusi duen ustezko atxilotu batekin**

“Batez ere gau horretan gertatu zena kontatu nion [jasotako tortura eta kolpeengatik konorterik gabe omen zegoen pertsona batekin utzi zuten], hori baitzen gehien harritu ninduen, tipo bat biluzik, lurrean... Noski, eta nik ez nekien tipoa polizia zenik! Gero gure sarekadako inor ez zela... abokatua lehen momentutik etorri zen eta... «argazkiak dituzu? Bai! Erakutsi, erakutsi!» eta begiratzeko... «baina zergatik? Ez, zera, gauza bat begiratu behar dudalako» eta ez zegoen, pertsona hori ez zegoen gure sarekadan. Orduan konturatu nintzen ikusi genuenean ez begiratzeko esan baina begiratzeko uzten zidatela, ziurrenik gero hori niri egiteko, eta tira! Arraioa ez? Ez dakit zenbat denbora izan naute hor kezkatuta, bi egun, tipo horrek arnasarik hartzen ez zuela pentsatzen... eta dena antzerkia zen!” (OAEM04)

g) Galdeketaren edo galdetzailearen bat-bateko estilo aldaketak

Eredu beraren hainbat aldaketa deskribatzen dira. Finean, pertsona berarekin edo pertsona ezberdinekin, galdeketa enpatiko eta mehatxariaren artean aldaketak egitea da helburua.

a) Galdetzaile beraren bat-bateko aldaketak

Batzuetan galdetzailea bera da estiloa bat-batean txandakatzen duena

“Emakume bat ikusi nuen, ustez niri joka ari zen... bai, nigana hurbildu, hitz egin eta bat-batean BUMM! zaplazteko bat ematen zidan; atzetik hitz egiten zidan, belarrira niri buruzko gauzak esaten zizkidan. «Oso gaztea zara» edo «Mikel eza-gutzen duzu?» tonu lasaigarria zen... eta bat-batean BUMM! tori zaplaztekoa! (...) Ematen du ondo zaudela, eta bat-batean jo egiten zaituzte. Ez dakit, nigana etorri, tonu gozoan hitz egin, eta jo egiten ninduen.” (OBS04)

b) Kontrako estiloa duten bi galdeketa-talde

Ohikoagoa da estilo ezberdinak dituzten bi talde txandakatzen direnean: oldarkorra eta elkarrizketara irekia dagoena.

“Bi galdeketa mota ezberdin bezala izan zen..., lehendabizi nire familiari buruzko galdera asko egiten zizkidan gizon batekin egon nintzen, anai-arrebak... galderak familiari buruzkoak ziren denbora guztian, nire anaia, herriko jendea. (...) Gero, beste gelara aldatu nindutenean, beste gizon bat zegoen. Hor horixe zen, galdera pilo bat, etengabe. Eta gero mehatxuak ere, gelditu gabe, bere kideak etorri eta denetarik egingo zidatela. (...) Ez dakit momentu horretan izan ote zen, baina tipo bat sartu zen, nigana etorri eta aurpegian jo zidan, beste bi sartu eta ez ninduela joko zioenak gelditu zituen, «ikusten duzu zer dagoen zure zain» mehatxatu zidan. Alde egingo zuela eta gau guztia besteekin utziko ninduela esan zidan. Momentu batean alde egin eta besteak zetozela esan zuen. Orduan, aurretik jo ninduen eta beste bi sartu ziren.” (IGEJ01)

49. Taula. Kontrako estiloen txandaketa galdeketetan

“Eta gero, hortik aurrera, galdeketa sesioak hasi ziren. Tira, egia esan, autoan hasi ziren jada, baina bertan gauza txikiei buruzko galderak egiten hasi ziren berriz: «Non egiten duzu lan? Non bizi zara?...» Eta zerbait esaten duzunean, orduan galderak egiten hasten dira, eta zas: «Zeinek errekrutatu zaitu?» Eta isiltzen bazara, zaplaztekoa; eta berrito hasten

dira. (...) Teknika ezberdinak erabiltzen dituzte. Polizia zintzoa eta gaiztoaren kontuarekin ere hasten dira. "El del café" ezizena jarri zioten bat zegoen, eta horrek uneoro zera esaten zidan: «la, lasai... goazen kafe bat hartzera eta hitz egingo dugu». Horrek zintzoaren papera betetzen zuen, eta horrela izan zen bost egunetan. Ez dut gogoratzen azkenean kafe hori edan ote nuen... eta galdeketa sesio gehiago; eta erantzuten nuena gustatzen ez zitzairenean, orduan kontua gogortu egiten zen. (...) Baten eta bestearen datuak eskuratu eta parekatzen dituzte. Erantzunik ez duzunean esaten dituzun kontuak daude ere, zer egin dezakezu? Eurek izenak behar zituztela esaten zuten, eta ez zuten sinesten benetan zuk izenik ez dakizula; eta tira... eta orduan ito arte edo izenen bat esan arte poltsa jartzen dizute buruan. Eta berriro... eta azkenean laguna dena esaten diezu, pertsonen izenak ematen dituzu baina ez dakit... isiltzea garaipena da euren aurrean, eta zenbat eta gehiago hitz egin orduan eta okerrago zuretzat; eta gainera, egiazkoak ote diren ez dakizkizun gauzekin..." (NLMAP03)

"Hasieran ezer ez esatea pentsatu nuen, baina gutxi aguantatu nuen; ez haiengatik, nigatik baizik, beldur gehiago pasatzen nuen ezer esan gabe hitz egiten baino. (...) Gustatzen ez zitzaizen zerbait esaten nuen bakoitzean burua laztantzen zidaten, horrek urduri jartzen ninduen. Hasierako tonua lasaia zen, bakarrik batek hitz egiten zidan, gidariak. (...) Baina gutxi gorabehera bidearen erdian denak hasi ziren oihuka «kontatzeko esan dizugu!», kotxea gelditu zuten, bertan atera eta buruan bi tiro emango zizkidatela esan zidaten, hortxe hasi zen dena igotzen. (...) Ateak ireki zituzten, baina ez ninduten atera. Gelditzen zen bidaia zatian denek oihukatzen zidaten." (NLMAP04)

"Sentsazioa nuen ezagutzen nindutela, asko jolasten zutelako... eta ni, ni oso sentikorra naiz... polizia zintzo mitikoa zegoen, ez? «lasai, hau pasatu egingo da... niri ere ez zait gustatzen holakorik egitea baina orain ez daude besteak eta niri kontatu ahal didazu» (...) Hasierako 3 egunetan buruan kolpe asko jaso zituela dio, bat-batean galdeketa erdian pertsona bat sartu, paretaren kontra jarri eta jipoitzen hasten zela: «Emagalduta! Hilko zaitut!»... erabat kontrolerik kanpo zegoen eta tipoa kanpora ateratzeko itxurak egiten zituzten, besotik heldu eta zera esaten zioten «lasai, hitz egiten gaude eta!» eta niri, ordea, «berriro begiratzen badidazu burua paretaren kontra lehertuko dizut!» esaten zidan." (OAEM04)

"Antifazaren azpiko aldetik zerbait ikusi nezakeen, galderak egiten zizkidatenean euren artean paper bat pasatzen zutela ikusten nuen [galdetzeko jarraibideak edo horrelako zerbait]. Horren gaizki ez tratatzen oso, oso gaizki tratatzera pasatzen dira, horregatik gaizki pasatu nuen, aldaketa oso bat-batekoa izan zen. (...) lehendabiziko momentutik etengabeko mehatxu horiek markatu egiten zaituzte." (OBIM06)

"Txandakatu egiten ziren... hiru, lau... gutxienez beti bi. Eta bat... BUFF, BUFF!... hartza zela uste nuen. (...) BUAH! Hori berotzen zenean... eta ez dakit, bazegoen beste bat, eta horrek galdeketa gidatzen zituen beti. Gero aldatu egiten ziren... baina uste dut hori beti zela berdina." (OBS04)

"Galdeketa oso gogorra izan zen lehen egunetik. Eta erabiltzen duten joko hori, topikoa, polizia zintzoa eta gaiztoa... zintzoaren papera egiten duenak zigarro bat eskaini eta ura ematen dizu, gero bestearekin utzi eta horrek kabroi hutsa dela esaten dizu, hitz egiteko modua." (GTV01)

"Gero beste bat etorri eta nire laguna zela esaten zuen «Ez kezkatu, hemendik aterako zaitut, mutil hona zara eta ni ere Ezker Abertzalekoa naiz». Eta gero bestea zetorren niri oihukatzen: «nolatan egiten diozu hau zure neskalagunari, nolatan egiten diozu hau zure amari!»." (OBIM11)

“Sadikoaren” agerpenak aurretik eginiko erresistentziaren amaiera suposatzen zuen, beldurraren eraginez egoerarekin amaitzeko zerbait esan behar zutela sentitzen zuten.

Aurrez ezarritako rolak

Elkarrizketetan hainbat rol agertzen dira behin eta berriro.

1. Testigantza batzuetan “nagusia” agertzen da, jarrera guztiahalduna duen pertsona, batzuetan elkarrizketarako irekia eta beste batzuetan oso oldarkorra.
2. “Sadikoa”, kontrolik gabeko eta indarkeria handiko antzeppen batekin batera agertzen da bat-batean, beharrezkoa balitz hiltzera heldu zitekeela ematen du.
3. “Samurra”, izuaren erdian agertu eta samurtasuna eta estimua eskaintzen dio atxilotuari. Horrek erabateko nahasketa suposatzen du atxilotuarentzako.

Pertsona batzuek eredu batzuk ondo eta besteak gaziki aguantatzen dituzte. Testigantza batzuentzako “sadikoaren” agerpenak aurretik eginiko erresistentziaren amaiera suposatzen zuen, beldurraren eraginez egoerarekin amaitzeko zerbait esan behar zutela sentitzen zuten. Beste batzuek, ordea, mina aguantatu zutela diote, baina “samurraren” agerpenak eta bere estimuak lekuz kanpo utzi zituela diote eta horren erruz, euren burua errudun adierazi zutela.

“Ostikoak jotzen zizkidaten... buruan ere kolpe asko eman zizkidaten eta hori, izkina batean geratu nintzela oroitzen dut, ezin nuen arnasarik hartu... hau da, ez dut sekula antsietate krisirik izan baina hori... arnasa hartzea kostatzen zitzaidan eta

ezin nuen, ezin nuen, eta geroz eta urdu-riago nengoen, nik uste eurak ere larritu zirela «ea, ea!» Tipo batek lasaitzeko moduan hartu ninduen eta... nirekin jatorra izaten ahalegintzen zen tipo hori, lehen esan dizudana, sartu zen. Gogoratzen dut atzetik besarkatzen ninduela, eta sentitzen nuena... tira, hau guztia egiten didazu eta ni besarkatzen zaude, eta gainera besarkada hori eskertzen dut baina ez zu zarelako, momentu honetan norbaitek ni babestea behar dudalako baizik. Besterik gabe, hau da, ez zen nire bikotekideak ematen dizkidanaren antzekoa, sentitzen ez duzun besarkada baten antzeko zerbait zen... itxura horiek... ez dakit... baina niretzako nahikoa zen, tira... eta momentu horretan onartu nuen, «bai, Segikoa naiz!»” (OAEM04)

Aurrekoaren aldaketa gisa, egoera batzuetan ez da agertzen txandakatzen den talderik, galdeketa erdian bat-batean agertzen diren pertsonak baizik. Hauek dinamika apurtzen dute eta aurretik zehaztuta dauden rolak antzezten dituzte (50. Taula).

50. Taula. Aurrez ezarritako rolak.• **“Nagusia”**

“Gero paretaren kontra begira jarri gintuzten, kaputxarekin, eskuak bizkarrean lotuta eta lurrera begiratzen. Eta nire ondoan Amaia zegoen. Eta... beste polizia etorri zen, aurrez mehatxu egin zidana, eta nire harrotasuna berehala jaitsiaraziko zidala esan zidan, ia non ote nengoen eta zer pentsatzen nuen... eta hori... gero Amaia eta niregana beste bat etorri zen, urbil omen geunden, noski, nik ezin nuen begiratu, eta horrek jatorrak ginela esan zigun, gurekin super ongi pasatzen zuela eta polizia ez balitz gure laguna izango zela. (...) Eta polizia zintzoaren papera betetzen zuena ekartzen zidaten, hemengo Brigadako burua dena. Eta horrek ez zuen kaputxarik ez ezer janzten, aulki batean eseri eta gertutik hitz egiten genuen eta... «Tira, hau guztia esan behar duzu» «Lagunduko didazu?» eta nik ezetz esan nion. Orduan alde egin zuen, besteak etorri eta lehen bezala jarraitu zuten.” (OBS03)

“Gero nagusia etorri zen, kaputxarik gabe, eta kale borrokari buruz, ETari buruz, ez dakit zein atentaturi buruz... hitz egiten hasi ziren. Lurrera bota ninduten bi zaplazteko jo zizkidan... ikaragarria... eta gainera aurpegia ikusten diozu... nire gainean jarri zen, belauriko, eta oso gogor, tipoa histeriko zegoen, ia negarrez, denagatik ordainduko nuela oihukatzen zidan, atentatuarena nik egin nuela... buff... eta egia esan berak eman zidan beldur handiena... ez dakit antzerkia ote zen baina... deklaratu nuenean ere berarekin izan zen, hiru aukera eman zizkidan bat aukeratzeko... ETA, Kale borroka edo Segi... eta nik Segi esan nuen. (...) Nagusia etorri zen berriro eta erabat birrindu ninduen. Kaka asko uneoro: komandoak, kale borroka ekintzak... norabidea galtzen hasi nintzen... burua joaten zitzaidan, ezin nuen gehiago, urduritasuna, kolpeak... lurrean botata utzi ninduten, atseden hartzeko-edo, eta bueltatu zirenean honakoa esan zidaten: «Hara! Hauxe esango duzu!» Bilera batetik ateratzen ari nintzela atera zituzten argazki batzuk erakutsi zizkidaten... eta ni jadanik galduta nengoen, eta pasatzea baino ez nuen nahi, behintzat bizirik aterako nintzen, ez? Eta orduan nahi zuten guztia deklaratu nuen... eta hori... «bai, bai, bai» guztiari.” (OBS05)

• **Sadikoa**

“Lau ziren, batek gauza batzuk esaten zituen, besteak kontrakoa egin, rolak euren artean txandakatzen dituzte. «Utzidazu! Nik neuk hilko dut!» esaten zuen batek, eta «tontakeriak esaten ari zara, goazen hitz egitera» erantzun besteak. «Gure kotxeen azpian bonba lapak jartzen dituzten putakume hauekin, zer hostia hitz egin nahi duzu, utzidazue hementxe bertan akabatuko dudala», eta besteak jarraian erantzuten zion: «lasai, gizona, badakizu hori beranduago datorrela, lehendabizi lehendabizikoak, denerako denbora daukagu, lau egun dira.» (OAEM05)

“Gaiztoaren rola betetzen zuen polizia bat zegoen. (...) Are basatiagoa zen oraindik. Belarrira oihukatzen zizun, ahots desatseginarekin... torturatzailleak direla esaten zidan, hanka sartu nuela eta bizitza espetxean eman beharko nuela.” (OBIM07)

“Lentillak kentzeko agindua eman zidan gizona gaztea zen, gogoratzen naiz euren artean ezizenak erabiltzen zituzten, Jon... Mikel... «Ni dukea naiz [garai hartan telebistan ematen zuten telesail bati egiten zion erreferentzia] eta dukeari ez dio inork gezurrik esaten, alu zikina!» eta nik zera pentsatzen nuen «Amatxo maitea, gizon hau bestea baino zoratuago dago, eta ez da zoro eroa, zoro psikopata baizik, pertsona normalek ez dute horrelakorik egiten.» (OBAM01)

“Esaldi hori behin eta berriro, han eta hemen, errepikatzen zuten: «hilko zaitugu» eta nik sinistu egiten nuen, bai, bai. Behin eta berriro errepikatzen zuten, leloa balitz bezala. Eta beste batzuek kontatu zizutena jakinda... hau da, esaten zuten hori, egia izan zitekeela! Erraz hil zintzaketen, nire ustez hori zen... hau da, horretaz bizi ziren! Jipoitzen zintuzten

fanatismo moduko bat nabaritzen zitzaielako... eta hori euren parte da, euren buruarekin koherentea zen jendea nabaritzen zenuen, zigorrik izango ez zuen jendea, egiten zutenaz ziur zeuden, eta nik sinesten nituen... uste osoa nuen bertan hilko gintuztela.” (OAEM02)

• **Samurra**

“11 egun horietan okerrena... ez dakit, tira... hor sartu nuen... ea gogoratzen dudana... dozena erdi edo zortzi sartu gintuztenean... ziegara eraman gintuztenean tipo bat zegoen, kristoren tramankulua, eta beti zintzoarena egiten gurekin, egoera lasaitzen arituko balitz bezala... eta horrela hasi zen: «Tira C, lasai egon, hau dena pasatu egingo da». Eta hori... hori niretzako oso gogorra zen; gozo hitz egiten zuen, motel... «eta zu honekin? Eta horren lapurreta gertatu zenean?» eta... pffffff! «zer egiten zenuen zuk Julian, Benito eta Antoniorekin? Batzuk motorrean ihes egin zuten baina... eta zu, non zeunden? Handik ikusi zintuzten» eta nik: «ez, ez dut Julian ezagutzen, ez beste inor...» (...) «Julian eta Benito ezagutzen dituzu, zure inguruneak dira. Eta Antonio Tomasekin joan da.» (...) Gero, besteak basatiagoak ziren. Aurrez ohartarazi ninduten... zenbat eta kolpe gehiago jaso orduan eta hobeto. Fisikoki nahiko gogorra naiz baina... hostia!... psikologikoki...” (OAEM01)

h) Emozioen erabilera – Enpatia – Argudiaketa etikoa – Errua

Nortasunari egiten zaizkion erasoak aztertu zirenean, azterketetan agertzen den praktika ohikoenetarikoa bat agertu zen. Praktika horren bitartez argudio etiko edo moralak erabiltzen dira pertsonak familiarekiko eta inguruko jendearekiko duen errua ikus dezan. Praktika honek hainbat oinarri ditu, artean, beste batzuei egiten zaien min moralak, pertsona horiek arriskuan jartzea, edota haien-

gana zuzentzen diren akusazio edo mehatxuak. Indarkeriaz eginiko galdeketa maiz agertzen dira horrelako egoerak.

Beste kasu batzuetan, mehatxuak ETaren indarkeriaren ondorioen apelazio batekin tartekatzen dira. Horiek, galdetzailearen kezka emozionalak dira, eta sentikortasun momentuak sortzen dira, galdetzaileak arduraren minimizazioa eta atxilotuarekiko benetako kezka agertzen dituela dirudi.

51. Taula. Emozioen erabilera

[2. Eguna]. *“Moralezko tonu batean haien familiez eta nireaz hitz egiten zidaten. Beste batzuetan politikaz edo haietaz, egiten diegunaz, Ertzaintzaz... hitz egitea nahi zuten. Gai horietaz hitz egin nahi zutenean tonu lasaiago bat erabiltzen zuten, ez zuten oihukatzen eta batzuetan esaten nuenarekin barre egiten zuten. Galdeketa horren ostean lur jota nengoan. Ezin nion negar egiteari utzi, edo oihukatzeari... bortxaketaren simulazioa egin zuten galdeketa hartan.”*

[5. Eguna]. *“Torturatua izan nintzela deklaratu ote nuen galdetu zidaten. Ez nekiela erantzun nien, eta «Tira, berdin du, denek salatzen dituzue» erantzun zidaten. Kalera aterako nintzela pentsatzen zutela eta «sartu nintzen mundu hartatik alde egin» behar nuela esan zidaten, jarrera paternalista batean bezala. (...) Igotzen ari ginenean emakumezko Guardia Zibil batek nagusiak ikusi nahi ninduela esan zidan, esateko zerbait zuela. Polizia-deklarazioa egin nuen gelaren antzeko batean sartu ninduten, baina ez zegoen ezer mahai gainean. Bertan, deklarazioa egin nuenean galderak egin zizkidana zegoen. Egin beharko nukeenaz hitz egin zidan, nire ideiak izan nitzakeela ulertzen zuela baina eremu politikoan lan egin behar nuela, istiluetatik kanpo mantentzeko, bestela berriro ere bertatik pasa beharko nintzela... dena tonu paternalistan. Berak bakarrik hitz egin zuen.” (ILMW03)*

“Galderak egiten hasi ziren, eta erantzunekin zalantzak nituen nik neuk ere, hau da, hau ona al da edo ez? Esate baterako: «Espetxera jendea bisitatzera zoaz ezta?» hasieran isilik geratzen nintzen. «Bai» «Bai? Eta espetxera zoazenean badakizu pertsona hori ETAkoa dela ezta? Espetxean zergatik dauden ez al diozu sekula zure buruari galdetu? Noski, ETAkoek pertsonak hiltzen dituztelako». Denbora guztia horrela.” (MIIA02)

“Uneoro nirekin hitz egiten ahalegintzen zen gizon bat zen, itxuraz gizon zuzena zirudien, tabakoa ematen zidan, nirekin hitz egiten ahalegintzen zen, elkarrizketarako gaiak ateratzen zituen, bere bizitza kontatzen zidan. ETAk bera hiltzeko ahaleginak egin zituela, bere aita ETAk hil zuela, oso minduta zegoela, tortura ez zela existitzen esaten zidan baina modu batean haren existentzia ulertzen zuela, gauza batzuk ekidin daitezkeenean, bada, xedeak bidea zilegi egiten duela, baina hala eta guztiz ere, tortura ez zela existitzen, lasai egoteko, ez zela ezer gertatuko.” (OBIM08)

“Bertatik polizia zintzoarekin igo ninduten [hasperen egiten du]. Bulego batera eraman ninduten, bertan eseri eta nire etxeko albumekin topatu nintzen. Momentu horretan jakin nuen nire etxea miatu zutela. Polizia nirekin lagun baten moduan hitz egiten hasi zen. Egiten genuena ez zuela ulertzen esaten zidan, 1975 aurretik Unibertsitatean egiten ziren mani antifaxistetan parte hartu zuela (...) Tipoarekin hitz egiten zenuen... berez, momentu batean kotxe azpian begiratzen ote zuen galdetu nion, egoera... berriro esaten dizut ez dela egoera normalizatu bat eta momentu batzuetan burua joaten zaizu. Tipoa modu onean etortzen zitzaidan, oker nengoela eta amari egiten ari nion kaltea ikusteko esaten zidan. Nire bizitza suntsitu nuela eta gainera goikoek nitaz barre egiten ari zirela errepikatzen zidan... mota guztietako trikimailuak erabiltzen zituen eta momentu batean gelatik atera zen. Bertan bakarrik utzi ninduten eta apalategian pistola bat zegoen. Zer nahi duzu esatea, zalantzarik gabe pistola begiratzen nuen... tira, ez dira niri pistola kargatu bat uzteko bezain ergelak izango. Gainera, pistola hartu eta zer egin dezaket bertan eserita, ezer ez. Horretan pentsatzen nuen, hatz-markak eta horrelakoak... ez nintzen mugitu! Bertan gelditu nintzen, geldi-geldi.” (OBS02)

Kasu batzuetan poliziak ez du atxilotuaren inguruko informaziorik. Baina beste batzuetan, atxiloteta aurretik burututako ikerketa eta jazarpenen bidez lortutako datuak existitzen

dira. Informazio hori, batez ere mingarria bada, pertsonaren nortasuna zalantzan jartzeko eta lehen aipatutako orojakintza sentsazioa areagotzeko erabiltzen da.

52. Taula. Pertsonari buruzko informazio mingarriaren erabilera

“Psikologikoki ere tematu egiten dira. Errudun sentiarazten ninduten, senideekin, nire amarekin ere... nire amak bere buruaz beste egin zuen: horren errudun egin ninduten. Nire bizitzari buruzko datuak zituzten, gainera hori dena autoan hasi zen, bidaiari. Miaketaren osteko egunean gai horrekin hasi ziren. (...) Ni psikologikoki suntsitzen ahalegintzen ziren, nik uste hori zela gai hori ateratzeko helburua, ez zen nire kontrako akusaziorik egiteko, ni suntsitzeko egiten zuten hori... denok dakigu familia batek nola pasatzen duen horrelako egoera batean, norbaitek bere buruaz beste egiten duenean, eta nire amaren kasuan bere erabakia izan zen, baina beharbada nirekin ere lotura zuela pentsatzen hasten zara, nahiz eta badakidan ez zela horrela izan, baina horrelako momentuetan psikologikoki ahul zaude eta gai hori ateratzeak asko hunkitu ninduen. Nire amak bere buruaz beste egin zuenean 14 urte nituen, 10 urte pasa ziren ordutik baina oraindik ez nuen hura gainditu. Min asko egin zidan gai honek eta asko jolastu zuten horrekin. Geroago, bost egun horietan zehar metatu nuen min guztia atera zitzaidan.” (OBAM02)

“«Herriko inor ezagutzen ez duzunez, zure familiari buruz hitz egiten hasiko gara». Eta nire ahizpa nagusiari buruz hitz egiten hasi ziren (...) «ba orduan, Isabel da» hor ez dakit zerbait nabaritu ote zuten, tentsioak hartu ninduela-edo, baina ez dakit zenbat denbora egon ziren gai horrekin gora eta behera. Pasada bat izan zen (...) «zure ahizpak ezin hobeto betetzen du profila, gainera zu ez zarela esaten baduzu, bietako bat izan behar da; eta zu ez bazara, bera izango da» (...) orduan ahotsak entzuten nituen, denak gertuko jendearenak, eta nire ahizpa negarrez entzuten nuela iruditu zitzaidan. Horrek antsietate asko sortu zidan eta ziegan pentsatzen hasi nintzen «tira, etxeko biak baldin bagaude etxeko ez dakit zer hartu dute, argazki batzuk, ez dakit... nire amarentzako hoberena bietako bat izatea da, nire ahizpa ni baino askoz ahulagoa da, beraz hobeto nire gain hartzen badut hau dena» (...) momentu horretan «nire ahizpari ez diezaioten ezer egin» baino ez nuen pentsatzen. Nire helburua bera salbatzea zen, eta “gainontzekoa neure gain hartuko nuen” (...) orduan «zure ahizpa» eta berriro bueltaka nire ahizparekin. Momentu batean zera esan nien: «Nire ahizpa ez, neu naiz» «Ah, ikusten duzu azkenean nola atera dizugun? Gainera indarrez, hau ez zaizu debalde aterako, A aukera eman dizugu eta B aukeratzea erabaki duzu» Gauzak esaten hasi ziren eta denari baietz esan nien. (...) Gero deklarazioa sinatzera behartu zidaten. Txokolate bat eman zidaten, ez nuen ezer jan 5 egunetan.” (MIIA02)

“Galdeketa guztiak antzekoak izan ziren. Nire bikotekideari eta familiari buruz ematen zidaten informazioa geroz eta zehatzagoa zen. Duela hainbat urte ikusten ez dudan osaba baten informazioa zuten ere, horrek harritu ninduen, ez dakit informazio hori nola lortu zuten baina ezin hobeto zekiten informazioak nola sentiarazten ninduen eta horregatik erabiltzen zuten. Txiki sentiarazten ninduen eta min ematen zidan. Nire amaren inguruan galdetzen zidaten, bazekiten bakarrik bizi zela, etxe oso polita zuela, nire gurasoak zergatik banandu ziren, nire aitak ama nola tratatzen zuen. Ni eta nire bikotekideari buruz ere dena zekitelara esaten zidaten, egon ginen leku guztiak zekizkitela. (...) Oihukatzen eta iraintzen ninduten «ergela eta inozoa zara». Eta egia esan, orain horrela sentitzen naiz. Txikia sentitzen naiz, ahula. Min egiten zizkidaten galderak zekizkiten. Nire ama aipatzeak min handia egiten zidan. Nire amak ez du bizitza erraza izan eta horrelako pertsona bati nire ama eta bere bakardadeari buruz hitz egiten entzuteak beldurtzen ninduen. «Zergatik jakin behar dute nire ama bakarrik bizi ote den edo nire amaren etxeko leihoa horrelakoa edo halakoa denik?» pentsatzen nuen, edo nire ama bananduta zegoela edo... ez nuen ulertzen, banekien horrek helburu argia izan behar zuela. «Nire amaren inguruko gauza horiek guztiak helbururen batekin azpimarratzen dizkirate» pentsatzen nuen. Gainera, ni atxilotuta nengoela nola pasatzen ariko ote zen galdetzen nion neure buruari. Denok ditugu bizitzan zehar min gehiago egin diguten edo gehiago markatzen gaituzten esperientziak, eta eurek ezin hobeto zekiten non ukitu.” (ILMW01)

“«Ikusi zure gurasoek zertan egiten duten lan, zelako bizitza erritmoa daramaten eta ikusi zuk nola ordaintzen diezun.» Gero anai-arrebekin, eta iloba txikiekin, urtebete baino ez zuten baina eurekin erlazio handia genuela zekiten, nire arrebaren alabak non zeuden zekiten, eta euren bila joango zirela esan zidaten, atxilotu egingo zituztela... familia guztiaren bila banan-banan joango zirela.” (OBAM05)

“Eurek esan zuten urte eta erdi zeramatela nire atzetik. Orduan nik ez nuen ulertzen, urte eta erdi bazeramaten nire atzetik zergatik itxaron horrenbeste... zergatik itxaron ote zuten, dena aurretik baitzekiten! Orduan nire bizitza pertsonalarekin jolasten hasi ziren, nire lagunekin, nire harremanekin etab. (...) Gero eurekin zerbait izango ote nuen esaten zidaten eta batekin edo bestearekin izango ote nuen galdetzen zidaten... eta horrek min ematen dizu... eta zera errepikatzen zidaten «Ah! Beraz, Sestaora horrekin joan zinen, aparkatu ezin zen leku batean aparkatu eta gainera munipa agurtu zenuten!...» hori ikaragarria da: azkenean zuk adina dakite zure bizitzari buruz.” (OBS02)

"Nire familiari buruz asko hitz egiten zuten, nire senarrak egun osoa ematen zuela taberna batean. Bertan prostitutak omen zeudela eta senarra putazalea zela, nire semea maritxua zela eta ez dakit zenbatek egin ziotela txortan ez dakit non, gero, nire alabari buruz..." (OBAM01)

"Indautxura⁸ bidaia gogorra izan zen, oso motza zen arren luzea egin zitzaidan, nire neskalagunaren gaia atera eta ez ziren gelditu... Bera beti izan da pertsona dudatsua, eta eurek bazekiten, beraz, ziurrenik gure telefonoak zulatuta izango zituzten eta gure elkarrizketak entzungo zituzten, eta informazio hori erabiltzen zuten.

⁷⁹ Polizia Nazionalaren Bizkaiko Kuartela.

i) Traizio behartua eta atxilotuaren dilema

Pertsonak bere inguruko lagun edo ezagunei errua leporatzea da galderen helburu nagusia. Horrela, harreman sozialen galera eta

erruduntasun bizipen handiak sortzen dira eta "traizioaren" ardua biktimarengan edo "salatutako pertsonarengan" kokatzen da. Aldi berean, galdetzailearekiko sumisioa areagotzen da.

53. Taula. Traizio behartua

"Hurrengo egunean beste galdeketa batera eraman ninduten eta bertan zera esan zidaten: «Ikusi duzu ondo lo egiten utzi dizugula, lasai. Eta entzun duzu besteei ez diegula utzi». Egia da, gauean zehar pausuak entzuten ziren, itxi eta ireki egiten ziren ateak... Galdeketa lagun baten inguruan galdetu zidaten, ea ezagutzen ote nuen. Nik ezetz esan nien. Baina noski, bere grabazio bat jarri zidaten, bertan Jon ezagutzen ote zuen [aldi berean atxilotu zituzten] galdetzen zioten eta berak baietz erantzun zuen, poliziek Jon ezetz esaten zuela erantzuten zioten eta sekulako jipoia ematen ziotela entzuten zen. Bere oihuak entzuten nituen. (...) Sentsazioa nuen ni eurekin hitz egiten ari nintzela, kolaboratzen ari nintzela alegia, eta gainera bestea jipoitzen ari zirela." (JZLV02)

"Aurreko urteetan kanpoan egin nuen lan, eta beraz, erlazio gutxiago nuen herriarekin, eta herrian ezker abertzalean militatzen zuten gazteen inguruan galdetzen zidaten, eta nik ez nekiela esaten nuen: «Ez dakit»... baina ez dute sinesten, noski... Izenak behar zituztela esaten zidaten, ez dute sinesten zuk benetan ez dakizula, eta behin eta berriro... Eta orduan ito arte edo izen bat esan arte poltsa jartzen dizute buruan. Eta berriro... Eta azkenean esaten diezu, ez dakit noren laguna, edo bestearena, euren izenak badakizkidala; baina bazterrak nahasten ari naizela ez dakidalako benetan militatzen duten edo ez. Zerbait esateagatik ez dakidan jendearen izenak eman nizkien... eta horrek nolabaiteko erruduntasun sentsazioa sortzen dizu." (NLMAP03)

"Etorri eta polizia deklarazioari baietz esan nion. Beharbada ehun eta berrogeita hamar aldiz errepikatu genuen deklarazioan esan beharrekoa, eta argazkiak erakusten zizkidaten. Uste dut ez zidatela zekiten guztia esan nahi. Zerbaitetan mugitzen zen Gasteizko jende guztiaren argazkiak erakusten zizkidaten, asko publikoki ezagunak, egunkarietan agertzen zirenak, mota guztietako jende normala. (...) Deklaratzeko lekura eraman eta aurpegian nuen artilezko bufanda kendu zidaten, Guardia Zibil bat eta ofizioko abokatua zeuden. Dena zen oso zuzena, protokoloaren arabera, nire eskubideak irakurri zizkidaten.

Gutxi gorabehera eurek esan zidatena deklaratu nuen eta argazkietan agertzen zen eta nirekin bileretan egon ziren pertsonen izenak eman nizkien. Nolabait auzoetako jendea babesten babesten ari nintzela iruditzen zitzaidan, baina gero konturatu nintzen behe-behetik negoziatu nuela. Jendearentzako espetxe-urteak dira horiek. Deklaratu nuenez, gudu hura galdu nuela iruditzen zitzaidan, gaizki sentitzen nintzen neure buruarekin, arduradun eta errudun sentitzen nintzen izen horiek esan izanagatik, eta egunen batean torturak sufritu ditzaketelako, baina banekien izen horiek bazekizkitela, eta atxilotu nahi izanez gero erraz egin zezaketela. Izenena normalean erabiltzen ez dudana sinadura batekin sinatu nuen, letra larriz egin nuen... behintzat epaileari agiri hori nahita sinatu ez nuela erakusteko, nahiz eta gero ez duen ezertarako balio.” (NLMAP04)

“Argazki batzuk erakutsi zizkidaten, lehena ezertaz ezagutzen ez nuen neska batena, eta hurrengoan denak ezagutzen nituen, argazkiko pertsona bakoitzaren izena idazteko agindu zidaten. Nire lagunak onenak eta anai-arrebak zeuden, baina eurek bazekiten nortzuk ziren, hala ere, idazteko agindu zidaten. (...) Zehazki lau pertsonen izena emateko sartu zidaten presioa, lau pertsona horien inplikazioa nahi zuten, gertuko pertsonak ziren eta horrekin oso gaizki pasatu nuen, eurak akusatzea suposatzen zuelako. (...) Erruduntasun sentimendua nuen, eta hori da okerren eraman nuena, eta egun oraindik okerren eramaten dudana. Presio asko egin zidaten hori egiteko, bi pertsona akusatzeko interes berezia zuten eta orduz geroztik biak izan dira atxilotuak. Bat nirekin batera atxilotu zuten, eta bigarrena atxilotu zutenean mundua gainera erori zitzaidan, dudarik gabe... arduradun sentitzen nintzen. Teorian dena da erraza, baina... gainera atxilotzen duten poliziak berdinak direla ikusten duzu.” (OBIM10)

Atxilotuari dilema sorrarazteko galdetzaileak atxilotua ikusi ezin duen beste atxilotu baten kontra jartzen du –bikotekidea edo gertuko lagun bat gehienetan. Ustez, biek elkarrekin egin dutena aitortzeko eskatzen zaie, eta bieie esaten zaie besteak egia aitortu eta galderak erantzuten ari den pertsona bera akusatu duela.

Beraz, hainbat faktore agertzen dira: (a) bi pertsonen arteko konfiantza eta besteareki-

ko sortzen den zalantza, eta kasu honetan, erlazioan zein maila pertsonalean suntsigarria izan daiteke (b) osagai praktikoa: euren jokoan parte-hartzeari uko egin eta isiltzea (besteak deklaratzeko duen edozerekin akusatua izateko arriskuarekin), jokora sartzea (babes-modu gisa eta tratu hobea jasoko duelakoan beste pertsona akusatu) edo ardurak banatzea (norberaren gaineko akusazioa onartu eta bestea akusatzeko).

54. Taula. Atxilotuaren dilema

“Goiz horretan ordubete baino gehiago iraun zuten hiru galdeketa izan nituen, eta lekualdaketa bat arratsaldean. Galdeketa horietako tratua aurreko arratsaldearen antzekoa izan zen: guztietan zoroen modura iraindu eta oihukatzen zidaten. Hortxe, jada, Ane ere bertan atxilotuta zegoela esan zidaten. Galdeketetara eraman eta berarekin hitz egiten dutela simulatzen dute, nirekin ez daudenean berarekin daudela; eta ordenagailuz idatzitako testu bat ekarri zidaten, Anek egindako deklarazioa zela zioten eta bertan erruduna zela eta ni ETAKoa nintzela esaten zuen. Nik bere burua errudun adieraztearena ezin nuen guztiz sinetsi; ez nuen entzuten inolako galderarik egiten ziotenik, baina galdeketetara eramaten zutela simulatzen zuten.” (NLMAP01)

“Ez zen nahikoa zure burua errudun adieraztearekin, beste batzuk akusatu behar zenituen ere. Gero bat etorri eta zure kideak jadanik zu izan zinela sinatu zuela esaten zizun... eta horrela denbora guztian.” (MTRGL10)

“Halako batean nire lagun batek zerbait deklaratu zuen nire kontra, tira... eta bere kontra ere. Beraz, hurrengo galdeketa besteak esan zuenari buruz galdetu zidaten. Galdeketa gogorak izan ziren; uneoro galdetzen eta jipoitzen; ez nekizkien gauzak galdetzen zizkidaten, eta gero, jipoitzen ninduten. Gela ezberdinetan jarri gintuzten eta txandakatu egiten ziren. Berari galdetzen ziotenak gero nigana etortzen ziren, eta gero aldatu egiten ziren. Bere oihuak entzuten nituen. Suposatzen dut berak ere ni entzungo ninduela. Esaten zidatena gezurra zela esaten nien eta ez zela bera; orduan, gela berean elkartu gintuzten. Elkar ukitzen utzi ziguten baina ez ginen ikusi. Momentu horretan egia esan ez nekien... neure buruari zera esaten nion: «Izan daiteke... bere ahotsa da, baina ez dakit». Bera zen, geroago egiaztatu zidan, atera ginenean, eta benetan bera zela esan zidan. Baina momentu hartan ez nintzen guztiz fidatzen. Bere aurrean egin zizkidaten galderak. Buffffffff... Berak, negar artean, kontatzeko esaten zidan. «Nahiz eta gezurra izan, ez du inporta». Baina nik ez nuen amorerik eman, eta orduan txandak aldatu ziren, eta ez dakit zenbat denbora egon ginen bertan. Oso gogorra da kide batek «kontaiezu!» esatea, eta bertan gure artean eztabaidatzea, nik ezetz esaten nion. Hasieran honek lur jota utzi ninduen. Baina egia esan, gero, kanpoan geundela, hitz egin genuen eta berak ulertu zuen; eta ez dugu inolako arazorik gure artean. Ez diot garrantzia gehiagorik ematen.” (NLMAP02)

j) Zentzurik gabeko aginduak – Sumisioa

Azterketetan ulertu ezinezko edo zentzurik gabekoak diruditen egoerak agertzen dira. Haien artean:

- Pertsona galdeketa logika apurtzen duen egoera baten aurrean jartzen dute. Pertsonaren babesak jaitsi egiten dira, eta horrek noraezean utzi dezake jadanik gehiegizko egoera baten aurrean dagoen atxilotua.

“Egun batean kaputxa zuen Guardia Zibil bat sartu zen, kaputxa kendu eta zera esan zidan: «Aizu Juan, egia da zurekin okertu garela, hartu zure arropa eta zure gauzak, eta irten kanpora. Zure bikotekidea zain duzu». Zapatak jantzi nituen, osorik jantzi nintzen, eta atzeko atetik aterako nintzenean: «Nora zoaz putakumea?» Eta berriro hasten dira, gauza guztiekin jolasten dute.” (IGEJ02)

“Berriro buruz gora etzan ninduten; batek presioa egiten zidan gorputzarekin, besteak belarrira eta aurpegira oihukatzen zidan; egoera horretan txisteak kontatzeko agindu zidaten; hatza belarritik sartzen zidaten; ipuin bat kontatzera behartzen ninduten, hiru txeritxoena, eta pertsonaiak Ane, nire neskalaguna eta ni

ginen; eta otsoa, epailea zen kasu honetan; ipuina pertsonai horiekin kontatzeko agintzen zidaten. Nire ama zoratuta zegoela esan edo onartu behar nuen; ea zergatik zegoen zoratuta; etxean bakarrik zegoenean zer egiten ote zuen, zentzurik gabeko gauzak, eta horiek kontatzera behartzen ninduten. Bakean utz nintzaten ama zoratuta zegoela esan nien; eta nire amaren gaixotasunaz hitz egin behar izan nien, gaizki zegoenean egiten zuenaz. Momentu hartan ez zitzaidan batere gustatu amaren gaixotasunari buruz hitz egin behar izana; gaizki pasatu nuen. Horrekin barre egiten zuten eta behintzat ez ninduten lurrera botatzen edo eskuetatik heltzen. Eta tira, esan egiten nituen eta kitto [ahotsaren bolumena jaisten du]. Ez ziren euren ikerketarako gauza garrantzitsuak, baina tira, niretzako bai. [Isilik geratzen da, pentsakor] Umiliatu egiten ninduten eta galdera artean horrelakoak oihukatzen zizkidaten: «Orain “zulora” eramango gaituzu? Zeinek sartu zintuen? Komandoko kideen izen eta abizenak esan!» (NLMAP01)

Pertsonari zentzurik gabeko aginduak egiten zaizkio (esate baterako, matematika ariketak edota kaligrafia testuak kopiatzea). Jarraian,

aurrekoarekin jarraipenik izan gabe, bere burua errudun aitortzeko idazki bat osatzeko edota egiturazko gidoi zehatza duen testu bat idazteko eskatzen zaio. Pertsonaren nahasmen eta neke egoeran hori dena irreal dela ematen du, eta ondorioz, ahalik eta lasterren amaitzeko, atxilotuak agindua obeditu eta asmatutako edukiekin osatzen du testua.

Pertsonaren baliogabetzea eta galdetzailearekiko pasibotasun egoera ahalbidetzen duten estrategian dira.

55. Taula. Zentzurik gabeko aginduak: diktaketa kopiatzea

“Zentzurik gabeko diskurtso bat idazteko agindu zidaten, bertan Euskal Herriak hiru probintzia zituela esaten zuten, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, eta sokatira da bertako herri-kirola. Gero aldatu egiten zen, Arabako herri batera (Laudio) turista talde bat heldu zen, kale borrokako putakumeak... eta jarraitu egiten zuten. Argi zegoen nik hori kopiatu egin behar nuela, beste atxilotu batzuekin hitz egin ostean jakin nuen eurek ere testu berdina izan zutela. Ez zuen logikarik, gehiago torturatzeko balio zuen, herri nazkagarri bat duzula esateko. (...) Nire letrarekin idatzi nuen behin eta gero, berriz ere diktatu zuten letra larriz idazteko, gero batuketa erraz batzuk eginarazi zizkidaten eta kitto. (...) Amaitzerakoan bigarren lana egin behar nuela esan zidaten, eta nik berriz ere esan nuen paper hura ezin nuela sinatu. Sinatu ezean berriz ere hasieratik hasiko ginela esan zidaten.” (OBAM01)

“Kotoi-zotz bat sartu zidaten ahotik DNA jasotzeko. Kaligrafia proba bat egin behar nuela esaten hasi ziren, ez nekien proba horrek deklarazioarekin zerikusirik ote zuen, eta beraz, tira, egin dezagun kaligrafia proba. Beldurrez egin nuen, ez nekien zentzurik ez zuen edo nire kontra erabil zezaketen testu bat idazten ari ote nintzen... Letra xehez eta letra larriz kopiatu nuen esan zidatena. Felipe eta Joan kaletik doaz eta... hasieran ez nekien zertan ari nintzen, ea orain nire kontra erabili daitekeen zerbait idazten ari ote naizen, ez dakit, dirudienez kaligrafia proba bat zen, besterik ez. Azkenean deklarazioa egin genuen, deklarazioan, aurreko galdeketetan neure burua ez nuen erruduntzat onartu, jendea ezagutzen ote nuen galdetu zidaten eta nik baietz erantzun nien, orduan zera esan zidaten, kitto, jende horrekin kolaboratu duzu eta ETAKoa zara, nik ezetz esan nien behin eta berriz. (...) Deklarazioa amaitu eta ziegara eraman ninduten, bertara jotzen ninduen etorri eta zera esan zidan, «Zorte txarra, nagusiari ez zaio zure deklarazioa gustatu eta beraz, berriro egin beharko duzu.» (OBAM04)

“Ofizioko abokatu desastre hutsa zen... eta bere aurrean zentzurik gabeko esaldiak... testu bat idazteko agindu zidaten, Euskal Herrian ez dakit zenbat probintzia daudela, separatista hutsak garela eta... Euskadiri buruzko diktaketa, zenbat probintzia, zenbat biztanle, paisaiaren ezaugarriak, mugimendu separatista nolakoa den... Polizia-deklarazioaren ostean, argazkien azterketa egin zidaten, ezagutzen nuen jendea seinatu behar izan nuen, gero batuketa eta kenketa batzuk, eta azkenik diktaketa.” (OBIM08)

Pertsonaren baliogabetzea eta galdetzailearekiko pasibotasun egoera ahalbidetzen duten estrategian dira berriro ere. Atxilotua gauzak ahalik eta azkarren amaitu daitezzen saiatzen da, eta ondorioz, ez du ahaleginik egiten kontu horiek ulertu edo kontrolatze-

ko. Atxilotuak nahi duen gauza bakarra hori dena amaitzea da, eta sor daitezkeen arazoak etorkizunean konponduko dituela uste du. Azken batean egoera hauek, beraz, sumisioaren lagungarri dira.

8. Taldeko ikuspuntua: Atxiloketa inkomunikatu bateko galdeketa aldiak eta denbora-segida

Aurreko ataletan galdeketa zein inguruneen eraketan parte hartzen duten elementu ezberdinak aztertu ditugu. Elementu hauek ez dute modu isolatuan funtzionatzen, modu antolatuan baizik.

Datuen analisi kuantitatiboan aipatzen zen ez zegoela nabarmentzeko diferentziarik segurtasun gorputz ezberdinek erabiltzen dituzten teknika eta prozedura ezberdinen artean. Azterketen analisi kualitatiboen arabera, segurtasun nahiz galdeketa talde bakoitzaren espezifikotasunak agertzen badira ere, testigantzen analisiak argi uzten du ezberdintasun baino antzekotasun gehiago daudela Guardia Zibilak, Polizia Nazionalak eta Ertzaintzak erabiltzen dituzten metodoen artean. Adierazpen hau, gainera, modu esplizituan agertzen da segurtasun gorputz ezberdinen partetik behin baino gehiagotan atxilotuak izan diren pertsonen kasuetan:

“Hegazkinetan egoten diren antifazen antzeko bat jartzen dizute, konbentzitura nago hegazkinetako antifaza dela, beltza, ez duzu ezer ikusten, eta gainera lurrera begira egon behar zara. Eta hortik aurrera lehendabiziko atxiloketaren oso, oso antzekoa da [Ertzaintzarekin izan zen], erabiltzen duten teknika ezberdina da, baina kontu asko oso antzekoak ziren, esate baterako, ziegaren atearen atzean pertsona bat egoten da mugitzen zaren bakoitzean sartu eta oihukatzeraz, iraintzera eta jipoitzera sartzen da, atea jotzen dutenean bizkarra ematen eta lurrera begira jarri behar zara, makurtuta, atea jotzen badute, ohean bazaude, ohean etzanda egoten utzi bazaituzte, noski, altxatu eta buelta eman behar duzu, makurtu eta burua jaitsi. Eurak atzetik sartu, antifaza jarri eta galdeketa gelara eramaten zaituzte. Hori dena oso antzekoa da, diferentzia nagusia torturatzeko moduan nabaritu nuen, Guardia Zibilek asko jipoitzen zintuzten, biren artean ji-

poitu ahal bazintuzten ez zuten denborarik galtzen lauren artean postura jakin batean ipintzen. (...) Ertzaintzarekin izan nuen atxiloketaz barre asko egiten zuten, Ertzaintzaren tortura metodoez alegia. (...) Barre egiten zuten bitartean polizia-etxean [Ertzaintza] egon nintzeneko posturak eginarazi zizkidaten. Ertzaintzaz barre egiten dute, euren metodoez... dena oso antzekoa da. Batzuek mahuka zabalegia dutela da ezberdintasun nagusia. Ertzaintzak nahi duen guztia ezin duela egin da nire ondorioa. Baina funtsean ikastetxe berdineraz joan direla esango nizuke, formazio bera dute.” (MIIA01)

Aldaketa txikiak onartuz, azterketa gehiengotik –salbuespen ugariarekin– zeharka agertzen den galdeketa “egitura mota” bat zehaztu daiteke.

A. Hasiera

In-crescendo eredu. Kasu batzuetan hasiera oso lasaia da, modu adeitsuan jokatzeko lehendabiziko orduetan edo lehen egunean. Ez da inolako akusaziorik zuzentzen, ez da atxiloketaren arrazoirik zehazten eta izaera orokorra duten galderak egiten dira. Horrela, galdeketa oldarkortasuna pertsonaren eta taldearen arabera modu mailakatuan pertsonak bere burua lehenago edo beranduago errudun adierazi arte (kasu gutxitan) areagotzen da. Hori gertatzen ez denean, jarrera oldarkorra atxiloketa egun guztietara hedatzen da. Momenturen batean galde-tzaileek ulertu egiten dute ikertzen ari diren erakunde edo ekintzei dagokienez pertsonak ez duela inolako parte-hartzerik, edo bere parte-hartzea uste baino txikiagoa dela.

56. Taula. In-crescendo eredia

“Galdeketa guztiak modu erabat adeitsuan hasten ziren: «Zerbait nahi duzu? Coca-Cola? Pizza? Nahi duzuna ekarriko dizut». Eta horren ostean jada hasi egiten ziren, ez dakit zer eta badakit zer egiten nuela. Hortxe polizia gaiztoaren papera agertzen zen, nire familiari mehatxuak egiten hasten zen, kalte egingo zietela esaten zuen.”(JZLV05)

“Heldu nintzenean tratua oso zuzena izan zen. Heldu bezain pronto, galdeketa gela batera eraman ninduten, bertan 15, 20 edo 30 minutuko solasaldia izan nuen, ez dut gogoan, eta bertan zergatik ote nengoen galdetzen zidaten, zer moduz nengoen, bertan egoteko modu ezberdinak zeudela... eta mediko forentsearen aurrera eraman ninduten. Bertatik bueltatu nintzenean tratua erabat aldatu zen. Hortik aurrera oihuak, kolpeak, presioa, mehatxuak... eta horrela lau egunetan zehar. Goiz, arratsalde eta gau, ez dakit zehazten.” (MIIA01)

“Bertatik lehen galdeketara joan ginen eta bertan... tira, nirekin jatorra zenak txistu egiten hasi eta buruan zaplaztekoak ematen zizkidan. (...) Galdera arrunt eta garrantzitsuak txandakatzen hasi ziren... «Nortzuk dira zure lagunak, nola deitzen da zure osaba?». Egia erantzuten ote nuen jakin nahi zutela uste dut, nik guztiari erantzuten nion. (...) Dilema etiko eta moralak aurkezten zizkidaten... ni, medikua izanda, Bosniara Guardia Zibilarekin joango ote nintzen. (...) Gero bidaia hasi zen. (...) Galdeketa kotxean hasi zen, eta galderak egiten hasi ziren. (...) Galdera orokorrekin hasi ziren, lagunak... eta ni blokeatuta nengoen, izenekin oso txarra naizelako. Txarra naiz nire pazienteen izenekin ere. Uneoro nire sentimenduekin jolasten ari ziren, aurrean apur bat nagusiagoa zela zirudien bat zegoen, «Tira, jakingo duzu enpatia izatea zer den, ez gaitzazu haserretu, orain kidetzen ari gara, enpatia izaten ari gara, besterik ez». (...) Gero, [Madrileko atxiloteta gunera heldu zirenean] kontua serioago jarri zen. Paretaren kontra jarri ninduten. (...) Euretako bat... beti lizunkerietan, «txikituko zaitugu, bost egunez izango zaitugu hemen zurekin nahi duguna egiteko».” (MNEG04)

Uholdearen eredia. Beste kasu batzuetan, akusazioak larriagoak edo leporatzeko informazio gehiago dagoenean, egoera ol-darkorra da lehendabiziko momentutik, eta atxilotetaren momentu beretik edo bidaiatik aurrera indarkeria fisiko handiko teknika erabiltzen da. Galdeketarekin hasten denean, hasiera-hasieratik galdetzaileek larritasun

handiko akusazioak formulatzen dituzte. Hortik aurrera galdeketak gora egiten du eta teknika fisiko edo psikologiko ezberdinak erabiltzen dituzte pertsonaren “hondamena” lortu eta atxilotuak erruduntasuna onartu arte. Erruduntasunari dagokionez ez da zalantzarik onartzen.

57. Taula. Oldarkeria hasieratik edo uholdearen eredia

“Hasieratik hau edo bestea ezagutzen ote nituen [galdetu zidaten], bonba-autorik ipini ote nuen, norbaiti tiro egin ote nion. (...) Horrelako gauzak egin ditudala esaten didate, eta nik ezetz esaten diet. Ezetz esan bezain laster, makil forratuekin hiru edo lau aldiz jotzen ninduten. Gero berriro ere galdetzen zidaten. Groggy nengonean gelditu eta hainbat gauzari buruz galdetzen zidaten, koadrila, familia, Gasteizko Alde Zaharrean zein tabernetan poteatzen ote nuen, zerbitzariak, lanarekin zerikusia zuten kontuak, politika, ikastolak, gaztetxeak.” (ILMW02)

“Galdeketak egiten zituztenean normalean lau pertsona izaten ziren. Zure aurrean aurpegia ematen zuen tipo bat eta aurpegia estalita zuen beste bat zeuden, eta atzean aurpegia estalita zuten beste bi. (...) Normalean aurpegia agerian izaten zuena etorri zen zeldara, bera nagusi modukoa zen eta paper bat ekarri zidan, lepotik hartu eta atzera bota ninduen: «Aizu... kaka zure ama putakumeari, ez duzu ezer sinatu nahi». Bi zaplazteko eman eta lurrera botatzeko agindu zidan, gainera 1,50 neurtzen zuen nazkagarriak, (...) lurrera botatzeko agindu eta nire gainean zutik jarri zen, oraindik ez zidaten inolako galdeketa egin bertan. Eta hori dena nire nortasun agiria, kordioak eta horrelakoak atxikituko zituztela zioen papera sinatu ez nuelako...” (JZLV04)

“Gero jada galdeketak hasi ziren, eta lehenengo aldia eserita ere egon nintzen, ez dakit, modu normal batean, orain nagoen moduan. Nire aurrean bat eseri zen, eta beste bi atzean, aurrekoak ez zuen aurpegia estalita ez ezer eta zera esan zidan: «50 sabotaje osaturiko zerrenda bat duzu hemen, Uribe kostan, Berangon, Getxon... gertatu direnak. Aipatu horien artean parte-hartu duzun 10 ekintza, eta gainontzekoak barkatuko dizkizut» Nola? Baina ez dut ezer egin. «Tira, tira, elkar ezagutzen gara... ez gara inozoak, tira. Jarri itzazu txikienak... eta denak pozik». Ez, ez. «Ez? Ongi da...» (JZLV04)

“«Jende gehiago atxilotu dugu, ba al dakizu nor gehiago atxilotu dugun? Ez. Nola jakingo dut? Ez dakit ni zergatik atxilotu nauzuen ere... Nola ez duzu jakingo?, zure komandokoak atxilotu ditugu, baina ze komando? (...) Nik ez daukat honekin inolako zirikusirik... ez dut sekula ETAn militatu». Tipoa tematuta, komando batean egon naizela benetako kontua izango balitz bezala. Flexioak egiteko agindu zidaten, haiek nahi zutena ez nuenez erantzuten flexioak egiteko agintzen zidaten, eta denbora asko eduki ninduten bertan flexioak egiten (...) eta buruan zaplaztekoak ematen zizkidaten, eskuak zabalik, noizean behin kolpe bat ematen zizuten.” (MNEG02)

B. Bitarteko saioak

Iraupen luzeko galdeketak isolamendu eta hausnarketarako aldiekin tartekatzen dira, eta horren arabera eredu ezberdinak agertzen dira. Galdeketa txandak egiten dituzten taldeak deskribatzen dira.

Atxilotuek deskribatutako saio estandar batean:

- Lekua txikia da, altzariak eta objektuak daude.
- Pertsonari ez zaio ikusten uzten (kaputxa, etab.)
- (a) Anoxia, etengabeko kolpeak, loaldien gabezia, oihuak eta abarrek osatzen duten estrategia orokorra eta (b) mehatxu zein kolpe txikietatik hasi eta izu-ikaran amaitzen duen progresioa agertzen dira.
- Gelaren barruan hainbat galdetzaille daude (bi gutxienez, kasu batzuetan hamar

ere deskribatzen dira, hiru edo lau da batez bestekoa).

- Modu koordinatuan aritzen dira. Testigantza batzuetan gidari lanak egiten dituen pertsona bat agertzen da (eta ez da ezinbestean galderak egiten dituen), beste batean jarraibideak idatziz ematen ditu eta beste batzuetan aldaketak edo ekintzak adierazteko keinuak erabiltzen ditu.
- Aurrez prestatutako egoera, antzezpenen edo grabaketen testigantzak daude. Elementu hauek aurretiaz eginiko prestateta eta logistika behar dute, eta oro har, ez dira errepikatzen.
- Erabiltzen diren tekniken artean honako hauek dira testigantzetan gehien agertzen direnak: (a) derrigortutako biluztasuna, izaera sexuala duten umiliazio edo irainak (b) emozioen manipulazioa eta erruduntasuna familiarekiko (d) informazio nahasgarria eta

Galdeketak behin eta berriro errepikatzen dira, galdetzaileek deklarazio ofiziala egin daitekeela uste duten arte.

bereziki maximizazioaren erabilera (d) trazio behartua.

- Erabiltzen diren metodoetan atxilotuarengan sumatzen denaren arabera haultapena eta progresioa dago. Tekniken progresioa ez da beti berdina, galdetzaileek pertsonaren arabera momentuan bertan erabakitzen dute, pertsonaren hondorapen puntua non dagoen aztertu eta galdetza haren beldurren arabera eraikitzen dute.
- Galdetzaileek rol ezberdinak hartzen dituzte (nagusia / sadikoa / enpatia duena / guztiahalduna...)
- Badirudi galdeketek inkomunikazioaldiaren arabera denbora-segida zehatzak jarraitzen dituztela, hau da, prozesua burutzeko galdetzaileen taldeak duen muga legalaren arabera.

"Bigarren gauean nire harrokeria erabat desagertu zen... galdeketan bertan bi emakume eta bi gizon zeuden eta haietako batek tontokeriak amaitu zirela esan zidan, orain benetakoaren txanda zetorrela. (...) Beste gela batera eraman ninduen, eta bertan, jada, polizia gutxi zeuden. Eta... aulki batean eseri ninduen eta aulkiari kolpeak ematen hasi zen... niri ere kolpeak ematen zizkidan buruan liburu batekin... belarran ere... eskuetan poltsa bat jarri eta zera esan zidan: «ba al dakizu hau zertarako erabiltzen dugun?» Eta hortxe jada poltsa egiten hasi ziren."(OBS03)

"Momentu batean deklaratzera joango ginela esan zuten arte... eta nik esan nien, lbai naizela eta arkitektura ikasten dudala deklaratuko dut... ziegara eraman eta ordu erdira berriro eraman ninduten eta hori... fisikoki oso gogorra izan zen... bertan izan zen pistola buruan jarri zidaten lehendabiziko aldia, lurrean botata nengoan saihesten aldetik eta berak belau-na nire gainean zuen... oso gogorra izan zen... pentsatzen nuen... erabat izututa nengoan." (OBS05)

"Hirugarren edo laugarren egunetik aurrera oldarkoragoak izan ziren, ez dakit zergatik. Baita zeldara nirekin etortzen zena ni birrintzen hasi zen, fisikoki baino gehiago modu psikologiko batean, 15 minuturo edo etorri eta nire burua birrintzen hasten zen. (...) Nire neskalagunarekin hasi ziren, antsietate krisi batek jo eta ospitalera eraman behar izan zutela. Eta zerbait esaten banuen bakean utziko zutela. Eta hirugarren edo laugarren eguna izan zen ni birrintzen ahalegindu ziren azken eguna, beste polizia-etxe batera eraman aurretik." (MNEG03)

D. Aitortzak – Akusazioak – Norberak bere burua errudun adieraztea

Galdeketak behin eta berriro errepikatzen dira, galdetzaileek deklarazio ofiziala egin daitekeela uste duten arte. Testigantza ia guztien arabera, deklarazioa buruz ikasi behar izaten dute.

58. Taula. Epaillearen aurrean egin behar den deklarazioa buruz ikasi

"Galderak egiten hasi ziren, polizia-deklarazioan egin zizkidaten berdinak, eta nik galdeketetan erantzun nituen gauza berak erantzuten nituen. Deklarazioa hartuko zidatela esan zidaten eta ondorioz erantzun guztiak ongi azaldu behar nituela, haiiek ez zirela galdeketetan egon, eta beraz, ez zekitela ezer. Gora igo ninduten eta bidean zera esan zidaten, ezin nituela inolaz ere nagusien aurrean egoera txarrean utzi, oraindik ere denbora zeukatela etab. Aurpegietara gehiegi ez begiratzeko ere aholkatu zidaten, ez zutela atsegin. Polizia-deklarazioa egin genuen gela mediko forentsearen pasillo berean zegoen, gela txikia zen, karratua." (ILMW03)

"Momentu hori izan zen gehien... leihoa irekita zuten eta bertatik botako nindutela esaten zidaten, istripu baten moduan aurkeztuko zutela. Gero, zeldara eraman ninduten eta galdeketa berriz ere. Galdera asko egin zizkidaten eta erantzuna azaltzen zidaten, galdera bakoitzaren erantzuna errepikatzeko agindu zidaten, horrela galdera sorta oso batekin eta horren ostean zera esan zuten: «Tira, orain deklarazio bat sinatuko duzu, eta asko komeni zaizu orain aipatu dugun moduan erantzutea.» (MNEG02).

"Zuri buruz dakitenaren arabera prestatzen dute, eta eurek nahi dituzten erantzunak errepikatzeko agintzen dizute. Gauza batzuk galdeketetan deklaratu nituen kontuak ziren, eta beste batzuk ez. Polizia-deklarazioa buruz ikastera behartzen zaituzte: «Nik zera galdetzen dizudanean, orduan erantzun behar duzu». Horrela prest egon nintzen arte. Eta abokatu gisa aurkezten den gizon baten aurrera eramaten zaituzte. Gizonak ordenagailua dauka eta galdera berak egiten dizkizu, eta sinatzeko esaten duzu; baina ez nuen sinatu, nahiz eta hori deklaratu, ez nengoen ados. «Ez duzu sinatuko? Tira... zuk zuriz dauden paperak ere sinatzen dituzu!» Eta beraz, berriro biluztu ninduten; ariketa fisikoak; eta horrela sinatzen duzun arte." (NLMAP03)

"Hori, jada, gehiago gustatu zitzaien eta orduan itxura guztiekin hasi ziren, galdera-sortarekin hasi ziren, «erantzun, ez, ez, hori... ea, lehenago esan duzun moduan» antzezpena. Hau da, aurretik esan nuena hitzez hitz eurek galdetu eta nik erantzuten moduan ikasi behar nuen, eta horrela ordu asko, asko eman genituen. Amaiezina, amaiezina da behin ikasi ostean... berriro ere dena berdin-berdin adierazi behar nuelako. Beharbada galdera bat egiten dizute, hitz egiten duzu eta galdera berriro egiten dizute, eta noski, berdina esatera zoaz baina agian beste modu batean esaten duzu, eta ez, eurentzako horrek ez du balio, izan ere hori ez duzu esan, hau, hau, hau eta hau esan behar duzu, oso zehatza da dena. Galdera hau da, eta erantzuna beste hau. Horrela denbora luzez." (OBIM06)

"Eurek bazekiten jada nire kontra irabazi zutela. (...) Gero polizia-deklarazioa prestatzen aritu ginen, galderak eta erantzunak esaten zizkidaten, ikasteko moduan errepikatzen dituzte. (...) Gogoratzen dut horrekin geundenean buruan musika entzuten nuela eta kantatu egiten nuela, gustuko nuen musika zen. Gogoan dut justu La Mala Rodriguezen abesti bat abesten nuela, bere disko berri bat atera behar baitzen. (...) orain hura ikusi eta burutik sano ez nengoela diot, bertan abesten... ez dakit (...) «zer ari zara abesten?» esaten zidaten, eta ni ahapeka abesten." (MNEG01)

E. Amaiera deklarazioaren ostean

Batzuetan galdeketak epaillearen aurretik pasa ostean amaitzen dira. Inoiz fidantzapeko edo fidantzarik gabeko askatasuna lortzen du atxilotuak, baina lagin honetan behintzat,

kasu gehienetan espetxe prebentibora igerotzen dira.

Amaierako elkarrizketa bat deskribatzen da testigantza batzuetan, adiskide-tonuan, eta bertan jada dena amaitu dela esaten diote

atxilotuari, ez zegoela beste biderik eta etorkizunerako kontsolamendua, harremana edo kolaborazioa eskaintzen diote. Elkarrizketa

hau surrealismoaren beste adierazle baten gisa bizi dute atxilotuek.

59. Taula. Amaierako elkarrizketa

“Azkenengo eguna kenduta, egun horretan nire lagun egin nahi zutela iruditu zitzaidan. Nik uste kontu psikologikoa dela, hau da, lau egunetan zehar zu txikitzen ahalegintzen dira eta bostgarren egunean... aho-zapore onarekin utzi nahiko bazintuzte bezala. «Tira, ez dira horren gaiztoak» esateko moduak. Esaten zizuten zu zinela eurak horrela funtzionatzera behartzen dituen, «ea pentsatzen duzun egiten dudana egitea gustatzen zaidala!» zioten, nik baietz esaten nien, eta asko haserretzen ziren, azken egunean horixe, jan dezazun nahi dute, dutxa har dezazun... azken egunean aurrez galdeketak egin zituztenetako sei gela batean sartu ziren nirekin batera hitz egitera, zer moduz nengoen galdetu zidaten... nik uste amaieran nahi dutena zera dela, horren... horren gaiztoak ez direla erakustea... nik ezin nuen guztiz ulertu... kezkatzen direla dirudi eta... oso harrigarria iruditzen zaizu. Gauza bitxia da.” (MIIA01)

“Polizia-deklarazioaren ostean tratua errotik aldatu zen eta nirekin jatorragoak izaten hasi ziren. (...) Aldaketa hori nabaritu nuen, zoramenetik, deklaratu eta sekulako aldaketa. Ea pentsatu nuen galdetzera etortzen zen hori, alde batetik bestera eramaten ninduen, paretaren kontra jartzen ninduen, gaiztoen artean ona zena nolabait esateko; horrek zera esan zidan: «Sinesten zaitut». Eskua eman zidan, zaplada eman zidan bizkarrean, oso modu adeitsuan, eta nire ondoan eseri zen... sentsazioa duzu eskerrak eman behar dizkiozula, zerbait zor diozula. Momentu hori arraroa suertatu zitzaidan, onartzeko zaila. Ez dakit zertarako edo zergatik esan ote zuen. Bat-batean oso jatorra da, oso laia; lekuz kanpo uzten zaitu. Gainontzekoak urrun mantentzen ziren. Zera esaten zidan: «Badakit esaten duzuna egia dela». Goretsi egiten zintuen, «oso ondo egin duzu»; eta zuk ez zenekien zergatik esaten ote zizun ondo egin zenuela, ez dakit zenbat egun daramatzazu bertan zentzurik gabeko gauzak esaten, eta eurek badakite. Bat-batean tratua erabat aldatu zen; berarekiko eta eurekiko nuen pertzepzioa aldatu zen; uste dut jokoaren parte dela hori; eta ematen du zer edo zer zor diezula. Ez dakit... ez dakit nola azaldu... Gero Aitor izeneko bat aurkeztu zidaten, txanda gogorrenetako kidea zen, eta kalera irtenez gero, berak poliziarekin kolaboratzeko deituko zidala. Betidanik ezagutuko banindu bezala tratatzen ninduen, Aitor aurkeztu zidan: «Aizu, nahi baduzu, egunen batean deituko zaitu, eta nahi duzuna kontatu ahal diozu.» Berak konfiantza duela nigan, eta egunen batean poliziarekin hitz egin nahi badut, Aitorrekin hitz egin dezakedala.” (NLMAP01)

“Ilgande arratsalde-gau partean emakume bat eta gizon bat sartu ziren nirekin “hitz egitera”. Antzerkiari buruz aritu ziren, “deskonektatzeko” ahaleginetan antzerki-lan bat ikustera joan zirela esan zidaten. Hitzaldi biktimista batekin hasi ziren: haientzako ere egoera horiek gogorrek zirela, ordu asko ematen zituztela jarraian lanean etab. Baina torturak justifikatzen zituzten, euren kideak edo eurak ez hiltzeko informazioa eskuratzeko modu bakarra zela esaten zuten. Elkarrizketa surrealista izan zen, ni erabat harrিতa nengoen, eta badaezpada ere adi egoten ahalegintzen nintzen. Hala eta guztiz ere, erabat lekuz kanpo utzi ninduen horrek. Epaileri ere horrela adierazi nion, lehendabiziko hiru egunetan tratua basatia izan zela eta azken egunean modu egokian tratatu nindutela, baina egia esan ni umiliatzen ari ziren. Gatazkari buruz nuen iritzia galdetzen zidaten, «ah, egia, zuek horrela deitzen diozue» esaten zidaten, Gaztetxeaz hitz egin genuen, Gasteizko nire pisuaz, musika taldeez... elkarrizketa lagunaren artean izan dezakezun elkarrizketa baten antzekoa izan zen. Tarte batean zehar beste bat egon

zen gurekin batera. Bidaiei buruz hitz egin genuen ere, nire argazki guztiak zituzten eta beraz gai honekin eta beste batzuekin ez nuen gehiegizko paranoiarik. Bi ordu edo eman genituen hizketan.” (ILMW03)

“Polizia-deklarazioaren ostean eta ziegan denbora luzez egon ostean beste galdeketa batera eramateko atera ninduten. Polizia berriak ziren, aurretik ez nintzen sekula eurekin egon. Mahai bat, bi aulki eta ordenagailu bat. Aurpegi irribarretsua zuten bi gizon gazte zeuden. Esertzeko esan zidaten. Bat nire aurrean eseri zen eta bestea mahaiaren izkina batean. Zerbait edan nahi ote nuen galdetu zidaten: Coca Cola bat, garagardoa (...) lasai egoteko esan zidaten, eurek ez zituztela aurrekoek erabiltzen zituzten metodoak erabiltzen, ez zutela inolako notarik hartzen eta ez zutela ordenagailua erabiltzen. Ordenagailua itzalita zegoela erakutsi zidaten eta metodo berriak aipatu zituztenean ikaratu egin nintzen. Orduan oihuka hasi nintzen, deklarazioa egin nuela, zer nahi ote zuten, eta nirekin akabatu nahi bazuten, behingoz egin zezatela. Bat-batean atea ireki eta kaputxa zuen beste bat sartu zen, eserita zeuden bietako bati atera hurbiltzeko esan zion. Ez dakit zertaz hitz egin zuten, dakidana zera da, bertatik alde egiteko esan zidatela. Beste biak ez zeuden ados ni joatearekin, eta altxatu nintzenean haietako batek zera esan zuen: «Bai, eraman ezazu hemendik, bestela beharbada paretaren kontra buruarekin kolpeak ematen hasiko da, besteak egin duen moduan.» (ILMW01)

Hondamen momentuetan eta erruduntasuna lantzen ari den testuinguruetan pertsona batzuei etorkizunean poliziarekin kolaboratzeko aukera eskaintzen zaie:

“Gau osoan lo egiten utzi zidaten, eta gero galdeketa lasaiagoak izan ziren: jendea ezagutzen ote nuen, egoera politikoa eurek nola ikusten zuten aipatzen zuten, borroka armatuari buruz pentsatzen nuenaren inguruan galdetu zidaten. Horren ostean kolaborazioa eskaini zidaten, eurak “frente sozialekoak” zirela eta barneko informazioa ez zitzaizela interesatzen, tabernetan jendeak hitz egiten zuenari buruz jakin nahi zutela... taberna bateko elkarrizketa zirudien. Euren telefono zenbakia idatzi zidaten jertsearen etiketan. Nik kontu harekin jarraitzen nuen, horren inguruan hitz egiten bazuten behintzat... eta zera pentsatzen nuen «hemendik ateratzen naizenean, ez nauzue sekula berriz ikusiko.» (NLMAP04)

“[Polizia] «Deklarazio batzuk egin dituzu jada, nahikoa duzu, egin dizkizugun jarraipenekin bihar bertan joango zara espetxera; baina ondo portatzen bazara deiren bat egin dezakegu, eta bihar kalean egon zaitezke.» (OBIM10)

1. Eranskina. 45 azterketetan agertzen diren tortura teknika ezberdinen maiztasuna Istanbulgo Protokoloko sailkapenaren arabera, atxiloketa inkomunikatuaren urteekin batera

60. Taula. Istanbulgo Protokoloetan deskribatutako tortura teknikak atxiloketa urtearen arabera*

	Urteak							
	2009-2011		2003-2008		2002 edo lehenago		Guztira	
	z	%	z	%	z	%	z	%
Kolpeak objektu mingarriekin.	7	63,6	5	62,5	15	75,0	27	69,2
Behartutako jarrerak, esekitzea, ariketa fisiko nekagarriak.	9	81,8	7	87,5	15	75,0	31	79,5
Talka elektrikoak.	1	9,1	0	,0	6	30,0	7	17,9
Asfixia lehorra (kaputxa) edo hezea (ura).	4	36,4	5	62,5	11	55,0	20	51,3
Lesioak zapalketagatik.	1	9,1	0	,0	1	5,0	2	5,1
Biluztasun behartua.	4	40,0	6	75,0	5	25,0	15	39,5
Sexu irainak.	2	18,2	5	62,5	8	40,0	15	38,5
Bortxaketa	0	,0	3	37,5	0	,0	3	7,7
Atxiloketa baldintzak, zelda txikiegiak edo jende gehiegirekin, higieze, komunen gabezia, irregulartasunak elikagai zein edarien ordutegietan, ura edo elikagai kutsatuak, tenperatura aldaketak etab.	5	45,5	4	50,0	11	55,0	20	51,3
Zentzuen estimulazio ohikoaren ukazioa (soinuak, argia, denboraren zentzua, isolamendua, zeldako argiaren manipulazioa, loaldien, elikagaien, edarien, komunen, bainuen edo mugitzeko ekintzen murrizketa.	11	100,0	8	100,0	20	100,0	39	100,0
Harrera mediko egokia izateko aukerarik ez.	2	18,2	4	50,0	9	45,0	15	38,5
Hitzeko umiliazioak, edo ekintza umiliagarriak.	9	81,8	7	87,5	20	100,0	36	92,3
Heriotza mehatxuak, kalteak familiari, tortura berriak, espetxea.	11	100,0	6	75,0	17	85,0	34	87,2
Exekuzio simulazioak.	2	18,2	2	25,0	1	5,0	5	12,8
Pertsona desorekatzeko teknika psikologikoak (behartutako traizioak, babesgabetasuna, egoera anbiguoak, mezu kontraesankorrak) (zehaztu: tabu erlijioso edo beste motakoen bortxaketa)	10	90,9	6	75,0	19	95,0	35	89,7
Arriskuen esposizioaren bidez, beste pertsona bati traizioa egiteko indukzio behartua.	6	54,5	2	25,0	4	20,0	12	30,8
Beste batzuen kontra burutzen ari diren tortura edo bestelakoak ikustera edo oihuen grabazioak entzuteko indukzio behartua.	6	54,5	5	62,5	14	70,0	25	64,1

* Ez dira jaso dokumentaziorik ez duten teknikak.

2. Eranskina. Metodologia. Testigantzen hautapenerako bilaketa terminoen Thesaurusa

61. Taula. Thesaurusaren bilaketa terminoak	
Istanbulgo Protokoloaren Atala	Teknika espezifikoaren proposamenak – Euskadiko kasua – Thesauruseko terminoak
Eraso fisikoak oinarri dituzten teknikak (momentuz Istanbulgo Protokolotik moldatutako eskemarekin jarraitzen dugu)	
PE-1- Objektu mingarrien eraginez sortutako traumatismoak, ukabilkadak, ostikoak, zaplaztekoak, zigorradak, kolpeak borra edo alanbreekin, edo erortzeak	Kolpeak (163+33+17), Jo (42+30), Ostikoak (30), Hostiak (21+20), Ukabilkadak (20), Zaplastekoak(13), Zigorradak (8)
PE-2- Jarrerarekin zerikusia duen tortura, hala nola, zintzilikatzea, gorputz-adarren luzaketak, mugimenduak luze mugatzea, behartutako jarrerak. Behartutako ariketa fisikoa	Flexioak (22) Gorputz jarrera (40) Behartua (134), Eskuburdinez lotua (31+21-17), Pikotxean (14), Ariketa (14), Eseri eta altxatu (13)
PE-4- Talka elektrikoak	Elektrodoak (34), Kableak (10), Deskargak (9)
PE-5- Asfixia, metodo hezeak (toalla hezeak, water boarding...) edo lehorrak (poltsak, bestelako objektuak). Ito, arnasa estutu, edo asfixia sortzen duten substantziak erabiltzea	<i>Asfixia lehorra:</i> Poltsa (148), Asfixia (32), Arnastu (26) Itotasun(14) <i>Asfixia hezea:</i> Bainuontzi (33) + Balde Ez da barnean sartzen: Begietan maskara (104), Txanoduna (37+16), Buruestalkia (19)
PE-6- Lesioak zapalketarik, hatzen zapalketa edo bizkarrean zein izterretan lesioak eragiteko objektu astunak	- Aplast-eko kasu bat ere ez - Mantak (33+12) + Koltxoi
PE-11- Behartutako biluztasuna PE-12- Genitalei dagokien sexu indarkeria PE-13- Bortxaketa (genitalak edo objektuak erabiliz sarketa partziala edo osoa)	Putza (57), Biluztasuna (17+20+11), Indarkeria (40), Sexuala (15+13), Bortxaketa (17+10), Bularrak (14+12), Mehatxu (26), Irainak (23), Ipurdia (20), Makila (18), Genitalak (17), Barrabilak (16), Erregela (15), Purtzikapenak (14), Txotxoka (10), Txakurra (10), Alua (9), Titia (3), Hileko (2)
PE-14- Tortura farmakologikoa, substantzia toxikoak, botika lasaigarriak, neuroleptikoak, paralizatzeko substantziak, etab.	Botika (...), Pastila (), Drogak(), Injekzio ()
PE-15- Atxiloketaren muturreko baldintzak, zelda txikiegiak edo jende gehiegirekin, higienearen aurkako baldintzak, komunen gabezia, elikagaien eta uraren administrazio irregularra edo elikagai eta ur kutsatuak, tenperatura altuak	Zeldak (184+30), Ziegak (141+44), Lurzorua (99), Espetxea (98), Gela (76), Komuna (73), Erropa (55) Txikia, Tamaina, Estua, Zemento, Ezer ere ez Antihigienikoak (22), Naska (14), Zikinak Elikagaiak (49), Jan (34+23), Edan (24), Egarria Tenperaturak (15), Hotza (15+14), Beroa, Izardia, Usaina Lo (50), Lo Egin, Iluntasuna Erlojua (14), Denboraren Zentzumena (54) Isolamendua (63), Bakarrik, Bakardadea, Inkomunikazioa (53)

Istanbulgo Protokoloaren Atala	Teknika espezifikoaren proposamenak – Euskadiko kasua – Thesauruseko terminoak
PE-16- Zentzumeneren estimulazio normalaren ukapena, hala nola, soinuak, argia, denboraren zentzua, isolamendua, zeldako argiaren manipulazioa, loaldiak galaraztea, elikagaiak, ura, komunak, mugimendu ekintzak	Argia (109), Zentzumen (42), Ukapena (42) Zarata (30), Soinuak (30), Oihuak (28+24+108+31)
PE-17- Egokia den arreta medikoaren gabezia	
PE-18- Hitzeko umilazioak edo ariketa umiliagarriak egin beharra	Umilazioak, Ariketa umilgarriak (43+10), Amorrua (15), Inpotentzia (13)
PE-19- Heriotza mehatxuak, kalteak familiari, tortura berriak, espetxea PE-20- Exekuzio simulazioak	Beldurra (178), Mehatxuak (150+17+24+9), Tentsioa (62), Heriotza (41), Antsietatea (31), Shock (14), Ikara (12), Ikaratuta (8), Izadura (8)
PE-22- Pertsona desegituratzeko teknika psikologikoak, hala nola, behartutako traizioak, babesik eza, egoera anbiguoak, mezu kontraesankorrak	Babesgabatasuna (26)
PE-23- Beste pertsona batzuei tortura edo abusuen bidez kaltea egiteko beharra eragitea, jabetzak suntsitzeko beharra eragitea, beste pertsona bati traizioa egin eta hura arriskuen aurrean jartzeko beharra eragitea	
PE-24- Beste batzuen kontra burutzen ari diren tortura edo bestelako basakeriak ikusi edo entzuteko beharra eragitea (edota oihu, musika eta abarren grabazioekin)	

Thesaurusaren erabilerari esker atxiloketa mota hauetan erabiltzen diren tortura mekanismoen ezagutza kultural handiagoa eskura daiteke, eta praktika basati hau sufritu duten pertsonekin etorkizunean tratamenduak edota interbentzioak egiteko aberasgarria izan daiteke, bai eta asistentzia honetaz arduratuko diren profesionalen formaziorako ere. Istanbulgo Protokoloak dioen moduan, testuinguru bakoitzean erabilitako alderdi kultural zein metodoak ezagutzea garrantzia handikoa da geroago testigantzen balorazio eta interpretazio egokia egin ahal izateko.

Atxiloketa inkomunikatuan segurtasun indar bakoitzak erabiltzen dituen metodo guztiekin egin den lan zorrotza baliagarria izateaz gain, geroago aztertuko diren hainbat ondorio eragin ditu. Lan honek ez du aurreka-

ririk orain arte testuinguru honetan egindako ikerlanetan, eta ondorioz, garrantzitsua da inkomunikazioaren ostean, epe motzean zein luzean, sortutako ondorio psikologiko zein psikiatrikoen sailkapen zorrotza egitea. Horiek Istanbulgo Protokoloak zehaztutako irizpideen arabera aztertu behar dira, eta gainera, Bizi Inpaktuaren Baloraziorako Galdeketa (VIVO) kontuan hartu behar da gertakari traumatikoen aurretik eta ostean norbanakoa zein mundua hautemateari buruz subjektuak duen moduaren inguruan sakontzeko.

5. atala.

Ondorio medikoak

Benito Morentin Campillo.

Dokumentatu ahal izan diren tratu txarren alderdi medikoak aztertzen dira atal honetan. Informazio gutxi dago eta gainera zatikatuta dago.

Alde batetik, testigantzek erakusten duten moduan, azterketa mediko-forentseak egiteko prozeduran ez dira behar adina babes neurri hartzen. Horren ondorioz, zaila da gertaeren osteko dokumentazioa biltzea. Beharrezkoak diren babes neurri horiek ez hartzea, tortura metodo potentzial gisa kontsideratzen du Istanbulgo Protokoloak. Atalaren lehenengo zatia horri eskainiko diogu.

Jarraian 45 azterketetan agertzen diren tratu txarren aztarna fisikoen testigantzak aztertuko dira. Kasu gehienetan ikus daitezkeen aztarna fisiko gutxi uzten dituzten tratu txarrak agertzen dira aztertuen adierazpenean, eta ondorioz, erreferentzia gutxi daude.

Kasu bakoitzetik eskuratu zitezkeen dokumentazio guztia aztertu zen material gehigarria osatzeko helburuarekin (forentseen txostenak, lesioen txostenak etab.). Dokumentazio hau ere urria da, batez ere lehen mailako informazio iturrietara jotzeko dauden zailtasunengatik.

1. Azterketa mediko forentseen prozeduretako salbagueardiak

Terrorismoaren aurkako legeriak atxilotuak inkomunikatua 5 egunez baimentzen du zaintza polizialean. Audientzia Nazionalak kontratatzen dituen mediku forentseak (MF hemendik aurrera) egunero aztertzen dituz-

ten Madrilgo polizia etxe nagusietan dauden atxilotuak. Berrero aztertzen dituzte Audientzia Nazionalean tribunaletara joan behar diren egunean bertan ere. Normalean probintzietako polizia etxeetan bertako instituzioetako MFak izaten dira azterketa medikoak egiten dituztenak.

Istanbulgo Protokoloaren arabera, torturak jaso dituela adierazten duen pertsona bati elkarrizketa egiten zaionean, kontuan hartu behar dira hainbat kontu eta faktore praktikoko. *Atxilotuarekiko prozeduren salbagueardiak* atalean bete beharreko hainbat printzipio jasotzen dira, eta horiek dira egindako bilaketaren ostean aztertuko ditugunak.

Gogoeta metodologikoak

Azterketa honetarako egin diren Istanbulgo Protokoloetan deskribatutakoaren arabera, inkomunikatuta zegoen bitartean atxilotuak azterketa MFei buruz egin zuen balorazioa modu kualitatiboan aztertzen da eranskin honetan. Horretarako 3. atalean tortura fisiko eta psikologikoaren mekanismoei buruz adierazitako metodologia jarraitu dugu, haien arteko elementu komunak eta ezberdintasunak bilatu ditugu alegia. Azterketa MFak zein baldintzetan egiten diren baloratzeko eta ikerketan tortura adierazpenek izan zezaketen garrantzia aztertzeko asmoz, "mediko" eta "forentse" hitzak bilatu ziren testigantza guztietan.

Istanbulgo Protokoloaren araberako aurkikuntzak

1. Istanbulgo Protokoloa: *Atxilotuaren azterketa mediko forentsea armadaren edo poliziaren parte ez diren funtzionarien aurrean egingo da, torturak eta tratu txarrak funtzionari horien zaintzapean gertatu ahal izan baitira, eta ondorioz, atxilotuari edo medikuari onartu ezinezko presio hertsatzaileak inposatu ahalko zizkieten, eta horrela tortura edo tratu txarrak ezingo lirarteke modu egokian dokumentatu.*

Jarraian ageri diren bi adibideetan ikusten den moduan, atxiloteta inkomunikatuan inkomunikazioa eta galdeketak egiten dituzten polizia berdinak dira zeldatik edo galdeketa gelatik azterketa MFa egiten den lekura atxilotuak eramatera arduratzen direnak.

Testigantzek erakusten duten moduan, azterketa mediko-forentseak egiteko prozeduran ez dira behar adina babes neurri hartzen

62. Taula. Galdeketak egiten dituzten poliziak atxilotua azterketa mediko forentsea egitera eramaten dituzten berdinak dira

"Egunero, edo ia egunero eramaten ninduten mediku forentsearen aurrera. Euretako bik laguntzen zidaten korridoretik, komunera eramaten ninduten bertan aurpegia garbitu nezan eta gero medikuarenera eramaten ninduten. Hasieran nirekin batera barruan geratzen ahalegindu ziren. Beti egoten zen liskar moduko bat gelatik atera zitezenean, baina amaieran atera egiten ziren. Baina atearen atzean imajinatzen nituen eta hitz egiteko beldur nintzen. Gainera bi aldiz esan zidaten ezer ez esateko." (NLMAP02)

"Egunero zetorren mediku forentsea. Pasillotik eramaten ninduten, burua makurtuta, beti bezala eta begiak itxita; eta sartu behar nintzenean burua altxarazten zidaten, eta atzean gelditzen ziren, zuk eurak ez ikusteko moduan." (NLMAP03)

2. Testigantza askoren arabera, atxilotuak mehatxuak edo presioak jaso zituen azterketa MFaren aurretik. Atxilotuak MFari

jasan zituen torturei buruz ezer ez esateko helburua zuten presio haiek.

63. Taula. Poliziek mehatxuak edo presioak egiten dituzte azterketa mediko forentsearen aurretik

"Gero, bertatik atera eta forentsearen aurrera eraman ninduten. Sartu aurretik antifaza kendu eta esaten nuenarekin kontuz ibiltzeko esan zidaten." (AMRGL09)

"Igo aurretik poliziek ezer ez esateko agindu zidaten, tratua zuzena izan zela esateko, hori egin ezean ondorio oso txarrak izango nituela, oso gaizki pasatuko nuela alegia." (ILMW03)

"Beraren aurrera igotzen ninduten bakoitzean ezer ez esateko agintzen zidaten. (...) Tratuari buruz galdetu zidan eta ez nuen erantzun." (ILMW03)

"Gero errutina hasi zien, forentse bat etorri eta galdera batzuk egin zizkidan... eta horren bitartean polizia beti ondoan zegoen: «forentseari zerbait esaten badiozu...»" (JZLV04)

"Forentsearen aurretik pasa nintzen (...) eta lepoan mina nuela esan nion. Beldurra nuen eta ez nion esan nahi hori egin zidatela, Guardia Zibilak atzean zeuden eta mehatxu egin zidaten ezer ez kontatzeko, gainera ez zuten atea itxi, eta esaten nuena entzun zezaketean, eta beraz, lepoan mina nuela esan nion, ea begirada bat eman ahal ote zion." (MNEG01)

"Sartu aurretik poliziek jada zera ohartarazi zidaten, ezta pentsatu ere jasotako tratuaren inguruko ezer esatea." (NLMAP01)

"Gertatzen zitzaidana ez nion esan, zerbait entzungo ote zuten beldur nintzen eta gainera aurretik jada ohartarazi zidaten, zehazki medikoa ez zen zerbait esaten banuen bisita amaituko zela, ezin diozu ezer esan, urduri zaudela, horrelako gauzak." (OBIM07)

"Ez nion dena kontatzen, bestela gero besteek errieta egiten zidatelako, zer edo zer esaten nion baina ez nituen xehetasunak zehazten, ez nizkion egiten zizkidaten irainak kontatzen... gainera ukitu nindutela esaten nion, bestela besteen errietak entzun behar nituen." (OBIM08)

"Ezin nuela ezer esan esan zidaten, bestela nirekin gogorragoak izango zirela, beharbada gogorragoa, jarraigoa." (OBIM02)

3. Istanbulgo Protokoloa: *Atxilotu orori eremu pribatuan* egingo zaio azterketa. Azterketa burutzen den gelan ezingo da sekula inolako poliziaren edo legearen aplikazioko inolako funtzionaririk egon. Azterketa bitartean poliziak, soldaduak, espetxeetako funtzionariak edo legearen aplikazioko beste funtzionariren bat egoitea, txosten medikoa baztertzeko arrazoi nahikoa izan daiteke.

Hainbat kasutan agerian gelditzen da elkarriketa ez zela inolako eremu pribatuan egin, ez zela polizien belarrietatik edo begi-bistatik kanpo egin. Kasu batzuetan, poliziak gela barruan egon ziren, beste batzuetan elkarriketa ikusi eta entzun zezaketen, beste batzuetan gelako atea irekita zegoen eta ondorioz poliziek elkarriketa ikusi eta / edo entzun zezaketen, eta beste batzuetan elkarriketa ikusi ez baino entzun zezaketen.

64. Taula. Azterketa mediko forentsea ez da eremu pribatuan egiten

"Forentsearen aurrera odoletan eraman ninduten eta berak zera galdetzen zidan: Ondo zaude? Noski, atea irekita zegoen eta bi Guardia Zibil zeuden zuri begira. Eta orduan forentseari horrela egiten zenion [sorbaldekin keinua egiten du] Bai..." (IGEJ02)

"Atea itxita zegoen baina poliziak ondoan zeuden, esaten zutena entzun nezakeen, eta ondorioz gure elkarriketa osoa entzun zezaketen." (ILMW02)

"Gau horren ostean forentsearen aurretik pasatzeko lekuz aldatu zuten. Orduko hartan medikuak Guardia Zibilarekin eztabaidatu zuela dio, medikuak ez zuen nahi polizia azterketa egingo zen gelan egotea, azterketa modu intimoan eta konfidentzialtasunez egin ahal izateko. Azkenean, azterketa bitartean bulegoko atea irekita utzi zuten." (JZLV03)

"Forentseak zeuden lekura jaitsi ninduten, bi neska ziren. (...) Arakatu ninduten, pisua neurtu, altuera... atea irekita zegoen eta polizia bertan ondoan zegoen nik esaten nuena entzuten." (JZLV04)

"Forentse aurretik pasa nintzen (...) eta lepoan mina nuela esan nion. Beldurra nuen eta ez nion esan nahi hori egin zidatela, Guardia Zibilak atzean zeuden eta mehatxu egin zidaten ezer ez kontatzeko, gainera ez zuten atea itxi, eta esaten nuena entzun zezaketen, eta beraz, lepoan mina nuela esan nion, ea begirada bat eman ahal ote zion. Erretzen ote nuen galdetu zidan, eta nik baietz erantzun nion, berak beharbada bronkitisa nuela esan zidan. Bertan hartu nuen berarekin ez hitz egiteko erabakia." (MNEG01)

"Aurrean nuen emakumeak forentsea zela esaten zuen... «Zer moduz zaude?» galdetzen zidan." (OBAM02)

"Medikuarenera, iturri bat, esku-ohea eta hiru aulki zituen gela batera sartzea zen ninduten, hasieran atea zabalik zegoen eta kaputxa zuen Guardia Zibil bat zegoen medikuarekin izaten ari nintzen elkarrizketa entzuten, hori kontsulta bat zen." (OBAM02)

"Guardia Zibila ez zen bertan egoten baina dena zekiten, uste dut mikroak egongo zirela... ez dut ulertzen azkenengo egunean nola jakin zuten forentseari esan niona, ez dut ulertzen." (OBIM08)

"Gertatzen ari zenari buruzko ezer ez nion esan, beldur nintzen, eta Guardia Zibilak atean zeuden esaten nuena entzuten." (OBS01)

"Medikuekin gaizki, batek ere ez zuen esku-burdinak kentzeko eskatzeko adorerik izan, ez eta gelan ezin zirela egon esateko... medikuak gauzak galdetzen zizkidan baina kaputxa jantzita zuten lau zeuden nire ondoan." (BOB11)

4. Istanbulgo Protokoloa: Modu pribatuan eta kanpoko erakunde mediko seguru baten esku egiten diren elkarrizketak oso ezberdinak dira zaintzapean dauden pertsonekin egiten diren elkarrizketekin konparatuz, eta batez ere elkarrizketa horiek torturaren egileek egin dituztenean. Egoera hauetan garrantzia handikoa da subjektuaren **konfiantza** bereganatzea. Baina garrantzitsuagoa da oraindik konfiantza horri traiziorik ez egitea, ezta nahi gabe ere. Atxilotua bere kontu inolako arriskuren eraginpean ez egoteko arreta handia jarri behar da.

Istanbulgo Protokoloa: **Konfiantza** ezinbestekoa da tratu txarren erlazio fidagarri bat eskuratzeko. Torturak edo tratu txarrak

jaso dituen pertsona baten konfiantza eskuratzeko beharrezkoa da modu aktiboan entzutea, komunikazio zehatza egitea, eta atxilotuarekiko adeitasuna, enpatia eta egiazko zintzotasuna adieraztea. Medikuak konfiantza giroa ezartzeko kapazak izan behar dira, bertan garrantzia handia duten eta aldi berean erabat mingarriak edo lot-sarazleak izan daitezken gertaerak argitu ahal izateko.

Atxilotuak MFarekiko duen konfiantza eza erakusten duten hainbat adibide ageri dira hurrengo taulan. Kasu batzuetan konfiantza eza atxiloteta inkomunikatuaren idiosinkrasiatatik gertatzen da, eta beste batzuetan MFak duen jarrera ez enpatikoagatik.

65. Taula. Atxilotuak mediku forentsearekiko duen konfiantza eza

"Audientzia Nazionaleko L L G MF gisa aurkeztu zen, agiri bat erakutsi zidan eta bertan argazki oso zaharra zegoen, eta argazkiko emakumeak antza gutxi zuen benetakoarekin. Horren ondorioz apur bat galduta gelditu nintzen, emakume hura ez zitzaidan batere gustatu." (ILMW02)

"Mediku forentsea gizon nagusia zen, nahiko desatsegina, eta bere diru-zorroa ireki zuen agiria erakusteko, baina ez nuen ia ikusi. Forentseak txosten txikia egin zuen nirekin: adina, aurrekari medikoak, bihotzeko arazoak etab. Azterketa egitea nahi ote nuen galdetu zidan, eta ezetz erantzun nion." (ILMW03)

"Forentsearenera eraman ninduten, mantala jantzita zuen emakume bat zen, baina ez zen inolako agiriren batekin identifikatu, eta zera esan zidan: «Ni naiz hemengo mediku forentsea», tentsioa hartu zidan eta zer moduz nengoen galdetu zidan, izututa nengoela eta beldur handia nuela esan nion, gauza okerragoak egiteko mehatxua egin zidatela, oihuak entzutera behartzen nindutela. Atxiloketa egoera batean beldurra izatea kontu normala zela esan zidan, lasai egoteko eta egin beharrekoa egiten banuen azkar amaituko zela hori guztia." (MIIA02)

"Ohiko lau galdera egiten zizkizun: ondo ote zauden. Egiten zidatena esaten nion, eh...? Jargoia ezin hobeto ezagutzen zuen: poltsa; eta idatzi egiten zuen. Nik ez dakit zer idazten zuen... «Mina duzu nonbait?», galdetzen zidan. «Nahi duzu tentsioa hartzea?» Nik ez nuen ulertzen. Sekulako giharretako mina nuela esaten nion, horrenbeste makurtu eta altxatzeagatik; poltsarekin ia ito egin nintzela... eta tentsioa hartu nahi didazu...? Argi dago bera kontu hartako parte zela, eta ez zidala inolaz ere lagunduko, tentsioa hartzeak ez zuen nik esaten niona egiaztatuko." (NLMAP03)

"Emakumeak modu hotza zuen hitz egiteko eta harenganako mesfidantza baino ez nuen izan, horrelako momentu batean, atxilotzen zaituztenean, ezin dira galderak tonu horretan egin. (...) Oso azkarra izan zen guztia, ni bertan nengoen... ez zidan ezer begiratu, ez zen azterketa medikoa, alde bakoitzean kaleko jantziak zituzten bi Guardia Zibili nituen... aurrean forentsea zela zioen emakumea... «Zer moduz zaude?» galdetzen zidan, baina ez nuen konfiantzarik, gogoratzen dut esan zidala nik hala nahi banuen inkomunikazioak irauten zuen bitartean aldiro azterketak egingo zizkidala. Nik baietz esan nion, baina gero galdetzen hasi zen, eta hitz egiten zuen moduagatik esango nuke nik ezetz esatea nahi zuela." (OBAM02)

"Uste dut ez zela aulkitik altxatu, bulego huts bateko aulki batean zegoen eserita, uste dut ez zegoela esku-ohetik eta soilik zer moduz nengoen galdetu zidala uste dut... ez nuen konfiantzarik, han barruan gertatzen ari zenaren parte zela uste nuen, niretzako beste bat gehiago zen." (OBAM04)

"Gaueko 10ak ziren eta goizeko 8etan Audientzia Nazionalera joan behar ginen, dena amaituko zen. Forentsearen aurrera eraman ninduten, atea itxi eta zera esan nion: «Nik kontatzen dizudanari buruz egingo duzun txostena noiz irakurriko dute hauek?» Ez zutela denborarik izango esan zidan, gaueko hamaikak zirela eta hurrengo egunean goizeko lehen orduan epailearen aurrean aurkeztuko zuela. Beraz egi osoa kontatu nion. Jaso nuen tratua kontatu nionean, medikuak berak baxuago hitz egiteko esan zidan." (OBIM08)

"Gaizki. Ni, tira... ez nekien... bere mediku agiria erakusteko eskatu nion, ez nekien medikua ote zen... eta... ez nion ezer esan. Aurpegia garbitu ahal nuen galdetu nion... oso... bua! Oso zikin sentitzen nintzen. Eta usaia... nazka ematen zidan... pila bat izerditu nuen ariketa fisikoak egitera behartu nindutenean... nire kamiseta usaindu eta nazka ematen zidan... eta galdetu nionean oso gaizki erantzun zidan (...) baietz baino azkar egiteko esan zidan. Gainera... ez zuen gurekin egon nahi, ez zigun kasurik egiten, lehendabiziko egunean ez nion ezer esan." (OBS03)

"Atxiloketa nolakoa izan zen kontatu nion, oraindik ez nindutela ukitu, mehatxuka ari zirela, eta ordu bat besterik ez neramala atxilotuta. Geroago zer gertatuko ote zen galdetu nion. Ezin zuela ezer egin esan zidan, markarik edo horrelakorik izan ezean berak ezin zuela ezer egin." (AMRGL09)

"Konfiantzako medikuak egoteak asko lagundu zidan. Bigarren edo hirugarren egunetik aurrera sartzan utzi zieten, nahiz eta hasieran mesfidantza izan hurrengo egunetan neure burua orientatzen lagundu zidaten." (OBAM02)

"Lehenengo egunean mediku forentseari kontatu nion, geroago ez, ez baitzuen ezertarako balio. Gero, konfiantzako bi medikuei ere ez nien ezer esan." (OBIM02)

5. Beste kasu batzuetan atxilotuaren iritziz MFak egiten zuen lanaren kalitatea eskasa izan zen; esate baterako, jasota ageri da MFak ez ziola kasurik egin atxilotuak garrantzitsuak kontsideratzen zituen xehetasunei edo azterna fisikoen existentziari.

Atxilotuak MFarekiko duen konfiantza eza erakusten duten hainbat adibide ageri dira. Kasu batzuetan konfiantza eza atxiloketa inkomunikatuaren idiosinkrasiagatik gertatzen da.

66. Taula. Mediko forentsearen lanaren kalitatea eskasa dela uste dute atxilotuek

"Anbulatorio itxura zuen leku batera eraman ninduten, nik uste ambulatorioa zela. Bertan sartu eta auskultazioa egin zidan emakume batek, baina ez zidan galderarik egin, ez zidan aurpegira begiratu, ez zidan ezer esan." (IGEJ01)

"Gertatzen zitzaidana ez nion esan eta zelda aurretik pasa zen aldietako batean oso gaizki nengoela esan nion, zerbait errezetatzeko eskatu nion. Ezetz esan zidan, kontatzeko esan zidan, eta egiten zidatena azaldu nion, nirekin erabiltzen ari ziren tratua, nire kontra erabiltzen zituzten irainak, eta berak zera erantzun zidan, «hori dena badakit, zerbait gehiago?»(JGGL03)

"Gero kanpoko mediku bati sartzen utzi zioten, ez zen forentsea. Mediku horrek galdera gehiago egin zizkidan, kontu pila bat bete behar izan nuen." (JZLV04)

"Konfiantzazko medikuen txostenetan, hematoma barneko ezkerreko izterrean, hematoma begietan... adibidez, forentseak ez zituen txosten horiek idatzi, konfiantzazko medikuak idatzi zuen, kontu batzuk desagertu egiten ziren." (JZLV06)

"Forentsea beste ziniko bat zen, zer moduz nengoen galdetzen zidan, eta nire erantzuna... bada, gaizki, baina hala ere, forentseak lau kontu baino ez zituen idatzen, berak ere bazekien bertan gertatzen zena." (OAEM05)

"Forentse berak bi azterketa egin zizkidan bi egun ezberdinetan. Esku-burdinen azternak nituen, eta hatzak ez nituen sentitzen. Berdina esan nion, ez nindutela jo, ez zegoela arazorik... berriro esku-burdinena... eta besterik gabe. Medikua zenez ez nion esan mehatxuka aritu zirela, ez dakit. Torturarekin nik jipoiak edo bortxaketak lotzen ditut, ezta? Eta... hori, ez nion esan mehatxuena, hori ez nion kontatu, baina ez nindutela jo esan nion, baita esku-burdinena ere." (OBIM06)

"Gizon horrek... baietz baino azkar egiteko esan zidan. Gainera... ez zuen gurekin egon nahi, ez zigun kasurik egiten, lehendabiziko egunean ez nion ezer esan." (OBS03)

"Bi aldiz ikusi nuela uste dut, hasieran ikusi nuen eta, gero, jada ezin nuenean ibili... giharretako mina zela esan zidan eta... gizon nagusia zen. Faxista bat zela iruditu zitzaidan... hau da... ez dut uste nik torturei buruzko ezer kontatu nionik... ez dakit... ez dut gogoratzen." (MIIA03)

"Bera nahiko hotza zen, hala gogoratzen dut behintzat. «Zer moduz?» galdetzen zidan, eta nik gaizki erantzuten nion, baina ez nion ezer gehiago esaten. Tentsio hartzen zidan eta ezer gutxi gehiago. Ez nion ezer esaten beldurra nuelako, baina jarrerarekin ondo ez nengoela aditzera ematen nion. Momentu batean bere aurpegia ikusi nuen eta bertan ulertu nuen berak bazekiela nirekin gertatzen ari zena." (NLMAP02)

"Gero gau osoa utzi ostean forentsearen aurrera eraman ninduten. Momentu horretan dena kontatu nahi nahion, keinuak egiten nizkion, baina ez dakit ulertu ninduen. Ongi tratatzen ote ninduten galdetzen zidanean, nik zera esaten nion «bai, baina...», baina berak ez zidan ondo galdetzen." (NLMAP04)

6. Istanbulgo Protokoloa: **Beharrezko denbora** utzi beharko da elkarrizketa eta azterketa xehetasun guztiekin egin dadin.

Beste testigantza batzuen arabera, azterketaren kalitatearen eskasia MFak azterketa medikoa egiteko erabiltzen duen denbora urriarekin du zerikusia.

67. Taula. Elkarrizketaren iraupena urria dela uste dute atxilotuek

"Iruzur hori amaitu zenean (15 minutu edo), amaitu zuela esan zion Guardia Zibilari." (ILMW03)

"Azterketak 5 minutu baino gutxiago iraun zuen; ez dut ulertzen horrenbesteko presaren zergatia." (NLMAP01)

7. Istanbulgo Protokoloa: Ziurrenik bere ize-nak erabiltzeko **beldurra** izango dute, esate baterako, gerta daitezkeen **errepresalien beldur** direlako.

Askotan atxilotuak mesfidantza azaltzen du MFarekiko, eta beldur da sufritu dituen tortura edo tratu txarren inguruan harekin hitz egiteko.

68. Taula. Mesfidantza egoerak

"Kontua da shock egoeran zaudela. Bertan Guardia Zibilaren eskuetatik pasa ostean ez dakizu zer datorren, ez dakizu..." (IGEJ02)

"Polizia-etxera bueltatu ginen. Erabat beldurtuta nengoen, galdeketekin eta euren metodoekin jarraitzeko beldurra nuen. «Dena kontatu diot mediku forentseari, epaileak ere honen berri izan du, orain hauek nire kontra hasiko dira» pentsatzen nuen." (ILMW02)

"Konfiantzazko medikuak esaten zuena ere ez nuen sinesten, azkenean sinetsi egiten diezu baina ez du ezertarako balio, tira balioa du minutu horietan behintzat sostengu txiki bat ematen dizu eta hori da gertuen izan dezakezuna." (OBIM07)

"Forentsea oso ondo portatu zen nirekin, bi edo hiru aldiz egon nintzen, aurpegi zarbaldua zuen eta gure egoera fisikoarekin txundituta zegoen. Gainera beti esaten nion ondo nengoela, ez nuela ezer behar, baina berak pilulak eskaintzen zizkidan, nik ez nion gertatzen ari zenari buruz ezer esan, beldur nintzen, Guardia Zibilak atean zeuden esaten nuena entzuten." (OBS01)

"Gero gaueko 10ak aldera forentsera joan ginen, tratu normala izan zen, tentsioa hartu zidan eta altua zen oraindik, dena begiratu zidan, tratuari buruz galdetu zidanean dena ongi zegoela esan nion, ez nintzen ausartzen." (OBIM10)

"Polizia-etxeko medikuarekin gaizki ere, ez nion ezer esan, tratua ona zela esan nion, ez nion ezer esan beldur handia nuelako, soilik buruko mina nuela esan nion, atxilotetak iraun zuen bost egunetan izan nuen min hura." (OBIM01)

8. Istanbulgo Protokoloa: *Mediku eta interpreteak informazioaren konfidentzialsuna mantentzera behartuta daude, eta informazio hori ezagutarazi ahal izateko pazientearen baimena beharko dute.* Testigantza batzuen arabera poliziek MFarekin izandako elkarrizketaren edukiaren berri izan zuten, eta horren ondorioz, atxilotuak **errepresaliak** sufritu zituen.

69. Taula. Mediku forentsearen aurrean keak plazaratu ostean atxilotuak errepresaliak deskribatzen ditu

"Ziegan egon eta denbora gutxira berriz ere eraman ninduten galdetegira eta bertan polizia bat etorri zitzaidan guztiz erotuta MFri ze hostia kontatu ote nion galdetzen, mediku forentseari kontatu nion guztia zekiela esan zidan eta ordutik aurrera erruz ordainduko nuela." (ILMW02)

"Pasilloan antifaza jarri zidan berriro eta uste dut bestea forentsearen bulegora sartu zela zer esan ote nuen galdetzera. (hori da dudan inpresioa) (...) Azterketa orokor bat egitea nahi ote nuen galdetzen zidan eta nik ezetz esaten nion. Sentsazioa nuen bertatik ateratzen nintzen bakoitzean Guardia Zibilak berarekin hitz egitera sartzen zirela." (ILMW03)

"Auskultazioa egin zidan, euren artean hitz egin zuten [MFa eta poliziek euren artean] eta berriro atera ninduten eta beste polizia-etxe batera eraman ninduten." (IGEJ01)

"Elkarri agur esan genionean zeldara eraman ninduten eta berrogei minutu baino gutxiago pasa aurretik Guardia Zibil bat etorri zen, ni hartu eta beste gela batean sartu ninduen. Forentseari kontatu nion guztia zekiten." (OBIM08)

9. Istanbulgo Protokoloa: *Pazienteen aurrean medikuak bere burua aurkeztu eta bere azterketa edo tratamenduaren helburuak azaldu beharko ditu* Azterketa batzuetan deskribatzen denaren arabera MFa ez zen atxilotuaren aurrean aurkeztu.

70. Taula. Mediku forentseak ez du bere burua atxilotuaren aurrean aurkezten

"MFa zela zioen bat agertu zen, modu berean galdeketetan ere bazegoen abokatua zela zioen tipo bat, baina niri inork ez zidan identifikaziorik erakutsi." (JGGL03)

"Forentsearen aurrera atera nindutela oroitzen dut, mantaldun emakumea zen, eta honek ere ez zidan inolako agiririk erakutsi." (MIIA02)

"Berdina gertatzen zait forentsearekin, paper baten aurrean eserita zegoen pertsona zela oroitzen dut, zerbait esaten bazenuen berak idatzi eta berriro bueltatzen zinen zeldara. Ez nintzen inorekin fio, ez nekien medikua benetan medikua ote zen, ezta abokatua benetako abokatua ote zen." (MTRGL10)

"Gero beste gela batera eraman ninduten, eta atean bertan medikuarekin egongo nintzela esan zidaten. Egun horretako goiza izango zela suposatzen dut. Ireki eta gizon eta emakume bat ikusi nituen; ez zidaten inolako agiririk erakutsi." (NLMAP01)

"Bere burua ez zuen aurkeztu eta benetako forentsea ote zen ez zitzaidan argi gelditu." (OBAM02)

10. Gutxienez 4 alditan atxilotuari gezurra esan zitzaion MFaren aurretik pasako zela

adierazi zitzaionean. Atxilotuaren iritziz MFa "faltsua" edo "iruzurtia" zen.

71. Taula. Polizia batek bere burua mediku forentsetzat aurkezten du

"Berriro eraman ninduten forentsearenera, kasu honetan beste bi polizien antzeko gizon bat zen, eta uniformeoa zuen. Ezin nuen sinetsi bera forentsea zenik eta ez nuen hitz egin." (AMRGL09)

"Momentu jakin batean lasai egoteko esan zidaten, forentse baten aurrera joango nintzela. Gela batera eraman eta bertan kaputxa zuen tipo bat zegoen. Ze arraroa, forentsea kaputxarekin, pentsatu nuen nik, baina forentsearen aurrera eramango nindutela esan zidatenez, beharbada bere identitatea ezkutatzeko edo protokolo kontua zela pentsatu nuen. Probak egiten hasi zen eta nik konfiantza osoz jo nindutela esan nion eta hemen begiratzeko [garondoa seinalatzen du], bertan kolpe asko eman zizkidatelako. Bat-batean zera esan zidan: «motel, hanka sartzen ari zara». «Nolatan hanka sartzen ari naizela? Zu ez zara forentsea» eta ezetz esan zidan, Guardia Zibila zela." (JZLV03)

"Gela batera eraman ninduten eta bertan mantala zuen gizon bat agertu zen. Forentsea zela esan zidan baina ez zuen agiririk, polizien aurrean biluztu ninduten azterketa egiteko, baina tira, ez zuten ezer begiratu, aztarna bereziren bat ote nuen begiratu zuten." (MIIA02)

"Bertan lehendabizi biluzarazi ninduten. (...) MFa zela zioen beste tipo bat etorri zen, besterik gabe begiratu eta «ondo zaude, ez duzu ezer» esan zidan. Arropak janzteko agindu zidaten, (...) Antifaza berriro jarri eta ziegan sartu ninduten." (MNEG02)

11. Istanbulgo Protokoloa: **Elkarrizketatuen geroko segurtasuna bermatzen ez duen jarraipenik gabeko bisita bakar bat** arriskutsua izan daiteke. Kasu batzuetan, bigarren bisitarik gabeko bisita bat bisitarik ez egitea baino okerragoa izan daiteke. Borondate oneko ikerlariei ziria sar dakieke espetxean edo polizia-etxeren batean bisita egiten dutenean, eta bertan benetan egiten dutena jakin gabe geratuko dira. **Errealitatearen ikuskera osatugabea edo faltsua** izan dezakete. Oharkabean gehiago ikusiko ez dituzten atxilotuak arriskuan jarri ditzakete. Egoera hori, gainera, torturazailentzako **alibia** izan daiteke, kanpoko pertsonak espetxea bisitatu ostean ez baitute salatzeke ezer aurkitu.

Testigantzetan aztertutako errealitatea bat dator aipatutakoarekin. Orokorrean, txosten mediko forentsetan deskribatutakoaren eta Istanbulgo Protokoloa elkarrizketetan adierazitakoaren artean ezberdintasun handiak daude.

12. Istanbulgo Protokoloa: **Elkarrizketaren helburua** argitasun osoz aurkeztu behar zaio pertsonari.

Azterlan honetan bildutako Istanbulgo Protokoloa testigantzen arabera, MFak ez dio atxilotuari azterketa medikoaren helburua azaltzen.

Aurkikuntzei buruzko kontsiderazioak

Atxiloketak irauten duen bitartean atxilotua erabateko inkomunikazio erregimenean dago, eta ikerketa zein galdeketak (eta us-tezko torturak) egiten dituzten poliziekin baino ez du harremanik, mediku forentseari al-dizka egiten dizkion bisitak salbu. Azterketa aurretik eta ostean, atxilotua berriro eraman-ten dute poliziaren aurrera. Errealitate hau argi geratzen da OBIM07 atxilotuak egiten duen deskribapenean: *"Baina gero behera jaitsi beharko zara berriro..."* Bertan zeharka ikusten den moduan, atxilotua beldur zen jaso zituen tratatu txarrak kontatzeko.

Egitura gabezi hauei MFek egindako txostenek dituzten hutsuneak gehitu behar zaizkie, batez ere Audientzia Nazionaleko MFek egindako txostenetan. Ondorio horretara heldu dira beste azterlan batzuk ere, eta gauza bera azaldu du CPTak Espainian egin dituen bisitetan⁸⁰. Atal honetako datuak horrekin bat datoz: elkarrizketarako denbora gutxi, MFaren jarrera aktibo eza dela-eta konfiantza esparru bat sortzeko zailtasunak, instalazio eta bitarteko eskasak, miaketen edo anamnesi adituen gabezia, etab.

Jarraian agertzen diren hauek dira analisi honen aurkikuntza nagusiak:

1. Atxilotua MFaren aurrera eramateaz arduratzen diren poliziak eta galdeketak egiteaz arduratzen direnak polizigorputz berekoak dira.
2. Presio hertsatzailea erabili den kasuen existentzia, mehatxu esplizituak egin zaizkio atxilotuari MFari torturen inguruko zerbait kontatzekotan.

⁸⁰ Petersen H.D., Morentin B., Callado L.F., Meana J.J., Hougen H.P., Idoyaga M.I. Assessment of the Quality of medical documents issued in central police stations in Madrid, Spain: the doctor's role in the prevention of ill-treatment. *J Forensic Sci* 2002; 47: 293-298.

Morentin B., Petersen H.D., Callado L.F., Idoyaga M.I., Meana J.J. A follow-up investigation on the quality of medical documents from examinations of Basque incommunicado detainees. The role of the medical doctors and national and international authorities in the prevention of ill-treatment and torture. *Forensic Science International* 2008; 182:57-65.

European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 1 to 12 April 1991. CPT/Inf (96) 9 [EN] (Part 1) – Publication Date: 5 March 1996. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/1996-09-inf-eng-1.htm>. Accessed January 30, 2007.

European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 10 to 22 April 1994 CPT/Inf (96) 9 [EN] (Part 2) – Publication Date: 5 March 1996. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/1996-09-inf-eng-2.htm>. Accessed January 30, 2007.

Mediku Forentseari torturen inguruan zerbait kontatzeagatik atxilotuaren kontrako errepresaliak gertatu diren kasuen existentzia.

3. Inkomunikazioak berak sortutako presio hertsatzaile orokorraren existentzia.
4. MFari torturen inguruan zerbait kontatzeagatik atxilotuaren kontrako errepresaliak gertatu diren kasuen existentzia.
5. Gezurrezko MFa agertzen den kasuen existentzia: bere burua MFtzat aurkezten duen polizia bat?
6. Orokorrean azterketak ez dira eremu pribatu batean egiten.
7. MFek ez dute ia inoiz atxilotuaren konfiantza eskuratzen. Kasu askotan MFaren jarrera ez da modu enpatikoan sumatzen, elkarrizketarako dedikazio gutxi eskaintzen du eta batzuetan modu axolagabea jokatzeko. Horren egiaztapen gisa, kasu askotan atxilotuak uko egiten dio azterketa medikoari.
8. Azterketa medikoen baldintzekin ezin da bermatu atxilotua arrisku baten aurrean ez jartzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izatea. Hainbat testigantzen arabera, atxilotua beldur da MFari gertatutakoa kontatzeko. MFaren jarrera positibo edo aktibo gisa sumatu den kasuetan ere gertatzen da egoera hori.
9. Atxilotu batzuek zalantzan jartzen dute informazioaren konfidentzialtasuna.
10. Orokorrean MFa ez da behar bezala identifikatzen (agiri profesionala).
11. MFak ez dio atxilotuari azterketa medikoaren helburua azaltzen.

Horregatik guztiagatik honakoa ondorioztatzen da:

1. Inkomunikazio bitartean burututako azterketa mediko forentseek muga garrantzitsuak eta gabezia larriak dituzte prozeduren salbanguardiarri dagokionez. Honen eraginez, tortura adierazpenen dokumentazio eraginkorra zaildu edo erabat eragozten dute.
2. Gabezia hauek arrazoi nahikoa dira txosten mediko negatibo bat baztertzeko, nahiz eta azterketa medikoan atxilotuak tratu txarrik ez adierazi⁸¹.
3. Gabezia hauek MFen txostenak irakurtzean sortzen den errealitatearen ikuskera faltsua edo osatugabea justifikatzen dute. Horri esker, gainera, torturatzailleek alibia izan zezaketen, kanpoko medikoek euren atxiloketa zentroa bisitatu ostean ez dutelako "salatzeko ezer aurkitu".

2. Ondorio medikoak. Osasun fisikoaren gaineko inpaktua azterketen txostenetan, Istanbulgo Protokoloa erabiliz

Torturak norbanakoaren osasun fisikoa eta batez ere psikologikoa mintzen duen muturreko estres egoera sortzen du. Tortura mota ezberdinek asaldura funtzional edo estrukturalak sortzen dituzte pertsonaren osasunean, torturak irauten duen bitartean zein epe ertain edo luzean. Tortura metodoak garaien arabera aldatu izan dira, eta azken urteetan sofistikazio gehiagoko metodoen norabidean eboluzionatu da. Metodo hauek azterketa medikoetan antzeman zitezkeen aztarnak saihesteko helburuarekin sortu dira.

⁸¹ Auzitegi Konstituzionaleko (STC 131/2012) ebazpenean jartzea "ez da argudio erabakiorra esatea mediku forentseari ez duela biolentzia fisiko edo psikikorik jasan edota tratu egokia izan duela poliziarengandik" eta egizat hartzen da salatzaileak dioenean "polizien beldur zela, eurekin inkomunikatuta jarraituko zuelako medikua joandakoan".

Batzuetan lesioak agertzen dira, baina zehaztugabeak izaten dira eta ez dira beste traumatismo batzuek sortzen dituzten lesioekin ezberdintzen. Atal honetan modu kualitatiboan aztertuko da pertsonaren osasun fisikoaren gainean torturek duten eragina, eta horretarako, azterketa honetarako burutu diren Istanbulgo Protokoloak oinarri izango dira.

Kontuan hartu behar da atal honetan aurkeztu dena ez dela inolako egiaztapen sistematiko baten ondorioa, eta beraz, azterketan parte-hartzen duen pertsona bakoitzari ez zaio aparatuz aparatua izan ditzakeen sintoma fisikoei buruz galdetu. Garaiko eta egungo egoera fisikoari buruz galdetu zaienean aztertuek *naturaltasunez adierazi dituzten* kontuak dira. Ez da, beraz, datu epidemiologiko bat. Atal honetan agertzen dena egiaztapen dokumental soil bat izateaz gain, agertu daitezkeen aztarna fisiko motak biltzen dituen lehendabiziko "indize" bat ere bada. Agertzen diren ehunekoek naturaltasunez adierazitako aztarnei egiten diete erreferentzia eta ez daude modu sistematikoan neurtuta, eta horren ondorioz, zifrak, agertzen direnak baino handiagoak izan zitezkeen.

Gogoeta metodologikoak

Tortura mekanismo fisiko eta psikologikoei buruzko 3. atalean deskribatutako metodologia erabili zen. Adierazitako torturaren erruz atxilotuak sufri zezakeen sintomatologia fisikoarekin lotura izan zezaketen hitz-gakoak bilatu ziren testigantzetan. Honako bilaketa hauek egin ziren:

- Nekea eta jarrerarekin lotutako minak: nekea eta gorputzeko minak.
- Arazoak buruan: buruko mina, aurpegiko zein buruko traumatismo eta lesioak.
- Arazo gastrointestinalak: pisuaren galera, jateko gogoaren galera, urdail-hesteetako arazoak.

- Zorabioak, takikardia: zorabioak, takikardiak eta hipertentsioa.
- Eskeletoaren giharrak: bizkarreko lesioak, sukarrak, erreumatikoa, giharren kontrakzioa, saihesten haustura, zurruntasuna, etab.
- Begietako arazoak: erretina-askatzeak, konjuntibitis, etab.
- Urogenitalak: mina barrabiletan, gernuaren infekzioa, amenorrea (denbora tarte batez hilekorik eza), gernua egiteko arazoak, etab.
- Asfixia.

Asalduren deskribapen kualitatiboa aparatuka

Aztertutako laginean honako hauek izan ziren gehien errepikatu ziren tortura fisikorako metodo nagusiak: kolpeak, behartutako jarre-
rak, ariketa fisiko nekagarriak eta asfixia lehorra ("poltsa") (ikus. 60. taula). Elkarrizketatuek deskribatu duten sintomatologia tratu txar hauen ondorioekin bat dator.

Elkarrizketatu guztien % 40k (z=18) eskeletoaren zein giharren asaldurak deskribatu zituzten inkomunikazioak iraun zuen tartean edota haren ostean. Aldi berean, % 28,89k

(z=13) nekea edo jarrerekin zerikusia zuten minak salatu zituzten, eta 8 pertsonak (% 17,78) arazo urogenitalak. 5 pertsonak (% 11,11) azaleko arazoak aipatu zituzten; 4k (% 8,89) entzumen arazoak eta beste 4k (% 8,89) buruko mina. Honekin batera 2 pertsonak (% 4,44) begiko arazoak adierazi zituzten eta beste 2k (% 4,44) zorabioak, takikardiak eta urdail-hestetako arazoak.

Gihar eta eskeletoaren sistemarekin lotura duten kexa fisikoak dira tortura bitartean zein haren ostean gehien errepikatzen direnak. Mina da sintoma nagusia. Ezaugarri klinikoei dagokienez, trauma dagoen guneetan, giharretan edo bizkarrean oinarritutako min zehaztugabea ageri da. Elkarrizketatutako pertsona gehienek adierazi zuten moduan, atxilotetaren ostean, epe motzean zein luzean, buruko zein gorputzeko min handiak, azaleko lesio traumatikoak edo bizkar-hezurreko sintomatologia (zerbikalgalia, lunbalgalia, zerbikalen kontrakturak, giharren tentsioa, bizkarreko giharren zurruntasuna, etab.) pairatu zituzten. Albi berean, nekea eta giharreko minekin lotura duten minak ageri dira. Sintoma hauek lotuta daude aurrez aipatutako kolpeekin, behartutako jarrerekin eta neke fisikoa eskuratzeko teknikekin. (72. Taula)

72. Taula. Arazoak giharretan eta eskeletoan

"Zerbikalentzako ibuprofenoak hartzen ari nintzen, presioa zela eta indarra egiten nuen, kotxeko posturak... gorputzean daramazu tentsioa, ia ezinezkoa zen ondo egotea, eta bigarren egunean okerrera egin nuen. Masail bat ubela nuen, saihestak. (...) Ostean zerbikaleko kontraktura bat agertu zitzaidan, horiek iraunkorrak dira, eta oraindik ere tratamendu aldaketekin edo behartutako jarrerekin, ohean postura txarra hartzen dudanean ere, erabat zurrunduta jaikitzen naiz. Oraindik ere hori nabaritzen dut, goiko partean dauden zerbikalak." (JZLV06)

"Denboraldi batean bizkarreko min pila bat izan nituen, oraindik ere noizean behin min handia izaten dut lepoan, aurretik ez zitzaidan horrelakorik gertatu. Medikua zenean joan nintzen eta berak hori esan zidan, zerbikalak gaizki nituela, atxiloteta aurretik istripu bat izan nuen autoarekin baina ez nuen ezer zerbikalean. Orain zerbikaleko bihurtura daukat egin zidaten guztiagatik, noizean behin mina ematen dit oraindik." (OBAM01)

"Lepoa ukitzen nuenean kraska egiten zuen giharretako tentsioagatik, bizkarrak karraskatzen duenean bezala egiten zuen lepoak." (MNEG01)

“Nik uste nahiz eta genetikoki aurretiko joera izan, nire arazo zerbikalek eman zizkidaten jipoiekin zerikusia dutela. Baina noski, nola frogatu dezakezu? Hemen asko jo ninduten, lepoko atzeko partean, eta buruan, eta gainera jotzen nindutenean zera zioten, «badakizu honek ondorioak dituela». Baja asko hartu behar izaten ditut artrosia dudalako, higatuta ditut bi zerbikal, eta protrusioak ditut ere, hernia baten aurreko pausua alegia. Zerbikaletan dudan sabel formako moduko bat da. Izan ere, urduri nagoenean mina bertan hasten da [lepoko eta sorbaldetako zonaldea] eta buruko minak hasten dira. (...) Orain errehabilitaziora noa lepokoagatik.” (MIIA03)

“Min apur bat sentitzen nuen hemen [bularralde seinalatzen du], Trombocid eman zidaten [hematomen kontrako pomada]. Azken bi egunetan ziegara etortzen den poliziak Trombocid ematen zidan bularraldean eta bizkarrean, bertan ubeldura bat bainuen. Min txikia nuen eta giharretako mina ere (...) Bularra ukitu eta min egiten zidan, bizkarrean ere, eta gero nik uste kontua zela gorputzean mina nuela batez ere nekeagatik. Besoak eta hankak tentsioan egon izanagatik, giharretako-mina balitz bezala. (...) Espetxera heldu nintzenean, sarreran egiten dizuten azterketan polizietxean Trombocid eman zidatela esan nien, eta eurek ere pomada bera eta pilulak eman zizkidaten.” (MNEG03)

“Lur jota nengoen, oso nekatuta, mina nuen gorputz osoan. Batez ere buruan, kolpeengatik. Gorputzeko mina tentsioagatik eta jarrerengatik zen, giharretako mina hain zen handia ezin nuela ia ibili... min asko.” (OBIM08)

“Saihetsak eta aurpegia, min gehiena hanketan nuen... mina nuen gorputz osoan. Hankei ez nien garrantzia handiegirik eman; nekearekin lotu nuen... ezin nuen ia ohetik altxatu, ez dakit nola biratu eta... Abdominalekin egin nuen esfortzua, buff! Ezinezkoa zen, eta eztula... ez, ez. Horretaz akordatzen naiz, malabareak egin behar nituen ohetik altxatzeko.” (OBISO4)

“Denbora pasa ahala esan zidaten ez nuela haustura kraneoentzefalikorik, baina lepoan gihar kontraktura eta edema nuela. Burua eta lepoa puztuta nituen. Ospitaletik gurgildun aulkian atera nintzen, lepokoa jarri eta pilula pila bat eman zizkidaten. Lepokoarekin arazo pila egon ziren, kostatu zitzairen nire tamainako lepokoa bilatzea, lepoko normalak ezin zuen hantura osoarekin.” (ILMV02)

“Kalera irten nintzenean osteopata bat jarri zidaten, barne-zolak, ahorako haginkari bat, esan zidaten agerikoa zela antsietate handia nuela eta ahoa itxi edo hozka egiterakoan egiten nuen presioarekin ahoa mugitzen ari zitzaidala... Mina nuen besoetan, buruan, estres guztiagatik hozka pila bat egiten dut eta hau guztia [lepoko eta ahoko giharrak] tentsioan geratzen zait.” (MIIA02)

“Ostikadak ematen zizkidaten, pila bat, batez ere gerritik behera. Oso jende gaztea zen, irudipena nuen akademiatik atera eta bertara eraman zituztela. Sabelaldean eta inguruan ubeldurak egin zizkidaten, zerbait agertu zen azterketa forentsean.” (OAEM05)

“Txanpon baten tamainako ubeldura detektatu zuten... zilbor aldean.” (OAEM05)

Urdail-hesteetako arazoren artean hainbat kontu agertzen dira, artean, pisuaren galera, jateko gogoaren galera, indigestioa, kolikoak eta bestelako minak. Arazo urogenitalei dagokienez, mina barrabiletan, baginako infek-

zioak, gernu-infekzioak, amenorrea, gernua egiteko zailtasuna edo minak agertzen dira beste batzuen artean. Zentzu honetan bereziki esanguratsuak dira emakumeek adierazitako arazoak. Elkarrizketatutako beste

pertsona batzuek begietako arazoak salatu dituzte, erretina-askatzeak, narritadura edo hanturak esate baterako. Kasu batzuetan, pertsonak ikusmena galdu du atxiloketaren ostean.

“Lehen eta bigarren hilabeteetan ezin izan nuen ia ezer jan, jatea harriak irenstea bezala zen...”

73. Taula. Zauri fisikoak – Eragina organoetan.

- **Gastrointestinalak**

“Lehen eta bigarren hilabeteetan ezin izan nuen ia ezer jan, jatea harriak irenstea bezala zen. (...) Hasieran indigestio handia sortzen zuen.” (ILMW01)

“Fisikoki, oritzen dut espexera heldu eta jendeak galdetu egiten zidala, «zer gertatu zaizu?» 70 kg pisatzen nituen eta espexera heldu nintzenean 64-65 kg, eta ez nuen jaten. Fisikoki ahul nengoen eta min ematen zidaten, beraz, jan egin behar nuen.” (JZLV03)

“Ostean kolikoak eta horrelako arazoak izan ditut, sentsazio antzekoa zen: min... ikaragarriak.” (OAEM02)

- **Urogenitalak**

“Hilekorik gabe egon nintzen (...) urte oso batez. Bai, eten egin zitzaidan.” (ILMW01)

“Baginan min handia nuen, odola botatzen nuen, bertako kideek zerbait esateko esaten zidaten. Orduan mediku baten aurrera eraman ninduten, ez zidan begiratu baina gertatzen zitzaidana esan nion: «Hau infekzio handi bat da». Ez zen normala, 57 urtetan ez dut sekula infektiorik izan, eta justu polizia-etxetik pasa ostean...” (OBAM01)

“Apur bat beldurtuta nengoen eta forentseari esan nion, txiza egiten nuenean, oso kolore horiarekin ateratzen zen eta glandean min egiten zidan, zakilean, min handia ematen zidan, erretzen zuen. Oso min bizia zen eta berak zera esan zidan: «Hori da gibelak lan handia egiten duela, eta ez duzunez edaten ez du laguntzarik. Txiza horia aterako zaizu eta usai sendoa izango du.» (MNEG02)

- **Oftalmologikoak**

“Begiak oso narriatuta nituen, antifaza, malkoak, aurretik erabili zuen jende guztiagatik, begiak lur jota uzten zizkizun.” (MNEG01)

“Hasieran medikuak hala pentsatu bazuen ere azkenean eskumako begian ez nuen erretina-askatzea izan... beste zerbait izan zen, ez dut izena oroitzen, oraindik ere zera batzuk agertzen zaizkit bertan, ez nuen ikusten, begiaren barruan zerbait beltza nuen, ikusmen pila bat galdu dut.” (OBAM01)

“Antifazagatik konjuntibitisa izan nuen, poltsan antibiotiko krema bat nuen eta Audientzia Nazionalean begietan jarri nuen. Antifaz horrek... zikinkeria pila izan behar zuen...” (MENG04)

Aldi berean gorputz-enborrarekin zerikusia duten lesioak agertzen dira, lesioak saihetsetan, giharretako mina bularraldean eta sabelaldean, nekea, gorputzeko mina, etab. Gehienak kolpeen ondorio badira ere, beste

testigantza batzuek behartutako jarrerekin lotzen dituzte.

“Poltsaren” erabilerari dagokionez (74. Taula) kasu guztietan deskribatu zen asfixiaren sin-

tomatologia. 5 kasutan atxilotuek konortea-
ren galera salatu zuten, 3 kasutan goragalea

edo gorakoaren presentzia eta beste 2 kasu-
tan gernuaren inkontinentzia.

74. Taula. Poltsarekin lotutako sintomatologia

"Buruan poltsa jarri zidaten eta lepoa aldean lotu zuten, gehiago ezin nuenean pareta ukitu nezan esaten zidaten eta orduan kenduko zidatela. Zutik nengoan. Ahal nuena aguantatzen nuen eta gehiago ezin nuenean besoa altxatu eta pareta ukitzen nuen, orduan kentzen zidaten. Poltsa kaputxaren gainean jartzen zidaten, eta izerdi pila botatzen nuen. Bitartean galderak, akusazioak eta kolpeak ematen zizkidaten, etengabe. Guztira zortzi aldiz egin zidaten. Gero, berdina; tontotuta nengoenean, nire bizitzari buruzko galderak egiten zizkidaten, nondik ibiltzen nintzen, norekin." (ILMW02)

"Hasierako galdeketetako batean, bigarreanean edo hirugarreanean, poltsa lau aldiz egin zidaten. Lehendabizi buruan jartzen zidaten eta nire erantzuna ez bazitzaie gustatzen arnasarik gabe utzi arte tenkatzen zuten. Nik eskuekin edo hortzekin apurtzen nuen, berriro apurtzen banuen hilko ninduela esan zidan. Dena zen oso gogorra baina asfixiak eragiten zuen sententzia, itotzen zarela, ezin duzula arnasarik hartu... oso, oso gogorra da." (ILMW03)

"Gogoratzen dut konortea bi aldiz galdu nuela, ontziarena egin zidaten, burua ontzi batean sarrarazi zidaten, poltsarekin ere, ito egingo banindute bezala. Bi alditan konortea galdu nuen." (JGGL03)

"Poltsa egin zidaten, eta egin zidaten lehendabiziko aldian konortea galdu nuen, lurrera erori nintzen, hilko nintzela pentsatzen nuen (...) erotzen nintzela ikusi zutenean poltsa kendu zidaten, arnasa hartzen utzi zidaten, aulki batean eseri eta ondo nengoela ikusi zutenean berriro jarri zidaten." (MIIA03)

"Laster igo zitzaizkidan gainera eta poltsa estutzen hasi ziren (...) guztiz erotu zirela pentsatu nuen. «Kontrolatzen dugu, oraindik ez zaizkizu ezpainak ubeldu, poltsa ezpainak ubeltzen zaizkizunean irekitzen dugu, ez dago arriskurik. Hiltzen zarela diozun arren... ez zara hiltzen» esan zidaten." (MNEG01)

"Poltsa jartzen zidatenean, nik zera egiten nuen, kokospea jaisten nuen poltsa estuegi ez lotzeko, eta horrela gero apur bat lasaitzen zenean, beheko aldetik aire apur bat sar zitekeen; baina burua atzera jartzen zidatenean, ezin nuen egin. Egoera horretan, gorputza ihes egiten ahalegintzen da, indarra duzulako, eta beraz lau pertsona zeuden nire gorputza heltzen. Momentu batean konortea galdu nuen. Neure senera bueltatu nintzenean gainean txiza egin nuela ikusi nuen." (NLMAP03)

"Poltsa hura kaputxaren gainean jarri zidaten, eta hori are okerragoa zen, ahoan poltsaren plastikoa eta artilea sartzen baitzitzaizkidan, ito egiten nintzen. Ahoa estutzen zidaten, eskuekin heltzen zuten eta nik konortea galtzen nuen. «Botaka egiten baduzu, jan egingo duzu!» esaten zidan." (OBAM01)

3. Txosten medikoak dauden kasuetan egindako aurkikuntzen analisia

Sarrera

Txosten medikoak dira tortura ebidentziak eskuratzeko metodo hoberenetariko bat.

Azterketen ostean egindako txostenetan honako alderdi hauek agertu behar dira: (a) mosasun egoeraren eta tratu txarren edozein salaketaren deskribapena; (b) azterketa osoa egin ostean mediku adituak egiten dituen aurkikuntza mediko objektiboak; (d) atxilotuak tortura adierazpenen bat egiten badu, medikuak aurkikuntzen

sendotasunari buruzko ondorioak aurkeztu beharko ditu⁸².

Audientzia Nazionala (AN) terrorismoaren aurkako gaitan konpetentzia duen auzitegi berezia da eta Madrilen kokatuta dago. Egun, terrorismoaren aurkako legeriak 5 eguneko atxiloketa inkomunikatua baimentzen du, poliziaren zaintzapean. ANk kontratatzen dituen mediko forentseak egunero aztertzen dituzte atxilotuak Madrilgo polizia-etxe nagusietan, eta beste behin auzitegira joan behar diren egunean. Probintzietako polizia-etxeetan bertako instituzioetako mediku forentseak arduratzen dira azterketak egi-teaz. Kasu batzuetan konfiantzazko medikuak baimendu dira atxiloketa inkomunikatua iraun duen bitartean.

Adierazitako tratu txarrekin / torturekin lotura duten txosten medikoetan dagoen informazio kliniko baloratzea, eta aurkikuntzek deskribatutako tortura metodoekiko duten sendotasuna ebaluatzea da atal honen helburua.

Materiala eta metodoak

Aztertutako kasuetatik abiatuz harremanak egin ziren torturaren arloan lan egiten duten giza eskubideen erakundeekin, eta haien bitartez eskuratu ziren atal honetan aztertzen diren txosten mediko forentseak. Adituek eskuratu ahal izan ziren txosten guztiak aztertu zituzten eta txosten horiek dira atal honen oinarria.

Txosten mediko forentseen azterketan honakoa aurreikusitakoak:

- Anamnesia eta azterketa fisikoari dagokionez atxilotuak eskaintzen duen kooperazio maila.

- Tratu txarren salaketei buruzko informazioaren existentzia eta nahikotasuna.
- Osasunaren egoera subjektiboari buruzko informazioaren existentzia eta nahikotasuna.
- Azterketa medikoaren norainokoa.
- Berriki gertatutako indarkeriaren eragina adierazi zezaketen aurkikuntza klinikoak.

Ondorioak

Aztertutako 45 pertsonetatik, 11 pertsonari eta 12 atxiloketari (persona baten kasuan bi atxiloketa ezberdinei zegozkien txostenak eskuratu ziren) zegozkien txosten medikoak eskuratu ziren. Denak inkomunikatuta zeuden bitartean eginiko azterketen ostekoak. 10 kasutan Audientzia Nazionalak igorritako txosten medikoak lortu ziren; 5 kasutan Medikuntza Legalaren Euskal Institutuko medikuek eginikoak; beste 3 kasutan atxilotuaren konfiantzazko mediku batek eginikoak (mediku honek Audientzia Nazionaleko medikuarekin batera egin zuen azterketa, atxilotua inkomunikatuta zegoen bitartean); beste 3 kasutan ospitale edo anbulatorio batek eginikoak (inkomunikazioaren bitartean osasun arazoengatik atxilotua bertara lekualdatu zutelako); batean Espetxe zentroak eginikoak eta beste batean medikuen partean adituen txostenak eskuratu ziren.

1. Tortura adierazpenak txosten medikoetan

10 atxiloketei dagozkien txostenetan, medikuek jaso egin zituzten atxilotuek eginiko tortura adierazpenak. 8 kasutan tratu txar fisiko zein psikologikoei buruzko datuak ageri dira; batean tratu txar fisikoak eta bestean ANeko epaileari egindako tratu txarren erreferentzia bat (zehaztu gabe).

Gehienetan adierazten den metodoa kolpeak dira. Bederatzi pertsonak inkomunikazio bitartean kolpeak jaso zituztela adierazi zuten. 7 kasutan kolpeak eskuarekin izan ziren, 3 kasutan hankekin eta beste 3tan al-

⁸² European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 10 to 22 April 1994 CPT/Inf (96) 9 [EN] (Part 2) – Publication Date: 5 March 1996. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/1996-09-inf-eng-2.htm>.

dizkari edo telefono-aurkibide batekin. Bi atxilotuk iletik tira egin zietela adierazi zuten. Kasu guztietan burua/aurpegia izan zen kolpeen jomuga, eta beste 2 kasutan barrabilen ingurua. Gorputzeko beste atal batzuetan jasotako kolpeak ez ziren horren ohikoak izan. Hamargarren atxilotu batek atxiloketa momentua indarkeri fisikoaren erabilerarekin gertatu zela adierazi zuen.

Egun, terrorismoaren aurkako legeriak 5 eguneko atxiloketa inkomunikatua baimentzen du, poliziaren zaintzapean.

75. Taula. Txosten medikoak dauden kasuetan gertatzen diren kolpeen adierazpenen deskribapena (z=11)

- Kolpeak buruan behin eta berriro. Noizean behin intentsitate txikiagoko kolperen bat gorputzeko beste ataletan.
- Kolpeak buruan eskuarekin. Kolpeak hankarekin.
- Kolpeak buruan eskuarekin. Iletik tira egin diote. Presioa barrabiletan.
- Kolpeak buruan, aurpegian eta barrabiletan behin eta berriro, kolpeak emateko eskua irekita izaten dute.
- Kolpeak buruan aldizkari batekin eta beste egun batzuetan telefono-aurkibide batekin.
- Buruan eta kanpoko zerbikalen eremuan (lepoan) era askotako kolpeak, uste du eskuarekin direla. Iletik tira egin diote.
- Atxiloketa momentuan zapalketa bizkarraldean. Kolpeak buruan bildutako telefono-aurkibide batekin eta aurpegian eskua irekita zuten bitartean.
- Kolpeak buruan aldizkari batekin.
- 5 edo 6 zaplazteko. Kolpeak eskua irekita dagoen bitartean egiten dira. Ukabilkadak eta ostikoak gorputz osoan zehar.
- Atxiloketa bitartean lurrean buruz behera jarri dute eta kokotsetik odola isurtzen hasi da... eta "izterrean belaunarekin jo dute".

Neke fisikorako teknikak 6 pertsona atxiloturen txosten medikoetan jaso ziren. Ariketa fisikoak egiteko beharra 4 txostenetan ager-

tzen da eta behartutako posturak mantendu beharra beste 4etan.

76. Taula. Txosten medikoak dauden kasuetan agertzen diren neke fisikoko tekniken adierazpenen deskribapena (z=11)

- Flexioak lur jota egon arte. Zutik mantendu beharra.
- Zutik eta kukubilko denbora luzez egon beharra.
- Flexioak egin beharra. Zerbikalen hiperflexio egoeran behartutako jarrera.
- Flexioak egin beharra.
- Denbora luzez behartutako jarrerak mantendu beharra.
- Flexioak egin beharra (hirurehun edo gehiago).

Poltsa erabiliz egiten den **asfixia** teknika 2 kasutan agertzen da, eta beste batean intentsitate txikiko deskarga elektrikoaren erabilera.

8 pertsonen txostenetan **zentzumenekin eta haien ukapenarekin** lotuta dauden tortura /

tratu txarren tekniken adierazpenak jasotzen dira. Ohikoenak ikusmenaren ukapena (Z=6), loaldiena (Z=4) eta oihuak edo zaratak (Z=3) izan ziren.

77. Taula. Txosten medikoak dauden kasuetan agertzen diren zentzumen eta haien ukapen tekniken adierazpenen deskribapena (z=11)

- *Burua buru-estalkiak batekin estalita.*
- *Argia etengabe. Ukipen lenterik ez. Antifaza lekualdaketa bitartean.*
- *Lehenengo egunean urik ez. Bazkari baten ukapena. Ikusmenaren ukapena (antifaza). Loaldien ukapena. Galdeketak etengabe. Higienearen gabeziak.*
- *Ikusmenaren ukapena (antifaza).*
- *Etenak atsedendietan (zeldako argia etengabe piztuta, galdeketetarako sarri esnatu beharra). Oihuak belarrietara.*
- *Zarata gorgarriak eta oihuak belarrietan zuzenean (batez ere eskumakoan).*
- *Ikusmenaren ukapena (antifaza galdeketetan, argirik ez zeldan). Etengabeko galdeketen artean loaldien gabezia, oihuak, kolpeak atean etab., loaldirik ez.*
- *Urez busti zuten.*

Zazpi atxilotuk **izaera sexuala zuen tratu txarrenbat** salatu zuten. 2 kasutan modalitate hauek agertzen dira: barrabilen gaineko

indarkeria fisikoa, biluztasuna, ukipenak, mehatxuak eta irainak.

78. Taula. Txosten medikoak dauden kasuetan agertzen diren sexu tortura tekniken adierazpenen deskribapena (z=11)

- *Presioa barrabiletan.*
- *Kolpeak barrabiletan behin eta berriro, eta eskua irekita.*
- *Biluztasun behartua. Sexu izaera duten ukipenak: bularrak. Gorputzetik objektu bat pasatzen diote, batez ere izterren barnealdetik, kanpoko genitaletatik eta ipurditik (sarketarik ez).*
- *Ukipenak bularretan.*
- *Behartutako biluztasun partziala: "Kamiseta eta prakak jaitsita".*
- *Bortxaketa mehatxuak. Irainak.*
- *Bortxaketa mehatxuak (lagun bati nola egin zioten).*

Izaera sexuala ez duten irainekin **mehatxuak** eta umiliazioak jasotzen dira 6 atxiloturen txostenetan.

79. Taula. Txosten medikoak dauden kasuetan agertzen diren mehatxuen (ez-sexualak) adierazpenen deskribapena (z=11)

- *Irainak, umiliazioak eta isekak.*
- *Heriotza mehatxuak. Irainak. Umiliazioak.*
- *Mehatxuak eta umiliazioak.*
- *Irainak, umiliazioak.*
- *Tortura mehatxuak: elektrodoak (txinparten simulazioa). Umiliazioak.*
- *Irainak, mespretxua eta mehatxuak.*

Gertatu diren tortura edo tratu txarreki buruz informazioa eman behar den momentuan, atxilotuaren "kolaborazio eza" aipatzen da 5 pertsona ezberdinen txostenetan. Egoera

psikologikoari dagokionez, bi txostenetan atxilotuak "izututa" dagoela edo "errepresalien beldur" dela aipatzen da.

80. Taula. Atxilotuaren kolaborazio eza jasotzen duten dokumentuen deskribapena

- *Beste azterketa batean "ez duela erantzun nahi" ageri da. Beste azterketa batean "Ez du gehiago hitz egin nahi. Izututa dago" ageri da.*
- *Gertatutako guztia ez du esan nahi "bentetan" beldur delako. Errepresalien beldur da.*
- *Ez du erantzun nahi.*
- *Batzuetan ez du erantzuten. Batean dio "tratu txarrik ez duela sufritu", beste batean tratua*
- *"ona" izan dela. Instrukzioko epailearen aurreko deklarazio judizialean dio "berak hautatutako abokatu baten aurrean egon arte ez duela jaso duen tratua inguruan erantzun nahi".*
- *Jasotako tratua inguruko galderak ez ditu erantzuten.*

2. Adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezakeen sintomatologia

Adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezakeen sintomatologiari dagokionez, osasun egoera fisiko subjektiboari buruzko informazioa dago 6 atxiloturen txostenetan. Deskribatutako sintomarik ohikoenak honako hauek ziren: zerbikalgia (Z=6), buruko mina (Z=4) eta giharretako min orokorrak edo beheko gorputz-adarretakoak (Z=3).

81. Taula. Txosten medikoak dauden kasuetan, adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezakeen sintomatologia fisikoaren analisisa (z=11)

- Nekea. Zefalea. Zerbikalgia. Buruko azalaren erredura.
- Noizean behin mina lepoaldean. Zerbikalgia.
- Mina eskumako sorbaldan (bidaia esku-burdinekin egiteagatik). Gaizki dagoela dio, buruko minarekin eta jateko gogorik gabe. Ahoko braquetsak erakutsi dizkit, ez dago eroso. Azken egunetan nekea eta giharretako min orokorrak ditu, eta azken orduetan berak mugatutako zorabioak izan ditu, konortea galdu gabe baina larritasun egoeran dago, zailtasunak ditu arnasteko, eta botaka ari da. Mina du zerbikaletan eta barrabiletan.
- Adierazi dituen tratu txarrei dagokienez: loezina, neke fisiko eta psikikoa. Mina ezkerreko trapezioan, buruan eta hanketan (auto istripuaren aurretik). Takikardia, epigastrialgia, anorexia. Giharretako min orokorra. (Oharra: tratamendu
- *dua agindu zaio: hanturaren aurkakoa / analgesikoa, baina ez du hartu nahi egoera ez kontrolatzeko beldur delako). Atxiloketa bitarteko auto istripuari dagokionez: zerbikalen bihurtura eta bularrezurraren makadura.*
- *Garezurreko mina zonalde parietalean (haztapenean nabaritu egiten da). Zerbikalgia; Zerbikal-dorsalgia (ziurrenik lotuta dago lekualdaketan izandako jarrera behartuarekin). Tinnitus eskumako belarrarian. Beherakoa. Hilekoa: odol jarioa eten egiten da atxilotetaren ostean. Loezina; apatia; antsietatea. Jateko gogoaren murrizketa.*
- *Lepoko mina (bidaiengatik). Mina buruko azalean iletik tira egin diotelako. Mina hanketako giharretan flexioengatik. Buruko mina (tratamendua: ibuprofeno). Itxura astenikoa, ibiltzeko zailtasunak. Asfixia eta botaka (poltsa). Takikardia.*

Adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezakeen sintomatologia psikologiko erreaktiboaren existentzia 8 atxiloturen txosten mediko forentsetan ageri da. Batez ere,

urduritasuna edo antsietatea aipatzen dira, baita urduritasun edo antsietate egoerarekin lotura duten sintoma fisikoak ere.

82. Taula. Txosten medikoak dauden kasuetan, adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezakeen sintomatologia psikologikoaren analisisa (z=11)

- *Autolesioa ondorio duen antsietate eta urduritasuna.*
- *Atxilotuak antsietate arina erakutsi du egindako bisita guztietan.*
- *Urduritasuna.*
- *Berak mugatutako zorabioak izan ditu, konortea galdu gabe baina larritasun egoeran dago, zailtasunak ditu arnasteko, eta zehaztu gabeko zorabioak ditu. Ziurrenik antsietate egoeraren ondorio dira.*
- *Loezina, neke fisiko eta psikikoa. Takikardia, epigastrialgia. Anorexia. Sintomatologia psikologikoa: muturreko antsietatea, urduritasuna, izu-ikara, negarra azterketa mediko forentse osoan zehar, beldurra gauzak ez kontrolatzeari. Beldurtuta dago.*
- *Muturreko antsietate sindromea (negar ugari, hiper-aireztapena, beldurrez beteriko begirada). Umiliazio sentimendua. Tratamendu antsiolitikoari uko egiten dio. Jarrera uzkurra. Mesfidantza. Loezina; apatia; antsietatea. Gosearen murrizketa. Loezina.*
- *Antsietatea (tratamendu antsiolitikoa). Urduritasun handia. Larritasuna. Emozioen labilitatea. Negarra. Dardar garrantzitsua. Adierazteko eta ideiak edo sentimenduak komunikatzeko zailtasunak. Komunikazio gutxi. Izututa dago. Aldi baterako desorientazioa. Takikardia.*
- *Zuhurki urduria. Anorexia. Lo gutxi egin duela dio.*

3. Adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezaketen indarkeria arrastoak

7 atxiloturen txostenetan azterna traumatikoen inguruko informazioa ageri zen. Haietako 6 txostenetan berriki gertatutako eta adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezaketen indarkeriaren arrasto fisikoak deskri-

batzen dira. Haietako batean atxilotuak bere buruari egin zizkion lesioak agertzen dira, eta atxilotuak hala azaltzen du. Zazpigarren kasuan tratu txarren adierazpenekin loturarik ez duten lesio traumatikoak agertzen dira. Agertzen diren lesio fisiko gehienak lesio arinak dira, urradurak, ubeldurak edo ekimosiak esaterako.

83. Taula. Txosten medikoak dauden kasuetan, adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezaketen indarkeria arrastoen analisia (z=11)

- Adierazitako tratu txarrekin lotura duten azterna traumatikoak: ubeldura begietan. Edema begi aldean, buruko eta aurpegiko hantura eta edema, ekimosisa belarriaren atzealdean. Traumatismo kraneoentzefalikoa. Zerbikalen kontraktura. Garezurreko tomografia: garezur azpiko ubeldurak. Eboluzioa: zauria buruko larruazalean eta alopezia haren inguruan. Autolesioak: zauriak eskumuturretan.
- Hainbat urradura zarakarrarekin hankaren aurreko aldean eta ezkerreko belaunean. Zerbikalen makadura eta urradurak belaunetan.
- Eritema arinen azternak eskumuturretan (esku-burdinak direla eta). Lehen 2 bisitetan azterketarik ez (ez du nahi). Hirugarren, laugarren eta bostgarren azterketetan "ez dago lesiorik gorputzaren gainazalean". Osteo txosten klinikoan: mina ezkerreko epididimoan haztapenean, ez dago hanturarik. Zerbikalgia eta garezurreko makadura arina.
- 0.1 zentimetroko urradura arina kokotsean. Borobil itxurako eritemak bi eskumuturretan, esku-burdinen eraginez. Mina izterraren erdiko eta aurreko atalean presioa egiterakoan, ez dago lesio fisikorik. Zonalde ekimotiko handia toraxaren aurrealdean, esku baten eta hatz batzuen irudia antzematen da, eta forma berdina ageri da toraxaren atzealdean, kolore ubela du. 3 zentimetroko borobil itxurako ekimosia eskumako popliteoaren hutsunean, kolore ubela du.
- Auto-istripuarekin erlazioa duten azterna traumatikoak: mina bularrezurrean gaineko haztapena egiten denean eta arnasketa mugimenduak egiten direnean; azken hauek auto-istripuarekin erlazioa izan dezaketen sintomak dira. Adierazitako tratu txarrekin lotura duten arrasto traumatikoak: ekimosia eskumako belarriaren aurrealdean. Kolore ubela duten hainbat ekimosi eskumako begiaren aurreko zonaldean (masaila). 2X2 cm neurtzen duen hematoma eskumako izterraren kanpoko aldean, kolore ubel iluna du. 2X2 cm neurtzen duen borobil itxurako hematoma ezkerreko besoaren kanpoko aldean, kolore horia-marroi-ubela du.
- Arrastoak eskumuturretan (esku-burdinengatik). Zerbikalen eta goiko dortsalen kontrakturak. Mina lepoaren mugimendu aktibo eta pasiboarekin. Ornoetako eta dortsaletako giharren kontrakturak (erlazioa ziurrenik jarrera behartuarekin). Konfiantzazko medikuak agindutako osteopatia tratamendua. Zentimetro bateko hematoma ezkerreko belaunaren aurreko-alboko atalean. 3,5 zentimetroko urradura lineala ezkerreko belaunaren atzeko-alboko atalean.
- 4,5 cm eta zentimetro bateko bi urradura epigastrioaren zonaldean.

4 atxiloturen txostenetan agertzen denaren arabera, gorputzeko azterketa bat edo gehiago ez ziren burutu atxilotuak uko egin zielako.

4. Txosten mediko forentseek emandako informazioa ikusirik, tratu txarren gertagarritasunari buruzko ondorioak

Agiri mediko-forentsetan agertzen zen dokumentazioa ikusirik, honakoa izan zen tratu txarren gertagarritasunari buruzko

ondorioen balorazioa: sendotasun fisiko eta kliniko handia 3 kasutan; sendotasun kliniko handia kasu batean; eta sendotasun kliniko eta / edo fisikoa izan dezaketen

beste 3 kasu. Beste 5 atxilotuen inguruan eskuratutako informazioak ez zuen tortura adierazpenen ebaluazio duin bat egiteko adina informazio erantsi (84. Taula).

84. Taula. Txosten mediko forentseak dituzten kasuen deskribapena						
Konf Md (konfiantzako medikua); Esp MD (espetxeko medikua); ANMF (Audientzia Nazionaleko mediku forentsea); MLEIMF (Medikuntza Legaleko Euskal Institutuko mediku forentsea)						
Kasua	Txostenak	Txostenetan jasotako informazioa				Tratu txarren sendotasunari buruzko balorazioa (Proiektuko taldearen iritzia)
		Tratu txarren adierazpenak	Sintoma fisikoak	Sintoma psikologikoak	Aztarna traumatikoak	
ILMW02	ANMF; Ospitalea; Esp MD; Parteko adituak	Fisikoak eta psikologikoak	Bai	Bai	Bai	Sendotasun fisiko eta kliniko handia
ILMW03	ANMF	Fisikoak	Zehaztu gabe	No	Azterketarik ez	Datu garrantzitsurik ez
NLMAP01	MLEIMF	Fisikoak eta psikologikoak	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe	Datu garrantzitsurik ez
NLMAP03	ANMF	Fisikoak eta psikologikoak	Zehaztu gabe	Bai	Azterketarik ez	Datu garrantzitsurik ez
BMI01 UG [A]	MLEIMF Ospitalea	Epailearen aurrean. Datuak osatu gabe	Bai	Bai	Bai	Sendotasun kliniko izan dezake, baina ez dago datu nahikorik
MIIA01	ANMF	Fisikoak eta psikologikoak	Bai	Bai	Bai	Sendotasun kliniko izan dezake, baina ez dago datu nahikorik
MNEG03	MLEIMF ANMF	Fisikoak eta psikologikoak	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe	Bai	Sendotasun fisikoa izan dezake
OBAM01	ANMF, Larrialdiak, Konf Md	Fisikoak eta psikologikoak	Bai	Bai	Bai	Sendotasun fisiko eta kliniko handia
OBAM02	ANMF, Konf Md	Fisikoak eta psikologikoak	Bai	Bai	Bai	Sendotasun fisiko eta kliniko handia
OBIM06	MLEIMF ANMF	Ez. Kolaborazio eza.	Zehaztu gabe	Ez	Azterketarik ez. Normala 1. txostenean	Datu garrantzitsurik ez
OBIM07	ANMF, Konf Md	Fisikoak eta psikologikoak	Bai	Bai	Azterketarik ez	Sendotasun kliniko handia
AMRGL09	MLEIMF ANMF	Ez	Ez	Bai	Bai	Datu garrantzitsurik ez

Kasuen % 83an tratu txarren adierazpenak jaso ziren; % 66an sintoma psikologikoak deskribatzen dira; eta % 58an indarkeria aztarnaren bat agertzen da atxilotuaren gorputzeko azterketan.

Eztabaida

1. Ebaluazioaren mugak

Dokumentazio mediko forentsearen balorazioak hainbat muga ditu:

- 1) Proiektu honetako kasuen % 25ean baino ez ziren inkomunikazio bitarteko txosten mediko forentseak eskuratu. Txosten guztiak torturaren eremuan lan egiten duen giza eskubideen elkarte batek eman zizkigun. Gainontzeko kasuetan ezin izan zen txostenik lortu kasua zaharregia zelako edota aipatutako erakundeak ez zuelako tortura salaketarik adierazi. Ehuneko txikia da, eta horrek erakusten duen moduan, etorkizuneko azterlanetarako lehen mailako iturrietako txostenak eskuratzeko beharra dago. Hala nola, Audientzia Nazionalak, tortura

salaketak jaso zituzten auzitegiek edota espetxeek eginiko txosten medikoak.

- 2) Kasu batzuetan atxilotuaren kolaborazio faltagatik (azterketa fisikoari edota jasotako tratuari buruz erantzuteari uko egin zion atxilotuak) ez zen txosten mediko eraginkorrik idatzi. Atal honetan aztertutako datuak ez dira nahikoak atxilotu batek kolaboratzeari uko egiteko arrazoiak ezagutzeko: errepresalien beldur? Mediko forentsearekiko mesfidantza? Tratu txarrei buruz ezer ez kontatzeko poliziaren mehatxuak? Gai honi dagokionez CPT batzordeko adituek diote atxilotua beldurtuegi egon daitekeela bere kexak azalertzeko, edo beharbada atzean poliziaren mehatxua egon daitekeela. Atxilotutako pertsona batek jasan ditzakeen presioak kontuan hartuta, mediku forentseek ez lukete ezinbestean onartu behar pertsona horiek ongi tratatu dituztenik⁸³. Atxilotu batek esan zuen moduan: *Berriro eraman ninduten forentsearenera, kasu honetan beste bi polizien antzeko gizon bat zen, eta uniformearen zuen. Ezin nuen sinetsi bera forentsea zenik eta ez nuen hitz egin.* Gai hori ere hurrengo sententzia honetan baloratu zen⁸⁴:

⁸³ European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 1 to 12 April 1991. CPT/Inf (96) 9 [EN] (Part 1) – Publication Date: 5 March 1996.

⁸⁴ Bizkaiako Probintzia Auzitegiko Lehen Sekzioko epaia, 98/02/17.

Mediku forentseen aurreko tratu txarrei dagokionez, merezi du Bizkaiako Probintzia Auzitegiko Lehen Sekzioko epaia (17/02/98) mahaigaineratzea. Bertan frogatu egiten da pertsona atxilotuak Epai-Batzordeari kontatu ziona gerora poliziek jakin zutela, eta azken hauek mendekua hartu –zehazki arrazoi horregatik torturatu zuten– eta pertsona atxilotuari mehatxu egin zioten berriro ere. Beraz, pertsona atxilotuak Medikuauren aurrean tratu txarrak salatu ez bazituen ere, horrek ez du esan nahi tratu horiek ez zirenik gertatu. Gai honek iritzia norabide horretan izatera bideratzen gaitu gutxienez.

Konstituzio Auzitegiaren beste epai berri batean agertzen denaren arabera⁸⁵: *“beraz, atxilotuak Medikuari inolako indarkeria fisiko edo psikikoa salatu ez izana, edota poliziaren tratua egokia izan dela adierazi izana, ez da inolako froga eztabaida ezina”* eta onargarriztat hartzen da atxilotua *“polizien beldur zela, medikua joan bezain laster euren zaintzapeko inkomunikazio erregimenak jarraituko zuelako”*.

- 3) Oro har, txosten mediko forentseetatik jasotako informazioa osatugabea edo urria izan zen
 - a) Tortura metodoen deskribapenak ez daude guztiz zehaztuta.
 - b) Osasun egoeraren eta adierazitako torturarekin lotutako aztarna fisiko eta psikologikoen sintomen presentzia edo gabeziaren deskribapena eskasa da.
 - d) Ez dago interesekoak izan zitezkeen froga osagarrien eskaerarik (esate baterako, giharren entzimen determinazioa serumean).
 - e) Ez dago sintomatologia fisiko eta psikologikoaren baloraziorik, ez eta aztarna traumatikoen agerpen mekanismoari buruzko hausnarketarik.
 - f) Posiblea da azterketa mediko batean adierazitako metodoek inolako lesio objektiborik ez uztea. Adierazitako tratu txar askoren izaera dela eta, zaila izan daiteke ebidentzia medikoak eskuratzea.

2. Azterlan honetako aurkikuntzen balorazioa

Eskuratutako txostenak aztertu ostean, inkomunikazio bitartean tratu txarrak gertatu izanaren probabilitatea adierazten zuten elementuak zeudela ondorioztatu zen: kasuen % 83an tratu txarren adierazpenak jaso ziren; kasuen % 50ean adierazitako tratu txarrekin lotura izan zezakeen sintoma fisikoren bat

deskribatzen da; % 66an sintoma psikologikoak deskribatzen dira; eta % 58an indarkeria aztarnaren bat agertzen da atxilotuaren gorputzeko azterketan.

Dokumentu gehienak eskasak izan ziren elementu gako gisa tratu txarren balorazioa egin ahal izateko, baina hala eta guztiz ere, dokumentu batzuetan berriki gertatutako eta tratu txarren historiarekin bat zetozen eta indarkeriaren aztarna kliniko eta / edo ondorioen sintomei buruzko informazioa zegoen. Beraz, nahiz eta kasu guztietan indarkeria aztarna fisikoen konfirmaziorik ez egon eta batzuetan premisak eskasak izan arren, orokorrean, atxilotuen deklarazioak egiazkoak direla uste dugu.

Ondorio hauek 2011. urtean CPTk Espainian egindako azken bisitaren ostean argitaratutako txostenarekin⁸⁶ bat datoz. 2011ko bisitak iraun zuen bitartean, CPTk inkomunikazio erregimenean aplikatzen diren salbagueardiak eta modalitateak aztertu zituen. Bereziki Guardia Zibilak urtarrilaren 18tik martxoaren 1era egin zituen operazioak aztertu zituen; operazio haietan 16 pertsona atxilotu zituzten. Hamasei pertsona hauetako hamaika elkarrizketatu zituen delegazioak, eta atxiloketa hauekin lotura zuten Audientzia Nazionaleko zein Guardia Zibilaren dokumentu ugari delegazioaren eskura jarri ziren. Elkarrizketatuak izan ziren 11 pertsonetatik 10ek tratu txarren adierazpen sinesgarri eta sendoak egin zituzten delegazioaren aurrean.

⁸⁵ Konstituzio Auzitegiako epaia (STC 131/2012).

⁸⁶ European Committee for the prevention of torture and inhuman or degrading treatment or punishment (CPT). Report to the Spanish Government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention of Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) from 30 May to 13 June 2011, CPT/Inf(2003)22. Ref.: CPT/Inf(2013) 6 – Publication Date: 30 de abril de 2013. <http://www.cpt.coe.int/documents/esp/2013-06-inf-esp.pdf>

6. Atala.

Istanbulgo Protokoloetan adierazitako ondorio psikologiko eta psikiatrikoak

Miguel Ángel Navarro, Pau Pérez Sales, Maitane Arnoso, Gabriela López.

Sarrera

Gertaera traumatikoa modu honetan definitu ohi da: pertsona baten osotasunaren aurkako mehatxu larria suposatzen duen muturreko egoera, zeinaren aurrean pertsonak beldurrarekin, etsipenarekin edo izu-ikara biziarekin erantzun duen⁸⁷. Horrelako egoera bat bizi, entzun edo ikusi ostean, batzuetan bizirik irten den pertsonaren kontroletik kanpo dauden erreakzio edo sintomak agertu daitezke, eta horiek sufrimendu psikologiko larria sortzen dute.

DSM-III-R txostenean (*American Psychiatric Associationen Buruko Nahasteen Diagnosi eta Estatistika Liburua*), trauma, egoera normaletatik harago doan esperientzia bezala definitzen zen. Baina kontzeptua erlatiboa da eta bitartekoen testuinguruaren zein pertsonak gertaerari buruz duen pertzepzioaren arabera da. Horrela, beraz, pertsona batzuentzako jendearen aurrean umiliatuta izatea traumatikoa izan daiteke, eta basakerien biktima izan diren beste pertsona batzuek, ordea, bizi duten errealitatearen parte kontsideratu dezakete, eta ondorioz gertaera ez dute modu traumatikoan hautematen. Horregatik, DSM-IV eta DSM-IV-R txostentarako egungo definizio bat aukeratu zen.

Esperientzia traumatikoen eragina baloratzeko, normalean Trauma Osteko Estres Nahastea (TOSN) erabiltzen da. Nahaste honen funtsak dioen moduan, izaera larriko gertaera traumatiko baten ostean, pertsona gehienek jarraian ageri diren hiru sintoma talde handiekin lotutako erreakzioa izango dute:

- Trauma berriro bizitzea, errepikatzen diren pentsamendu edo amesgaiztoen bidez.
- Anestesia eraginkorra, berriro gogoratzea egiten duten estimuluak edo emozioak adierazteko zailtasunak alde batera uzteko moduan.
- Alerta egoera, hiperaktibitatea, kontzentrazio arazoak, arazoak laneko zein eskolako errendimenduan, edo suminkortasuna.

⁸⁷ American Psychiatric Association (2000). *Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders* (Revised 4th ed.). Washington, DC.

85. Taula. TOSNren diagnosis egiteko irizpideak

- A. Pertsona gertakari traumatiko baten eraginpean egon da:
- Bere edo beste batzuen osotasunaren kontrako heriotza edo mehatxuez osaturiko egoera bat (edo gehiago) bizi, ikusi edo azaldu izan diote.
 - Pertsonak beldurrarekin, etsipenarekin edo izu-ikara larriarekin erantzun du.
- B. Pertsonak trauma behin eta berriro bizi egin du jarraian ageri diren moduren batean (edo gehiagotan)
- Ondoeza eta sintoma intrusiboak (irudiak, pentsamenduak edo pertzepzioak)
 - Gertakariari buruz behin eta berriro errepikatzen diren ametsak. Ametsek ondoeza sortzen dute.
 - Norbanakoak gertakari traumatikoa gertatzen ari dela pentsatzen du edo modu horretan jokatzeko du (esperientzia berriro bizitzen du irudipen, haluzinazio eta flashback egoera disoziatuen bidez, esnatzerakoan edo intoxikatzean gertatzen direnak barne).
 - Ondoez psikologiko handia gertakari traumatikoa gogoratzen edo irudikatzen duten kanpoko zein barneko estimuluen aurrean.
 - Erantzun fisiologikoa gertakari traumatikoa gogoratzen edo irudikatzen duten kanpoko zein barneko estimuluen aurrean
- C. Traumarekin lotura duten estimuluak behin eta berriz saihestea eta norbanakoaren erreakzio orokorren sorgorpena (trauma aurretik ez ziren existitzen), beheko sintoma hauek adierazten duten moduan (hiru edo gehiago):
- Gertakari traumatikoari buruzko elkarrizketak, sentimenduak edo pentsamenduak saihesteko esfortzuak.
 - Ekintza adierazgarrietan parte hartzeko interesaren murrizketa nabaria
 - Besteekiko erotasun edo arrotze sententzia.
 - Bizitza afektiboaren mugapena (maitasun sentimenduak edukitzeko ezintasuna, esate baterako)
 - Etorkez ingurriaren sententzia (esate baterako: lanik ez bilatzea, ez ezkontzea, familiarik ez osatzea, oro har, bizitza normala egin ezin izatea).
- D. Jarraian agertzen diren sintomen aktibazioaren areagotzeak sortzen dituen sintomak (bi edo gehiago) (traumaren aurretik ez ziren existitzen):
- Loa hartu edo lo egiteko zailtasunak.
 - Sumingarritasuna edo haserrealdiak.
 - Kontzentratzeko arazoak
 - Neurritz gaineko zaintza.
 - Neurritz gaineko ikara erantzunak.
- Asaldura horiek hilabete baino gehiago luza-tu behar dira eta norbanakoaren ekintza-alor garrantzitsuen hondamen soziala edo ondoez kliniko esanguratsua sortu behar dute.

TOSNren kontzeptua laguntza handia da eragin traumatikoa duten pertsonen kasuan. Nazioarteko adostasun irizpideak izateko lagungarria da eta horri esker datu epidemiologikoak bildu eta planifikazioak egin daitezke, eta aurretik maiz ezkutuan gertatzen zen arazoa argitara eramateko aukerak eskaintzen ditu. Baina eragozpen batzuk ditu ere, artean:

- Programa bat oinarritzeko kontzeptu gisa erabiltzeak, bizirik ateratzen direnen es-

perientzia lekuz kanpo uztea eragin dezake. Eta arazoa sintoma fisikoen multzo batera murriztu daiteke, traumak berak zalantzan jartzen duen munduari, jendeari, zein norbanakoari buruzko balore zein sinesmenei edo sintomen kausari inolako garrantzirik eman gabe.

- Egoera traumatikoen eragina duten pertsonen egoeran TOSNekin zerikusirik ez duten beste kontu kliniko anitz ageri dira, eta maiz alde batean ahaztuta gelditzen dira.

- TOSNek mundu mailako erreakzio bat proposatzen du, eta laginak erakusten duen moduan, ordea, gertakari traumatikoei emandako erantzunek tokiaren eta kulturaren influentzia handia dute.
- Deskribatutako sintomak ohikoak izan daitezke. Ikerketa epidemiologiko batzuen arabera, gertaera traumatiko larriak (auto istripua, tortura, sexu-erasoa, natura-hondamendia, etab.) pairatu dituzten pertsonen erdiak baino gehiagok, sintoma bat baino gehiago sufritzen dute lehendabiziko asteetan.

Arrazoi horiengatik azterlan honetan ez da soilik TOSN erabiltzen gertaeren eragina aztertzeko, aipatutakoaz gain, Becken depresio eskala edo Bizi Inpaktuaren Baloraziorako Galdeketa (VIVO) ere erabili dira. Ikerketa honetan traumaren kontzeptua ez dugu ondorio psikofisiologikoetara mugatzen, definitio zabalagoa erabiltzen da.

Jendearen gertukoagoa den esperientzia batetik, trauma pertsonaren osotasun fisiko edo psikologikoaren kontrako mehatxua suposatzen duen egoera da, eta honako faktoreekin lotzen da: muturreko emozioak, kaosaren bizipenak, gertaeraren bitarteko nahasmena, orotzapenaren zatiketa, zentzugabekeria, ikara, anbibalentzia, harridura, umiliazioa edo bizitzaren gaineko kontrolaren galera edo babesik eza. Azken hau zaila da kontatzeko, zaila da beste pertsona batek ulertzeko eta gizakiaren segurtasun erreferenteen oinarritzko onarpenak zalantzan jartzen ditu, batez ere bizitzaren gaineko kontrola zauritu ezina dela uste duten pertsonena. Besteekiko konfiantza, jendearen ontasunean eta enpatian sinestea, aurreikusi eta kontrola daitekeen munduaren izaera eta munduaren aurkako niaren eskema guztiak zalantzan jartzen ditu horrek.⁸⁸

Esperientzia traumatikoek egoera hauek sortzen dituzte:

Torturatutako pertsonen senideentzako ere ondorioak mingarriak eta iraunkorrak dira.

- Babesik gabeko egoera, besteen edo zoriaren menpe dagoela uste du atxilotuak, bere bizitzaren gaineko kontrola galdu duela alegia.
- Existentzia beraren haustura, bizitzaren jarraipena osatzen duen sentimenduaren haustura.
- Muturreko estres negatiboa.

Estresa eragiten duen agentearen larritasuna da trauma osteko estresaren agerpenerako faktore erabakigarrietako bat. Gertaera traumatiko batek ondorio traumatiko gehiago sortuko ditu honako egoeraren batean ematen bada:

- Bat-batekoa baldin bada.
- Iraupen luzekoa baldin bada.
- Errepikakorra baldin bada.
- Nahita baldin bada.

Ezaugarri horiek:

- Egoera kontrolpean izateko eta aurre egiteko estrategia eraginkorrak eraikitzeke atxilotuak duen gaitasuna gutxitzen dute.
- Gizakiaren oinarritzko onarpenak zalantzan jartzen dituzte, hala nola, pertsonen ontasunari buruzko sinesmena.

Muturreko ahultasun zein babesik gabeko egoeren testuinguruan (inkomunikazioa kasu), egoera kontrolpean izateko edo ihes egiteko ezin da ezer egin eta beldur hori erabakigarria da. Hala ere, tortura bezalako gertaera traumatiko batean, ondorioak ez

⁸⁸ Pérez-Sales, P. (2006). *Trauma, culpa y duelo: hacia una psicoterapia integradora*. Bilbo: Desclée De Brouwer.

daude soilik trauma-osteko estresarekin lotuta, beste mota batzuetako ondorioak ager daitezke:

- Alienazio sentsazioa: egoera bizi izan ez duenak ezin du kontatu.
- Epaitua izatearen sentsazioa: gainontze-koak epaile mutu gisa hauteman daitezke, nahiz eta horrelako jardunik ez egin.
- Zentzua bilatzeko helburuarekin gertatutakoa berriro eraiki eta hutsuneak betetzeko beharra: atzera begirako igarmen arriskua.
- Gizakiaren ontasunaren oinarriko sinesmenaren suntsipena: sinesmen horrek bizitza bera eta lotura afektiboak ezartzea ahalbidetzen du.
- Errua: erantzunak aurreikuspenik gabeko gertaeren hausnarketaren ondorio gisa ulertzen ditu atxilotuak.
- Umiliazio eta lotsa sentsazioak: gertaera traumatikoarekin lotura.
- Norberaren oinarriko sinismenak zalan-tzan jartzea.
- Zentzurik edo logikarik ez duenari aurre egitea.
- Isolamendua: kontatzeak arbuioak sortzen ditu. Muturreko ulerezintasun eta alienazio sentsazioa.
- Munduarekiko konfiantzaren haustura.
- Afektibitatearen eta emozioen anestesia. Gauza bihurtzea.
- Zentzua zorian bilatzearen ondorio diren arazoak.
- Emozioak sentitzeko ezintasuna.
- Segurtasun eza. Mundua leku beldurgarria da, aurreikusi ezin daitekeena.
- Umiliazioa: trauma osteko hazkundearen ukapena: Ez genuen erabilgarria den ezer ikasi.
- Erresumina.

Torturak indar suntsitzailea dauka pertsonaren eta bere ingurunearen gainean, eta sor-

tzen duen sufrimendu fisiko eta psikologiko erraldoiaz gain, biktimaren osotasuna eta erresistentzia suntsitzea eta zigortzea du helburu. Torturak bizitza eta heriotzaren arteko muturreko egoera batera eramaten du atxilotua. Muturreko sufrimenduko egoera horretan, torturatzaileek "erabaki bat hartzea" behartzen dute atxilotua, bere gizabanako nortasuna salbatzea (beste batzuk salatu eta bere burua salbatzea) edo nortasun soziala salbatzea (osorik mantendu eta salaketarik ez egitean, baina gizabanakoaren suntsipenera arriskatzea). Ustezko erabaki hau faltsua da, bi aukerak atxilotuaren nortasunaren aurkako erasoak dira. Torturatzaileen mezuen helburua nortasuna zentzu horretan suntsitzea da.

Torturatutako pertsonen senideentzako ere ondorioak mingarriak eta iraunkorrak dira: atxiloketa ikusi izana, senideak bizi duen inkomunikazio egoera, zigortzen ari diren biktimarekin erlazio zuzena izateagatik gerta daitekeen zirikatzeak edo jazarpenak, bigarren mailako trauma, estresa, beldur edo kezka mailaren areagotzea, segurtasun eta babes sentsazioaren galera, etab. Horrek eragin handia izan dezake familia eremuan. Aldi berean, torturak familiaren bizi-kalitatearen aldaketa inportantea suposatu dezake, hala nola, osasun arazoak, behartutako etxebizitza aldaketak, lana galtzea edota babes sozialaren gutxitzea.

Errepresio politikoa gertatzen den beste testuinguru batzuetan, babes sozialak biktimaren ongizate psikologikoaren erregulazio aldagai funtzioa betetzen du⁸⁹, baina kasu batzuetan babes hori eskuratzeko zailtasunak ageri dira, batez ere giza eskubideen urraketan larri hau ezkutuan (edo justifikatua kasu batzuetan) mantentzen den gizarte batean. Torturaren aplikazio sistematikoa ahalbidetzen duten baldintzek lotura estua dute legitimazio elementu batekin, eta Euskal Herriko

⁸⁹ Arnoso, M., & Pérez-Sales, P. (2013). Representaciones sociales de la víctima: entre la inocencia y la militancia política. *Psicoperspectivas*, 12(1), 50-71.

Jendearen erdiak baino gehiagok (% 53) trauma-osteko estresa aurkeztu zuten momenturen batean.

kasuan, legitimazioa, terrorismoaren aurkako borrokan edozein metodoren erabilpenen justifikaziotik dator. Halaber, erakunde armatuarekin duten harremana alde batera utzi eta terroristen kategoria ezker abertzalearekin lotura duten pertsona guztietara zabaldu da. Aipatutakoa, beraz, torturaren dimentsio sozialarekin eta komunitateko ondorio psiko-sozialekin lotuta dago eta horren eraginez,

beldurra, inhibizioa, inpotentzia edo gizar-tearen baitako adostasuna sortzen da.

1. Diagnosi psikiatrikoak - Istanbulgo Protokoloa

Jarraian datorren taula protokoloetan agertzen diren diagnosi psikiatrikoen laburpena da, kasu bakoitza aztertu ostean psikiatra eta psikologoek egindako ebaluazioak hain zuzen. Prebalentzia metatua islatzen duten zifrak dira. Beste modu batean esanda, taula honen bidez **mementuren batean** atxilotuak adierazitako **gertaerekin lotutako** diagnosi bat aurkeztu zuen islatu nahi izan dute adituek. Ez dira aurretik eginiko diagnosiak kontuan hartu, soil-soilik atxilotetaren ostean adituen ustez ageriko okerragotzea gertatu den kasuetan txertatu dira.

86. Taula. 45 Pertsona aztertuen diagnosi psikiatrikoak – Istanbulgo Protokoloa

CIE-10 Diagnostika			
F33.1	Nahasmendu Depresibo errepikaria.	6	% 13,4
F32.0	Nahasmendu Depresibo arina.		
F32.1	Nahasmendu Depresibo ertaina.		
F33.3	Nahasmendu Depresibo larria (sintoma psikotikoekin)		
F.40.2	Fobia Espezifikokoak (isolatuak).	1	% 2,2
F41.1	Antsietate Orokorren Nahasmendua.	3	% 6,7
F41.2	Nahasmendu Antsietate-Depresiboa.		
F41.9	Zehaztapenik gabeko Antsietate Nahasmendua.		
F43.0	Estres Erreakzio Akutua.	3	% 6,7
F43.1	Trauma-osteko Estres Nahasmendua.	24	% 53,3
F43.2	Moldaerazko Nahasmendua.	5	% 11,1
F43.9	Nahasmendu Somatoformeak.	3	% 6,7
F45.8	Bestelako Nahasmendu Somatoformeak		
F62.0	Hondamen gertaeren osteko Nortasunaren Eraldaketa Iraunkorra.	4	% 8,9
Z65.4	Tortura biktima. Ez du CIE-10 nahasmenduen inolako irizpiderik betetzen.	6	% 13,3

Ikusten den moduan, jendearen erdiak baino gehiagok (% 53) trauma-osteko estresa aurkeztu zuten momenturen batean, % 13,4k nahasmendu depresiboa (arinetik oso larrira), % 6,7k antsietate nahasmendua eta beste horrenbestek nahasmendu somatoformea. Trauma-osteko gertaerekin lotutako diagnosirik larriena hondamen gertaeren osteko Nortasunaren Eraldaketa Iraunkorra da. Pertsonari min iraunkor eta konponezina eragiten dio, pertsonaren nortasuna modu adierazgarrian aldatzen da, eta adierazitako gertaeren aurretik pertsonak ez zuen jarrerera zurruna eta moldaezina agertuko da. Munduko Osasun Erakundeak esperientzia horretako aztarna atzerazekin edo egotzera kroniko gisa kontsideratzen du. Aurrez pertsonarengan existitzen ez ziren ezaugarrien presentzia izan da bereziki diagnostika osatzeko oinarria, hala nola, munduarekiko mesfidantza edo areriotasuna, isolamendu soziala, hutsik sentitzea, etsipena, uneoro "mugan" bizitzearen sententzia (bizitzaren kontrako etengabeko mehatxu bat egongo balitz bezala) edo norberarekiko sentitzen den harridura. Aztertuen % 8,9a muturreko min honen deskribapenean sartzen dira.

2. Azterketa psikometrikoa

2.1. Trauma-osteko estresaren sintomatologia

Trauma-osteko estresaren kasuan 2. atalean deskribatutako PCL-C eskala erabili zen. Nahasmendu honen presentzia / gabezia ebaluatu ahal izateko, eskalaren baliozkotzedatuekin bat zetozen hiru eten-puntu hartu ziren^{90 91}:

Eraginen datu orokorrak ikusi aurretik itemen arabera erantzunak aurkezten dira.

⁹⁰ Ruggiero, K.J., Del Ben, K., Scotti, J.R. y Rabalais, A.E. (2003). *Psychometric properties of the PTSD Checklist-Civilian Version*. Journal of Traumatic Stress, 495-502.

⁹¹ Eskalan 44 puntu baino gutxiago agertzeak trauma-osteko estresaren gabezia esan nahi du.

45 eta 50 puntu bitartean, trauma-osteko estresaren sintomak daude.

51 eta 55 puntu bitartean trauma-osteko estres nahasmendu posible bat dago.

55 puntu baino gehiago agertzen badira trauma-osteko estres nahasmendua dago.

87.Taula. Trauma-osteko sintomatologia sexuen arabera: ehunekoak

	Gizona	Emakumea	Guztira
Berriro bizitzea			
Oroitzapen, pentsamendu edo irudi mingarriak.	31,6	42,9	36,4
Errepikatzen diren amesgaiztoak.	5,3	14,3	9,1
Berriro gertatuko balitz bezala portatu edo sentitzea.	5,9	7,1	6,5
Ekiditzea			
Gaizki sentitu esperientzia gogoratzean.	52,6	57,1	54,5
Erreakzio fisikoak esperientzia gogoratzean.	21,1	42,9	30,3
Esperientzia gogoratzea edo hari buruz hitz egitea ekiditea.	15,8	42,9	27,3
Esperientzia gogorarazten dioten ekintzak ekiditea.	5,6	35,7	18,8

Emozioen anestesia			
Esperientziako zati batzuk gogoratzeko zailtasunak.	31,6	7,1	21,2
Lehenago interesgarriak iruditzen zitzaizkion gauzekiko interes falta.	15,8	35,7	24,2
Jendearengandik urrun sentitzea.	17,6	42,9	29,0
Emozioei dagokienez blokeatuta sentitzea.	,0	7,1	3,0
Etorkizun mingarria.	26,3	42,9	33,3
Aktibazioaren areagotzea			
Lo egiteko arazoak.	31,6	38,5	34,4
Sumingarritasuna, haserrealdiak.	10,5	14,3	12,1
Kontzentratzeko zailtasunak.	31,6	38,5	34,4
Neurriz gaineko zaintza edo alerta egoera..	42,1	42,9	42,4
Ezinegona edo ikara erantzunak.	26,3	35,7	30,3
Funtzionaltasunaren irizpidea			
Sumatutako estres maila 5 baino altuagoa (1 – 10 eskala).	33,3	53,8	41,9
Egunerokotasunean duen eragina 5 baino altuagoa (1 – 10 eskala).	11,1	53,8	29,0

87. taulan azken lau asteetan sintomak "nahiko" edo "izugarri" nabaritu dituzten pertsonen ehunekoak agertzen dira. Oro har, gaur egun oraindik ere pertsona gehienek ohiko sintomak izaten dituztela ikus daiteke. Datu batzuk azpimarratzearen, pertsonen % 36ak irudi mingarriak ditu oraindik, eta % 54 gaizki sentitzen da gertakariak gogoratzen dituztenean. % 27a gertatu zenari buruz hitz egitea ekiditen du, lautik batek gustatzen zitzaizkion kontuekiko interesa galdu du eta, heren bat jendearekiko arrotz sentitzen da edo gertatu zenagatik etorkizuna erdibitu egin ziotela uste du. % 34ak lo egiteko edo kontzentrazio zailtasunak ditu, eta estimulu jakin batzuen aurrean erraz haserretzen dira. Trauma-osteko sintomak izateak ez du nahasmendu guztia dutenik edo gaixorik daudenik (zentzu klinikoan) esan nahi, inkomunikazio garaiko aztarna ezabaezinak dituztela baizik. Batzuk

gehiago akordatzen dira, beste batzuk guxtiago, baina denboran zehar mantentzen diren oroitzapenak dira.

Bataz-besteko orokorra 40 da. Sintoma guztietan emakumeek izan dituzte punturik altuenak geroago ikusiko dugun moduan, eta ezberdintasun nagusiak, ekiditearekin, interes galerarekin eta jendearekiko arrotz sentitzearekin lotutako puntuetan daude.

88. Taula. TOSN galdeketaren emaitzak (%)

Trauma-osteko Estresa (TOSN)	Gizona	Emakumea	Guztira
TOSNrik ez	60	42,9	51,7
TOSNren sintomak	26,7	21,4	24,1
TOSN probablea	6,7	21,4	13,8
TOSN	6,7	14,3	10,3
Z	15	14	29

Trauma-osteko estres nahasmenduaren diagnosi irizpideen arabera eta erabilitako eskala kontuan hartuz, egun, elkarrizketatutako pertsonen % 24,1ari trauma-osteko estresaren diagnosis egin zekiokkeen (% 13,8 TOSN "probable" gisa ageri da eta % 10,3 "egiaztatutako" TOSN gisa). Berrito ere garrantzitsua da genero ezberdinengan arreta jartzea, afektatutako emakumeak % 35,7 dira, eta gizonak, aldiz, % 13,4.

Hala ere, datu hauek okerrak egitera eraman gaitzakete, trauma-osteko estresaren aldagai nagusienetako bat ez baita kontuan hartu, urteen joana. Jarraian datorren taula honetan, datuak atxiloketa eta inkomunikaziotik azterketa honetara pasa den denboraren arabera zatikatu dira.

89. Taula. TOSN galdeketaren emaitzak denboraren arabera atxiloketa gertatu zenetik (%)

	2 urte baino gutxiago	3 eta 7 urte bitartean	8 urte baino gehiago
TOSNrik ez	16,7	50,0	64,3
TOSNren sintomak	50,0	12,5	21,4
TOSN probablea	16,7	25,0	7,1
TOSN	16,7	12,5	7,1
Z	6	9	14

Galdeketako datuek honakoa erakusten dute:

- 1) Inkomunikatuta egon diren pertsona gehienak trauma-osteko estresaren sintomaren bat dute (% 83,4ak lehendabiziko 2 urteetan, % 50ak hirugarren eta zazpi-garren urteen bitartean eta % 35,5ak 8 urte pasa ostean).
- 2) Joera dago urteen joanean sintoma hauek gutxitzen joateko, eta pertsona askoren kasuan sintomen kontrolerako eta

normalizaziorako prozesu mailakatua (baina motela) ematen ari dela ikusten da.

- 3) Pertsona talde batek agerian uzten du epe luzera ere nahasmenduaren sintomak ageri direla (hasierako 2 urteetan trauma-osteko estres larria duten % 16,7 pertsonetatik, % 7,1k mantentzen du 8 urte pasa ostean).

Orokorrean datu hauek bat datoz elkarrizketa klinikoetatik eskuratutako datuekin.

Inkomunikatuta egon diren pertsona gehienak trauma-osteko estresaren sintomaren bat dute (% 83,4ak lehendabiziko 2 urteetan eta % 35,5ak 8 urte pasa ostean).

1. Berrito bizitzearen sintomak

90. taulan ikusi den moduan oroitzapen, irudi edo pentsamendu mingarriak izan ziren **gertaerak berrito bizitzearen sintoma** orokortuenak (batez ere elkarrizketatutako gizonen kasuan, emakumeekin konparatuz gero). Gutxi gorabehera elkarrizketatutako pertsonen

heren batek amesgaiztoak edo gertaerak berrito gertatzen arituko balira sentitzen zutela adierazi zituzten (ehunekoak handiagoak dira gizonen kasuan berrito ere).

Elkarrizketetan, irudiak, pentsamenduak, atxiloketaren, torturaren edo tortura burutu zuten agenteek flashbackak deskribatzen dira. Buruan grabatuta gelditu ziren oroitzapen hauek eta gertaerei buruz hitz egiterakoan, istorioa berrito kontatu behar denean, atxiloketa berriak gertatzen direnean edota atxiloketarekin bat datozen leku, usai, soinu (oihuak, ateak), data edo orduak gogoratzerakoan burura bueltatzen dira. Batzuetan irudi hauekin batera antsietate egoerak, dardarak, takikardiak, sabeleko minak etab. gertatzen dira. Pentsamendu hauek atxiloketa eta tortura saioetan bizitako beldurrak berraktibatzen dituzte, eta maiz loaldiak oztopatzen dituzte.

90. Taula. Atxiloketa berrito bizitzea

"Ohean sartu, begiak itxi eta bat-batean polizien aurpegiak etortzen zaizkit. Gaiaz hitz egin bezain pronto, ahotsak dar-dar egin eta negarrez hasten naiz. (...) Unibertsitatean atxiloketa simulazioak egin ziren, atean ostiko bat nabaritu nuen, burua estalita zuten pertsona batzuk sartu eta neska bat harrapatu zuten (...) eta antsietate krisi bat izan nuen. Hasi eta bi ordu edo eman nituen horrela." (MIIA02)

"Estimuluren batek gertatutakoa gogorarazten didanean (usain bat, begiradak, gorputzaren formak) asaldatu egiten naiz, bihotza azkartu egiten zait eta torturak sortutako emozio guztiak bizitzen ditut berrito. (...) Gaur egun, oraindik, beldurra izaten dut emozio eta sentimendu horiek burura etortzen zaizkidanean; larritu egiten naiz oraindik ere; oraindik negar egiten dut bizitakoa eta sentitutakoa gogoratze hutsarekin." (ILMW01)

"Lagun bat daukat, berarekin askotan egoten naiz, eta azazkaletan horrela egiteko ohitura du [hazka egin], eta hori da oraindik "rollo txarra" ematen didan kontu bat, ez zait gustatzen eta apur bat horrekin lotzen dut, atxiloketako momentuak etortzen zaizkit burura. Noizean behin polizia batek azazkalean marraza sartuko zidala esaten zidan, baina azkenean ez zuen egin. Ez zidan guztiz egiten, azkenean ez zidaten ez marrazarik ez ezpalik sartu... baina, bai, lagun horrek egiten duenean sentsazio arraroa dut eta berari esaten diot." (MNEG02)

"Eta gero belarrira gerturatzen zaizkizu eta baxu hitz egiten dizute, garai batean nazka ematen zidan belarrira hurbildu eta jendeak zerbait esaten zidanean, amorrua, nazka ematen zidan, ez dakit, euren rola benetakoagoa balitz bezala, ez dakit hitzekin nola azaldu, nazka ematen zidan eta nazka eman zidan... Jendeari horrela ez hitz egiteko esaten nion amorru handia ematen zidalako." (JZLV5)

“Lepotik gora ez nazatela ukitu, noduluak kontrolatzeko biopsia bat egin zidaten eta bertatik histeriko baten moduan negarrez irten nintzen, baina etzanda nengoen, jendea nuen inguruan, bertan ibiltzen hasi ziren eta sirokua sartu zitzaidan, ze gaizki pasatu nuen, gainera ito egiten naizela iruditzen zait, nahiz eta ezer ez egin. Agian eskuak hemen jartzen badizkidate [ahoa] edo atzetik norbait etorri eta horrela egiten badit [begiak estali] (...) Elektrodoak ipini zizkidaten, lehen esan dizudan moduan suabe hasi baina gero intentsitatea handitzen zieten, izan ere, orain lepoagatik errehabilitaziora joaten naiz, eta giharra sendotzeko elektrodo txikiak jartzen dizkizute, elektrodoetako bat askatu eta ia bihotzekoak jo zidan. «Iratxe mesedez etorri», negarrez, «baina zer pasatzen da?» [galdetzen zion terapeutak] lasai, ez dit minik egiten baina bat-batean ez nengoen bertan, Madrilen baizik, polizia-etxean, oso gaizki. (...) Bat-batean... polizia-etxean nengoen eta ez fisioterapeutaren ohean etzanda (...) Orain dela hilabete eta erdi arte ez naiz kapaza izan norbaiti poltsa jartzen zioten pelikula bat ikusteko, haserretu egiten nintzen. Edo torturen inguruko ezer. Ezin nuen, nire onetik ateratzen ninduten eta noski, gauzak datozkizu burura (...) inoiz ez nauzu ikusiko mantarekin honaino [erabat estalita], beti uzten dut tarte bat hemen [ahoa] arnasa hartu ahal izateko. Ahoa estaltzen didan guztiak erabat larritzen nau, beti egon behar da zuloren bat arnasa hartu ahal izateko. (...) Tabernetan ere, beti egoten naiz barruko atetik gertu, eta jende asko baldin badago urduritu egiten naiz.” (MIIA3)

“Zentzurik gabeko gauzak ditut, arraroak ezta? Esate baterako atxilotu nindutenean brida bat erabili zuten, ezin ditut ikusi. Hasieran ez nekien zergatik ote nien horrenbesteko nazka, plastikozko zati bat baino ez da. Eta beste egunean alabarekin nengoen eta horrelako batekin etorri zitzaidan eta... «ui, ez ezazu hori ukitu!» Eta horregatik dela konturatzen zara.” (IGEJ01)

Horrekin batera, polizia gorpu ezberdinekin, galdeketekin eta torturekin harremana zuten amesgaizto asko deskribatu ziren. Amesgaiztoak larritasunaren eta bizitako muturreko estresaren adierazle dira eta neke

maila handiak edo egun osoko haserrea sor dezakete. Orokorrean, amesgaiztoak denbora pasa ahala gutxitu egin ziren, baina kasuren batean urteetan zehar luzatu ziren.

91. Taula. Amesgaiztoak

“Amesgaizto pila bat, gaur egun ere amets batzuetan Guardia Zibila agertzen zait. Hasierako hilabeteetan gehiago.” (MNEG04)

“Amesgaiztoak izan nituen galdeketekin, eta zaratekin erabat aztoratzen nintzen, ohetik salto egiten nuen, eta esnatu eta ez zidatela ezer egingo ikusten nuenean... lasaitzen nintzen. Polizia-etxean kolpe bat entzuten nuenean atean ematen zuten kolpea zen, altxatu eta galdeketetara eramaten zintuzten. Eta espetxean, metalezko ateez zarata handia egiten dute, eta salto egiten nuen, gero espetxean ez nengoela ikusten nuen eta lasaitu egiten nintzen.” (OBIM08)

“Orain dela urte batetik, edo bi gehienez, gutxiago amesten dut eta lasaiago nago... baina... pila bat luzatu da denboran, 13-14 urte. (...) Hasieran amesgaiztoak izaten nituen astean bi edo hiru alditan, gero behin edo bitan hilabetean eta gero gehiago luzatu ziren baina... ostia! Sentsazio hori... ametsetan nagoela! Ez, kaka zaharra, egia dela! (...) Esnatu eta konturatzen zinen... bai, ametsetan nengoen.” (OBSO4)

2. Ekiditearen sintomak

Ekiditearen sintomei dagokienez, gehien-goak adierazi zuen gaizki sentitzen zela esperientzia gogorarazi behar zuenean, eta erdiak gutxi gorabehera adierazi zuen ondorio fisikoak izan zituela esperientzia gogoratzerakoan eta saiakerak egin zituela gai hartaz ez hitz egiteko. Gutxi gorabehera elkarrizketatutako pertsonen herenak bizitako esperientziarekin lotura zuten ekintzak ekidin zituztela azpimarratu zuen.

Gertatutakoa gogoratzea ekiditeko saiakerak jasotzen dira testigantzetan. Aurreko tauletan ikusi den moduan ahaztea ez da gauza erraza. Nahiz eta pertsonak nahi ez izan, irudiak, pentsamenduak, flashbackak eta amesgaiztoak euren kabuz agertzen dira.

Elkarrizketatu batzuek diote denbora librea ekintzaz bete zutela, modu horretan gerta-

Esperientzia traumatikoa bizi izan duten pertsonen kasuan ohikoa da gizartetik urruntzea eta harekiko alienazioa sentitzea, lekuz kanpo sentitzen dira, bizi izan dutenaren aurrean inork ulertzen ez dielakoan.

tutakoan pentsatzeko denbora murriztu ahal izateko. Pertsona batzuek gertatutakoa kontatzea ekidin zuten ahaztuko zen esperantzarekin, eta helburu berarekin, gertaerekin lotzen zituzten lekuak ekidin zituzten (polizia-etxeetatik edo tortura eragin zuen polizia gorputzeko agenteengandik hurbil ez pasatzea, etab.). Hala ere, pentsamenduak albo batera mantentzeko esfortzua egiten bada ere, askotan bere kabuz bueltatzen dira.

92. Taula. Ekiditea

"Hemen dagoenak [buruari egiten dio erreferentzia] ahazteko dudan nahiaren lana egiten du eta horregatik oroitzen ez ditudan gauza batzuk daude ezta? Ahazteko nahi hori izan dudalako." (OBAM05)

"Kirola egiteak erabat lasaitzen nau, hobeto egiten dut lo, gaia ahazteko gauzak egiten ditut, orain denbora daukadala lanpetuta mantentzeko gauzak egiten ditut, lana, lagunekin egotea, horrek lagundu egiten du, eta horretaz gain, kozinatzea, kirola egitea. (...) Nire kasuan, aurrekoa ahaztu eta zerotik hasi nintzen, ez pentsatzen ahalegindu nintzen eta beste kontu batzuetara bideratzen... irratia entzuten nuen, liburuak irakurri, etab." (OBIM07)

"Agian txakurra ateratzen ari naizenean patruila gelditu eta niri begira geratzen direla ikusten dut. Ekiditen ahalegintzen naiz; ni ikusi eta edozein tontakeria esatea ekiditen dut." (NLMAP01)

"Kontrol batean Guardia Zibilak kotxea gelditu zezakeela nekien eta, beldurtuta igo eta jeisten nintzen lanetik. Gero, ordutegia aldatu zidaten, 13tatik 20etara egoten nintzen, eta gauz jaisten nintzen, eta sekula ez nintzen zonalde horretatik [Guardia Zibila egoten zen lekutik] pasatzen, denbora pasa ahala hori aldatu egin da. Geroago, herrian ia mundu guztia ezagutzen dudanez elementu arraroek ez didate horrenbesteko izua sortzen, orain lasai nago." (MNEG04)

Horrekin batera, bakardadea saihesteko beharra deskribatzen da, eta ez horrenbeste esperientziarekin lotutako pentsamenduak saihesteko zentzuan (bakarrik egon eta buruari bueltak eman), ostean garatzen den alerta

handiko egoeraren babes modu gisa baizik. Agian, etorkizuneko atxiloketa posible baten aurrean, jende gehiagorekin egoteak babes gehiago eskaintzen du.

93. Taula. Bakardadea ekiditea

"Inork ezin bazuen [etxetik atera edo lekuren batera lagundu], hurrengo egunerako uzten nuen." (NLMAPO2)

"Ez zait bakarrik ibiltzea gustatzen. Egunean zehar ezberdina da, baina gauean ez zait gustatzen. Normalean ez naiz gehiegi ateratzen, momentuz ez daukat beharrik, saiatzen naiz ez... egunerokotasunean sartu ahala aurretik zen modura bueltatzeko jarrera duzu, ez ehuneko ehunean, hori ezinezkoa delako." (JZLV06)

3. Anestesia edo emozioen blokeoaren sintomak

Anestesia edo blokeo egoerari dagokionez, gutxi gorabehera pertsonen erdiak etorkizun mingarria zuela (banaketa antzekoa gizon eta emakumeetan) eta jendearen aurrean arrotz sentitzen zela (emakumeak bereziki) adierazi zuen, heren batek adierazi zuen zailtasunak zituela esperientziaren atal batzuk gogoratzeko (gizonak bereziki) edo aurretik interesgarriak iruditu zitzaizkion gauzekiko interesa galdu zuela (batez ere emakumeen kasuan).

Gutxi batzuek emozionalki blokeatuta zeldela adierazi zuten (batez ere emakumeak).

Testigantzetan adierazitakoaren arabera pertsona batzuek egunerokotasunarekin jarraitzeko ezintasuna aipatzen dute, besteak beste, lana edo ikasketak modu egokian jarraitu edota ekintza berriak egiteko. Epaiaketaren zain egon beharrak etorkizuna planifikatzea eragozten du, eta beraz, pertsona batzuk epe motzean bizitzera behartuta daude.

94. Taula. Egunerokotasunarekin jarraitzeko ezintasuna

"Ez dakit... lanean zentratu nintzen, ez dut sekula berriro hasi dudan zerbait amaitu. (...) Epaiaketa heldu zen arte, hor blokeatu nintzen, uko egin nion lanari, ikasketei, zaindu behar nuen jendea zaintzeari." (MNEG01)

"Egunetik egunera bizi naiz, eta bihar heltzen bada, bihar ikusiko da, ez dut nire bizitza ikusten, horrela diot horrela sentitzen dudalako. Askotan, «igandea» esaten dugunean... itxaron igandea heltzeko eta ikusiko dugu, ez dut bihartik aurrera datorrena planteatzen." (OBAM05)

"Eta gero ez nintzen planak egiteko kapaza. Agian norbaitek deitu eta hurrengo astean ez dakit nora joateko esaten zidan eta nik hurrengoaren astean posible ote zen erantzuten nion... bihar zer egingo dudan ere ez dakit eta. Ez nintzen kapaza hurrengo egunean gertatuko zena jakiteko." (IGEJ01)

Aldi berean, jendearekiko sentitzen zuten distantzia deskribatu zuten atxilotu batzuek. Jende batekiko itxi izanagatik eta emozioak kudeatzeko eta kanporatzeko zailtasunak zirela medio, pertsonak karga handia sentitzen zuen talde handietan, lekuz-kanpo egongo balitz bezala, eta horregatik jende asko bil-

tzen zuten bilerak edo talde-ekintzak saihesten zituen. Esperientzia traumatikoa bizi izan duten pertsonen kasuan ohikoa da gizartetik urruntzea eta harekiko alienazioa sentitzea, lekuz kanpo sentitzen dira, bizi izan dutenaren aurrean inork ulertzen ez dielakoan.

95. Taula. Jendearekiko arrotz sentitzea

"Eta gero, jendearekin, asko mugatzen naiz, hau da, lehenago irekiagoa nintzen... orain again norbait hurbildu eta egoten naiz... baina nire lekura bueltatu nahi izaten dut, ez dakit. Orain dudatsuagoa naiz, jende askoren aurrean arnasa hartzea eta guzti kostatzen zait." (OAE04)

"Atera nintzenean lan egiteko deitu zidaten, eta ez nuen ondo eramaten horrenbeste haur eta horrenbeste oihuz beteriko gela batean egotea. Urtebete baino gehiago pasa da eta orain konturatzen naiz lehen bezala bizi ahal naizela, baina hasieran ezin nuen planik egin jende askorekin, ez nuen gogorik, nahiago nuen bakarrik edo pertsona bat edo birekin egon." (OBAM02)

"Harremanak jendearekin gaizki, arraro, lehen zenaren oso ezberdina. Ez dut apenas denborarik pasatzen... herriko jendearekin egoten naiz batzuetan, baina... beti izan ditut lagunak herritik kanpo eta ez naiz eurekin egoten... egia esan, ez dut herritik kanpo egoteko gogorik, ez dakit zergatik." (OBIM08)

"Ehun pertsonekin egon zaitezke eta bakarrik sentitu, hori da niri gertatzen zaidana. Jende askorekin egon naiteke baina nire munduan nago, kanpoan nago." (JGGL03)

"Jende askorekin geundenean gaizki jartzen nintzen. Gauzak kontatzen zituzten eta sentitzen nintzen... nik ez dut kontatzeko ezer. Zer kontatuko dut? Behin ez dakit zer gertatu zitzaidan espetxeko patioan... ezeroso, ez nengoen gaizki, baina ezeroso bai. Ez nuen gogo gehiegirik... pertsona batekin baldin banengoen ondo baina jende gehiago bazegoen urduri jartzen nintzen. Informazio asko zen, oso gaizki pasatzen nuen. Beraz, atera nintzen urte horretan askotan nire ahizparekin egoten nintzen. Ahizparekin beti izan dut harreman ona. Ahizparekin eta koinatuarekin egoten nintzen, mendira joaten ginen eta horrela gozatzen nuen. Urte horretan oso gaizki pasatu nuen. Ahizparekin eta koinatuarekin mendira txakurrarekin joaten ginenean baino ez nengoen gustura." (IGEJ01)

Esperientziako atalak gogoratzeko zailtasunei dagokionez, testigantza batzuek irrealtasun sentazioa adierazten dute, eszena batzuk ezabatuta dituen amets edo amesgaizto baten parte izango balitz bezala. Atxilotuak basakeria posiblea ez dela sinesteko egiten dituen ahaleginekin lotuta egon daitezke

ezabatutako atalak. Zailtasun horiek, trauma-osteko anestesia sintomatologiarekin edo emozioen blokeoarekin harremana dute alde batetik, eta bestetik aurreko ataletan deskribatu den "denboraren manipulazioa" tortura teknikarekin lotuta egon daitezke.

96. Taula. Esperientziako atalak gogoratzeko zailtasuna

"Polizia-etxean eman nituen bost egunak, egia esan gertatu zen guztia edo asko bestea baino ezabatuko daukat. Ez nuke denboran kokatzen jakingo, edo egoerak zenbat iraun zuen, edo orduak edo egunak pasatzen ziren, gauza bat bestearen aurretik edo ostean doan ere ez. Nahasia daukat dena, egia esan. Oroitzapenak oso ezabatuta ditut. Agian denborarekin gehiago ezabatu dira, baina atxilotua izan eta hilabetera jadanik gauza batzuetaz akordatu eta ezin nituen sinetsi. Urrutitik begiratzea eta amets batean egongo bazina bezalakoa zen. Baina hilabete pasa ostean oroitzen ez nituen kontu asko zeuden ere. Nik uste urduritasunagatik ezabatu zitzaidala hori dena. (...) Amets bat bezalakoa izan zen; amesgaiztoa. Egia al da edo amesten ari naiz? Ez dakizu zer den egia eta zer gezurra." (NLMAP02)

“Denborarena pasada bat da, azkenean orientazioa galtzen duzu eta ez dakizu ordu bat edo egun bat daramazun... espetxera heldu nintzenean gurasoek zerbait behar ote nuen galdetu zidaten. «Erloju bat» esan nien. Ez dut sekula erlojurik erabili baina ordutik erlojua eramaten dut beti. Ezin naiz egon ordua jakin gabe. Zer ordu den eta zer egun den jakin behar dut.” (JZLV04)

“Denbora apur bat pasa ostean ordenatzeko zailak diren bost egun izan ziren... atxiloteta, torturak, nola zen... hortxe zenuen ezta? Gogoratzen dut denbora pasa ahala ez nuela ordenatuta, espetxetik atera nintzenean ordenatu nuen lehen aldiz eta psikologo baten aurrera joan behar izan nintzen... agian loturarik ez zuen gertaeraren bat deskribatzen nuen edo 5 egun haietako egunen bat saltatzen nuen.” (IGEJ02)

“Hilabete bat edo bi pasa nituela esango bazenidan... baietz sinatuko nuke, baina ideiarik ez. Gero jada, esan zidatenean arrazionalizatu nuen, baina bestela... segundoa bizi duzu, eta segundo bakoitza bizi oso bat da zuretzat. Beste kontzeptu bat da, ez dakit, ez nuke beste modu batean azaltzen jakingo, baina denboraren parametroak ezberdinak dira... ez dakit.” (OAE02)

4. Aktibazioa areagotzearen sintomak

Aztertuen erdiak baino gehiagok adierazi zuten moduan, uneoro alerta handiko egoeran egotea izan zen aktibazioaren areagotzearen sintomarik errepikatuena. Bigarrena erraz haserretzeko egoera izan zen. Aldi berean elkarrizketatuen erdiek lo egiteko arazoak edo kontzentratzeko arazoak izan zituztela esan zuten (emakumeak bereziki). Azkenik, elkarrizketatutako emakumeen heren batek sumindura edo hiraz beteriko haserrealdiak adierazi zituen.

Berriz ere atxilotuak izateari dioten beldurrak sortutako sintomatologia hainbat alditan

agertzen da elkarrizketatuen testigantzetan. Alerta handiko egoeretan, normalean erabiltzen dituzten bide edo lekuak kontrolatzeko beharra deskribatzen dute. Toki publikoetan edo kalean, inguruan dituzten pertsonen mugimenduak, keinuak edo begiradak mesfidantza handiz zelatatzen dituztela adierazten dute. Nahiz eta norberaren etxebizitzan segurtasun sentrazio handiago batekin bizi, kontrolerako behar hori kanpoko zaratak kontrolpean izateko ahaleginetan fokatzen da. Kanpoan gauza arrarorik ez dela gertatzen, atea giltzez itxita dagoela eta horrelako kontuei arreta handia eskaintzen diete, eta ekintza hauek egunerokotasunaren parte bilakatzen dira.

97. Taula. Alerta handia

“Agian kaletik noa eta norbait normalean baino azkarrago doala nabaritzen dut, erritmoa handitu eta tarte zuhurra dudanean, pixka bat jirutzen naiz, ez guztiz, ikusteko... batzuetan portalera heldu arte korrika ateratzen naiz eta bertan kitto, etxean. (...) Dudatsu sentitzen naiz (...) ez naiz atezainarekin ere fio. Etxean eremu ezagunean nago baina hemendik kanpo egotea edozeinentzako harrapakina izatea bezalakoa da.” (MIIA02)

“Kalera ateratzen naizen bakoitzean, egunero kontrolatzen dut dena, nor dagoen nire ondoan, kotxeak, etab.” (BOB11)

“Atea giltzez itxita dagoela eta giltza jarrita dagoela egiaztatu behar dut; nire gelako atea ere era berean egon behar da; leihotik begiratzen dut (...) hori bai dela eguneroko errituala. Behin egiten dut, soinuekin ezer gertatzen ez bada behintzat (...) edozein soinu

identifikatzeko gai naiz (...) edozein soinu entzuten dudanean (kotxe bat, portaleko atea), altxatu behar izaten naiz, begiratzera eta ezer ez dela gertatzen egiaztatzen, bihotza azkartu egiten zait. (...) Albo guztietara begiraten dut beti, kafe bat hartzeko taberna batera sartzen naizenean ere ez naiz sekula atearen kontra bizkarrez jartzen; inguratzen nauenaren gaineko kontrola mantendu behar izaten dut." (ILMW01)

"Etxetik atera nintzen, hortik paseatzera. Eta lehen egun horietan kaletik inork segitzen ote zidan begiraten nuen (...) beti adi, nire atzetik segika ez nituela jakin behar nuen. (...) Kaletik urduri joaten nintzen. Aste bat pasa ostean atxilotu ninduen poliziarekin topatu nintzen, ez nuen horrela topatzea espero (...) bihotza erabat azkartu zitzaidan. Beldurtu nintzen, aski beldurtu nintzen." (MNEG02)

"Jendea ni laguntzen ahalegintzen zen baina ez nengoen ondo eta behatuta sentitzen nintzen, ezeroso. (...) Gero, etxean sartu aurretik, eta bertatik atera aurretik begiratzeko ohitura dut, hortik baldin badaude, ez dakit babes mekanismoa edo zer den." (OBAM02)

"Denbora guztian begiraten nuen atzetik norbait ote zetorren. Ez zitzaidan gustatzen jendeak ni ukitzea, eta gutxiago atzetik; beldurtu eta salto egiten nuen. (...) Beldurra barruan nuen. Badakit ez zela benetan zerbait egingo zidan norbaitekin topatzeko beldurra. Edonon, barruan neukan beldur moduko bat zen." (NLMAP02)

"Askotan atxilotuko nautela pentsatzen dut, edo urduri jartzen naiz. Agian norbait ikusten dut eta «zelako itxura arraroa duen...» pentsatzen dut. Oso urduri jartzen naiz. Zergatik begiraten dit horrek?" (IGEJ01)

Alerta handiko egoera honekin batera pertsona batzuk lo egiteko izan zituzten arazoak aipatu zituzten. Oso ohikoa da inkomunika-

zioaren osteko lehen asteetan eta denbora pasa ahala kasu gehienak gutxitu egiten dira.

98. Taula. Lo egiteko arazoak

"Gauetan beldurra izaten hasi nintzen eta astelehenero... hurrengo polizia operazioaren aurretik esnatu egiten nintzen. Nire etxean 1:50etan sartu ziren, eta hortxe bertan gaueko 1:50etan esnatzen nintzen, minutu bat gora-behera, baina beti ordu berean. Eta tira, atera ostean... denbora gutxira nire bikotekidearekin batera bizitzera joan nintzen, eta hori, gauero... astelehenero esnatu egiten nintzen eta leihora joan behar izaten nintzen, errepideari begira geratzen nintzen, eta ez zegoen inor, baina... denbora asko pasatzen nuen horrela, ezin nuen lorik egin!" (OAEM04)

"Egun normal batean 2 edo 3 ordu esnatzen naiz, ez zait gogaikarria iruditzen baina lo zaude eta bum! (...) espetxetik atera nintzenean... ezin nuen lorik egin (...) sekula ez nuen aurretik insomniorik izan eta izugarria da, lo egin nahia eta ezina. Agian egun batean goizeko ordubitan ateratzea. «Nora joan zara?» [galdetzen diote], korrika egitera. Isilik atera eta berriro sartu [itzultzerakoan]. «Nondik zatoz goizeko 4etan?» [galdetzen diote]. Korrika egitera irten naiz." (JZLV04)

"Irten nintzenean ezin nuen lorik egin, pilo bat kostatzen zitzaidan, zaratak entzuten nituen, adi nengoen kontu guztiekin. Gauetan oroitzapenak etortzen zitzaizkidan. Hilabete batzuetan nire bikotekidearen etxera joaten nintzen lo egitera, ezin nuen bakarrik lorik egin, ez nintzen horretarako gai." (MTRGL10)

"Zortzi urte eman ditut ondo lo egin gabe, etxez aldatzea erabaki genuen arte. Etxe bera zelako. Egunean zehar ederki egoten nintzen etxe hartan, edo arratsaldetan eta gauetan Josu egoten zenean. Baina norbaitekin gertatzen zelako etxetik ateratzen zenean... zortzi urtetan ez nuen ondo lo egin. Zaratek asaldatzen ninduten, soinu ozenek gogaitu egiten ninduten." (OBIM01)

"Asko kostatzen zait lo egitea, zarata bat entzun eta esnatu egiten naiz. Lehen, aurreko eraikina eror zitekeen eta bost axola nik lotan jarraitzen nuen." (JZLV04)

"Loaren ataria hemen dago, euli baten soinuarekin esnatzen naiz, edo txakurrak hazka egiten duenean, edo Aitorrek buelta ematen duenean... guztiarekin esnatzen naiz, eta orain pilulak hartzen ditut baina berdin-berdin esnatzen naiz." (MIIA03)

Neurri txikiagoan ematen den fenomenoak bada ere, pertsona batzuek bulkadak kontrolatu ezin zituztela esan zuten, batez ere oldarkortasuna. Lehen baino suminkorragoak

eta ez horren toleranteak zirela nabaritzen zuten, eta kasu batzuetan ezin duten hira kontrolpean mantendu. Edozein modutan ere, mota honetako egoera gutxi eman ziren.

99. Taula. Hira

"Maiz karga handiarekin sentitzen naiz eta batzuetan eskuetan zerbait hartu eta lurraren kontra bota behar izaten dut, erreakzio bizia da, pentsatu gabe." (BOB11)

"Bai, oso mesfidatia egin naiz eta oldarkortasun handia nabaritzen dut... erraztasun handiz haserretzen naiz, kristoren haserreak hartzen ditut. Besarkada bat emateko norbaitek atzetik heltzen banau erreakzio oso txarra izan dezaket, agian kolpe batekin erantzun dezaket." (BOB12)

"Orain lehen baino errazago haserretzen naiz, liskar gogor pare bat izan ditut ere eta jotzera heldu ginen, eta ni ez naiz sekula horrelakoa izan. Askoz lasaiagoa nintzen, orain mintzen nautenean edo zerbait gertatzen denean nire onetik ateratzen naiz." (OBSO1)

Azkenik, funtzionaltasun irizpideak izan zuen eragina neurtzen duten item batzuk daude trauma-osteko estresaren galdeketa. Pertsona gehienek estres maila handia eta torturek euren egunerokotasunean eragina izan zutela adierazi zuten. Denbora pasa ahala modu esanguratsuan murriztu ziren,

pertsona bati bere bizitza garatzen eragozten ez dion maila normalera iritsi arte. Hala eta guztiz ere, eta denbora pasatu den arren, euren egunerokotasunean oraindik ere eragin handia nabaritzen duten pertsonen kasu batzuk daude.

100. Taula. Egunerokotasuna

"Gurasoen etxera telefonoz deitzen zuten mehatxuak egiteko, postontzia erretzen zieten... orain dela ez horrenbeste urte gurasoek mesedez etxetik gehiago ez pasatzeko eskatu zidaten, beldur zirelako. Buruan grabatuta ditudan irudiak dira, eta gaur, gogora ekartzen ditudan bitartean mina eta tristura sortzen didate... zure gurasoek hori esan behar izatea... ulertzen dut ez? Jada ezin zuten gehiago egoera horrekin." (JZLV05)

"Lanean. autoritadedun pertsonengan konfiantza izatea kosta egiten zait. Nik ez dut nagusiekin erlazio onik izango, ezinezkoa da, ezin dut, haserretu egiten naiz. Ez dakit espetxearekin eta torturekin lotzen dudalako gertatzen den, baina eurekin ezin dut. Gaizki sentiarazten naute." (MIIA03)

"Orain arte ostalaritzan egin dut lan, familiaren tabernan (...) gutxi gorabehera ezagutzen dituzun bezeroekin (...) orain beste jende mota batekin harremanetan jarri beharko naiz (...) eta pentsatzea kosta egiten zait (...) bertigoa ematen dit, egin behar da baina ez dakit." (ILMW01)

3. Nortasunaren eta Munduko ikuskeraren gaineko inpaktua

Sintoma neurobiologikoetan oinarritutako ikuspegi klinikoaz gain (aztertu berri dugun trauma-osteko estres nahasmendua kasu), egun, geroz eta kontu ohikoagoa da pertsonen bizitzen gaineko inpaktua aztertze-ko beste hurbilpen mota batzuk erabiltzea. Kasu batzuetan muturreko egoerek (maite den pertsona baten heriotza edo gaixotasun larria), bizitzako *a priori* alderdietako batzuk zalantzan jarri ditzakete. Normalean ez dira aldaketa izugarriak izaten, baina bizitzako alderdi horiek berrebaluatu eta berrespen edo ezeztapen ñabardurak egiten dira. Batzuetan aldaketa hauek garrantzia handia har dezakete eta pertsonaren etorkizunera erabakigarriak izan daitezke. Aditu batzuen ustez, esperientzia bat berraztertu eta interpretatzeko dugun zailtasuna, edo gure oinarritzko sinesmenak zein nortasuna egoera horretara moldatzeko ditugun arazoak, esperientzia bera traumatikoa izan delako gertatzen dira⁹².

Nortasunaren kontzeptua, norberak berari buruz duen ikuskera zein mundua eta inguratzen gaituzten gertaerak ulertzeko dugun modua da, eta *a priori*, munduko oinarritzko onarpenen azpikategoria gisa kontsideratu daiteke. Esperientzia traumatikoetatik bizirik ateratzen diren pertsonen gertatutakoari

zentzua bilatzeko erronkari aurre egin behar diote, zentzua duen azalpen bat bilatu behar dute, eta bizipenarekin bat datorren euren, jendeari zeni munduari buruzko beste ikuskera bat osatu behar dute. Nortasuna, esperientzia traumatikoen eragina eta pertsonen egoera horien aurrean duten erantzuna aztertze-ko elementu klabe gisa kontsideratzen da⁹³.

1. Ikuspuntu orokorra: VIVO galdeketa

Bizi Inpaktuaren Baloraziorako Galdeketa (VIVO)⁹⁴ da azterketa honetarako erabili den galdeketetako bat. Galdeketa honen bitartez, esperientzia traumatikoen identitatean, emozio sisteman, sinesmenean eta norberari zein munduari buruzko ikuskeran duten eragina baloratzen ahalegintzen da. 10 bloke kontzeptualetan eta 35 azpi-eskaletan multzokatuta dauden 116 itemek osatzen dute. Jarraian ageri den taulan, VIVO galdeketa hobeto interpretatu ahal izateko eskalen datuak aurkezten dira.

⁹² Dalgleish, T. (2004). Cognitive theories of posttraumatic stress disorder: The evolution of multi-representational theorizing. *Psychological Bulletin*, 130, 228–260

⁹³ Pérez-Sales, P. (2010). Identity and Trauma in Adolescents Within the Context of Political Violence: A Psychosocial and Communitarian View Clinical Social Work

⁹⁴ Pérez-Sales, P., Eiroa-Orosa, F. J., Olivios, P., Barbero-Val, E., Fernández-Liria, A., & Vergara, M. (2012). Vivo Questionnaire: A Measure of Human Worldviews and Identity in Trauma, Crisis, and Loss—Validation and Preliminary Findings. *Journal of Loss and Trauma*, 17(3), 236–259.

101. Taula. VIVO galdeketaren interpretazioa		
Azpieskalak	Puntuazio altuak eskuratzen dituzten pertsonak...	Puntuazio baxuak eskuratzen dituzten pertsonak...
<i>I Bloke kontzeptuala – Munduaren ikuskera</i>		
Munduaren ikuskera (Positiboa / Negatiboa)	... mundua toki gris gisa ikusten dute, segurua ez den toki bat bezala eta bizitzaz ezin daitekeela goza uste dute.	... mundua toki eder, atsegin eta seguru gisa ulertzen dute.
Bizitzaren zentzua (Badu / Ez du)	... bizitzak zentzurik ez duela uste dute.	... bizitzak zentzua duela uste dute.
Sinesmenak (Laguntzen dute / Ez dute laguntzen)	... sinesmen ideologiko edo espiritualik ez dutela edo sinesmen horiek egoera gogorrei aurre egiteko lagundu ez dietela uste dute.	... euren sinesmen ideologiko edo espiritualek egoera gogorrei aurre egiteko lagundu dietela uste dute.
<i>II Bloke kontzeptuala – Munduarekiko jarrera</i>		
Buru-hilketa (Aukera / Aukerarik ez)	... buru-hilketa aukera legitimo gisa kontsideratu eta haren inguruan hausnartzera heldu direla diote.	... diote euren burua hiltzea ez dela aukera bat.
Patua (Garrantzitsua / Garrantzirik ez)	... patuak euren bizitzan eginkizun handia duela uste dute.	... paturik ez dagoela uste dute.
Anbiguotasuna eta Ziurgabetasuna (Onartzen du / Ez du onartzen)	... anbiguotasuna eta ziurgabetasuna ez dute onartzen eta besteekiko harremanei zein euren bizitzako egoerei buruzko ziurtasunak bilatzen dituzte.	... bizitzako anbiguotasuna eta ziurgabetasuna onartu behar direla uste dute.
Logikaren bilaketa (Onarpena / Zalantza)	... gertaeren logikari buruz galderak egiten dizkiote euren buruari.	... bizitzako gertaerak etorri ahala onartzen dituzte.
<i>III Bloke kontzeptuala – Gizakiei buruzko ikuskera</i>		
Esperientzia partekatu (Erabilgarria / Ez erabilgarria)	... esperientzia adierazi eta partekatzeak ez duela laguntzen uste dute, eta isiltasuna edo ahaztea hobesten dituzte.	... esperientzia partekatzeak lagundu egiten duela uste dute.
Sufrimendua (Erabilgarria / Ez erabilgarria)	... sufrimendu oro alferrikakoa dela eta pertsona bera hondatzen duela uste dute.	... sufrimendua heziketa eta gaitzitze aukera gisa ulertzen dute, eta sufrimenduarekin ere zoriontsu izan daitekeela uste dute.
Gizakiaren ontasuna (Badu / Ez du)	... orokorrean gizakia ona ez dela eta pertsonak ondoko pertsonak zaintzen ez dituztela uste dute.	... ontasunarekiko joera dagoela uste dute.
Konfiantza gizakiarengan (Badu / Ez du)	... orokorrean ez dute besteengan konfiantzarik izaten.	... besteengan konfiantza izateko joera dute.
Komunikagarritasuna (Posiblea da / Ez da posible)	... sufritu zutena azaltzeko hitzik ez dagoela uste dute, eta jendeak ezin duela gertatutakoa ulertu.	... egoera beldurgarrienak ere adierazteko hitzak daudela uste dute.

Ametsak (Neuroak / Sufrimendua)	... sufrimendua dutela eta hau amets gisa aurkezten dela diote.	... normalean ez dute ametsik gogoratzen eta ez diote garrantzirik ematen.
IV Bloke kontzeptuala: Aurre egitea		
Hausnarketak (Badaude / Ez daude)	... gertatutakoari bueltak ematen dizkiote eta ez da erraza gertatutakoan pentsatzeari uztea.	... larritzen dieten gauzetan ez pentsatzeko erraztasuna dute.
Berehala aurre egitea (Aktiboa / Blokeoa)	... mehatxuen aurrean blokeoarekin edo beldurrarekin erantzuten dute normalean.	... egoera hauei modu zuzen eta lasaian egiten diete aurre.
Ahaztea (Posiblea / Ez da posible)	... gertaerak ahaztea ezinezkoa dela diote.	... hala nahi izanez gero gauzak ahazteko gai direla uste dute.
V Bloke Kontzeptuala: Iraganeko gertaeren eragina		
Errua (Onartu / Ez onartu)	... erruduntasun bizipen mingarriak dituzte.	... euren iragana onar dezaketela, eta ulertu edo barkatzeko gai direla uste dute.
Konfiantza norberarekiko (Badu / Ez du)	... euren buruarekiko zuten konfiantza eta arazoei aurre egiteko ahalmena galdu dutela adierazten dute.	... euren buruarekiko konfiantzak bertan segitzen duela diote.
Heziketa (Posiblea / Ez da posible)	... okerrengatik ez dela ikasten diote.	... egoera gogorregandik ikasi ahal izan dutela edo indartsuagoak izaten jakin dutela diote.
Aldaketa (Posiblea / Ez da posible)	... aldatzea ezinezkoa dela uste dute.	... aldatzea gizakiaren parte dela uste dute.
VI Bloke kontzeptuala: Emozioak		
Nortasunarekin lotutako emozioak (Positiboak / Negatiboak)	... esperientzia traumatikoa umiliazio, duintasunik gabeko eta lotsa egoerekin lotzen dute	... esperientzia traumatikoa harrotasun, duintasun edo erresistentzia egoerekin lotzen dute.
Berehalako kontrola (Badu / Ez du)	... esperientzia traumatikoa babesik eta kontrolik gabeko egoerekin lotzen dute.	... esperientzia traumatikoa ez dute kontrol galerarekin lotzen.
Sentimenduak (Onartu / Ez onartu)	... gertaerari lotutako sentimenduei uko egiten diete.	... gertaerari lotutako sentimenduak onartzen dituzte.
VII Bloke kontzeptuala: Esperientzia kontatu		
Lekukotasuna (Garrantzitsua / Ez da garrantzitsua)	... lekuko izatea garrantzirik gabeko kontua dela uste dute.	... lekuko izateak bizitzari zentzua ematen diola uste dute.
Komunikatu (Garrantzitsua / Ez da garrantzitsua)	... isilean gorde nahi dituzten esperientziako pasarteak daudela adierazten dute.	... esperientzia guztiz kontatzeko ahalegina egi dute.

Azpieskalak	Puntuazio altuak eskuratzen dituzten pertsonak...	Puntuazio baxuak eskuratzen dituzten pertsonak...
VIII Bloke Kontzeptuala: Ondorioak		
Enpatia (Gertukotasuna / Arroztasuna)	... esperientziak beste jende batengandik urundu dituela uste dute eta enpatia gutxiago dute besteen sufrimenduarekiko.	... esperientziak besteenganako enpatia gehiago izatera eraman dituela uste dute.
Beste pertsona batzuk maitatzeko gaitasuna (Berdina / Gutxitu da)	... harremanak izateko eta maitatzeko gaitasun txikiagoa dutela uste dute.	... gaitasun hau bere horretan mantendu dela uste dute.
Zoria (Bilaketa / Zalantza)	... zoria bidezkoa ez dela uste dute eta horrekiko zalantzak dituzte.	... gertatzen diren gauza asko (muturreko egoerak barne) zoriaren arabekoak direla uste dute.
IX Bloke kontzeptuala: Babes soziala		
Babes soziala (Badago / Ez dago)	... gizarteak albo batera utzi zituela eta horrelakoak entzun nahi ez dituela uste dute.	... jendearen babesa eta gertutasuna sentitu zuten.
Biktima bera erantzule bihurtu (Badago / Ez dago)	... gertatu zenaren errua eurei botatzen zaiela sentitzen dute..	... ez dute uste gizarteak errudun egiten dituenik.
X Bloke kontzeptuala: Nortasuna		
Etorkizuna eta esperantza (Positiboa / Negatiboa)	... etorkizuna ilun ikusten dute, esperantzarik gabea.	... etorkizuna itxaropen positiboekin ikusten dute, eta zoriontsu izateko aukera dagoela uste dute.
Nortasunaren aldaketak (Badaude / Ez daude)	... gertaera mundua ulertzeko duten moduan erreferentzia puntua (turning point) dela uste dute.	... mundua ulertzeko modua ez dela aldatu uste dute.
Lehentasunen aldaketak (Badaude / Ez daude)	... euren bizitzako lehentasunak aldatu direla uste dute (zentzu positibo zein negatiboan).	... bizitzak berdin jarraitu duela uste dute.
Biktima nortasuna (Badago / Ez dago)	... "biktima" kontsideratzen dira eta horrela identifikatzen dira.	... ez dira biktima kontsideratzen.

VIVO galdeketaren erantzunak hurrengo taula honetan ikus daitezke:

102. Taula. VIVO galdeketaren emaitzak					
	Z	Minimoa	Maximoa	Batezbeste	Desb. tip.
<i>Munduaren ikuskera</i>					
Munduaren ikuskera (Positiboa / Negatiboa)	45	40,29	77,29	54,8	9,42
Bizitzaren zentzua (Badu / Ez du)	45	41,23	71,64	48,6	6,72
Sinesmenak (Laguntzen dute / Ez dute laguntzen)	45	36,94	60,91	50,2	5,13
<i>Munduarekiko jarrera</i>					
Buru-hilketa (Aukera / Aukerarik ez)	45	40,43	66,92	50,0	7,48
Patua (Garrantzitsua / Garrantzirik ez)	45	37,18	68,99	46,4	8,31
Anbiguotasuna eta Ziurgabetasuna (Onartzen du / Ez du onartzen)	45	33,24	71,62	49,8	9,71
Logikaren bilaketa (Onarpena / Zalantza)	45	29,51	65,51	48,6	8,02
<i>Gizakiei buruzko ikuskera</i>					
Esperientzia partekatu (Erabilgarria / Ez erabilgarria)	45	36,66	62,97	46,6	7,57
Sufrimendua (Erabilgarria / Ez erabilgarria)	45	32,72	67,60	48,9	8,55
Gizakiaren ontasuna (Badu / Ez du)	45	36,13	65,73	51,4	6,60
Konfiantza gizakiarengan (Badu / Ez du)	45	30,42	66,56	48,6	9,29
Komunikagarritasuna (Posiblea da / Ez da posible)	45	30,41	59,24	50,8	7,74
Ametsak (Neutroak / Sufrimendua)	45	35,05	67,05	50,2	8,56
<i>Aurre egitea</i>					
Hausnarketak (Badaude / Ez daude)	45	40,03	63,64	52,7	5,84
Berehala aurre egitea (Aktiboa / Blokeoa)	45	40,25	79,70	55,1	9,51
Ahaztea (Posiblea / Ez da posible)	45	39,73	69,39	56,0	8,50
<i>Iraganeko gertaeren eragina</i>					
Errua (Onartu / Ez onartu)	45	40,84	66,86	51,6	6,99
Konfiantza norberarekiko (Badu / Ez du)	45	37,00	65,94	51,2	6,47
Heziketa (Posiblea / Ez da posible)	45	37,90	71,19	48,6	8,59
Aldaketa (Posiblea / Ez da posible)	45	37,56	60,53	46,0	5,85
Beldurrak (Zehatzak / Zehaztugabeak)	45	37,35	65,51	51,8	8,19

	Z	Minimoa	Maximoa	Batezbeste	Desb. tip.
Emozioak					
Nortasunarekin lotutako emozioak (Positiboak / Negatiboak)	45	34,35	65,67	51,0	8,43
Berehalako kontrola (Badu / Ez du)	45	35,16	61,30	51,1	8,14
Sentimenduak (Onartu / Ez onartu)	45	35,22	63,30	47,9	7,35
Esperientzia kontatu					
Lekukotasuna (Garrantzitsua / Ez da garrantzitsua)	45	38,03	69,51	48,1	7,45
Komunikatu (Garrantzitsua / Ez da garrantzitsua)	45	26,21	65,18	47,2	11,7
Ondorioak					
Enpatia (Gertukotasuna / Arroztasuna)	45	36,32	65,49	47,8	6,13
Beste pertsona batzuk maitatzeko gaitasuna (Berdina / Gutxitu da)	45	39,64	62,29	46,5	6,32
Zoria (Bilaketa / Zalantza)	45	27,68	64,68	39,6	9,48
Babes soziala					
Babes soziala (Badago / Ez dago)	45	32,84	67,35	44,8	7,69
Biktima bera erantzule bihurtu (Badago / Ez dago)	45	37,04	69,56	52,0	8,61
Nortasuna					
Etorkizuna eta esperantza (Positiboa / Negatiboa)	45	42,66	70,44	51,9	6,76
Nortasunaren aldaketak (Badaude / Ez daude)	45	31,05	63,74	51,5	8,44
Lehentasunen aldaketak (Badaude / Ez daude)	45	32,78	62,25	47,3	8,70
Biktima nortasuna (Badago / Ez dago)	45	30,40	77,83	50,0	11,0

102. taulan agertzen den moduan, torturatik bizirik atera den jendearen datuak ez dira orokorrean gizarte hartuko liratekeen datuen oso ezberdinak. Taulak azpieskala bakoitzaren T puntuazioa jasotzen du, hau da, 50eko balioak gizarteak orokorrean izaten dituen puntuen balioak dira⁹⁵. Eta beraz, tau-

lan ikusten den moduan, aztertuen datuak ez dira gizarteak normalean izaten dituenaren oso bestelakoak. Hala ere, balio maximoak aztertzen dituen zutabeetan muturreko baloreak dituzten banakako kasuak ikus daitezke, batez-bestekotik 2 puntu baino gehiago desbideratzen diren balioak alegia (munduaren ikuskera, bizitzaren zentzua, anbiguotasuna eta ziurgabetasuna, berehala aurre egitea, heziketa, etorkizuna eta esperantza edo biktima nortasuna). Horrek erakusten duen moduan, eragin maila ezberdinak daude.

⁹⁵ ±60, ±70, ±80 eta horrelako balioek, pertsonak batez bestekotik ±1, ±2 edo ±3 baino gehiago egiten dituen desbiderapen estandarrak puntuatzen dituzte. Eta beraz, goitik edo behetik uzten du laginaren % 68, % 96 eta % 99.8a hurrenez hurren.

Talde hauek mugatu ahal izateko, konglomeratuen analisi bat egin zen (Konglomeratuen Analisisirako Prozedura $k=2$ talderako. SPSS-X 18.0). Horretarako eragin traumatikoaren araberako azpieskalak aldagai gisa txertatu eta 2 eta 5 konglomeraturen arteko soluzioak aztertu ziren. Sailkapen optimo bat egiteko 2 talderen soluzioa egin behar da, alde batetik afektatu gisa izendatutako atxilotuen taldea ($z=15$) eta bestetik erresilienteak, hau da, atxiloketa inkomunikatuaren ostean erregimen horrek suposatu zuen trauma gainditzeko kapazak izan direnak ($z=29$). Hiru taldeen arteko soluzioak kasu bat baino ez da besteetatik banatzen (atxiloketak zentzu guztietan erabat afektatu zuen pertsona hau eta inkomunikazioak bizitza aldatu zion), eta beste guztiak funtsean talde berdinetan geratzen dira. 4 taldeko soluzioa egiten den afektatuen taldea handitu egiten da, 22 pertsonetara hedatzen da, baina eragin

Ezberdintasun esanguratsuak agertzen dira afekzio handiagoa duen taldearen eta "erresilienteen" taldearen batez-bestekoen artean.

maila jaitsi egiten da, eta afekzio arina duten 4 pertsonaz osaturiko talde bat sortzen da. Talde honek erresilienteekin dituen ezberdintasunak nabardurak baino ez dira eta gainontzekoak berdin mantentzen dira. Soluzio honetan agertzen diren taldeek sendotasun gutxi dute zentzu kontzeptuarean.

Talde hauen arteko ezberdintasunak aztertu eta "afektatuen" eta "erresilienteen" arteko ezberdintasunen tamaina ulertu ahal izateko, bi taldeen batez-bestekoen konparaketa egin zen, eskalaz eskala:

103. Taula. Bukaerako konglomeratuen erdigunea. Batez-bestekoen konparaketa				
	Afekzio handia ($z=15$)	Erresilienteak ($z=29$)	F	Sig
Munduaren ikuskera				
Munduaren ikuskera negatiboa.	63,14	50,63	28,591	0,000
Bizitzak ez du zentzurik.	51,66	47,07	5,017	0,030
Sinesmen erlijioso edo ideologikoen ez dute laguntzen	51,86	49,48	2,185	0,147
Munduarekiko jarrera				
Buru-hilketa aukera posiblea da.	52,20	48,96	1,901	0,175
Patuak ez dauka garrantzirik bizitzan.	48,32	45,55	1,100	0,300
Anbiguitasuna eta ziurgabetasuna ez ditu onartzen.	50,05	49,69	0,014	0,907
Gertaeren logika bilatzen du.	44,94	50,61	5,455	0,024
Gizakiei buruzko ikuskera				
Esperientzia partekatzea ez da erabilgarria.	48,81	45,54	1,889	0,177
Sufrimendua ez da erabilgarria.	52,49	47,08	4,244	0,046
Gizakiaren ontasunean ez du sinesten.	52,51	50,83	0,635	0,430
Ez du gizakiarengan konfiantzarik.	53,01	46,47	5,404	0,025
Ezin du ikara komunikatu.	53,47	49,44	2,796	0,102
Sufrimendua ametsetan agertzen da.	53,45	48,57	3,392	0,073

	Afekzio handia (z=15)	Erresilienteak (z=29)	F	Sig
Aurre egitea				
Hausnartu eta gertatutakoari bueltak ematen dizkio.	55,25	51,52	4,337	,043
Gertaeren aurreko blokeo sentazioa dauka.	63,54	50,75	29,882	,000
Ezin du ahaztu.	57,52	55,36	,634	,430
Iraganeko gertaeren eragina				
Errudun bizipenak ditu.	55,39	49,75	7,394	,009
Norberarekiko konfiantza galdu du.	52,61	50,52	1,033	,315
Ezin du gertakarietatik ikasi.	54,44	45,62	13,420	,001
Izaera ezin du aldatu.	47,36	45,32	1,203	,279
Zehaztu gabeko beldurrak ditu.	56,93	49,28	10,517	,002
Emozioak				
Gertaerekin lotura duten emozio negatiboak ditu.	52,52	50,28	,689	,411
Ez du babes sentimentzen.	52,59	50,36	,737	,395
Emozio negatiboak uko egiten die.	51,80	46,01	6,983	,012
Esperientzia kontatu				
Lekukotasun soziala adieraztea ez da garrantzitsua.	47,33	48,58	,273	,604
Gertatutakoa komunikatzea ez da garrantzitsua.	39,20	51,40	13,907	,001
Ondorioak				
Enpatia – beste biktima batzuekiko sentikortasun eza.	49,05	47,20	,895	,350
Beste batzuk maitatzeko gaitasuna gutxitu zaio.	47,94	45,76	1,189	,282
Zoriari buruzko galderak – zergatik niri.	38,16	40,44	,564	,457
Nortasuna				
Babes sozialik ez.	50,59	41,85	17,690	,000
Gizarteak biktima erantzule egiten duela sentitzen du.	55,47	50,36	3,698	,061
Etorkizun negatiboa – esperantzarik ez.	57,01	49,36	17,498	,000
Nortasunaren aldaketak.	55,69	49,35	6,266	,016
Lehentasunen aldaketak.	48,25	46,88	,241	,626
Nortasuna – gertaerekiko biktima nortasuna.	57,18	46,32	12,086	,001

Ezberdintasun esanguratsuak agertzen dira afekzio handiagoko duen taldearen eta "erresilienteen" taldearen batez-bestekoen artean. Lehendabiziko taldeak ikuskera negatiboagoa du, bizitzak zentzurik ez duela uste du, gertaerak azaltzeko logika bilatzen aha-

legintzen da, ez du sufrimendua modu erabilgarrian ulertzen, gizakiarekiko konfiantza galdu du, gertatutakoari bueltak ematen dizkio, erruduntasun bizipenak izaten ditu, gertaerengandik ikastea ezinezkoa dela uste du, zehaztu gabeko beldurrak ditu, sentimendu

negatiboek uko egiten die, gertatutakoa komunikatzea alferrikakoa dela uste du, babes sozialaren gabezia nabaritzen du, ez du esperantzarik, nortasunaren aldaketak sufritu ditu eta gertaerei dagokienez biktima nortasun handiagoa du.

Elementu hauek guztiak azterketetan agertzen dira.

2. Munduaren ikuskera

Afekzio handiena duten pertsonen munduaren ikuskera negatiboagoa dute ($F=28,5$, $p<0.000$) eta bizitzari zentzua bilatzea zailagoa dela uste dute ($F=5.01$, $p<0.03$).

Aztertutako pertsona batzuek gizartearekiko urruntasun edo arrotasun sentipena adierazten dute. Kasu batzuetan urruntasun hori gertaeren aurreko ingurune zein militantzian islatzen da.

104. Taula. Gizartearekiko arrotasun sentsazioa

"Heriotzari beldurra niola sentitzen dut, oso ahul sentitzen nintzen eta azkenean azken urte hauetan bizitza bizitzeko beldurra izango banu bezala ari naiz, ez naiz gozatzen ari, ez dut ezer... ez da lehen zen bezalakoa." (OBAM04)

"Gizartetik apur bat urrun sentitzen naiz. (...) Jendea arrotasunez nabaritzen duzu, ez dute sufritu duzun testuingurua ulertzen (...) agian arraroa ni naiz... ez dakit." (MNEG01)

"Nirekin zentzu batean desaktibazio hori lortu dute, mobilizazioetara bai joaten naiz, baina jada ez nago auzoko taldean, ez nago egunero gauzak egiten... lehen nahiko mugitzen zen pertsona nintzen eta orain... ez dut gogorik... horrelako zerbait. Eta nik uste horregatik dela, ez XXX naizelako, gaztea nintzelako eta mugitzen nintzelako baizik... eta badakite ni eraman ostean lortu dutela auzoko beste jende bat desaktibatzea ere." (OAEM04)

"Lehen, herriko bazkariak antolatzen zirenean ondo egoten nintzen. Baina orain, Aberri Egunean adibidez, herrian bazkari bat antolatu zen eta herriko jende asko zegoen, gazteak, zaharrak, senideak... eta momentu batean ez nuen ulertzen bertan zergatik nengoen eta joan egin nintzen. (...) Lehen, militatzen nuenez taldea nuen, harremanak, eta zerbaiten parte sentitzen zara. Orain hari batean bizi naiz eta ez dakit nire bizitzarekin zer egin." (JZLV02)

Lehenago anestesia eta blokeo sintomekin ikusi dugun moduan, gauzei zentzua bilatzeko zailtasunak ondorio asko ditu norberaren bizitzaren proiektuan zein etorkizunean.

"Ez dakit niri min egin izanaren faktorea hortik dagoelako ote den, baina nire pentsamenduaren planteamendua aldatu da, askotan «ez duzu seme-alabarik?» esaten didate, eta nik ezetz, eta ez ditudala izango, mundu kaka honetarako... Eta hangogatik datorren pentsamendua da, gertatu zenagatik datozen osagarriez osatutako kontua dela uste

duzu. Deuseztatu egiten zaituzte, eta niretzako oso gogorra da, jendea ez diot esaten, baina oso gogorra iruditzen zait." (OBAM05)

3. Munduarekiko jarrera

Afekzio handiena duten pertsonen gertaerei logika (politikoa, ideologikoa edo beste moduren batekoa) bilatzeko ohitura txikiagoa dute ($T=44.94$). Erresilienteek gehiago egiten dute ($F: 5.45$, $p<0.02$). Buruari ez diote galdetzen gertaera horiek eurei zergatik jazo

Aztertutako pertsona batzuek gizartearekiko urruntasun edo arrotasun sentipena adierazten dute.

zitzeazkien, beste modu batean esanda, ez dute zoriak izan zuen rolari buruz pentsatzen (T=38.1). Gizarte orokorrak onartzen duen maila berean onartzen dituzte bi talde hauek anbiguotasuna eta ziurgabetasuna.

Ez dirudi mina zentzugabekeriatik edo «zer-gatik niri?» bezalako galderak egitetik datorrenik.

105. Taula. Logikaren bilaketa

"Haiengan pentsatzen dut, psikopatak zirela uste dut. Berdina zenbat pertsonari egin ote dion galdetzen diozu zure buruari, familia ote duen, edo egiten duenagatik heroia dela pentsatuko ote duen, nor diren eta ze istorio duten jakiteko gogoia daukat. Oso normala ezin da izan... edo euren onetik ateratzen dien pentsatu ezinezko gorrotoa dute edo arazoren bat dute. Ezin ditut pertsona horiek familiako aita izaten imajinatu, seme-alaba eta emaztearekin, alegia." (OBIM07)

4. Besteekiko harremanak

Bi taldeek uste dute esperientzia kontatzea erabilgarria dela (T=48.8 eta 45.5). Pertsona batzuek uste dute zentzu terapeutikoan gauzak kontatzea gertaerak gainditzeko lagungarria izan dela, eta ez soilik aurreko tes-

tigantzetan ikusi ditugun erreakzioen antzekoak normalizatzeko, norbaitek entzun, babestu eta laguntzen zaituela sentitzeko ere. Beste kasu batzuen arabera, esperientziak kontatzea oso baliagarria da gizartearen torturaren existentzia ezagutarazteko.

106. Taula. Esperientzia konpartitzea

"Nik uste, gai honetaz horrenbeste aldiz hitz egin dugunez, jada gaineko pisua kendu zaidala. Ez dut esaten eraginik ez dudala, eragina izan dudala agerikoa da, baina trauma handi hori kentzea lortu dut. Kontatu dezakegu, bizi izan genuena dakigu, eta bai, oso gaizki pasarazi ziguten, kaka gisa sentiarazi gintuzten baina tira, aurrera egin behar da, eta kitto. (...) Badakit zer egin didaten, bizi izan dudana, badakit oso gaizki pasa izan dudala, baina bizitzan atzean utzi dudana etapa bat da. Eta orain, urrera begiratzen dut." (MNEG03)

"Oraintxe bertan nire indarren mugan nagoela uste dut, egoerak erabat ahuldu nau eta orain sendatu beharko banu bezala sentitzen naiz. Horregatik diot sendatzearen parte dela barruan daramazuna ere ateratzea, baina ez dakit nola, ez dakit nire bizitza hobetzeko zer egin dezakedan." (OBAM04)

107. Taula. Gertatutakoa kontatzeko ausardia

"Zortea izan nuen, espetxean lbairekin batera egon nintzen eta sentitzen nuenari buruz hitz egin nuen berarekin. Ordu luzez hitz egin genuen eta hori oso ondo etorri zitzaidan barnean nuen ondoeza apur bat gainditzeko." (JZLV02)

"Jendeak entzuten dizu, hasieran gertatutakoa behin eta berriro kontatzen nuen, kontatu behar nuela iruditzen zitzaidan, hori dena ateratzeko beharra nuen, jendeak sekulako aurpegiekin begiratzen zizun... jendea harritu egiten da." (MNEG01)

"Ikastolara nirekin betidanik zetorren bat etorri zitzaidan, ez nuen berarekin erlaziorik, eta zera esan zidan:

- Jakin nahi dut egia ote den...

- Bai, egia da

Eta apur bat gehiago galdetu zidan...

- Zuk kontatuko ez bazenit ez nuke sinetsiko

- Ba tira, behintzat zerbait lortu dugu.

Pozten naiz horrelako gauzek zerbaiterako balio dutenean." (JZLV04)

Pertsona batzuentzako ez da horren erraza, eta soilik antzeko egoerak bizi izan dituzten pertsonekin hitz egiten dute. Euren ustez,

gainontzekoek ezin dute esperientzia hori ulertu.

108. Taula. Egoera bera bizi izan duen jendearekin konpartitzea

"Espetxean ezertaz ezagutzen ez nuen kide bat egokitu zitzaidan, baina hasierako momentutik konfiantza handia hartu genuen. (...) Hasieratik konfiantza handia hartu genuen eta horrek lagundu egin zigun. (...) Beste pertsona bati kontatzea... ezin du imajinatu. Zera, nahiz eta nik azaldu, bertan egon ez bazara... beldur eta ikara sentimenduak ezin dira hitzez azaldu... ezin dut deskribatu. Eta konpartitzea oso ona izan zen." (MNEG03)

"Zuk bizi izan duzuna bizi izan duen pertsona batekin egon behar zara, bestela, besteak ezin dizu ulertu. Zurekin hitz egin dezaket, eta dena azaldu, baina sekula ez duzu ulertuko bertan pasa nuena. Hori espetxean gertatzen zitzaigun eta horregatik egiten dituzu bertan horrenbeste harreman." (JGGL03)

Gertatutakoa hitzez azaltzeko pertsona afektatuek erresistentzia egiten dutenek baino zailtasun gehiago dituztela esan ohi da. Oro har, pertsonen kontatzeko baino gehiago gertaerak nola kontatzeko zailtasunak lira-

teke garrantzitsuenak, baina ez da kasu hori ematen. Eta gizarte orokorraren (T=53.4) eta erresilienteen arteko ezberdintasunak ez dira adierazgarriak (F= 2.79 ns).

109. Taula. Gertaeren adierazina

"Nik ez dut gehiegi hitz egin, soilik jende zehatzarekin eta ez askotan. Nire buruan lurperatzea erabaki dut, edo horretan ahalegintzen naiz, ez baitut sekula lortuko, eta buruan ahalik eta denbora gutxien izaten ahalegintzen naiz." (MTRGL10)

"Nola kontatuko duzu hori? Ez dago azaltzeko modurik; inork ez du sinetsiko. (...) Zaila da bertan gertatu zen guztia hitzez azaltzea. Ni ahalegindu izan naiz kideen artean azaltzen eta dena ateratzen; baina nahiz eta azaldu egia da batzuetan ez dutela ulertzen, ematen du ez direla gai kontatzen dudana ulertzeko; zuk lau zaplazteko imajinatzen dituzu eta nik ez dakit nola azaldu." (NLMAP02)

5. Gizartearekiko jarrera

Bi taldeen ustez lekukotasuna egitea garrantzitsua da eta orokorrean ez dira esperientzia ezkututzen ahalegindu. Pertsona batzuek zalantza dute lekukotasunak gizartean izan

dezakeen eraginaren inguruan, funtsean gizarteak torturaren berri baitu eta orokorrean gaiari bizkarra ematen diolako. Hurrengo atalean, erreparazio neurriekin batera, aztertuek gizartearen jarrerari ematen dioten garrantzia aztertuko dugu.

110. Taula. Testigantza egiteko ausardia

"Kasu "berezia" izan zenez, hitzaldiak eta elkarrizketak eman behar izan nituen, NBEko errelatorearekin bildu behar izan nintzen, Italiako kazetariekin, nire kasuko notizia edo txosten bat ateratzen den bakoitzean prentsurrekoa eman behar izaten dut (...) ez dit ez kalterik ez onik egiten, alde batera eta bestera eramaten nau, bizipen guztiak apur bat nahasi egiten dizkit. Gertatu zen guztia burura ekartzen dit berriro. Egin behar dudana lana dela uste dut." (ILMW02)

"Zorionez nire arazo psikologiko guztien kausa guztiak identifikatuta ditut, edo behintzat uste dut nondik datozen ulertzen dudala, zorte hori daukat eta gainera, defenditu egiten dut, eta orain nire istorioa kontatzeko eskatu didate. Proiektu hau martxan dagoela dakidanetatik sendabide baten parte bat da, gizarteari, edozeini, mundu guztiari gertatu zitzaidana kontatzeko beharra daukadalako, uste dut hori guztia nire baitan gordeko banu ezingo nukeela bizi." (OBAM04)

"Orokorrean gauza guztiekiko oraindik eta axolagabeago ikusten dut gizartea. Inkomunikazioaldiak irauten duen bitartean, jende gehienari bost axola; albisteetan ikusten du, afaldu eta gosaltzen duen bitartean, eta lanera doa, bizitzak aurrera egiten du... uste dut jendeak axolagabekeria sentitzen duela besteekiko. Zentzu horretan, ez dut jendeaz ezer espero." (NLMAP01)

"Gizartea hortxe dut, azkenaldian batez ere beste alde batera begiratzen du gai hauekin... ez nago pozik, amorrua ematen dit gauza batzuekin horren demokratikoak izatea, eta beste batzuekin ez... ez dizutela ezer egin demostratzea oso erreza da haientzako, eta ez dute demostratzen. Jendea orain indibidualistagoa da, eta orduan ni ere, nire bizitza eta nire lagunena hobetzen ahaleginduko naiz eta gizartea joan dadila popatik hartzera." (OBIM07)

Afektatuek inguruko jendeari kontatu diote gertatutakoa (T=39,20), erresilienteen kasuan baino aldi gehiagotan (F=13.9 p<0.001). Nahiz

eta inguruko jendeari gertatutakoa kontatzen ahalegindu, beti ez da erraza izaten.

111. Taula. Gertatutakoa kontatzeko zailtasunak

"Familiarekin ez dut honetaz hitz egin. Nire amak zerbait jakin nahi zuen eta TATEko psikologoarekin idatzi nuen lekukotasuna eman nion irakurtzeko; ezin dut kontatu; ezin diot kontatu; ez diot kontatzen, ez, ez... Nahiago eurek irakurtzea ni bertan ez nagoenean." (NLMAP01)

"Ondo nagoela esaten dut ez dudalako gogorik nola nagoen adierazteko, orain ez zait lehen bezala irekitzea gustatzen, gurasoekin ere ez, galdetzen hasten direnean ihes egiten dut." (OAEM04)

"Ez dut honen inguruan sakonki hitz egin, kosta egiten zait... lagunekin hitz egin izan dut, konfiantza handia dudaneekin, baina gertaera zehatzak izan dira gehiago, bitxikeriak, nigandik urruntzen ahalegintzen, hirugarren pertsonan izango balitz bezala." (NLMAP04)

6. Gertaerei aurre egitea

Gertaeren garaian afekzio handia duten taldeko pertsonak blokeo egoera handia eta beldurra sentitu zuten (T=63.5), erresilien-

teek baino maila askoz handiagoan (F=29.8, $p<0.000$). Beldur hau mantendu egin da afektatuen taldean (F=010.5, $p<0.002$), baina ez bestean.

112. Taula. Beldurra eta blokeoa gertaeren aurrean

"Egin ahal zidatenaren beldur nintzen. Aldi berean oso urduri nengoen, blokeatuta nengoen, beldurtuta eta fisikoki minduta, jada, gorputzeko minak hasi zitzaizkidan." (ILMW01)

"Beldurrak ez zuen etenik; dar-dar egiten nuen etengabe; hori zen beldur horren adierazle fisiko nagusia. Baina hau ezberdina zen: ustez kontrolpean nuen egoera haren kontrola galtzen nuen, zalantzak sortzen zitzaizkidan, negar egin eta oihukatu egin nahi nuen... ezin duzu ezer egin eta horren jakitun zara; hau amaitzea nahi dut eta ezin dut... Hori zen sentazioa: egoeraz kontziente nintzen, ezin nuen horrela egin [hatzekin klaska egin] eta denarekin amaitu." (NLMAP01)

"Uste nuen nire kontu egoera hura gaudituko nuela, beldurra... uste nuen indartsua izan eta pasa egingo zela, eta ez soilik niri demostratzea, jendearen aurrean eragin txikiena nuela erakutsi nahi nuen, indartsua izan, aguantatzea, denarekin eta denekin gozatzea, baina konturatu naiz ezin dudala, momentu batzuetan beldurrak gauditutu egiten nau, atzera begiratzen dut... beldurraz gehiago ohartzen naiz orain." (MTRGL10)

"Oihu egiten zidaten, irainak esaten zizkidaten, «ergela halakoa, kaikua!!». Egia esan orain horrela sentitzen naiz, txiki sentitzen naiz, oso ahul." (ILMW01)

"Zer da gaizki egotera eramaten nauena... hau da, objektiboki pentsatzen hasten naiz eta... egin zidatena... ea, niretzako beldurra izan zen eraginik handiena baina gero pentsatzen hasten naiz, «niri egin zidatena... beste batzuei egin zietenarekin konparatuta... zergatik kostatzen zaigu horrenbeste gauza hauetaz hitz egitea?»" (OBS03)

"Norberaren kontrola galtzea... hori... ez dizut esango horrek lotsatzen nauenik, baina momentu haietan eragin handia izan zuen. (...) Orain horrela esaten dut, baina zera bat daukat hor. Nahiko gogorra naiz nirekin eta ez zitzaidan nire erreakzio hori batere gustatu, egia da, ez dizut ezetz esango... Orain batzuetan horretan pentsatu eta justifikatzen ahalegintzen naiz eta egoeraren jabe naiz, baina horri dagokionez, niri buruzko iritzi hori daukat." (JZLV05)

Orokorrean elkarrizketatuek joera txikia dute gauzei bueltak emateko, batez ere afektatuen taldekoek ($F=4.33$ $p<0.04$). Hala ere, egoeran eta euren erreakzioan eta horrek eurei buruz esaten duenaren inguruan pentsatzen jarraitu duten pertsona batzuk daude.

“Oihu egiten zidaten, irainak esaten zizkidaten, «ergela halakoa, kaikua!». Egia esan orain horrela sentitzen naiz, txiki sentitzen naiz, oso ahul.”

113. Taula. Buruari bueltak ematea

“Zentzu horretan «irabazi diet, irabazi didate, irabazi diet» kontuarekin aritzen nintzen eta oraindik ere horrela jarraitzen dut. (...) Kontu horrek ez du amaierarik. Eta edozein gauza... aurrerapausoak ematen dituzu eta gero edozer gauzaren erruz atzerapausoak ematen dituzu.” (MNEG01)

“Asko pentsatzen dut horretan, bizi izan duzuna datorkizu burura eta oso gogorra da. Batzuetan aski da pentsatzen duzu, pasatu egin da, eta pentsatzen dut denborarekin ez dudala horretan pentsatuko, edo behintzat ez zaidala oroitzapen hori etorriko.” (IGEJ01)

“Buruan sartu dira eta ezin ditut bertatik atera.” (MTRGL10)

“Orain lasaiago nago, gauzak hobeto ikusten ditut, eta ulertzen dut egoera horietan horrela erreakzionatzen duzula, eta pentsatzen duzu, zuk zera egin duzu, eta ez dago ez ondo ez gaizki, zuk horrela erreakzionatu duzu eta kitto. Beste batek beste modu batean erreakzionatuko zuen. Ez duzu inolako errurik. Urteak eta urteak daramatzate hori egiten, eta badakite nondik tiratu behar duten, badakite zer lortu nahi duten eta zer ez.” (OBIM06)

“Gero beheraldiak... azkenean indarra erabiliz guztiz egiak ez diren gauzak atera dizkizute, ez dituzu zuk berez esan, eta horrek zigor psikologikoa esan nahi du, ezer egin ez duen jendea akusatu duzu, baina ez zara zu izan, ezta zure nortasuna ere... baina horrek gerora ondorioak izaten ditu.” (JZLV06)

Aztertutako pertsonak polizia-etxean gertatutakoarekin lotura duten sentimenduak onartzen dituzte, hala ere, afektatuen taldeko pertsonak puntuazio baxuagoa dute ($F=6.9$ $p<0.012$).

“Fisikoak min ematen dizu, egun batzuetan ezin duzu ibili, baina psikologikoa, gaur egun oraindik ezin dut horrekin. Oso gogorra, oso gogorra.” (JGGL03)

Pertsona gehienek eurekiko duten konfiantza mantentzen dute ($F=1.03$ ns), baina zentzu horretan eragin handia erakusten duten testigantzak daude:

“Nire burua ez nuela maite edo maitatua ez nintzela sentitzen, lehen horretan ez nuen sekula pentsatzen. Ez nuen za-

lantzarik, gurasoak, mundu guztia nuen buruan, lagunak... baina gero pentsatzen jartzen nintzen, ez naute maiteko edo ez dut neure burua maite. (...) Badakit jendeak maite nauela, baina oraindik ez dut segurtasun hori eskuratu. Lagunen batek zentzu horretan zerbait esaten badit, mina ematen dit.” (JZLV03)

7. Gizakiei buruzko ikuskera

Afektatutako pertsonak sufrimendua erabilgarritasunik ez duen kontu gisa ulertzen dute ($F=4.2$ $p<0.04$) neurri handian, eta haien ustez ezin da gertaeretatik ikasi ($F=13.4$ $p<0.001$). Beste pertsona batzuentzako, ordea, esperientzia euren burua hobeto ezagutzeko edo

lehendik ezagutzen ez zituzten gauzak ikusteko balio izan die.

“Torturak apur bat kontuari buelta emateko balio dizu, ze puntutaraino hel zaitzkeen ikusteko ere, erresistentzia, zure gorputza kontrolatu ahal izatea... askotan zera pentsatzen dut «hori egin ahal izan dut?» bai, hori egin dut. Gehiago baloratzen duzu, ez horrenbeste kontu materialak, «zertarako nahi ditut horrenbeste gauza?» zoriontsuagoa naiz hori gabe. Gehiago baloratzen dut paseatzera atera edo kafe bat hartzea, 50 modelo, 40 zapata pare edo hilabetero oporretan joatean baino, hau da, beste gauza batzuk baloratzen ditut.” (JGGL03)

Orokorrean, gizakiaren ontasuna ez da zailentzen jartzen, baina afektatuen taldeak puntuazio baxuagoa du zentzu honetan ($F=5.4$ $p<0.025$). Bi taldeek beste biktima batzuekiko enpatia handia erakusten dute ($F=0.89$ ns), eta salbuespenak salbuespen, beste pertsona batzuk maitatzeko gai direla uste dute.

“Hotzagoa egin naiz, ez dakit nola azaldu..., lehen afektiboagoa nintzen, orain harreman fisikoa asko kostatzen zait, afekzioa harreman fisikoen bidez adieraztea,

lehen besarkadak ematen nizkien lagunei... orain ezin dut, ez zait ateratzen.” (BOB12)

“Espetxetik atera nintzenean desilusio handia hartu nuen, sentikortasun eza handia somatu nuen. Inguratzen nauen guztia ikaragarria da eta jendeari bost axola zaio... nire inguruan ezer gertatuko ez balitz bezala euren bizitzarekin aurrea egiten zuen jendea ikusi nuen, etsipen sentsazioa sortzen dit horrek... jendea horrelakoa dela ikustea, hortxe bertan dauden gauza batzuekiko ez duela sentikortasunik adierazten.” (MIIA02)

8. Babes soziala

Elkarrizketatuen ustez, orokorrean babes soziala egon da, baina erresilienteek babesa oso garrantzitsua izan zela dioten arren, beste taldeak modu apalagoan jaso zuen babes hori ($F=17.6$ $p<0.000$). Pertsona talde handi batek ($T=55.4$) uste du inguruak gertaeren erantzule gisa kontsideratzen zituela eta “ezer egin ez duena ez da ezeren beldur” edo “atxilotu bazuten, zerbait egingo zuen” bezalako esaldietatik sumatu daitekeen arrotasun sentsazioa izan zutela adierazten dute.

114. Taula. Babes soziala

“Mundu guztiak daki; mundu guztiak identifikatzen zaitu: atxilotuta egon dena. Baita urrutiko familiarekin ere. Hau gertatu zaidanez, familiako ardi beltza naizela ematen du.” (NLMAP01)

“Batez ere, gizarteak epaitu egiten zaituela sentitzen duzu. Telebistan agertzen diren atxilotetako irudiak, edo guri buruz eman zituzten informazioek ere ez dute laguntzen horrelakorik ez gertatzeko. Azkenean, jendeak beti pentsatuko du zerbait egin duzula edo hori merezi duzula, eta hori gogorra da.” (NLMAP02)

“Batzuek ez dute ulertzen sufritu duzuna eta horrek zeure barnean duen eragina. Bakoitza bere bolara doa eta horrek min egiten dit.” (JZLV03)

“Jendeak babestu gaitu, urrutien daudenak ere, auzokideak... ez dugu bakardadea sumatu, ez behintzat gertuko eta ez hain gertuko jendearen partetik.” (JZLV05)

“Inguruan jendea izateak asko lagundu dit aurrera egiten, konfiantzazko benetako lagunak topatzea, eta «gaizki nago» esateko beldurrik ez izatea.” (OBIM06)

9. Etorkizuna

Oro har, afektatuen taldekoek modu oke-rragoan ikusten dute etorkizuna, ez behintzat horrenbesteko esperantzarekin ($F=17.4$ $p<0.000$). Askorentzako proiektu sozial eta politiko baten haustura eman da, eta in-gurukoekin zailtasunak izan dituzte, familia-ekin, bikotekidearekin... gauza batzuk uste bezalakoak ez direla ikusi dute eta horrek garrantzia handia hartu du etorkizuna proiektatzeko duten moduan.

"Orain bizitza egunez egun ikusten dut, ez dut helburu gehiegirik zehazten, lanetik ez kanporatzea eta gutxi gehiago. Urte hone-tako nire helburua lana ez galtzea da, eta hortxe hortxe dabil kontua." (MNEG04)

"Orain berriro hasi naiz irakurtzen... egu-nak ditut ere, batzuetan hasi egiten naiz baina ez dakit zer irakurtzen ari naizen

ere. Zentzu horretan ez daukat motiba-ziorik, lana eta bizitza apur bat nahiago ditut... ez dakit, konpromisorik ez hartzea, ez dakit." (OBIM06)

10. Aldaketak nortasunean

Pertsona afektatuek nortasunaren aldaketak ere nabaritu izan dituzte ($F=6.26$ $p<0.01$), hau da, euren burua definitzeko orduan, atxilo-ektaurreko eta osteko muga bat markatzen duela. Pertsona afektatuen taldekoak besteak baino neurri handiagoan identifikatzen dira jada bereganatu duten biktima nortasunarekin ($F=12.08$ $p<0.001$).

Nortasunaren aldaketak zeintzuk diren zehaz-teko orduan, pertsona batzuek muga argia egon zela adierazten dute, egun ez direla atxi-loketa aurretik ziren pertsona berak, alegia.

115. Taula. Aldaketak nortasunean

"Egoera traumatiko batek mugarrira ezartzen du, zerbait aldatu egiten da gure baitan, harremanak ez dira lehen ziren berdinak, bizitzaren aurreko baloreak, jada ez da garrantzitsua lehenago hala zena, edo aldrebes, zerbait aldatu egiten da gure baitan." (AMRGL09)

"Nire bizitza aldatu egin da... ez dakit. Nire pentsaera eta jarduteko modua bai, erabat. Jada ez naiz lehen nintzen pertsona. Lehen erantzuteko gaitasun handia nuen, orain ez!" (OBAM05)

"Egia esan mina izan dudala nabaritzen dut, ez dut ezetz esango, emozionalki mina izan dut... aldaketa gertatu da nire baitan eta egia esan, uste dut honek guztiak ondorioak izan dituela." (BOB12)

"Ez dakit nor naizen. Jada ez naiz lehengoa, lagunek ere esaten didate aldatu egin naizela." (JZLV03)

"Lehen oso alai nintzen, irekia, erraz egiten nuen barre, orain ia ez dut barrerik egiten eta triste sentitzen naiz." (BOB11)

"Mesfidatiagoa naiz orain, agiansentikorragoa (...) dudatsua, beldurtia (...) bikotekidearekin zein gertuen ditudan lagunekin ere." (ILMW01)

"Lehen beste zoriontasun bat nuen, alaiagoa nintzen (...) sufrimendua metatzen duzunean tristura agertzen da, melankolia, energia gutxiago (...) zentzu batean hil egin naute." (OAEM01)

"Jada ez naiz lehen nintzen pertsona bera, lehen nituen alaitasuna, indarra eta bizitasuna galdu ditut... oso argi daukat... eta ez gezurra esaten dudalako, tontokeria litzateke hori, erabat markatu ninduelako baizik... bizitza apurtu dut, ni ez naiz ni, beste bat naiz,

horrenbeste markatu zidan ia egunero gogoratzen dudala berriro, egunero ez esatearren. 2 urte eta erdi hauetan ez da egon hartan pentsatu gabeko egunik, eta «zergatik?» pentsatzen dut. Ez dira irainak, jipoiak edo hitzak soilik, umiliatuta sentitzen zara, pertsona gisa dituzun eskubideak kentzen dizkizute, horregatik daukat horren berri, gauza batzuk hodei batean bezala daude, agian hitz batekin oroitzen dituzu baina beste batzuk momentuan gertatzen direla ematen du.” (OBAM01)

“Asko erretzen dit... horrelakoa naiz, azkenean egoera hauetan horrela aritzen naiz (...) eta izorratzen nau, guztiz kontrakoa izaten ahalegintzen zara, emakume ezberdina izaten ahalegintzen naiz, bizitzan pausuak ematen dituzunean antza hartu nahi diozun emakume mota bat dago, horrelakoa izan nahi duzu, eta hori zure ekintzekin egiten duzu, zure egunerokotasunean... izan nahi dudanaren kontrakoa izan naiz, orduan... Baina tira, hori da gelditzen dena, niretzako hori da gelditzen zaidana.” (MNEG01)

11. Aldaketak militantzian

Afektatuen zein erresistenteen kasuan, sinesmen politiko zein erlijiosoek ez zuten garrantzia nabarmenik izan atxiloketari aurre egiteko momentuan. Eta pertsona askorentzako, atxiloketak militantzia lanaren haustura suposatu zuten. Atxiloketarekin batera nortasun militantzaren haustura gertatzen da, eta horren eraginez, pertsonaren mobilizazio soziala modu

mailakatuan gutxitu egiten da. Gainera, pertsona atxilotua, norberari gerta dakionaren eredu bihurtzen da, eta jendearengan pasibotasuna beldurra edo isiltasuna sor dezake.

Aztertuen babes soziala garrantzi handikoa izan da, eta orokorrean ez da isolamendu sozialik gertatu, baina jende askok atxiloketaren aurretik zuten konpromiso maila gutxitu egin du.

116. Taula. Aldaketak militantzian

“Ez dut lehen nuen konpromisoa izan nahi, azken finean egin duzun guztiak ez duela ezertarako balio ikusten duzu, nekatuta nago, nire ahaleginak aspaldi amaitu ziren.” (OAE04)

“Alde batetik txipa aldatu nuen, eta ulertu nuen torturak jaso dituen pertsona batek bizitza normala egin ahal izateko burua sendatu behar duela. Eta nire ustez hori da torturatuek behar duten lehendabizikoa. Bestalde, haurdun geratu nintzen, militantzia utzi izana, nik uste... aitzakia hori eduki izanak... finean aitzakia delako... beharbada... uste dut horrek ere eragina izan zuela. Denbora behar izan nuen nire bizitza militantzari berriro ekiteko.” (OBS02)

“Ez nekien on edo kalte egingo zidan [tortura biktimen inguruko ekintza politikoak egitea], baina egia esan, ez dut indarrik izan, nabaritu izan dut lehendabizi sendatu beharra nuela, ez nekien nola edo zertaz sendatu behar nintzen, eta ez nekien ezta ere denbora batez horretan baino ez nintzela arituko.” (OBAM04)

“Beti pentsatu izan dut jende horrek, bizitza hausteaz gain zure bizitzaren zati bat eramaten dutela, pentsamenduan eta zure pentsaeran, zure jarduteko moduan, zure egunerokotasunean eragiten duela... gainera sinesmen batzuk dituzu, horretan sinesten duzu ez? Bada, ez dakit zein modutan baina eurek hori izorratu egiten dizute, jarduteko moduan behintzat, eta nirekin oso ondo lortu dute. Espetxean sartu eta atera nintzenetik pentsatu izan dut, bidegabekeria sozialei dagokienez ni behintzat akabatu egin naute. Aurpegia eman behar denean nik jada paso egiten dut, uste dut norabide hori hartzen

dutela pertsona bat izorratzeko, ideologia alegia, aurka aritzeko. Ez da beldurragatik, baina pertsona gisa zerbait eraldatzeko deuseztapen sentrazioa daukat, lehen ez zenuen hara joan edo ez pentsatzen, orain... gaitasun gutxiago, pertsonaren balioa, baina ez da beldurragatik.” (OBAM05)

“Atera nintzen lehenengo aldian, nahiko mentalizatuta atera nintzen, honetan lanean jarraitzeko gogoia nuen, preso ohiak biltzen ginen ez? Eta tira, maila politikoan, herri mugimenduan, herria dinamizatzeko ahaleginetan... horretan aritu ginen batzuk... bigarren aldian jada ez nuen ikusten, ez dakit, buruko higie pixka bat behar nuen.” (IGEJ02)

“Neure burua ez dut ezertan oso konprometitua ikusten. Bileretara joaten ahalegintzen naiz edo dena delakoan parte-hartzen baina ez nago oso, oso sartuta. (...) Azkenean beldur askorekin etortzen zara, oso gogorra izango da eta honen ostean datorrena ikustea, kontu hau nola eramango dudana.” (IGEJ01)

12. Trauma-osteko adorea

Hala ere, aldaketa guztiak ez dira negatiboak. Atxiloketaren esperientzia eta hari

aurre egiteko osteko prozesuarekin lotura duten aldaketa positiboak adierazten dituzte pertsona batzuek.

117. Taula. Trauma-osteko adorea

“Gaur egun arte nire bizitza ez da normala izan, gainditzeko adorea duen pertsonatzat dut neure burua eta azken urte hauetan gauzak ondo samar atera zaizkit hainbat alorretan. Denborarekin gauzak sendatu egiten dira, erdi ahazten direla esango nuke, arreta gertatzen joaten diren beste kontu batzuei jartzen diezu, edo garrantzia handiagoa ematen diezu, eta beraz, bestea atzean uzten duzu.” (JZLV05)

“Heldu egin naizela uste dut, bizitzako gauza txiki bakoitza lehen baino gehiago baloratzen dut. Gauza materialak eta lagun onak, harremanak ere beste modu batean bizi ditut, ez dakit nola azaldu. Pertsonaren barnealdera heltzea gustatzen zait, harreman sakonagoak egitea. Aldatu egin naiz ere, esate baterako, ez litzaidake drogatzea gustatuko, gauzak diren moduan sentitu nahi ditut, ez urduriago ez ezer, aldaketarik gabe, gauzak diren bezala.” (OBAM02)

“Beste gauza batzuk gehiago baloratzen ditut; eta lehen niretzako garrantzitsuak ziren gauza batzuk, orain ez dira horrenbeste” (NLMAP02)

13. Ikuskera orokorra

Orain arte adierazitako datuek adierazten duten moduan, pertsona talde batek (herenak gutxi gorabehera) torturaren eragin larriak sufritu zituen. Besteekin konparatuz, pertsona hauengan, honako eraginak ikus daitezke: minaren nortasun handiagoa, munduaren ikuskera negatiboagoa, etorkizun iluna, inguruaren babes gutxiago nabaritzen dute

eta batzuetan gertatutakoaren erantzule gisa kontsideratzen zaiela uste dute. Gertaerek iraun zuten bitartean blokeo egoera izan zutela adierazten dute. Egundun, beldur zein erruduntasun bizipenak izaten dituzte eta gertatutakoari bueltak emateko joera handia dute.

Esperientziaren tamaina zehazteko asmoz bi talde egin ziren, afektatuak eta erresilienteak. Banaketa hau egin ahal izateko diskriminazio

analisi bat egin zen; talde bateko edo beste-ko kide izatea eta VIVO galdeketako eskalak aldagai independente gisa erabili ziren (118. taula). Taldeak ezberdinu (diskriminatzeko) ahal izateko, aldagai independenteen konbinazio lineal hoberena bilatu behar da, eta hori da diskriminazio analisiaren helburu nagusia. Konbinazio hori bilatzen denean (diskriminazio funtzioa) kasu berriak sailkatzeko erabili ahal izango da. Aldaera anitzen analisirako teknika bat da, eta horri esker, galdeketan aztertzen diren faktore guztietatik iragarpen-indarra zeintzuk duten ikusteaz gain, erresilientea edo afektatua den sailkatzeko orduan faktore bakoitzak duen pisua zehaztu daiteke.

Funtzio ordezkariak 0.87ko korrelazio kanonikoa du, auto-baloreak 2.54koak dira, eta Wilksen Lambda koefizientea 2.28koa da (4 gl, $p < 0.000$). Modu honetan, emaitza sendoa da, eta datuei esker, bi taldeen artean modu egokian diskriminatu daiteke. Funtzio kanonikoari esker, lau aldagai baino ez daude pertsona zein taldetan kokatzen den erabakitzeke. Pertsona afektatuak, hein handiago batean, blokeoak sufritu eta babes gutxiago jaso zuten pertsonak dira, atxilotetaren egunetan ez zuten erantzuten jakin, eta beraz sufrimendua alferrikakoa izan zela uste dute. Haietzako, gertatutakoa kontatzea ez da soilik kontu garrantzitsu bat, egin behar duten ekintza bat baizik.

Argi dago datu hauek izaera terapeutikodun inplikazio garrantzitsuak dituztela. Bestalde, erreparazio neurriei dagokienez, datuak esanguratsuak dira ere, eta biktimek eurentzako garrantzitsuak kontsideratzen dituzten neurriak ulertzeko moduarekin bat datoz (ikus. erreparazio neurriei dagokien atala).

Ezin da tortura bezalako gertaera traumatiko batek pertsonengan duen eragina ulertu, sortu daitezkeen lotsa, umiliazio edo erruduntasun sentimenduak aztertu gabe.

118. Taula. Diskriminaziorako funtzio kanonikoaren koefiziente estandarizatuak

	Funtzioa
	1
Sufrimendua ez da oso erabilgarria	0,402
Gertaeren bitartean blokeo sentsazioa	0,774
Gertatutakoa komunikatzea ez da garrantzitsua	-0,699
Babes sozialaren gabezia	0,633

4. Inpaktu afektibo eta emozionala

Aurreko ataletan maila emozionalean afektzio handia suposatzen duten aldaketa eta sintoma pertsonal zein inguruneak modu sakonean aztertu dira. Hala ere, ezin da tortura bezalako gertaera traumatiko batek pertsonengan duen eragina ulertu, sortu daitezkeen lotsa, umiliazio edo erruduntasun sentimenduak aztertu gabe.

VIVO galdeketak erruduntasun bizipen larriak zeudela erakusten zuen, bereziki pertsona afektatuen taldean ($F=7.39$ $p < 0.009$). Azterketetan, errua modu konstantean agertzen da. Errua galdeketetan esandakoarekin eta atxiloteta bitarteko erreakzioekin lotzen da.

119. Taula. Errua

"Gauza batzuk erabat gutxiesgarriak iruditu zitzaizkidan, eta hori da orain okerren daramadana. Zeldan zaudenean eta zuregana datozela entzuten duzunean, ez daitezela hona etorri pentsatzen duzu, ez daitezela hona etorri... Ondokora joaten ziren eta bertan nire lagun bat zegoen, eta atea irekitzen zioten eta buffff egiten nuen [lasaitua]. Horiek dira denborarekin okerren eramaten ditudan gauzak, horrela sentitu izana, horrela erreakzionatu izana." (MNEG01)

"Bataila galdu nuela sentitzen nuen, deklaratu nuelako, izen batzuk esanagatik gaizki sentitzen nintzen neure buruarekin, arduradun sentitzen nintzen, izen horiek esan izanaren errudun. Torturak sufri zitzaketan eta horren errudun sentitzen nintzen. Hala ere banekien eurek izen horiek jada bazekizkitela, eta nahi izanez gero, edozein momentutan atxilotu zitzaketela." (NLMAPO4)

"Kolaboratu izanagatik erruduntasun sentimendua daukazu. Ematen zizkioten jipoiak entzun eta errudun sentitzen nintzen. Ni ez ninduten jipoitu baina gainontzekoak bai eta horrek gaizki sentiarazten ninduen. Ni hiru egunez egon nintzen atxilotuta eta beste batzuk bost egunez egon ziren, horrek ere gaizki sentiarazten ninduen." (JZLV02)

1. Atxilotuen erruduntasun bizipenak

Errua, izaera erreala edo sinbolikoa duen arau bat urratu izanagatik sortzen diren eta norbera akusatzen duten pentsamendu edo emozioekin lotura duen sufrimendu psikologiko gisa defini daiteke⁹⁶.

Edozein erruduntasun bizipenean beharrezkoa da "bestea" egotea. "Bestea" gabe ez dago errurik. "Besteak" hainbat forma izan ditzake:

- Gertaeraren egiazko lekukoak, modu erreala edo sinbolikoan akusatzaile bihurtzen dira.
- Gertaeraren alegiazko lekukoak (Hau jakin-go balu, zer pentsatuko luke ez dakit nork?).
- Norberaren baitan dagoen "bestea". Akusatua epaile da aldi berean, eta ondorioz, bere kolektibitateko determinatzaile guztiak ezagutzen ditu. Garapenaren lehengo etapetan introiektatzen diren arauak pertsonak pentsatzen (eta epaitzen) duenari buruzko matrizea osatzen dute.

Pertsonak arau bat urratu duela sentitzen du. Urraketa esplizitua edo inplizitua izan daiteke,

soziala edo pertsonala, baina urraketa bere horretan mantentzen da. Atxilotuak urraketari buruz ulertzen duena kulturaren arabera izango da. Norbanakoaren askatasuna ezingo da albo batera mantendu eta urraketa horiek onartu edo baztertu beharko ditu.

Arauaren urraketa ekintza batekin hasten da. Zentzu horretan pentsatzea edo desiratzea buruak egiten dituen ekintzak dira.

Urraketa mingarria da. Hori da zerbaitekiko ardura (frogek edo ebidentziek probatzen dute) eta zerbaitekiko errua sentitzearen (sentimenduek determinatzen dute) arteko ezberdintasuna.

Gertatutakoak pertsonak berari buruz duen edo besteen aurrean proiektatzen duen irudia arriskuan jartzen du. 120. taulak Erruaren Determinanteen Eskalako batez bestekoak jasotzen ditu. Eskala hau erruaren eredu trans-teorikoan oinarritu zen eta ad-hoc egin zen azterketa honetarako. Eskala baten bidez, pertsonak erru azpi-mota bakoitza 1etik (inoiz ez) 5era (etengabe) baloratu zuen.

Ikuspegi orokor batetik ikus daitekeen moduan, emakumeek gizonek baino joera handiagoa dute errudun sentitzeko. Gizonen kasuan "erresistentzia gehiago egin ez iza-

⁹⁶ Perez-Sales, P. (2006). *Trauma, culpa y duelo: hacia una psicoterapia integradora*. Bilbo: Desclée De Brouwer.

nagatik" ("batzuetan" eta "sarri" gisa deskribatzen da gehienetan) agertzen da errudun sentimendua. Emakumeen kasuan, ordea, "konturatu ez izanagatik", "azkarragoa ez izanagatik", edo senideak eta inguruko pertsonak babestu ezin izanagatik izaten da ("oso maiz" bezala agertzen dira). Erru hauek denboran zehar gutxitzen dira eta gai batzuetan ia desagertzera heltzen dira. Hala ere, atxiloketa eta elkarrizketaren artan pasa-

tutako denboraren batez bestekoa 5 eta 10 urte bitartekoa dela kontuan hartzen badugu, oso adierazgarria da erruduntasun bizi-pen larriak mantentzen direla, emakumeen kasuan bereziki. Aztertutako ia alor guztietan emakumeek errua "batzuetan" edo "sarri" agertzen dela adierazten dute. Datu hauek agerian uzten dute pertsonaren bizitzan emozio hauek izan duten inpaktu sakona.

120. Taula. Erruduntasun emozioak						
	Atxiloketaren ostean			Elkarrizketa egin zen momentuan		
	Giz.	Emak.	Guz.	Giz.	Emak.	Guz.
Errua bizirik ateratzeagatik. Pertsonak konparazioan beste pertsona batzuek baino gutxiago sufritu duela uste du (aske utzi zutelako, tratu ezberdina jaso zuelako...).	2,18	3,36	2,64	1,59	2,18	1,82
Senaren errua (jakin edo imajinatu izana). Pertsonak errealitatean jakin ez zituen gauzak jakin edo imajinatu behar zituela uste du, eta ondorioz, modu ezberdinean jokatu ahal izango zuela.	2,89	3,82	3,24	1,89	2,27	2,03
Errua beste pertsona batzuk ez babesteagatik. Beste pertsona batzuk babesteko gai izan behar zuela uste du atxilotuak (modu erreal zein irrealen), eta horiekiko ardura maila zehatza sentitzen du.	2,56	3,73	3,00	1,56	2,45	1,90
Errua erresistentzia handiagoa egin ez izanagatik. Gehiago eutsi behar zuela uste du baina ez da "zer" edo "nola" zehazten. Aukera logikoetatik at dauden ekintza irrealen itxaropenak.	2,89	3,27	3,03	1,72	2,27	1,93
Errua behartutako hautaketengatik. "Aukera faltsuak" egiteko egoeretan hartutako erabakiengatik errua sentitzen du. Hartutako erabakia edozein izanda ere, berarentzako zein besteentzako negatiboa izango zen.	2,71	3,00	2,82	1,53	2,36	1,86
Errua itxaropenenei huts egiteagatik. Beste baten edo beste batzuen itxaropenei huts egiteagatik sortzen den errua.	1,67	2,73	2,07	1,22	1,82	1,45
Bataz bestekoa	2,54	3,32	2,84	1,58	2,23	1,83

Datu hauetan sakontzeko zentzua dauka erru mota bakoitza "oso maiz" edo "etengabe" sufritu duten pertsonen ehunekoei errepa-

ratzea. Beste modu batean esanda, aldizka gertatzen den eta sarri gertatzen den erruaren arteko bereizketa bat egitea litzateke.

121. Taula. Erruduntasun azpi-motak "oso maiz" edo "etengabe" sufritzen dituzten pertsonen ehunekoa						
	Atxiloketaren ostean			Elkarrizketa egin zen momentuan		
	Giz.	Emak.	Guz.	Giz.	Emak.	Guz.
Errua bizirik ateratzeagatik. Pertsonak konparazioan beste pertsona batzuek baino gutxiago sufritu duela uste du (aske utzi zutelako, tratu ezberdina jaso zuelako...).	23,5	45,5	32,1	0	9,1	3,6
Senaren errua (jakin edo imajinatu izana). Pertsonak errealtatean jakin ez zituen gauzak jakin edo imajinatu behar zituela uste du, eta ondorioz, modu ezberdinean jokatu ahal izango zuela.	38,9	63,6	48,3	11,1	27,3	17,2
Errua beste pertsona batzuk ez babesteagatik. Beste pertsona batzuk babesteko gai izan behar zuela uste du atxilotuak (modu erreal zein irrealean), eta horiekiko ardura maila zehatza sentitzen du.	27,8	63,6	41,4	0	45,5*	17,2
Errua erresistentzia handiagoa egin ez izanagatik. Gehiago eutsi behar zuela uste du baina ez da "zer" edo "nola" zehazten. Aukera logikoetatik at dauden ekintza irrealen itxaropenak.	38,9	45,5	41,4	5,6	27,3	13,8
Errua behartutako hautaketengatik. "Aukera faltsuak" egiteko egoeretan hartutako erabakiengatik errua sentitzen du. Hartutako erabakia edozein izanda ere, berarentzako zein besteentzako negatiboa izango zen.	29,4	45,5	35,7	0	27,3**	10,7
Errua itxaropenenei huts egiteagatik. Beste baten edo beste batzuen itxaropenei huts egiteagatik sortzen den errua.	5,6	27,3	13,8	0	0	0
Z	18	11	29	18	11	29

* Khi Karratua = 0.002 / ** Khi karratua = 0.023.

- Atxiloketaren ostean pertsonen herenak gutxi gorabehera erruduntasun bizipenak izaten ditu, arrazoien artean honako hauek daude: ez zuten beste batzuek bezain txarto pasatu, aske gelditu ziren edo ez zituzten bizi beste batzuek kontatutako hainbat egoera. Bizirik ateratzeari atxilotuak sentitzen duen errua *“bizirik atera zenak zerbait egin zuen hori lortzeko”* esaldiak biltzen duen ideiarekin eta konparatutako lotsarekin lotuta dago. Ideia hori irrazionala da, eta pertsonak esan zituen gauzeekin (eta beste pertsona batzuk nahastearekin) baino, egoera horretatik onik atera ezinaren sentsazioarekin lotuta dago, eta atxilotuaren ustez jendeak horretarako arrazoi bat egon daitekeela pentsatuko du (irudipen hau ez dago ingurunean, atxilotuaren imajinarioan baizik). Eta zalantza hori mingarria da. Ematen du atxilotuak gauzak okerragoak zergatik ez ziren izan (okerragoak izan ahal baziren) azaldu behar duela. Erru mota hau denboran zehar ia desagertu arte gutxitu egiten da. Prozesu hori eman ahal izateko atxilotuak inguruneke jendeak dudarik ez duela ikusi eta zalantza hipotetiko horren garrantzia gutxitu behar du.
- *“Atxiloketa ostean”* pertsonen erdiek eta *“elkarrizketa egin zenean”* bostetik batek erruduntasun bizipenak zituzten atxiloketaren momentu jakin batzuetan modu ezberdinean jokatu ez izanagatik.
- Emakumeen kasuan senideak edo lagunak *“ezin babesteagatik”* sortzen den errua kontu orokortua da, eta urteak pasa ahala mantendu egiten da. Gizonen kasuan, hasieran agertzen bada ere, denborarekin desagertzen da.
- Gizon zein emakumeen erdiak erruduntasun bizipen ohikoak dituzte *“erresistentzia handiagoa egin ez izanagatik”*. Emakumeen kasuan mantendu egiten da, eta gizonen kasuan, aldiz, desagertu. *“Aukera faltsuen”* (atxilotuaren dilema) testuinguruan egindako erabakiengatik sortutako erruaren datuak ia berdinak dira.

- Orokorrean, kasu guztietan atxiloketaren osteko emozio biziak agertzen dira. la gizon guztien kasuan bizipen hauek desagertu arte gutxitzen dira (momentu batzuetan hobeto erreakzionatu izanarekin lotura dutenak izan ezik, hots norberari dagozkionak izan ezik), emakumeen kasuan laurden batean, ordea mantendu egiten dira (pertsonen arteko erruak dira batez ere).

Torturak sortutako efektuei aurre egiteko erabilitako prozesu ezberdinak ez dira errazak izan, eta kasu batzuetan ezinbestekoa izan da adituen interbentzioa.

“Laguntza psikologikoa behar izaten hasi nintzen eta... tira, hasteko nire gertuko jendeak ere ez du oraindik nire ikara erreakzioa ulertzen, sentitu nuen beldurra, edo nire sentsazioak, uste dut nik ere ez nituela ulertzen, eta orain ulertzeko prozesuan gaude, gauzak ulertzen hasi naiz, bizitako egoeraren ondorioa dela alegia, eta nire gertukoenak ere ulertzen hasi dira.” (OBAM04)

“Hasieran oso txiki sentitzen nintzen, dudatsuagoa, ezin nuen nire gorputza biluzik ikusi, gauza asko gaizki eramaten nituen eta hainbat aurrerapauso ematen joan naiz, atzerapausoak ere.” (MNEG01)

“Argi dago oraindik ere arazoak gelditzen zaizkizula, aztarnak geratzen zaizkizu eta bizitzan zehar sortzen zaizkizun beste arazo batzuei aurre egiten diezunean hortxe oztopo bat duzula imajinatzen dut, gehitu egiten da eta askotan ez duzu kentzea lortzen.” (IGEJ02)

Bizi dugun gizarte matxista eta patriarkal honetan, emakumeei inposatzen zaizkien rola, ahultasun estereotipoak, familia zein gertukoei egiten zaizkien mehatxuak edota emakumea iraintzeko erabiltzen diren tortura teknikak, izan daitezke, beste batzuen artean, emakumeen erruduntasunean eragina izan duten faktoreak.

“Erabat umiliatuta sentitzen nintzen epaileak konparatu egiten ninduelako:

«emakumeak ahulagoak zarete, beldurra dela diozuen hori ez da beldurra». (...) Handik lur jota atera nintzen, biktima rola egiten ari nintzela eta poliziaren jarrerara justifikatua zegoela esaten zidan.” (MIIA02)

Erru motei dagokionez, lehenago aipatu dugu jada, pertsona batzuek gertatu zitekeena jakin edo imajinatu ez izanagatik zuten errua (“azkarragoa izan ez nintzelako” eta horrelako esaldiak maiz agertu dira).

“Azkenean buruari bueltak ematen amaitzen dut beti eta errua ez da inorena. Gero, errua neure buruari botatzen diot ere, azkarragoa ez nintzelako izan.” (MNEG01)

Beste batzuk babestu ezin izanagatik sortzen den errua aipatu da ere, erru mota hau batez ere familiarekin lotzen da, eta neurri txikiago batean lagunekin.

Familiari sufrimendua eragiteagatik dator erru sentimendu hori. Kasu askotan familiako kideek atxiloketa ikusi eta inkomunikatuta dagoen senidearen notiziarik gabe gelditu ziren, horren eraginez, beldurtuta eta larritasun egoeran gelditu ziren. Familiak sufritzen zuena pentsatzea askotan errepikatzen da atxilotuen testigantzetan, berari buruz zer pentsatuko duten, inkomunikazioari aurre egiten nola arituko diren edo galdeketak egingo ote dizkieten.

“Maite ditudan eta nigatik gaizki pasatzen duten pertsonen arduradun sentitzen naiz.” (BOB11)

“Uste dut baietz, erruduntasun sentimendu asko izan nituen. Etxean sartu ziren momentutik, nire gurasoak eta inguruko jendea sufritzen ikusteagatik. Espetxean sartu eta ni ikustera etorri zirenean sufritzen ari zirena imajina nezakeen. Erruduntasun sentimendu horrek eragin handia egin zidan. Zeure burua gutxies-teko influentzia izan dezake horrek. Edo beti arazoak sortzen egon zarela pentsatzeko. Esan nahi dudana da «azken urte

hauetan gauza bategatik ez bada izan, besteagatik izan dela». Orain segurtasuna bilatzen dut nire munduan, hau da inorekin edo ezerekin arazorik ez izatea.” (JZLV05)

Kideak babestu ezinaren erru sentimendua batez ere galdeketekin lotzen da, funtsean, galdeketen helburua beste pertsona batzuen akusazioa baita. Galdeketek irauten duten bitartean pertsona batzuk izenak esatera derrigortzen dituzte, lagunaren izenak, ezker abertzaleko militantzia konpartitzen duten pertsonena edo ezagutzen duten jendearena. Momentu horretan, beraz, atxilotuak pertsona entregatzen duela pentsatzen du, eta kasu askotan pertsona horri buruzko informazio gutxi du gainera. Arrazoi hori, galdeketa eteteko erabiltzen duela senti dezake atxilotuak. Pertsona horrek atxilotuak bizi izan duen egoera bizi dezakeelako errua sentitzen dute pertsona batzuek. Erruduntasun hau ez da espetxetik ateratzean desagertzen, datuek erakusten duten moduan denbora pasa ahala mantendu egiten da. Atxilotu batzuek ez dituzte aipatu dituzten izenak gogoratzen, eta batzuetan, pertsona batzuen atxiloketak ikusi edo haiei buruz irakurtzen dutenean, ez dira ziur egoten inkomunikazioan izen hori aipatu izanaz, eta ondorioz, lotsa sentimendua areagotu egiten da.

“Gogoratzen naiz nire lagun horren amak idatzi zidanean, «ezin diot erantzun, zer esango diot?» galdetzen nion neure buruari. Berak esaten zidan ez zela nire errua, baina bost egun horietan zehar nire errua zela pentsatu nuen. Egun, pertsona hori ikusten dudanean gaizki ikusten dut eta uste dut gertatutakoaren ondorioa dela. Horren ondorioz, ausiki asko izaten ditut.” (JZLV03)

“Mundu guztiak deklaratzeari uko egiten zion, eta nik borondatez eskatu nien inolako tortura fisikorik jasan gabe, horrek lotsa ematen zidan.” (OBIM02)

Behartutako erabakiak dira beste pertsona batzuk babestu ezin izanaren oinarria. Deklarazio guztiak torturapean egin dira, eta

horrek pertsona erabakirik gabeko egoera batean uzten du, eta ezagutzen dituen izenak eman behar izaten ditu, nahiz eta galdetzen dioten gertaerekin inolako erlaziorik ez izan.

“Astindu psikologikoa nabaritzen duzu ezer egin ez duen jendea akusatu duzulako, baina ez zara zu izan edo zure nor-tasuna... gero ondorioak ditu... egunen batean pertsona horri buruzko gutun bat bidaltzen dizute, edo egunkarian irakur-tzen duzu, argazki bat ikusten duzu... eta modu inkontzientean burura etortzen zai-zu.” (JZLV06)

Tortura mekanismoetan deskribatutako tortura motak gogorak izan arren, pertsona askok errua sentitzen dute erresistentzia gehiago egin ez izanagatik. Aztertuak badaki erru hori irrazionala dela, batez ere, inkomunikazioaren egunetan bizi izan zuena kontuan hartuz, baina hala eta guztiz ere, egun oraindik jipoi edo tortura psikologikoa hobeto aguantatu behar zutela pentsatzen duten pertsonak daude. Normalean egoera hori garaitua izanaren sentimenduarekin lotuta dago, “batailaren” ostean galtzaile atera izanaren sentimenduarekin alegia.

“Ikusten duzu eurek nahi zutena egin duzula eta espetxera joango zarela, errudun sentitzen zara egoera horri ezin diozulako aurre egin, menderatu zaituztela sentitzen duzu.” (AMRGL09)

Atxilotuak zituen esperantzei huts egiteagatik sortzen da erruduntasun hori. Egoera horren aurrean erreakzio mota bat izango zuela pentsatzen zuen, eta emaitza ezberdina izan da. Horrek eragin handia du pertsonarengan eta izateko modu “ideal” batekin lotuta dago (“ideala” euren ustez, inkomunikazioaren eraginik izan ez duen pertsona gisa jotatzea da).

“Bakean utz nintzaten neure burua eta beste pertsona batzuk umiliatzen uzteagatik erruduntasun sentimenduak ditut. Baita familiarengan ez pentsatzeagatik eta haiengan pentsatu gabe lo egiteagatik. Uste dut gauzak beste modu ba-

Onarpen sozialaren gabeziak ere gizartearen aurkako haserrea pizten du, sufritutako minaren aurrean gizarteak ez baitu ezer egiten.

tean egin ditzakezula beti, nahiz eta bortxapean egon. (...) Indartsua nintzela uste nuen... baina agian ez nintzen horren indartsua.” (NLMAP01)

“Ez nago atxilotetan izan ditudan erreakzioekin erabat konforme. Norberaren kontrola galtzea... hori... ez dizut esango horrek lotsatzen nauenik, baina momentu haietan eragin handia izan zuen. (...) Orain horrela esaten dut, baina zera bat daukat hor. Nahiko gogorra naiz nirekin eta ez zitzaidan nire erreakzio hori batere gustatu, egia da, ez dizut ezetz esango... Orain batzuetan horretan pentsatu eta justifikatzen ahalegintzen naiz eta egoeraren jabe naiz, baina horri dagokionez, niri buruzko iritzi hori daukat.” (JZLV05)

“Erru asko botatzen dizkiozu zeure buruari, sinatu izana, esan izana, ni beharrean beste pertsona bat hartzea desiratu izana... Kanean X eraman zuten egunean ere, berriro errepikatu nuen, ikusi! Ze ongi X eraman dutela. (...) Horrek txarto sentiarazten nau... eurak baino okerragoa naiz. Burua txikitu egiten duzu oso gaizki sentitzen zarelako, horrelakoa ez zarela uste duzu, baina muturreko egoeretan horrelakoa izaten zara. Hori da okerreña egia esan.” (MNEG01)

Azken testigantzan deskribatzen den bezala, atxilotuak inkomunikazioaldian polizia ziegan sartzen zenean norbera ez zen beste pertsona bat hartzeko desiratzen zuen, eta

egoera hori askotan errepikatze da. Funtsean zorigaitza beste pertsona bati desiratzeagatik lotsa sentimendu bizia sortzen da kasu batzuetan, eta beste batzuetan, muturreko egoera horretatik bizirik ateratzeko modu logiko gisa ulertzen ditu aztertuak.

“Errudun sentitzen naiz, bestea nola jipoitzen zuten entzuten nuelako. Ni ez ninduten jo, beste batzuk bai eta horregatik gaizki sentitzen naiz. Ni hiru egun egon nintzen eta beste batzuk bost, horregatik ere. Gero espetxera joan nintzen eta ni jada atera naiz, baina beste batzuk ez, eta horregatik ere errudun sentitzen naiz. Zure errua ez dela badakizu, ahalegintzen zara... baina saihestezina da.” (JZLV02)

2. Amorruta eta Gorroto bizipenak

Torturaren ostean gehien errepikatzen diren sentimenduak amorruta eta gorrotoa dira, eta ez soilik egileekiko, euren atzean dauden Estatuko segurtasun indarrekiko baizik. Gorroto horrek ez du mugarik jartzen bizitza normala egiteko, baina berraktibatu egiten da elementu horiekin harremana izaten duen.

“Ertzaintzerekiko amorruta eta gorroto handia sentitzen dut, ikusten ditudanean kontrolatzen ahalegintzen banaiz ere, batzuetan ezin dut sentimendu hori albo-ratu.” (BOB11)

“Emazteak zera esaten zidan, «Karlos jende-ari ez horrela begiratu gero, jenio txar aurpegi horrekin!» Egun, oraindik ere hori esaten dit. Ertzainak etortzen direla ikusi eta zera esaten dit «ez begiratu horrela! Eta atera itzazu eskuak poltsikotik». Horrelakoa naiz, eta beti adierazten dut sentitzen dudana: jenio txarra.” (OAEM01)

Amorruta gertaerek sortutako umiliazio eta ezintasun sentimenduekin elkartzen da. Onarpen sozialaren gabeziak ere gizartearen

aurkako haserrea pizten du, sufritutako minaren aurrean gizarteak ez baitu ezer egiten.

“Amorruta gehiago nabaritu nuen jende konkretu batekiko, beste ideologia batzuetako gazteekiko adibidez... sumindu egiten nintzen ikusten nituen bakoitzean. Apur bat gaixo-portaera zen hura.” (JZLV05)

“Zer sentitzen dudana? Gorroto handia. Eee... pertsona bat horrelako umiliazio egoera batera txikitzea, kaka egoera horretara... hau da, kaka baten moduan sentitzen zinen... behean dagoenaren artean behekoena. Zaila da, zaila da, maila pertsonalean... ostia! Txikitu egin zaituzte, kaka baten moduan sentiarazten zaituzte.” (OBSO2)

“Askotan norbaitek torturak salatzen di-tuenaren eskuliburuaren kontua aipatzen duenean, sekulako amorruta ematen dit horrek... nahi izan dudalako salatu dut nik. Eskuliburu hori benetan existitzen bada, aurkeztu dezatela, ikusi hau da eskuliburu, kristoren amorruta ematen dit horrek. (...) Kontua alde batera uztea eta ez ikusiarena egitea gaizki iruditzen zait. Baina gainera gezurretan ari zarela esatea...” (JZLV04)

“Ezintasuna, amorruta asko, arraioa... nahi bezala jolasten dute zurekin eta ezin duzu ezer egin, teoriaran egon beharko balira ere, ez duzu inolako eskubiderik, ezin duzu ezer egin.” (JZLV06)

Trauma-osteko sintomei amorruta, umiliazio, lotsa edo erru sentimenduak izatea gehitzen bazaio, inkomunikazioaren ostean bere bizitza aldatu dezakeen etapa bizi dezake atxilotuak. Etapa hori, gainera, emozioen aldaketak zehaztuko du. Deskribatutako aldaketek normalean sentsibilitate eta enpatia handia sortzen badute ere, aldi berean, oldarkortasuna eta zakarkeria sor dezakete.

122. Taula. Emozioen aldaketak

“Erraztasun handiagoarekin egiten dut negar, hau da, lehen gauza batzuekin ez nintzen hunkitzen, orain... sentikorragoa naiz.” (OAEM04)

“Nire sentimenduak adieraztea gehiago kostatzen zaidala nabaritzen dut, gehiago kostatzen zait negar edo barre egitea, adieraztea... Adierazkorra izaten jarraitzen dut, baina onerako zein kalterako babes moduko bat osatzen duzu, orain askeago nagoela sentitzen dut, baina familiarekin edo neskekin egon nintzen lehen aldietan, askoz arrotzago sentitu ninduten. Itxiagoa, arrotza, babes moduko bat izango banu bezala.” (JZLV06)

“Nire familia moduren batean ni sostengatzen ari dela ikusten dut, betidanik, energiaz eta biziz beterik ezagutu naute, pozik, eta orain geldo ikusten naute, goibel. Beste bat izango banintz bezala ikusten naute. (...) Eurek ere modu kolateralean kolpe berak sufritu dituzte, ezintasuna, inpunitatea, eta batez ere azkenean tristeago ikusten ditut jada ez dudalako lehen nuen poztasuna islatzen. Nire saiakerak egiten ditut eta ez nago haserre, baina irribarrea ez zait oraindik ateratzen, oraintxe bertan ez dudan gogo-aldartea da.” (OBAM04)

“Egoteko behar handia eta behar fisiko handia daukat, jendeak ni ukitzea gustatzen zait... maitasuna. Horren beharra daukat, haien beharra. Orain beste behar bat daukat, nirekin bi ordu ezer esan gabe egotea, baina hor egotea... eta «kaixo, zer moduz? Zer moduz eguna?», tontakeriak,, baina horren beharra dut.” (OBAM05)

“Sentikorrago nagoela sentitzen dut, sentimenduak erraz ateratzen zaizkit... eta... humorearekin ere... ez nago txarrera baina... lehen agian humore gehiago nuen baina orain... oldarkorrago nago, ez dakit. Lasai egoten naiz, baina sentimenduak erraz ateratzen zaizkit eta kontu txikiekin... agian haserretu egiten naiz... ezin dut ekidin.” (OBIM06)

3. Elkar-ulermen eta barkamen bizipenak

Protokoloaren baitan McLernon eskala zegoen. Eskala honetan, Ipar Irlandako kasuan, unionista eta katolikoek elkar ulermenerako zituzten gaitasunak aztertzen ziren. Torturatik bizirik atera diren pertsona hauen emaitzak ikaragarri txarrak dira. Oso zaila da emozio positiboak aurkitzea.

Tortura burutu zuen polizia taldeak egun sortzen dituen emozioei buruz galdetu zitzairen, haiekiko nola sentitzen diren, zein motatako jarrerak izango zituzten, haietaz oroitzen direnean (tortura irudiak albo batera utzita) izaten dituzten pentsamenduak. Gertatutakoa barkatzeko ahalmenaz ere galdetu zitzairen.

123. Taula. Mclernon eskalaren emaitzak				
		Adostasunik ez (%)	Ados edo apur bat ados (%)	
Mina egin zidan taldearekiko _____ sentitzen naiz.	Lasai	91,2	8,8	
	Aurka	12,1	87,9	
	Minduta	17,6	82,4	
	Errukibera	94,1	5,9	
	Gorrotorik gabe	82,4	17,6	
	Saminduta	72,7	27,3	
	Ulerkor	88,2	11,8	
	Haserre	35,3	64,7	
Pertsoneri dagokienez, haiekin _____	Egoatea saihestuko nuke	26,5	73,5	
	(haiei) Lagunduko nieke	94,1	5,9	
	Hitz egingo nuke	91,2	8,8	
	(haiei) Min egingo nieke	51,5	48,5	
	Ondo moldatuko nintzateke	97,1	2,9	
	(haiek) Zigortuko nituzke	11,8	88,2	
Gogoratzen ditudanean _____ direla uste dut.	Gaiztoak	11,8	88,2	
	Zitalak	5,9	94,1	
	Ulertezinak	17,6	82,4	
	Errespetagarriak	97,1	2,9	
Gogoratzen ditudanean, _____	Ongia desiratuko nieke	93,9	6,1	
	Gaitzetsiko nituzke	6,1	93,9	
	Ongi pentsatzen saiatuko nintzateke	90,9	9,1	
	Zigortuko nituzke	5,9	94,1	
Z		34		
		Ez guztiz	Ahalegintzen ari naiz	Barkaezina da
	¿Zein puntura arte barkatu duzu?	6,3	6,3	87,5
Z		34		

Emozio negatiboak dira nagusi, eta horrek torturak gizartearen kontra duen suntsipen boterea erakusten du.

Erantzunen adostasuna ikusita, emaitzak ikaragarriak dira, eta torturak uzten dituen zauri larriak agerian uzten ditu, batez ere, gertaera horiek ostera ukatu egiten direnean. Emozio negatiboak dira nagusi, eta horrek torturak gizartearen kontra duen suntsipen boterea erakusten du. Aztertutako pertsonen % 87ak egin dietena barkaezina dela uste du.

Hala ere, datu positiboak agertzen dira, hala nola: nahiz eta tortura gertatu, mendekua ez

izateko sentimenduak dira nagusi (% 51,5), pertsonen ia % 18ak ez du inolako gorrotorik sentitzen, pertsona hauen hiru laurden ez dira saminduta gelditu eta elkarrizketatuen laurden batek ez luke torturatzailleekin egoitea saihestuko.

4. Depresioa

Torturak emozioetan duen eragina ebaluatzeko erabili den beste galdeketa bat Becken Depresio Inbentarioa (BDI) izan da. Azterketa egin zenean depresioaren larritasuna neurtzeko eten puntu⁹⁷ ezberdinak erabili dira⁹⁸. 124. taulak emaitzak erakusten ditu.

⁹⁷ Depresiorik ez: 0-9, Depresio arina: 10-16, Depresio ertaina: 17-29, Depresio larria: 30-63.

⁹⁸ Beck, A.T. eta Steer, R.A. (1993). Beck Depression Inventory. Manual. San Antonio, TX: The Psychological Corporation.

124. Taula. Depresio galdeketaren emaitzak

	Gizonak (%)	Emakumeak (%)	Guztira (%)
Depresiorik ez	55,6	28,6	43,8
Depresio arina	16,7	35,7	25
Depresio ertaina	22,2	28,6	25
Depresio larria	5,6	7,1	6,3
Z	18	14	32

Aztertutako pertsona gehienek ez dute depresiorik sufritzen, baina herenak depresio ertaina edo larria sufritzeko puntuazioa izan du. Batez besteko puntuazioa 12 da eta pertsonen % 75ak 19 azpitik puntuatu du. Trauma-osteko galdeketan gertatu bezala, emakumeek puntuazio altuagoak izan dituzte eskala honetan ere. Hala ere, ez dugu depresioa soilik torturarekin lotzeko adina elementurik.

Torturarekin lotura zuzena dagoen aztertze-ko, atxiloketatik elkarrizketara pasatutako denboraren arabera zatitutako galdeketa aurkezten dugu, 125. taula.

125. Taula. Depresio galdeketaren emaitzak atxilotetatik pasa den denboraren arabera (%)			
	2 urte baino gutxiago	3 eta 7 urte bitartean	8 urte baino gehiago
Depresiorik ez	42,9	55,6	37,5
Depresio arina	28,6	33,3	18,8
Depresio ertaina	28,6	0	37,5
Depresio larria	0	11,1	6,3
Z	7	9	16

Talde bakoitzean agertzen den jende kopuru txikiak datuen ondorio argiak ateratzea ezinezkoa egiten du. Horrela, 3 eta 7 urte bitartean aztertutako pertsonen % 11k tortura larria adierazten badute ere, datu ehuneko hori pertsona bati baino ez dagokio. Orokorrean begiratuta ehunekoak altuak dira inolako zantzarik gabe, eta gizarte orokorrean estimatzen den depresio nahasmenduaren bikoitza suposatzen dute. Depresio hauek ziurrenik zeharkako erlazioa dute beste faktore batzuekin

(lana galtzea, zailtasunak bikotekidearekin edo banantzea, lagun taldearen edo bizi proiektuaren haustura). Sintomak oso neurri txikian desagertzen dira denbora pasa ahal, eta horrek berriro erakusten du gertaera hauek torturak jaso dituen pertsona baten bizi-kalitatearen gainean duten eragin handia.

Azterketa honetarako interesgarriagoak suerta daitezkeen itemak aukeratu eta euren puntuazioa hurrengo taulan antolatu da.

126. Taula. Depresio galdeketako item nagusiak					
Itemak	Larritasun eskala (%)				Batez bestekoa
	0: Ez dago	1: Arina	2: Ertaina	3: Larria	
Plazer galera	47,1	35,3	14,7	2,9	0,73
Norberari buruzko kritikak	35,3	58,8	5,9	0	0,70
Urduritasuna	35,3	55,9	2,9	5,9	0,79
Interesaren galera	50	41,2	8,8	0	0,58
Aldaketak loaldietan	29,4	41,2	14,7	14,7	1,14
Suminkortasuna	52,9	35,3	8,8	2,9	0,61
Kontzentrazioarako zailtasunak	29,4	47,1	17,6	5,9	1,0
Interes galera Sexuari dagokionez	61,8	17,6	17,6	2,9	0,62
Z	34				

Kontzentratzeko zailtasunak zein loaldien aldaketak dira puntuaziorik handienak biltzen

dituztenak, eta bat datoz aurrez ikusitako aztertuen adierazpenekin. Ezkortasunak eta

urduritasunak ere puntuazio handiak dituzte gainontzeko itemekin konparatzen baldin baditugu. Buru-hilketa eta porrota dira batez besteko puntuaziorik baxuenak eskuratu dituztenak.

Azkenik, sexuari dagokion interes falta puntuatzen duen itemean emakumeek ehuneko handiagoa daukatela ikus daiteke ($F=4.93$ $p<0.03$). Tortura metodoez aritzen zen atalean ikusi zen moduan, emakumeen kontra burutzen zen torturan, umiliazioa eta nortasunaren suntsipena lortzeko elementu askok sexu izaera zuten. Eskala honen bidez harreman sexualak izaterakoan anhedoniarekin lotzen diren arazoez galdetu bazen ere, hauteman daitezkeen diferentzia handiek lotura izan dezakete bizitako gertaeren ondorioz sortutako gorputzezko zailtasunekin.

Aztertutako pertsona guztien % 13.4ak nahasmendu depresiboaren irizpideren bat azaldu zuen elkarrizketa klinikoetan momenturen batean, aurrez azalduko datuek erakusten duten moduan. Sintoma depresiboak aztertzeko dituen galdeketa batean modu altuan puntuatzen bada ere, horrek ez du esan nahi pertsonak depresio diagnosi kliniko bat duenik. puntuazio altuak atera daitezke nahasmendu somatoformeen, nortasunaren aldaketa iraunkorren edo 86. taulan deskribatutako beste diagnosiren baten eraginez.

5. Ondorioak

Modu orokorrean, egindako azterketek honakoa erakusten dute: **mementuren batean**, aztertuen % 53.3ak trauma-osteko estres nahasmendua izan du, % 13.4ak nahasmendu depresiboa, eta % 6.7ak garrantzia kliniko handiko antsietate nahasmendua izan du.

Egungo sintomatologiaren analisi psikometrikoak, sintoma kopuru handia erakusten du. Datu batzuk azpimarratzearen, % 36ak irudi mingarriak ditu oraindik eta % 54a gaizki sentitzen da gertaerak oroitzen dituenean. % 27ak gertatutakoaren inguruan hitz egitea saihesten du, lautik batek lehenago interes-

garriak iruditzen zitzaizkion gauzekiko interesa galdu du, hirutik batek etorkizuna moztu ziotela edo jendearengandik urrun dagoela sentitzen du. % 34ak lo egiteko edo kontzentratzeko zailtasunak izaten ditu eta estimulu jakin batzuekiko alerta egoera nabaritzen du. Elementu psikometrikoak oinarri hartuz, egun, pertsonen % 24.1ak trauma-osteko estresaren diagnosia izan zezaketen (% 13,8ak TOSN "probablea" du eta % 10,3ak TOSN konfirmatua).

Datu hauek erakusten duten moduan, urteen joanean sintoma hauek gutxitzeko joera dago, eta pertsona askoren kasuan sintomen normalizazio mailakatua (baina motela) ematen da. Hala ere, pertsona hauek min kliniko nabarmena dutela ikus daiteke.

Afekzio handiagoa erakusten duen pertsona talde bat dago. (a) Sufrimendua alferrikakoa izan zela edo (b) gertaeren bitartean blokeo eta babesik gabeko egoerak izan zituzten pertsonak dira bereziki. Horretaz gain, (d) babes sozialaren gabezia sumatu zuten (gertuko ingurunetik hasi eta gizartearen osotasuna kontuan hartuz) eta pertsona huentzako (e) gertatutakoa kontatzea ez da soilik kontu garrantzitsu bat, egin behar duten ekintza bat baizik.

Ikuspuntu psikometrikoari esker ikusi daitezkeen moduan, lehenengo 2 urteetan trauma-osteko estresa duten pertsonetatik (% 16.7), soilik % 7.1ak mantentzen du atxilotetatik 8 urte pasa ostean. Elkarrizketa klinikoetan ere, ehuneko oso antzeko bati (% 8.9) hondamen gertaeren osteko Nortasunaren Eraldaketa Iraunkorraren diagnosia egiten zaio. Hori da, hain zuzen, gera daitezkeen aztarna iraunkor motarik larriena.

Azpimarratzekoak dira ere aztertu diren erruduntasun bizipenak. Sintoma hauek maiztasun handiz agertzeaz gain urteetan zehar bere horretan mantentzen dira. Ikuspuntu orokor batetik begiratuta, emakumeek errudun sentitzeko gizonen baino joera handiagoa dutela ikus daiteke. Gizonen kasuan "erresistentzia gehiago egin ez izanagatik"

Aztertuen % 53,3ak trauma-osteko estres nahasmendua izan du, % 13,4ak nahasmendu depresiboa, eta % 6,7ak garrantzia kliniko handiko antsietate nahasmendua izan du.

Baina aldi berean esperientzia beste batzuekin konpartitzeak garrantzia sozial, politiko eta pertsonal handia duela pentsatzen duen jende talde bat dago. Pertsona gisa hazi egin direla uste dute eta egun dituzten sentimenduak onartzen dituzte. Labur esanda, esperientzia euren bizitzetan integratzen jakin dutela diote, eta gertaerei aurre egiten zein babes sareak mantentzen jakin dute. Pertsona hauek militantzia berria hasi edo lehen zutenarekin jarraitu dutela azpimarratzen dute.

("batzuetan" eta "sarri" gisa deskribatzen da gehienetan) agertzen da erruduntasun sentimendua. Emakumeen kasuan, ordea, "konaturatu ez izanagatik", "azkarragoa ez izanagatik", edo senideak eta inguruko pertsonak babestu ezin izanagatik izaten da ("oso maiz" bezala agertzen dira). Gizonen kasuan, erru hauek denboran zehar ia desagertu artea gutxitzen dira, egoerari aurre egiteko moduari lotuta daudenak salbu. Emakumeen laurden batean mantendu egiten dira, eta batez ere pertsonen arteko gaiekin dute zerikusia.

Torturak, beraz, bere helburu nagusietako bi betetzen ditu, ehun sozialaren haustura eta nortasunaren hondamena. Lehenengoari dagokionez, pertsona batzuek torturaren ostean izan duten alienazio sententzia eta euren militantziatik urrundu direla adierazi dute. Honekin batera tortura gertaerak kontatzeko zailtasunen ondorioz, familia zein lagunekiko distantzia areagotu daiteke. Torturak modu nabarmenean eragin zuen nortasunean eta munduari buruzko ikuskeran. Besteek baino min handiagoa sufritzen duen pertsona talde batek (herena gutxi gorabehera), munduaren ikuskera negatiboagoa dute, isolatuago sentitzen dira eta batzuetan gertatu zenaren erantzule egiten zaiela sumatzen dute.

Oroitzapenekin eta emozioekin lotura estua duten gorroto, amorru eta umiliazio sentimenduak maiz adierazten dira. Hauekin batera, tristura eta galera sententzioak zein bestearen lekuan jarri ahal izateko edo bestea barkatzeko zailtasun handiak agertzen dira.

7. atala.

Erreparazio neurriak

Sarrera

Biktimak eskubideen jabe diren subjektuak diren heinean, euren gizarteratzea eta onarpena ahalbidetzeko politika gisa ulertu behar da erreparazioa. Indarkeria gatazka bat bizi duen gizarte batean galdutakoa ezin da inolaz ere ordezkatu, baina hala ere, harreman sozialak berreraikitze bidean, indarkeria horren ondorioak aurrez aurre jarri eta edozein hautu politikoko biktimekiko zein bizirik ateratako jendearekiko Estatuak duen ardura zehaztea ezinbestekoa da.

Giza eskubideen nazioarteko legeriaren baitan biktimen aldeko erreparazio neurrien jurisprudentzia zabal eta ezaguna existitzen da⁹⁹. Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2005eko

⁹⁹ De Greiff (2008). *Handbook of Reparations*. Oxford University Press. Martin Beristain C (2009). *Diálogos sobre*

abenduan sinatu zuen ebazpena, giza eskubideen urraketen biktimek erreparazioa izateko duten eskubide preskribaezin eta besterenezinari buruzko ebazpen garrantzitsuenetako bat da¹⁰⁰. Dokumentu horretan adierazten den moduan, erreparazioa egia eta justiarekin lotuta egon behar da hala-beharrez. Eta Estatuak aintzat hartzeko bost erreparazio neurri proposatzen ditu:

la Reparación. IIDH.Ministerio de Justicia. Quito. Lira E, Loveman B (2005). *Políticas de Reparación*. LOM Ediciones. Santiago de Chile.

¹⁰⁰ Batzar Nagusia. 2005eko abenduaren 16ko 60/147 Ebazpena: Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimek errekurtsoak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta arauak (<http://www2.ohchr.org/spanish/law/reparaciones.htm>). Arreta berezia merezi dute IV.6 (erreparaziorako eskubidearen preskribaezintasuna deskribatzen da) eta V.8 atalek (biktimaren definizioa egiten da: "giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketa edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien ondorio diren min indibidualak zein kolektiboak sufritu dituen pertsona oro, eta barnean lesio fisiko edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo bere oinarritzko eskubideen galera kontuan hartzen dira. Beharrezkoa denean eta barneko zuzenbidearekin adostasunez, "biktima" terminoa gertuko familiako kide edo biktima zuzena ardurapean duten pertsonetara eta arriskuan dauden biktimei arreta eskaintzeko edo biktimizazioa ekiditeko esku hartzean mina sufritu duten pertsonetara hedatuko da.") eta erreparazioari dagozkion biktima baldintzak zehazten ditu ere, egileek mugatu ala ez.

127. Taula. Erreparazio neurriak – NBEko batzar nagusiaren gomendioa (2005)

- **Leheneratze neurriak:** biktimaren aurreko egoera berrezartzea dute helburu (galdutako eskubide, ontasun edo lana berrezartzea)
- **Kalte-ordain neurriak:** sortutako kalte-ordain material zein moralei aurre egiteko diru ordaina (beldurra, umiliazioa, aztarna fisiko edo psikologikoak)
- **Errehabilitazio neurriak:** arreta mediko eta psikologikoa, biktimen aldeko gizarte zerbitzuak, zerbitzu legalak, etab.
- **Duintze eta Legearen ordaintze neurriak:** gertaerak egiaztatze, ardurak mugatzeko eta arduradunak zigortzeko, egiaren ezagupen publikoa egiteko eta biktimei ohorea itzultzeko zein oroipenerako neurriak.
- **Berriro ez errepikatze bermeak:** tortura eteteko neurriak, segurtasun zerbitzuetan, giza eskubideen sustapenean, etab. aldaketak sustatzen dituzten instituzio edo lege erreformak.

Giza eskubideen nazioarteko legeriaren baitan biktimen aldeko erreparazio neurrien jurisprudentzia zabal eta ezaguna existitzen da.

Tortura biktimen erreparazioa ulertzeko moduari buruzko nazioarteko ikerketa asko daude. Orain dela 10 urte tortura biktimen erreparazio neurriei buruzko konparazio ikerketa bat egin zen 30 herrialdeetan¹⁰¹. Bertan agerian gelditu zen herrialde gehienetan hutsune legala dagoela, eta erreparazio neurriak existitzen diren lekuetan alde handia dagoela legeen eta haien aplikazioaren artean. Analisi horretan ondorioztatu zen moduan torturatik bizirik atera den jendeak eta haren senideek (Europako herrialdeetakoak barne) oso gutxitan jasotzen dituzte erreparazioak. Neurriren bat onartu duten herrialdeetan, gehienetan diru ordainak izan dira, eta ez da errehabilitazio neurririk edo berriro ez gertatzeko bermerik hartu.

Torturatik bizirik atera diren pertsonen erreparazio aukeren inguruan egin zen nazioarteko beste ikerlan batek (herrialde eta testuinguru ezberdinetan kokatutako 200 elkarrizketa erdi-egituratu baino gehiago erabili ziren¹⁰²) honakoa ondorioztatu zuen: toki bakoitzeko

torturaren biktimei zehazki galdetzea beharrezkoa da hainbat faktoreren arabera iritzi oso ezberdinak daudelako, biktimaren egoera ekonomikoa, biktimak tortura militantzia testuinguru batean kokatzen ote duen, eta kasu horretan, torturaren onarpen publikoa borroka horretako atala den. Euren bizitza torturaren onarpen eta erreparazioari dedikatzea erabaki zuten biktimen zein ideia hori errotik ukatzen zuten biktimen iritzia hartu zen kontuan azterketa horretarako.

Norabide berean, hainbat azterlanek erakutsi duten moduan, erreparazio ekonomikoa pertsonaren egoera ekonomikoaren arabera baloratu izan da¹⁰³. Tortura edo espetxearen biktimek beste giza eskubideen biktima batzuek baino izaera militanteagoa dute, eta biktimaren familiak arreta handiagoa jartzen du materialak ez diren elementuetan¹⁰⁴. Azkenik erreparazio edo justizia neurrien edo ez errepikatzeko bermeen bilaketa, salatu ezkeror sor daitekeen arriskuarekin eta biktimak duen inpunitate ingurunearekin lotura zuzena du.¹⁰⁵

Laburbilduz, datuek diotenaren arabera, testuinguru bakoitzeko biktimek esan behar dutena entzun eta euren behar zein eskaera espezifikoei aurre egin behar zaie, oso zaila baita mundu mailan baliagarriak diren erreparazio neurriak ezartzea.

Orain arte, tortura biktimen erreparazio neurriak biltzen dituen adibiderik osatuena Txileko gobernuaren Espetxeratze Politikoa eta Torturei Buruzko Batzordea da (Valech

¹⁰¹ REDRESS (2003). *Reparation for torture. A survey of law and practice in thirty selected countries*. The Redress Trust. London. (Disponibile en <http://www.redress.org/downloads/publications/AuditReportText.pdf>). Argentina, Bahrein, Brasil, Txile, Txina, Egipto, Indonesia, India, Iran, Israel, Japonia; Kenya, Libano, Maroko, Mexiko, Nepal, Nigeria, Peru, Filipinak, Errumania, Errusiako federazioa, Rwanda, Serbia y Montenegro, Hegoafrika, Sri Lanka, Sudan, Suitza, Turkia, Erresuma Batua (Eskozia), Uzbekistan, Zimbabue.

¹⁰² REDRESS (2001). *Torture survivors' perceptions of reparation*. The Redress Trust. London.

¹⁰³ Rettberg, A. (2008). *Reparación en Colombia. ¿Qué quieren las víctimas?*. GTZ/Universidad de los Andes. Bogotá. Pérez-Sales, Bacic R., Duran, T. (1999). *Muerte y desaparición forzada en la Araucanía. Una perspectiva étnica*. Ed Lom. Santiago de Chile.

¹⁰⁴ Arnosó, M. (2012). *Terrorismo de Estado en Jujuy (Argentina) (1976-83). Impacto psicosocial y representaciones del pasado, la justicia y la reparación*. Doktoretza tsia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

¹⁰⁵ Navarro-García S., Pérez-Sales, P. (2007). *¿Por qué las exhumaciones no conducen a procesos de justicia en Guatemala? Datos y reflexiones desde una perspectiva psicosocial*. Revista CEJIL 203, 90-99.

izenez ezagutzen da ere)¹⁰⁶. Txosten horrek honako neurri hauek proposatzen ditu:

Erreparazio neurriak: aztertuen ikuspuntua

Gerta daitezkeen erreparazio neurriak ez dira Istanbulgo Protokoloan agertzen, honekin batera aurkeztu zen elkarrizketa erdi-egituratuan baizik. Bertan ez zen erreparazio neurri posibleen inolako katalogorik egin,

¹⁰⁶ Comisión Nacional sobre Prisión Política y Tortura (2003). *Informe de la Comisión Nacional sobre Prisión Política y Tortura*. Ministerio del Interior. Santiago de Chile. 516-531 orr.

aztertuak modu espontaneoan erantzuteko galdera ireki batzuk ziren. Geroago erantzun horiek modu kualitatiboan aztertu ziren¹⁰⁷. Azterketan parte hartu zuten 45 pertsonetatik 30ek galdeketa horretan parte hartu zuten.

129. taulak aipatutako elementuen maiztasuna erakusten du.


¹⁰⁷ Galderak honako hauek izan ziren: 1. – Zer uste duzu tortura biktimentzako maila sozialean egin beharko zela?; 2. – Zein uste duzu izango litzatekeela sufrimenduari eta minari aurre egiteko modua?; 3. – Uste al duzu zure minak eta sufrimendua onarpen instituzionala edo soziala izan beharko lukeela? Edo kalte-ordainak ordaindu beharko liratekeela? 4. – Orokorrean, zein uste duzu izango litzatekeela bide egokia erreparazio hori benetan eraginkorra izan zedin?

128. Taula. Erreparazio neurriak tortura biktimentzako. Valech txostena

Gizabanakoaren erreparazio neurriak	Izaera kolektiboa edo sinbolikoa duten erreparazio neurriak
<ol style="list-style-type: none"> Juridikoak. Atxiloketa ilegala edo tortura gertatu bada, epaiketa eta aurrekari penalen baliogabetzea. Ekonomikoak. Bizitza osorako pentsioa. Osasuna. Errehabilitazio mediko eta psikologikorako programa (PRAIS). Heziketa. Gelditutako ikasketak jarraitu edo amaitu ahal izateko beka eta erraztasunak. 	<ol style="list-style-type: none"> Ez errepikatzeko bermeak eta prebentziarako neurriak. Kode penalaren erreformak eta nazioarteko itunen berrespena barne hartzen duen proposamen zabala. Onarpenerako eta elkartzerako keinu sinbolikoak Memoriaren onarpena Giza eskubideen heziketa, sustapena eta hedapenerako neurriak

Txileko gobernuak ez zituen neurri juridikoak, ekonomikoak eta ez errepikatzeko bermeak onartu. Osasun, heziketa, sustapena eta hedapenerako neurriak onartu egin zituen, eta gainontzekoak modu partzialean.

129. Taula. Erreparazio neurriak



A. Kalte-ordain eta leheneratze neurriak

Elkarrizketatutako pertsonak ez zuten inolako momentuan leheneratze neurririk aipatu. Horrekin batera, ez dago minaren erreparazioa zentzu laboral, ekonomikoa edo besteren batean egiteko aldarrikapenik, eta baldin badago, ez dago pertsona hauek garrantzitsuztat jotzen dituzten neurrien artean.

Soilik bi pertsonak aipatzen dute erreparazio ekonomikoa, eta ez da dira haietaz ari, beste bitarteko pertsonaz baizik:

“Zergatik kalte-ordainik ez? [ez da nire kasua, baina] bere bizitza berregiteko gai izan ez den jendea baldin badago, eta arazoak baldin baditu, horrek gastu han-

dia suposatzen du, psikologoak edo lana galtzea esaterako. Beraz, tratamendu psikologiko, psikiatriko edo behar direnak egiteko diru-laguntza bat ondo dago. Orain ere Estatu lanpostu berezien bilaketa sustatzen ari da horrelako jendearentzako... hori primerakoa irudituko litzaidake.”(JZLV05)

Beste pertsonak ez dute aukera hori kontuan hartzen, eta haren inguruan galdetzen zaie-nean garrantzirik gabekoa dela kontsideratu edo erabat gaitzesten dute.

130. Taula. Erreparazio neurri ekonomikoen gaitzespena

"Azkenean uste dut... kalte-ordainak... ez dago dirurik hori ordainduko lukeenik, nire herriaren aldeko ideal batzuen alde borrokatzen dut eta beraz kalte-ordain hobereana (...) erabakitze-eskubidea errespetatzea litzateke (...). Ez dut kalte-ordain ekonomikoetan pentsatzen. (...) onartu eta indargabetu dadila eta gu atxilotzeko zituzten arrazoiak egingarri izan daitezela." (JZLV06)

"Kalte-ordainak... baina kalte-ordainak zertarako... ez dago guztioi ordaintzeko dirurik. Ez dago espetxeko sei hilabete ordaintzeko dirurik. Nire kasuan sei hilabete dira... baina beste batzuek 2 urte, 3 urte dituzte." (MIIA01)

"Tira, biktimak garela onartzea. (...) Nik ez dut nahi inork niri ezer ordaintzea." (MIIA02)

"Ez; hau pairatu dudala uste dut baina... ez dut ezer eskatzen. Zergatik atxilotu nauten jakin nahi dut bakarrik, militantzia bategatik bakarrik, ezer ez. Justizia... Euskal Herriko askatasuna, hori bakarrik; niretzako ez dut ezer eskatzen." (OAE02)

"Kalte-ordainak baino gehiago egin dutenagatik ordain dezaten nahi dut, pertsona bakoitzari kalte-ordaina baino gehiago... tira, kasuak egongo dira, eta hor bai, bururik altxatzen ez duen jendearen kasuan edo euren bizitza proiektua gauzatu ezin dutenen kasuan, hor bai laguntza beharko lukete pertsona horiek. Gaitasun sozial zehatz batzuek baliogabetzen dizkiete batzuei, lan egiteko orduan, edo min fisikoak adibidez, polizia-etxean entzumena galdu zuen emakume bat ezagutzen dut. Baina ordaintzea... nik ez dut nahi inork niri ezer ordaintzea." (MNEG01)

"Nik ez dut inolako kalte-ordain ekonomikorik bilatzen. Horrek ez du ezer konpontzen, tontakeria iruditzen zait. Lehenbizi tortura indargabetu behar da eta gero, onarpen politiko-historiko bat egin... bestea ez." (MNEG03)

"Ekonomikoki, ez, horrek ez du inolako garrantziarik." (OBIM02)

"Kalte-ordainak ez, horrek euren kontzientziak garbitzeko baino ez luke balioko. Onarpena, gertatutakoari buruz hitz egitea, egiari buruz alegia, hainbat hamarkadan zehar torturatu izan dela eta oraindik egun torturatzen dela esatea. Gezurrak alboratu eta dakitena behingoz esan dezatela. Denok dakiguna, baina errazagoa da hori dena ukatzea eta gezurrak esaten ditugula esatea. Oso gogorra da hori guretzako, asmatzen dugula entzun behar izatea. Egunen batean gure sufrimenduaren onarpena egin beharko da. Egia esan dezatela eta tortura desagerrarazteko mekanismoak martxan jarri ditzatela" (BOB12)

B. Errehabilitazio neurriak

Erreparazioaz hitz egiten dutenean, pertsona askok erreferentzia egiten diote sufritutako min psikologikoari eta hori konpontzeko beharrari zein ezintasunari:

"Nik uste hori ezin dela erreparatu, ezin dela konpondu. Ez da apurtu den makinaria bat, pieza aldatu eta berria jarri. Gorputza da, batez ere burua dela uste dut, eta pertsona bakoitza mundu bat da, pertsona bakoitzak modu batean eramaten du, batzuek negar egiten dute, eta

beste batzuek beste moduren batean kanporatzen dute, baina konpontzea ez da erraza." (JGGL03)

"Inolaz ere ez, denborarekin pasatzen dela ulertzen dut, baina ni ez naiz sekula pertsona bera izango, asko aldatu naiz." (BOB12)

Agian horregatik, inkomunikazio egoeratik pasa den pertsona guztientzako arreta psikologikoa, psikiatrikoa edo medikuntza orokorrekoa behar dela aipatzen dute.

131. Taula. Errehabilitazio mediko eta psikologikorako neurriak

"Torturatuak jasan dituztenentzako protokoloak ezartzea, edo beharra dutenentzat. (...) Laguntza psikologikoa eta medikoa, fisikoa zein psikologikoa. Azterketak egin behar dira jendea minduta ateratzen delako, ni minduta atera nintzen."(JZLV02)

"Nik... gaizki pasatzen duten pertsonen trauma bat dute... hori oso zaila da. Azkenean psikologo baten laguntza garrantzitsua dela uste dut, asko lagundu zaitzake horrek. Gero, ezagutzen duzun laguna zaren heinean, zure maitasuna eta babesaren adierazi ahal diozu pertsona horri, hori da normalena. Mundu guztiak egingo lukeena. Baina zaila ikusten dut zentzu psikologikoan lagundu ahal izatea [laguntza profesionalik gabe]." (JZLV04)

"Uste dut horrelako bizipenak izan dituen jende askorentzako ez litzatekeela gauza txarra tratamendu psikologikoa egitea. Zalantzarik gabe baitez uste dut. Gainditzeko ditudan gogoekin lotzen dut hori eta nire kasuan aldatu nahiko nituzkeen jarrerak izaten ditut. (...) Izan ere, atxiloketa garaian gertatutakoa kontatu didan jende ezagun eta ez horren ezagunari, horrelako tratamendu batera joateko aholkua egin diot." (JZLV05)

"Ez dut uste ahaztea eragiten duen mekanismoren bat dagoenik, hori ez da ahazten, zurekin eraman behar duzu eta kitto, baina psikologoaren laguntzak aurrera egiten laguntzen dizu... sare hori oso garrantzitsua dela uste dut." (MIIA02)

"Euskal Herrian, instituzio mailan gai honetan laguntzeko zerbait antolatu beharko litzateke. Zein motatako asistentzia? Hori definitu beharko litzateke... sufritu dugunok bertan egon beharko genuke, ekarpenak egiten eta bideak ezartzen." (OBAM02)

"Jendeak ez du laguntzarik eskatzen espetxetik ateratzen denean, ez du beharrik ikusten, edo ez daki nola eskatu, bere buruarekin gustura ez daudela sentitzen badute ere, ez dakite nola egin, ez da horren beharrik ez daukatelako. (...) Laguntza psikologikoak hori azaltzen, ateratzen eta beste batzuekin konpartitzen laguntzen dizu. Baina hortxe dago koska, bakoitzak hori egin ahal izatea... hortxe zuek ere esateko zerbait izango duzue, zuek jakingo duzue aurrera nola egin daitekeen, mina hor dago, eta uste dut min hori barnean izaten ahalegintzen dela eta jendeak ez daki hori nola atera... beharbada ireki nahi ez ditugun ateak ireki behar ditugu." (OBAM05)

"Adituen laguntza eta babes psikologikoa." (OBIM02)

"Laguntza emozionala oinarritzakoa dela uste dut (...) eta etorri beharrean, jendeak normalean ez dauka joateko joerarik «ondo nago, ez zait ezer gertatzen», zonaldeka edo horrela jendea joatea lortu behar da «Nola zaude? Zer gertatu zaizu? Laguntza behar duzue?» eta horrelakoekin." (OBIM06)

"Nire kasuan justizia! Eta aztarnen erreparazioa. (...) Ahal den heinean problema horren aztarna fisiko edo psikologikoak kentzea lortzea." (NLMP01)

"Uste dut behintzat torturatuak izan garela onartuko balitz, gusturago egingo genukeela lo. Onarpena egiteak lagunduko luke eta laguntza eskatzen duenari laguntza eskaintzea. Beti isilean eraman izan dugun kontua da. Beraz onarpena eta laguntza." (ILMW01)

D. Ordain neurriak**Gertaeren egiazkotasuna onartzea**

Aho batez gehien errepikatzen den neurria da. Modu ezberdinetan eta enfasi ezberdinekin bada ere, pertsona gehienek min handiena hortik datorrela adierazten dute. Eta ez da soilik isilarazi edo bazterrean utzi izan dituztelako, gobernuko edo instituzio publikoetako ordezkariak (giza eskubideen gaiekin lan egiten dutenak barne) gezurra esaten dutela, tratu txar horiek asmatu egiten dituztela edo eskuliburu bateko jarraibideak baino ez direla esatea da aztertuek okerren eramaten dutena. Horrek biktime bikoitz izaera eragiten du pertsona azertuengan, eta haiek esaten dutenaren arabera, garrantzitsuena Estatuak gertatutakoa onartzea da,

Garrantzitsuena Estatuak gertatutakoa onartzea da, gizarteak benetan gertatu dena jakin dezan.... gertaerak modu publiko batean onar ditzatela.

gizarteak benetan gertatu dena jakin dezan. Beste modu batean esanda, mina baliozkotu eta gertaerak modu publiko batean onar ditzatela da torturen biktimek nahi dutena.

132. Taula. Gertaeren onarpena

"Lehenbizi torturak eta tratu txarrak sufritu dituztela onartzea." (AMRLG09)

"Lehenbizi torturak jasan dituztela eta egun oraindik torturatzen dela onartzea, ez dela Francoren garaiko istorio bat." (IGEJ01)

"Uste dut baietz, betidanik esan dute eta oraindik esaten dut, barkatzearena... barkamena? Niri barkamenak ez dit ezertarako balio, ez dit egin didatena konponduko, ez dakit... Onarpen bat? «hain zuzen hemen hau gertatu da, eta hau arazo bat da» esatea ezta?" (BOB03)

"Izaera kolektiboa duen onarpena egon behar da, milaka pertsonak torturak sufritu dituztela onartu behar da." (JZLV02)

"Onarpena gizarteak sortzen duen beharra den partetik pausu erraldoia izango litzateke, baita instituzioen partetik ere, «bere eskubideak urratzen ari dira» esatea. Niretzako pertsona bat pentsamendu horretara iristea garaipen bat litzateke. Nik ere sufritu izan dut eta onarpen hori merezi dugula uste dut." (JZLV03)

"Larriagoa da, zalantzarik gabe, instituzio publiko batek egiten duenean. (...) Ekintza bera bada ere nik ezberdindu egiten dut, zoroak egon daitezke, nahiz eta zororik ez egotea saiatu behar dugun, baina hori onartzea... Onartu egiten dutelako, nik epailearen aurrean ikusi dut, «hau eta bestea egin ostean kableak jarri dizkidate» eta epaileak zera erantzun zidan «bai, motel, orain kableak daude polizia-etxeetan». Inpartziala baldin bada, ez litzateke balio epairik egin beharko. (...) Askotan norbaitek torturak salatzen dituenaren eskuliburuaren kontua aipatzen duenean, sekulako amorrua ematen dit horrek... nahi izan dudalako salatu dut nik. Eskuliburu hori benetan existitzen bada, aurkeztu dezatela, ikusi hau da eskuliburua, kristoren amorrua ematen dit horrek. (...) Kontua alde batera uztea eta ez ikusiarena egitea gaizki iruditzen zait. Baina gainera gezurretan ari zarela esatea..."(JZLV04)

"Gauza hauetan ez dut gehiegi pentsatu baina uste dut gertatu denaren onarpena egitea egia esan dugula frogatzeko ona izan daitekeela, zera gertatu da eta ezin da berriro gertatu, hori oinarritzkoa izan beharko litzateke. (...) Batez ere torturak sufritu dituzten eta egia esan duten pertsonakiko onarpena egitea. Eta egin zaien minaren onarpena... tortura epai bat ikusten dudan bakoitzean gertatzen zait, amorrua eta haserrea pizten zait hori gertatzen ez dela esaten dutenean." (JZLV05)

"Lehendabizikoa onartzea da, finean tortura eta torturak sufritu dituzten pertsonak onartzea ezinbestekoa da. (...) Ez dut nire burua biktima bezala ikusi nahi, Gatazka politiko baten biktima... baina beste mota batekoak egon badaude eta... kontuz ibili beharreko kontua da, zaila... biktimen kontua, adiskidetzeara... ez dakit. Gogoan dut oraindik, oraintxe bertan ez dut adiskidetzearan pentsatzen, ezin dut, buruak baietz esaten badit ere, bihotzak ezetz esaten dit, egin diguten mina onartzen ez duten bitartean behintzat." (JZLV06)

"Tira, biktimak garelara onartzea. Gogoratzen dut epailearen aurrera eramanean nindutenean oso umiliatuta sentitu nintzela, mesprextatua. Ez dute esaten duzuna entzuten, asmatu egiten dute, estrategia bat dela esaten dute, eta zuk barnean duzun horrekin gainera behin eta berriro asmatzen duzula entzun behar duzu, gezurra dela, nik uste hori oso gogorra dela." (MIIA02)

"Niri erreparazioarena... erreparazioa garajearen dauden autoentzako! Erreparazioa... ez dakit, gauza horiek... hemen argi egon behar da gu indarkeri politikoaren erabili duen mugimendu bateko kide izan garelara; bai, baina harrotasunez. Tortura berdina da; orduan bakoitzak berea onar dezala eta gero jada erreparazioei edo dena delakoari buruz hitz egingo dugu... engranajeak, kateak edo dena delakoak aldatzeaz hitz egingo dugu, baina lehenengo egin duguna onartu behar dugu, gurea oso erraza da: badakigu zer egin dugun eta kitto, baina... uraren azpian dagoena? Ja! Baina tira, hortxe dago gure indar etiko eta politikoaren ezta? Baina zuek... zer egin duzue egun oraindik aktibo dagoen epaile, kazetari eta politikoen makinaria horrekin? Noiz onartuko duzue torturatzaile batzuk zaretela? Hori da borroka." (OAE04)

"Onarpena... oso garrantzitsua da, (...) egiaren onarpena. Apur bat gogorra da egun oraindik tortura existitzen ez den kontu hori bertan egotea, ikaragarria iruditzen zait. Tortura sufritu dugunak existitzen garelara eta gertatu izan dela onartu behar da, eta gero, jende horrekin ikusi beharko da zer egin." (MNEG01)

"Torturatzeaz gain gezurtia baitzina tratatzen zaituzte. Ez dakit zein eskuliburuko eta ez dakit zen strategiako parte bat da. Eta torturarik salatzen ez duen jendea... horiek zer dira? Eskuliburua jarraitzen ez duten diziplinarik gabeko jendea?" (NLMP03)

"Niri ez zait gustatzen norbaitek «XXX torturatua izan da, gaixoa» esatea, ez dut hori behar. Behar dudana zera da, momenturen batean instituzioek gu onartzea, gatazkaren konponbidean gu non gauden zehaztea, hemen pertsona batzuen kontrako indarkeria gertatu dela eta isilarazi egin dutela, indarkeria hori gainera instituzioengandik dator, edo euren baimen legalarekin egin da. Uste dut onarpen hori beharrezkoa dela, historian zerbait agertu behar delako. Biharko egunean jendeak jakin beharko du herrialde honetako herritar batzuk torturatuak izan ginela." (MNEG03)

"Tratu txarrak sufritu dituen pertsona batek sufrimendua konpartitzeko hautua egiten duenean, erreparazioa pertsona horri entzutea da." (MNEG04)

"Maila sozialean egia dela hedatu dadila, ez dela guk asmatu eta noizean behin esaten dugun gauza bat. Badakit nik bezala kontua isiltzen duten pertsona asko daudela, eta gaia jende zehatz batekin baino ez dela ateratzen. [Egiaren] onarpen soziala. (...) Gizarteak orokorrean ez du pentsatzen hori gertatzen denik (...) nire adineko jendearengan ikusten

dut, ez dute ez horretan ez ezertan pentsatu nahi... komunikabideez eta instituzioez fidatzen dira gehiago.” (MTRGL10)

“Gatazkaren bi aldeko sufrimenduaren onarpena.” (OBAM04)

“Ez dut nire onarpen berezirik behar, «hain zuzen, garai horretan atxilotuak izan ziren pertsonen jo egin zitzaizela, torturatu egin zitzaizela», edo nahi duten moduan esan dezatela nahi dut” (OBAM01)

“Nik ez dut onarpena bilatzen, tortura onartzea nahi dut baina ez modu pertsonalean.” (OBIM08)

“Polizia-etxeetan gertatzen dena jakiteak garrantzitsuenari lagunduko lioke: beste kasu bat gehiago ez gertatzea.” (NLMP03)

“Momentu honetan euskal gizartearen onarpenarekin konformatzen naiz, baina egunen batean justizia eskatu ahal izango dudala espero dut.” (NLMP04)

“Gutxienez gertatu dena jakin dadin. Biktimek sufritu dutena edo gutxienez tortura gertatu dela onar dezatela. Zure familiak, lagunak, laneko kideak edo zure gertukoak badakite zer bizi behar izan duzu, baina jendeak ez dauka ideiarik. Onarpena, torturatu dela onartzea eta laguntza behar duenari laguntza eskaintzea eta... jendea torturatu izan dela modu gizartearen aurrean onartzea. Garrantzitsuena hori dela uste dut, torturatuak torturatu izanaren onarpena jasotzea. (...) Urteekin agian lortuko da edo beharbada, gertatu zena aztertzen duen egiaren batzorde bat osatzen da.” (ILMW01)

Izuaren mekanismoak ezagutaraztea

Gertaeren onarpena lehen pausu gisa ulertzen dute pertsona batzuek. Horren ostean

estrategia hau baimendu eta babestu zuten mekanismoak zein diseinatzeaz eta ezkutatzeaz arduratu zirenak ezagutzeko azterketa sakonago egin beharko litzateke.

133. Taula. Izuaren mekanismoak ezagutaraztea

“Garrantzitsuagoa iruditzen zait pertsona horiek horrela tratatu izanaren arrazoa jakitea, edo jendea zergatik inkomunikatu, torturatu edo espetxeratu den jakitea. (...) Jendeak jakin dezala hau aurrez pentsaturiko kontua dela eta atzean herri honen aurkako estrategia bat dagoela... arazo politikoa dela, estrategia politikoa.” (AMRLG09)

“Jendeak jakin dezala hau ez dela Madrilgo polizia-etxeke lau poliziak eginiko kontu bat, apartua dela, makinaria oso bat dela. Epailea dago ere, berak lur jota heltzen zarela ikusten du, eta ongi baino hobeto daki polizia-etxean egin dituztena, eta ez ikusiarena egiten du... benetan gobernuak erabiltzen duen zerbait dela onartu dadila eta hortik aurrera zer gehiago? Ez dakit, baina zalantzarik gabe polizia-etxean torturak sufritu dituen jende asko dagoela onartzea.” (IGEJ01)

“Ni edo nire lagunak edo nire familia torturatua izan dela esatearekin baino, momentu batean, garai zehatz batean Estatuak tortura erabili, babestu eta moduren batean bultzatu zuela onartuko balitz nik uste pozik geldituko nintzatekeela. Tortura babestu eta sustatu zuten polizia gorputzak eta epaileak egon zirela.” (IGEJ02)

“Maila pertsonalean... noski, tortura oso praktika zehatza da, eta beraz nahiz eta ez den gertatuko, niri gustatuko litzaidakeena, zera da, pertsona bat horrelako zerbait egitera nole heldu daitekeen eta pertsona hori ondo dagoen, indarkeria erabili daiteke baina... pertsona bati horrenbeste denbora sufriaraztea, torturatzea, iraintzea... ez dakit egilea nola heldu daitekeen hori naturaltasunez eramateraino. (...) Urte batzuk barru gauzak aldatzen badira behintzat telebistan ikusteko aukera izatea, torturak egin dituen tipo bat, jakitea hori guztia nola eramaten zuen, benetan ongi sentitzen zen eta zeintzuk ziren etxera heldu eta familiarekin zegoenean ateratzen zitzaizkion sentimenduak. Bere lana atxilotuta zegoen jendea txikitzea eta bost egunez torturatzea zen. Ez dute inolako kontzientzia kargarik?” (MNEG03)

Gertatutakoa gizartean hedatu

Pertsona batzuentzako ez da nahikoa egia liburu edo testigantza batzuetan biltzarekin. Mina soziala da, torturatuek gezurra esaten

dutela zabaldu baita, eta ideia horrek min handia eragin du gizartean. Min horren erreparazioa, beraz, lehentasuna da elkarrizketatu batzuentzat.

134. Taula. Gertakariak gizartean hedatu

“Hau existitzen da eta kalean egon beharko litzateke, jendeak jakin beharko luke. Zaila egiten zait, beste hainbatetan salatu izan da, hau da, urtero atxilotu izan duten eta torturak sufritu dituen jendearen txostena argitaratzen da, eta azkenean gauzak beti bezala gelditzen dira gutxi gorabehera, ez da eremu guztietara heltzen. Beraz, ez dakit zein izan litzateke sinesgarritasun handiagoa izateko formula [gizartean]. «Betikoak dira, badakigu zeintzuk diren eta istorio hori guztia helburu batzuekin asmatzen dute» pentsatzen du jende batek. Nazioarte mailan lan asko egin behar dela uste dut ere, baina beste batzuen inplikaziorik ez dagoen bitartean oso zaila da hori. (...) Ez dakit formula zehatza zein den, baina kalean egon behar da, jendeak jakin behar du. Ez duenak ikusi nahi ez du ikusiko, baina ez dadila izan guk atera ez dugulako.” (IGEJ01)

“Moduren batean sufrimenduaren parekatze bat ezta? Azkenean gizartea edo zurekin batera mugi daitekeen jendea... ni oso irekia naiz eta nire giro ideologikoa oso zabala da, azkenean giro ideologiko jakinetan onen eta txarren bandoak daudela sinesten duzu, batzuetan gehiago erabiltzen da sistema demokratikoa eta besteetan ez. Uste dut moduren batean gauzak bere lekuan jarri beharko lirakeela, eta “demokrazia” hitzaren bidez kontu hau guztia legitimatu dutenei euren burua saltzen duten bezain demokratikoak ez direla esan behar zaie. Moduren batean egoera ez oso demokratiko hau, edo demokraziaren aurkakoa hobeto esanda, zabaldu egin behar da, eta hari buruz hitz egin.” (IGEJ02)

“Kontzientzia eratzeko eta gizarteratzeko bitartekoak behar dira: Hori zaila da hedatzeko eta kontzientzia eratzeko bitartekorik ez baduzu.” (JZLV02)

“Uste dut norbaitek gertatutakoa kontatu behar duela. «Historia liburuak irabazleek idazten dituzte», baina egia kontatu behar da.” (JZLV04)

“Testigantza eta bizipen hauetaz ahalik eta jende gehiena jabetzea litzateke hoberena, baloratu eta gertatu dena jakin ahal izateko. Ez dadila ahaztu gure partetik ere, min asko eta oinaze handia egin dela.” (JZLV05)

“Torturaren kontua beti salatu izan da, entzun izan da, senideak... baina azkenean salatzen dugun eremua talde bat baino ez da eta informazioa beti eremu berdinerantz heldzen dela uste dut. Agian gainontzeko jendeak ez du sinesten edo ez du ikusi, irakurri edo sinetsi nahi. Jende horrengana heldu behar da, jende horrek sinesteko. Gure ingurukoa ez den jendeak gertatzen dena sinetsiko balu, pozik egongo nintzateke. Jende horrek ez du sinetsi behar tortura salaketak protokolo baten arabekoak izan zirela. Horrek amorru handia ematen dit.”(MIIA01)

“Salaketa judiziala baino gehiago salaketa politikoagatik izan zen (...) egin zidatena azaltzea, lekukotasuna argitaratzea, jendeak jakin zezan, agian ezagutzen nauen baina errealitate hori ikusi ez duen jendeak ere haren berri izateko, «hori da XXXi egin diotena, eta XXX ni neu naiz, betidanik ezagutzen nauzu». Jendeak jakitea, publiko egitea eta salatzea garrantzitsua zen. Eta bide judiziala ez horrenbeste, gaur egun denok dakigu salaketa horiek nora doazen. Zaila da salaketa horiekin zerbait lortzea.” (MNEG03)

“Hemen gertatzen ari dena nazioarte mailan jakitea oso garrantzitsua iruditzen zait, oinarrizkoa. (...) Jende askok hori sufritu du eta hori sufritzen jarraituko du, eta hori ez dadila ahaztu. Errealitatea agerian utzi behar da.” (OBAM05)

“Torturatuek gain senideak diren senideak ere, zerrenda beltzetako jendea, moduren batean ikusezina den jende hori argitara atera behar da ere.” (OBIM06)

Gizarteak praktika hauek ukatu behar ditu eta ezin ditu inolako segurtasun aitzakiapean onartu, hori lortzeko bidean gertaeren onarpena egin behar da.

Onarpena biktima gisa

Aztertutako pertsona gehienek diote ez dutela orokorrean “biktima” edo zehazkiago “tortura biktima” gisa inolako onarpen sozialik behar. Zentzu honetan, (edozein aldeko) biktimak orokorrean mitifikatzeari uko egiten diote pertsona batzuek, eta ez dute ezeren ikur izan nahi, are gutxiago bestearen sufri-mendua onartzea garrantzitsuagoa den tes-tuinguru batean

135. Taula. Ukapena biktima gisa onartuak izateari

“Nik Euskal Herrian bizi den konfrontazio egoerak sortzen duen mina aitortzen dut, uste dut mina dagoela bi aldeetan (...) sufritu duten pertsona batzuk ideologikoki oso urrun daude nigan, eta beste aldean [honetaz] modus vivendi bat egiten dutela ikusten dudanean... pena ematen dit, arraioa, bizitza guztia... ez dakit, ez dut ulertzen, nik ez dut ulertzen, ez dut modu horretan ikusten. (...) Pertsonalki ez dut uste ikonoak jarri behar ditugunik, edo protagonismoa hartu behar dugunik. (...) Ez zait «eta zu gehiago» hori gustatzen.” (IGEJ02)

“Torturak sufritu ditugunoi laguntzeko modurik honena, tortura desagerraraztea da, instituzioei tortura desagerrarazteko presioa egitea. (...) Ni ez naiz ezeren biktima kontsideratzen, torturatua izan naiz baina ez naiz biktima kontsideratzen.” (JZLV02)

“Uste dut terrorismoaren biktimak gehiegi hartzen direla kontuan, eta ondo iruditzen zait, onarpenak egitea... GALekoei egitea iruditzen zaidan moduan. (...) Bakoitzak nahi duena omentzen du, baina hortik eskubidea izatera. (...) Nik ez dut onarpenik behar.”(JZLV04)

"Biktima gaia... ez dut biktima konplexurik. Normaltasunetik kanpo dagoen eskala batean zerbait jasan duen pertsona gisa biktima bat naiz ez? Baina ez naiz arinkerietan sartuko ere ez. Pasatu dena, pasatu da, objektiboa da eta listo. Ez dut nire burua erreparazio subjektu sentitzen eta... ez, ez dut horrelakorik nahi!" (OAE01)

Biktima gisa sufritu duten pertsona guztien onarpen kolektibo bat aipatzen du pertsona batek, nahiz eta bere kasuarekin zerikusirik ez izan.

"Agian bai eskatuko nuke... ez maila pertsonalean eh? Ni borroka bateko pieza baten moduan sentitzen naiz. Ez dut inolako protagonismorik nahi. Orduan, zer eskatzen dut? Jendearentzako onarpena eskatzen dut... ez dut inolako onarpen pertsonalik nahi, kolektiboa baizik; beste gauza batzuen artean onarpen pertsonal hori eskuratu ezin izango duen jende asko dagoelako, jada gurekin ez daudenak; eta eurek sufritu zutena ere onartu behar da. Gure aldean beti isilpean egon den talde bat gara... eta beraz, nire onarpen pertsonala besteen esku uzten dut. Ideal batzuegatik borroka egin duen jende bat egon dela onartzearekin konformatzen naiz... inolako irabazi pertsonalik gabe aritu direla; erabateko arduraldia egon dela. Eta beraz jende hau onartzea eskatuko nuke." (OAE01)

Kondenak baliogabetzea

Norberak bere burua errudun izendatu izana froga bakarra denean eta tratu txarrak egon direla frogatzen den kasuetan kondena guz-

tiak baliogabetu beharko liratekeela adierazten duten bi pertsona daude.

"Torturatu izan dela onartzea eta pertsonak kondenatuak izan diren kasuetan... hori guztia baliogabetzea, norberaren burua errudun adierazteagatik edo beste pertsona batzuk akusatzeagatik kondenatu izan diren pertsonen kasu guztiak artxibatu behar dira."(JZLV02)

"Oso zikina iruditzen zait. Benetan frogak baldin badituzte, demostratu dezatela jendeak eurek diotena egin duela. Benetako frogekin eta ez torturapean eskuratutako deklarazioekin, zenbat jende dago espetxean soilik egin dituen deklarazioengatik? Hau, bestea, beste pertsona batzuk... horregatik bakarrik, ezer gehiagorik ez. Nola da posible?" (MIIA03)

E. Ez erreplikatzeko bermeak

Tortura kasu gehiagorik ez egotea

Erreparazio neurririk onena tortura kasu gehiagorik ez egotea dioen jende asko dago ere. Inkomunikazio erregimena tortura kasuen arduradun nagusia dela uste dute, eta ondorioz, praktika hau legeriatik ezabatu egin behar dela diote. Beste batzuek 24 orduko bideo zaintza aipatzen dute, eta grabaketa horiek benetan eskura egotea.

136. Taula. Ez erreplikatzeko bermeak

- Agintariek tratu txarrak eta tortura eten ditzatela

"Berrito ez erreplikatzeko da kontua. (...) Ez da onartu edo ez onartzeko kontu bat, amaitu egin behar da. Hemen eta beste horrenbeste lekutan existitzen da. Defizit demokratikoa dagoen leku guztietan. (...) Pertsonalki ez zait axola, ezagutu behar nauen jendeak jada ezagutzen naudelako, ez dut bizkarrean zaplada bat edo horrelako zerbait behar, egoera hau etetea da behar dudana." (AMRLG09)

"Atzetik dagoen kontua osoan pentsatzen dut behin eta berriro, eta azkenean, pertsona bat torturatzen duten bakoitzean, berriro torturatzen zaituzte. Torturazaila asko dira eta egunkarian beste atxiloteta bat egon dela irakurtzen duzu... eta torturak irakurtzen dituzu... eta berriro torturatzen zaituzte, eta berriro, eta berriro... eta horrekin amaitu behar da, honezkero, egoera honekin amaitu behar da." (MIIA03)

"Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak orain ez dakit zer egin edo torturak pairatu dituztenen onarpena egitea erabakitzen badu eta bihar Frantzian ez dakit zein militante atxilotu eta torturatzen badute, niri horrek ez dit ezertarako balio." (MNEG03)

"Erreparaziorik onena ez errepikatzea da, atxilotu inkomunikatu bat dagoenean, azkenean... ez dakit zer ari den gertatzen baina... modu sinplean, inork horrelakorik bizi behar ez dezala." (NLMP01)

"Lehen esan dudana, egia eta torturaren existentzia onartu behar dute, eta mundu guztiak, instituzioek, epaileek, medikuek, abokatuak borroka egin beharko du gehiago ez torturatzeko. Hori garaipen bat litzateke, eta behintzat nik pairatu dudana inork gehiagok pairatu behar ez izateko pena merezi izan duela sentituko nuke." (BOB12)

- **Atxiloteta inkomunikatuaren ezabapena**

"Nik ikusten dudana neurri bakarria inkomunikazioa kentzea da, horrek torturatzen den edo torturatzen ez den demostratzeko balioko luke. Inkomunikazioa kanpora, finean inkomunikazioak berak torturatu egiten duelako, ez dakizu non zauden, inork ez daki ezer zutaz, zurekin nahi dutena egin dezakete, ez dakizu ze ordu den, ze egun den, zenbat egun pasa eta zenbat gelditzen diren... hori tortura da berez... Tortura sufritu dugunoi laguntzeko modurik onena tortura ezabatzeke instituzioei presioa egitea da." (JZLV02)

"Azkenean inkomunikazioa ezabatzea oinarrizkoa iruditzen zait. Eta gero bost egun atxilotuta egotea ere, inkomunikaziorik ez badago behintzat beste kontu bat da ezta? Baina hala ere, bost egun, bost egun dira... ez dira goizeko zortzietatik gaueko hamarretara ezagutzen ditugun egunen antzekoak. Bost egun bost egun dira, hau da, 24 ordu, 24 ordu, 24 ordu... sekulakoa da. Guk egunei buruz hitz egiten dugunean, ni adibidez zortzietan jaikitzen naiz goiz altxatu behar banaiz, eta gaueko hamarretan eguna amaitzen da. Baina ez, bigarren egunean zera galdetzen diozu zure buruari, «baina zenbat egun daramazkit hemen?»" (MIIA01)

"Inkomunikazioarekin amaitzea, noski. Ez dut esaten kamerak egon behar direnik, baina bost egun irauten duen inpunitaterik ezin da egon ere ez... kristoren babesik eza da. Gero, hor gertatu zaizuna salatu eta gizarteratzea... arazoa inkomunikazioa da, dena gertatzen da horren inguruan, eta ez da zertan inkomunikaziorik egon behar, torturatzeko helburu bakarria du erregimen horrek. (...) Zertarako existitzen da atxilotua torturatzeko ez bada? Zergatik inkomunikatzen da 5 egunez bestela? Zergatik ezin da mediku baten aurretik pasa? Zergatik ezin da abokatu batekin egon? Zer gertatzen da bertan? Agerikoa da, inkomunikazioak inpunitatea sortzen du." (MNEG01)

"Horrelakorik ez gertatzeko beste atxiloteta baldintza batzuk. Medikuek forentseak. Grabaketak. (...) Jendea inkomunikatuta dagoen bitartean orain arte pasa dena pasatuko da. Zer egin daiteke? Ez dakit... bertan gertatzen zaizunean... hartzen zaituzte, kaputxa jarri eta auto batean sartzen zaituzte, hor mundua amaitu egiten da eta berdin du." (OBAM05)

"Inkomunikazioaren existentzia hutsak edozer gauza gertatzeko aukerak ahalbidetzen ditu. Ez du abokaturik, ezin du etxera deitu... edozer egiteko prest dauden ez dakit zenbat polizia amorratu daude, eta inpunitate osoa dute." (OBIM06)

- **Bideo grabaketak**

"Hainbat gauza egin daitezke, baina borondatearekin jokatu behar da. Ertzaintzak protokolo bat aplikatzen du. (...) Arazoa da oraindik ere inpunitate eremuak daudela, hau da, zeldan zauden denbora baino ez badute grabatzen... zeldan gehienez bueltak ematen egongo zara, baina beste leku batera eramaten bazaituzte, etxerako bidaiari adibidez, jipoiak ematen dizkizute... horretaz konturatu behar zara, atxilotzen zaituzten momentutik inpunitate eremu asko daude." (JZLV05)

"Kamerak egon behar dira, atxilotetak garbiak izan behar dira, konfiantzazko forentseak egon behar dira, eta ez ibiltzerik ez duzunean giharreko minak dituzula esaten dizun edozein mediku faxista. Gertatzen ari dena ikus dezakeen norbait egon behar da. Eta alderdi politikoek batez ere, ez lukete sekula horrelakorik onartu behar." (MIIA03)

"Epaiketak egon daitezela, eta epaiketa horietan jendeak ordain dezala eta horrelakoak ez daitezela errepikatu. Eta atxilotzen zaituzten momentu beretik grabatu behar da, autoan eramaten zaituztenetik, zure eskubideak dira, ezer gehiagorik ez. (...) Euren legeen arabera 2 egun edo 3 edo ez dakit zenbat orduz atxilotu behar bazaituzte, kameraz dena grabatu dezatela hasieratik." (OBAM01)

"Oso erraza da eurentzat ezer ez digutela egiten demostratzea. Ez badute egiten ezkutatzeko zerbait dutelako da. Azkenean, gure epaiketan inkomunikazioaren bideoak jarri zituzten, pasillo batekoak bakarrik, gorputzetik gora pixelatuta zegoen, ez zen ezer ikusten, ate batetik atera eta beste batean sartzea besterik ez zen ikusten. Dena grabatu ez izanagatik galdetu zitzaizenean, intimitatea gordetzeko zela esan zuten. Inork ez du hori sinesten, eta beste batek epaileari gaizki ulertu diotela esan zuen. Zutaz barre egiten dutela ematen du apur bat. Txistea balitz bezala tratatzen dute, gero Guardia Zibil bat ateratzen da tratua zuzena izan zela esaten, eta horrek amorrua ematen dizu. Europatik Espainiako gobernuari egin ahal dioten presioa da ikusten dudana gauza bakarra (...) eta beraz, dena grabatzera behartzea da konponbide bakarra." (OBIM07)

"Uste dut beharrezkoak diren ikus-entzunezko neurri guztiak ezarri beharko liratekeela atxiloteta osoan zehar, inkomunikazioarekin amaitu, inkomunikazioak ez du inolako zentzurik nire ustez, deklaratu nahi duzuna epailearen aurrean egin dezakezu eta horretarako ez zara bost egunez inkomunikatuta egon behar, hau da, beste helburu batzuk bilatzen ditu. Eta atxilotuta zauden bitartean, atxiloteta grabatu behar da, atxilotetak familiari zein atxilotuari berari ahalik eta modu txikienean eragiteko moduan egin behar da, ez da beharrezkoa goizeko lauretan atea bota eta metrailetekin joatea. Audioz eta bideoz grabatu behar da atxiloteta guztia, eramaten zaituzten edozein lekutara ere, bertan grabatzen aritu behar dira. Nire kasuan (...) furgoneta horretarako erabiltzen zuten, hutsune legala zuen eremu baten gisa, bertan nahi zutena egin zezaketen eta horrekin jokatzen zuten." (NLMP01)

- **Poliziak berak praktika hauek ukatzea**

"Eurek behar duten gauza baterako protokoloa egitea? Ez dakit, hau da, eurek polizia-deklarazioak behar dituzte, jendea espetxean sartu edo datuak eskuratu ahal izateko... Polizia indarren borondatea oso garrantzitsua dela iruditzen zait, gehiago ez torturatzeke borondatea. Hori protokoloekin eta 24 orduz egiten diren grabazioekin batera. Eta hori guztia borondatea duen jendeak gainbegiratu dezala, eta euren aurpegiak garbitzeko erabili beharrean, legea tortura deuseztatzeke erabiltzeko." (JZLV05)

Inpunitaterik ez onartu

Pertsona batzuen ustez gertaerak argitu baino pausu bat harago joan behar da, eta erreparaziorik onena arduradunentzako inpunitaterik ez egotea litzatekeela uste dute.

**Torturaren amaiera
gizartearen gaitzespen jarrera
argi batekin lotzen da.**

137. Taula. Inpunitatea

"Jende hori ukiezina da. Beraz, eurek ere badakite ukiezinak direla. Gobernuak ezin du jende hori ukitu finean haren tresna bat delako. Jende horrek egiten duen guztiaren zati bategatik ordainduko balu, izugarria litzateke. Ukiezinak direla ikusiko balute, ikaragarria litzateke. (...) Baina ukiezinak dira eta badakite, eta horregatik gertatzen dira horrelako kasuak. (...) Agian nahiago dut kargugabetu egiten badituzte, baina kargugabetu ditzatela, benetan, ez dut nahi azkenean eurek nahi dutena gertatzen dela ikustea. Horren jarraipen bat egin behar da. (...) Kondenak barregarriak dira ezta? Hala ere, nahiz eta barregarriak izan bete daitezela." (MIIA01)

"Torturatzeari utz diezaiotela, neurriak ezarri ditzatela, badakite zeintzuk diren. Torturaren kontra daudela dioten baina gero ez ikusiarena egiten duten alderdiek hipokrita izateari utzi behar diote, protokoloak ezarri behar dira, eta orain arte tortura baimenduta izan duten torturaztaileak atxilotu, epaitu eta espetxeratu behar dira, eta kitto. Ni horrekin ordainduta baino gehiago sentitzen naiz." (MIIA03)

"Espainiako justizian ez dut inolako konfiantzarik, ez dut uste gauzak hortik aldatuko direnik, ezinezkoa ematen du. (...) Torturatzen duenaren aurkako pausu juridikoak eman beharko lirateke informazioa eskuratzeko... polizia indar guztiek torturak erabili dituzten agenteak bilatu eta ordeztu beharko lituzkete. Eta torturak ikusi baina ezer egin ez duten forentse, epaile edo abokatuen aurkako neurri juridikoak hartu beharko lirateke." (OBAM02)

"Erantzukizunak eskatu behar dira." (JZLV02)

"Kalte-ordainak baino gehiago, egin dutenagatik ordaintzea nahi dut, pertsonari kalte-ordainak eman beharrean... egia aitortu eta ordain dezatela." (MNEG01)

"Agian torturak sufritu dituzten pertsonen adierazten uzten bazaie. Badakizu azkenean Audentzia Nazionalera joan behar zarela eta deklarazioa hartzen dizun epaileak harremana duela polizia-etxean izan duzun Guardia Zibilaren agintariarekin. Bera ez da harritzen esaten dizkiozun gauzekin. (...) Justizia, gutxienez justizia egon dadila." (NLMP02)
"Uste dut torturaztaileak beti talde bat izan direla uste dut, eta eurek jakingo dute urte hauetan guztietan zeinek torturatu duen, hala ere ez dut uste ezer egingo dietenik. Kontrakoa, agian dominak eman eta maila handitzen diete." (AIL01)

Aldaketak gizartearen – Torturaren gaitzespen soziala

Torturaren amaiera gizartearen gaitzespen jarrera argi batekin lotzen da.

138. Taula. Torturaren gaitzespen soziala

“AEBetara zoaz eta ikusiko duzu bertan horri esker [torturari esker] Bin Laden aurkitu zutela, ez dakit epaitu gabe hil ote zuten... ez dakit pertsona ona edo putakume bat zen, baina denak poztu ziren bere heriotzarekin. Gizarteak onartu egiten du. (...) Nik uste gizarteak haien erruz dituela joera horiek, telebistaren erruz. (...) Gero xedeak bidea zilegi egiten ez duela diote, euren burua demokrata dutenek askotan esaten dute, hori horrela bada... nik ez dizut baietz edo ezetz esaten, baina zer ari zara zu egiten?”(JZLV04)

“Uste dut gaur egun hemen torturatzen dela ageriko kontua dela, baina jendeak nahiago du beste albo batera begiratzea. Gizarte mailan jende askok borroka armatuaren aitzakia erabili du torturak justifikatzeko, «torturak ETako militantea delako egiten zaizkio» dio jende askok, baina ez dira konturatzen, izan ala ez izan, horrelako praktika bat ezin da gertatu. (...) Jende hori egoeraz kontziente izatea ahalegintzen zara eta ez du efektutik... eta ez da jendearen errua, erantzukizuna bai ordea, azkenean Estatuak torturatzen jarraituko du, eta uste dut apur bat guztion kontua dela. Oso ezberdina da ni atxilotu eta torturatu ostean nire ingurukoek salatzen dutenean, edo beste ideologia bateko jendeak ere zerbait esaten duenean, «tira, ez nago mutil honen ideologiarekin ados, baina hau salatu nahi dut», azkenean jende guztiaren ardura da. Politikoak, kaleko jendea, ematen du gai tabu bat dela, jendea Madrilen kaputxa batekin torturatzea ezin da gertatu, ematen du gezurra dela baina jendeak badaki gertatzen dela, kontu sistematikoa da.” (NLMP02)

“Garrantzitsua da gizarteak «aski da, puntu honetara arte heldu gara eta ez dugu gehiago onartuko» esatea, nahiz eta gertatzen jarraituko den, eurek hala nahi badute behintzat. Erruak izen-abizenak, estrategia bat eta momentuko taktika bat ditu. Benetan errotik amaitzeko politikariek «aski da» esan behar dute, baina hori urrunago dago, momentuz egun batean gizarteak «aski da, nazkatuta gaude, gehiagorik ez» esaten badu, aurrerapauso handia izango da.” (NLMP04)

Indarkeria sortu zuen gatazkarentzako konponbide alternatibak

Jende batek adiskidetzeaz eta gatazka-osteaz hitz egiten duen bitartean, jende gehienarentzako gatazkak antzeko egoeran jarraitzen du, eta urteak pasatu arren, ez dago euskal gizartearen sektore batek dituen in-
dependentzia asmoak modu demokratikoan

gauzatzeko biderik. Pertsona hauek uste dutenaren arabera, lehenago edo beranduago, bi aldeetako indarkeria berriro agertuko da, baldin eta hura sortu zuten arazoak bide-
ratzeko modu politikoak bilatzen ez badira. Beharrezkoa da behin betiko indarkeriaren edozein erabilerari zilegitasuna kenduko dioten bide demokratikoak mahaigaineratzea.

139. Taula. Euskal gatazkaren konponbidea

“Azkenean gauza batzuk pentsatu ostean hautu politiko bat egin duzu, eta beraz, bideak ireki daitezela. Eta ez zuk nahi duzun lekuraino heltzeko, nik ere ez dudalako biktimen gainean lege bat inposatzeko eskubiderik, ezin dut esan «nahitaez hemendik joan behar zarete, hau Euskal Herria da eta muga hemen jarriko dugu». Nik ez dut inposatu nahi, baina balizko kasu batean bozkatzeko eskubidea daukat... bideak ireki daitezela, goazen dena gutxika bermatzen, horrek gainontzeko gauzak amaitzea ekarriko du. Lehenbizi arazo hau sortzen duen arazo handiagoa konpondu behar da, gainontzekoak «kalte kolateralak» baino ez gara, nahiz eta gogorra den horrela esatea.” (JZLV04)

“Nire herriaren aldeko ideal batzuen alde borrokatzen dut eta beraz kalte-ordain hoberena (...) erabakitze-eskubidea errespetatzea litzateke, eta sor daitezkeen politika ezberdinen artean erabakitzeko zein gure herria eraikitze denok eskubide berdinak izatea. Ez dut kalte-ordain ekonomikoetan pentsatzen. (...) onartu eta indargabetu dadila eta gu atxilotzeko zituzten arrazoiak egingarri izan daitezela.” (JZLV06)

“Gatazka politikoa konpontzen ari garen seinale delako eman dadila pausu hori.” (MNEG03)

“Euskal Herriko gatazkaren amaiera.” (OBAM04)

“Nire ustez ezin da erreparatu, uste dut nire mina ezin dela konpondu, ni atxilotzeko zituzten arrazoiak desagertuko balira konponduko litzateke nire mina ezta? Gatazka politikoa konpondu dadila eta horrela ez da torturarik, atxiloketarik... egongo. Pertsonalki, modu horretan lasaiago sentituko nintzakeela uste dut, baina momentu horretara arte ez zait ezer bururatzen.” (OBIM08)

8. Atala.

Azterlanaren ondorio orokorrak. Ebidentziak, hausnarketak eta gomendioak

Olatz Barrenetxea, Miguel Ángel Navarro, Iñaki Markez, Benito Morentin, Pau Pérez, Oihana Barrios, Nagore López de Luzuriaga.

Sarrera

Espainiako Estatuan torturaren existentziari buruzko kezka handia dago, eta oso kezkatuta egoteko arrazoi objektiboak daude. Ez da kasu guztietan ematen den fenomeno bat, baina tortura salaketak (prentsan, epailearen edota giza eskubideen erakundeen aurrean) maiztasun handiz agertzen dira, eta ez da soilik azterlan honek aztertzen duen inkomunikazio erregimenean atxilotutako pertsonen kasuetan ematen, migranteen edo ahultasun egoeran dauden beste sektore batzuen kolektiboek ere salaketak egin dituzte.

Baina gai honez hitz egiten denean elkarren artean kontraesankorrak diren bi bertsio agertzen dira. Alde batetik, gobernuaren aldetik beti ukatu egin da praktika honen existentzia. Eta bestetik, bertako zein nazioarteko erakunde sozial edo instituzionalek, atxilotuta inkomunikatuan tortura existitzen dela baieztatu izan dute. Eta ez hori bakarrik, garai askotan praktika ohikoa izan dela eta egun oraindik desagertu ez dela agerian uzten duten ebidentziak daudela adierazi izan dute.

Gobernuak egin dituen deklarazioen arabera (hemerroteketan erraza da gobernuan egon diren alderdi guztien ordezkarien hitzak egiaztatzea), egiten diren tortura salaketa

guztiak faltsuak dira. Institutuzioetatik diotenaren arabera, atxilotuek Estatuko segurtasun indarren ospea galtzea eta giza eskubideen erakundeen arretak ematen dituen onura politikoak bilatzen dituzte, "egileak" ustezko biktima bihurtzea alegia. Estatuaren arrazoiaren oinarritzen dira eta tortura aztertzea terrorismoaren laguntzaile inozo izatea dela argudiatzen dute.

Jarrera hauen aurrean, nazioarteko erakunde nagusiek (Nazio Batuak, Torturari buruzko Errelatore Bereziaren eta Torturaren aurkako Batzordearen [CAT] bidez; Europako Kontseilua, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordearen [CPT] bidez, Amnesty International, etab.) giza eskubideek Espainian duten egoerari, eta batez ere atxilotu inkomunikatuei buruzko kezka sakona azaldu dute. Honekin batera, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak eginiko epaiak daude. Epai horien bidez, aipatutako erakundeak Espainiako Estatua zigortu izan du tortura salaketak aztertzeagatik. Inkomunikatuta dauden atxilotuen salaketak gezur huts gisa uler ezin daitezkeela azpimarratu dute, sinesgarriak direla alegia. Hainbat egoeratan, tratu txarren salaketekin bat datorren ebidentzia zabala lortu dutela nabarmendu dute, izaera medikoa duten ebidentziak barne¹⁰⁸.

Hala ere, Gai honen inguruan ez zen inolako azterlanik egin indar instituzionalekin 2008ko ekainean Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak *Indarkeria Politikoa*ren ondorioz izandako Giza Eskubideen *Urraketen Biktimak Txostena* argitaratu zuen arte. Geroago, dokumentu honen eguneraketa egin zen, "Tortura: *hurbilpen zientifikoa*" txostena alegia, eta Kriminologiaren Euskal Institutuaren "Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Txostena" argitaratu zen. Berriki, Arartekoak "Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak"¹⁰⁹ txostena aurkeztu du.

¹⁰⁸ Ikus. Berrikusteta eta erreferentziak 1. atalean.

¹⁰⁹ Idib.

Gizarteak alderdikeriari- gabeko azterlan objektibo baten bidez kontu honen egoera zein den jakiteko arrazoi nahikoak daudela uste dugu.

Orokorrean, txosten hauen guztien edukia nazioarteko eta Nazio Batuen sistemako erakundeek eskainitako datu zein agerraldi-ekin bat datoz, eta beraz, Espainian tortura-
ren erabilera sistematikoa ez dela esan dai-
tekeen arren, atxiloketa inkomunikatuaren
ebidentziek erakusten dute kontuan hartze-
ko hedadura eta eragin adina duen eskubi-
deen urraketa arazo baten aurrean gaudela.
Eta ezin da, beraz, pertsona bati leporatu
dakiokeen "praktika txar" gisa kontsideratu,
Estatuko segurtasun indarrek, eta zehazkiago
operazio talde batzuek, normalean egiten di-
tuzten praktika arruntak biltzen dituen arazo
larria da. Horregatik, gizarteak alderdikeriari-
gabeko azterlan objektibo baten bidez kontu
honen egoera zein den jakiteko arrazoi nahi-
koak daudela uste dugu.

Azterlanaren helburuak eta metodologia

Deskribatutako egoeraren aurrean, beha-
rrezkoa da gizarte zibila tartean sartzea,
osasunaren zein giza eskubideen alorrean
lan egiten duten gune akademiko zein
erakunde sozialen bidez jakintza-alor anitze-
ko azterketa bat (ikuspuntu ezberdinarekin
eta mekanismo zabalagoak eta egokiagoak
erabiliz) burutu ahal izateko. Erakunde hauen
ekarpenari esker, tortura eta tratu txarren
salaketen sinesgarritasuna eta hauen eragin
emozionala eta soziala modu sakonean az-
tertu dira. Horretarako, torturaren ebaluazio
forentserako nazioartean onartuta dauden
gida, eskala eta baliabideak erabili dira.
Hauen bidez, tratu txarren eragin fisiko na-
hiz psikologikoak praxi onaren nazioarteko

estandarren arabera aztertu dira eta urratu
izan diren edo urratzen ari diren oinarrizko
eskubideen babesaren berrantolaketa ahal izateko
egia eraikitzeke pausua eman nahi izan da.
Hori izan da hain zuzen ere azterlan hau si-
natzen dugunok bertan parte hartzeko izan
dugun motibazioa: giza eskubideen, azterke-
ta sozialaren, lan psikiatrikoaren eta tortura
biktimen babesaren alorreko erakundeetako
kideak garen aldetik garrantzitsua iruditzen
zitzaien gure inguruneko tortura argitzeko
bidean hurbilpen zientifiko baten bidez ekar-
pena egitea.

Helburu horrekin eman zitzaion hasiera
proiektu honi. Metodologia atalean alderdi
metodologikoa zehaztu genuen arren, hauek
izan ziren punturik garrantzitsuenak:

- Indarkeria, trauma eta giza eskubideetan formazioa duten eta buru-osasunaren alorrekin lotura duten profesionalen jakintza-alor anitzetako talde bat osatzea. Profilen aniztasunak azterketa aberastu du.
- Elkarrizketak audioan eta bideoan grabatu izanari esker, kanpoko pertsona baten ebaluazioa egin daiteke, eta ostera, elkarrizketan oharkabean pasatu ahal izan diren kontuen analisisa egitea ahalbidetzen du.
- *Dupla* profesionalen bidez, elkarrizketa egin zuen pertsonaren lana bere profil ezberdineko eta Euskal Herritik kanpoko beste pertsona baten lanarekin osatu da. Horri esker, ongi argudiatutako azterketa sendoak egin ahal izan dira.
- Azterketa kanpoko pertsona batek eba-
luatu du eta International Council for the
Rehabilitation of Torture Victims elkarte-
aren bermea jaso du. Horri esker, azterke-
ten kalitatea modu substantzialean area-
gotu da.
- Azterketetatik bereizitako neurriak era-
biltzen dituzten eskala psikometrikoak
erabili dira. Eskala hauek kanpotik eba-
luatu dira.

- Gertaeren azterketaren sinesgarritasuna zehazteko irizpide zorrotzak ezarri dira, eta sinesgarritasun analisiaren jarrera kontserbadorea abiapuntu izanik, kanpoko egiaztapen iturrien triangulazioa exijitu da (dokumentuak, lekuak edo bestelakoak).

Laburbilduz, ikerketa berezia da honako hau, eta orain arte egin direnak kontuan hartuz gero ezberdintasunak agerian gelditzen dira. Ikerketa honek tratatu txar edo torturen salaketan sinesgarritasuna nazioarteko adituen estandarren arabera aztertzen du, horretarako metodologia zatikatua eta erabat itsua erabiltzen du, eta era berean prestakuntza profesional eta zientifiko handia duten kanpo-erakundeen gainbegiraketa zientifikoaren pean burutu da.

Laginaren ezaugarriak eta atxiloketen testuingurua

Guztira, nahita aukeratutako lagina bada ere, adierazgarria da eta tortura-salaketekin lotura duten segurtasun indar guztiak hartzen ditu barne, inkomunikazio epe ezberdinak (egun bakar batetik 10 egunera lehenagoko garaietan) eta militantzia ezberdinak (ETAko kide edo kide liberatuetatik hasita, ezker abertzalearen inguruko militantzia politikoetatik igaro eta inolako lotura politiko edo armaturik ez duen jendera arte). Gainera, generoa, adina, maila sozio-kulturala eta atxiloketa garaia (80. hamarkadatik gaur egun arte) kontuan hartzen duten aldagaiak daude. Espainiako Estatuan egin diren torturaren azterketei dagokienez 45 kasuko azterketa hau aurrekaririk ez duen lorpen garrantzitsua da. Laginaren datuak ez dira atxiloketa urteen arabera modu zuzenean banatzen, aztertutako pertsonen % 65a 2002aren ostean atxilotu zuten. Bi dira zifra horren arrazoiak, alde batetik lagina eskuratzeko izan ditugun erraztasunak eta bestetik, urte horretatik aurrera estatuak "ETAren inguruarekiko" borroka areagotu zuela, eta horretarako, jarrera agertzen diren puntuak erabili zituen:

1) **Sarekada handiak.** 2003ko uztailetik 2005era polizia espainolak zazpi makro-operazio burutu zituen polizia frantsesaren laguntzarekin. Guztira 116 pertsona atxilotu ziren, eta atxiloketa inkomunikatua aplikatu zitzaion. Pertsona gehienek tratatu txarrak eta indarkeriaz beteriko galdeketa pairatu zituztela salatu zuten. Gutxi gorabehera atxilotutako pertsonen erdia libre utzi zuten (fidantzapean kasu batzuetan) eta gainontzekoak espetxe prebentiboan geratu ziren epaiketaren zain. Espetxean 1 eta 3 urte bitartean pasa ondoren, hirutik bi kargurik gabe absolbituak izan ziren.

2) **Atxiloketak gazte erakundeetako kide izateagatik.** Azken urteetan ETAren indarkeria modu esplizituan gaitzesten ez duten alderdi edo erakunde guztiak (gazteenak bereziki) legez kanpo uzteko politika egon da instituzio politiko eta judizialen partetik¹¹⁰. Jarrera hau arlo juridikoan eztabaidagarria bada ere¹¹¹, lan honetan aztertutako pertsonak kide ziren erakundeak legez kanpo utzi dira, eta ondorioz, atxiloketak eta galdeketa pairatu behar izan dituzte. Hala ere, atxilotutako eta inkomunikatutako pertsona gehienek ez zuten sekula ekintza armatuetan parte hartu (eta horrela islatzen da gure lagin fidelean ere, atal bakoitzeko azterketa zein kanpoko kontraste datuetan agertzen den moduan). Are gehiago, burututako azterketako zati handi batek bere burua indarkeriatik aldendu egiten du modu agerian. Lagineko pertsona gehienek kontsideratzen dute ez dutela sekula ETAren egiturarekin harremanik izan, eta ondorioz, zaila egiten zaie atxiloketa, tratatu txarrak, tortura eta kasu batzuetan espetxea asimilatu behar izatea.

¹¹⁰ Partiduen legea da jarrera horren oinarri legala.

¹¹¹ 2007ko urrian espetxe prebentiboan 3 urtez egon ziren hiru gazte absolbitu zituen epaiketan Auzitegi Gorenak honakoa ezarri zuen: «aurretiko jarrera hutsak ez du balio» kolaborazioagatik kondena bat egiteko, «ekarpena objektiboki garrantzitsua izan behar da».

3) **Kale Borroka kontzeptua.** "Kaleko borroka" frankismoaren garaian hasi zen, eta ordutik, mota askotako herri mugimenduek mantendu izan dute haserrea adierazteko modu tradizional hau. Hainbat praktika hartzen dira kontuan kontzeptu horren barruan, harriak edo molotov koktelak hiri-altzarien edo autoen kontra jaurtitzea, barrikadak osatzea, eraikin ofizialetan pintadak egitea, etab. 2005. urtetik Audientzia Nazionalak zehazten du ekintza mota horiek ETAk diseinatutako estrategia baten parte direla, eta ondorioz zentzu honetan burutzen diren atxilotetak "ekintza terroristak" eta "talde terroristako kide" gisa kontsideratzen dira. Kondenak espetxeko 4 urtera arte hel daitezke. Ez dago datu fidagarririk, baina ekintza mota hauekin lotuta azken 20 urteetan 1000 gazte inguru atxilotuak izan direla kalkulatu da.

Euskal Herrian urteetan zehar gertatutako atxiloten artean ezaugarri ezberdinen artean diskriminatzen bada, bi garai ezberdin aipa daitezke (horrela islatzen da gure laginaren ere). Lehena, konstituzioko lehen hamarkadan gertatzen da, gutxi gorabehera 1988. urtera arte. Garai horretan atxilotetak masiboak ziren, torturak etengabekoak ziren, hori baitzen atxilotuaren etorkizuna zehazteko erabiltzen zen metodoa. Kargurik gabe aske geratzen ziren (kasu batzuetan ez ziren epailearen aurretik pasatzen) pertsonen ehunekoak % 80-85 bitartekoak ziren.

Atxiloteta gehienak Guardia Zibilak egiten zituen eta tortura metodo fisikoak erabiltzen zituen (gure azterketan agertzen diren garai horretako atxilotetek erakusten duten moduan), kasu batzuetan metodo basatiak tartean¹¹². Urte horietan Terrorismoaren aurkako Legea (LAT) zegoen indarrean, eta lege horren bidez, atxilotua 10 egunez egon zitekeen inkomunikazio egoeran. Lege hau

indargabetu zenetik epe hori bost egunera murriztu zen. 80. hamarkadaren hasieran funtzionari batzuen aurka irekitako prozedura judizialek erakusten duten moduan, tortura teknikak aztarnak uzten zituzten, eta horiei esker errazagoa zen egilea identifikatzen. Testigantzetan ikusten den moduan, lehen hamarkada horren ostean, segurtasun indarrek metodo hauek eraginkortasun bera zuten beste batzuegatik aldatu zituzten. Azken hauen ebidentziak lortzea zailagoa da.

Testigantzek erakusten duten moduan, azken urteetan metodo fisikoak erabili dira ere, baina ikusi egin daiteke aztarnarik uzten ez duten teknikak erabiltzen hasi direla, esate baterako ingurunearen manipulazioa, presio psikologikoa, lur jota egon arte egiten diren ariketa fisikoak, anoxia, asfixia poltsa erabiliz, umiliazioa, biluztasuna, irainak, etab. Teknika psikologikoei hartu dute protagonismo nagusia (gure azterlanean teknika horiek dira nagusi), eta horien bidez, atxilotuaren nortasuna zalantzan jartzea edo hondamen psikologikoa biltzen da.

Kontatutako gertaeren sinesgarritasuna

Azterlan honen helburu nagusia aztertutako 45 atxilotuen sinesgarritasuna adituen iritzien bidez ebaluatzea zen. Azterketen % 15,6ak sinesgarritasun "sendoa" eskuratu zuten, % 31,1ak "oso sendoa", eta % 53,3ak "sendotasun handiena". Horregatik gure emaitzak nazioarteko hainbat erakunderen txostenetan adierazitakoarekin bat datozela esan dezakegu, eta CPTk Espainian 2011. urtean egin zuen bisitaren ostean adierazi zuen moduan, "adierazpenak sinesgarriak eta sendoak dira", edo torturari buruzko errelatoreak adierazi zuen bezala, "Inkomunikatuta dauden atxilotuen salaketak ezin daitezke gezur huts gisa ulertu". Azterketek sinesgarritasun maila handia erakusten dute, eta zuzenbidezko estatu demokratiko batean desegokiak diren bortxa-teknikak erabiltzen dituzten galdeketen ebidentzia nahikoak daude.

¹¹² Agian, galdeketa baten bitartean gertatu zen Joxeba Arregiren heriotza eta kasuaren nazioarteko oihartzuna izan ziren garaiko adibiderik argiena. Hemerrotekan erraz aurkitu daitezke garaiko txosten eta informazioak.

Azterketek sinesgarritasun maila handia erakusten dute, eta zuzenbidezko estatu demokratiko batean desegokiak diren bortxateknikak erabiltzen dituzten galdeketen ebidentzia nahikoak daude.

2013an Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak egin zuen irizpenaren bidez, Espainia tortura gertaeren azterketa inpartzial, eraginkor eta osoa burutzeko baliabide eraginkor bat eskaintzera behartuta dago. Azterketa honetan 1985etik erabili den Istanbulgo Protokoloa erabili da, eta horrelako egoeretan duen egokitasuna probatu da, metodologia atalean zehazten den moduan. Eskala psikometrikoak erabili dira ere, baina Trauma-osteko Estres Nahasmendua neurtzen duten eskalak eskusiboki erabiltzea ez da nahikoa torturak izan ditzakeen eragin anitzak aztertu ahal izateko. Horregatik beharrezkoa ikusi da eskala osagarriak erabiltzea, eta horien bidez, nortasunaren inpaktua, norberari, munduari eta besteei buruzko ikuskerak, babes sozialaren haustura etab. neurtu dira.

Torturaren dokumentaziorako zailtasunak

Azterlan honetan sinesgarritasun maila handia lortu bada ere, zailtasun handiak daude tortura dokumentatu ahal izateko. Inkomunikazio erregimenak tortura eta tratu txarren existentzia errazten du, eta erregimena bera tratu txar, krudel edo anker gisa kontsideratu daiteke. Atxilotutako pertsonen eskubideen salbuardia eta bermeen gabezia handiak daude atxiloteta mota honetan. Europar Batasunean ez dago horren atxiloteta neurri gogorak dituen herrialderik. Tortura prebenitu ahal izateko, bertako zein nazioarteko kontrolerako erakundeek

behin eta berriro eskatu dute inkomunikazio erregimenaren indargabetzea. Bestalde, hainbat epai judizialek atxiloteta inkomunikatuak duen kontrol "nahikoa eta eraginkorraren" gabezia jaso dute.

Aurrekoarekin batera, kontrolerako erakundeek kezka sakona azaldu dute auzitegiek tortura delituak aztertzeko eta erreprimitzeko duten gelditasun egoeratik, ez delako salaketen behar bezalako azterketa azkarra, independentea, inpartziala eta osoa egiten. Azterketa mediko forentseen gabeziak izan dira atxiloteta inkomunikatuaren bitartean gertatutako eskubideen urraketen errealitatea ezagutzeko egon den beste zailtasun bat. Txosten horiek beste giza eskubideen azterketa edo txosten enpirikoetan erabili izan dira eta guk inpaktu medikoari buruzko atalean aztertu ditugu.

Terrorismoaren aurkako salbuespenezko arautegiak sortzen dituen zailtasunez gain, gaur egungo galdeketa, tratu txar edo tortura teknikak hobetu egin dira, eta ondorioz, zailtasun handiak daude teknika horien egiaztapen objektiboa burutzeko. Zentzu honetan, oso zaila edo ezinezkoa izan daiteke azterlan honetan maiz adierazi diren tratu txarren ebidentzia medikoak eskuratzea.

Tortura eta tratu txarren metodoak

Azterketetan islatutako metodoak aztertzen dituen atalean xehetasunez beteriko analisi zorrotza egiten da, nortasunaren haustura eta hondamena bilatzen duten hogeita hamar teknika ezberdin baino gehiagoren aipamenak agertzen dira. Jasotako datuen arabera egungo panorama osatzen duten teknika horiek, pertsona atxilotuak bere burua errudun adieraztea bilatzen dute.

Aldaketa txikiak onartuz, azterketa gehienetan –salbuespen batzuekin bada ere– zeharka agertzen den galdeketa "egitura mota" bat zehaztu daiteke. Hasiera bi ereduaren arabera banandu daiteke. Alde batetik,

in-crescendo eredu, bertan ez da akusazio zehatzik egiten eta galdeketaren oldarkortasuna zein presio metodoak modu mailakatuarean areagotzen dira atxilotuak bere burua errudun adierazten duen arte. Eta bestetik, uholdearen eredu, bertan tentsio egoera jasanezina eragiten da hasieratik eta pertsonaren babes elementuak desagerrarazi egiten dira pertsonak erruren bat onartu edo beste pertsonaren bat salatzen duen arte.

Bitarteko sesioetan, iraupen luzeko galdeketak isolamendu eta hausnarketarako aldiekin tartekatzen dira, eta horren arabera eredu ezberdinak agertzen dira. Galdeketetan txandak egiten dituzten taldeak deskribatzen dira. Atxilotuak deskribatutako saio estandar batean, pertsonari ez zaio ikusten, gelaren barruan hainbat galdetzaile daude, eta ohi-koak diren tekniken artean honako hauek agertzen dira: anoxia, kolpeak, loaldien ete-naldia, oihuak, etab. Erabiltzen diren metodoetan atxilotuarengan sumatzen denaren arabera hautapena eta progresioa dago. Tekniken progresioa ez da beti berdina, galdetzaileek pertsonaren arabera momentuan bertan erabakitzen dute, pertsonaren hondorapen puntua non dagoen aztertu eta galdeketa haren beldurren arabera eraikitzen dute.

Galdeketak behin eta berriro errepikatzen dira, galdetzaileek deklarazio ofiziala egin daitekeela uste duten arte. Testigantza ia guztien arabera, deklarazioa buruz ikasi behar izaten dute. Batzuetan galdeketak epai-learen aurretik pasa ostean amaitzen dira. Inoiz fidantzapeko edo fidantzarik gabeko askatasuna lortzen du atxilotuak, baina lagin honetan behintzat, kasu gehienetan espetxe prebentibora igarotzen dira. Amaierako elkarrizketa bat deskribatzen da testigantza batzuetan, adiskide-tonuan, eta bertan jada dena amaitu dela esaten diote atxilotuari, ez zegoela beste biderik eta etorkizunerako kontsolamendua, harremana edo kolaborazioa eskaintzen diote.

Aurkitu diren teknika psikologikoen zabalpena eta konbinazioaren ondorioz, kontatutako

gertaerak asmakizunak ez direla pentsatzen dugu berriro ere, eta segurtasun indarrak hezteaz arduratu diren pertsona adituak existitzen direla uste dugu. Aurkitu diren tekniken artean honako hauek daude: kolpeak, entzumenaren eta ikusmenaren manipulazioa, tenperaturaren muturreko aldaketak, denboraren manipulazioa, emozioen higadura, neke fisikoa, beldurra, izua eta ikara, larderia, oldarkortasuna, berehalako heriotzaren pertzepzioa (asfixia edo exekuzio simulazioen bidez), mehatxuak maite duten edo inguruan duten jendeari, sexu eta genero nortasunaren kontrako erasoak, nortasun pertsonal eta sozialaren kontrako erasoak, pertsonari gizatasuna kentzea, pertsona gauza bihurtzea eta iruzur estrategikoak (*deception*) edo behartutako traizioa lortzeko etapa ezberdinetan zatitutako galdeketa sofistikuak.

Aztertutako pertsonen eta erabilitako tortura tekniken profilek bi norabide iradokitzen dituzte. Lehenengoa jada deskribatu izan da, tortura fisikorako teknikak geroz eta gutxiago erabiltzen hasi dira (aztarna uzte duten tortura teknika basatiak) eta nortasunaren hondamena bilatzen duten teknika psikologikoagoak nagusitu dira. Eta bigarrenik, denboran zehar ez da atxilotetaren xedea aldatu. Zentzu honetan, atxilotetak jada ez dira 80. hamarkadan gertatzen zirenak bezain masiboak baina antzeman daitekeen moduan, galdeketa gehienek helburua inguruko jendearen akusazioan oinarritzen dira (argazkiak seinalatu behar izatea edo izen zerrendak aipatzen dira). Azterketa honek argi erakusten du independentziarekiko sinpatia duten eremu sozial osoko pertsonak atxilotu eta galdetu egiten direla, militantzia izan ala ez. Ageriko desadostasuna dago polizia logikaren, logika juridikoaren, gizartearen pertzepzioaren eta atxilotuen pertzepzioaren artean. A priori terrorismoaren aurkako borrokan informazioak eskuratzeko helburuarekin ETaren egiturako elementu giltza diren pertsona batzuen kontrako torturak direla pentsatu zitekeen arren, ez da horrela. Ezker abertzalearen inguruan mugitzen diren pertsonen espektro handi bat barne hartzen ari direla dirudi, geroago pertsona hauek atxilo-

tu eta atxilotu –seinalatu– atxilotu ereduarekin jarraitu ahal izateko. Norberak bere burua errudun adierazteko, neke fisiko eta emozionala bilatzen duten tekniken erabilerak (nahasmendua, behartutako traizioa edo atxilotuaren dilema esate baterako) eragin handia du pertsonaren inpaktu psikologikoan. Polizia eremuan teknika hauek izan zezaketen ustezko eraginkortasuna, tekniken erabiltzen jarraitzeko bermea litzateke, ondorioak minimizatu edo kontuan hartu gabe. Lekukotasun batek dioen moduan, min psikologikoa ez da soilik logika horretako arazo bat, olio bezala zabaltzen da eta horrek desmobilizazioa eta beldurra sortzen du ezker abertzaleko jendearen artean.

Istanbulgo Protokoloak azpimarratzen duen moduan, *“torturak ezinegon handia sortzen du mundu mailan. Bere helburua ez da soilik pertsonaren ongizate fisiko eta psikologikoa erabat suntsitzea, kasu batzuetan, komunitate osoetako borondate eta duintasunak suntsitzen dira ere. Kide guztiengan eragina du gure existentziaren eta etorkizun hobea izateko esperantzen oinarria erasotzen delako.”* Beste modu batean esanda, tortura ez da aberrantea soilik torturatuari eragiten dionarengatik, torturatuzaileak eta hori baimentzen duen sistemak eskuratzen duten estatusagatik baizik. Istanbulgo Protokoloak zera dio: *“Egileak maiz ahalegintzen dira tortura justifikatzen, informazioa eskuratzeko duten beharra aitzakiatzat erabiltzen dute. Ideia horrek torturaren eta haren ondorioen benetako helburua ezkututzen du [...] Biktimari gizatasuna kendu eta haren nahia hondatu egiten denean, torturatuzaileak adibide ikargarria ezartzen du etorkizunean biktimarekin harremanetan jarri nahi dutenentzako. Modu honetan, torturak komunitate osoen nahia eta koherentzia mindu edo hondatu dezake.”*

Inpaktu fisikoa

Inpaktu medikoei dagokienez hiru atal ezberdin baloratu ziren:

- Azterketa mediko forentseen prozeduren salbuardiak, subjektuak elkarrizke-

tetan adierazitakoa modu kualitatiboan aztertuz.

- 45 azterketetan agertzen diren tratu txarren inpaktu fisikoa
- Kasu bakoitzean eskuratu ahal izan zen dokumentazioa (forentseen txostenak, lesioen parteak eta bestelakoak).

Beste azterlan eta txosten zientifikoetan agertu den eta inpaktu medikoen atalean zehazten duen moduan, atxiloketa bitartean ez dira azterketa mediko forentseen prozeduren salbuardiak errespetatzen. Errealitate horrek, ostera, gertaerak dokumentatu ahal izatea zaildu egiten du eta txosten horiek irakurri ostean errealitatearen ikuskera faltsua edo osatugabea izatea justifikatzen du. Txostenak eskasak dira eta bertan ez da inolako tratu txarren islarik egiten, beraz, horietatik tratu txarrak ez daudela ondorioztatu daiteke, baieztapen hori faltsua bada ere. Istanbulgo Protokoloak ere zentzu honetan hurrengoa adierazten du *“(profesionalek) errealitatearen ikuskera faltsua edo osatugabea izan dezakete. Oharkabea gehiago ikusiko ez dituzten atxilotuak arriskuan jarri ditzakete. Egoera hori, gainera, torturatuzaileentzako alibia izan daiteke, kanpoko pertsonen espetxea bisitatu ostean ez baitute salatzeke ezer aurkitu”.*

Elkarrizketatutako pertsonen egindako lekukotasunetan agertu ziren puntu kezagarri nagusiak honako hauek izan ziren: azterketa aurretik atxilotuak mehatxuak jaso zituen tratu txarren berri ez emateko, ostean errepre-saliak pairatu behar izan zituzten atxilotuen kasuak, azterketetan atxilotuek ez zuten pribatutasunik izan, konfiantza falta eta ondorioz tratu txarrak kontatzeko beldurra, eta mediku forentseak ez zuten bere burua behar bezala aurkeztu.

45 azterketen analisi kualitatiboak erakutsi zuten moduan mina da sintoma nagusia. Pertsona batzuek buruko edo gorputzeko minak, azaleko lesio traumatikoak, bizkar-hezurreko sintomatologia, giharretako minarekin lotura zuten minak, neka, etab. adierazi

zituzten. "Poltsa" tortura teknikaren erabilerrari dagokionez, kasu guztietan asfisia sintomatologia deskribatu zen, eta kasu batzuetan, konortea galtzea, goragaleak edo botaka egitea edo, gernu-inkontinentzia. Adierazpen hauek, ikus daitezkeen marka fisiko gutxi uzten dituzte, eta ondorioz, lesio objektiboekin lortu diren erreferentziak urriak dira.

Material gehigarri gisa kasu bakoitzetik eskuratu ahal izan genuen dokumentazio medikoa aztertu zen (txosten forentseak, lesioen parteak eta bestelakoak). Eskuratutako txostenak aztertu ostean, inkomunikazio bitartean tratatu txarrak gertatu izanaren probabilitatea adierazten zuten elementuak zehazki ondorioztatu zen: kasuen % 83an tratatu txarren adierazpenak jaso ziren; kasuen % 50ean adierazitako tratatu txarrekin lotura izan zezakeen sintoma fisikoren bat deskribatzen da; % 66an sintoma psikologikoak deskribatzen dira; eta % 58an indarkeria aztarnaren bat agertzen da atxilotuaren gorputzeko azterketan. Dokumentu gehienak eskasak izan ziren elementu gako gisa tratatu txarren balorazioa egin ahal izateko.

Inpaktu psikologikoa

Torturak botere suntsitzaile garrantzitsua du, pertsona bere nortasun soziala eta pertsonala zalantzan jartzeko muturreko egoeretara eramaten du. Aztertutako pertsonen testigantzek hori erakusten dute: tratatu txarrek eragindako edo gertaerekin lotura duten diagnosi psikiatrikoen arabera, momenturen batean, aztertuen % 53ak trauma osteko estresaren adierazgarriak azaldu ditu, % 13,4ak nahasmendu depresiboa, % 6,7 antsietate nahasmendua eta ehuneko antzeko batek nahasmendu somatoformea. % 8,9ari Nortasunaren Eraldaketa Iraunkorraren diagnosia egin zaio.

Garai bateko diagnostikoetan jarri ordez, arreta gaur egungo egoeran jartzen badugu (batez beste 10 urte pasa dira atxiloteta eta elkarrizketaren bitartean), harrigarria da ikustea eskala psikometrikoak erabiliz, azter-

Torturak, pertsona bere nortasun soziala eta pertsonala zalantzan jartzeko muturreko egoeretara eramaten du.

tutako pertsonen % 24,1ari trauma-osteko estresaren diagnosia egin dakiokela. Eta nahiz eta nahasmendu osoa ez izan, pertsona batzuek sintomak dituzte oraindik ere: % 36ak irudi mingarriak ditu oraindik eta % 54a gaizki sentitzen da gertaerak oroitzen dituzte. % 27ak gertatutakoaren inguruan hitz egitea saihesten du, lautik batek lehenago interesgarriak iruditzen zitzaizkion gauzekiko interesa galdu du, hirutik batek etorkizuna moztu ziotela edo jendearengandik urrun dagoela sentitzen du. % 34ak lo egiteko edo kontzentratzeko zailtasunak izaten ditu.

Gaur egun, ia aztertutako pertsonen herenak tristura edo depresio sintoma ertain edo larriak ditu.

Diagnosi psikiatrikoen gain torturaren ondorio diren beste inpaktu psikologiko batzuk aurkitu dira, eta batez ere munduko a priori onarpenak eraldatzearekin lotuta daude, hau da, pertsona hauek gertatutakoari zentzua bilatzeko erronkari aurre egin behar diote, zentzua duen azalpen bat bilatu behar dute, eta bizipenarekin bat datorren euren, jendea-ri zentzua munduari buruzko beste ikuskera bat osatu behar dute. Aztertutako pertsonen herenak baino gehiagok zailtasunak ditu hori egiteko.

Nortasunarekin harremana duten sintoma garrantzitsuenetako batzuk honako hauek dira: munduaren ikuskera negatiboagoa, bizitzak zentzurik ez duela pentsatzea, gizakiarekiko konfiantza galtzea, gertatutakoari bueltak emateko joera, gertaeren bitarteko blokeo

sentsazioa, pertsonak dituen sentimendu negatiboekiko ukapena, babes sozialaren gabezia, esperantzarik ez izatea, proiektu politiko eta sozial baten haustura, gertuko pertsona batzuekiko haustura... Aipatutako guztiak nortasunari eginiko kaltearen adierazleak dira. Estatistikoki haietako lauk mina lokalizatzen hobeto laguntzen dute (inpaktuei dagokion atalean deskribatzen den moduan): pertsona hauek hein handiago batean, blokeoak sufritu eta babes gutxiago jaso zuten pertsonak dira, atxilotetaren egunetan ez zuten erantzuten jakin, eta beraz sufrimendua alferrikakoa izan zela uste dute. Haientzako, gertatutakoa kontatzea ez da soilik kontu garrantzitsu bat, egin behar duten ekintza bat baizik. Pertsonaren nortasunari egiten zaizkion minak atzeraezinak izan daitezke, Nortasunaren Eraldaketa Iraunkorraren kasua esaterako. Aurrez pertsonarengan existitzen ez ziren ezaugarrien presentzia izan da bereziki diagnosia osatzeko oinarria, hala nola, munduarekiko mesfidantza edo areriotasuna, isolamendu soziala, hutsik sentitzea, etsipena, uneoro "mugan" bizitzearen sentsazioa (bizitzaren kontrako etengabeko mehatxu bat egongo balitz bezala) edo norberarekiko sentitzen den harridura. Aztertutako 12 pertsonetatik bat nahasmendu honen baitan kokatzen da, eta honek sortzen duen mina epe luzekoa edo iraunkorra dela kontsideratzen da.

Sintoma, diagnosi psikiatriko eta nortasunaren aldaketekin batera, pertsonaren erruduntasun sentimenduak aipatu behar dira. Sentimendu hauek izaera suntsitzailea dute eta batzuetan, behartutako hautapenak egi-teagatik adibidez, laginaren % 10a hartzen dute. Gizonen kasuan erresistentzia gehiago egin ez izanagatik agertzen da errudun sentimendua, eta emakumeen kasuan, ordea, konturatu ez izanagatik, azkarragoa ez izanagatik, edo senideak eta inguruko pertsonak babestu ezin izanagatik. Ikuspuntu orokor batetik begiratuta, emakumeek errudun sentitzeko gizonen baino joera handiagoa dutela ikus daiteke. Beste batzuk babestu izanagatik sortzen den errua denboran zehar desagertu egiten da gizonen kasuan, emakumeen % 45ak ordea, mantendu egiten du.

Gure emaitzak bat datoz 1985ean Petersen eta Jacobsenen aurkeztu zuten txostenarekin. Txosten horretan min nagusiak psikologikoak zirela aipatzen zen, artean depresioa, antsietatea, labilitate emozionala, lo egiteko gaitasun urria, amesgaiztoak, kontzentrazioaren eta memoriaren narriadura aurkitu zituzten.

Kongruentzia handia dago aipatutako tortura metodo eta hauek sortutako inpaktuen artean. Testigantzen sinesgarritasunaren eta azterketen egiazkotasunaren beste berme bat da hori. Aipatutako kongruentzia ez da soilik ageriko gaietan agertzen (amesgaiztoak, beldurra, etab.), pairatutako egoera, VIVO galdetegiko hainbat ataletan islatuta geratu da. Eskala hau oso garrantzitsua da afekzio gehien pairatzen duten pertsonak zehaztu ahal izateko. Bere baitan tortura saioei buruz pertsona berak egindako korrelatu narratibo asko biltzen ditu; edo erruduntasuna eta behartutako traizioa bilatzen zuten teknika psikologikoak. Galdeketa honetan puntuaziorik altuenak beste pertsona batzuk babestu ez izanak edo behartutako hautapenek sortutako erruengatik izan dira.

Erreparazioa

Lehen mailako helburuetako bat ez zen arren, elkarrizketen baitan pertsonak beharrezkotzat jotzen zituzten erreparazio neurriei buruz galdetu zen.

Torturak jasan zituzten pertsonentzako, gertaerak onartzea litzateke erreparazio neurri nagusi eta premiazkoena, tortura existitzen dela aitortzea eta behin betiko praktika honi amaiera ematea, eurek sufritu dutena eta sufritzen ari direna inork gehiagok sufritu behar ez izateko. Kontu ezaguna da kasu askotan, esperientzia traumatikoa baino, gizartearen ukazioa dela min handiena sortzen duena. Gizarteak ez ditu gertaera horiek baliozkotzen, eta ondorioz, torturaren mina pribatu bihurtzen da. Aztertu batzuek gezurtiak zirela edo gezurrak esaten ari zirela jasan behar izan zuten. Akusazio horiek estamentu politikoetatik

(instituzioetako ordezkariak kasu), gobernuaren edo gobernuz kanpoko biktimen arretarako bulegoetatik eta agintari judizial (bizikidetzarako ingurune legalaren ordezkariak) edo mediatikoen (oihartzun sozial inplizitua) ahotik atera ziren. Gizartearen sektore zabal batek "zerbait egingo zuen" ideia barneratu du (beste albo batera begiratzen ahalegin du den jendearentzako babesgunea izan da ideia hori). Pertsonak atxiloketa bera gertatu ezin zitekeen kontu gisa ulertzen badu, ulertezina den horren aurrean bakarrik sentitzea oraindik traumatikoagoa eta mingarriagoa da. Beraz, premiazko erreparazio neurri gisa, torturaren inguruan egon den engainua desagitea aho batez aldarrikatu eta exijitzen dute torturaren biktimek.

Zentzu sozialago batean, aztertutako pertsonen arduradunentzako zigor morala eskatzen dute, eta tortura indargabetzeko bidean, anbiguotasunik gabeko jarrera instituzional ausarta egotea eskatzen dute. Pertsona hauek beharrezkoa ikusten dute indarkeriaren eragina pairatu duten gertuko jendeak ere (senideak bereziki) onarpena jasotzea.

Erreparazioari dagokionez, azterlan honek plazaratutako datuen arabera, garrantzia handia eman behar zaio arreta psikosozialari eta norbanakoaren, familiaren edo komunitatearen errehabilitazio neurriari. Indarkeriaren erruz, kalte pertsonal zein psikologiko handiak ordaintzen ari den gizarte baten aurrean gaude, eta ondorioz, beharrezkoa izango da gaiari modu zabal, integral eta sakonean heltzea. Urraketa hauek dituzten ezaugarri politiko, garrantzia eta erantzun instituzionalen eraginez, norbanakoaren mina ezin da ikuspuntu sozialetik banandu, eta beraz, errehabilitazio neurriak psikiatria klinikotik harago joan beharko dira, izaera gizatiar eta sozialean sakondu beharko da esperientziei zentzua ezarri eta prozesua gauzatu ahal izateko. Azterlan honetan horretarako orientazio asko ematen dira, batez ere mekanismo eta inpaktuei buruzko ataletan. Prozesua jakintza-alor ezberdinetako koordinazioarekin burutu behar da, eta barnean buru-osasunaren adituak, politikariak, justizia eta gizarte

eragileak egon behar dira. Gure gizartearen berreraikitze eta erreparazio politika zintzo bat osatzeko elkarlana egin beharko genuke.

Harrigarriak dira amorru eta gorroto sentimenduei eta barkatzeko zailtasunei dagozkien datuak. Eta errealitate hori abiapuntu izanik xehetasunez beteriko hausnarketa egin behar da. Datu horiek, sortutako min sozial sakona eta justizia ezaren pertzepzioa islatzen dute. Ezinezkoa da sentimendu horiek ulertzea biktimek bizi izan duten minaren ukazio sozialari edo hutsuneari arretarik ipini gabe. Pertsona batzuek, gatazkaren sustraiak bere horretan jarraitzen duten pertzepzioa dute, ez dela belaunaldiz belaunaldi mantentzen diren kezka eta sentimenduak bideratzeko konponbide politikorik aurkitu, alegia. Ondorioz, erreparazioa eta errehabilitazioa egin ahal izateko gatazkaren arrazoiak ulertu behar dira, ezin da egungo testuingurua garaile eta garaituen arteko banaketa bezala interpretatu. Hitz egitea eta eztabaidatzea ahalbidetzen duten gunen sozial inklusibo berriak sortu behar dira eta herrien gehiengoaren borondateak modu demokratikoan azaldu ahal izateko espazioak eraiki behar dira, euskal gizartearen gehiengoak aho batez baztertzen duen indarkeriaren bitartekoa erabili gabe.

Gertaerak ez errepikatzeko bermeak erreparaziorako eskubidearen parte dira. Lehenago azaldu den moduan, inkomunikazio erregimenak atxilotuen abusua ahalbidetzen duela ulertzen dugu. Legearen aldaketak eman behar direla uste dugu, horretarako administrazioaren, legearen eta segurtasun indarren prozedurak abiarazi behar dira aldaketa instituzionalak burutu ahal izateko. Aldi berean, atxiloketa prozesuak gainbegiratu eta kontrolatzeko mekanismoak jarri behar dira martxan, eta horretarako giza eskubideen nazioarteko legerian heziketa duten adituak behar dira. Zentzu honetan, adierazgarria da Estatu Espainoleko Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalak (egun Herriaren Defendatzailea da honen arduraduna), atxiloketa inkomunikatuan gertatzen diren tratu txarren kasuak aztertu ez

izana. Inkomunikazioa da zalantzarik gabe, Estatuan torturaren prebentzioarekin lotuta dagoen eta nazioartean ezagunena den elementua.

Azterlan hau memoria kolektiboa osatzen joateko, iragana berreraikitze eta ez errepikatzeko bermeak izango dituen elkartasunezko memoria barneratzaile bat eratze-ko baliagarria izatea espero dugu. Honako hauek dira biktimen tratuan kontuan hartu behar diren oinarritzko alderdiak, minik ez egitea, ber-biktimizazioa saihestea (babesa eta gune seguruak eskaini behar dira), bigarren mailako biktimizazioa saihestea, biktimen mina errespetatzea eta kolaborazioan eta elkartasunean oinarritutako harreman gune ezberdin bat eskaintzea. Aldi berean, errealitate guztiak kontuan hartzen dituen elkar ulermenerako dinamikak sustatu eta biktimak lagundu ahal izateko gune psiko-sozialak eratu behar dira, inolako biktimarik isolatu edo zokoratu gabe. Gertatutakoaz hitz egiteko gune bat ireki eta minari legitimazioa eman behar zaio; horrenbeste desiratzen dugun bakearen bidean pausuak eman ahal izateko, ezberdintasunak ulertu eta norbanako zein taldekako eskubide guztiak onartu behar dira.

Gomendioak

1. Estatuari

1.1. Giza eskubideen politika. Beharrezkoa da tortura eta harekin lotutako urraketak prebenitu, erauzi eta zigortzeko Espainiako Estatuak giza eskubideekin eta zuzenbide humanitarioarekin lotura duen politika bat ezartzea. Zentzu honetan, Espainiako parlamentuak onartutako Giza Eskubideen Plan Nazionala behar bezala betetzeko eta torturaren auzian sakontzeko eskatzen zaio gobernuari.

1.2. Atxiloketa inkomunikatua. Prozedura Kriminalaren Legeari dagokionez, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak eta nazioarteko beste

Azterlan hau memoria kolektiboa osatzen joateko, iragana berreraikitze eta ez errepikatzeko bermeak izango dituen elkartasunezko memoria barneratzaile bat eratze-ko baliagarria izatea espero dugu.

erakunde batzuek eginiko gomendioak bete eta atxiloketa inkomunikatuaren erregimena indargabetzea, lege honek tortura ahalbidetu eta biktimaren babes eta erreparazioa zailtzen dituelako. Guk ere, Nazio Batuen torturari buruzko errelatoreak bere txostenean esan zuen moduan, inkomunikazioa bera tratatu txar, krudel edo iraingarria izan daitekeela uste dugu.

1.3. Atxiloketa inkomunikatua – II. Inkomunikazioa indargabetzen ez den bitartean nazioarteko erakundeek eginiko gomendioak aplikatu behar dira gutxienez:

1.3.1. Inkomunikazioaldian senideek atxilotuak non dauden jakiteko aukera izatea.

1.3.2. Galdeketa oro bertan dauden pertsonen aurkezpenarekin hastea, eta atxilotuei begiak estali edo kaputxa jartzea debekatzea.

1.3.3. Abokatu baten asistentzia egokia izateko eta berarekin elkarrizketa modu pribatuan egitea bermatzea.

1.3.4. Galdeketaren saio guztiak bideoz grabatzea. Bideoetan, bertan dauden guztien identitatea agertu behar da eta grabazio horiek modu publikoan salaketa edo erreklamazioak egiteko eskura egotea bermatu behar da.

1.3.5. Instrukzio epaileak hautatutako auzi medikuarekin batera atxilotuaren

konfiantzazko medikuarekin egoteko aukera edukitzea.

1.4. Egiazta daitezkeen informazioaren sistema estatistikoa. Gerta daitezkeen tortura edo tratu txarren prozesuen egoera judizialaren berri ematen duen informazio sistema bat existitzea, eta horrek behar bezala funtzionatzeko konpromisoa garrantzia handikoa da. Halaber, gertaeren zigor, ikerketa eta dokumentazioarekin erlazioa duten eta instituzioek ezagutzen dituzten tortura kasuen informazioa batzen duen sistema bat osatu behar du Estatuak. Sistema horrek, kalteberatasun egoeran dauden gizarte sektoreen osotasun pertsonalaren kontra egiten duten arrisku-faktoreak eta urraketak identifikatzeko aldagaiak izan beharko ditu.

1.5. Ikerketa eraginkorra. Gizartearen sektore guztiak ordezkatzen dituzten pertsonekin, atxiloketa inkomunikatuaren testuinguruan egindako salaketei buruzko ikerketa ofizial bat egitea.

2. Izaera legegilea eta judiziala duten erakundeei

2.1. "Tratu txarrak" edo "tortura" gertaerak kontuan hartzea. Erakunde judizialek tortura psikologikoa, tortura fisikoaren baitako gertaera edo giza eskubideen beste urraketaren ondorioa balitz bezala aztertu beharrean, pausu bat gehiago eman behar du. Datuek erakusten dutenaren arabera, min fisikoa eta tortura lotzea desegokia izateaz gain, nahasgarria izan daiteke. Azterketa honek erakusten duen moduan, tratu txarren eta torturaren eragin nagusiak ez dira min fisikoarekin lotzen, izaera psikologikoa duten teknikekin baizik.

2.2. Indarkeriaz eginiko galdeketaen inguruan. Aztertutako tortura metodoek adierazten duten moduan, norberak bere burua errudun adierazteko, teknika

psikologiko intentsiboak erabiltzen dira. Batzuetan teknika horiek, orokorrean aztarnarik uzten ez duen tortura fisikoarekin (behartutako jarrerak edo ariketa-fisiko nekagarriak adibidez) batera erabiltzen dira. Horregatik, indarkeriaz eginiko galdeketa mugeri buruzko eztabaida sakona egin behar da, eta ez eremu legegileko adituekin bakarrik, polizia, medikuntza, psikologia eta bestelako alorretako adituak egon behar dira ere. Txosten honetan zehaztu diren eta Estatuan legalak diren praktika asko, ilegalak dira aitorten faltsuetarako salbagueardia gehiago dituzten Europako beste herrialde batzuetan. Garrantzitsua da, beraz, eztabaida irekitzea eta, salaketak edo okerrak saihestu ahal izateko, hiritarren nahiz segurtasun indarren bermeetan sakondu eta aurrera egitea. Eztabaida honen emaitzak Estatuako segurtasunaren praxian txertatu beharko dira.

3. Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalaren ardura duen Herriaren Defendatzaileari

3.1. Txosten honek eta aurretik beste batzuek islatu dituzten atxiloketa inkomunikatutako tratu txarrak eta torturak, dagoen metodologia zientifikorik egokiena erabiliz **aztertzea**.

3.2. Anlisi instituzionala eta gomendioak. Txosten honek aurkeztutako puntuak eta bere kabuz eskuratu zitezkeen datuak abiapuntu izanik, erakunde honi egokiak iruditzen zaizkion lege erreformak proposatzea.

3.3. Erakunde publikoetako mediku forentseek **tortura eta tratu txarren dokumentazioan izan dituzten gabeziak aztertzea**.

3.4. Istanbulgo Protokoloaren erabilpena sustatzea, tratu txarren eta torturaren ebaluazio judiziala eta sanitarioa egiteko lanabes estandar gisa.

3.5. Estatuaren segurtasun indarren baitan, *giza eskubideen etengabeko formakuntza eta kode etikoen hobekuntza sustatzea*.

4. Torturaren dokumentazioari dagokionez

4.1. Etorkizuneko ikerketak. Proiektu honetan erabili den metodologia (beharrezkoak diren modifikazio eta doikuntzekin), etorkizunean torturen salaketen sinesgarritasuna ikertzen duten beste ikerketa batzuentzako, (Eusko Jaurlaritzaren azken txostenean proposatu dena esate baterako) lanabesa edo proiektu pilotua izan liteke. Gure esperientziatik abiatuz, ikerketa horretako antolatzaileek honakoa txertatu beharko lukete:

1. Informazio dokumentala jasotzeaz arduratzen den jendea¹¹³.
2. Istanbulgo Protokoloan trebatuta dauden eta formazio klinikoa duen psikologoak. Trauma-osteko estresa bakarrik kontuan hartzen ez duten elkarrizketa eta galdeketa psikometrikoen erabilera (nortasunaren, norberaren, munduaren eta besteen ikuskeraren, ehun sozialaren haustura etab. neurtzen duten eskalak, lan honetan erabili direnak bezalakoak).

3. Existitzen den dokumentazio medikoaren ebaluazio forentsea.

4. Datuen multzoak dokumentu historikoen iturriekin eta testuinguruarekin duten kontrastea balora dezaketen legelariak.

5. Istanbulgo Protokoloaren irizpideak kontuan hartuz, jakintza-alor ezberdinetako pertsonen balorazio bateratua.

4.2. Kasuen dokumentazioa. Hala nahi duenarentzako, eta torturatua izan den garaia kontuan hartu gabe, Istanbulgo Protokoloaren arabera aztertua izateko aukerak ematea, eta horretarako, taldeak osatzea (edo existitzen direnak formakuntzaz hornitzea) eta xedapenak egitea gomendatzen da.

4.3. Generoa. Atxilotutako pertsonen generoa eta sexuaren arabera erabilitako tortura mekanismoak eta horien inpaktu psikosoziala aztertzen duten azterketa sakonak egitea gomendatzen da. Horien bidez, inkomunikazio eta tortura pairatu duten emakumeek izan ditzaketen behar eta sintoma bereizgarrien araberako erreparazio neurri psikosozialak ezarri ahalko dira.

5. Justiziari dagokionez

5.1. Estatuaren zigor administratibo eta / edo penalerako akzioak. Ezinezkoa da adiskidetzerako biderik eraiki justizia ariketa eraginkor bat egiten ez bada. Horretarako, berriro ez errepikatzeko bermeen baitan, biktimek sufritutako minak erreparatu eta egileak zigortu behar dira, inpunitateari amaiera emateko. Gomendagarria litzateke administrazioak eta Estatuko Segurtasun Indarren gainbegiraketa eta kontrola egiten duten organoek hala eskatuta barneko ikerketa prozesuak abiaraztea, eta legea urratzen duten ekintza desegokien ebidentzia nahikoa dagoen kasuetan Fiskaltza agertzea.

¹¹³ Datuen kontrasterako honako kanpo-iturriak proposatzen dira: Salaketa judiziala egon zen kasuetan, tortura-salaketen diligentzien txosten judizialean zegoen dokumentazioa. Giza eskubideen erakundearen aurrean egindako salaketetan edota salaketa publiko edo judizialean agertzen diren tortura / tratu txarren adierazpenen testigantzak. Instrukzioko epaile nagusiaren aurrean eginiko oinarriko eskubideen urraketen adierazpenak. Kasuarekin zerikusia duten eta inkomunikazio bitartean edo beste edozein garaian idatziriko txosten mediko-forentseak. Osasun zerbitzuetako, ospitaleetako, espetxeetako... atxilotuta bitarteko nahiz osteko agiri mediko edo psikologikoak, eta lesio edo arrastoei buruzko informazioa gehitu zezakeen edozein proba edo dokumentazio medikoa. Giza eskubideen nahiz biktimen erakundearen zein instituzio publikoen ikerkuntza dokumentala. Gertakizunen lekuko izan zitezkeen pertsonen elkarrizketen balorazioa. Giza eskubideen nahiz biktimen erakundeekin zein instituzio publikoekin eginiko elkarrizketen balorazioa.

5.2. Ekintza legalak. Azterketa honek sortu dituen dokumentuak izaera legala duten dokumentu forentseak dira. Aztertutako pertsonak, beraz, modu pertsonalean arduradunen kontrako ekintza legalak hasteko, edo autoritateek gertaerak modu eraginkorrean aztertu ez izanagatik salaketa egiteko aukera dute.

6. Erreparazio neurriak

6.1. Estatuak inolako diskriminaziorik egin gabe tortura biktimen erreparazio integralerako eskubidea bermatu behar du. Azterketa honetan parte hartu duten pertsonentzako egiaren aitortza eta ez errepikatzeko bermeak dira neurririk garrantzitsuenak.

6.2. Erreparazio sinbolikoa burutzeko neurriak sustatu behar dira. Biktimen ustez garrantzitsuenak diren neurri sinbolikoak ezarri ahal izateko, aurretik prozesu bat egin behar dela erakusten du azterketa honek. Zentzu horretan, hainbat sentsibilitate existitzen dira.

6.3. Azterketa honetan parte hartu duten biktimentzako lehentasunezkoa ez bada ere, sufritu duten mina eta delituaren larritasunarekin bat datozen neurri ekonomikoak hartzeko bideragarritasuna kontsideratu behar da. Horren arabera, (a) tortura eta tratu txarren kalte-ordainak zehazteko delituaren larritasuna, sufritutako minak (min fisikoa, psikikoa, morala, materiala, ekonomia eta aukearen galera, eta arreta juridiko edo medikoaren gastuak) eta delitua burutu eta kalte-ordainak jaso artean igaro den denbora aintzat hartzen dituzten irizpidiak ezarri behar dira. (b) Biktimak lehendabiziko kondena-epaiaren ostean jasoko ditu kalte-ordainak, epai egonkorra eta kalte-ordainetarako aurrekontua itxaroten duen bitartean.

Azterketa honetan parte hartu duten pertsonentzako egiaren aitortza eta ez errepikatzeko bermeak dira neurririk garrantzitsuenak.

7. Biktimen arretari dagokionez: errehabilitazio mediko eta psikologikorako neurriak

7.1. Biktimentzako arreta psikologikoa eskaintzen duten egiturak garatu behar dira eta bertan, protokoloak garatzeaz gain, babes teknikoa edo gainbegiraketa eskainiko zaio biktimen buru-osasunaz edo lehen mailako osasunaz arduratzen diren taldeei. Talde hauek arreta pertsonala edo taldekoa (zailtasun handiko kasuetan) eskainiko diote biktimari.

7.2. Egiaren bilaketa, azterketa eta gertatutakoa argitzeko prozesu guztiak, pertsonen zaintza eta akonpainamendu psikosozialerako neurriekin batera egin behar dira, pertsonen bir-traumatizazioa eragotzi ahal izateko.

Argitalpena eta itzulpena Eusko Jaularitzak finantziatua.

